

Jagon bilduma

Argitaratutako lanak / Títulos publicados:

1. *Bertsolari txapelketa 1982*. 1983
2. ZZ.EE./AA.VV.
Iparragirre. 1987
3. *Euskararen sustatzea*.
Euskaltzaindiaren adierazpenak (1976-2006), 2006
4. MIQUEL GROS i LLADÓS
Recuperación del Euskera en Navarra. 2007
5. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Sustapen Batzordea
Hizkuntza-zuzenbidea. Testu-bilduma euskaraz. 2007
6. EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA/
EUSKALTZAINDIA
Zenbait orientabide erregistroen trataeraz. 2008
7. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Corpus Batzordea
Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa. 2008
8. MIQUEL GROS i LLADÓS
El euskera en la Comunidad Autónoma Vasca (2009). 2009
9. ERRAMUN BAXOK ETA JEAN-BAPTISTE COYOS
Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian. L'enseignement du basque aux adultes natifs et non natifs en Pays Basque Nord. 2010
10. EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK. EUSKALTZAINDIA
Ikastola mugimendua. Dabilen herria. 2010



Hizkuntzaren erabileran eragina duten gizartearen alde guztiak biltzen ditu JAGON Sailak, bai eta hiztunek bizi dituzten kultura arauak, itzaropenak eta testuingurua ere. Euskaltzaindiaren Jagon Saileko *JAGON bildumak* euskararen inguruko hainbat ikerketa eta saiakera hartzen ditu, hizkuntzaren erabilera praktikoa aztertu, eta euskara sustatzeko eta babesteko.



Euskaltzaindia
Real Academia de la Lengua Vasca
Académie de la Langue Basque




Ikastola mugimendua. Dabilen herria. Ikastola eredua 1960-2010



10

Euskal Herriko Ikastolak
Euskaltzaindia

Ikastola mugimendua Dabilen herria Ikastola eredua 1960-2010



EUSKALTZAINDIA



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE




2008an erregistroen trataeraz egindako argitalpenaren segidan, Euskaltzaindiaren eta Ikastolen Elkartearen arteko lankidetzaren emaitza berria da oraingo liburu hau. Bertan ikastolen historiari buruz behin ere baliatu ez den ikuspegitik ikastolen izaera kolektiboa behatu eta kontatu nahi da, ikastolen eta gizartearen arteko elkarrekintzarekin batera. Ikastolen historia sozialaren saioa da, alegia. Luckmanek zioenez: "Ekintzak ez du beti historia egiten, baina gizartea 'egiten' du; ekintza, izan ere, ekoizpena da, ugalketa eta komunikazioa; ekintzak boterea ematen du eta botereari kontrajartzen zaio; ezbairik gabe, ekintza da gizakiaren izaera sozialaren funtsezko adierazpena".





EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK
EUSKALTZAINDIA

IKASTOLA MUGIMENDUA
DABILEN HERRIA
IKASTOLA eredia 1960-2010

Iturri zaharretik
edaten dut.
 Ur berria edaten,
beti berri den ura
betiko iturri zaharretik.

Joxan Artze



EGILE NAGUSIA:
Iban Iza
(EREITEN)

TESTU BATERATZAILEA ETA EGOKITZAILEA:
Euskal Herriko Ikastolak

TESTUAREN ORRAZKETA:
Alberto Barandiaran (Alberdania)

Esker bereziak EREITENi
eta EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK europar kooperatiba elkartearen
lankideei ohar eta iritziengatik



EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK
EUSKALTZAINDIA

IKASTOLA MUGIMENDUA
DABILEN HERRIA

Ikastola eredia 1960-2010



EUSKALTZAINDIA

BILBO / BILBAO
2010



Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

www.euskaltzaindia.net/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.net/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

www.euskaltzaindia.net/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.net/azkue

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

© EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK ^{EKE}
© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Diseinua: Ikeder, S.L.
Maketazioa: Txema Garzia Urbina
Aurreinprimatzea: Ikur, S.A.
Inprimatzea: Baster, S.L.L.

ISBN: 978-84-95438-64-5
Lege-gordailua: BI-238I-2010



EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK
EUSKALTZAINDIA

IKASTOLA MUGIMENDUA
DABILEN HERRIA

IKASTOLA eredia 1960-2010





AURKIBIDEA

AITZINSOLASA	
Andres Iñigo (Euskaltzaindiko Jagon sailburua)	I4
SARRERA	
Koldo Tellitu (Ikastolen Elkartearen lehendakaria)	I6
I. AURREKARIAK	I9
I.1. LEHEN SAIOAK, XIX. MENDEAN ETA XX. MENDEAREN HASIERAN	I9
I.1.1. Resurreccion Maria Azkue eta Miguel Muñoa	20
I.1.2. Eusko Ikaskuntzaren batzarra	20
I.1.3. Eusko Ikastola Batza	21
I.2. IKASTOLEN PIZKUNDEA, XX. MENDEAREN ERDIALDEAN ...	22
I.2.1. Haur euskaldunentzako sariketak Nafarroan	23
I.2.2. <i>Umeen Deia</i> eta <i>Kili-kili</i> aldizkariak	23
I.2.3. IKAS elkartearen sorrera Baionan	24
I.2.4. Elbira Zipitria eta etxe-eskolak	24
2. IKASTOLEN SORRERAK (1959/60-1969)	31
2.1. IKASTOLAK SORTU ZIRENEKO TESTUINGURUA	31
2.2. IKASTOLAK SORTZEKO ARRAZOIAK	36
2.3. IKASTOLAK SORTZEKO FAKTOREAK	37
2.4. IKASTOLEN SORTZE PROZESUA	39
2.4.1. Lehen ikastolak lurraldez lurralde	39
2.4.2. Ikastolak Ipar Euskal Herrian	41
2.4.3. Ikastolak Arabako eta Nafarroako nekazaritza-industria giroetan	44
2.5. IKASTOLAREN EZAUGARRIAK	45
2.5.1. Hiri fenomenoak	45
2.5.2. Abertzaletasunaren altzoan sorturikoa	45

2.5.3. Herritik eta herrirako sorturiko eskola	46
2.5.4. Partaidetza sozialeko eskolak	47
2.5.5. Haur eskola	48
2.5.6. Sexu bereizketarik ez	48
2.5.7. Pedagogia berritzailea	48
2.5.8. Euskarazko eskola	48
2.5.9. Curriculum propioa	49
2.6. ARAZOEN AURREAN, ELKARLANA	50
2.6.1. Diru eta azpiegitura falta	51
2.6.2. Irakasle falta	51
2.6.3. Bilatze lan iraunkorra	53
2.6.4. Eskolatze libreta	55
2.6.5. Ikastola Batzordea	57
3. BAKANTASUNETIK BATASUNERA (1969-1978)	61
3.1. TESTUINGURUA	61
3.2. GIPUZKOAKO FEDERAZIOAREN SORRERA	62
3.3. GATAZKA IDEOLOGIKOA IKASTOLETAN	64
3.3.1. Norenak dira ikastolak?	65
3.3.2. Ikastoletan, erlijioa bai al ez?	66
3.3.3. Ikastoletan, euskara batua ala euskalkiak?	66
3.3.4. Ikastolak, apolitikoak?	68
3.3.5. Ikastolak, burgesak?	68
3.3.6. Gatazka ideologikoaren ondorioak	69
3.3.7. Gatazkaren zergatiak	71
3.4. 1970EKO HEZKUNTZA LEGEA ETA LEGEZTAPENAK	71
3.4.1. Legearen edukiak	72
3.4.2. Legearen eragina ikastoletan	72
3.4.3. Euskadiko Kutxako Ikastolen Saila	73
3.4.4. Kooperatiba, ikastolen formula juridikoa	75
3.5. HAZKUNDEAREN "BOOM"-A	77
3.5.1. Gainerako federazioen sorrera: Bizkaia, Nafarroa eta Araba	77
3.5.2. Ikastolak Arabako eta Nafarroako nekazaritza-industria giroetan	80
3.5.3. Lehen Hezkuntzako ikastolen zabalpena Ipar Euskal Herrian	83
3.6. IKASTOLEN ALDEKO FESTAK	86
3.7. LEHEN URRATSAK IKAS MATERIALGINTZAN	89
3.7.1. Lehen saiakerak: Gordailu eta itzulpenak	90

3.7.2. GI Eren lan ildoak eta "Ikastolako Liburutegia" Bizkaian ..	91
3.7.3. <i>Saioka</i> , lehen saio eraginkorra	92
4. IKASTOLA EREDUAREN GARAPENA (1978-1987)	99
4.1. LAGUNTZAK ETA NORMALKUNTZARAKO LEHEN URRATSAK ..	99
4.1.1. Testuingurua	99
4.1.2. Gasteizen eta Madrilen "sukalderaino"	102
4.1.3. Ikastolen Titulartasun Ofizialerako Arautegia	106
4.1.4. Nafarroan, Foru Aldundiarekin emaitza antzuak	110
4.1.5. Ipar Euskal Herrian, gose grebatic lehen akordiora ..	113
4.2. EIKE: INDARREAN JARRI GABE, HAUTSAK HARROTURIKO PROIEKTUA	117
4.2.1. Testuingurua	117
4.2.2. EIKE lege proiektua	120
4.2.3. Eztabaidaren nondik norakoak	122
4.2.4. Emaitza	128
4.2.5. EIBren bersorrera	131
4.3. BARNE GOGOETA-PROZESUA IKASTOLA MUGIMENDUAN	132
4.3.1. Testuingurua	132
4.3.2. Prozesua urratsez urrats	133
4.3.3. Prozesuaren emaitza	136
4.4. IKASTOLA HEZKUNTZA-PROIEKTUA OSATZEN	140
4.4.1. Testuingurua	140
4.4.2. <i>Oinarri</i> proiektua	141
4.4.3. <i>Haurtxoa</i> proiektua	143
4.4.4. Bertsolaritza irakaskuntzan	147
4.4.5. Bideogintza	149
5. IKASTOLA EREDUAREN SENDOTZEA (1987-1992) ...	153
5.1. AKORDIO POLITIKOA ETA EKONOMIKOA EUSKO JAURLARITZAREKIN	153
5.1.1. Testuingurua	153
5.1.2. Jaurlaritzarekin akordio politikoa 1987an	155
5.1.3. 1988ko Bateratze Legea	163
5.1.4. Bateratze Legearen garapenerako akordioa 1989an ...	167
5.2. HITZARMEN BERRIA IPAR EUSKAL HERRIAN ETA BATERATZEAK NAFARROAN	170
5.2.1. Testuingurua	170
5.2.2. Seaskaren eta Frantziako Hezkuntza Nazionalaren arteko hitzarmena 1989an	171

5.2.3. Integrazioari buruzko akordioa Nafarroako Diputazioarekin	173
5.3. IKASTOLAK, PLAZA ERDIRA	176
5.3.1. Testuingurua	176
5.3.2. Ikastolen I. Batzarra 1990ean	177
5.3.3. Ikastolen II Batzarra 1992an	183
5.4. LOGSE ETA IKAS MATERIAL BERRIAK	187
5.4.1. Testuingurua	187
5.4.2. LOGSEren berrikuntzak	187
5.4.3. LOGSEren ondorioak ikastoletan	188
5.5. ELEBITASUNETIK ELEANIZTASUNERA	192
5.5.1. Testuingurua	192
5.5.2. “Euskaraz bizi” proiektua	192
5.5.3. “Eleanitz” proiektua	195
6. KRISITIK IKASTOLA EREDUAREN HEDAPENERA (1993-2009)	205
6.1. 1993KO KRISIA EAEKO IKASTOLETAN	205
6.1.1. Testuingurua	205
6.1.2. EAJ-EA-EE gobernua, Inaxio Oliveri Hezkuntza sailburu	206
6.1.3. EAJ-EE-PSE gobernua, Fernando Buesa Hezkuntza sailburu	209
6.1.4. Eztabaida ikastoletan eta gizartean. Zer zegoen jokoan?	215
6.1.5. Ikastolen hautua	221
6.1.6. 1994ra arte luzaturiko sufrikarioa	230
6.1.7. Eragileek jokaturiko papera	233
6.1.8. 1993ko eskarmentua	238
6.2. IKASTOLA, ESKOLA GISA ONARTUA IPAR EUSKAL HERRIAN ...	242
6.2.1. Testuingurua	242
6.2.2. Hitzarmen berriaren mamia	244
6.3. BASAMORTUTIK PLAZA ERDIRA BERRIRO	245
6.3.1. Testuingurua	245
6.3.2. Euskal Herriko Partaidetza Sozialeko Ikastolen Elkartea	246
6.3.3. Partaide eta Ikasbatuaz elkarteak	248
6.3.4. Ikastolen III. Batzarra: Pedagogi Plan Nazionala ...	253
6.4. EGITURAKETA NAZIONALA	259
6.4.1. Testuingurua	259

6.4.2. EAEko federazioen eta Partaideren arteko uztarketa juridikoaren eztabaida	261
6.4.3. Konfederazio nazionalaren sorrera	263
6.4.4. Nafarroako ikastola guztien legeztapena	271
6.4.5. Seaskaren murgiltze ereduaren aitortza	274
7. IKASTOLEN HEZKUNTZA-PROIEKTUA	281
7.1. IKASTOLEN EUSKAL CURRICULUMA	281
7.2. IKASTOLEN HIZKUNTZ PROIEKTUA	291
7.3. IKASTOLEN IKT PROIEKTUA	293
7.4. IKASTOLEN PRESTAKUNTZA PROIEKTUA	295
7.5. IKASTOLEN IKASMATERIALGINTZAN JOKOGINTZA PROIEKTUA ..	297
7.6. IKASTOLEN BERTSOLARITZA IRAKASKUNTZAN PROIEKTUA ..	298
7.7. IKASTOLEN EBALUAZIO PROIEKTUA	302
7.8. IKASTOLEN GAINERAKO PROIEKTUAK	304
7.8.1. Xiba	304
7.8.2. Aisia	305
7.9. IKASTOLAK, ORAINATIK GEROA ERAIKIZ	306
8. IKASTOLA EREDUA, 50 URTEKO GIZARTE-BERRIKUNTZA BATEN ADIBIDE	315
9. BIBLIOGRAFIA	323
9.1. LIBURUAK	323
9.2. ALDIZKARIAK, ARTIKULUAK ETA TXOSTENAK	325
9.3. DVDAK	327



Laurogeita hamar urte bete berriak dituen euskararen Akademia sorreratik bertatik hasi zen bi norabidetan lanean: Iker Sailaren eskutik hizkuntzaren ikerketa eta estandarizazioa bideratzen eta Jagon Sailaren bitartez erabilera begiratu, sustatu eta babesten. Euskaltzaindiaren babes horren esperientzia izan zuen ikastolen mugimenduak, jadanik gerra ondoko garai zailetan, bai eta orain dela mende erdi bat inguru mugimendu hori indarberritzen hasi eta ikastolen sarea bilbatu nahian urrats berri eta finkoagoetara jo zuenean.

Horra hor zeregin osagarrian bat eginik Euskaltzaindia eta Ikastolen Konfederazioa. Izan ere, Akademiaren lana gizarteratu eta euskararen normalizazioa bideratzerakoan, berebiziko garrantzia izan zuten eta badute ikastolek.

Urteetan izandako harremana sendotu ahal izateko sinatu zuten Euskaltzaindiak eta Ikastolen Konfederazioak 2004an lankidetzaz hitzarmena, elkarlanean arituz zenbait ekintza eta lan egitasmo gauzatzeko asmoarekin. Aro berri honen fruituetako bat izan zen euskara zaindua eta eredu onak irakasteko orientabide eta proposamenak biltzen dituen *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz* liburua, *Jagon bilduma* honen 6. alean 2008an argitara eman zena. Lan horren xedea erregistro egokietan oinarritutako hizkuntzaren kalitatezko erabilera eskolatik hasita bulkatu eta indartzen hastea da.



AITZINSOLASA

Hitzarmen horren markoan, ale berri batekin gatoz oraingoan, bildumaren 10. liburukia egiten duen *Ikastola mugimendua. Dabilen herria* lanarekin. Bertan ikastolek euskal gizartean azkeneko belaunaldietan izan duten ibilbidearen eta eraginaren berri emateaz gainera, egungo proiektuan oinarritzen den egitasmoa ere azaltzen zaigu.

Horra, bada, Euskal Herri osoan euskararen etorkizunari begira helburu bera lortzeko engaiatuak bi erakundeak. Izan ere, Euskaltzaindia muga administratiboez harago Euskal Herriko herrialde guztietan egiten den hizkuntzaren akademia da eta Ikastolen Konfederazioak ere eszenatoki zabal horretan aritzea izan du helburu, euskararen transmisioa belaunaldiz belaunaldi eta ete-nik gabe ziurtatu ahal izateko eta horretan segitzen du, transmisioarekin batera, kalitatezko euskara ere bermatu nahian.

Lan interesgarria dugu esku artean, euskararen sustatze- eta babeste-zereginetan urte luzez haur eta gazteen heziketan ardatz izan den ikastolaren nondik norakoak azaltzen dizkiguna. Pozgarri zaio Jagon Sailari bere bildumaren helburu eta edukietan bete-betea sartzeko den lana argitara ematea. Zorionak eta eskerrak prestatzeko eta gauzatzeko eginahaletan aritu den Ikastolen Elkarteko lan taldeari.

Andres Iñigo
Euskaltzaindiko Jagon sailburua



Zein da zure ustez pasatu den mendean gizarteak izan duen aurrerapenik handiena? Galdera hau topiko bilakatu da XX. mendeak bizi izan dituen aldaketa anitzen artean ezer berezirik nabarmendu nahi izan den guztietan. Euskal Herria, hots, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa (Beherea eta Garaia), Lapurdi eta Zuberoa lurraldeetan euskararen inguruan batzen den gizartea, euskarazko alfabetatzerik gabe bizi izan da bere historian zehar. Horregatik, hasierako galdera topikoari euskaltzale batek baino gehiagok zera erantzun izan dio: “Ikastolak dira euskal gizarteak XX. mendean egin duen inbertsiorik garrantzitsuenak”. Eta ez da harrizkoa, nekez uler baitaiteke egungo Euskal Herria ikastolak izan ez balira.

Euskara eleaniztasunezko irakaskuntzaren ardatz eta euskal kultura curriculum integratuaren muin bihurtzearekin batera, ikastolek abian jarri zituzten ikasleak, haien gurasoak eta irakasleak heziketaren eragile aktiboak izateko bidean, batetik, eta eskolari jabego sozialaren indarra eman zioten, bestetik. Horren ondorioz, inguruko herritarrekin harreman estuak izatearen garrantzia erakutsi zuten, eta eskolak elkarlanean, auzolanean, aritzearen emankortasuna egiaztatu zuten. Baina askok uste du instituzio bihurtu diren ikastolak euskal lurraldeetan beti egon direla, beti existitu direla alegia. Baina usteak erdi ustel. Lehen ikastolak eta haiek elkarrekin osaturiko kolektiboa,

SARRERA

ikastolen mugimendua, gazteak dira, emankorrak direlako zaharragoak diruditen arren. Historia laburrekoak, bai, baina gorabeherez beteriko ibilbidea egin dute: urrezko garaiak eta sasoi latzak, pozak eta negarrak, adostasunak eta tirabirak...

Azken finean, historia bizia izan da... eta da ikastolen mugimenduarena. Bizia eta soziala. Euskal hezkuntzaren historian ikastolak dira eskola euskaldunaren sortzaile, ekintzaile eta berritzaileak. Ikastolen historia sozialari so eginez gero, bistakoak dira euskal gizartearen historiarekiko uztardurak, herritik sortu eta herritarrekin elkarrekintzan aritu baitira. Ikastolak eta euskal gizartearen elkar elikatze baten historiaren subjektuak dira. Unean uneko gizarte-bizitzak ikastoletan eragin izan duen bezala, ikastolen ibilbidea ekarpen iturri iraunkorra izan da Euskal Herriarentzat.

Amaitzeko, lan hau argitaratzea ahalbidetu duten guztiei nire eskerronik zintzoena eta aitormenik sentikorrena agertuz bukatu nahi dut sarrera hau. Beste horrenbeste agertu nahi diot Euskaltzaindiari, euskararen indarberritze ahaleginean bidaide izan dugun... eta dugun Euskararen Akademia nekaezinari. Elkarrekin argitaratu dugu lan mardul hau, Ikastolen Elkartearen eta Euskaltzaindiaren arteko urteetako lankidetzari segida emanez, mugarri berri bat ezarritz. Izan dadila gure arteko lankidetzaren bizkortzeko pizgarri.

Koldo Tellitu
Ikastolen Elkartearen lehendakaria





I.

AURREKARIAK

I.I. LEHEN SAIOAK, XIX. MENDEAN ETA XX. MENDEAREN HASIERAN

Aurreko mendeetan irakaskuntza goi mailako gizarte-klaseetara eta elizgizonengana mugatuta egon ostean, haur eta gazteen alfabetatzearen eta eskolatzearen lehendabiziko sistematizazio ahaleginak XIX. mendean ezarri ziren. Bi aldi arras desberdinak bereiz daitezke XIX. mendean, Ipar eta Hegoaldeko euskal lurraldeetan. Aurrena, 1876-1879 artekoa, non Frantziako eta Espainiako estatuak lehen mailako irakaskuntza eta erdalduntzea lotzen saiatu baitziren (Frantzia, 1833ko Guizot Legea eta 1850eko Falloux Legea; eta Espainian 1857ko Moyano Legea), arrakasta handiegirik gabe, eta non Elizak ikastetxe mota orotan kristau-ikasbidea euskaraz irakasten baitzuen euskaldun herrietan. Eta bigarren aldia, XIX. mendearen azken laurdenari dagokiona, zeharo desberdina, non erdalduntzearen aldeko politika bortitzagoa ezarri baitzen Ipar Euskal Herrian, 1879ko Ferry Legearen ondorioz, eta Hegoaldean, 1872-76ko Karlistadaren segidan. Aldi berean, Elizaren esku zeuden ikastetxe erlijiosoen zeregina, eskola-hizkuntzari zegokionez, estatuena bera izan zen.

Hala, Euskal Herriko eskoletan, Iparraldeko zein Hegoaldeko Estatuaren ikastetxe eta Elizaren ikastegietan aritzen ziren maisu-maistra gehienak ez ziren bertakoak. Ondorioz, hurrek ez zieten ulertzen. Eta, gainera, hurrek zigor handiak eta etengabeak jasotzen zituzten eskolan euskaraz mintzatzeagatik. Eratzunaren zigorra, esaterako; Ipar Euskal Herrian “anti” deituriko makila eta Hegoaldean “eratzuna” baliatzen ziren euskarazko mintzoa erreprimitzeko. Bi zigor mota hauek, Bidasoaren bi aldeetan erabilitakoak, famatuak bezain beldurgarriak ziren. Zigor teknika horren arabera, euskaraz mintzaturiko ikasleen artean makila bat edo eratzun bat trukutzen zen; eta egunaren edo astearen amaieran, makila edo eratzuna zuenak zigor latza jasotzen zuen.



Moyano Legea 1857an indarrean jarri zela, urte gutxi iraun zuten bestelako hezkuntza-politika saio batzuk izan ziren II. Gerra Karlistan zehar (1873-1876); esaterako, euskararen eta berezko hezkuntza politikoaren aldeko saioak Hego Euskal Herrian, batik bat Gipuzkoan eta Bizkaian. 1876tik aurrera, ordea, II. Gerra Karlista bukatu eta foruen indargabetzearen ondorioz, euskararen eta euskal kulturaren berpizkundea eman zen Euskal Herrian: Arturo Campionek eta beste hainbat nafar intelektualek Nafarroako Euskeraren Elkargoa sortu zuten 1877. urtean, Lore Jokoak jaio ziren. . . Eta, euskararekiko kezka zabaldu ahala, eskolarekikoa ere hedatuz joan zen. Campionek berak eta Resurreccion Maria Azkue idazle eta hizkuntzalari bizkaitarrak, esaterako, estatuko eskola kritikatu zuten, hizkuntzarekiko zuen jokabideagatik.

I.I.I. Resurreccion Maria Azkue eta Miguel Muñoa

Azkue ez zen salaketetara mugatu eta, 1896. urtean, lehendabiziko euskal eskola sortu zuen Bilbon, *Kolejio-Ikastechea* izenarekin. Mutilentzako eskola zen, bertan ez zuten euskaraz irakasten, euskara irakatsi baizik. Azkuek, ikasle gutxi zituelako 1899an itxi behar izan zuen eskola. Lau urte geroago beste ikastetxe bat zabaldu zuen Bilbon, 1903an, irakaskuntza elebietan ematen zuena, Salletarren eskutik.

Bilbon, halaber, Plaza Barriko Euskal Eskolak sortu ziren 1908. urte inguruan, eta Colon de Larreategiko Euskal Eskolak 1914an.

Saio txikiak izan ziren horiek guztiak, baina euskara eta hezkuntza lotzeko lehen saiakerak nolnahi ere.

Aldiz, iraupen luzeagoa izan zuen Miguel Muñoak 1914an Donostian zabalduko euskal ikastetxeak. 1924an Koruko Andra Mariaren Ikastetxea bihurtu eta 1936ra arte iraun zuen. Euskara hutsezko eskola zen, eta ehunka ikasle izatea lortu zuen. Aisiari garrantzia berezia ematen zitzaion Muñoaren ikastetxean, eta helduentzako gau-eskolak ere antolatu zituen.

I.I.2. Eusko Ikaskuntzaren batzarra

XX. mende hasieran, halaber, euskara eskola sare ofizialean txertatzeko lehen saiakerak egin ziren. Bizkaian eta Gipuzkoan, esaterako, Auzo Ikastolak sortu ziren zonalde euskaldunetan, eskola horietara irakasle euskaldunak bidaliz eta ama hizkuntza babestuz. Bizkaian, bertako aldundia izan zen Auzo Eskolen sustatzailea, Espainiako Estatuak betetzen ez zituen beharrianei erantzun nahian.

Garaiko mugimendu kulturalaren ondorioa behar zuen, goiz edo berandu, ikastolak sortzea. Emaitza logikoa zen. Eta 1918. urtea izan zen horre-

tarako mugarría. Izan ere, Eusko Ikaskuntza sortu zen urte hartan, eta Oñatin egindako sortze batzarrean, besteak beste, honako erabakia hartu zen: “Batzar onek erabaki du bere arazoetan lagundu nai dioten guztiak, beti eta era guzietako gizonari, oso edo geinbat euskeraz itz egiteko asmorik sendoena hartu dezatela; euskera izan dedila erakusgarri bigarren mailako ikastoletan”¹. Halaber, Eusko Ikaskuntzak eta Euskaltzaindiak 1922an kongresu bat antolatu zuten euskal hezkuntzaren aldeko iritziak-eta biltzeko.

Inguruabar horrek, beraz, lagundu egin zuen ikastolen sorrera. 1922an Tolosako ikastola sortu zen, Muñoaren Donostiako ikastetxearen antzera. Ez ziren garai errazak, ordea, eta Primo de Riveraren diktadurak (1923-1930) euskara irakaskuntzatik desagertarazteko indarrak biderkatu zituen.

Alta, Espainiako Bigarren Errepublika indarrean jartzearekin batera, 1931tik aurrera, ikastola berriak zabalduz eta ugarituz joan ziren, baita Nafarroan ere: Soraluzen (1931), Iruñean (1931), Bergaran (1932), Lizarran (1933), Baztanen (1935), Elorrión...

I.I.3. Euzko Ikastola Batza

Errepublikak erlijio askatasuna aldarrikatu zuen, eskoletan laikotasuna ezarri. Erabaki horrek, ordea, erantzuna piztu zuen Euskal Herrian, eliza katolikoaren izaera eta egoera ezberdinak baitziren euskal lurraldeetan. Baina Espainiako Estatuarekiko aurrez aurreko borrokari ekin beharrean, euskal abertzaletasunaren estrategia bestelakoa izan zen, eta erakunde alternatiboak sortzen saiatu ziren.

Testuinguru horretan sortu zen Bilbon Euzko Ikastola Batza (EIB), 1932. urtean, Euzko Gaztediaren eta Emakume Abertzale Batzaren eskutik. EIBk bultzaturiko hezkuntza ereduak bi oinarri nagusi zituen: erlijioa eta hezkuntza nazionala, hezkuntzaren bitartez euskal nortasuna bermatu eta elikatu behar zela iritzi ziotelako EIBren sortzaileek. Halaber, botere publikoaren esku-sartzea gaitzesten zuten, hezkuntzaren ardura gurasoengan jarri eta klase sozial guztientzako eskola izateko bokazioarekin sortu zuten EIB.

Oinarrizko hezkuntza edo *Enseñanza Primaria* delakoa ematen zen EIBren eskoletan. Baina sustatzaileek euskal hezkuntza sistema oso bat eraikitzea zuten helburu, eta horretarako oinarriak jarri zituzten.

Eraketa edo antolakuntza mailan, esaterako, bi gune jarri zituzten martxan. Batetik, ikastetxe bakoitzaren batzar edo batzordea, ikastetxearen beraren autonomiaz eta eguneroko martxaz arduratzen zena. Bestetik, Euzko Ikastola Batza bera, batzarren gainetik zegoena, eta batzarren arteko koordinazioa bideratzen zuena.

Hizkuntzari dagokionez, elebitasunaren formula garatu zen EIBren ikastoletan, Eduardo Landetaren proposamenari eta European barrena zeuden elebita-

sunaren teoriei jarraiki. Horrela, ama hizkuntza (euskara nahiz gaztelera) abiapuntutzat hartzen zuten, eta hura finkatu ondoren, bigarren hizkuntza irakasten hasten ziren.

Edukiei zegokienez, programa ofizialetan eskaturiko gai berdinak ematen ziren EIBren ikastoletan, ikasleek *Ingreso* izeneko azterketa egin behar zutelako batxilergoan sartu ahal izateko. Baina euskara, erlijioa, euskal geografia edo historia ikasgaiak ere txertatu zituzten curriculumean; eta gaika egin beharrean, osotasunean irakasten ziren. Garaiko berrikuntza pedagogikoak arretaz jarraitzen zituzten EIBn, eta berrikuntza haiek indarrean jartzen saiatzen ziren. Denboraren banaketa, esaterako, osotasunari begira antolatzen zuten: 20-40 minutuko ikastaldien ondotik, 20 minutuko ekintza ludikoak zeuden.

Euzko Ikastola Batzarekin, beraz, eskola sare paraleloa sortu zen Euskal Herrian, euskal hezkuntza sistema eraikitzeko estreinako saiorik antolatuena eta eraginkorra bihurtuz.

Lau urteko esperientzia izan zen EIBrena, 1936ko gerrak argia ikusi zuten ikastola guztien itxiera eragin baitzuen; gau ilun bezain luzea nagusitu zen Euskal Herrian.

I.2. IKASTOLEN PIZKUNDEA, XX. MENDEAREN ERDIALDEAN

Hego Euskal Herrian izandako hiru urteko gerra bukatzean, egoera erabat aldatu zen hala Espainian nola Euskal Herrian bertan. Gerra aurreko hezkuntza esperientzia edo saio aurrerakoi guztiak debekatu zituen erregimen berriak, eta 40 urteko diktadura latzari hasiera eman zion. Hala, euskararekin, euskal kulturarekin edota euskal nortasunarekin lotura zuen arrasto oro gogoz eta gogor jazarria izan zen agintari frankisten partetik. Eta euskara eremu publikotik zokoratuta gelditu zen.

Alta, Francok ez zuen lortu erabat itzaltzea euskal irakaskuntzaren aldeko sua. Txikitu edo arindu, bai; ez, ordea, guztiz amatatu, frankismoan zehar sugar ezberdinak piztu baitziren Euskal Herrian, euskara eta euskal hezkuntza bultzatzeko asmoz. Erbestean zeudenak, Ipar Euskal Herrian babestu zirenak eta Hego Euskal Herrian, bereziki elizaren aterpean bildutakoak izan ziren argizaria bizirik mantendu zutenak. Handiagoak batzuk, txikiagoak besteak; baina sua pizturik mantentzeko, baliagarriak guztiak. Izan ere, herritar askoren artean oso zabaldua baitzegoen zerbitu egin behar zegoen ustea, euskarak eta euskal hezkuntzak bizirik iraungo bazuten.

Saio horiek, gainera, ez zuten koordinaziorik edo loturarik izan elkarren artean. Saioak berak irautea nahikoa zen.

I.2.1. Haur euskaldunentzako sariketak Nafarroan

1936ko gerra bukatuta, Nafarroako Diputazioak hainbat eskumeni eutsi zion hezkuntza alorrean, bere foru erregimenari esker. Nolanahi ere, malgutasun hori ez zen azaldu gerra bukatu eta berehala, zenbait urte geroago baizik. Foru Diputazioan zeuden agintari nafarrak Francoren aldekoak ziren; baina, nafartasun horri jarraiki, jarrera malguagoa zuten euskararekiko. Hala, 1957. urtean, Nafarroako Foru Diputazioak Euskararen Aldeko Saila sortu zuen Principe de Viana erakundearen barruan, hainbat euskaltzaleren proposamenari jarraiki. Euskararekin loturiko proposamenak nahiz saioak burutu zituen sailak, baita irakaskuntzaren alorrean ere. Esaterako, euskaraz jakitegatik haur euskaldunak saritzea.

Jose Maria Satrustegi antropologoa eta idazlea izan zen Diputazioari Euskararen Aldeko Saila sortzeko proposamena egin zion euskaltzale haietako bat. Eta haurrak saritzeko ekimena barru-barrutik ezagutu zuen. Satrustegiren esanetan, “Diputazioak eman ohi zituen sari horiek eta gerra aurretik ere egin ohi zen. Bertako arduradunak zera esan zigun: ‘Gauza xume bat egingo dugu, baina psikologia aldetik garrantzitsua. Gure adineko jendea lur jota dago euskara baztertu beharrek, *hable en cristiano* eta kontu horiekin. Diputazioaren izenean euskara dakiten haurrak saritzen hasten bagara, horrek sekulako kate efektua egingo du’”.

1957an bertan jarri zen martxan umeen sariketa, eta parte hartzen zuten eskola adineko haurrei azterketa modukoa egiten zitzaien, nolako euskara maila zuten frogatzeko. Parte-hartzaile guztiei diploma modukoa ematen zitzaien; azterketan emaitza onenak atera zituztenei, aldiz, dirua: 175 pezeta *Bikain* atera zutenentzat, 100 pezeta *Oso Ongi* jaso zutenentzat, eta 75 pezeta froga gainditu zutenentzat.

Urtero zonalde edo bailara batean egiten zen azterketa. Baina aurreko urtean azterketa egin zuten beste herrietako haurrei berriro egiten zieten froga, euskararen ezagutza sustatzen jarraitzeko.

Ekimenak hamar urte iraun zuen, arrakasta handiarekin. Izan ere, 1957-1966 urteetan, 6.192 haur izan ziren sarituak.

I.2.2. *Umeen Deia* eta *Kili-Kili* aldizkariak

Aita Felipe Murieta kaputxino nafarraren ekimenari esker, 1959-1966 urteetan *Umeen Deia* izeneko aldizkaria kaleratu zen Euskal Herrian. Lau orrialde baino ez zituen agerkari edo argitalpen xumea zen, baina hark ere arrakasta handia lortu zuen: denera, 65 zenbaki argitaratu ziren, Euskal Herri osoko umeek bidalitako 1.500 idazlan jasoz.

Alta, kuantitatiboa baino, kualitatiboa izan zen *Umeen Deia*-ren ekarpena: umei euskararekin lotura bat izateko aukera eman eta haur euskaldunen arteko komunikazioa bultzatzea, alegia.

1964an, berriz, Jose Antonio Retolazak *Kili-Kili* aldizkaria sortu zuen Bilbon, haurren artean ere euskararen erabilera bultzatzeko xedearekin. Euskarazalea Elkarateak argitaratuta, elkarrizketak, komikiak eta haurrentzako jokoak aurki zitezkeen *Kili-Kili*-ren orrietan. Hasieran Bizkaian baino ez zen argitaratu, baina Euskal Herri osora zabaldu zen gero, tokian tokiko euskalkian argitaratuta.

I.2.3. IKAS elkartearen sorrera Baionan

Bidasoaren beste aldean ere eman zen euskal hizkuntza eta hezkuntza lotzeko saiakerarik. Frantzian ez zegoen diktadurarik, baina eskolari lehen-tasunezko zeregina ezarri zitzaion: frantses guztiei frantsesa irakastearena, hain zuzen.

Horregatik, eta euskarak Ipar Euskal Herriko eskoletan bizi zuen mespre-txuak kezkatuta, Euskaltzaleen Biltzarra eta Eskual Kulturaren Alde erakundeek jardunaldi pedagogiko bereziak antolatu zituzten Baionako Euskal Museoan, 1959ko abuztuaren 27an eta 28an. Jardunaldietan 200 bat parte-hartzaile bildu ziren, irakasleak eta adituak bereziki, proposamen ezberdinak aztertuz euskarak eta euskal kulturak tokia izan zezaten irakaskuntzan.

Jardunaldien bukaeran, hain zuzen, IKAS kultur elkartearen sorrera onartu zuten parte-hartzaileek, elkarteari hiru helburu ezarriz. Batetik, eskolan euskararen eta euskarazko irakaskuntza helburu zuten ekimen guztiak babes-tea eta laguntzea. Bestetik, euskararen eta euskal tradizioko gaien irakaskuntzarako beharrezkoak ziren baliabideez hornitzea eskola publikoak zein pribatuak. Eta hirugarrenik, irakasleak euskara eta euskal kulturako arlo guztiak irakasteko bidean jartzea.

Eta ezin uka IKAS elkarte sortzeko ideia ona izan zela, 1959ko sorrera haietatik hona, elkarteak berak lan handia egin baitu Ipar Euskal Herrian euskarazko irakaskuntzarako material ugari ekoiztuz.

I.2.4. Elbira Zipitria eta etxe-eskolak

Baina ezbairik gabe, gaur egun ikastola gisa ezagutzen duguna XX. mende-ko 60. hamarkadan sortu aurretik, etxe-eskolena izan zen euskal hezkuntzaren aldeko saiorik emankorrena.

Etxe-eskolen esperientzia, nagusiki, Donostian eman zen, eta Elbira Zipitria izan zen etxe-eskolen ikur eta eragile nagusia. Beste askotan bezala, izena eta izana bat datoz ekimen honetan, etxe partikularretan ematen zireen eskolak zire-lako haiek; gehienetan, andereñoen etxebizitzetan bertan gainera. Akademia modukoak ziren, ikasleen gurasoek diruz lagundutakoak.



IRAKASLEA, EUSKALTZALEA ETA MILIANTEA

Elbira Zipitria 1906an jaio zen Zumaian, baina oso gazte zela joan zen bizitzera Donostiara. Bertako Irakasle Eskolan ikasi zuen, eta 1926an Maestra de Primera Enseñanza delako agiria lortu zuen. Urte hartan bertan hasi zen lanean Donostiako Miguel Muñoaren ikastetxean, 6 urtera arteko haurrei eskolak emanez. Eta 10 urte egin zituen jardun horretan, gerraren ondorioz 1936an erbesteratu zen arte.

Donostiatik ihes egin aurretik, ordea, harreman estuak izan zituen euskararen aldeko mugimenduekin nahiz euskal abertzaletasunarekin. Euskararekiko kezka bultzatuta, Euskaltzaleak erakundeko kide izan zen, euskararen eta euskal kulturaren pizkundera aldarrikatzeko.

Baina Emakume Abertzale Batzako (EAB) militantea ere izan zen Zipitria. Militante kualifikatua, gainera, EABren mitinetan hizlari gisa parte hartzen baitzuen. 1932ko apirilean, esaterako, Donostiako EABren sortze ekitaldian hitz egin zuen Urumea frontoian, 25.000 lagunen aurrean, EABko Mercedes de Kareagarekin eta lau urte beranduago Eusko Jaurlaritzako lehendakari izendatuko zuten Jose Antonio Agirrerekin.

1982ko abenduaren 26an zendu zen Zipitria, 76 urte zituela. •

Irakaslea zen Zipitria, afizioz eta ofizioz. Alta, 1936ko Gerrarekin batera ihes egin zuen Donostiatik; eta hainbat urtez erbestean egon ondoren, gerra-ondoan itzuli zen Gipuzkoako hiriburura. Erbestealdian, haren lagunene seme-alabei eskolak ematen jarraitu zuen, irakaskuntza odolean baitzeraman Zipitriak. Erbestetik itzultzean ere, 1942tik 1946ra, eskolak eman zituen Donostian; haurrak banaka hartuta batzuetan, taldeka bestetan, baina etxeetan beti. Eta 1946an bertan ekin zion eskolak emateari bere etxebizitzan bertan, Donostiako Parte Zaharreko Fermin Calbeton kalean.

Emakume kontzientziatua eta langilea zen, eta gerra aurreko euskal irakaskuntzaren esperientziari segida eman nahi zion Elbira Zipitriak. Gerra aurretik ere izan ziren etxe-eskolak Euskal Herrian, baina Zipitriak euskararentzako eta euskal hezkuntzarentzako erabat arrotza zen testuinguruan jarri zuen martxan berea. Horrek, noski, bazuen meritura; baina, batik bat, arriskutsua zen.

Zipitriak ez zuen nolana abiaturik bere eskola. Ikasle guztiak aurrez aukeratutakoak ziren, eta euskaldunak; andereñoak berak ezagutzen zituen Donostiako sendi abertzaleetako haurrak, eta maila ekonomiko onekoak gehien bat. Gainera, oso eskola antolamendu zehatza zuen Zipitriak: beti hamar ikasleko taldeak, neskek zein mutilak, eta bi orduko eskolak eguneko.

Kalitatea eta prestakuntza

Antolaketa zehatzaz gain, kalitatearekiko etengabeko kezka zuen Zipitriak. Indarrean zegoen *Ley de Enseñanza Primaria* delakoari jarraiki, 9 urtera arte ez zen derrigorrezkoa haurren eskolaratzea. Horregatik, 3 eta 9 urte bitarteko haurrak onartzen zituen bere eskolan Zipitriak. Baina ikasleak 9 urte betetzean, azterketa bat egin behar zuen —*Ingresos* zenekoa—, ondoren, hezkuntza arautuan (eta beraz, gaztelerazko ikastetxeetan) jarraitu ahal izateko. Azterketa hori, gainera, gazteleraz egin behar zuten etxe-eskoletako ikasle euskaldunek. Ondorioz, Zipitriak lan handia egiten zuen bere ikasleek azterketa gainditzeko eta gaztelerazko eskoletan arazorik ez izateko. Kontrakorik gertatuta, euskara izango litzatekeelako horren errudun, eta Zipitriak ez zuen nahi horrelakorik. Beraz, oso metodikoa zen Zipitria. Jarraipen pertsonalizatua eskatzen zuen bere lanak, eta ikasleei asko exijitzen zien.

Zipitriaren etxe-eskolan sartzeko ikasleen eskaera handitu ahala, andereñoak bere harreman sarera jo zuen irakasle berrien bila: Emakume Abertzale Batzaren ingurukoak ziren guztiak. Horrela, Faustina Karril edota Itziar Arzelus lanean hasi ziren Zipitriarekin. Emakume abertzale haien sareetan oinarrituta abiatu baitziren Donostiako etxe-eskolak: emakumeak ziren ikasleak bilatzen zituztenak, eta irakasle guztiak andereñoak ziren.

Kalitateari ez ezik, hain zuzen ere irakasleen prestakuntzari garrantzia handia ematen zion Zipitriak. Haren beste ezaugarrietako bat izan zen. Zipitriak ez zuen edonor onartzen harekin lan egiteko. Andereño berri haiek irakasle ikasketak eginak behar zituzten halaberrez. Eta, lanean hasi aurretik, urtebeteko praktikak egin behar zituzten eskarmentua edo esperientzia zuen beste andereño baten alboan. Halaber, andereñogai haietako asko Zipitriarekin alfabetatu ziren euskaraz.

Abertzalea zen Zipitria, bai. Eta fededuna. Eta biak uztartu zituen hezkuntzan. Haren iritziz, abertzaletasuna eta erlijioa ziren eskolaren zutabeak. Eskola familiaren luzapen gisa ulertzen zuen Zipitriak, eta erlijioari garrantzia handia ematen zion bere irakaskuntza metodoan: otoitzak, jaunartzea eta sendotzarako prestakuntza, jai erlijiosoen araberrako urtearen banaketa. . .

Baina, halaber, garaiko pedagogia korrante berrien mezua jaso zuen Zipitriak, eta indarrean jarri zuen bere erara: metodologia global bat erabiltzen zuen, eta pedagogia aktibo eta bizia. Adibidez, etxe-eskoletako ikasleek txotxak erabiltzen zituzten irakurketarako eta idazketarako. Matematika ikasteko, berriz, *potokak*, balio ezberdineko bolatxoak. Naturarekiko esperientziei, kantei edota marrazkiei ere garrantzia handia ematen zitzaien euskal eskola haietan.

Etxe-eskolatik ikastolara

Ezkutuko jarduna izan arren, Donostiako etxe-eskolen zabalpena handitzen joan zen, eta 50eko hamarkadatik aurrera andereñogai berriak hasi ziren lanean Elbira Zipitriarekin. Ez ziren, ordea, haren sarekoak. Belaunaldi berri bateko partaideak ziren andereño gazte haiek. Diktaturak inposaturiko giro itogarriaren aurrean, zerbait egiteko beharrak bultzatuta hurbildu ziren Zipitriarengana, bai eta Zipitriaren metodoa bera lantzen hasi ere. Karmele Esnal edota Jone Forkada izan ziren andereño berri haietako batzuk.

Gazte haiek, era berean, European nahiz Euskal Herrian ematen ari ziren aldaketa ideologikoak eta politikoak oso gertutik jarraitzen zituzten. Oso urte biziak ziren, eta belaunaldi berriak garai hartako seme-alabak ziren. Giro hartako iturritik edaten zuten, finean. Eta Zipitriaren ekarpen pedagogikoak jaso zituzten, bai. Baina ekarpen horiek molde berrietara eraman zituzten. Zipitriaren asmo itxi eta kontrolatua baztertu zuten, eta etxe-eskoletan egiten zen lanari zabalpena eman zioten: eskolak goiz eta arratsaldean ematen hasi, hamar haurren kopurua gaintu eta ikasle gehiago hartu. . . Andereño berri eta gazte haiek euskal eskola herri osoari zabaltzea zuten helburu, eta eskola ezberdin bat nahi zuten gurasoekin egin zuten topo; horrela, poliki-poliki, euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren eredu berri bat jarri zuten abian: ikastola eredu. Etxetik kalera ateratzea izan zen. Akademiatik eskolara. Eta jabego pribatutik jabetza zibilera.

Elbira Zipitriak ez zituen begi onez hartu aldaketa haiek. Eta bere ereduari eutsi zion tinko, 1969ra arte, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak euskal eskolen legeztatena agindu zuen arte.

Etxe-eskolen ekarpen nagusia


Esan daiteke ikastola kaleko eskolaren izaeraz abiatu zenean, etxe-eskolen aroa bukatu zela. Garai hartako euskal gizarteak etxe-eskola hazi eta handitu nahi zuen, ume gehiagotara zabaldu, adin handiagotara luzatu eta udalerrri guztietara hedatu. Etxe baten muga fisikoak txikiak gelditu zitzaizkion. Etxe-eskolen aroa, beraz, 60ko hamarkadan zehar gertatzen diren aldaketen ondorioz bukatu zen, eta horren eragile nagusia euskal irakaskuntzarekiko gizarte-eskaeraren hazkundera izan zen, euskal lurralde guztietako hiri eta udalerrietan. Etxe-eskolen ekarpena hiru mailatan balora daiteke: lehenik, 1936ko gerrak moztu



zuen euskal irakaskuntzaren bidari zubi lana egitea; bigarrenez, euskal irakaskuntzaren hautu pedagogiko berria bideragarria zela egiaztatzea; eta azkenik, euskal hezkuntzaren zalegoa, guraso eta irakasleen bidez, gorpuzteko lehen urratsak egitea.

Gerra aurretik eman ziren euskara eta hezkuntza uztartzeko saioak, bai. Baina 1936ko gerrak saiakera haiek guztiak errotik moztu zituen. Aizkorakada itzela izan zen gerra. Eta horixe izan zen, hain zuzen, Elbira Zipitriak bultzaturiko etxe eskolen ekarpenik handiena: gerraren aurreko euskal eskolen tradizioa berreskuratzea eta gerraren ondorengo belaunaldi berriei esperientzia haiek transmititzea. Etxe-eskolak gerraren aurreko saioak eta 60ko hamarkadan sorturiko eredu berriak harremanetan jarri zituen. Bien arteko zubia, gaur egungo ikastolen kimua, Zipitria eta etxe eskolak izan ziren.

Eta Zipitriaren kimu hura hil arren, fruitu berri bat eman zuen. Fruitu ederra bezain iraunkorra: ikastola.



¹ Larramendik *ikasola* hitza dakar. Nolanahi ere, *ikastola* hitzaren hedadura Federiko Belaustegi-goitiari zor zaio. Izan ere, Eusko Ikaskuntza sortu ondoren, 1919an Euskaltzaindia sortu zelarik, 1921ean, bere I. Biltzarra —EUSKALEGUNAK izenarekin bataiatua— egin zen Durangon. Txostengileak, R. M. Azkue, Orixe, Barandiaran, Gabriel Manterola, Georges Lacombe, Telesforo Aranzadi, Juan Bautista Eguzkitza eta Federiko Belaustegi-goitia izan ziren. Azken honek aurkeztu zuen txostenak “Euskerazko eskolak” izenburua dauka, atalak, berriz, hona hemen: “Ume ikastolak eta beste ikastolak”, “Gure lan nagusia”, “Nai dogun ikastola”, “Gurasoen batzak”, “Ikastola barriak”, “Diputaziño ta udalen egitekoa”, “Eskola-liburuak eta Euskaltzaindia” eta “Auzo-ikastolak” (*Lenengo euskalegumetako itzaldiak*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1922).





2.

IKASTOLEN SORRERAK (1959/60-1969)

2.1. IKASTOLAK SORTU ZIRENEKO TESTUINGURUA

Oso sorrera bereziak izan dituzte ikastolek euskal lurralde batetik bestera, eta, lurralde berean, udalerrri batetik bestera. Euskal gizartea aniztasunaren lekuko onak dira ikastolak, haien sorreran zein garapenean. Baina, Mendebaldeko hezkuntza-eredu guztietan bezala, estatuen hezkuntza-politikak zeresan handia izan du, eta oraindik badu, estatu horien jardun eremuan dauden ikastetxeetan. Euskal Herria Frantziako eta Espainiako estatuetan banatuta egonik, komeni da, ikastolen sorrera eta bilakaera adierazteko unean, bi testuinguru horiei buruz gogoeta egitea.

Frankismoaren Espainia

1936. urtean hasitako estatu-kolpearen ondorioz Espainian pizturiko gerra zibila 1937an bukatu zen ofizialki Hego Euskal Herrian. Ordurako, Nafarroan, Araban eta Gipuzkoan bizi ziren euskal abertzale eta errepublikazaleek, eta gerora bizkaitarrek, hiru aukera izan zituzten: atzerrirako bidea hartzea, Ipar Euskal Herrian kokatzea, edo Hego Euskal Herrian geratzea. Gerra irabazi zutenek, Franco jenerala buru zutela, askatasun guztiak ezabatu ez ezik, euskaltzaletasunarekin zerikusia izan zezakeen oro zanpatzeari ekin zioten.

España, una, grande y libre (Espainia, bakarra eta bandia) zen erregimen berriaren leloa. Eta gaztelera, hizkuntza bakarra (*Habla en cristiano*, beste esamolde edo lelo ezaguna). Ondorioz, Euskal Herrian, euskalduntasunarekin lotura zuen guntia debekatuta gelditu zen, euskara barne.

Eta, debekuekin batera, gaztelerearen inposiziorako tresna instituzionalak ezarri eta erabili zituen Francoren diktadurak: administrazioa, komunikabide-

ak eta eskola. Eskolan, adibidez, milaka maisu-maistra kanporatuak izan ziren, eta, haien orde, militar ohiak nahiz erregimenaren aldekoak izendatu zituzten irakasle.

Eskola, beraz, estatu berriaren doktrinamendurako tresna bihurtu zen; kontrol politiko eta ideologikorako eta ideologiaren birsorkuntzarako tresna. Frankismoak hezkuntza sistema berriro arautzeari ekin zion, eta *Ley de Educación Primaria* delakoa onartu zuen 1945ean. Legeak 9 urtetik aurrera ezarri zuen derrigorrezko eskolaratzea, hezkuntza sistema bi ziklotan banatuz: Lehen Hezkuntza eta Oinarrizko Batxilergoa.

Euskara, beraz, galbidean eta jazartua zegoen. Heriotz motel eta planifikatu batera zigortuta, museoetako pieza izatera kondenatuta. Eremu publikotik kanpo zegoen, eta soilik esparru pribatuan erabiltzen zen euskara, beti isilean eta ezkutuan: senide arteko harremanetan eta erlijioan alegia.

Frantsesa ere, jaun eta jabe

XIX. eta XX. mendeetan zehar Espainiako estatuak izan duen zilegitasun demokratiko urriaren parean, Frantzia gizabanakoaren askatasun eta eskubi-deen irudiari lotuta ageri da XVIII. mendearen bukaeratik, Frantziako Iraultzatik hain zuzen ere. Frantziako estatuak bi xede lortu ditu mende horietan zehar: batetik, frantses nortasuna frantses hizkuntzari eta hiritar izaerari lotzea lurralde osoan, gainerako identitateak, hizkuntzak eta kultur adierazpenak gutxietsiz edota zapalduz; eta, bestetik, frantses nortasuna ezagutzarekin, berrikuntzarekin eta modernitatearekin lotzea, hots, nazioartean munduko beste nortasun “handiekin” lehia agertzea.

Ipar Euskal Herrian bi mende horietan zehar bizi izan diren euskaldunek aurre egin behar izan diote, Frantziaren barruan eta kanpoan, lehenik eta behin Frantziako Iraultzaren ondoko jazarkunde politiko eta linguistikolari; gero, euskal kultura gutxietsiaren parean ageri zen kultura frantsesari, ondorengo urte luzeetan zehar kultura unibertsala eta modernoarekin lotzen baitzuten.

Bestetik, I. (1914-1918) eta II. (1939-1945) Mundu Gerrek ondorio izugarriak izan zituzten Iparraldeko euskaldunen kontzientzian. Klase eta nazio mugak apurtu ziren gerra haietan, eta errotik zabaldu zen bi gatazka haien ondorioz hildako herritarrak aberriagatik hil zirela (*Morts pour la patrie*, esaten zen bezala). Frantziarren artean, baita euskara baino ez zekiten askoren artean ere, iltzatuta geratu zen hori.

Eskolak, bestalde, herritarren bizimoduaren alde guztietan gertaturiko gutxieste kultural eta politikoa osatu zuen: XIX. mendearen bukaeran, hirugarren errepublikak herri guztietan zabaldu zuen eskola *laïque, gratuite et obligatoire*. Eskola publiko horretan, noski, frantsesa zen jaun eta jabe. Eta Espainia-

ko lurraldean bezalaxe, Frantziako ikastetxe erlijiosoek estatuaren politika bera burutu zuten euskararekiko eta euskal kulturarekiko.

Horrela, XX. mendearen erdialdean Ipar Euskal Herriak ez zuen inolako ezagutza ofizialik edo administrazio nortasunik (Bearnorekin batera departamendu bakarra osatzen jarraitzen zuen; lehendabizi Behe Pirinioak gisa izendatua, gero Pirinio Atlantikoetako Departamendua bezala bataiatua); ez barruti unibertsitariorik edo elizbarrutirik ere. Euskarak ere ez zuen inolako aitortza edo izaera ofizialik. Frantsesa zen hizkuntza ofizial bakarra. Frantziako Estatuak inoiz ez zien baliorik eman, are gutxiago babesik onartu, bere lurraldean erabilitako beste hizkuntza gutxituei. Eta hori gutxi balitz, frantsesa gurtzeko joera zegoen: antzinean, frantsesa izan zen iraultzaren eta teknikaren hizkuntza, nazioarteko eta diplomazia alorreko hizkuntza. Ondorioz, oraindik ere, beharrezkoa zen frantsesa ongi mintzatzea lana aurkitzeko edota kultur pertsona gisa agertzeko.

Beraz, Frantziako Estatuak ez zituen ez debekatzen ez babesten beste hizkuntza gutxiak (bai, ostera, eskola barruan), baina errealitatea edo praktika bestelakoa zen: euskara mesprextatua zen Ipar Euskal Herriko eremu publikoan ere bai, hots eskolan, lantokian, kalean nahiz komunikabideetan.

Gerra osteko Europa eta Espainia. Garapen ekonomikoa

Munduan, halaber, ez zen nolanhiko egoera bizi 50. hamarkada hartan. II. Mundu Gerraren ondotik, *Gerra Hotza* gisa bataiaturikoaren sasoiak ziren: mendebaldeko blokea batetik, ekialdeko blokea bestetik. Alde kapitalista batean (Ameriketako Estatu Batuak —AEB— eta haren aliatuak), alde komunista bestean (Sobiet Batasuna —SESB— eta haren aliatuak). Mundua bitan banatuta, beraz, eta bi blokeak aurrez aurre.

Munduaren kontrola lortzeko borroka horretan, Europa ere erdibituta gelditu zen: Mendebaldekoak AEB zuen aliatu, eta Ekialdekoa SESBren esanetara zegoen. Testuinguru horretan, erregimen frankista hondoratuko zela uste zuten Espainiako errepublikazaleek eta euskal abertzaleek sekulako kolpea hartu zuten: 1953an adiskidetasun akordioa sinatu zuten Espainiak eta AEBk. Amerikarrek, laguntza ekonomikoa eta babes politikoa eman zioten Francoren erregimenari; eta horrek, trukean, Armada amerikarrari hainbat base militar instalatzeko baimena eman zion. Ondorioz, Espainiako gobernuak nazioartean bizi zuen isolamendua hautsi zuen, bere ekonomia txiroa berpizteko bidean jarri zuen eta barruko oposizioa jazartzeko eskuak libre izaten jarraitu zuen.

Francorentzat, beraz, urrezko aukera bihurtu zen munduko potentzia handienaren babesa jasotzea, ordura arte nazioartean bizitako blokeo politikotik eta

ekonomikotik irten zelako, eta adiskidetasun akordio hark Espainiaren modernizazioa ekarri ziolako: gerraondoko urteetako autarkiatik garapen ekonomiko-
ra igaro zen. Espainiako ekonomiaren garapenean Francok Opus Deiko tekno-
krata ugari jarri zituen gobernuan, eta 50eko hamarkadaren bukaeran eta 60ko
hamarkada osoan zehar sekulako pizkundea bizi izan zuen Espainiako ekono-
miak, herri-lanetan, industrializazioan eta turismoan oinarrituta.

Urte horietan, bestalde, Mendebaldeko Europak II. Mundu Gerraren txiki-
zioari buelta emateari ekin zion. Langintza horretan AEB laguntzaile izan zuten
europar estatuek, Marshall izeneko planaren bidez. Alemania, Erresuma Batua,
Frantzia, Herbehereak... berreraiki ziren, haien ekonomiak sendotu ziren eta
langileen bizi baldintzak hobetu ziren. Mendebaldeko Europa berrian aldaketa
sakonak gertatu ziren gizarte-mailan: mundu-gerra aurretiko langile gizartetik
gerra osteko langile-klase ertainera pasatu zen Europa, eta Espainiako estatua-
ren biztanleen erreferentzia bihurtu.

Euskal herritarren etsipen politikoa eta garapen ekonomikoa

Bizkaian eta Gipuzkoan, aldi berean, industriak zuen indarra biderkatu zen
Espainiako Garapen Planen ondorioz. Untziolak, burdinolak, altzairutegiak...
ugaldu eta handitzearekin batera, bestelako industria motak abian jarri ziren.
Nafarroan eta Araban geroago zabaldu ziren. Hiriak eta herribilduak garapen
ekonomiko berriaren erdigune bilakatu ziren. Bertako lantegietan aritzeko,
behargin asko behar ziren, eta eskaerari etorkinen bidez erantzun zitzaion:
lehenik, euskal nekazari ugari baserritik kalera heldu ziren, baina migrazio-
rik handiena Gaztela, Extremadura eta Galiziatik euskal lantegi eta portuetara iri-
tsitakoa izan zen. Arrago hauetan batzen ziren pertsonak, euskal hiritar
berriak, Euskal Herriak bizi zituen aldaketa sakonen protagonista izan ziren.
Mendebaldeko Europan gertatzen ari ziren aldaketa ekonomikoak eta sozialak,
une berean, Hego Euskal Herriko lurraldeetan ere gertatzen ari ziren. Ez,
ordea, Ipar Euskal Herrian. Hor garapen ekonomikorik ez, eta euskal baserri-
tarrak kanpora joan beharrean zeuden; Frantziako hiri handietara, Parisera
bereziki. Ondorioz, Iparraldeko itsasertzak eutsi egin zion turismo klasikoare-
kiko lotura ekonomiko eta sozialari, eta betiko arrantza-ustiapenari.

Aliatu amerikar eta europarrak baztertuta, euskal abertzaleengan etsipena
nagusitu zen, eta, XIX. mendean foruak galdu zirenean gertatu zen bezala,
kulturgintzari zegokionean bide berriak urratu behar izan zituzten. Horrela,
Eusko Ikaskuntzaren gerra ondoko biltzarra egin zen Baionan 1954an. Han
bildu ziren, besteak beste, Marc Legasse, Aita Donostia, Joxe Miel Barandia-
ran, Mixel Labeguerie... Eta munduan barrena zebiltzan euskaldun askok
bidali zituzten bere idatziak.

1956. urtea izan zen, hain zuzen, euskal berpizkunde horren mugarria. Lehen Euskal Mundu Biltzarra egin zen Parisen 400 bat lagunen parte-har-tzearekin, Jose Antonio Agirre lehendakaria buru zela.

Eta urte hartan bertan jaio zen, bestetik, *Jakin* aldizkaria.

Gisa honetako ekintza solteak, ordea, etsipenaren basamortu hartan, itxa-ropen izpiak ziren ilunpean zeuden euskaltzale askorentzat; aldi berean, XX. mendearen hasierako Euskal Pizkundearen bidea XX. mendearen Erdiko Urte-etan etenik gabe jarraitzeko ahalegina bazen.

Egungo ikuspegitik badirudi argi dagoela 50eko hamarkadaren bukaera aldean, belaunaldi berri batek aurrekoaren lekukoa hartu nahi zuela. Ekon-omian, industrian, gizarte-egituretan eta kulturaren bestelako moldeak nahi zituen belaunaldi berriak bizitza eta bizimodua desberdin ikusten zuen. Langile identitatea, nortasun abertzalea, izaera ekintzailea, konpromisoa, herritar izaera, berrikuntza, aldaketa edota iraultza... belaunaldi berriaren kezka eta langai bihurtu ziren euskal hiri eta herrietan. Fabrikak eta beste-lako lantegiak eta Elizaren biltokiak hartu zituzten elkartzeko gune bezala, erakunde berrien sorleku eta gizarte-eraldaketa abiatzeko tokiak. Grebak, protestak, komunikatuak... hasi eta ugaltu egin ziren, hiri eta herrietako kaleak irabazi nahian.

Euskal kulturagintzak ere bide berriak urratu eta ugaltu zituen: *Zeruko Argia* aldizkariaren bigarren aroa hasi zen orduan, bertsojaritza, antzerkigintza, argitaletxeak, elizaren inguruko taldeak eta ekintzak...

Eliza katolikoaren baitan ere aldaketak gertatu ziren. Vatikanoko Bigarren Kontzilioak (1962-65) eta Joan XXIII. Aita Santuaren *Pacem in Terris* entzikli-kak (1963), adibidez, indarberritu egin zuen euskal apaizek eta fraideek euskararekiko zuten aldeko jarrera, haien babesean irratiak eta aldizkariak sortuz. Gainera, euskara ofizial bihurtu zen liturgiako.

Arestian esan bezala, hazkunde ekonomikoak industrializazioa ekarri zuen, eta, harekin batera, nekazal girotik hiriko/kaleko girora pasatzea eta nagusiki hirietan eta herri industrializatu eta handietan kokatu zen etorkin erdaldunen uholde izugarria. Euskarak bizi zuen debekua nahikoa ez, eta etorkinen etorrera handiak euskararen atzerakada areagotu zuen, baina baita abian zen kontzientzia-hartzea bizkortu ere: hizkuntzak euskal nortasunaren baitan jokatu beharreko papera aldatu zen, hizkuntza bihurtuz euskal nazio-aren ardatz edo zutabe.

Hala, prozesua geldieztina zen dagoeneko. 50eko hamarkadan emandako kontzientzia-hartzeak, halabeharrez, 60ko hamarkadan jauzi berriak ematea eragin zuen. Eta euskararen eta euskal nortasunaren aldeko bide berriak zabaltzea: musikagintzan, literaturan, bertsojaritzan, kazetaritzan... eta hez-kuntzan! Ikastolak izan baitziren bide berri horietako bat.

2.2. IKASTOLAK SORTZEKO ARRAZOIAK

Gaur egun ikastola gisa ulertzen eta ezagutzen dugun fenomenoa 60ko hamarkadaren hasieran abiatu zen, gizarte-ekimenez, titularrak haurren gurasoak zirelarik eta irakasleek eta hainbat herritarrek lagunduta. Hor hasi zen ikastola giro urbanoan, kalean, herritarren gizarte-eskola bezala.

Ikastolak sortzeko orduan, guraso eta herritar haiek bi arrazoi nagusi izan zituzten. Lehena, eta indarririk handienekoa, euskara: euskarak bizi zuen jazarpenari eta galbideari erantzunez, haurrei euskara eta euskaraz irakasteko sortu ziren ikastolak. Hots, euskara berreskuratzeko asmoarekin sortu ziren ikastolak. Oso barruan zegoen hori, eta arrazoi nagusia izan zen hori: ikastolak sortzeko giharra mugiarazten zuena.

Baina, bazen beste arrazoi bat ere: gurasoek ikastolak sortu zituzten haien seme-alabei beste heziketa bat emateko, eskola desberdina eraikitzeko. Berrikuntza zen helburua, orduko gizarte-ekintza askotan bezalaxe, eta guraso eta herritar sortzaile haiek garaiko estatuaren eskola publikoei eta ikastetxe erlijio-soei alternatiba nahi zuten. Ezberdina eta modernoa.

Edur Zabala Ondarroako Egunsentia Ikastolako sortzailetako baten esanetan: “guri eskolan zer egin zozkuen? Makileagaz jo euskaraz berba egiteagatik, eta ‘No hablaré euskara en clase’ 100 biderrez kopiatu egin behar izaten gendun. Ez gendun gure esperientzia gure umeentzat gura, eta zerbait egin beharrak, ez geniken zer, eroan gintuen ikastola izango dena sortzera”.

Ikastolen sustatzaileek, beraz, ez zekiten nahi zuten hura zen ala ez; ez zuten argi eskola berri eta ezberdina sortzeko abenturak zer emango zuen. Baina, garaiko belaunaldi berrizalearen ezaugarri, oso garbi zuten desio ez zutena: indarrean ziren bi eskola ereduak bezalakorik ez. Eta eurek egingo zutela elkarrekin, inoren esku utzi gabe. Beraz, sorreratik bertatik hirugarren eskola eredu edo sarea bihurtu ziren ikastolak.

Sabin Ipiña izan zen ikastolen sorrerak bultzatu zituzten milaka guraso haietako bat. Portugaleteko Elai Alai Ikastola (egungo Asti Leku ikastola dena) sortu zuen Ipiñak, 1963an, herriko beste lau gurasorekin batera. “Gurasoen ekimenari jarraiki sortu ziren ikastolak. Guraso askoren gogoia zelako gure seme-alabak hezitzea giro euskaldun batean”, Ipiñaren esanetan. Baina gogoia bakarrik ez. “Indarrean zegoen hezkuntza sistemaren ondorioz ezin izan genuen mantendu gure hizkuntza. Euskal nortasuna berreskuratu nahi genuen, eta orduko eskolekin ezinezkoa zen hori”.

2.3. IKASTOLAK SORTZEKO FAKTOREAK

Ikastolen sorrera, beraz, ez zen izan aurretik prestatutako plangintza edo diseinu baten emaitza; hautu pertsonal eta kolektibo baten ondorioa baizik. Euskaraz eta modu ezberdin batean hezitzeko nahiari erantzuten zion gurasoen hautu pertsonala.

Baina, era berean, ezin esan ikastolak, fenomeno sozial gisa, ezerezetik sortu zirela. Garaiko testuinguruan eta euskal gizartean zeuden aldeko faktore batzuk ahalbidetu baitzuten ikastolen sorrera.

Hala, faktore askoren emaitza izan zen ikastolen fenomenoa. Ikastolak martxan jarri zituen belaunaldiak eragile askoren laguntza eta babesba izan zuen, belaunaldi horrek berak bestelako eginkizunetan parte hartu zuelako XX. mendeko 50eko hamarkadan zehar. Gaur egun kultur jardun gisa ezagutzen dira, baina orduan, batik bat, jendearentzako topaguneak izan ziren, diktaduraren giro itogarritik ihes egiteko elkarguneak: dantza taldeak, musika taldeak, euskara irakasten zuten taldeak, elizaren inguruko kristau taldeak, mendi taldeak... Egoste kolektibo bat zegoen Euskal Herrian, kontzientziatze kolektibo bat. Eta horri esker, une batean, kontzientziatze beste salto bat eman zen: hezkuntza baliatzen hasi zen euskararen berreskurapenerako eta eskola ezberdin bat egiteko.

Ikastolen sustatzaileek, gainera, herriko beste taldeetan eta arloetan zituzten harremanak baliatu zituzten hezkuntza proiektu berri hura zabaltzeko eta indartzeko. Horrela, hautu pertsonalaren ondorioa izanda ere, ikastolek sare sozial bat sortu zuten. Ahoz ahokoak garrantzia handia hartu zuen: ikastola nola lagundu jakiteko, beste ikastolaren esperientzia gertutik ezagutzeko... Ikastolak azpisare horren baitan eraikiz joan ziren, erabaki pertsonala izate-tik herri mugimendua bihurtzeraino.

Baina, partaidetzarako joeraz gain, dirua ere ugaltzen hasia zen Euskal Herrian. Industrializazioaren ondorioz, langileen arazo ekonomiko nagusia ez zen irautea, estreinakoz soberakin ekonomikoak zituztelako. Eta diru horrekin herriko jardun eta ekimen ezberdinak finantzatzen ziren: kirol taldeak, elkarte gastronomikoen sorrera... eta, noski, ikastolak. Diru laguntza herrikoia ezinbestekoa izan baitzen ikastola proiektua aurrera ateratzeko: zozketak, hileko soldaten zati bat ikastolarentzat bideratzea...

NAFARROAN, ALDUNDIAREN GERIZPEAN

Nafarroako foru erregimen bereziaren ondorioz, bertako Diputazioak ahalmen batzuk zituen hezkuntza alorrean, nahiz eta ahalmen handiagoa aldarrikatu, arrazoi historikoetan oinarrituta. Hala, Diputazioak agintariak urrats batzuk egin zituzten alor honetan —txikiak eta apalak izan arren—, eta euskararekiko ez zuten hain jarrera oldarkorra. 1967ko urtarrilaren 25ean, esaterako, Nafarroako Diputazioak, unibertsitateko 500 ikasle egindako eskaerari erantzunez, euskararen aldeko hainbat neurri hartu zituen, euskara ikastetxeetan irakasteko eta onespren ofiziala jasotzeko. Harturiko neurrien artean, bi ziren garrantzitsuak. Batetik, euskara ikasi nahi zuten eremu euskaldun edo ia euskaldunetan, Diputazioak ordu erdiko euskara saioa eskainiko zien eskola adineko haurrei, eskola ordutegitik kanpo beti ere. Bestetik, kultura arloz arduratzeko 1940an eratu zen Príncipe de Viana erakunde eskumendekoak ahalmena izango zuen haurrentzako eskola txikiak edo helduentzako eskolak diruz laguntzeko.

1967ko neurri horiek aldeko faktore garrantzitsuak izan ziren lehen ikastolak Nafarroan sortzen hasteko, batik bat Iruñetik iparraldera. Herrialdeko ikastolentzako helduleku izan ziren, haur eskolak izaki, nolabaiteko babes ofiziala jasotzen zutelako ikastolek. Ikastolak sortu ez, baina egiten utzi zuten garai hartako agintari nafarrek. Laguntza ekonomiko txikia jasotzen zuten haur eskola haiek (andereñoari ordaintzeko zuzenean erabiltzen zen, Diputazioa ez zelako beste inolako gastuez arduratzen). Baina, batik bat, Diputaziotik jasotzen zuten gerizpe ofiziala zen garrantzitsuena. •

Paulo Agirrek oso goiz eta oso gertu ezagutu zuen ikastolen fenomenoak. Agirre Lasarte-Oriako ikastola aurrera ateratzeko lanetan murgildu zenean, bertako lagun batzuren deiarri jarraiki, mugimendua hasi berria zen. “Ikastolak lehendik hasita zeuden mugimendu sozialak eta kulturalak indartzen zituen. Oso lotura handia baitzegoen ikastolen sorrera prozesuan aritutakoen eta beste gizarte mugimenduetan jarduten zutenen artean”. Horregatik, Paulo Agirreren esanetan, “ikastolena ez zen izan mugimendu paralelo bat, elkar lotuta baitzegoen herriko beste mugimenduekin. Adibidez, nik Lasarten ezagutu nuena: ikastola zegoen etxean herriko orduko kultur mugimendu guztia ere biltzen zen: dantza taldea eta bestelakoak. Lokala partekatzen genuen, eta lokala berritzeko denok egin genuen lan. Azken finean, jende berdina zen”.

Lasarte-Orian ez ezik, herriz herri ere ibili zen Agirre, ikastolen sorreratan laguntzen. “Herrietara joatean, adibidez, aktibo kultural eta sozial horien laguntza bilatzen genuen. Bai eta jaso ere. Eta horregatik zabaldu zen mugimendua hain azkar: gurasoek bakarrik, gogo handiak izanda ere, ezinezkoa zutelako bakarrik aurrera egin”, Paulo Agirrereren arabera.

Beraz, ikastolak sortu zituen belaunaldi berri hark euskara bilatzen zuen, baina baita gauzak egiteko modu desberdin bat ere. Eta hori ulertu gabe ez dago ulertzerik ikastolen fenomenoa. Eta hori gabe ere ez dago ulertzerik orduko gizartea. Jende askok nahi zituen, eta bilatzen zituen gauza desberdinak. Eta ikastolak eskaintzen zuen gauza ezberdin bat, berria, berritzailea, modernoa.

Gogoia eta aukerak, beraz. Biak bat.

2.4. IKASTOLEN SORTZE PROZESUA

Diseinu-aurre edo plangintza bati jarraitzen ez zioten neurrian, oso modu heterogeneoan sortu ziren ikastolak. Sorrera askotarikoak izan ziren, bai, tokian tokiko errealitatearekin txertaturikoak, beti ere. Baina, aniztasun horretan ere, antzekotasun batzuk eman ziren euskal eskola berri haien sortze prozesuetan. Aldagai amankomun batzuk.

Horrela, antzekotasun horiek kontuan hartuta, esan daiteke Euskal Herrian hiru sortze prozesu gertatu zirela. Lehen, ikastolen sorrera Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan eragin zuena, Bilbon eta Donostian hasi eta Iruñea eta Gasteizeraino luzatzen zen lur eremuan. Bigarrena, ikastolak Ipar Euskal Herrian sortu zirenekoa. Eta hirugarrena, ikastolen jaiotza Iruñetik eta Gasteiztik hegoaldera ahalbidetu zuena.

2.4.I. Lehen ikastolak lurraldez lurralde

Sortze prozesua oso antzekoa izan zen lehen etapa horretan: ikastolak hiriburuetan zabaldu ziren lehenik, herrialdeko hiri eta herri garrantzitsuenetan ondoren. Hala, Baztanen hasi, Iruñetik eta Lizarratik pasatu eta Gasteizeraino iristen den lerro bat margotuz gero, hortik iparraldera gelditutako eremu gutxian eman zen ikastolen lehen sortze molde hau. Zein ezaugarriekin? 60ko hamarkadan gertatutako prozesua zen, etxe-eskolen eragina zeukan, eta hiriburuetan, herri industrializatueta eta euskal kontzientzia handia zegoen herrietan sorturiko ikastolak ziren, tokian tokiko ekimenari jarraiki.

Gipuzkoan, esaterako, aurrenik Santo Tomas Lizeoa sortu zen Donostian, 1961ean, Joxemi Zumalabe, Koldo Mitxelena eta Karlos Santamariaren ekime-


nez. Sustatzaileek Elbira Zipitriak hiriburuan egindako lanari segida eman nahi zioten; hots, 9 urte betetzen zituzten haur euskaldun haiek euskaraz hezitzen jarraitu, eskola publikora edo pribatura joan beharrean. Eta hiriburuan ez ezik, Gipuzkoako herrietan ere berehala sortu ziren ikastolak: Pasaian, Hernanin, Erreterian, Elgoibarren, Andoainen... Eredu berri bati ekin nahi zioten, baina etxe-eskolen fenomeno oso gertutik ezagutzen zuten ikastola hauen sortzaileek. Hernaniko ikastolan, esaterako, Karmele Esnal zegoen, Zipitriarekin aritutako andereño berri haietako bat.

1957ko urrian, aldiz, Euskal Herriko eta Bizkaiko lehen ikastola zabaldu zen Bilbon, San Nikolaseko katekesirako lokaletan, Xabier Peña eta Julita Berrojalbiz euskaltzaleek bultzatuta. Zabaldu aurretik, andereñoak —Maria Angeles Garaik— hilabete eman zuen Elbira Zipitriarekin eta Karmele Esnalekin Donostian, etxe-eskolen ereduaz ezagutzeko. Bilboko Apezpikuak lokalaren itxiera agindu ondoren, Iralabarriko Frantziskotarren komentura pasatu zen ikastola, 1959ko hasieran. Baina urtebete ere ez zuen iraun han, hezkuntza ikuskatzaile baten salaketaren ondorioz. 1963-64 ikasturtean zabaldu zen Bizkaiko bigarren ikastola, Algortako San Nikolas, eta haren atzetik ikastola berriak: Igorren, Plentzian, Berrizen, Bermeon...

IKASTOLA BAT VENEZUELAN

Euskal Herrian ez ezik, nazioartean ere ikastola bat zabaldu zen XX. mendeko 60ko hamarkadan. 1965ean izan zen, Venezuelan, gerratik edota ondorengo krisi ekonomikotik ihes egindako euskaldunek sortuta. Han ziren bitartean, seme-alabak euskaraz eta euskal kulturaren hezitu nahi zituzten. Baina ez zen izan Euskal Herrian sortzen ari ziren ikastolen molde berekoa, testuingurua bera erabat ezberdina zelako. Caracasen kokaturiko Euskadi-Venezuela Ikastola hura, dena den, 1986ra arte egon zen zabalik. •

Nafarroan, halaber, 1963. urteko udan eman zen ikastola bat sortzeko lehen saioa, Iruñean, Donostiako etxe-eskoletako andereñoekin hartu-emanak eduki ondoren. Baina ikastola hura zabaltzeko debekuaren ondotik, 1965era arte ez zen ireki lehen ikastola Nafarroako hiriburuan, Iruñeko Euskal Herriaren Adiskideak Elkarteak sortuta. 1968an Uxue Ikastola gisa bataiatzean, hazia herrialdean ereinda zegoen ordurako: ikastola urtebete lehenago ireki zen Leitizan, eta geroago etorri ziren Olaztikoa, Tafallakoa (geografikoki urrun gelditzen zen, baina herri industrializatua zen, Luzuriaga enpresa handia zegoelako bertan), Lizarrakoa, Elizondokoa...



Gasteizen 1963an zabaldu zen Arabako lehen ikastola: Olabide. Izaskun Arrue izan zen bertako lehen andereñoa, Donostiako etxe-eskolen eredia gertutik ezagutu ondoren. 70eko hamarkadaren hastapenetan, berriz, Arabako ikastolagintzaren bigarren aroa hasi zen, Bizkaitik eta Gipuzkoatik gertu zeuden herrietan ikastolak zabalduz: Laudion, Aramaion, Agurainen...

2.4.2. Ikastolak Ipar Euskal Herrian

60ko hamarraldia bukatzeaz zela zabaldu zen lehen ikastola Ipar Euskal Herrian. 1968ko maiatza sonatua pasata zegoen, baina itzal handia utzi zuen



Frantzian zein Bidasoaren beste aldeko hiru euskal lurraldeetan. Mugimendu sozial handia zegoen, ilusia, gauzak egiteko gogoa...

Euskal kulturari dagokionez, tradizio handiko antzerkiak eutsi egiten zion, baina jada ez ziren komedia hutsak. Antzezlanen bitartez, egoeraz hausnartze-ko eta egoera bera salatze-ko mezuak iradokitzen ziren. Kantarien mugimendu bat ere bazegoen (Mixel Labeguerie, Manex Pagola, Txomin Larralde...), baina artean ez zegoen oso zabalduta. Halaber, Enbata mugimendu politikoa 1963az geroztik abian zen, baina euskal abertzaleak *ghetto* batean zeuden: gutxiengoaren gutxiengoa ziren. Alta, euskal kontzientzia pizten hasia zen Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Hegoaldetik joandako iheslariak ere han ziren, eta horietako asko bertako errealitatean eta bertako biztanleekin integratzen hasi ziren. Esmatze giroa bizi zen Iparraldean.

60ko hamarkadan zehar, gainera, irakaskuntza elebidunaren aldeko saiok egin ziren Baionan, Kanbon edota Hendaian. Hainbat irakasle ibiltarik euskara eskolak ematen zituzten, astean ordu gutxi batzuk baino ez, baina beti ere administrazioari baimena eskatuta, eta soilik halakorik nahi zuten ikasleei. Iparraldean lehen ikastola sortu zenean, ordea, den-dena euskaraz egin zen.

Hain zuzen ere, 1969ko martxoan jarri zen martxan lehen ikastola, Baionan, Argitxu Nobliaren etxean. Libe Goñi izan zen lehen andereñoa. Sortzez lazkaotarra zen, eta irakasle-ikasketak eginak zituen, gazteleraz. Zipitriaren etxe-eskolak ezagutu zituen hala ere, haren ama Elbiraren laguna izanda bertan

egin zituelako praktikak. Goñik, halaber, molde berriko ikastolak gertutik eza gutzen zituen, 1969ko otsailean Donibane Lohizunera ihes egin baitzuen.

Handik hilabetera, 1969ko apirilaren 30ean, Manex Pagolak, Ramuntxo Camblongek eta Argitxu Nobliak, Frantziako 1901eko lege bati atxikituz, Seaska elkarteak aurkeztu zuten Baionako Subprefekturan. Legearen arabera, hiru lagun aski ziren administrazioak elkarte gisa legeztatzeko. Eta diru irabazi asmorik gabeko elkarte gisa erregistratu zuten, helburu argi batekin: “Haurren baitan euskal hezkuntza eta kultura sustatzea”.

Baionan hasi eta Miarrizetik pasatu ondoren, lehen ikastola hark Arrangoitzen jarraitu zuen martxan 1970. urtearen hasieratik aurrera, haur eskola gisa eta Baionako, Biarritzeko, Arrangoitzeko eta Arbonako dozena bat umerekin.

Iparraldeko lehen andereño izandako Libe Goñiren arabera, hastapeneko guraso haiek benetan euskaldun sentitzen ziren. “Euren seme-alabak euskaldun sentitzea eta euskal munduan murgiltzea bilatzen zuten ikastolaren bitartez. Euskaldun izateaz erabat harro zeuden; hau da, euskaraz pentsatzen eta sentitzen zuten, eta euren nortasunaren parte garrantzitsutzat zuten euskara, geure hizkuntza”.

Eta, Hegoaldean gertatu bezala, 1969ko martxoko lehen kolpe horren ondotik ikastola berriak zabalduz joan ziren Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan: Donibane Lohizunen, Baionan, Donapaleun, Hendaian, Senperen, Ziburun, Maulen, Donibane Garazin...

SOLFEO AZTERKETAN, IKASTOLAKO HAURRAK APARTE

Jokin Etxebarria eta Joana Camblong izan ziren Iparraldeko lehen ikastoletako ikasleetak bi. Etxebarria, adibidez, harrituta gelditu zen euskaraz mintzatzen ziren haur gehiago ezagutzeari.

“Testuingurua berezia zen. Biarritzen bizi ginen eta oso gutxi entzuten zen euskaraz, etxean eta errefuxiatuen inguruan soilik. Niretzako irekitasuna izan zen ikustea beste haurrik bazela Ipar Euskal Herrian euskaraz bazekitenak”. Etxebarriaren arabera, “Andereño Liberen bitartez euskal kulturako kantak, musika eta jolasak ezagutu genituen; eta euskara jakiteaz harro izaten ere ikasi genuen, gure hizkuntza baloratzen. 7 urterekin, karrikan egunero ikusten genuen euskara mespretxatua zela”.

Baina karrikan bakarrik ez. Joana Camblongen esanetan, sasoi haietan euskararekiko ezjakintasuna zegoen Iparraldeko gizartean: “Musika eskolara joaten ginen asko, eta solfeo azterketetan ikastolako haurrak banandu egiten gintuzten, besteak beldur zirelako notak ez ote genituen euskaraz erranen”.

Bi ezberdintasun

Seaska elkartearen historiaren lekuko bizia da Maialen Garat, 30 urte baino gehiago daramatzalako bertan lanean. Irakaslea, Seaskako zuzendaritzako kidea, pedagogia aholkularia... Elkartearen ia zeregin guztietan parte hartu du. Haren hitzetan, “Iparraldearentzat behar-beharrezkoa zen bertako jendea egotea ikastoletan. Bestela, ikastolen kontrakoek aitzakia ederra zuten esateko ‘ikastolak espainolen zer bait da, Enbata zikinaren zer bait’”. Horregatik, Garaten arabera, “hemengo euskal herritarrek sortu zituzten ikastolak Iparraldean. Eta euskal errefuxiatuek sorkuntza horietan parte hartu zuten, hemengo bizitzan integritate zuden neurrian; ez gehiago, ez gutxiago”.

Antzera mintzo da Filipe Aramendi, Seaskan guraso gisa hasi, zazpi urtez Seaskako zuzendaritzako partaidea izan, eta 2005etik 2007ra Seaskako lehendakarioordea ere izandakoa. “Errefuxiatuek bakarrik ez zituzten sortu ikastolak Iparraldean, nahiz eta bistan da lan garrantzitsua egin zutela sortze horietan. Esan daiteke Hegoaldeko errefuxiatuak akuilu modukoa izan zirela, bertako gurasoak asmo horretan baitzeuden jada. Haien ez zituzten sortu, sortzen lagundu baizik”, Aramendiren hitzetan.

Hegoaldeko ikastolekiko harreman formalak, hain zuzen, irakasleen bitartez hasi ziren, Iparraldeko andereñoak Hegoaldeko ikastoletara joaten baitziren formakuntza praktikoa jasotzera, lanean hasi aurretiko praktikak egitera. Izan ere, Ipar Euskal Herrian hastapen garai haietan ikastola gutxi baitzeuden.

Hori bai, “Iparraldeko ikastolak hemen sortutakoak dira”, dio Maialen Garatek. “Ez dira Hegoaldeko ikastolen erreplika edo kopia”. Eta, horren adibide gisa, Iparraldean erabilitako murgiltze eredu nabarmendu du. “Ez genuen Hegoaldeko eredu erabili, Galeskoa baizik. Hegoaldeko ikastolen ereduak, euskarari zegokionez, ez zigun balio, hizkuntz errealitate ezberdinak bizi genituelako Bidasoaren bi aldeetan”.

Ipar Euskal Herriko ikastolen sortze prozesuan, halaber, badago beste ezberdintasun nagusi bat: Hegoaldean ez bezala, Ipar Euskal Herriko ikastolen sorreran talde antolatatu bat egon zen, Seaska elkarte bera. Iparraldean, sorreratik, Seaskako partaidea dira ikastolak. Eta Seaskaren eta tokian tokiko gurasoen arteko elkarlanaren ondorioz zabaldu dira beti ikastolak.

2.4.3. Ikastolak Arabako eta Nafarroako nekazaritza-industria giroetan

70eko hamarkadan zehar industrializazioa gune nagusietatik beste inguru-needara hedatu zen neurrian, ikastolen hirugarren sortze prozesua gertatu zen Arabako eta Nafarroako herri askotan, bereziki nekazaritza bizibide nagusia

izartetik beste gizarte ereduak izatera igaro ziren bailaretan; hots, lehen marrazturiko Baztan-Iruñea-Lizarra-Gasteiz lerrotik hegoaldera eta ekialdera zegoen eremuan. Eta, izan ere, ezberdina izan zen ikastola hauen sorrera, denborari nahiz ereduari dagokionez. Denborari dagokionez, askoz geroago jaio ziren ikastola hauek, 70eko hamarkadaren bigarren erdialdetik aurrera. Eta ereduari dagokionez, herriko guraso berrizaleen belaunaldiak *kanpotik etorritako* pertsonen laguntza handia behar izan zuen ikastolak irekitzeko eta garatzeko. *Kanpoko* laguntzaile hauek zekarten erreferentzia, bereziki kulturala, herri horietako bestelako ezaugarriekiko ezberdina izanik, belaunaldi berrizale ziren gurasoentzat guztiz eragingarria izan zen.

2.5. IKASTOLEN EZAUGARRIAK

Ikastolak modu eta denbora ezberdinean sortu arren, ezaugarri propio eta komunak izan zituzten guztiak. Eta ezaugarri horiei esker ikastola, hasieratik, eskola publikoetatik eta pribatuetatik bereiztu zen.

2.5.1. Hiri fenomenoak

Eskolaren sorrera —edozein testuinguru politiko, sozial eta geografikoan— kaleko fenomenoak izan zen bezala, ikastola ere kaleko fenomenotzat hartu beharra dago, ikastolak ez zirelako sortu nekazal giro batean, hiribilduetan baizik: hirietan, herrietan, kalean. Eta babesa, nagusiki, kalean bizi zirenek, kaletarrek, eman zieten.

Hastapenetan, oso guraso baserritar gutxi babestu zituzten ikastolak. Bate-tik, baserrian eskola eragile kultural arrotzat hartu ohi delako. Bestetik, baserri-tarrek ez zutelako beharrezkoa ikusten euskara salbatzea, haiek euskara base-rrian bertan transmititzen zuten neurrian. Eta hirugarrenik, 60ko hamarkadako urte haietan, baserrietan ez zegoelako soberakin ekonomiko nahikorik ikastole-tan inbertitzeko, kaleko gizon eta emakumeek egin zuten moduan.

2.5.2. Abertzaletasunaren altzoan sorturikoa

Ikastolen sortzailetako asko eta asko abertzaleak ziren, guztiak ez esatear-ren. 1956an Parisen egindako Lehen Euskal Mundu Biltzarrean, esaterako, ikastolak sortzea aldarrikatzen zuen proposamena eztabaidatu zuten parte-har-tzaileek, eta ponentzia hark arrakasta handia lortu zuen. Eta ez zen kasualitatea izan lehendabiziko ikastolak sortzea Donostian, Hernanin, Elgoibarren, Erren-terian... hots, abertzaletasunak oinarri edo indarra zuen eremuetan.



“Bai, zalantzarik gabe, abertzaletasunaren altzoan sortu ziren ikastolak”, dio Paulo Agirrek. “Abertzaletasun tradizionalak eragin handia izan zuen. Nik ezaguturiko aurren-aurreneko ikastoletako arduradunak EAJko kideak ziren; nahiz eta, ordurako, haien artean diferentziak edo ikuspegi kontrajarriak zituzten: batzuk ortodoxoagoak ziren, beste batzuk gerraren ondoren erbestean ibilitakoak...”.

Abertzaleak, beraz, baina abertzaletasuna oso modu eta maila ezberdinean bizi zutenak. Eta ezberdintasun horiek areagotuz joan ziren, belaunaldi berriek ikastola proiektuarekin bat egiten zuten neurrian. Izan ere, “abertzaletasun modernoaren sorrerak ere eragin handia izan baitzuen ikastolen mugimenduan”, Paulo Agirrereren hitzetan.

2.5.3. Herritik eta herrirako sorturiko eskola

Abertzaletasunak, beraz, eragin handia izan zuen ikastolaren sorkuntzan. Baina abertzaleek bakarrik ez zituzten bultzatu ikastolak. Adibidez, euskaltzale hutsak zirenek ere sustatu zituzten. Alegia, politika mailan abertzaleak ez ziren klabeetan mugitu arren euskara maite eta seme-alabei euskarazko irakaskuntza eman nahi zietenak. Eta pertsona ezkertiar asko ere bilduz joan zen ikastolen inguruan, ikastola bezalako proiektuak zekarren modernitateak liluratuta.

Finean, herritik eta herrirako sorturiko eskola izan baitzen ikastola. Herriko sektoreek eta indarrek bultzaturiko eskola eredua, herri eta herritar gisa zituzten premiei irtenbidea emateko: euskararen berreskurapena eta eskola diferente bat, alegia.



Ikastola, beraz, auzolanaren emaitza edo uzta izan zen, sortzeko ez ezik, ikastola bakoitza aurrera ateratzeko ere askoren ekarpena ezinbestekoa zelako: gurasoak, irakasleak, langileak, herritar soilak... Eskola proiektu berri hartan, guztiak ziren eragile eta partaide. Dena zen berria, eta dena berria zen horretan, dena zegoen egiteke. Eta dena egiteke zegoenez, guztiek laguntzen eta parte hartzen zuten ikastolan: lokala aurkitu eta atondu, dirua lortu, irakasleak bilatu, sendi berriak konbentzitu... Ikastolaren baitan kolektibo bat sortzen zen; kolektibo bat, ikastola barruan nahiz kanpoan. Hezkuntza komunitate bat, ikastola bera gainditzen zuena.

Horregatik, Euskal Herrian inoiz emandako fenomeno kolektiborik handiena bezain garrantzitsua da ikastolaren sorrera eta garapena.

2.5.4. Partaidetza sozialeko eskola

Ikastolak eskolaren demokratizazioa ekarri zuen Euskal Herrira, eskola ulertzeko kontzepzio berri bat. Gizartetik sortu zen, eta ikastolaren jabea ere ezberdina zen. Ordura arte, ez zegoen eskola demokratikorik Euskal Herrian: fraideek edo mojek kudeaturiko eskola zegoen, edo estatuek kudeaturikoa. Ez zegoen besterik. Eta ikastolarekin hirugarren eskola sare bat sortu zen, ikastola ez zelako estatuarena edo entitate pribatu batena; gurasoak ziren eskola saio berri haren jabeak edo titularrak! Eta hau, noski, eraldaketa itzela zen.

Sabin Ipiñak azpimarratu duenez, indarrean zeuden eskola ereduetan —eskola publikoan nahiz pribatuan—, gurasoen papera hutsaren hurrena zen. “Ikasto-

lak, berriz, gurasook sortu genituen. Eta ikastolan, gainera, bi eratara parte hartzen zuten sendiek: heziketa prozesuan, eta bitartekoak lortzeko prozesuan, eredu berri hura indartu eta hobetu ahal izateko. Guraso eta senideen aldetik konpromisoa zegoen, eta konpromiso hari jarraiki denetarik egitea zegokigun: lokalak eta andereñoak bilatu, ikastolako paretak margotu... Ahal genituen ordu guztiak eskaintzen genizkion ikastolari!”

2.5.5. Haur eskola

Ikastolak 3 urteko haurrekin jarri ziren martxan, haur eskola gisa, Bidasoaren bi aldeetako legediek horretarako aukera ematen zutelako. Izan ere, XX. mendeko 60ko hamarkadan, derrigorrezko eskolaratzea 9 urterekin hasten zen Espainian, eta 6 urterekin Frantzian. Ondorioz, posible zen txikiagoak ziren haurrekin lan pedagogikoa egiten hastea.

2.5.6. Sexu bereizketarik ez

Txikiekin hastarekin batera, ikastolan ez zen sexu bereizketarik egiten haurren artean. Hots, ez ziren banatzen mutilak alde batetik eta neskak bestetik, eskola *nazionalean* eta pribatuan gertatzen zen bezala. Denak elkarrekin zeuden, eskolaratze mistoa zen. Baina honek ere pragmatismo bati erantzuten zion. Umeak behar ziren eskola eredu berri hura martxan jartzeko, eta hastapenetan ume gutxi zirenez, denak elkarrekin egoten ziren ikastolan.

2.5.7. Pedagogia berritzailea

Eskolaren kontzepzioan ez ezik, pedagogian ere ikastolak berrikuntza ekarri zuen Euskal Herrira. Pedagogia moderno bat. Gizartearen modernizazioarekin batera, hezkuntza alorrean haize berriak zeuden Eskola Berria mugimenduaren bitartez. Eta Elbira Zipitriak etxe-eskoletan egin zuen bezala, ikastolek ere iturri pedagogiko berri haietatik edan zuten: hezkuntza ez zen jada lau paretan artean gelditu beharreko jarduera, baizik eta haurraren ekintza orotan zegoen heziketa; memoriaz ikasteko prozesuaren orde, haurraren jakin-mina piztu beharra zegoen; eta irakaslea protagonista eta ikaslea objektu hutsa izatetik, haurra bihurtu zen hezkuntza prozesuaren subjektu eta ardatz.

Horrela, jolasak, kantak, irteerak nahiz bestelako kultur ekintzak eguneroko ogi bihurtu ziren ikastolan.

2.5.8. Euskarazko eskola

Eskolaren demokratizazioa eta pedagogia modernoa, beraz. Baina ikastola

zerbait bazen, ikastolak zerbait ekarri bazuen, hori zen, noski, euskarazko eskola izatea. Euskaraz ikasteko eta euskara ikasteko eskola.

Hala, hastapenetan, euskaldun giroko herrietan ume euskaldunak gehiengo ziren ikastoletan, eta erdaldunak, berriz, bakar batzuk baino ez. Ez, ordea, erdal giroko herrietan, Ibai-Ezkerraldean esaterako gelak haur erdaldunaz osatzen baitziren, euskaldun bakan batzuekin batera. Baina denborarekin, ume erdaldunen kopurua asko handitu zen euskaldun giroko ikastoletan, 70eko hamarkadan eutsiezina bihurtzeraino, haurrak ikastoletan sartzeko eskaera sozial altuaren ondorioz. Prozesu logikoa izan zen. Baina hainbat tokitan ezinbestekoa izan zen bezala, beste hainbatetan beldurra zegoen eta bertako ikastolei kosta egin zitzaizen haur erdaldunak hartzeko pausoa ematea.

2.5.9. Curriculum propioa

Ikastolak, ordea, ez ziren sortu euskara berreskuratzeko soilik. Euskal nortasuna ere berreskuratu nahi zen ikastolaren bitartez. Hala, sortzetik bertatik euskal usadioen berreskurapenari eta euskal kulturaren zabaltzeari ekin zioten ikastolek; edukietan nahiz moldeetan; ikastola barrutik zein kanpotik.

Jaunartzeak euskaraz prestatuz, Santa Ageda bezalako datak ospatuz, Olenztzeroren etorrera antolatuz... ikastola funtsezkoa izan zen, herri nahiz herrialde guztietan, euskal kultura ezagutarazteko eta indartzeko. Zenbaitetan, ikastola bera zelako ekimen haien antolatzailea. Bestetan, beste talderen batek antolatu baina ikastolan bertan garatzen zirelako kultur ekitaldi haiek. Ondorioz, euskal nortasunaren topagune ez ezik, tokian tokiko dinamika kultural eta sozialaren bilgune bihurtzen zen ikastola, elizaren lokalen kaltetan. Modernitatearen ikur ez ezik, erreferentzia kultural eta soziala ere bazen ikastola, horrek guztiak prestigioa emanez ikastolari: ikastola osatzen eta laguntzen zuten guztiak harro zeuden partaidetza horretaz.

Ipar Euskal Herrian eman zen horren guztiaren adibide garbia. Seaskak euskal abeslarien kontzertuak antolatzeari ekin zion, ikastolentzako diru iturri gisa. Hasieran, jende multzo txikia biltzen zuten. “Jende berdina zen beti”, dio Seaskako partaide eta irakasle Maialen Garatek. “Kantaldi bat Zuberoan? Denak harat. Kantaldi bat Baionan? Denak harat”. Baina, denborarekin, milaka lagun elkartzera iritsi ziren. Batetik, “efektu biderkatzaile horren ondorioz”, zehaztu du Garatek. “Emanaldi bat hemen, beste bat hor, han...”. Bestetik, Hegoaldeko ehunka lagun joaten zirelako kontzertu haietara, frankismoak debekaturiko emanaldiez gozatzeraz. “Martxoaren 19ko (San Jose jaiegunaren) bezpera, adibidez, izugarria zen”, gogorarazi du Garatek. “Milaka lagun Biarritzen edo Donibane Lohizunen, denak txiskeroak pizturik. Meza modukoak ziren haiek, baina frontoietan, ez elizan (kar-kar-kar)”, Garaten hitzetan. Eta puntako eus-

kal kantariek parte hartu zuten emanaldi haietan: Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Peio eta Pantxoia...

Olentzeroren etorreraren ospakizuna, halaber, Seaskarekin hasi zen Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, ikazkin ezagunaren figura Nafarroan sortu arren. Libe Goñik, Iparraldeko lehen andereñoak, oso gogoan du Olentzerorekin lehen aldiz kaleratu zirenekoa, lan handia egin baitzuen horretarako. “Hemen Papa Noelek eta Jesusek hurrei ekartzen zizkieten opariak. Orduan, gurasoei deitu eta Olentzeroren berri ematea erabaki nuen. Mutiko bat Olentzeroz jantzi, txistua atera eta plazara atera ginen. Arrangoitzeko herria biziki eremu zabala zen, eta abenduko asteburu bakoitzean auzo batera joaten ginen Olentzerorekin. Etxean Papa Noelek ekartzen zizkien opariak, baina ikastolan Olentzerok”.

2.6. ARAZOEN AURREAN, ELKARLANA

Ikastolak ez ziren bat-batean sortu. Baina bat-batekotasuna izan zen, hastapeneko urteetan, ikastolen adierazleetako bat. Aurrera egin ahala, bidean topaturiko oztopoei erantzuteko bat-batekotasuna. Hots, aurrera egin eta, eragozpen bakoitzaren aurrean, *Zer egin orain?* galderari milaka aldiz erantzun beharra.

Ikastolak ezer gabe jaio baitziren: laguntza ofizialik gabe, bitarteko teknikorik gabe, giza baliabiderik gabe... Dena zegoen egiteke. Eta dena egiteke zegoen horretan, noski, ez ziren gutxi ikastolek gainditu beharreko trabak.

Hasteko, eta paradoxikoa bada ere, gurasoen zalantzei aurre egin behar izan zieten. Esaterako, 3 urteko hurrekin hasteak sortzen zuen zalantza, 60ko hamarkadan, derrigorrezko eskolaratzea ez baitzen 9 urtera arte hasten Espainian, eta 6 urtera arte Frantzian. Ikastoletan, gainera, gelak mistoak izateak gurasoen zalantzak areagotu baino ez zuen egiten.

Eta ikastolan erabilitako pedagogia metodo berriekiko ere mesfidantza agertzen zuten guraso askok. “Haurrak kantatzen, dantzatzen... ikustean, guraso askok ez zuten uste era horretara ikas zezaketenik hurrek”, Sabin Ipiñaren esanetan. “Beste askok, berriz, arduragabekeriatzat jotzen zuten ikastolako irakasleek behar bezalako prestakuntzarik ez edukitzea”.

Horregatik, Sabin Ipiñak azpimarratu du ez zela erraza guraso berriak lortzea ikastolarako. “Konbentzimendu lana zen hura. Eta zaila izaten zen, batik bat lehendabiziko urteetan”. Baina baliabide falta gogoarekin ordezkatzeko zen. Bihotzarekin, konpromisoarekin, kuraiarekin. “Gurasook zerbait propiostat genuen ikastola, konpromiso familiar moduko bat”, Ipiñaren arabera.



2.6.1. Diru eta azpiegitura falta

Diru eta azpiegitura falta izan ziren ikastolek gaintitu beharreko beste arazo handiak. Irudimenaren indarra izan zen baliagarria horretarako, beste askotan gertatu bezala. Etxe azpiko lokaletan, elizak utzitako geletan, garajeetan... ikastolek era guztietako kokapenak ezagutu zituzten hasierako urteetan. Dirua lortzeko, halaber, hain zabala izan zen dirua biltzeko ekimenen zerrenda, ezen esan daitekeen ideia lehiaketa modukoa zabaldu zela Euskal Herrian. *Nola lortu diru gehiago ikastolarentzat* izan zitekeen txapelketa horren izenburua. Ofizialki inork ez zuen antolatu edo erregistratu lehiaketa hori baina, ezbairik gabe, ikastolen biziraupena bermatu zen milaka ideia eta ekimen haiekin.

2.6.2. Irakasle falta

Edonola ere, irakasle falta izan zen ikastolen hasierako arazorik nagusiena. Izan ere, garai haietan, oso gutxi ziren irakasle titulua zutenak. Lehenik, irakasle ikasketek irudi txarra zutelako Euskal Herrian, batik bat Gipuzkoan eta Bizkaian. Frankismoan, eskolan *aukeraturiko* irakasleak jarri zituztenez, maisuek gerra aurretik zuten irudi txarra areagotu baino ez zen egin. Euskaldun askok espainoltzat eta frankistatzat jotzen zituzten eskolako irakasleak.

Gainera, hazkunde ekonomikoak ikasketa teknikoaren gorakada ekarri zuen. Eta maisutza gaizki baloratuta eta ordainduta zeudenez, ikastea delibe-

ratzen zuten gizonezkoek beste karrerak hautatzen zituzten. Hortaz, arrakasta sozialik eta ekonomikorik ez zuenez, irakasle-eskola emakumezkoentzako eremu bihurtu zen.

Baina, titulua izanda ere, irakasle-eskola ofizialean jasotako formazioak ez zuen balio ikastolan irakasle gisa jarduteko. Ikastolak, euskal eskola berria zen neurrian, irakasle berriak behar zituen; irakasle euskaldunak, eta berezko irizpidei erantzuteko. Andereño falta handia zegoen, beraz, eta horren ondorioz andereñoen *ehiza* zabaldu zen Euskal Herrian: noiznahi eta nonahi, andereñoen bila aritzea.

Hastapenetan, beraz, andereñoak izan ziren ikastoletako irakasleak. Gehienak titularik gabekoak, eta gizarte segurantzarik gabe eta soldata txiki-kin ikastolaren alde lan militante esker ga egiten zutenak. Gurasoen antzera, ikastola egin eta bizi zuten andereño haiek, eta gurasoekin ere harreman estuak eraiki zituzten.

Gizonezkoak ez ziren hasi ikastoletan irakasle gisa 60ko hamarkadaren bukaera aldera arte. Gizartean bezala, eliza katolikoan ere haize berriak baziren, eta sekularizazio prozesuaren ondorioz, apaiztegiak hustu eta apaizgai haietako asko eta asko ikastoletan sartu ziren. Paulo Agirre bera izan zen, ikastolen mugimenduan hasi aurretik, seminarioa utzi zuten gazte haietako bat. “Ni 1966an atera nintzen seminariotik, eta Bizkaian lehen maisuak 1968-69an iritsi ziren ikastoletara”, Agirreren hitzetan. “Baina oso bortitza izan zen gure etorrera. Oso ideologizatuta geunden: aldaketak nahi genituen berehala, elizarengandik urrund... gurea uholde modukoa izan zen ikastolentzat, eta mesfidantzaz begiratzen gintuzten”. Gizonezko horiek kulturalki jantziak zeuden, baina pedagogiaz ez zekiten deus. “Orduan, nahasketa modukoa eman zen ikastoletan: andereñoak, formaziorik gabekoak, baina pedagogian aritzen zirenak; eta gu, kultur gizonak, baina pedagogiaz pitorik ez genekienak. Gurasoak oso erne ibili ziren orduan”.

ANDEREÑOAK PRESTATZEKO ERRESIDENTZIA

Ikastoletako andereñoek behar zuten formazio propio eta berezitua bermatze aldera, 1964an Joanes Etxeberri Hezitzaileen Eskola zabaldu zen Donostian, Joxemi Zumalabek, Karlos Santamariak eta Jazinto F. Setienek sortuta. Andereñoen Erresidentzia gisa ezagunagoa da ekimena, eta egoitza eta formazio osagarria eman zien andereñogai berriei, ikastoletan praktika saioak egiten zituzten bitartean.

Etorkizuneko andereñoek, metodologikoki, Elbira Zipitriaren eredia ikasten zuten Zipitriarekin berarekin aritutako andereñoen eskutik. Eta edukien aldetik, lau ziren atalak: euskara eta literatura; herriaren ezagutza (historia, geografia, antropologia...); haurra eta bere ingurukoa (pedagogia eta metodologia); eta eskolari buruzko ezagupenak.

Ikastoletako irakaslegoaren formakuntzan, lehen urratsa izan zen Andereñoen Erresidentzia. Kualitatiboki zein kuantitatiboki, urrats garrantzitsua, 10 urte iraun baitzuen ekimenak, 1964tik 1974ra. Eta bederatzi andereñorekin abiatu bazen ere, azken ikasturtean 45 andereñogai izan baitziren. •

2.6.3. Bilatze lan iraunkorra

Hasieratik, beraz, irakasleen prestakuntzari aparteko garrantzia eman zioten ikastoletan. Hasteko, Euskal Herrian bertan egondako ereduari, Elbira Zipitriak etxe-eskoletan garaturiko ereduari, alegia, heldu ziotelako. Andereño berriek molde harekin hautsi zutenean sortu ziren ikastolak, bai. Baina Zipitriaren eredia gertukoena zen, eta, ondorioz, haren metodoak ikasiz abiatzen ziren andereño berriak, harekin zuzenean edo zeharka jardundako andereñoen eskutik.

Baina Zipitriaren eredia ez zen nahikoa. Ikastoletan zerbait gehiago behar zuten, eta bilatze lan iraunkor bati ekin zioten andereñoek, eredu ezberdinak aztertuz eta bide berriak jorratuz. Eta hain zuen bi izan ziren ikastoletan eragin berezia izan zutenak: Kataluniako esperientzia eta Célestin Freinet pedagogoa frantziarra.

Katalunian, adibidez, hezkuntza alorrean modernizazio saio garrantzitsuak egin zituzten, eta 1965ean Rosa Sensat Institutua sortu zen. Gainera, Kataluniak bazuen katalanez landutako eskolen tradizio bat, 1936ko gerra aurretikoa,

Generalitatearena (1932-36), hain zuzen. Horrela, harremanetan jarri eta bi nazioen arteko elkar elikatze edo trukaketa eman zen pedagogikoki, udako ikastaldien eta antzekoen bitartez. Ikastoletako ordezkariak ikusi zuten posible zela euskarazko eskola bat, katalanez egiten zirenen antzera; bestetik ere, jabetu ziren ikastola eskola moderno bat izan zitekeela, Katalunian gertatzen zen bezala.

Katalanek, aldiz, ikastoletako andereñoen dinamismotik ikasi zuten, pedagogikoki ezjakinak izan arren. Hots, Zipitriaren garaietatik zetorren elkarrengandik ikasi eta praktika onak egiteko ohitura.

Célestin Freinet pedagogo frantziarrak teknika ezberdinak bezain berri-tzaileak erabiltzen zituen eskolan, ikaslea subjektu bihurtuz. Zipitriaren metodo zurrunaren alboan, teknika askeagoak ziren haiek. Ondorioz, teknika haiek oso gustura hartu ziren ikastoletan, Frantziako edota Kataluniako eskoletan gertatu bezala. Gainera, Freinetek irteerak egiten zituen ikasleekin, eskolaz kanpoko ekintzak. Eta hori oso ondo uztartzen zen ikastoletan zegoen material faltarekin, jarduera berriak eta aktiboak egiteko borondate-arekin...

Dena den, eragin zehatzak baino, ikastolak unean uneko pedagogia tek-nikei eta berrikuntzei zabalik egotea izan zen garrantzitsua. Eredu berriak bereganatzeko gosea, baina plater (eredu) bakar batera mugatu gabe. Pedagogo-gikoki, hori izan baitzen 60ko hamarkadako ikastolen ezaugarria: norabide bakarreko eredu pedagogikorik ez egotea. Nahi bat zegoen, joera bat: handik eta hemendik hartu, besteengandik ikasi, eta ibiliz bidea eginez segitu. Hanka sartuz batzuetan, asmatuz bestetan... baina eredu propioa eraikitzen jarraitu, finean.

GORDAILU, HEZKUNTZARAKO ETA FORMAZIORAKO ELKARTEA

Ikastoletan bizi zen prestakuntza eta formazio ezari erantzun asmoz, 1968-69 ikasturtean Gordailu sortu zen, Jaxinto Fernandez Setienek sustatuta. Formazioa etengabekoa zela iritzi zioten Gordailuko partaideek, eta, horretarako, irakasleen parte-hartzea ezinbestekoa zen. Hau da, irakasleek beraiek landutako prestakuntza, haien beharrei erantzuteko.

Hala, hezkuntza zerbitzu ikastetxe baten antzera lan egin zuen Gordailuk, bai eta ikastoletako irakaslegoaren formaziorako ikastetxe gisa ere. Eta lau bide nagusi jorratu zituen: ikastaroak antolatu zituen, irakasleek eguneroko jardunean aurkituriko hutsuneei erantzun asmoz; ikastoletan zegoen material faltari aurre egiteko denda bat zabaldu zuen Donostian (Haurride izeneko), Bartzelonan eta Baionan erositako materiala salgai jarri; aldizkari bat kaleratu zuen, irakasleen arteko komunikazioa bultzatzeko; eta liburuak ere argitaratu zituen elkarteak, ikastoletan erabili ahal izateko.

Zabalpen garrantzitsua ezagutu zuen Gordailuk, herrialde bakoitzean liberatuak izan zituelako, eta ikastoletako irakasleen artean bazkide asko. Eta bazkideen kuotak ziren Gordailuren finantzabidea, material salmentarekin batera.

Gordailuren esperientzia, ordea, 70eko hamarkadaren bukaera aldera amaitu zen, arazo ezberdinak direla medio. •

2.6.4. Eskolatze libreta

Legeztapena izan zen, halaber, ikastolek sorreratik izan zuten beste oztopo nagusia. Ipar Euskal Herrian ez, Seaskaren aterkipean zabalduz sorreratik bertatik legezkoak zirelako, baina Hego Euskal Herrian legez kanpo sortu izanak traba dezente zekartzan euskal eskola berri haientzat: arriskua, hezkuntza ikuskarien eta Guardia Zibilararen bisitak, beldurra... Bilboko Iralabarriko ikastola, adibidez, 1959ko azaroaren 10ean itxi zen, ikuskari batek haren kontra jarritako salaketaren ondorioz. Bi andereño egun batez espetxeratu zituzten, eta geroago epaitu —ikastolako batzarreko arduradunekin batera—, isun gogorrak jasoz.

1965ean, hain zuzen, *Cartilla de escolaridad* edo *Eskolatze libreta* izenekoaren sistema berria jarri zen indarrean Espainiako Estatuan. Ikasle bakoitzaren nota guztiak biltzeaz gain, libreta hura ezinbesteko baldintza bihurtu zen eskola

batetik bestera pasatzeko eta, garrantzitsuagoa zena, batxilergoan matrikulatzeko. Legeari zegokionez, libreta hura lehen traba garrantzitsua bihurtu zen ikastolentzat, eta guraso, irakasle eta sortzaile askoren buruhaustea. Seme-alaben heziketa arriskuan zegoen berriro, ikastola proiektuarenganako zalantzak eta beldurrak areagotuz. Zer egin egoera horren aurrean?

Legezapena lortzeko prozesuari ekin zioten orduan ikastola batzuek. Ordu-ra arte, Donostiako Santo Tomas Lizeoa zen legezaturiko ikastola bakarra, sorreratik bertatik (1961ean) sozietate merkantil gisa jarrita. 1968ko urtarrilaren 22an, Errenteriako Orereta Ikastolak ere bere legeztapena jaso zuen, elkarte kultural gisa. Urte bereko maiatzaren 7an, berriz, Euskaltzaindiaren izenean eta babespean, Bilboko Resurrecion Maria Azkue Ikastolaren jarduna baimendu zuen Espainiako Aldizkari Ofizialak (gerora, Lauro Ikastola izango zen). Bizkaian legezaturiko lehendabiziko ikastola izan zen, eta Euskal Herri osoan Euskaltzaindiaren babespean legezaturiko bakarra.

Urrian, Gasteizko Olabide Ikastolak legeztapena lortu zuen, eta, 1968ko urte hura bukatu aurretik, Bilboko Karmelo Ikastolari ere bere funtzionamendurako baimena onartu zitzaion, "Enseñanza complementaria en euskera" eskaini zezaketen ikastetxe pribatuaren formularekin. . . Baina ikastola batzuek legeztapena eskuratzekeko tramiteak abiatu arren, ez zegoen legeztapenerako irizpide edo eredu komunik ikastoletan. Bakoitzak ahal zuena egiten zuen, eta ahal zuen moduan.

Ikastola gehienek, ostera, beste bide baten bitartez lortu zuten *Eskolatze libretaren* arazoari aurre egitea. Eta paradoxikoa izan arren, eskola *nazional*etako hainbat irakasleren elkartasunean aurkitu zuten konponbidea. Izan ere, irakasle haiek ikastoletako haurren libretak sinatzen zituztelako haien eskoletan bertan, ikastoletako ikasleak bertakoak izango balira bezala. Trikimailu honi esker, aurrera jarraitu ahal izan zuten ikastolek. Baina behin-behineko irtenbidea baino ez zen izan (beste behin ere bat-batekoa, ikastolaren nortasunari jarraiki); geroago, ikastolen mugimenduak sakon eta aurrez aurre heldu behar izan baitzion legeztapenaren arazoari.

FRANCO, AITONA GERRAN HIL ZUEN GIZONA

Poliziez gain, ikastolek hezkuntza ikuskatzaileen ezusteko bisitak jasotzen zituzten sarri. Durangoko Kurutzia Ikastolako lehen andereño Miren Artetxek, esaterako, oso gogoan ditu ikuskatzaileen bisita haiek. "Umeei Cara al sol erakutsi behar izaten genien, eta Sanchez ikuskatzailea etortzen zenean kantatu egin behar izaten zuten. Gelan Francoren argazkia eta ikastolaren

sarreran bandera espainola jarri behar genituen”, Artetxeren esanetan.

“Egun batean, beti bezala ezustean, Sanchez ikastolara etorri zen, eta Francoren irudia seinalatuz ‘¿Sabeís quién es éste?’ galdetu zien umeei. Eta batek erantzun zion: ‘Sí, ese es el que mató a mi abuelo en la guerra’”. Kristorena montatu zen, Miren Artetxeren arabera. •

2.6.5. Ikastola Batzordea

Ikastolen sorrera ez zen eman, beraz, alde zaureratik egindako plangintza edo diseinu baten ondorioz. Sorrera denetariakoak izan ziren, ikastolak han eta hemen zabalduz. Baina, ikusi bezala, berehala gauzatu zen ikastolen arteko koordinazioa, beharrak eraginda. Eta horrela sortu zen Ikastola Batzordea, ikastolen mugimenduaren lehen adierazle kolektibotzat har daitekeena. Lehen ikastola elkarte, bestela esanda.

60ko hamarkadaren erdialdean sortu zen Ikastola Batzordea. Bilerak Urretxun egiten ziren, bertako Pasiotarren fraide etxean, Euskal Herri osoko ikastoletako partaideak elkartuz. Paulo Agirre zen Ikastola Batzordean parte hartzen zuenetako bat, jada buru-belarri ari zelarik lanean ikastolen alde. “Segituan hasi nintzen Urretxuko bileratara joaten. Hernaniko Gurutzeagak ordaindu zuen nire lehen soldata; eta gero Beasaingo Gastesik, CAFeko zuzendariordea zenak”.

Agirrereren hitzetan, “1967-68an, bi urte horietan, bakarrik Urretxun biltzen ginen, eta herrialde guztietakoak. Baita Iparraldeko ordezkaria ere”. Hasitapenetan, igandetan egiten ziren bilerak; gero, larunbat arratsaldetan. Baina asteburuak baliatuta beti. “Hasieran, 15-16 lagunen bilerak izaten ziren. Guztiak ez ginen beti elkartzen, ikastoletako ordezkari askok, langileak izanik, ezin zutelako etorri. Gurasoak eta laguntzaileak ginen nagusiki. Gero, irakasle pare bat etortzen hasi zen, baina, bestela, oso tarteka etorri ziren irakasleak”. Poliki-poliki, batzordea handituz joan zen, “buru batzuk irten arte: Jaxinto F. Setien eta Jesus Atxa”, nabarmendu du Paulo Agirrek. “Jesus Atxa Urretxuko bilere-tan ezagutu nuen nik. Han jada gizon apala zen, baina zuzenean bihurtu zen *alma materra*”.

Batzorde bat baino, koordinazio bilerak ziren Urretxuko haiek, Agirrereren arabera. “Bakoitzak bere kezak botatzen zituen, baina lan batzuk ere finkatu ziren: irakasle berriak atzematea, udalekuak antolatzea... Esperientzien trukaketa oso garrantzitsua zen. Denok elkar laguntzen genuen”.

1968an, ordea, haustura eman zen Ikastola Batzordearen baitan, ikastolei eman beharreko norabideari buruz ikuspuntu kontrajarriak zeudelako parte-har-tzaileen artean. “Guraso batzuen artean kezka bazeuden ordurako, beste batzuek beste ikutu bat, beste norabide bat eman nahi zitelako ikastolei”, Paulo Agirre-ren hitzetan. “Eta bestetik, legeztapenaz ere jarrera ezberdinak zeudelako. Her-nani, Errenteria, Irun izan ziren aurrea hartu eta esan zutenak: ‘Gu legezatzera goaz’. Beste batzuek, berriz, nahiago zuten ordura arte bezala jarraitu: isilean, zarata handirik sortu gabe... Jada bi tendentzia sumatzen ziren: legeztapenaren aldekoak eta kontrakoak, legeztapenari buruzko kezka gero eta handiago zelako. Oso azkar sortu zen ikuspegi hori, legeztapena gauzatzea gehiago kostatu arren”.

JESUS ATXA, IKASTOLEN ERAGILE ETA ARIMA

Ikastolen mugimenduaren historian erreferentziako pertsona bat baldin badago, Jesus Atxa da hori. 1920an Aretxabaletan sortua, Durangoko Jesuitetan ikasten hasi zen, baina gerraren ondorioz erbesteratu eta 40ko hamarkadan jesuita izateari uztea erabaki zuen Bogotan (Kolonbia). Venezuelan ere bizi izan zen, 1945ean sorterrira itzultzea erabaki zuen arte.

Elorrión kokatu eta 1961ean Bilbora joan zen bizitzera, eta Edili (Edición de Libros) argitaletxe euskaltzalean lanean hasi zen. Garai hartan harremanetan jarri zituen gero Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastolen elkarteen sortzaileak izango zirenak. Bizkaiko hainbat ikastolen sorreran lagundu eta parte hartu zuen, eta gero, 1970ean Iruñeko San Fermin Ikastolako zuzendari izendatu ondoren, Nafarroan gauza bera egin zuen. 14 urtez izan zen bertako zuzendari, 64 urterekin erretiroa hartu arte.

Atxa jauna izenarekin ezagutu zuten askok, eta Nafarroako Ikastolen Elkartean lan eskerga egin zuen, haren sorreran nahiz ondorengo urteetan. Abertzalea zen Atxa, baina ikastolen mugimendu autonomoa bultzatu zuen, independentea, eragile politiko oren aginduetatik kanpo egon eta bere ardatzak zehaztuko zituen.

Ikastolek nahiz ikastolen mugimenduak behin baino gehiagotan eskertu zioten Atxari egindako lana eta Euskaltzaindiak Euskaltzain Urgazle eta Ohorezko ere izendatu zuen. Halaber, Eusko Ikaskuntzak Lekuona saria eman zion, erakundearen sari gorena.

2007ko urriaren 23an zendu zen Jesus Atxa, Iruñean, 87 urte zituela. •

BARRIA, EUSKAL UDALEKUEN IKUR

Lehen euskal udalekuak 60. hamarkadan sortu ziren, ikastolen mugimenduaren osagarri gisa. 1960an bertan lehen saio xumea egin zen Arrazolako (Bizkaiko) baserri batean, Xabier Peña euskaltzalearen bitartez, bederatzi ume eta bi andereño bilduta. Baina euskal udalekuak 1965eko udaz geroztik gorpuztu eta indartu ziren Barrian (Araba), bertako monastegiaren babesean.

1965eko uda hartan, hiru asteko egonaldiaz gozatzeko aukera izan zuten hurrek, bi txandatan antolatuta. Berez, ikastoletako ikasleentzako udalekuak ziren, baina oraindik ikastolarik ez zuten herrietako haurrak ere hartu zituzten Barrian. Begiraleak, aldiz, boluntario aurkezturiko gazteak ziren: andereñoak, andereño gaiak eta beste hainbait gazte. Eta gabeziak, beste behin, ilusioarekin ordezkatu zituzten. Oso esperientzia aberasgarria izan zen, eta Guraso Eguna ere antolatu zuten, Frantziako udalekuen ereduari jarraiki.

Urtez urte azpiegitura hobetuz eta bitartekoak ugarituz joan ziren, eta Barria milaka euskal haurrentzako udalekuen ikur bilakatu zen.

Nekane Auzmendi andereñoa izan zen Barriako euskal udalekuen bilakaera ezagutu zutenetako bat, 1965eko lehen saioan hasi eta, guztira, zortzi uda egin zituelako Barrian. “Uda haien inguruko oroitzapen onak ditut. Hurrek ongi erantzun zuten. Gurasoek ere, konfiantza izan zuten gudan. Guraso izanda edo izan gabe, (Ikastola) Batzordea osatu zuen jendeari esker ez ginen bakarrik sentitu; bisitan ere maiz etortzen ziren ondo moldatzen ari ote ginen ikustera, eta burua Barrian zuten”, Auzmendiren esanetan.

Antzera mintzo da Paulo Agirre. “Ikastola Batzordean ezagutu nuen gizon bat bileratara kamioi batekin eta beste emakume batekin joaten zena. Juanito Goia zen, Karlos Santamariarekin eta beste hainbatekin batera Santo Tomas Lizeoko sortzaileetakoa. Konstruktorea zen, eta Urretxun egiten genituen bilerak bukatuta, Barriara joaten zen bere laneko kamioiarekin, materialarekin, langile batekin... Maritxu Barriolarekin batera, euskal udalekuen sortzailea eta arima izan zen. Horrelako jendea zen. Haien dena jartzen zuten ikastolen alde: haien lana, dirua, orduak... Eta horrelako jendea behar zen!” •





3.

BAKANTASUNETIK BATASUNERA (1969-1978)

3.1. TESTUINGURUA

Ikastola Batzordearen baitan, beraz, haustura eman zen 1968an, ikastola ulertzeko eta ikastolari eman beharreko norabideari buruz ikuspuntu kontrajarriak zeudelako. Barneko eragileak, beraz.

Baina kanpoko arrazoiek ere eragin zuten gune hura bertan behera gelditze-ko. Urte hartako abuztuaren 2an ETAk Meliton Manzanos polizia burua Irunen (Gipuzkoa) hil ondoren, Espainiako Gobernuak salbuespen egoera ezarri zuen herrialde osoan. Eta, horrekin batera, irailaren 15erako legeztatu gabe zeuden ikastolen itxiera agindu. Tentsio politikoa eta soziala gorantz zihoan Euskal Herrian, eta ikastolak ere Espainiako Estatuaren errepresioaren jomuga ziren.

Beraz, salbuespen egoerak asko zaildu zuen ikastoletako ordezkariak Urretxura joan ahal izatea. Dagoeneko lagun ugari biltzen zen bilera haietan, eta batzarrak oharkabean egitea ia ezinezkoa zen. Legez kanpoko ikastolak ixteko aginduak, halaber, legeztapenari buruz zeuden desadostasunak areagotu baino ez zituen egin.

Ataka zail horretan, ikastola gehienek Eliza katolikoarengana jo zuten babes eske. Izan ere, Eliza katolikoak autonomia osoa zuen irakaskuntza emateko Espainian, 1945eko *Ley de Educación Primaria*-ri jarraiki. Gainera, Vatikanoko Bigarren Kontzilioak eta Joan XXIII. Aita Santuaren *Pacem in Terris* entziklikak herri nortasunen defentsa egiteko aukera ematen zion elizari.

Gauzak horrela, bi mugimendu eman ziren ikastolen mugimenduen baitan.

Batetik, urrats edo pauso indibiduala. Ikastola bakoitzak bere herriko eliza-ren edo orden erlijioso baten laguntza bilatu zuen, zenbait tokitan irakaskuntza zerbitzua ematen ez zuten orden erlijiosoak egon bazeudelako: Sakramentinoak

Tolosan, Beneditarrek Lazkaon, Pasiotarrak Urretxun eta Euban... Inoiz ez zen jo, ordea, fraideengana edo mojenana, haiek dagoeneko kudeatzen zituztelako eskolak. Babes horri jarraiki, ikastola asko Eliza katolikoaren ikastetxe bihurtu ziren, Parrokia Eskola edota Euskal Katekesia izena hartuta. Ikastolen legeztapenerako formula juridiko berria bihurtu zen hau. Baina, babes juridikoaz gain, sinesgarritasuna ere lortzen zuten ikastolek: elizaren babesa jasota, gizartearen eta boterearen aurrean, *persona baketsuak* ziren ikastoletako partaide haiek.

Gipuzkoan, esaterako, 78 ikastoletatik 53k —%68k, beraz— jaso zuten eliza katolikoaren babesa. Bizkaian ere gertatu zen fenomeno hau, baina maila apalagorik, ikastolen mugimendua bera sakabanatuagoa zegoelako herrialde horretan.

Bestetik, elizaren babes eske joatean urrats kolektiboa ere eman zen ikastolen mugimenduan, Gipuzkoako Ikastolen Elkarte (GIE) edo federazioaren sorrera eragin zuena.

3.2. GIPUZKOAKO FEDERAZIOAREN SORRERA

Ikastola Batzordearen hausturaren ondotik, ikastolen legeztapenaren aldekoak Donostian biltzen hasi ziren. Zailtasunak zailtasun, Urretxun elkartzen jarraitu zuen beste talde batek, baina jada ez zen lehenago bezala.

1968tik 1969ra, aldiz, bi gune haiek osatzen zutenen arteko hurbilpen bat eman zen, gero eta premiazkoa ikusten baitzen elkarte baten beharra. “Baina ez guztien artean, sektore batek legeztatzea errefusatzeko jarraitzen zuelako”, argitu du Paulo Agirrek. Bi talde horietako ordezkariak Tolosan elkartzen hasi ziren astero; eta, 10 hileko lan gogorraren ondotik, Gipuzkoako Ikastolen Elkarte Batza izenekoa eratu zen 1969ko azaroaren 9an, Azpeitiko Loiolan egindako batzarrean.

Ikastolen mugimenduaren barruan, lehen federazioaren sorrera izan zen Gipuzkoakoa. Iparraldeko Seaska hilabete batzuk lehenago sortu arren, ez zen federazio gisa eratu, eta ikastola bakarra hartzen zuen bere baitan. Gipuzkoakoa, ostera, federazio gisa sortu zen hasieratik, eta herrialdeko ikastola gehieneko parte-hartzearekin eta osaketarekin.

Loiolako eratze batzar hartan onartutakoaren arabera, Gipuzkoako federazioaren zeregin nagusiak ziren ikastolen legeztatzea bideratzea, ikastolen finantzaketa arazoei irtenbidea bilatzea, irakasleak bilatzea eta prestatzea, eta ikastola bakoitzaren arazoei erantzuteko idazkaritza iraunkorra izatea.

Hala, elkarte II bailaratan antolatu zen, Talde Bateragilea izenarekin bataiatutako zuzendaritza batekin. Talde Bateragilea, halaber, II eskualdeetako 22 ordezkariak osatzen zuten: II ordezkari, bailara bakoitzetik arduradun bana



aukeratuz; eta gainerako II ordezkariak, bailara bakoitzean bideratutako haur kopuruaren arabera. Gurutz Ansola izan zen elkartearen lehendabiziko lehendakaria, eta Txomin Izagirre lehen liberatua, idazkari ardurak betetzeko. Egoitza, berriz, Donostiako Antigua auzoan finkatu zen, Matia kalean, bertako parrokiaren gela txiki batean. Izan ere, elkarte elizaren babesean zegoen; eta emandako babesaren truke, elizak ordezkari bat zuen elkartearen. 1969an bertan Gipuzkoako Gotzaitegiak Jose Lasa izendatu zuen lan horretarako.

Beraz, 1968-69ko tarte horretan eman zen lehen legeztapen masiboa ikastolen mugimenduan. Eta babes horren ondorioz sortu zen GIE, ikastolen bakantasunetik batasunerako lehen urratsa izan zena. Jokaldi biribila izan zen, bai, babesaz gain, federazioaren bitartez sortzaileek antolaketa eredu berri bat

ere ezarri nahi zutelako. Ordura arteko autogestioa gainditu eta ikastolek aurrerantzean izango zituzten erronkei erantzuteko baliagarria izan zen antolaketa. Paulo Agirreren esanetan, denek zekiten jada non planteatu behar ziren arazoak, eta nondik bideratu gauza guztiak. “Lan ildo bakoitzari buruzko lan taldeak osatzen hasi ziren, federazioa gero eta garrantzitsuagoa bihurtu zen, eta horren ondorioz bizkaitarrek ere federazioa sortu zuten aurrerago”.

Agirreren arabera, Gipuzkoan sortu zen lehendabiziko federazioa “Gipuzkoan bertan sortu zelako lehen kezka legeztapenari buruz. Batzuek oso garbi zuten legeztatu beharra, eta beste batzuk oso kontra zeuden. Eta giro gaiztotu horretan sortu zen Gipuzkoako federazioa”.

Gipuzkoako federazioaren sorrerak berak kritikak jaso zituen ikastoletako sektore batzuen aldetik. Guraso elkarte gisa eratzearen ondorioz, irakasleak albo batera utzi nahi izatea izan zen kritiketako bat. Ikastolen izaera herrikoia galdu eta elizari kontrolerako bideak ematea, beste salaketa bat. Erakunde berriaren ustezko gehiegizko zentralismoa, hirugarren bat... Finean, ikastolen mugimenduaren barruan ordurako zegoen tentsioaren adierazleak ziren kritika haiek guztiak. Eta, baretu baino, tentsioa handituz joan zen, ikastolen mugimenduaren baitan lehen krisia sortzeraino.

3.3. GATAZKA IDEOLOGIKOA IKASTOLETAN

60ko hamarkadako bukaerako urteak, hamarraldia beraren antzera, oso biziak izan ziren. Mugimendu sozial eta politikoko handiko sasoiak. Aldaketa urteak, nazioarteko zein Euskal Herriko panoraman.

Nazioartean, esaterako, 68ko maiatz sonatua bizi izan zen Parisen; *Pragako Udaberria* izenekoa Txekoslovakian; Vietnamgo gerra eta haren kontrako mobilizazioak mundu osoan; gatazka baten berpizkundea eta areagotzea Ipar Irlandan...

Euskal Herrian ere gorantz zihoan tentsioa eta gatazka politikoa: Txabi Etxebarrieta etakidearen eta Meliton Manzanasko poliziaren heriotzak, salbuespen egoera, tortura, presoen eta iheslarien ugaritzea, Burgosko (Espainia) epaiketa edo auzia 1970eko abenduan... Sekularizazioarekin batera, Eliza katolikoa indarra galtzen zihoan; Euskaltzaindiak euskararen batasunerako erabakiak hartu zituen 1968ko urrian; ideia marxistek indar handia hartu zuten...

Garai bateko balore eta ikuspegiak lehertarazten ari ziren gizartean. Eta ikastolak, gizartetik sortu ziren neurrian, ez ziren eztanda horretatik kanpo gelditu. Diktadura garaiak ziren haiek. Ikurrina bera edukitzea delitu zen. Haurrei euskarazko izenak jartzea ezinezko egiten zuen erregimenak. Alderdi politikokoak legez kanpo zeuden oraindik. Zeuden instituzio apurrak frankistek kontro-



latzen zituzten... hitz egiteko eta eztabaidatzeko egarri handia zegoen. Eta ikastoletako partaideek hain barrutik bizi zuten eskola saio berri hura, ezen gai eta arlo guztiei buruz hitz egiten zela ikastoletan: politikaz, erlijioaz, sexualitateaz... Famili baten moduan bizi zen ikastola; baina, askotan gertatu bezala, familian bertan desadostasunak eta tirabirak sortu ziren.

Eta gatazka konplexua izan zen ikastolen mugimenduaren baitan bizitakoa; hari askoko mataza, 60ko hamarkadaren bukaeran hasi eta ia 70eko hamarkadaren erdira arte luzatu zena. Baina, nagusiki, bost gairi buruzko eztabaidak eman ziren ikastoletan.

3.3.I. Norenak dira ikastolak?

Gipuzkoako Ikastolen Elkarte guraso elkarte gisa eratzea gaizki ikusia izan zen irakasle batzuen aldetik. Baztertuta sentitu ziren, eta horrek bide eman zuen ikastolen jabetzari buruzko eztabaida eragiteko. “Norenak dira ikastolak?”, galdetzen zuten. “Gurasoenak bakarrik?”, galderetako beste bat. Oso irakasle sektore ideologizatuta zen, ezkertiarra, Gordailuren inguruan mugitzen zena.

Baina ikastolena ez zen izan ezbaian jarritako jabego bakarra. Haurren jabetza ere eztabaida latzen erdian zegoen. “Norenak dira haurrak?”, entzun zen maiz garai hartan. Gurasoek, noski, haurrak haienak zirela erantzuten zuten; eta seme-alabak eramaten zituzten ikastolak ere, haiek sorturikoak zirela. Irakasleen artean, berriz, “haurrak herriarenak” zirela aldarrikatzen zuten batzuek, eta “herriak hezi” behar zituela haurrak, ideologia marxistak eraginda.

3.3.2. Ikastoletan, erlijioa bai ala ez?

Emandako babesaren truke, Eliza katolikoa saiatu zen ikastoletan eragiten: erlijioa berma zedila eskatuz, gustuko zituen zuzendariak jarriz, Parrokia Ikastolen arduradun bat izendatuz... Ikastoletako irakasleen aldetik, ordea, ez zen begi onez ikusten hori guztia; are gutxiago, eliza nagusitasuna galtzen ari zen garaietan, sekularizazioaren eta ideia berrien ondorioz. Eta ikastoletako lehen belaunaldiak jaunartzea egiteko sasoia iristean, erlijioari buruzko eztabaidak ere indarra hartu zuen.

Alta, eztabaida ez zen erlijioa bai ala ez, baizik eta erlijioa irakaskuntzan bai ala ez. Hots, nori zegokion erlijioa irakastea? Irakasleen aldetik, ikastoletan erlijioa alboratzea defendatzen zen. Edo, bederen, irakasleak ez izatea erlijioa irakatsi behar zutenak; horregatik, andereñoaren eta katekistaren figurak bereiztu nahi zituzten.

Gurasoen artean, berriz, oso errotuta zegoen erlijioaren beharra. *Euskaldun fededun* esamoldeari erantzuten zioten ikastoletako guraso askok. Ondorioz, oso gaizki ikusten zuten erlijioa ikastoletatik baztertu nahi izatea. Ikuspegi horren adibide gisa, honatx garaiko *Zeruko Argia* aldizkarian argitaratutako iritzia: "(...) Euskaldun eta fededun guraso bat bezala naiz mintzatu (...) Nere umeari biotzean sartzen saiatu naizen Jainkoaganako eta gure erriganako maitasuna indartuko duen eskola aukeratu dut (...).

Bere babesean hartutako ikastoletan aurkituko balitz andereño bat esanaz: "Nik ez dut erakusten ez otoitzik eta ez doktriñarik: ikastola neutrala bear du, Jainko gabekoa, naiz ez aurkakoa: au da Kontzilioak erakusten duen askatasuna erlijioari buruz". Ez al litzateke egoki orrelako andereñoa ikastoletatik bialtzea leenbaileen. Poliki-poliki, jakiña, ez ostikoka, baiña leenbaileen (...).

Baiña, zoritxarrez, jakingo banu andereño orrek ez diola nere neskatoari Jainkoaz itz egin nai, bereala aterako nuke umea ikastolatik monjatxoaren eskuetan jartzeko. Zeruko aberria leenagokoa dalako mundu ontakoa baiño. Euskarari eusteko ta euskal oiturak zaintzeko, gaurko egunez, ikastola bezalakorik ez daukagu. Emen ere sartu zaigu etsaia: danetan okerreña, etxekoa!"

3.3.3. Ikastoletan, euskara batua ala euskalkiak?

Erabili beharreko hizkuntza oso garbi zegoen ikastoletan. Baina euskara, sasoi haietan normalizatu eta batu gabeko hizkuntza izaki, nola erabili ikastoletan? Euskararen modernizaziorako saiakera batzuk emanak ziren jada, besteak beste, Gabriel Arestik, Xabier Kintanak, Juan San Martinek eta Rikardo Arregik sustatuta. Euskaltzaindiak euskararen batasunerako erabakiak ere hartu zituen 1968ko urrian, Arantzazun egindako batzarrean, nahiz eta iritzi kontra-



jarriak egon haren baitan. Hala, ikastoletan hasia zegoen eztabaida areagotu egin zen: batua ala euskalkiak?

Eta soka luzea izan zuen euskarari buruzko eztabaidak, deskalifikazioetaraino iritsiz. Euskara batuaren kontrakoeak, esaterako, *Euskaranto* deitzen zioten euskara batuari, mespretxuz, euskara mota hura esperanto hizkuntzarekin lotzen baitzuten. Eta euskara batuak ezarri zuen *b-a*, aldiz, “marxistatzat” jotzen zuten.

Baina irakasleen gehiengoa euskara batuaren aldekoa zen. Eta ikastola gehienetan ere, goiz edo berandu, horren alde egin zuten, eguneroko beharrak eraginda. “Batasunaren arazoa ez da, ez, H batzuen gorabehera huts bat. Goitik behera dugun behar gorri bat da; hizkuntza ez baita folklore-jazkera bitxi bat, turisten aurrean igande arratsaldeetan erabiltzekoa; herri baten mintzabidea baizik. Eta hau denean, batasunaren beharra gauza argia da”, *Zeruko Argia* aldizkarian garai hartan argitaratutako iritzi baten arabera.

Gipuzkoako Ikastolen Elkartean eta herrialde horretako ikastoletan, adibidez, gipuzkera erabiltzen zen. Baina 1973an Getarian egindako Batzar Nagusian, gehiengo handiz erabaki zen Euskaltzaindiak proposaturiko euskara batuaren bidetik joatea. Bizkaiko ikastola gehienek ere batuaren aldeko apustua egin zuten denborarekin, gutxi batzuek bizkaiera hautatu arren. Eta Nafarroako ikastoletan ere euskara batuaren aldeko hautua egin zen.

3.3.4. Ikastolak, apolitikoak?

Euskal Herriko gizartea oso politizatuta zegoen, bai, 60ko bukaerako eta 70eko hasierako urteetan. Francoren diktadurak eragindako eskubide murrizketak indarrean jarraitzen zuen, baina Europatik askatasun haizeak zetozen, giro ezkertiar eta kritikoa. Eta gazte belaunaldiak ziren, batik bat, giro ezberdin hark liluratzen zituenak: heziketa politikorako jakin-mina, liburuen irakurketa eta trukaketa... Ikastoletako irakasle askok ere bat egiten zuten joera haiekin, gazteak ziren neurrian.

Hori guztia kezka bezala begiratzen zuten ikastoletako sektore kontserbadoreek. Eta horregatik, ikastolak ideia berri haietatik kanpo gelditu behar zirela aldarrikatuz hasi ziren. Ikastolak “apolitikoak” izan behar zirela, eta ideia haiek defendatzen zituzten maisu-maistrak kaleratu: “Euskal-giro bete-betean azi eta ezi bear dira aurrak. Inork ezin lezake Marx edo Leninen ideekin euren adimena zikindu. Jokaera orrekin, aurrak euren nortasunaz ez dira osatzen eta bestetik, politika egiten da; politika txar bat. Eta gurasoek ikastoletan inongo politikarik ez dute nai”.

3.3.5. Ikastolak, burgesak?

Sektore tradizionalisten salaketen aurrean, ezkerreko sektoreak ez ziren besoak gurutzaturik gelditu. Gertakariak ikusita, ikastolak eskuineko sektoreen menpe gelditzen ari zirela iritzi zioten, eta ikastolak “burgesak” zirela zabalduz erreakzionatu zuten.

Hala, ikastoletako kuotak oso garestiak izatea, ikastolen izaera herrikoia desagertzea edota ikastolak klase sozial zehatz batekin lerrokatzea izan ziren erabilitako argudioak.

FLP (*Frente de Liberación Popular*) erakundekoak zabaldu zituzten, nagusiki, ikastoletan eta gizartean mezu horiek, garai hartan talde ezkertiar ugari baitzegoen. 1956an Madrilan sortua, FLP erakunde antifrankista eta klandestinoa zen, eta 60ko hamarkadan eragin handia izan zuen Hego Euskal Herrian. Euskal Herrian ESBA (Euskadiko Sozialisten Batasuna) izena hartu zuen, baina bere militanteak *felipeak* ezizenarekin bataiatu zituzten. *Felipeak* nolabaiteko eragina izan zuten hainbat ikastolatan, baina abertzaleek gaizki ikusten zituzten.

Haien ildoari jarraiki, gainera, “ikastola kontserbadoreetan denbora galdu baino”, eskola nazionaletan lan egitea defendatu zuten *felipeek*, eskola frankista berritzeko eta eraldatzeko.

3.3.6. Gatazka ideologikoaren ondorioak

Ipar Euskal Herriko ikastoletan ez zen gertatu gatazka ideologikorik. “Gose ginen, eta behar genuen jan”, Seaskako partaide Maialen Garaten esanetan. “Hau da, goi mailako edo era horretako eztabaidatarako denborarik ez genuen”.

Baina gatazka ideologikoa gogortu egin zen Hego Euskal Herriko ikastola askotan, eta ondorio latzak bezain mingarriak izan zituen. Zenbait ikastolatan, esaterako, zatiketak eman ziren: Iruñeko Uxue Ikastolan, Hernanin, Gernikan, Ondarroan, Urretxun... Ikastola batzuk, adibidez, konfesional bihurtu ziren, eta beste batzuk ez.

Irakasleen *ehiza* ere piztu zen berriro; baina, hastapenetan ez bezala, *sorgin ehiza* modukoa zen oraingoan. Irakasle asko, adibidez, jomugan egon ziren, eta deskalkifikazio gogorak pairatu zituzten: *gorriak* zirela, sexu librea bultzatzen zutela... Galdakaoko Eguzki Begi Ikastolako lehenengo andereño Itziar Barreneixeren esanetan, “ikastolak berritzaileak izan ziren, eta neska-mutilak batera zeuden ikasgelan. Haurrak txikiak izan ziren bitartean ez zen ezer pasatu. Baina hazi egin zirenean eta neska-mutilen arteko harremanek nolakoak izan behar zuten lantzen hasi ginenean, istiluak sortu ziren: amodio librea eta ez dakit zenbat gauza irakasten geniela leporatu ziguten andereñoei”.

Jazarpen horren ondorioz, irakasleen kaleratzeak ere gertatu ziren ikastoletan: Urretxun, Arrasaten, Andoainen, Barakaldon, Algortan...

Roman Irigoienek bazuen gertaera eta eztabaida haien berri, baina kanpotik. Alta, guraso gisa Oiartzungo Hautzaro Ikastolako Batzarrean parte hartzen hasi zenean, 1973an, orduan gatazka ideologikoaren eraginak pertsonalki bizi izan zituen. “Gogoan dut, adibidez, irakasle bila genbiltzanean, horri begiratzen geniola lehenik: zein ideologiakoa zen, alegia. Irakasleren baten erreferentzia ematen zigun norbaitek, ‘hau



oso ona izan daiteke zuentzat' esanez. Baina *felipea* bazen, ez genuen hartzen. Beto modukoa jartzen genien, bai”, aitortu du Irigoienek. “Baina gero, urteekin, aldatuz joan zen hori. Irakasle plaza bat betetzeko, adibidez, lau hautagai aurkezten ziren. Eta aurrena ez genion begiratzen ideologiari, baizik eta hautagaien balioari”, erantsi du Irigoienek.

Gatazka ideologikoa, beraz, lehen krisia izan zen ikastolentzat eta ikastolen mugimenduarentzat, eta ondorio handiak izan zituen barnean. Ez bakarrik barrura begira ordea. Garaiko euskarazko komunikabideetan oihartzun handia izan zuen auziak, eta, kanpora begira, ikastolen erreferentzialtasuna lausotu zuen.

IKASTOLEN IRUDIA ZIKINTZEKO LIBURUXKA

Gatazka ideologikoa eragindako giro nahasgarria baliatuta, Francoren aldeko sektore atzerakoiak ere saiatu ziren giroa bera gehiago kakazten eta ikastolen irudia zikintzen. Erregimenari zaila egiten zitzaion ikastolak kontrolatzea, fenomenoak berak 60ko hamarkadaren bukaerarako lorturiko hedatzearen ondorioz. Eta 70eko hamarkadaren erdialdean, Ikastolak. Todo sobre las ikastolas izeneko liburuxka hedatu zen Euskal Herrian; egilerik eta datarik gabekoa zen, baina nahiko ezaguna bihurtu zen ikastolen mugimenduko partaide askoren artean.

Liburuxkaren 39 orrietan, ikastolei buruzko propaganda txarra zen nagusi. Sarreran, esaterako, hauxe irakur zitekeen: “Teniendo en cuenta que subversión es toda acción encaminada a destruir la Unidad de la Patria, subversivas son todas aquellas Ikastolas en las que se les enseña a los niños el odio a todo lo español, bien sea impregnando de un cariz ateo, apolítico, separatista, marxista o terrorista. Así todas las Ikastolas, de una u otra tendencia, bien sean ateas o confesionales, bien sean marxistas o separatistas, bien apolíticas o nacionalistas, son empleadas por los unos o por los otros como un instrumento más en la lucha de Euzkadi, contra el Estado Español”.

Hortaz, ikastolen baitan egondako gatazkaren jakitun ziren liburuxka haren egileak. Eta kaltetuak nortzuk ziren ere azpimarratzen zuten panfletoan: “Lo cierto es que existe una lucha interna, que en esa lucha hay dos grandes perjudicados: ‘el niño’ por un lado, a quien le inculcan ideas ateas o separatistas, cuando no las dos, y por otra la convivencia entre todos los españoles”.

3.3.7. Gatazkaren zergatiak

Interes eta arrazoi asko nahastu ziren gatazka ideologiko hartan. Baina, funtsean, ikastolek garaiko euskal gizartean bizi zen gatazka ideologikoa bera nozitu zuten, ikastolak gizartetik sortu eta gizartean sustraituta zeuden neurrian. Horrela, gizarteko beste arloetan bezala, euskal abertzaletasunean zeuden joera eta ikuspuntu ezberdinak ikastoletan emandako eztabaidetan islatu ziren. Hezkuntza-proiektuen atzetik gizarte-proiektuak izaten direnez, ikastoletan bildutako belaunaldi berrizaleak euskal gizarte berri baten inguruko eztabaida eragiten ari zen, orduan pil-pilean zeuden ikuspegi ideologiko mota guztien saltsan. Balore tradizionalen egokitzapena bilatzen zuten batzuek. Baloreen erabateko eraldaketa planteatzen zituzten beste besteek. Eta biak buruz buru.

Halaber, gizartean zegoen sektore ezkertiarren eta abertzaleen arteko dikotomia ere eman zen ikastoletan.

Ideiek talka egiten zuten neurrian, beraz, ideologikoa izan zen gatazka. Baina, sakonean, kontrol borroka bat zen haren guztiaren atzean zegoena. Gero eta handiagoa zen ikastolen mugimenduan boterea hartzeko borroka, mugimenduari eman beharreko norabidea kontrolatzeko.



3.4. 1970EKO HEZKUNTZA-LEGEA ETA LEGEZTAPENAK

Espainiako Estatuak aldaketak ezagutu zituen iragan mendeko 50eko hamarkadaren erdialdetik aurrera: Ameriketako Estatu Batuen (AEB) diru laguntzak bideratzen hasiak ziren, eta nekazal gizarte batetik industrializazio baterako bilakaera ematen ari zen. Emigrazio saioak ere hasi ziren, nekazarietazko ez zegoelako lanik. Eta milaka espainiar Frantziara, Alemaniara edota Suitzara joaten ziren, lan bila.

Espainiako Gobernura iritsitako Opus Deiko teknokratek argi zuten aurrerenak hezkuntzaren bidetik jo behar zuela. Horregatik, garrantzia handia eman zioten irakaskuntzari, eta hezkuntzaren esanahia ere aldatuz joan zen gizartean: eskola *kontsumo* gisa ulertzetik *inbertsio* bezala ikustera pasatu zen.

Hezkuntza sistemaren erreformari ere ekin zioten teknokrata haiek, eta, hainbat urratsen ondoren, 1970ean hezkuntza lege berri bat ezarri zen Espainiako Estatuan, XIX. mendean sorturiko hezkuntza sistemaren modernizazioa eragin zuena.

3.4.1. Legearen edukiak

1970eko udan ezarri zen lege berri hark, ofizialki, Ley General de Educación y del Financiamiento de la Reforma Educativa izena zuen; baina *Villar Palasí Legea* gisa egin zen ezagun, orduko Hezkuntza ministroa Jose Luis Villar Palasí zelako. Opusetik Espainiako Gobernura jauzia egindako teknokrata haietako bat zen hura.

Legeak eskolaurre zikloa diseinatu zuen, bi etapatan banatuz: *Jardin de Infancia* (2-3 urte) eta *Parvulario* (4-5 urte), baina ikasleak ziklo horretan eskolaratzea derrigortu gabe. Aitzitik, legearen berrikuntza nagusia izan zen 6-14 urte arteko eskolaratze derrigorrezkoa eta doanekoa ezartzea, Oinarrizko Hezkuntza Orokorra (OHO) indarrean jarritz. OHO kontzeptuaren sorrera izan zen hura, eta derrigorrezko ikasketak 12 urtetik 14 urtera luzatu ziren. Oinarrizko Hezkuntza Orokorra, halaber, bi etapatan arautu zuen legeak: 1-5 mailak eta 6-8 mailak.

Eskolak, beraz, espazio berriak behar zituen. Horretarako, eskolentzako arau eta baldintza zehatzak ezarri zituen *Villar Palasí Legeak*. Eta legea betez gero, ikastetxeek estatuaren finantzazioa lortzen zuten.

3.4.2. Legearen eragina ikastoletan

1970eko Hezkuntza Legeak izugarrizko eraldaketa eragin zuen Hego Euskal Herriko ikastoletan. Mugarri handia izan zen, ikastolen mugimenduen historian 60ko eta 70eko hamarkadak ezberdintzen zituena eta aro berri bati hasiera ematen ziona. Ikastolek, ordura arte, erregimen klandestinoa zuten, apartekoa. Eta 1970eko legeak behartu zituen, finantzazioaren truke, bide bati hasiera ematea: OHO ezartzeari, alegia. Haur eskola hutsak ez izatea, bestela esanda.

Legeak, beraz, diru laguntza ofizialen iturria zabaldu zuen ikastolentzat, baina baldintza batzuk bete behar ziren. Baldintza gogorrak, gainera. Lehenik eta behin, Oinarrizko Hezkuntzarako Ikastetxearen kalifikazioa edo baimena

lortu beharra zegoen. Eta horretarako, batetik, OHOn aritu beharreko irakasle guztiak tituladunak behar ziren, titulu gabeak eskolaurrean geratzen zirelako; bestetik, ikasle bakoitzeko 4,3 metro koadro izan behar zituen ikastetxeak, eta urteroko matrikulazioa 30-40 ikaslekoa behar zen.

Ondorioz, 1970eko legeak ikastolak *zentratzea* ekarri zuen. Gatazka ideologikoaz ahaztu eta legeak agindutakoa betetzeari ekin. Horretara jarri ziren esfortzu guztiak, ikastolek aurrera egiteko bide bakarria ikusten zelako hura.

Beraz, azpiegiturari dagokionez, ikastolek aldaketa izugarriak ezagutu zituzten. Kasu askotan, hasierako lokal behin-behinekoak utzi eta eraikin berrietara pasatu ziren ikastolak. Beste kasuetan, egoitzak birmoldatu eta eraberritu zituzten. Halaber, zonalde bereko ikastolen elkartzeak ere eman ziren orduan.

Horrek guztiak inbertsio handiak egitera behartu zituen ikastolak. Berezko diru iturriak ez ziren nahikoak, eta bide berriak bilatu behar ziren. 1970eko legeak berak bide bat zabaldu zuen: Banco de Crédito a la Construcción zenak, erregimenaren banku ofizialak hain zuten ere, laguntza ematen zuen. Baina hark emandakoa ere ez zen nahikoa, eta ikastolek bankuetara jo zuten, mailegu eske. Ordurako hain garrantzitsua eta handia bihurtu zen ikastolen mugimendua, Euskadiko Kutxak (orduan Lankide Aurrezki Kutxa zenak) ikastolentzako sail berezi bat zabaldu zuela.

3.4.3. Euskadiko Kutxako Ikastolen Saila

1975eko urrian zabaldu zuen Euskadiko Kutxak Ikastolen Saila, Javier Pagaldairen ardurapean. “Ikastolak ez ziren hasi legearen bidetik 1971n, hau da, hezkuntza legea atera eta berehala. Legeztatzearena ez zen izan prozesu azkarra, urte batzuk iraun zituen”, dio Pagaldaik berak. “Eta ikastoletako jendea barra-barra etortzen zen *Caja Laboral*-era. Batetik, Banco de Crédito a la Construcción zenak ematen zuen laguntza ez zelako nahikoa; bestetik, *Laboralak* bakarrik ematen zizkielako kredituak ikastolei. Horregatik, *Laboraleko* zuzendari orokorrak esan zidan horren ardura hartu behar nuela. Ordura arte, *Departamento de Exteriores*-en nenbilen ni”, erantsi du Pagaldaik. Geroago, Mikel Lasa ere hasi zen lanean Ikastolen Sailean.

“Ikastolak guregana etortzean, zerbitzu orokorra eskaintzen genien”, Pagaldairen hitzetan. “Ez soilik aholkularitza, baizik eta tramite eta gestio guztiak egin ere bai: haien egoera aztertu, proiektu bat landu, kooperatiba bihurtzeko pausok eman... Zerotik hasi ginen, ikastola askotan ordura arteko kontuak koaderno batean eramaten baitziren. Eta gogoan dut 1974an *Laboralak* 800 milioi eman zizkiela ikastolei mailegutuan. 800 milioi utzita... baina itzultzeko inongo bermerik gabe! Hori bai, mailegu guztiak ordaintzen ziren. Ikastoletan zeuden

finantzazio planak lan boluntario hutsean oinarritzen ziren: zozketak eta antze-koak... milioiak bueltatzeko! Baina, azkenean, guztiak bueltatzen ziren”.

15 egunean behin, Madrilera

Hala, Madrilera joaten hasi zen Javier Pagaldai, ikastolen legeztatze prozesuak bideratzeko. “*Laboralaren* bitartez, Marcelino Oreja ezagutzen nuen, orduan Atzerriko ministroa zena. Edota Juan Etxebarria Gangoiti, Sarrrikoko Unibertsitateko errektorea izandakoa eta Banco de Crédito a la Construcción-eko burua... Horien eskutik sartu ginen barruraino”, azaldu du Euskadiko Kutxako Ikastolen Saileko arduradunak.

“Lehenik, OHOrako autorizazioa lortu behar zen. Horretarako, inbertsioak egin behar ziren ikastoletako eraikinetan. Beraz, proiektu bat aurkeztu behar zen. Behin-behineko autorizazioa lortzen zen lehenik, eta behin betikoa obrak bukatzean. Eta azkenik, legezapena”, Pagaldairen esanetan. “15 egunean behin joaten nintzen ni Madrilera, ikastolen txostenekin. Hezkuntza Ministerioan baremo batzuk zituzten; hainbeste gela, hainbeste diru. Eta ikastolek proiektu bat aurkezten zidatenean, nik jada banekien zenbat diru jasoko genuen Madriletik, haien formula ikasi nuelako”. Horregatik, “proiektua handia edo ez dakit zenbatekoa aurreikusten bazen, nik ikastolei esaten nien, adibidez, %50eko finantzazioa jasoko genuela, eta, beraz, proiektu hark ez zuela merezi”. Pagaldai aitortu duenez, proiektuak Madrilera diruen arabera moldatzen zituzten, “ahalik eta finantzazio kopururik handiena lortzeko Madriletik. Eta hor ibiltzen nintzen borrokan proiektuak egiten zituzten arkitektoekin: hau kendu, hemendik metroak murriztu...”.

Ikastolen eta Lagun Aroren arteko hitzarmena ere eman zen orduan, irakasleek bizi zuten gizarte segurantzarik ezari irtenbidea emateko. “Hitzarmenari jarraiki, Lagun Aroren medikuen zerrenda eta bolanteak pasatzen zitzaizkien ikastoletako irakasleei eta langileei. Lagun Arok ordaintzen zuen zerbitzu hura, eta gero, ikastolei kobratzen zien”. “Ez zen gizarte segurantza, osasun zerbitzu bat baizik. Baina, ezer ez izatetik, pauso handia izan zen hura. Gero, Jaurlaritzarekin lehen hitzarmenak sinatzean, hori guztia arautu zen, eta Gizarte Segurantzaren sistemara pasatu ziren irakasle eta langile guztiak”.

1980ko apirilera arte egon zen indarrean Euskadiko Kutxako Ikastolen Saila, diktadura ondorengo lehen Eusko Jaurlaritza martxan jarri arte. “Orduan moztu zen —dio Pagaldai—, Jaurlaritza egonda ez zuelako zentzurik guk zerbitzu hura emateak”. Sailak, beraz, bost urte iraun zuen. “Baina oso urte biziak izan ziren haiek. Hamabostero-hamabostero, Madrilera beti”. Tarte horretan, 50etik gora ikastola legeztatzea lortu zuen Javier Pagaldai. Eta ondorengo urteetan ere ikastola ugari laguntzen jarraitu zuen.

MARCELINO OREJA, IKASTOLEN LAGUN

Euskadiko Kutxako Ikastolen Saileko arduradun Javier Pagaldai 15 egunean behin joaten zen Madrilera, Hezkuntza Ministeriora, ikastolen espedienteen tramitazioa nola zegoen ikustera. Lehen bisita, ordea, oso gogorra izan zen. “Kanporatu egin ninduten handik, ikastolak separatistak ginela esanez”, dio Pagaldaik. Bigarren aldiz joan, eta gauza bera. “Azkenean, Marcelino Orejarengana joan nintzen, orduan Atzerriko ministroa zena, eta Laboralean egiten nuen lanaren bitartez ezagutzen nuena. Hari dena kontatu ondoren, bere idazkariari —nafar bat— Hezkuntza Ministeriora dei zezala eskatu zion”.

Orejarekin egindako gestio haiei esker, dena aldatuz joan zen, Hezkuntza Ministerioan etxean bezala zebilelarik Pagaldai. “Bai, bai, gero asko aldatu zen egoera. Hezkuntzakoekin harreman ona izan nuen, askotan bazkaltzen nuen haiekin... Espediente batzuzengatik galdetu, eta ‘para la próxima semana’ erantzuten zidaten”. Eta Banco de Crédito a la Construcción-en, antzera. Juan Etxebarria banku buruarekin hari zuzena zuen Pagaldaik, “eta beti gehienezko finantzazioa lortzen genuen”.

Francoren erregimenean kargu garrantzitsua izan arren, Marcelino Oreja Agirrek “lotura handia izan du beti Euskal Herriarekin”, Pagaldairen hitzetan. “Haren aita, adibidez, UGTkoek Arrasaten hil zuten, 1934ko iraultza-saioan. Eta beti zegoen euskara eta ikastolak laguntzeko prest. ‘Zerbait behar duzun bakoitzean, etorri niregana eta laguntzen saiatuko naiz’, esan zidan. Eta horrela izan zen; zerbait eskatu bakoitzean, ondo erantzuten zuen. Ez du zerikusirik Jaime Mayor Oreja ilobarekin, PPko burua bera”.

3.4.4. Kooperatiba, ikastolen formula juridikoa

Irakaslegoan, eraikinetan eta arlo finantzarioan ez ezik, ikastolen irudi juridikoan ere aldaketak eragin zituen 1970eko Hezkuntza Legeak. Ordura arte, legeztatzeko orduan, ikastolek ez zuten irizpide zehatzik erabili. “1970eko legea baino lehen, ikastola batzuk legeztatuta zeuden jada, baina eredu bateraturik erabili gabe. Bakoitzak ahal zuena egiten zuen, formula errazeneri helduz”, dio Paulo Agirrek. “1970eko legearen ondorioz, ordea, kooperatibaren figura legala nagusitu zen ikastoletan. Eta esan daiteke *Laboralaren* lana edo eragina zegoela kooperatibaren formula horren atzean. Kooperatibaren esperientzia

zabaltzeko, batetik. Eta ikastolak laguntzeko, bestetik. Dena den, ez ziren mugatu soilik kooperatibak ziren ikastolak laguntzera”, azaldu du Agirrek.

Ruper Ormazak ere ondo ezagutzen du ikastolen mugimendua, kooperatibismoa, eta bien arteko uztarketa. 1978az geroztik lan egiten du Portugaleteko kooperatiba izaera duen Asti Leku ikastolan. Lehenik, zuzendaritza lan bikoitza eginez: ikastetxearena eta kooperatibarena. 1993az geroztik, zuzendari-kudeatzaile gisa, kooperatibaz arduratuta. “Logikoa zen ikastolek kooperatiba izaera hartzea, kooperatibak ondo ordezkatzeko duelako ikastolek historikoki izan dugun zentzu kolektiboa”, dio Ormazak. “Behar bat zegoen ikastoletan, eta formula bat sortu zen, biak ondo uztartzen zirelako. Zorionez eta zoritxarrez, nahiko kooperatibistak garelako Euskal Herrian. Gure izaera ondo uztartzeaz gain, Euskal Herrian ere kultura hori zegoen, hemen sortu baitzen kooperatibismoa”.

Formula berriak, adibidez, ikastoletako titularrak edo jabeak gurasoak izaten jarraitzea ahalbidetzen zuen. Eta Ormazaren antzera mintzo da Sabin Ipiña, Asti Leku Ikastola beraren sortzailea eta gurasoa izandakoa. Haren esanetan, begi onez ikusi zen kooperatibaren izaera ikastoletan: “Ikastolen sorreretako irizpidea zen ikastola bera parte-hartzerako bitartekoa izan behar zela. Eta erronka horri erantzuteko formularik egokiena kooperatiba zen: denok berdin, baina antolaketa eta arau batzuekin, ordura arteko biltzar bidezko funtzionamenduak ez baitzituen arauak”.

Horrela gertatu zen ikastolagintzaren eta kooperatibismoaren arteko ezkontza, gaur egun ere irauten duena. Kooperatibismoa bihurtu baita ikastolen mugimenduaren ardatz eta adierazleeta bat. Bai ikastola bakoitzaren kasuan, bai unean-unean sorturiko elkarte kolektiboek dagokienez.

IRAKASLEEN BEHARREI ERANTZUTEKO ELKARTEA

1970eko Hezkuntza Legeak ikastoletako irakasleen titulazte prozesu luze bati eman zion hasiera. Eta, horrekin batera, irakaslearen profesionalizazioari bide ematea. Horrela, Gipuzkoako irakasleek eta andereñoek haietzako egitura bat sortzeko lehen urratsak eman zituzten 1976an; eta 1977ko azaroan eratu zen, ofizialki, Irakasleen Elkarte, gerora beste herrialdeetara hedatuko zena, Gipuzkoan eta Bizkaian ordezkari zabalak edukita. Gordailu elkarte egon bazegoen oraindik, irakasle elkarte gisa 1968-69an sorturikoa; baina irakasleetako askok ez zuten haien burua identifikatzen Gordailuk egiten zuen lanarekin, ez eta Gipuzkoako Ikastolen Elkartearen lanarekin ere.

Irakasleen interes sindikalak eta korporatiboak defendatzearekin batera —*Urrats eta Ikasi* aldizkariak kaleratu zituzten, besteak beste—, elkarte ikasmaterialak egiten saiatu zen GI Eren elkarlanean, 80ko hastapenetan, baina saio hura ez zen aurrera atera. Hartara, arlo honetan bere bide propioa egin zuen Irakasleen Elkartea: lehenik, eta Elkar argitaletxearekin egindako akordioari jarraituz, ikasmaterialgintzan lan batzuk eginez; ondoren, haur eta gazte literaturarako lanak burutuz.

1994. urtean desagertu zen Irakasleen Elkartea, arazo ezberdinek eraginda. •

3.5. HAZKUNDEAREN “BOOM”A

Legeztatzeekin eta diru laguntzekin batera, ikastolen mugimenduak inoizko hazkunderik handiena bizi izan zuen 70eko hamarkadan. Banaka nahiz kolektiboki, *boom* modukoa bizi izan zuen. Ereindako haziaren ondotik, loraldi ederra: ordura arte ikastolarik ez zegoen herrietan zabaldu ziren ikastola berriak; Bizkaiko, Nafarroako eta Arabako federazioak sortu ziren; ikastolek, inoiz baino gehiago, eskola itxura hartu zuten, eraikin berri eta handiekin; ikasleen matrikulazioaren gorakada geldiezina zen, garaiko jaiotze tasa altuaren ondorioz eta ikastolek lorturiko prestigioaren eraginez; ikasmaterialgintzan urrats sendoak eman ziren... Egoera erabat ezberdina bizi zuen ikastolen mugimenduak, 60ko hamarkadan helburuak zirelako sortu, hasi, bultzatu eta eustea estatuek utzitako zirrikituak nahiz bestelako bitartekoak erabiliz. 70eko hamarkadan, berriz, lehentasunak ziren hazi, zabaldu, prestigioa irabazi, legeztapena eskuratu, diru laguntzak lortu, eraikin berriez hornitu, material propioak ekoiztea... Ziklo berri bat izan zen, bai, eta Bidasoaren bi aldeetan eman zen.

3.5.I. Gainerako federazioen sorrera: Bizkaia, Nafarroa eta Araba

Gipuzkoako Ikastolen Elkartearen sorrera ez zen oharkabean pasatu beste herrialdeetako ikastoletako partaideen begietara. Horrela, GI Eren ereduari jarraiki, Bizkaiko, Nafarroako eta Arabako federazioak sortu ziren 70eko hamarkadaren erdialdetik aurrera. Ikastolen bakantasunetik batasunerako urrats berriak izan ziren haiek.

Gipuzkoakoaren ondotik, Bizkaiko Ikastolen Elkartea izan zen sortzen bigarrena. Ez zen harritzekoa, Gipuzkoarekin batera Bizkaian izan zutelako ikastolek tirazorik handiena 60ko hamarraldian. 1963-64an, hain justu, herrial-

deko bigarren ikastola zabaldu zen, Algortako San Nikolas, bertako guraso lau-kote baten ekimenaz: Gotzon Garamendi, Iñaki Azkargorta, Juan Mari Lores eta Ricardo Manzano. Laukoteari berehala batu zitzaion Joseba Arrieta bilbotarra. 1965ean, berriz, herrialdeko federazioa izango zenaren hazia jaio zen, Erkida elkarteak finantzatuta. Elkartea fondo komun bat zen, non boskote hartako batzuek haien soldatak sartzen zituzten. Haien etxeetarako diru kopuru bat hartu ondoren, gainerakoa federazioa izango zenaren jardura finantzatzeko erabiltzen zen, bai eta beste ekimen euskaltzaleak laguntzeko ere.


Eubako Taldeetik BIEra

Bizkaian zehar ikastola berriak sortzen laguntzeaz gain, Urretxun (Gipuzkoa) biltzen zen Ikastola Batzordera ere joaten zen boskote hura, Batzordea bera bertan behera gelditu zen arte. Ondorioz, Bizkaiko ikastoletako ordezkariak Eubako Pasiotarrek fraide etxean utzitako gelatxo batean biltzen hasi ziren. Eubako Taldea izena hartu zuen gune hark; eta, hasierako boskotea buru zela, hilero elkartzen zen, gero eta parte-hartzaile gehiago bilduz. 1972an, ordea, bertan biltzen jarraitzea debekatu zieten fraideek, ikastolen mugimenduan emandako gatazka ideologikoaren ondorioz. Eta Eubako Taldearen jarduna asko ahuldu zen ondorengo urteetan.

Alabaina, Euban biltzen zirenetako batzuek elkarren arteko harremanari eutsi zioten. Eta ikastolak hartzen ari ziren hazkundera ikusita, Bizkaiko Ikastolen Elkartea sortzea erabaki zuten 1975ean, Otxandioko Fonda jatetxean egindako bazkari batean. Horrela, urtebete geroago, BIE egituratu eta martxan jarri zen, baina izaera juridikorik gabe, 1977ko urrian eratu zelako kooperatiba izaera hartuta. Marisa Barrena izan zen elkarteko lehen idazkaria, eta 1978ko otsailean lehen lehendakaria izendatu zuten: Txetxu Aurrekoetxea. Elkarreak, halaber, Zornotzan izan zituen lehen egoitzak: Andra Mari Ikastolak utzitako lokal batean lehenik, guraso batzuek herri bereko Zelaieta kalean utzitako pisu batean ondoren. BIEk, hain zuzen ere, herrialdeko ikastola guztiak koordinatzeko eta guztientzako diru laguntzak lortzeko ardura hartu zuen, bai eta irakasle-entzako ikastaroak sustatu, euskarazko testuliburuak egin, edota udalekuak eta kirol ekintzak antolatzeko ere.

NIE eta AIE

Nafarroako ikastolak elkartzea izan zen, halaber, bertako ikastolen elkartea (NIE) eratzeke arrazoi nagusia. Ikastolagintza ere gorantz zihoan herrialdean, eta, gainera, Nafarroako Diputazioak ikastolekiko jokabidea aldatu zuen. Has-tapenetan jarrera irekia izan bazuen (*egiten uztearen jarrera gisa defini daitekeena*),



herrialdeko ikastolen ardura Principe de Viana Erakundetik Diputazioaren Hezkuntza Zerbitzura pasatu zen 1972an, eta 1975etik aurrera nabarmen gaiztotu zen Diputazioaren jokabidea. Etengabe hazten ari ziren euskal eskola haiek kontrolaezinak bihurtu ziren baita agintarientzat ere, eta ez zuten begi onez ikusten Nafarroako ikastolak Euskal Herriko mugimendu baten parte sentitzea.

Hala, 1977ko otsailaren 2an, Diputazioak arau batzuk ezarri zituen ikastetxe pribatuetan irakaskuntza elebiduna diruz laguntzeko. Arau horien arabera, herrialdeko ikastolek Espainiako Hezkuntza Ministerioak legeztatuta egon behar zuten Diputazioaren diru laguntzak jaso ahal izateko. Praktikan, baimenik gabeko ikastolak hiltzorian uzten zituzten. Eta Diputazioak jakin bazekien, sasoi hartan, soilik Nafarroako bi ikastola zeudela legeztatuta: Iruñeko Paz de Ziganda eta San Fermín, hain zuzen.

Erabaki hura ikastolen kontrako erasotzat hartu eta Nafarroako ikastolek indarrak batzeari eta NIE sortzeari ekin zioten: gaia aztertzeko bilera bereziak egin zituzten Altsasun eta Iruñean 1976ko bukaeran, eta 1977ko maiatzaren 2an NIEko lehen liberatua hasi zen lanean, Juan Luis Larraza, idazkari gisa. Gerora, NIEko zuzendari bihurtu zen Larraza, 1990. urtera arte. "1977ko maiatzaren 2an bertan eman zizkidaten Iruñeko *Sociedad de Amigos del País*-ek (Euskalerrriaren Adiskideak Elkarte) San Anton kalean zuen lokaleko giltzak; gero federazioak erosi zuen", dio Larrazak. Egoitzan, ordea, ez zegoen deus,

telefonoa bera ere ez. Baina ondo gogoan ditu ezarri zizkioten zereginak: “Bate-tik, Nafarroan zeuden ikastolak batzea. Eta bestetik, ikastola berriak sortzea, batik bat Iruñetik behera”. Larrazaren arabera, 1977ko ekainaren 8an eratu zen ofizialki Nafarroako Ikastolen Elkarte, San Anton kaleko lokalean egindako batzarrean. “30etik gora ikastolekin abiatu zen federazioa”. Kooperatiba izaera, berriz, 1978ko martxoaren 12an hartu zuen elkarteak, eta Julio Altadill izan zen lehendabiziko lehendakaria.

Arabako Ikastolen Elkarte (AIE) ere testuinguru hartan abiatu zen. 1977ko maiatzean Euskal Herri osoko ikastoletako ordezkariak Gasteizen egin zuten ezohiko batzarrari begira prestaturiko txosten batean, adibidez, Arabako Ikastolen Elkarte sortzeko lehen urratsak egin zirela adierazten zen. 1979rako, berriz, jardunean zen elkarte, izate juridikorik gabe baina herrialdeko ikastolak bilduz. Ofizialki, Ramon Basaras izan zen elkarteko lehen koordinatzailea. Aurreneko egoitza Gasteizko Benito Perez Galdos plazan izan zuen AIEk, Amaia haur eskolan; eta geroago, Gasteizko Florida kaleko 24. zenbakian. 1981ean eta 1982an elkarte erregistratzeko saioak egin ziren, baina adminis-trazioaren ezezkoa jaso zuten; ondorioz, 1983ra arte ez ziren erregistratu AIE-ren estatutuak, kooperatiba izaera hartuz.

3.5.2. Ikastolak Arabako eta Nafarroako nekazaritza-industria giroetan.

70eko hamarkadan ezaguturiko hazkundearen baitan sortu ziren, beraz, Bizkaiko, Nafarroako eta Arabako ikastolen elkarteak. Baina 1977tik aurrera ere berebiziko urratsa egin zuen ikastolen mugimenduak, Gasteiztik eta Iruñetik hegoalderako eta ekialderako lur eremuan sorturiko ikastolekin. Urrats kuantitatiboa, bai, ikastola berri asko sortu zirelako orduan Arabako eta Nafarroako erdialdean zein hegoaldean. Baina, batik bat, urrats kualitatiboa izan zen, eremu zabal hura oraindik arrotza zelako ikastolaren fenomenoarentzat. Basa-mortu modukoa. Zergatik? Nafarroako eta Arabako herrixka haietan euskaraz hitz egiten ez zelako eta, oro har, euskararekiko kontzientziazio eskasa zegoelako, batetik; eta baldintza sozialak ere ezberdinak zirelako, bestetik: nekazal giroa nagusi, haur gutxiago, elkartzeko eta gauzak egiteko joera txikiagoa...

Hartara, euskal hiriburuetan eta herrietan ia 20 urte lehenago bizitako prozesua ematen hasi zen herrixka eta bailara haietan, baina sakoneko ezberdintasun batekin: ikastola sortzeko ekimena ez zen herrietatik bertatik sortu, baizik eta *kanpotik etorritakoen* eskutik. Ez zen sortze prozesu natural bat izan, kontzienteki bilaturikoa eta eragindakoa baizik. Oinarrizkoa zen herri haiek ere ikastola proiektuarentzat irabaztea. Ezinbestekoa.

Eta, lan horretan, hiru lagun giltzarri izan ziren: Juan Luis Larraza Nafarroan, eta Jose Mari Rekarte eta Javier Pagaldai Araban. “Pagaldaik esaten zidan:

ikastola zabaldu ahal izateko, kooperatiba bat sortu behar dugu hor. Gutxienez, hiru lagun. Eta apaizak eta bestelako kontaktuek ematen zidaten erreferentzien arabera, horien bila joaten nintzen herrira”, dio Jose Mari Rekartek. Berak urte batzuk lehenagotik ezagutzen zuen ikastolen mugimendua, Aguraingo ikastolaren sorreran parte hartu baitzuen. “Beti haur txikiak zituzten gurasoak bilatzen genituen. Eta hasieran, apaizengana jotzen nuen, bai, herriko bataioen zerrendak eta haurren datuak eskatzera. Apaizei esaten nien haur eskola modukoa sortu nahi genuela herrian, eskola publikoan beranduago hasten zirelako orduan. Apaizek datuak eman, bilera bat non antola genezakeen esan, eta deialdia egiten nuen eskutitzen bitartez”, jarraitu du Rekartek. Udal erroldak ere baliatu zituen Jose Mari Rekartek, gurasoak bilatzeko. “Lapuebla de Labarcan, esaterako, udaletxera joan zen Rekarte, 3 urte azpikoen zerrenda eskatu erroldan, eta gero atez ate ibili”, Euskadiko Kutzako Ikastolen Saileko arduradun Javier Pagaldaireren esanetan.

Zerotik hasita

Nafarroan ere antzekoa zen prozesua. “Bertako norbait bilatu bilera bat zehazteko herrian, deialdia egin seme-alaba gazteak zituzten gurasoei, *rolloa* sartu —baina oso *rollo* positiboa, noski!—, gero bokata bat jan, eta oso berandu etxera”, kontatu du Juan Luis Larrazak. “Ikastola martxan jartzeko, bospa sei haur eta lokalak eskatzen genituen baldintza gisa: norbaiten lokala, udalarena, elizarena...”, erantsi du.

“Gurasoek oso begi onez ikusten zuten ikastola sortzeko ekimena, haurrak *kentzen* genizkielako, eta haiek mahatsetan-eta lanean lasai jardun zezaketelako”, Jose Mari Rekarteren esanetan. “Baina euskararekiko mesfidantza bazegoen, noski. ‘Ez zaie gaztelera ahaztuko?’, galdetu zidaten milaka aldiz. Tentuz ibili behar genuen gai honekin, euskararen kontuari hauspo handia eman gabe. Zonalde haietan, finean, kontzientziazio eskasa zegoelako, eta eskuinak agintzen zuen bertan”. Larrazak ere onartu du bilera haietan ez zegoela politizazio kutsurik, baina ezbaian jarri du gurasoek mesfidantza zutela: “Jendeak ez zuen mesfidantzarik. Niri inoiz ez zidaten esan ‘hizkuntza politizatua dago’ edota ‘zuek proselitismoa egitera zatozte hona’. Ez, ez, askoz naturalagoa zen”.

Saso hartan, eta molde horri jarraiki, sortuz joan ziren ikastolak Arabako Maeztun, Eltziegion, Lapuebla de Labarcan, Bastidan, Kanpezun, Biasterin... “Biasterin, esaterako, hasi ginen, baina gero ez zen aurrera atera”, gogoratu du Jose Mari Rekartek. Ez zelako prozesu erraza, noski. “Oionen bertan, adibidez: Logroñotik lau kilometrora, herriko eskola publikoa berriua zegoela... eta gu hiru gurasorekin kooperatiba osatuta, baina lokalik gabe. Bada, ez genekien apustua aterako ote zen! Baina eutsi egin genion, Oionen eta beste herri asko-

tan, ikastola proiektua egonkortzeko eta zabaltzeko Araba osoan”, Rekarteren hitzetan. “Herriz herri bakarrik ibiltzen nintzen, nire 4 *latas* autoarekin, eta Pagaldai aholkulari gisa nuela”. “Baina ni joatean zuk jada bidea zabaldu zenuen herri haietan”, zehaztu du Pagaldaik berak.

Nafarroan ere makina bat ikastola zabaldu zen 1977tik 1983ra bitartean: Zangozan, Vianan, Irunberrin, Tuteran, Mendigorrian, Erriberrin... “Deikaztelun ere zabaldu zen ikastola, baina haurrik gabe gelditu eta hortik sortu zen, gero, Sartagudakoa. Eta honen babesean, beranduago, Lodosakoa”, Juan Luis Larrazak adierazi duenez. “Aldiz, Lerinen, San Adrianen edota Mendabian ikastola ez zen aurrera atera, haur faltagatik”.

Laguntza

Misiolaritzat jo daiteke herri haietan guztietan egindako lana ikastolak sortu ahal izateko. Baina ez da hitz egokia, Juan Luis Larrazaren esanetan. “Ez dut uste misiolari hitza erabili behar denik. Beti esan dut nire bizitzako etapa polit bat izan zela. Oso oroitzapen onak ditut. Primeran pasatu nuen baita ere... eta 25.000 pezeta (150 euro) kobratzen nituen orduan!”.

Larraza NIEko liberatua zen sasoi hartan, eta Pagaldai Euskadiko Kutxako langilea. Baina nork ordaintzen zion soldata Jose Mari Rekarteri? “Jose Mari Gerenabarrenak dirua ematen zidan. Bere enpresako —Vitoriana Electricidad izena zuen— furgoneta bat ere eman zidan, haurrak ikastoletara eraman ahal izateko...”, erantzun du Rekarrek. Gerenabarrena EAJko burua zen Araban garai hartan, eta, alderdi politikoen legeztauzen ondotik, alderdi bereko zuzendaritzako estreineko lehendakaria izan zen, bai eta foru diputatua ere 1979-1983 urteen artean. “Gerenak, halaber, Juanito Zelaiarekin jarri ninduen harremanetan, Cegasa enpresako buruarekin. Ni buru-belarri ibili nintzen zeregin horretan bizpahiru urtez, eta, tarte horretan, Zelaiak ordaindu zidan soldata. Dirua ere ematen zidan. Urte batean, adibidez, diru asko eman zidan, batik bat irakasleen soldatak ordaintzeko”.

Arabako Foru Aldundiak ikastolekiko zuen jarrera ere aldatu egin zen 1977tik aurrera; baina onerako, Nafarroako Diputazioaren kasuan ez bezala. Hala, Euskararen Zerbitzurako Batzordea eratu zuen, eta hasieran Gasteizko Olabide Ikastolak nahiz Laudioko eta Aguraingo ikastolek parte hartu ahal izan zuten sail berrian, erakunde publikoen eta ikastolen arteko lankidetzari hasiera emanez. Ikastolen inbertsioetarako ere diru laguntzak eman zituen, eta Gasteizen bertan ikastolak sortzera iritsi zen, Aldundia bera titularra zela (Durana, Toki-Eder eta Odon Apraiz ikastolen kasua, adibidez). Arantzabela eta Barrutia ikastolen titular ere egin zen Aldundia, nahiz eta bi ikastola horiek ez ziren foru erakundeak sortuak.

ARABAKO IRAKASLEAK, NUARBERA

Bertako irakasle euskaldunik ez izatea izan zen Arabako ikastolen arazo nagusienetakoa. Horregatik, hasieran, Joxe Mari Rekarte Gipuzkoako Urola bailarara joaten zen Arabako ikastolentzako irakasleak ehizatzen. Baina prozesua irauli zen ondoren, eta Arabako andereñogaiak bailara hartara hasi ziren joaten ikastoletan lanean hasi aurretik, euskara ikastera. “Nuarben etxe bat lortu eta bertan akademia moduko bat eratu genuen, literekin eta sukaldearekin”, dio Rekartek. “Astegunak han pasatzen zituzten, euskara ikasten, eta gero inguruko baserrietara joaten ziren, trebatzeko, irakasle arabarrak nahi genituelako”. Urrestillan ere gauza bera egitera iritsi ziren, hango eskola publikoaren zati bat erabilita, Azpeitiko Udalarekin hitzarmen moduko batera iritsi ondoren.

Hiru urtez iraun zuen ekimenak, eta, Rekarteren arabera, 30-40 gazte pasatu ziren Nuarbeko akademia hartatik. “Baina haietako asko, gero Arabako Aldundiko Euskara Zerbitzuak kontratatu zituen irakasle gisa eskola publikoetan, euskara bazekitelako”.

3.5.3. Lehen Hezkuntzako ikastolen zabalpena Ipar Euskal Herrian

Ikastolen hazkundea Bidasoaren bi aldeetan bizi izan zen 70eko hamarkadan, ez soilik Hego Euskal Herrian. Eta, ikastola berriak zabaldu ahala, federazio baten egitura edo moldea ere hartuz joan zen Seaska elkarteak. Horrela, 1975-76 ikasturtean, informazio batzorde edo lan talde bat sortu zen Seaskaren baitan, ikastoletan egiten zen lana eta erabilitako pedagogia ezagutarazteko. Beste gaiez arduratzeko lan taldeak iritsi ziren gero: Pedagogia Taldea, hazkunderena... Eta eraldaketa 1978an biribildu zen, ikastola batzuek eskatuta, beste egituratze bati ekin ziotelako; konplexuagoa zen, baina parte-hartzaileagoa. Aurrerantzean, Seaskaren zuzendaritza 17 lagunek osatuko zuten: gurasoen hautaturiko 12 kide, eta langileek izendaturiko beste bost partaide. Baina, ezbaierik gabe, Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako jauzia ematea izan zen Seaska eta Ipar Euskal Herriko ikastolentzako bultzadarik handiena.

Frantziako hezkuntza sistemaren antolaketaren arabera, 6 urtera arteko zikloari Ama Eskola deitzen zaio. 6 eta II urte bitarteko zikloari, Lehen Maila; eta II urtetik Baxoa (Espainiako selektibitatearen baliokidea) egin bitarteko zikloari, berriz, Bigarren Maila. Irakasleak Kolegioetara eta Lizeotara doaz azken ziklo honetan, goi mailako ikasketak hasi baino lehen.

Hegoaldean bezala, ikastolak haur eskola gisa abiatu ziren Ipar Euskal Herrian, Ama Eskola zirela. Adibidez, Seaska “niniaren ohea” gisa aurkeztu zuten 1972an, elkartearen beraren barne aldizkarian. Hala, Euskal Herriari —aberriari, beraz, amari— zegokion ohe hori apaintzea, “haurrari ongietorria egiteko eta haurrari euskara irakasteko”. Gurasoei eta irakasleei, berriz, ikastola haiek bultzatzea. “Hori zen Seaskaren hastapeneko filosofia: haur txikien ikastetxeak, ez eskola ikuspegia”, dio Maialen Garatek. “Euskararen eskola, euskal populu guztiari irekita. Eta, ezberdintasunen gainetik, izpiritu amankomun bat zegoen oinarrian: haurrek euskara ikastea eta euskarazko irakaskuntza jasotzea, benetazko euskaldunak bilaka zitezen”.

Filosofia eta jarrera aldaketa

1975ean, ordea, Seaskako hasierako ikasleei iritsi zitzairen Lehen Mailako zikloan hasteko tenorea. Ondorioz, Ama Eskolatik Lehen Mailarako jauzia eman zuen Seaskak, Lapurdiko Angelun eta Donibane Lohizunen Lehen Mailako gela bana zabalduz. Modu horretara, ikasleen ikasketak euskaraz bermatu nahi zituen Iparraldeko ikastolen elkartek.

Baina, Lehen Mailako gelak zabaltzearekin batera, mentalitate aldaketa ere eman zen Seaskan 1975ean: haur txikien ikastetxea izan baino, eskola ikuspegia gailendu zen elkartearen baitan. Eta, eskolak Frantzian zein garrantzia zuen ikusita, euskararen eta euskarazko irakaskuntzari debekatutako eremu bat jorratzeari ekin zion elkartek. “Herriak ez zuen eskola bat zabaltzen Frantzian. Beraz, 1975ean, Seaskaren diskurtsoa aldatu eta nortasuna eta pertsonaren garapena bihurtu zen horren ardatz. Hala, Seaskak zioen pertsona batek behar duela kultura batera sustraituta egon bere nortasuna garatzeko, eta bere nortasuna aldarrikatzeko: ‘ni euskalduna naiz’”, adierazi du Maialen Garatek.

Halaber, filosofia eta diskurtso aldatze horren ondorioz Seaska diru laguntzak eskubide gisa eskatzen hasi zen, ez *limosna* moduan. “Dirua erregutzetik dirua aldarrikatzera pasatu ginen, argudiatuz Frantziako eskolak ez zituela betetzen euskal populuaren beharrak. Seaskak betetzen zuen eskubide publiko hori; hortaz, dirua eman behar zitzaion Seaskari”, zehaztu du Seaskako irakasleak. Aldaketa handia izan zen, Garaten esanetan, “Lehen Mailak irekita, eskola garelako sinesten genuelako. Jada ez ginen soilik Ama Eskolak dinamizatze elkartea bat”.

“Donapauleko afera”

Jauzi handia izanda ere, Angeluko eta Donibane Lohizuneko Lehen Mailako gelen zabalpena oharkabean pasatu zen Ipar Euskal Herrian. Alta, administrazioak Donapaleun Lehen Maila zabaltzea debekatu zion Seaskari 1977-78

ikasturtean. “Frantzian, eskola bat zabaltzeko, baldintza batzuk bete behar dira: eraikinek segurtasun eta osasun baldintza batzuk bete behar dituzte; Vichyko Gobernuak Bigarren Mundu Gerran ezarritako testu liburuen debekua; eta, noski, Hezkuntza Ministerioarekin konbenio edo kontratu bat sinatzea”, dio Maialen Garatek. Eta administrazioak Donapaleuko Lehen Maila debekatu zuen argudiatuz osasun eta segurtasun baldintzak betetzen ez zituela. “Aitzakiak baino ez ziren. Sakoneko arrazoia zen, noski, administrazioak ez zuela nahi ikastetxe hori zabaltzea. Gisa honetako hirugarrena zen Seaskaren partetik, eta hori ez zuen onartzen administrazioak”, Garaten hitzetan.

Debekuak, ordea, kontrako iritziak eta erreakzioak eragin zituen Ipar Euskal Herriko gizartean. 1977ko urriaren lehenean, esaterako, 3.500 lagunek manifestazio isila burutu zuten Baionako kaleetan. “Lehen aldia zen gisa horretako protesta bat egiten zela, eta izugarrizko parte-hartzea izan zuen. 3.500 lagun Iparraldean? Puff, izugarria da hori”. Horregatik, Garaten hitzetan, *Donapaleuko afera* mugari edo inflexio puntu bat izan zen. “Batetik, lehen aldiz, ofizialki eta paperean, euskararen kontra agertu zelako frantses administrazioa. Bestetik, Seaska eta ikastolak Iparraldeko agenda politiko eta sozialean kokatu zirelako”.

SIADECOREN “TERMOMETROA”

Euskararen Soziolinguistika Azterketa izeneko lana kaleratu zen Euskal Herrian 1979an; Siadeco taldeak egindako lana, Euskaltzaindiak eskatuta eta Euskadiko Kutxak finantzatuta. Lan horretan, Siadecok ikastolei buruz 1975-76 ikasturtean egindako azterketa jasotzen zen. Ondorioz, ikastolek bizitako bilakaera neurtzeko tresna egokia bihurtu zen Siadecorena. Ikastolen mugimenduaren osasuna aztertzeko termometroa, bestela esanda.

Azterketak jasotzen zuenez, 1975-76 ikasturtean 172 ikastola zeuden Euskal Herri osoan. Oso kopuru altua, 1965ean zeuden 29 ikastolekin alderatuta. Ikaslegoari zegoionez, 1960. urtean 60 ikasle besterik ez zegoen, eta 75-76 ikasturtean 33.851 ikasle ziren ikastoletan. Halaber, 75-76ean, 1.043 irakasle zituzten Hego Euskal Herriko ikastolek.

Hazkunde izugarria, beraz. Baina “frankismoan ikastolek izan zituzten problemak ez dira oraindik desagertu”, azterketak zioenez. Ikastola, ikastetxe gisa, “Administrarritza-eskola ofizialetan eskatzen ez diren eskakizun legalak bete beharrean aurkitzen da”.

Ikastolen aurka esandakoak ere biltzen zituen Siadecoren lanak. “Ikastolek jaso dituzten kritiken artean, bata oso hedatua izan da: jatorria euskalduna ez zutenentzat itxita egotea. Bestalde, klase baxuenentzat garestiegia izatea ere behin baino gehiagotan aipatu izan da”. “Baina ikastolak ez daude etorkinen seme-alabentzat itxita”, azterketaren arabera. “Hain zuzen ere, interes handia dago euskaratze-bide hau beraiei eskaintzeko. Etorkinen seme-alaben portzentaje handiena, ikastoletan, Araban dago; ondoren, Nafarroan. Gipuzkoan eta Bizkaian apalagoak dira portzentajeak. Ipar Euskadin, berriz, euskaldunen seme-alabak bakarrik doaz ikastolara”.

Halaber, ikastoletako gurasoen egoera sozialari buruz, azterketak zioen langile kualifikatuena zela ordezkarrizarik handiena, %32,4ko portzentajearekin, hain zuzen. “Gero, oso aparte, enplegatuek (%18,7); tarteko agintedunak (%12,4); merkatari txikiak eta erdi mailakoak (%11,6); goi mailako agintariak, profesio liberalak eta industrialak (%11); langile ez-kualifikatuak (%10,8); eta, azkenik, baserritar eta arrantzaleak (%3,9)”.

Ondorio gisa, ikastola proiektua “gogor” finkatuta zegoela azpimarratzen zuten azterketaren egileek: “Ikastolak errealitate indartsu bat direla esan dezakegu, ingurune arraro eta sarritan arrotz batean sortuak eta haziak; baina azkenik, herriaren esfortzu batuari esker, gogorki finkatuak, herriko zenbait lekutan bereziki. Egia esan, gure historian egin den esfortzu kolektiborik handiena da oraingo hau, dudarik gabe”. Eta, hartara, errealitate horri muzin ez egiteko eskatzen zieten instituzioei: “Erakunde publikoek beren gain hartu behar duten esfortzua, biharko egunean Euskadiko eskola guztietan hain bertatik aztertua izan den eredu linguistikoa aplika dadin”.•

3.6. IKASTOLEN ALDEKO FESTAK

70eko hamarkadan nabarmen hazi eta finkatu arren, bizitako hazkundeak ez zuen estali ikastolek sorreratik zuten zulo bat: diru premia, alegia. Are gehiago, hazkundeak berak zulo hura erraldoi bihurtu zuen. Ikastolek inbertsio handiak egin zituzten egoitzak eraberritzeko edota eraikin berriak zabaltzeko, baina diru laguntza ofizialak nahiz bankuen maileguak ez ziren nahikoak; eta gurasoen bidezko finantzazioa nahiz ekimen herrikoiei esker lorturikoa, ere ez. Diru iturri berriak behar ziren, halabeharrez. Eta beraz, ideia berriak. Zer egin, ordea?

1977an, Beasaingo (Gipuzkoa) Alkartasuna Lizeoak 10 urte inguru zermatzan zabalik, baina egoitza ezberdinetan banatuta. Han ere gorantz zihuan ikasle kopurua, eta eraikin berri bat egiteko beharra zegoen. Josu Erguin gurasoen batzordeko kidea zen orduan, eta dirua lortzeko ideia bat aurkeztu zuen ikastolan, 1969an Kalifornian (AEBn) ikasten ari zela ezaguturikoa: hainbat gizarte erakundek festa berezi bat antolatzen zuten han, dirua bildu ahal izateko. Hala, ikuskizun ezberdinekin batera, ibilbide bat sortu eta parte-hartzaile bakoitzak diru kopuru bat ematen zuen ibilbidean egindako kilometroen truke. Ideia hura entzunda, hasieran zalantzak egon ziren batzordekideen artean, eta erotzat ere hartu zuten Erguin. Baina, azkenean, ideiarekin aurrera jarraitzea erabaki zuten Beasaingo ikastolan.

Horrela, 6-8 hilabetez lan egin, astero-astero bildu eta hilabetez hilabete mota guztietako ekintzak antolatu ondoren, ikastolen aldeko lehen festa erraldoia ospatu zen Beasainen, 1977ko urriaren 16an, Kilometroak izenarekin.

Ibilbidea 09:00etan zabaldu zen, On Joxe Miel Barandiaranek zinta moztuz Lazkaon, eta Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko orduko presidente Jose Antonio Zalduak Beasainen. Eta Aita Barandiaranez gain, lagun eta talde ospetsu askok parte hartu zuten festan: Telesforo Monzonek, Eli Galdosek, Jose Luis Alvarez Enparantzak Txillardegik, Baskonia saskibaloia taldeko partaideek... Bakoitzak babesle bat



zuen, festaren ideiarri jarraiki. Lankide Aurrezki Kutxak (egungo Euskadiko Kutxak), esaterako, 150.000 pezeta eman zituen Aita Barandiaranek egindako kilometroen truke. Beasaingo Merkatari Elkarteak, berriz, 500 pezeta ordaindu zuen Lazkao Txiki bertsolariak egindako kilometro bakoitzarengatik. Joxe Mari Iriondo kazetariak *Deia* egunkaria izan zuen babesletzat; *Egin* egunkariak, aldiz, Jose Miguel Maiz korrikalaria babestu zuen. . . “Kilometroak ez zen diseinatu bakarrik festa bat izateko”, Josu Erguin *sortzailearen* esanetan. “Han parte hartzen zuen bakoitzak, bere gortzarekin esfortzu bat egingo zuen, izerdi tanta batzuk aterako zituen ikastolaren alde; ez bakarrik dirua emanez, baizik eta baita zerbait eginez ere”.

15.000 lagun 1977an

Antolatzaileek espero zuten jendetza biltzea Beasainen igande hartan, 200 autobusentzako eta 4.000 autorentzako aparkalekuak egokitu baitzituzten. Baina marka guztiak txiki gelditu ziren, denera, 15.000 lagun elkartzean. Eta, jakina, bitxikerientzako tartea ere egon zen: 17 urteko Alfonso Garcia beasaindarrak, adibidez, 63 kilometro egin zituelako. 63 kilometro! To marka!

Arrakasta ikusita, Beasaingo ikastolakoek ekimenarekin jarrai zezala proposatu zioten Gipuzkoako Ikastolen Elkarteari, urtean behin eginez. “Eta ikastola berri bat eraikitzen ari zen edo eraikiko zen herriari emango zitzaion antolatzeko aukera. Ikastola bakoitza bere kasa hau egiten hasten bazen, atomizatu egingo zela ikusi genuen”, Josu Erguinen arabera.

Ekimenaren hasierako kontzeptua galduz joan dela aitortu du Erguinek; izan ere, “hasiera hartan, norberak bere inguruan bilatu behar zituen sosak, eta kontzeptu horrek efektu biderkatzaile bat zuen”. Baina, halaber, “Ikastolen Elkarteak dosifikatzen jakin izan du eta hori oso garrantzitsua izan da bere etorkizunerako”.

Horregatik, “ni oso pozik jartzen naiz gauza berri bat dagoela entzuten dudan bakoitzean”, Erguinen esanetan. “Azken finean, denok, herri bakoitza ari da bere aportazioa egiten. Eta hori zen Kilometroetako oinarrizko filosofietako bat. Ez genuen nahi hori leku batean geratzea, baizik eta ibiltaria izatea. Horrela, norberak bere kreatibitatea, bere aportazioa, bere indarra bertan jarriko zuen. Horregatik ez dira bi Kilometroak berdinak izan”.

Ibilaldia, Nafarroa Oinez, Araba Euskaraz eta Herri Urrats

Beasainen egindako jai erraldoiaren ondotik, Kilometroak festaren anai-arrebak sortzea denbora kontua zen. Beraz, Bizkaian 1978an bertan jaio zen Ibilaldia, herrialdeko ikastolen aldeko festa. Urte hartako urrian egin zen, Getxon, Kilometroak-en egun berean. Baina milaka lagun bildu ziren jai batean zein bestean.

Arazo ezberdinak medio, urtebete beranduago, 1979an, ez zen Ibilaldiarik egon. Baina 1980az geroztik, urtero ospatu da, maiatzaren azken igandean.

Nafarroan, berriz, 1981ean egin zen Nafarroa Oinez lehen aldiz, urte hartako ekainaren 21ean, Altsasun, eta 30.000 lagun inguru batu ziren.

1981ean bertan sortu zen, halaber, Araba Euskaraz. Irailaren 13an ospatu zen orduan, Gasteizen.

Eta azkenik, 1984an jaio zen Herri Urrats, Ipar Euskal Herriko ikastolak laguntzeko festa. Urtero lekua errepikatzen duen jai bakarra da, hastapenetik egin baita Senperen (Lapurdi), udalerriko aintzira zoragarriaren inguruan.

Bilakaera

Denborarekin, ikastolen aldeko festa erraldoiak handituz, hobetuz eta osatuz joan dira. 1977ko Kilometroak-en, esaterako, ez zegoen arropa edo abesti propiorik. Gaur egun, aldiz, jai bakoitzak bere logoa du, bere leloa, kanta, arropa... Profesionalizazio modukoa eman da, halaber, garaiak aldatuz joan ahala eta bitarteko gehiago dauden neurrian. Ibilaldiak, adibidez, euskararen sustatzaileak omentzen ditu 1997az geroztik, urtero alor zehatz bateko eragilei edo lagunei gorazarre eginez.

Gehienetan, dena primeran atera ohi da. Beste batzuetan, ez hain ongi. Eta bakarren batean, bertan behera gelditu zen festa (2003an Irunberrin egin beharreko Nafarroa Oinez, adibidez, eguraldi zakarrak behartuta). Baina festa arrakastatsua dira oraindik ere, batez beste 100.000 lagun elkartzen direlako. Nork ez du buruan, adibidez, ospakizun hauetako batera joan zeneko lehen aldia? Edota jai hauekin loturiko unerik edo oroitzapenik? Nork ez du kantatu, behin eta berriz, festa hauen baitan sorturiko abestirik?

Ikastolen aldeko festak, finean, Euskal Herriaren zati bihurtu dira. Auzolanaren fruitu eta emaitza. Eta ikastolen eta Euskal Herriaren arteko uztarketaren adierazlerik garbientakoa.

Garaiak aldatu dira, baina jai hauen helburuak ez: tokian tokiko ikastola herrian txertatzea; euskararen normalizazioan eragitea; ikastolak diruz laguntzea, erronka berriei erantzuten jarraitu ahal izateko; ikastola eredu ezagutarazi eta zabaltzea...

3.7. LEHEN URRATSAK IKAS MATERIALGINTZAN

Ikastolak sortu ziren baliabide eskasian, ikasliburuarena zen beste hutsuneetako bat. Ikastolaren bitartez, sortzaileek eskola berri bat eraiki nahi zuten; baina saio hura nekez izan zitekeen eskola bat, ikasteko materialak eta liburuak falta



ziren neurrian. *Xabiartxo* zen euskarazko liburu bakarra, Elbira Zipitriaren etxe-
eskoletan ere erabilia.

Horregatik, testuliburuena ere kezka nagusienetako bat bihurtu zen Ikasto-
la Batzordean, Urretxun bildu eta ikastolen kolektiboaren lehendabiziko elkar-
tea izan zen hartan. “Kezka hau Urretxuko bileratan agertzen zen beti, Gipuz-
koako federazioa oraindik sortu gabe zegoela”, Paulo Agirrek berretsi duenez.
Eta arazoari bi eratako konponbidea eman zitzaion orduan.

3.7.I. Lehen saiakerak: Gordailu eta itzulpenak

60ko hamarkadaren bukaeran, irakaslegoaren sektore bat —Gordailu elkar-
tearen inguruan zebilena— liburuxkak egiten hasi zen, gai zehatzekin. 1969an,
esaterako, *Ikastola hiztegia* lana kaleratu zuen Gordailuk, haren lehendabiziko argi-
talpena. Eta gero etorri zen *Ikastola Liburutegia* bilduma, lau sailetan antolatutakoak:
Natur Zientziak, *Gizarte Zientziak*, *Geografia* eta *Historia*. Alta, *Ikastola Liburutegiko* lan
haiek kontsultarako lanak ziren, ez ikasliburuak. Izan ere, Gordailuren irizpide

nagusia zen ikasleak ez zuela testu libururik behar, bere ikasliburua osatu behar zuela material eta iturri ezberdinetara joz.

Beraz, ikasliburuei zegokienez, lehen saio edo esperientzia sistematizatua Gordailurena izan zen; baina, sasoi hartarako, aurrerakoiegia. Batetik, fitxak zirelako garai hartako ikasmateriala, orduko argialetxeak lantzen zuten ereduak. Bestetik, oso maila pedagogiko altua eskatzen zuelako, eta ez zetorren bat ikas-toletan zegoen errealtatearekin. Eta azkenik, Gordailuren ereduak berak kostu ekonomiko handiak zituelako, eta ekonomikoki eusteko zaila zen. Hori guztia-
ren ondorioz —eta bestelako faktoreak tarteko—, 70eko hamarkadan Gordai-
luren amaiera gertatu zen.

Hain zuzen ere Ikastola Batzordeko beste sektore batek iritzi zion Gordai-
luren liburuxka haiek ez zirela nahikoa, eta ikasmaterial itxura gehiago izango
zuen zerbait behar zela. Horregatik hasi ziren, poliki-poliki, argialetxe handien
testu liburuak itzultzen. Sektore hau izan zen, gerora, Gipuzkoako Ikastolen
Elkartea eratu zuena.

3.7.2. GIEn lan ildoak eta “Ikastolako Liburutegia” Bizkaian

Bizkaian ere eman ziren urrats batzuk testuliburuaren hutsuneari irtenbidea
emateko. Adibidez, Eubako Taldeak —BIEn ernamuina zenak— *Ikastolako
Liburutegia* ekimena jarri zuen martxan. Lau liburuxka landu eta kaleratu zituz-
ten, eta Joxerra Etxebarria eta Iñaki Zarragoa izan ziren liburuxka haien egileak;
gero, unibertsitateko irakaslea eta EITBko zuzendaria eta Getxoko alkatea izan
ziren, hurrenez hurren.

1974-75 ikasturtean, halaber, erabaki estrategikoa hartu zuen Gipuzkoako
Ikastolen Elkarteak: urte batzuk lehenago abiatutako testu liburuaren itzulpenak
homogenizatzea, alegia. Paulo Agirre bera GIEn hasi zen orduan, idazkari gisa,
Txomin Izagirreraren ordean. “Ni federazioan sartzean, 1974an, jada itzulpen
asko eginak zeuden, baina oso banaketa eskasarekin. Haien artean banatzen
zuten, ez askoz gehiago. Sakabanaketa handia ematen ari zenez, federazioan
serio heldu genion gaiari: guk finantzatu eta guk banatuko genuen, homogeni-
zazio bat emanez. Horrela, Santillana eta Casals argialetxeekin hitzarmenak
egin genituen, haien lanak itzultzeko”.

Prozesua ez zen erraza, ordea. Batzuk itzulpenak egiten zituzten, eta beste
batzuek testu haiek moldatu, jantzi, bakoitzak bere erara idazten baitzuen. Eta lan
izugarria zen azken hori. “Gero, federazioa ekartzen ziren testuak. Guk gai guz-
tiak sailkatzen genituen, eta ikastola bakoitzetik zehazten ziguten zenbat kopia
behar zituzten gai bakoitzetik. Han ibiltzen ginen, gau eta egun: fotokopiak egin
eta egin, eta gero guk geuk banatu. Denborarekin, banatzaile bat hartu eta hura
arduratzen zen banaketaz. Lan izugarria zen, bai”, Paulo Agirreraren hitzetan.

Ikasmaterialgintzari buruz, beraz, kontzepzio ezberdinak defendatzen zituzten Gordailuk eta GIEk. Eta, horregatik, Gipuzkoako federazioak ez zuen Gordailuren ildo jarraitu. Paulo Agirrerren esanetan, gurasoek beste material mota bat nahi zuten, bestelako edukiekin, homologagarriagoa. Eta federazioaren ikuspegia ere hor zegoen. Garai haietan, Xabier Aristegieta sartu zen lehen-dakari gisa, 1972-73an, eta hark garbi zuen. “Hemen testu propioak egin behar dira”, esaten zuen.

Izan ere, itzulpengintza ez zen aurrera begirako estrategia bat, momentuko erantzuna baizik. Eta ez zen nahikoa materialak edo testuak itzultzea. Planteamendu pedagogiko global bat behar zen. Liburuak bai, baina metodo bat ere bai. Eta *Saioka* proiektua izan zen hori.

3.7.3. *Saioka*, lehen saio eraginkorra

Saioka proiektua 70eko hamarkadaren lehen urteetan jaio zen, Iker enpresaren baitan. Natxo Arregi eta Jabi Zuloaga izan ziren Ikerren sustatzaileak. Giro politikoa eta soziala bizi-bizia zen testuinguru hartan, kulturgingintza alorrean lan egitea erabaki zuten Arregik eta Zuloagak, baina enpresa bat sortuz. Berehala fitxatu zuten Xabier Mendiguren Bereziartu, oraintsu arte Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko idazkari nagusia izan dena. Arregi, Zuloaga eta Mendiguren hiru hankak zirela, Iker enpresak kulturgingintzan zeuden beharrei erantzun nahi zion, ikastoletan zegoen material didaktikoen premia barne. Gainera, Natxo Arregiren esanetan, “ikastolen mugimenduak bazituen hainbat ezaugarri, gure asmoekin eta ideologiarekin bat egiten zutenak. Hizkuntza eta kultur zapalketaren kontrako erantzuna zen, oso aurrerakoia, oso kooperatzailea, oso herrikoia —herrikoia ezin,



herritik bertatik sortuak, banaka-banaka—, eta, beraz, oso bat zetorren gure asmoekin”.

Natxo Arregi eta Jabi Zuloaga, hain justu, auzo eta ingurune baztertuetan hezkuntza proiektuak lantzen ibilitakoak ziren, gizarte arazoan aurrean zuten kezka eraginda. Eta biek ala biek oso argi zuten, lan egiteko orduan, metodo osoagoa behar zela, ez lan edo saio partzialak. Buruan zutena aurrera ateratzeko ere erreferentziako pertsonekin jarri ziren harremanetan, *Saioka* proiektuari sakontasuna eta sendotasuna emateko: Xabier Mendiguren Bereziartu bera ez ezik, Xabier Kintana, Kepa Martinez de Lagos, Joxerra Etxebarria... Material didaktikoak ekoizteko orduan, proiektu oso bat lantzea zen helburua, erdaldunek egiten zuten moduan.

Horrela abiatu zen *Saioka* Taldea, 1972an. Eta *Saioka* proiektuarekin batera, mugarri bat jarri zen euskal ikasmaterialgintzan. Benetako eraldaketa izan zen *Saioka*, lehen aldiz, euskarazko ikasmaterialgintzaren planteamendu oso bat egiten zelako, Oinarrizko Hezkuntza Orokorrari (OHO) osotasunez erantzuteko: Lehen Mailatik 8. Mailaraino. Curriculum oso bati eta planteamendu pedagogiko garbi batekin egindako ikasmaterialgintza.

Planteamendua

Natxo Arregi izan zen *Saioka*-ren sortzailea. “*Saioka* proiektuak osotasuna eduki nahi zuen, curriculum osoa eskaini nahi zion ikastolari”, Arregiren beraren esanetan. “Curriculum antolatzeke oinarrizko ideia zen gaitasun kognositiboak garatzea. Curriculum ez zen edukien arabera antolatzen, gaitasun haien eta landu nahi genituen gizarte jarrera jakinen arabera baino. Lehen Mailatik zortzigarrenean, zein gaitasun landu behar ziren erabaki genuen, eta horren arabera gauzatu proiektuak”.

Hala, landu beharreko gai bakoitza proiektu baten bitartez egiten zen *Saioka*-n. “Pedagogia aktiboa gauzatu nahi genuen. Ikasi, ekintzaren bitartez. Jakina, horretarako, ekintza planteatu behar zen. Horregatik jo genuen proiektuetara, ikaskuntza helburu praktikoko edo ludikoen bidez planteatzeko. Helburu praktikokoek proiektua eragiten zuten; eta proiektuak, ekintza”.

Saioka izena, beraz, saio hitzetik zetorren. *Saioka*-ren planteamenduari jarraiki, ikasleari ez zitzaizkion irakasten, baizik eta ikasi egiten zuela, ekintzaren bitartez. Hark eraikitzen zuen ezagutza. Baina, prozesu hartan, ikaslea ez zegoen bakarrik. “Pedagogia kooperatzailea bultzatu nahi genuen, talde lana, eta ipuin gehienak taldean girotzen ziren, eta hori bultzatu zedin saiatzen ginen. Ikuspuntu intelektualari dagokionez, berdin. Edukiak taldean eta bakarka lantzeraino jotzen genuen, ikaslearen gaitasun kritikoa handitzeko”, Natxo Arregiren arabera.

TALDE DINAMIKOA BEZAIN DIZIPLINATUA

Saioka proiektuak lana eta denbora asko eskatzen zuten. Baina Saioka Taldea ere oso ondo egituratuta zegoen: Nabxo Arregik emandako informazioa eta irizpideak taldean aztertzen ziren, eta, ondoren, partaide bakoitzak bere etxean lan egiten zuen. Izan ere, talde dinamikoa zen Saioka, diziplina ikaragarria zuen oso jende onez eta langilez osaturikoa. Honatx, bestela, Karmele Baelo partaideetako baten adibidea: garai haietan lau seme-alaba hazi, ikastolan lan egin eta Saioka proiektua lantzen zuen Baelok, 20:00etan umeak oheratu ondoren. Edota Joxerra Etxebarriaren kasua, etxean argirik ez eduki arren, Saioka egiten jarraitzen zuen. “Sasoi hartan gertatu zen Iberdrolak guri etxeko argia kentzea, Lemoizen kontrako boikot kanpaina zela eta. Hiru-lau hilabete argi barik egon ginen etxean, eta Saioka haietako bat kanpin-gasaren argitan idatzi nuen”, Etxebarriaren hitzetan.

Era batera edo bestera, 50 lagunek parte hartu zuten proiektu hartan. Eta Saioka-k enpresa planteamendua egin zuen, eta, ordura arteko ikasmaterialgintzarako beste ekarpen bat izan zen. Baina egileek borondatezko lan asko ere egin zuten proiektu hura aurrera atera zedin. •

Euskara batuan

Saioka-n argi zuten euskaraz sortu behar zela ikasmateriala, ez itzuli. Eta, euskara batuari buruzko eztabaida pil-pilean zegoen arren, egileek argi zuten ere euskara batua erabili behar zutela, *Saioka* Euskal Herri osoari begirako proiektua zelako. Horrela, hainbat hitz ere asmatu beharrean aurkitu ziren, astiro-astiro, terminologia bat finkatzeraino.

Eta, euskara batuaz gain, euskararen lantze sistematikoa ere egin zuten. Hots, euskara ikasteko ariketa sistematikoak.

Baina, erabilitako euskara zela eta, kritikak jaso zituen proiektuak, eta irakle batzuek ez zuten ikasmaterial hura erabili nahi. *Saiokako* egile haietako bat zen Xabier Mendiguren Bereziarturen esanetan, “*Saiokak* ahalik eta ulergarritasun maila handieneko materiala izan nahi zuen. Beste zenbait itzulpenekin aldekatuta —Santillanak euskarara egin zituenekin, adibidez—, gurea askoz ere material egokiagoa zen, dudarik gabe. Beraz, ez zen denen gustuko lana egin, baina egin zitekeen onena bai, eta landua. Oro har, geroan egin ziren lanak ez dira bide hartatik askorik aldendu”.

Kepa Martinez de Lagos izan zen *Saioka* Taldeko beste kideetako bat. “Irakleak liburuak ikusi eta beldurtu egiten ziren: ‘Euskara hori ez du inork uler-

tzen!'. Baina metodologian irabazten genuen. Metodologia aktiboari esker. Jendea nazkatuta zegoen fitxak egiteaz”.

Metodologia aktiboa

Metodologia izan zen, bai, *Saioka*-ren tirazo handienetako bat. Metodologia ezberdina, oso aktiboa, sortzailea; ordura arteko partzialtasunaren alboan, globaltasuna bilatzen zuen... “Metodologiaren arabera irakasleak haurrengandik atera behar zuen proiektua, ez liburuan zegoena zuzenean aplikatu. Kontraesana iruditzen zitzaigun hori, baina ez zegoen beste modurik metodologia hura zabalteko. Irakaslearen esku zegoen, beti”, Karmele Baelo *Saiokako* kidearen arabera.

Ondorioz, irakasleentzat ez zen metodo erraza hura. Lan handia egin behar zuten. Eta horrek eragin zuen, halaber, prestakuntzaren beharra.

Prestakuntza

Ikasmaterialez gain, prestakuntza izan zen *Saioka*-ren beste zutabeetakoak. Metodoa berria zelako, bai, baina, gainera, *Saioka*-k berak oso irakasle ekintzai-leak eskatzen zituelako. Ondorioz, irakasleagoa trebatu beharra zegoen.

Beraz, formazio ikastaroak ere ematen zituzten *Saiokako* egileek. Joxerra Etxebarriak ere Karmele Baelok aipaturiko kontraesana ikusten zuen. Hots, “guk liburua egiten genuen, ikasleek ez erabiltzeko”. Baina, ikastaroetan, horri buelta ematen zion Etxebarriak berak, eta zera esaten zien irakasleei: “Hau *txuleta* bat duzue. Ez badaukazue irudimenik bide honetan zeuen proiektua egiteko, *Saioka* materiala proiektu hori egiteko eskema duzue”.

Saioka, beraz, irakasleagoaren formazioarentzako hauspoa izan zen. Eta hori beti garrantzitsua bada, are gehiago 70eko hamarkadaren erdialde hartan, ikas-tolek ezaguturiko hazkundearen ondorioz, prestatu gabeko profesionalen krisia eman zelako: irakasle berri asko iritsi ziren, baina ikastolak behar zuen profesionalaren soslairik gabekoak. Eta ikastolak, une haietan lehentasunak bestelakoak zirenez, ez zeuden prestatuta irakasle berri haiek guztiak formatzeko. Ondorioz, hizkuntzan formaziorik ez, hizkuntzen didaktikan ere ez... ikastolen ezaugarrietako bat irakasleen prestakuntza zenean! *Saioka*-k, beraz, krisi pedagogiko horri buelta emateko balio izan zuen.

ekoizpena eta banaketa

Saioka-ren lehen lana —*Saioka 1*— 1974an argitaratu zen; 1975ean, berriz, *Saioka 2* eta *Saioka 3*; 1976an, *Saioka 4*; *Saioka 5*, 1977an... Hala, 1974an hasi eta 1982an bukatu zen arte, denera 24 testu liburu, bi gida liburu eta bi disko sortu

zituen *Saioka*-k. Bestela esanda, 5.755 orrialde, eta testu liburuak ez beste ikas-materialak ere bai.

Baina, edukiaz gain, itxura aldetik ere berritzailea zen *Saioka* proiektua: garai hartako materiala baino alaiagoa, irudi aldetik osatuagoa, kalitate handiz inprimatuta... Zakilixut euskal prentsako pertsonai mitikoaren irudiak, esaterako, *Saioka*-n sortu ziren.

Iker enpresa arduratzen zen *Saioka* argitaratzeaz. Proiektuak ez zion soilik ikastolen errealitateari erantzun nahi, baina, hasieran, ikastoletan erabili zen nagusiki, eta askoz ere maila apalagoan eskola publikoetan. Ikastoletako bana-keta, hain zuten ere, Gipuzkoako Ikastolen Elkartearen ardura izan zen ia hasieratik, Paulo Agirrerren esanetan “Bizkaian ez zegoelako ahalmenik horretarako”. GIEk, horretarako, Jaka anaien sare komertziala erabili zuen. Baina *Saiokako* partaide batzuek ez zuten begi onez ikusi hura.

1977an, ordea, Iker enpresa desagertu zen, egoera ekonomiko larriak zituelako. Eta Gipuzkoako federazioak berak erosi zituen *Saioka*-ren funtsak. “Ikerren gogoa ez zen *Saioka* saltzea, baina zuten zulo ekonomiko handia estaltzeko beharrak bultzatuta, azkenean, onartu zuten guk funtsak erostea. Izugarritzko inbertsioa izan zen”, Paulo Agirrerren hitzetan. Baina erabakiak ika-mikak eragin zituen Gipuzkoako eta Bizkaiko federazioen artean. “Bizkaitarrek ez zuten ondo hartu *Saioka*-ren fondoa guk hartzea. Haien gauza bera egin nahi zuten, baina ez zuten baliabiderik, azpiegiturarik...”, dio Agirrek.

Edonola ere, GIEren eta Iker enpresaren arteko hitzarmen hari esker *Saioka*-ren lan taldeak, lan sistemak eta proiektu txukunak aurrera egin ahal izan zuten. Eta *Saioka* Taldeak ikasmaterial hura sortzen jarraitu zuen, eta GIEk argitaratzen eta banatzen. Eta 1982ra arte iraun zuen *Saioka*-k. Ordurako, ikasmaterial hura berriro beharra zegoen, UCD alderdiaren gobernuak hezkuntza arloan ezarritako *Programa Berrituen* arabera.

Saioka-rekin hasi zen, hortaz, benetako ikasmaterialgintza ikastoletan. *Saioka*-k jarri zuen abiapuntua. Baina baita arrasto edo ondorio handia utzi ere: “Eragin nahi baduzu eskola batean, egin itzazu ikasmaterialak. Irakasleak ez du egingo zuk esaten duzuna, ezta pentsatu ere, baina ubide bat eskaintzen duzu; eta hor, batzuk ibiliko dira ezkererago, besteak eskuinerago... baina ubide zabal bat jartzen duzu. Horren arabera, formakuntza ematen duzu gero... Bide bat egiten duzu, finean. Eta hori ikastolak asmatu du, ez beste inork. Ikastolaren ekarpen handia da hori”, dio J. Iñaki Etxezarretak, 70eko hamarkadaren bukaeran —*Saioka*-ren garaietan— Urretxuko ikastolako irakaslea zenak. 1980az geroztik Urretxuko ikastolako zuzendaria zen, eta 1988-1989 ikasturtean GIEko zuzendaria izendatu zuten, eta ardura hori 2003ra arte bete zuen. 2003tik 2009ra, berriz, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko zuzendaria izan zen Etxezarreta, ardu-ara hori, praktikan, urte batzuk lehenagotik bete arren.







4.

IKASTOLA EREDUAREN GARAPENA (1978-1987)

4.I. LAGUNTZAK ETA NORMALKUNTZARAKO LEHEN URRATSAK

4.I.I. Testuingurua


1975eko azaroaren 20an Franco hil zen, ia 40 urteko diktaduraren ondotik. Eta diktadorearen heriotzarekin batera, aro berri bat abiatu zen Espainiar Estatuan nahiz Hego Euskal Herrian, gertaerak bata bestearen atzetik kateatuz. 1976ko uztailaren 3an, esaterako, Adolfo Suarez izendatu zuten Espainiako presidente berria; 1976ko abenduaren 15ean, berriz, Erreforma Politikoaren Legea babesteko erreferenduma egin zen estatu osoan; 1977ko urtarrilaren 19an, ikurri-na legezatu zen; 1977ko Aberri Egunean, alderdi politiko baten azken legeztape-na eman zen (Espainiako Alderdi Komunistarena, hain zuzen); 1977ko ekainaren 15ean, diktaduraren ondorengo lehendabiziko hauteskundeak burutu ziren...

Francó hil eta ondorengo bi urteetan Hego Euskal Herrian jazotako aldatuen testuinguru hartan, handia zen ikastolen itzala. Izan ere, ikastolek ia 20 urte zeramatzaten martxan, egindako lana, etengabe, pedagogia modernoarekin eta etorkizunarekin lotuz. Ondorioz, aldaketa politikoa abiatzean, hainbeste itxarondako etorkizuna marrazten hasi zenean, ikastolak sortzeko trabak desgertu zirenean... ikastolak alternatiba gisa agertu ziren gizartearen aurrean. Arrakasta izandako alternatiba gisa, hain justu, euskal hezkuntzaren panoraman ez zegoelako beste inor euskaraz ari zenik, euskara eta euskaraz irakasten zuenik, euskal pedagogia berri bat diseinatu eta garatu zuenik... Ikastola bezalako planteamendurik ez zegoen, eta ikastolek horixe islatzen zuten gizartearen modernitatean, euskal sinbologia berria, euskal identitatea, demokrazia...

Horregatik, 70eko hamarkadaren hasieraz geroztik ikastolek ezaguturiko arrakasta biderkatu egin zen 1975etik aurrera, eta gizartean bizi zen aldaketa gogoia ikastolen ekimen orotan txertatu zen. Egindako ekimen oro arrakastatsua zen; ikastolaren proiektuak arrakasta zuen herrian, eta denek bat egiten zuten ikastolarekin. Eskola publikoko zein pribatuko sektoreek ere miretsi egiten zuten, eta eredutzat hartzen hasi ziren.

1977an, batzarra Gasteizen

Franco hilda, beraz, eragile politiko, ekonomiko eta sozial guztiak kokapen egokiaren bila hasi ziren. Eragile guztiek zabaltzen ari zen aro berrira egokitu nahi zuten, iristen hasiak ziren aldaketetarako prestatzeko eta egoera berriari begira norik bere posizioak finkatzeko. Eta ikastolek ere pausoak eman zituzten norabide horretan.



1977ko maiatzaren 21ean, esaterako, Hego Euskal Herriko lau federazioek eta Ipar Euskal Herriko Seaskak ezohiko batzarra egin zuten Gasteizen. Ikastoletako irakasleek ordurako Gipuzkoan eta Bizkaian eratzen hasiak zituzten elkarteetako ordezkariak ere gonbidatu zituzten bilerara. Batzarrak bi zati izan zituen. Batetik, arazo komunei buruzko hausnarketa izan zen, eta federazio bakoitzak tokian tokiko egoerari buruz landutako txostenak aztertu ziren. Bestetik, estreinakoz, konfederazio bat sortzeko proiektua eztabaidatu zuten parte-hartzaileek. Eta, amaiera gisa, bileran onarturiko manifestu bat kaleratu zuten, *Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Ifarraldeko ikastolen agiria* izenarekin. Agirian, Euskal Herriak jasandako “zapalkuntza eta deseuskalduntzea” salatzen zuten ikastolek, eta Espainiako Gobernuari hainbat eskari egiten zioten: euskararen ofizialtasuna “lehenbailehen” ezartzea; ikastola guztiak legeztatzea eta diruz laguntzea; irakasle eskolek Euskal Herriaren “beharrei” erantzutea; eta Euskal Unibertsitatea sortzea. Idatzi berean, Euskal Herriko erakunde guztiei ere —udalak, diputazioak, talde politiko eta sindikalak...— deialdi berezia egin zieten ikastolek, “historian zehar sorturiko okerrak zuzentzeko eta euskarak eta euskal kulturak dagokien lekua izateko”.

Gasteizko batzar hartan egon zenetako bat Roman Irigoien izan zen. Haren esanetan, 1977ko urte hasieratik ari ziren ikastolen elkarteak Gasteizko batzarra antolatzen, eta han publiko egindako agiria lantzen. Irigoienek berak ere prestakuntza bilera haietan parte hartu zuen. Eta ikastolen orduko aldarriez galdetuta, argi mintzo da: “Denok nahi genuen zerbait; besteak beste, ikastola gutzientzako estatus juridiko bakarra lortzea zen helburuetako bat. Baina nahi eta ezin bat zen, helburu haiek une haietan lortzea oso zaila zelako, denborak oso ondo erakutsi duen moduan”.

1978an, batzarra Etxarri Aranatzen

Urtebete beranduz, 1978ko maiatzaren 7an, Hegoaldeko lau ikastolen elkarteak bildu ziren berriro. Etxarri Aranatzen egindako batzarrean, ikastolek “euskal heziera baten hutsunea betetzen” zutela aldarrikatu zuten. Halaber, gutxieneko onarpen bat lortu arren, onespren legalik eta administratiborik gabe jarraitzen zutela nabarmendu zuten Hego Euskal Herriko ikastolek. Eta horregatik, administrazioen partetik erantzun “zehatzik” jaso ez zuten neurrian, ikastolen normalizaziorako legezko estatusa exijitu zuten Etxarrin, “estatuaren eskolaren eta ikastolaren arteko parekidetasuna lortuz”.

Hortaz, eskola publikoaren antzeko finantzazioa eskatzen zuten ikastolek. Ikastola proiektua bera aintzat hartzea, argudiatuz ikastola ez zela batzuen proiektu bat, alderantziz, instituzio berrien proiektua ere izan behar zuela. Herritarrek desio zuten aldaketa, modernitatea, etorkizun berri hura gauzatzen

lagundu zuten, ikastolentzako ere antzeko laguntza eskatzen zieten agertoki politiko berrian eratutako erakundeei.

Finean, aitortza publikoa eta horren arabera finantzazioa ziren ikastolen aldarri publiko nagusiak, 20 urtez bizitako txirotasun, eskasia eta nekeak gainditu ahal izateko. Roman Irigoienek hitzetan: “*Hemen gaude, beharrezkoak gara. Aurrera segi nabi dugu, eta horretarako behar diren baliabide guztiak lortu nabi ditugu. Hori zen ideia, nolabait esatearren*”.

Leherketa giro hartan, beraz, ikastolek ere leherketa modukoa bilatzen zuten: kanpora begira, aitortza publikoa eta finantzazioa eskatuz; eta barnera begira, baliabideak hobetzen saiatuz. Eta horrek agerian uzten du, orduko hartan jada, ikastolen mugimenduak bazekiela bere ikuspegi propioarekin jokatzeko —herriz herri nahiz Euskal Herri osoan—, mugimendu politikoaren edota sindikalaren antzera.

ELEBITASUNARI BURUZKO JARDUNALDIAK

Franco hil ondorengo trantsizioaren testuinguruan, elebitasunaren gaia aztertzekeo jardunaldiak burutu ziren Donostian 1976ko uztailaren 20an, 21ean eta 22an, Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak antolatuta, Euskaltzaindiak babestuta eta Lankide Kutxak (egungo Euskadiko Kutxak) finantzatuta. Ikastolen mugimendua, beste behin, aitzindaria zen, ekimen hartan hurrehundurik gora lagun elkartu baitzuen arrakasta handiz.

13 hitzalditan banatuta, parte-hartzaileek hiru gai aztertu zituzten: gutxiengo elebidunen alderdi historiko, juridiko eta politikoak; ikastoletako elebitasun arazoak; eta, azkenik, zenbait herrialdetan emandako elebitasun esperientziak.

Jardunaldien ondorio gisa, berriz, bost aldarrikapen egin ziren: legezko eta egiazko normalizazio bat hezkuntza elebidunarentzat; ikastolaren proiektuaren luzapena goi mailako irakaskuntzaraino; hornikuntza teknikoaren beharra; irakasle elebidunaren prestakuntza, plangintza baten bidez; eta, aipaturiko guztia egin ahal izateko, ikastola elebidunari antolamendu ekonomiko egokia ematea. •

4.1.2. Gasteizen eta Madrilén, “sukalderaino”


Trantsizioa deituriko garaian, dena den, ikastolen kolektiboaren jarduna ez zen aldarrikapenetara mugatu. Instituzioetara ere jo zuten ikastolek, aitortza publikoaren eta finantzazioaren bila. 1976ko otsailaren 12an, esaterako, Gipuz-

koako Ikastolen Elkarteko ordezkariak orduko Espainiako Hezkuntza ministro Carlos Robles Piquerrekin bildu ziren Madrilen.

1977ko maiatzean Gasteizen egindako batzarraren ondotik, halaber, Hego Euskal Herriko lau federazioak beste zortzi aldiz bildu ziren. Eta harreman horien fruitu gisa, lau federazioak elkartuta agertu ziren, estreinakoz, Espainiako Hezkuntza Ministerioaren aurrean, urte bereko azaroaren 22an Madrilen egindako bilkuran. Beraz, konfederazioa eratuta ez egon arren, Arabako, Bizkaiako, Gipuzkoako eta Nafarroako ikastolen elkarteek elkarrekin jarduten zuten Madrilékiko. Azaroko bilera hartan, zehazki, herrialdez herrialdeko ikasleen datuak ezagutarazi zizkieten Iñigo Caverori, sortzez donostiarra eta 1977ko uztaiaz geroztik Espainiako Hezkuntza ministroa zena.

Hartu-emanek aurrera jarraitu zuten, eta 1978ko urte hasieran ikastoletako ordezkariak Hezkuntza ministroarekin biltzekoak ziren berriro. Bilerari begira, II puntuko aldarrikapen taula prestatu zuten ikastolen mugimenduko ordezkariak; ikastola guztientzako Oinarrizko Hezkuntza Orokorrerako (OHO) diru laguntza osoak lortzea zen aldarri nagusia, baina eskolaurrerako diru laguntza berezi bat ere eskatu nahi zioten ministroari. Aldarrikapenetako beste bat, “legea errealitateari lotzea, eta ez errealitatea legerari”.

Izan ere, 70eko hamarkadaren azken urte haietan, oso egoera ezberdinak bizi baitziren ikastoletan: ikastola gehienek ez zituzten lortuta OHOrako diru laguntzak, bakar batzuek baino ez. Eta eskolaurrerako eta batxilergorako diru laguntzak ere ez zituzten jasotzen ikastolek. Paulo Agirrerren esanetan, “soilik legeztatuta zeuden ikastolek jasotzen zituzten OHOrako diru laguntzak. Eskolaurrearen kasuan, derrigorrezkoa ez zenez, ziklo hau ez zen diruz laguntzen ikastetxe pribatuetan. Eta batxilergoaren kasuan, ikastoloi ez ziguten onartzen guk ziklo hori eskaintzea. Soilik estatuaren eskolari edo eskola publikoari ematen zioten ziklo guztietarako laguntza”.



Marcelino Oreja eta Joaquin Aperribai

Paulo Agirrereren arabera, Xabier Aristegieta GIEko lehendakaria zela hasi ziren harremanak Espainiako Hezkuntza eta Zientzien Ministerioarekin (1973-1976 eta 1978-1996 urteen artean, Hezkuntza eta Zientzien Ministerioa zen izendapen ofiziala; 1976-1978 urteetan, berriz, Hezkuntza Ministerioa). Eta gero, Joxean Zaldua GIEko lehendakaria zela, harreman haiek areagotu egin ziren. “Madrilen *bariak mugitzearen* beharra ikusi genuen”, dio Agirrek. Eta, horretarako, Marcelino Oreja Espainiako ministroa oso garrantzitsua izan zela aipatu du baita ere Paulo Agirrek, Euskadiko Kutzako Ikastolen Saileko arduradun Javier Pagaldaireren antzera. “Egoki ikusi genuen Marcelino Orejarekin biltzea, ikastolak laguntzeko prest agertu zelako. Baina nola iritsi Orejarengana? Bada, Joaquin Aperribai debarraren bitartez, Realeko egungo presidentearen aita dena. Aperribai eta Oreja lagunak omen zirela esan ziguten Deban, eta agian haren bitartez iritsi gintezkeela Marcelinorengana”.

Horrela zabaldu zuten Madrilerako bidea, eta horrela iritsi ziren Marcelino Orejaraino. “Gizon atsegina zen, eta oso harreman atsegina izan genuen harekin. Laguntzeko oso prest agertzen zen beti. *Hariak mugitu* zituen Orejak; eta harekin egindako gestioen bitartez, Hezkuntza Ministeriotik diru asko jaso ahal izan zuten gero ikastolek”, kontatu du Paulo Agirrek.

Tratamendu bana ikastolei

Baina, negoziazio haiek gertatzen ziren bitartean, egungo marko juridiko-politikoaren ezarri zen Hego Euskal Herrian. 1977ko abenduaren 30ean, Espainiako Ministro Kontseiluak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako autonomiaren lehen testua edo agiria onartu zuen, Nafarroa kanpoan utziz. 1978ko otsailean, berriz, Eusko Kontseilu Nagusia (EKN) jarri zen martxan, PSOEko Ramon Rubial lehendakaria zela. Eusko Jaurlaritza eratu bitartean, autonomia aurreko sasoi hartan Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako behin-behineko gobernuaren funtzioak EKNk bete zituen, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Autonomia Estatutua prestatuz eta estatutu horren araberako eskuduntzak Espainiako Gobernuarekin negoziatuz.

Autonomia Estatutuaren proiektua, hain zuzen, 1978ko abenduaren 29an berretsi zuten Gernikako Batzarretan, Espainiako Konstituzioa onartzeko erreferenduma egin eta egun gutxira. 1979ko martxoan berriz ere Espainiako Gortetarako hauteskundeak egin ondotik, ekainean, bigarren Eusko Kontseilu Nagusia osatu zen, Carlos Garaikoetxea (EAJ) presidente izendatuta. Eta urriaren 25ean erreferendum bidez Gernikako Autonomia Estatutua onartu, 1980ko martxoan diktadura ondorengo lehen Eusko Jaurlaritza eratu, eta EKN bertan behera gelditu zen.

Horrek guztiak eragina izan zuen ikastolen mugimenduan, marko berria indarrean jartzearekin batera, ikastolei tratamendu ezberdina eman zitzaielako: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastolak alde batetik, Nafarroako ikastolak bestetik, eta Ipar Euskal Herriko ikastolak, azkenik, bestetik.

Eusko Kontseilu Nagusiarekin, behinik behin, harreman estua izan zuten ikastolen elkarteek. Izan ere, EKN bitan osatu eta bitan egon baitzen Karlos Santamaria, ikastolako gurasoa eta Donostiako Santo Tomas Lizeoko sortzaile-etakoa. Hezkuntza sailburu zen Santamaria, eta ikastoletako partaideak izandakoak edo zirenak ere ondoan zituen EKN-n; Xabier Agirre eta Javier Retegi, esaterako. “Elkarlan handia eta zuzena zegoen kontseiluarekin”, nabarmendu du Paulo Agirrek. “Astean, gutxienez, hirutan-lautan joaten ginen gu Gasteizera, kontseiluaren egoitzara, handik ateratzen zelako guztia. Ez genituen erabakiak hartzen, noski, baina asko eragiten genuen”.

Eusko Kontseilu Nagusiaren sasoi haietan, hain zuzen, Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak ematen zituen OHOrako diru laguntzak jaso zituzten ikastola guztiak, Gipuzkoako federazioak abiatutako gestioen fruitu gisa. Eskolaurrerako eta batxilergorako 350 milioi pezeta (2.103.542 euro) ere jaso zituzten ikastolek. GIEk berak banatu zituen laguntza haiek Hegoaldeko ikastola guztien artean. Paulo Agirreren hitzetan, “diru laguntza haiek jasotzea ikaragarria izan zen. Pentsa, ikastetxe pribatu askok ere GIEn federatu nahi izan zuten! Federatzeko eskari handia zegoenez, baldintza argiak jarri behar izan genituen”.

Baina, kontuan hartuz garai hartan eskola pribatuek ere ez zituztela eskolaurrea eta batxilergoa finantzatuta, ez zen erraza justifikatzea ikastolei emandako dirua. Horrela ezin zen jarraitu. Trikimailu edo tramankulu juridiko moduko bat behar zen. Eta tramankulu hori Ikastolen Titulartasun Ofizialerako Arautegia izan zen.

“MENTALITATE ANTIESPAINOLA SORTZEN DUTE IKASTOLEK”

1979ko maiatzaren 3an, hautsak harrotu zituen adierazpenak egin zituen Antonio Ibañez Freirek, orduko Espainiako Barne ministroa eta lehenago Bizkaiko Gobernadore Zibila izan zenak. ABC egunkarian egindako bazkari baten baitan, Ibañez Freirek aitortu zuen “murrua egin” zuela ikastolak sortu zirenean, “jakin banekielako euskal gazteriarengan mentalitate antiespainola sortuko zutela, herrialde okupatu eta zanpatuaren mentalitatea”. Hala, Barne ministroak erantsi zuenez, “ikastolak aurreko erregimenaren akats politiko bat izan ziren, eta orain garesti ordaintzen ari gara”.

1913an Gasteizen jaioa, militarra zen Antonio Ibañez Freire, eta Francoren zale amorratua. “Ildo gogorreko” gizona, Manuel Fraga PPko buruzagi historikoaren memoria idatzietan azpimarratzen denez. Armadako teniente jenerala zela, Rodolfo Martín Villa Barne ministroak Guardia Zibilaren idazkari nagusi izendatu zuen Ibañez Freire. Eta, hain zuzen, Martín Villa kargutik kentzean izendatu zuten gasteiztarra Barne ministro, 1979ko apirilaren 4an. Gutxi iraun zuen kargu horretan, baina ikastolen kontrako adierazpenekin arrastoa utzi zuen. •


4.I.3. Ikastolen Titulartasun Ofizialerako Arautegia

70eko azken urteetan, beraz, Espainiako Hezkuntza Ministerioaren diru laguntza bereziak jaso zituzten Hego Euskal Herriko ikastolek. Baina ikastolen egoera normalizatu beharra zegoen, oso egoera ezberdinak bizi zirelako: ikastola batzuk legeztatu gabe zeuden oraindik, langileen soldatak eta ikasleen kuotak oso ezberdinak ziren ikastola batetik bestera... Zer egin, ordea?

“Nolabaiteko publikotasuna eman ezean, ez duzue ezer egiterik. Legea ezin da gehiago behartu, esan zigun Karlos Santamariak”, Paulo Agirrereren hitzetan. Hots, forma juridikoak zaindu egin behar ziren. “Santamariak esan zigun nolabaiteko *jantzi* bat behar genuela; bestela, ezer ez. Ordurako OHOrako laguntzak-eta jasoak genituen, baina diru laguntza berriak jaso ahal izateko, beharrezkoa zen *jantzi berri* bat”.

Hala, 1979ko apirilaren 20an Elebitasun Dekretua kaleratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) irakaskuntzan euskararen sarrera ahalbidezteko eta arautzeko. Horren arabera, “Hezkuntza Ministerioak egin ahal izango du hitzarmenik Eusko Kontseilu Nagusiarekin eta bestelako Erakunde Publikoekin, irakasgaiak euskaraz ematera bereziki destinaturiko ikastetxeei laguntza ekonomiko eta irakaskuntzakoa segurtatzearen, baldin eta ikastetxe horien titulartasuna berena edo bere onartua bada”, zioen Elebitasun Dekretuaren 3.2. artikulua. Dekretuak, beraz, ikastolak aitortzeko estaldura modukoa ematen zuen. Eta, Elebitasun Dekretua oinarri hartuta, Espainiako Hezkuntza Ministerioak eta Eusko Kontseilu Nagusiak Ikastolen Titulartasun Ofizialerako Arautegia negoziatu eta adostu zuten 1979. urtean. Hots, Santamariak GIEko kideei aipatzen zien *jantzi berri* hura.

Izan ere, asmatuiko *aterpe* hari jarraiki, ikastolak ikastetxe publiko bihurtzen ziren; “estatuarenak ez ziren ikastetxe publikoak”, hain zuzen ere. Ondorioz, ikastola bakoitzak bere titulartasuna administrazio publikoari uzten zion, eta,



415
D. JAVIER CAÑO MORENO, Secretario General del CGV.
Certifico: Que en la reunión que celebró el Pleno del Consejo General del País Vasco el quince de octubre de mil novecientos setenta y nueve en el Palacio de la Diputación Foral de Vizcaya, se aprobó la normativa presentada por el Sr. Consejo de Educación, previo informe favorable de la Comisión mixta Consejo - Diputaciones - Federaciones de Ikastolas, sobre titularidad oficial de estos centros.
Lo que certifico, con el visto bueno del Sr. Presidente del Consejo en Bilbao, a 25 de octubre de 1979.—El Secretario General, Javier Caño Moreno. — V. B. el Presidente, Carlos Garaikoetxea

NORMATIVA DE TITULARIDAD OFICIAL DE LAS IKASTOLAS
Dentro del plan de incorporación del euskara al sistema educativo del País Vasco, previsto por el Decreto 1.049/79, y educativo del artículo 3.2 de dicho Decreto, la presente normativa tiene por objeto dotar a los centros educativos destinados especialmente a impartir las enseñanzas en lengua vasca (Ikastolas) de un estatuto jurídico público, bajo la titularidad del Consejo General que, ya en el período preautonómico, les garantiza la seguridad económica y jurídica mediante un inmediato Convenio entre el Consejo General y el Ministerio de Educación.

414-bis
XABIER CASO MORENO, Idazkari Orokorrak
Zerifikatu den mila bederatzearen eta bostean Bizkaiko Diputazioaren Hezkuntza Kabinaren aurkezpena lantzen ari den arazidun Arandía onarritik, Kontseiluaren garrantziaren zertifikatuak dituzten, Bilbon, 1979ko urriak 25.—Idazkari Orokorrak, Xabier Caño Moreno. — Onerizak: Presidente, Karlos Garaikoetxea

IKASTOLEN TITULARITATE OFIZIALARI BURUZKO AKADIA
1.049/1979 Dekretuan sarrerkizun den euskara Euzko Herriko Hezkuntza sisteman sartzeko planingizun, Arandí honen 3.2 artikuluan gogokiolarik, Arandí honen helburua, beren helburu garrantzirik irakasketa euskaraz emateko, beren helburu garrantzirik (Ikastolei) Kontseilu Nagusiaren titulazioaren lege estatutu publiko ematea da, autonomik sarrerkizun garrantzirik bertatik Kontseilu Nagusiaren eta Hezkuntza Minis.riaren arteko Komentio baten bidez sarrerkizun ekonomiko eta juridiko garrantzirik izan dezaten.

trukean, titulartasun ofiziala zuela aitortzen zitzaion ikastolari eta ziklo guztietarako diru laguntzak jasotzen zituen.

Ikastolen Hitzarmena

Eusko Kontseilu Nagusiak 1980ko urtarrilaren 24an onartu zuen Ikastolen Titulartasun Ofizialerako Arautegia, eta otsailaren zehar ikastola gehienek sinatu. Baina, praktikan, Arautegia urriaren 4an gauzatu zen, Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak eta hilabete batzuk lehenago eraturako Eusko

Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak sinaturiko Ikastolen Hitzarmenaren bitartez. Hitzarmenak, gutxienez, bi urteko iraupena zuen.

Arautegia nahiz Ikastolen Hitzarmena, finean, ikastolen elkarteen, Eusko Kontseilu Nagusiaren eta Espainiako Hezkuntza Ministerioaren arteko urtebeteko negoziazioen emaitza izan zen. Hori bai, oso negoziazio gogorak izan ziren, parametro ekonomikoetan oinarritu zirelako.

Arautegiak, halaber, erreparoa sortu zituen ikastolen mugimenduaren barruan. “Nola utziko dugu titulartasuna haien eskuetan, hainbeste urtetako borroka eta gero?” esaten ziguten”. Beste batzuek, berriz, ikastolen izaera edo zentzu publiko hori defendatzen zutenek alegia, erraz utzi zuten titulartasuna. “Finean, ikastolen mugimenduan beti egon dira horrelako jarrerak eta mesfidantzak”, adierazi du Agirrek. “Nik neuk, mugimenduan sartzean, horrela eza-gutu nuen; eta gaur egun arte eman dela esan daiteke”.

Baina, ezbaierik gabe, asmatu-rik tramankulu juridiko hark berebiziko garrantzia izan zuen ikastolentzako eta ikastolen mugimenduarentzat, normalizaziorako ez ezik, ikastolen instituzionalizaziorako lehen urratsa izan zelako Ikastolen Titulartasun Ofizialerako Arautegia. Ikastola markaren sorrera izan zen. Eta ez soilik iritzi publikoari begira, baita erregistroan ere. Hortik aurrera, eta 1993ra arte, ikastolak, ofizialki, hirugarren eskola sare gisa hartu zirelako. Eustaten (Euskal Estatistika Erakundearen) azterketetan, adibidez, ikastola sarea ageri zen, eskola publikoaren sarearekin eta eskola pribatuaren sarearekin batera.

Arautegiaren ondorioak, beraz, oso handiak izan ziren. Batetik, diru asko jaso zutelako ikastolek, ordura arte ez bezala. Eta bestetik, Espainiako Estatuak emandako aitortza baliatuta, udal-erri askotan estatuaren eskolari ematen zitzaion tratamendu bera lortu zutelako ikastolek, udalen diru laguntzak ere jasoz.

Baina Arautegiak ere beste bi urrats garrantzitsu eragin zituen ikastolen kolektiboan: titulurik gabeko irakasleen egoera arautzea batetik, ikastoletako irakasleak kontratatze-ko baldintzak eta langileen lan baldintzak homogenizaz-zea bestetik.

Titulurik gabeko irakasleak

“Irakasle-egoaren titulazio faltarena arazo larria zen”, Paulo Agirreren hitzetan. “Bazegoen umeak tratatzeko estilo bat, onartua; eta, beharbada, oso ona ere bai. Baina oso mugatua, era berean. Inongo ikasketarik gabeko jende asko genuelako oraindik. Haurrekin oso ondo moldatzen ziren, baina, praktikan, edozein gurasok egin zezakeen haiek egiten zutena. Gure orban handie-netakoa izan zen hori, eta beti beste lekuetatik aurpegiratzen ziguten: “Zuek titulaziorik gabe zabilzate”.

Ataka hartan zeuden irakasleen egoera arautzeko, beraz, hainbat ekimen jarri ziren martxan: Bergarako UNEDen eta Eskoriatzako Irakasle Eskolaren bitartez, titulaziorik gabeko irakasleentzako plangintza berezi bat egin zen, irakasle diplomatura edo unibertsitaterako sarbidea eskuratzeko; Euskal Herriko Unibertsitatean irakasle ikasketak euskaraz egiteko aukera zabaldu zen, aurrerantzean euskaraz ikasi nahi zuten irakasleen artean hautatu ahal izateko. Eskoriatzako Irakasle Eskola, hain justu, 1976an sortua zen, ikastoletan bizi zen irakasle tituludun euskaldun faltari irtenbidea eman nahian.

Lehen lan ituna

Ikastoletako langileen lan baldintzak homogenizatzeko edo berdintzeko, berriz, lan hitzarmen kolektiboa egiteko ideia atera zen, eta 1981eko uztailean ikastoletako lehen lan ituna sinatu zen. Eta lehen lan hitzarmen hura giltzarri izan zen, bere onurekin eta bere gauza txarrekin, Paulo Agirrek gogora ekarri duenez. “Ikastolentzat, arazo hori gainerik kentzea ekarriko zuen, bestela arazo hori urtero izango zutelako. Horregatik pasatu zieten federazioei kontua. Nik, ordea, hasieratik esan nuen ez nuela negoziazioan parte hartuko, banekielako zer saltsa zetorren, eta, batik bat, zer nolako etendura ekarriko zigun irakasleekiko. Eta espero bezala, irakasle sektore batek beste begi batzuekin begiratzen gintuen. Gurasoak, federaziokook patronala ginen. Patronala! Horrek min handia egin zigun”.

Lehen lan hitzarmen haren ardatz nagusia ordutegiak finkatzea eta soldatak bateratzea izan zen. Eta lehendabiziko urtean hura erdietsi ez bazen ere, bide horretan kokatzea lortu zen. Ikastoletako langileen homogenizazio prozesua bideratu zen horrela. 1988ra arte luzatu zen. Hori bai, urtero negoziatu behar ziren lan hitzarmenak: lehenik, ELAekin, ikastoletan sindikatu nagusia zelako hasiera haietan. Gero, ELA-LABekin. Eta azkenik, LABekin bakarrik.

Nafarroan, urte batzuk beranduago sinatu zen lehen lan hitzarmena. “Lehen urratsak 1986an hasi baziren ere, lan hitzarmena 1987an gauzatu zen lehen aldiz”, Juan Luis Larrazaren hitzetan. “Negoziazio mahaian egotea tokatu zitzaidan, baina eszeptizismo handiarekin hartu nuen, sinaturikoa aplikatu beharko zelako. Ez zen sinatu polita egiteko edo, besterik gabe, lan hitzarmen bat genuela esateko. Eta gu, geunden egoeran, ezin zen aplikatu”. Alta, lehen urteetan ez zela aparteko arazorik egon aitortu du Larrazak.

Ikastolen Titulartasun Ofizialerako Arautegiaren beste aldean izan zen ikastolen mugimendua bera zatiketa administratiboaren menpe gelditu zela, erritmo eta errealitate ezberdinekin: EAEn, Espainiako Estatuak ikastolentzako hitzartutako tratamendu ofiziala; Nafarroako Foru Erkidegoan, diru laguntza eskasak; eta Ipar Euskal Herrian, biziraupen estrategian murgilduta.

SINDIKATUEN SORRERA IKASTOLETAN

1978ko urtarrilean eta otsailean egin ziren diktadura ondoko lehendabiziko hauteskunde sindikalak. Eta haiekin batera sortu edo eratu ziren, ofizialki, sindikatuak ikastolen mugimenduan. Ordura arte, ikastoletan abian zegoen jarduera sindikala erabat klandestinoa izan baitzen.

Hastapenetan, ELA eta STEE-EILAS izan ziren sindikatu bakarrak, baina ordezkariak sindikalaren gehiengoa lehendabizikoak zeukan. Biak ala biak, helburu berdinarekin eratu ziren ikastolen mugimenduaren barruan: ikastoletako langileen lan baldintzak hobetzeko eta arautzeko. Izan ere, 70eko hamarkadaren bukaerako eta 80ko lehendabiziko urte haietan, lan baldintzak oso ezberdinak zirelako ikastola bakoitzean: langile batzuek ez zuten gizarte segurantzarik oraindik, zenbaitetan ez zen soldata kobratzen hilero...

Alor laboralaz gain, ordea, STEE-EILASek Euskal Eskola Publikoaren aldeko aldarria zabaldu zuen hasieratik.

Lehendabiziko hauteskunde sindikalak egitean, ikastoletako ordezkari sindikalak irakaskuntza pribatuko ordezkariaren parte ziren. Baina, ikastetxe pribatuetako eta ikastoletako errealitatea oso ezberdina zenez, ikastoletan negoziaketarako esparru propioa aldarrikatzen hasi ziren ELA eta STEE-EILAS; kostata, baina lortu zen azkenean.

Sasoi haietan, LAB sindikatua ez zegoen sektoretan antolatuta eta, irakaskuntzari zegokionez, LABen baitan egokiago ikusten zen sektorean ondo txertatutako sindikatuan lan egitea. Horrela, ezkerreko abertzale asko EILASeko kide ziren.

1985 inguruan, ordea, LAB-Irakaskuntza sortu zen, sindikatu honen baitan emandako berregituraketaren barruan eta sindikatuaren dinamikan bertan irakaskuntzaren alorra eratzeke eta indartzeko egindako eskaerari erantzunez. •

4.I.4. Nafarroako Foru Diputazioarekin emaitza antzuak

Euskal Autonomia Erkidegoarekin alderatuta, Nafarroako Foru Erkidegoan ez zen eman ikastolen normalizaziorako eta instituzionalizaziorako pausorik 70eko hamarkadaren amaieran. Elebitasun Dekreturik ere ez zuen Foru Erkidegoak. Eta Nafarroako Ikastolen Elkarteak behin baino gehiagotan, eta modu askotara, egin zituen eskaera horiek. Baina, zoritxarrez, Diputazioarekin izanda-

ko harremanak antzuak izan ziren; Diputazioak berak nahiz Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak ez zuten urratsik egiten norabide horretan.

Egoera paradoxikoa bizi zen Nafarroan, bai. Foru erregimenari helduta, hezkuntza arloan zegozkion eskumenak aldarrikatzen zituelako Diputazioak; baina, bitartean, benetan egin zezakeena baino gutxiago egiten zuelako herrialdeko instituzio gorenak. “Egia da, bai, Diputazioak beti aldarrikatzen zituela eskuduntza horiek. Baina, praktikan, ezer gutxi egin zuen”, Juan Luis Larrazaren hitzetan. “Irakasleak izendatzeko eskuduntza mantentzen zuten udalek. Eta Aldundiak, Nafarroari zegozkion eskuduntza haiei jarraiki, Hezkuntza Zerbitzua sortu zuen frankismoan. Baina hori baino gehiago, ez; eta bazuen ahalmena gehiago egiteko. Amadeo Marco zen orduan Diputazioko burua. Eta esaten zigun izugarri maite zuela euskara; ‘vascuencea’, berak esaten zuen moduan. Euskararekiko hitz politikak, bai; baina besterik...”, erantsi du Larrazak.

Euskaltzaindia bera ere jabetu zen jokabideaz, eta bere kezka agertu zion Nafarroako Diputazioari, 1975eko maiatzaren 25ean Iruñean egindako bilera berezian: “Euskara Nafarroan lege baliakizunik gabe dago eta ohartzten da Nafarroak dituen eskubideekin elebitasun dekretu bat atera behar duela”.

Ikastolen titulartasunaz eskaintza

1979an bertan eratu zen diktadura ondoko lehendabiziko Foru Diputazioa Nafarroan, apirilaren 3an egindako hauteskundeen ondotik. Eta Diputazioak Espainiako Gobernuarekin EAEko Elebitasun Dekretuaren antzekoa negoziatzen zuen bitartean, Nafarroako Ikastolen Elkartean sakon eztabaidatu zuten Foru Diputazioak ere ikastolen titulartasuna hartzeko aukeraren inguruan. NIEk aukera hori gauzatzeko hitzarmen proposamen bat aurkeztu zion Diputazioari 1979ko urriaren 8an, baina eskaintzak ez zuen erantzunik jaso herrialdeko agintari gorenaren partetik.

Urtebete beranduago, 1980ko abenduan, ikastolei begirako hitzarmen proiektu bat onartu zuen Diputazioak, eta NIErekin sinatzeko konpromisoa ere agertu zuen. Nafarroako Ikastolen Elkartearekin sinatu beharreko hitzarmen hura 10 klausulak eta 10 arauk osatzen zuten, eta Aldundiak hainbat konpromiso hartzen zituen: hala legeztaturiko ikastolek funtzionamenduan zituzten hainbat gastu ordaintzea, nola ikastoletako irakasleek gutxieneko titulazioa izateko ardura bere gain hartzea.

Hitzarmen proposamen hura, ordea, ez zen inoiz sinatu, Diputazioak Espainiako Hezkuntza Ministeriora helarazi ondoren Ministerioak ez zuelako onartu. Herrialdeko ikastolen normalizazio eta finantzazio arazoak, beraz, konpondu gabe zeuden; eta NIEren eta Diputazioaren arteko negoziazioak, ez aurrera ez atzera.

1981eko urrian, honako hauek ziren Nafarroako Ikastolen Elkartearen euskerak: ikastolen instituzionalizazioa hitzarmenaren bidez; euskara Nafarroan hizkuntza ofizialtzat ezagutua izatea; Elebitasun Dekretuaren aplikazioa; euskararen plangintza Nafarroan; diru iturrien normalizazioa ikastolentzat; eta herrialdeko ikastolei, gutxienez, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastolen tratamendu bera ematea. Ordurako, 42 ikastolek osatzen zuten jada NIE.

1982ko abuztuaren 10ean, berriz, Nafarroako Autonomia Estatutua —Foru Hobekuntzarako Legea izenekoa— onartu zen, marko autonomikoaren ezarpenari jarraiki. Horrela, Foru Diputazioari zegozkion ahalmenen auzia argituta gelditu zen, nahiz eta Aldundiak ez zituen hezkuntza eskuduntzak jaso urte batzuk pasatu arte. Juan Luis Larrazaren arabera, “Foru Hobekuntzarako Legearen eragin praktikoa izan zen, finean, ikastolen legeztatze prozesu guztia Diputazioaren esku gelditzen zela aurrerantzean, eta ez Madrilen baitan. Tramiteak eta *papeleo* guztiak, beraz, erraztu egin ziren”.

Baina euskararentzat, berriz ere, mesede gutxi ekarri zuen Foru Hobekuntzarako Legeak. Euskaltzaindiak nafar agintarien jarrera salatu zuen berriro, lege harekin euskarari diskriminaziozko tratamendua ematen zitzaiola eta ofizialtasuna soilik euskaraz hitz egiten zen tokietan aitortzen zitzaiola argudiatuz.

Udal ikastolak

Nafarroako ikastolen kolektiboan, dena den, kontuan hartu beharreko gertaera jazo zen 70eko hamarkadaren bukaeran eta 80ko lehen urteetan, hainbat ikastolatan, frankismoaren ondoren Espainiako Estatuak eta Foru Diputazioak egonkortasunik ziurtatzen ez zutela ikusita, udal ikastolak izateko aukera aztertzen hasi zelako.

Jarrera hau 1978-79 ikasturtean sortu zen Iruñean, Juan Luis Larrazak adierazi duenez. “San Fermin ikastolan gela gabezi handia zuten, eta guraso batzuk irtenbideak bilatzen hasi ziren. Diputaziora eta Iruñeko Udalera jo zuten, konponbide eske, baina lehenak ez zuen deus egin, bere erantzukizuna ez zela argudiatuz. Beraz, guraso haiek eskolak ematen hasi ziren kalean, protesta gisa; taldea gero eta gehiago handituz joan zen... eta azkenean, Udal Ikastola izenekoa sortu zen, Iruñeko Udala zelarik titularra”. Ikastola bakarra zen, baina hiru ikastetxe zituen: Amaiur, Axular eta Hegoalde.

Joera hura sukarraren antzera zabaldu zen herrialde osoan barrena. Baztango Udalak, esaterako, bertako ikastola udal ikastola bihurtu zuen 1982ko azaroan, ikastolaren beraren eskariari jarraiki. Etxarrin, Tafallan eta Leitzan ere saiatu ziren gauza bera egiten, baita Iruñerriko Uharten, Atarrabian eta Burlatan ere. Azken hiru hauetan, adibidez, Hiruerri ikastola sortu zen 1983an; baina, mila oztoporen ondotik, 1988an desegin zen ikastola.

Juan Luis Larrazaren esanetan, “mugimendu ideologikoa izan zen hura, Herri Batasuna (HB) eta Batzarre alderdiek bultzaturikoa, Euskal Eskola Publikoaren aldeko kanpainaren baitan”. Ondorio “baikorrak” izan arren, “Iruñeko Udal Ikastola eta Baztango Udal Ikastola sortu zirelako”, Larrazak aitortu du joera horrek tira-bira handiak eragin zituela une hartan Nafarroako Ikastolen Elkartearen baitan. “Udal ikastolak esan nahi zuen juridikoki udala zela ikastetxe horren jabea. Baina udala kooperatiba bat baino publikoagoa al da, adibidez? Zergatik? Esan zezatela ikastolen doakotasuna bilatzen zela, eta kitto”.

Gaur egun, Baztango Udal Ikastola da zabalik dagoen bakarra. Iruñeko Udal Ikastolak 2003ra arte iraun zuen, urte hartan Nafarroako Diputazioak eta Iruñeko Udalak sinaturiko hitzarmen baten ondorioz, ikastola eskola publiko bihurtu eta irakasleak Nafarroako Hezkuntza Sailaren baitan gelditu zirelako.

4.1.5. Ipar Euskal Herrian, gose grebatik lehen akordiora

Seaskarentzako eta Ipar Euskal Herriko ikastolentzako ere aro berria hasi zen 80ko hamarkadarekin. 20tik gora ikastola zeuden zabalik Bidasoaren beste aldean, ikasle kopurua ere gorantz zihoan, eta 1980an Lehen Kolegioa zabaldu zuen Seaskak: Xalbador Kolegioa, Kanbon (Lapurdi). Izan ere, 1975ean Angelun eta Donibane Lohizunen Lehen Maila —Hegoaldeko oinarrizko hezkuntzaren baliokidea— ikasten hasitako ikasleak hurrengo hezkuntza ziklora pasatzen baitziren, Lehen Maila zikloa bost urtekoa baitzen.

Garai hartan, 1981eko maiatzaren 10ean, eta oihartzun mediatiko handiko hauteskunde kanpainaren ondotik, Alderdi Sozialistako (PSF) François Mitterrand Frantziako Errepublikako presidente izendatu zuten. Sozialisten agintaldiak itxaropena piztu eta zabaldu zuen estatuan barrena, baita Ipar Euskal Herriko abertzaleen eta ikastoletako partaideen artean ere, Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako gizartean eragin handia izan zezaketen aldaketak iragarri iritsi baitzen presidentziara Mitterrand. 1980ko abenduaren 18an, esaterako, Le Pensec lege proposamena aurkeztu zuten sozialistek, non, tokiko hizkuntzen defentsarekin batera, ikastolak Frantziako Hezkuntza Nazionalen integratzea proposatzen zen, “eskola esperimantal” gisa. Legea, azkenean, ez zen aurrera atera, baina ikastolei buruz proposaturikoa, noski, ez zen oharkabean joan Ipar Euskal Herrian. Halaber, Mitterranden hauteskunde egitasmoaren —*Frantziarentzako 110 proposamen* izeneko dekalogo famatua— 56. proposamenak zera zioen: “Tokiko identitateak sustatuko dira, hizkuntza eta kultura gutxiak errespetatu eta irakatsiko dira”. Eta, gainera, Euskal Departamenduen alde ere agertu zen Mitterrand hauteskunde kanpainan.

Ondorioz, sozialistak gobernura iristearekin batera, Seaskak gogoeta prozesu bati ekin zion. Maialen Garatek azaldu duenez, *Zein izango da gure ardatza?* gal-



derari erantzutea zen gogoetaren helburua. “Eta erabaki zen Seaskak euskarazko irakaskuntzaren legeztapena aldarrikatzea, gobernua kolore batekoa edo besteakoa izanda ere. Legeztapena, gainera, eskola maila edo ziklo guztietan: Ama Eskolan, Lehen Mailan, Kolegioan eta Lizeoan”.

Ildo berri hori Seaskako Biltzar Nagusian onetsi zen, 1981eko azaroaren 15ean. Eta ikastolak Frantziako hezkuntza sisteman integratzeari buruzko eztabaidaren lehen adierazleak edo zantzuak izan ziren haiek. “Esan daiteke integrazioari buruzko eztabaida sozialistek abiatu zutela, haiek proposatu zutenean ikastolak Hezkuntza Nazionalean integratzea eskola esperimental gisa”, dio

Garatek. “Proposatu, bai; baina ez zela egingarria esaten genien guk, ez zegoe-lako legerik horretarako. Euskarazko irakaskuntza bera ez zegoen legeztatuta! Horregatik erabaki zen legeztapena aldarrikatzea”.

Eta legeztapenaren aldarriak Iparraldeko 20 auzapezaren babesla lortu zuen denbora gutxian.

Hilabeteke gose greba

Ildo berria onartuta, ondorengo bi hilabeteetan Seaskak solaskide bat galdegin zion Frantziako Gobernuari, negoziazioak abiatzeko. Baina, gobernuaren jarrera eta borondate eza ikusita, “aski da!” esan eta jarrera gogortzea erabaki zuen Seaskak, 1982ko urtarrilean egindako ezohiko Biltzar Nagusian. Horrela, urtarriletik ekainera bitartean, kanpaina handia burutu zuen elkarteak, Seaskaren hezkuntza eredia aitortzeko eta finantzazio publikoa lortzeko.

Oso hilabete gogorak izan ziren haiek. Seaskako eta ikastoletako partaideek eguneko ia 24 orduak igarotzen zituzten kalean, era guztietako ekimenak gauzatuz eta haien aldarriak leku guztietara eramanez: alderdi politikoekin bile-
rak egin zituzten; Ipar Euskal Herriko gizartean 5.200 sinadura bildu zituzten; 1982ko otsailaren 21ean, mila laguneko martxa burutu zuten Latchera, Mitte-
rrend lehendakariaren bigarren etxebizitzara, presidentearen emazteak Seaskako ordezkaritza bat jaso zuen arte; otsailaren 27an, 3.000 laguneko manifestazioa egin zen Baionako karriketan; martxoaren 13an, 150 lagunek Miarritzeko aire-
portua okupatu zuten, hegazkinen joan-etorria geldiaraziz... “Kanpaina har-
tan, Frantziako Gobernuari solaskide bat eskatzen jarraitzen genuen”, dio Maialen Garatek. Seaskak, beraz, gobernu elkartearekin esertzea eta negocia-
tzea behartu nahi zuen.

Eta presioa areagotzeko, ekainaren lehenean Seaskako lau kidek gose greba mugagabea abiatu zuten Baionako katedralean. Ekainaren 26an, berriz, 5.000 laguneko manifestazioa egin zen Baionan, baina lau gose grebalarien egoera gero eta larriagoa zen. “Oso gogorra zen ikustea lau lagun haien osasuna nola oker-
tzen zen egunez egun”, Garaten hitzetan.

Hilabete batez luzatu zen baraua, 1982ko uztailean lehenean, hain justu, Seaskaren eta Frantziako Hezkuntza Ministerioaren arteko lehen akordioa egin zelako Bordelen. Bost orduko bilera eta gero lortu zen bi aldeen arteko akor-
dioa, eta bilkuran Maialen Garatek berak parte hartu zuen, Seaskako negocia-
zio taldeko kide gisa. “Akordio hartan erabaki zen estatuak Seaskaren defizita ordainduko zuela ikasturte hartan zein ondorengoan. Baina Kultura eta Barne ministerioek emango zituzten diru laguntza haiek, ez Hezkuntza Nazionalak. Era horretara, Seaskari eskola gisako aitortzarik ez emateko”. Hortaz, dirua emanda ere, integrazioaren inguruko pausorik ez.

Lehen akordio hark, funtsean, hiru gauza esan nahi zuen. Batetik, Frantziako Estatuarengandik lehen diru laguntzak jasoko zituzten ikastolek, nahiz eta ez izan Hezkuntza Ministerioak —Hezkuntza Nazional gisa ere deitua— emandakoak. Baina, bestetik, diru laguntza haiek ematearen truke, Hezkuntza Ministerioak berak Seaskaren sistema ebaluatzeari ekingo zion, ikuskariak ikastoletara bidaliz. “Eta honek segurtasun modukoa ematen zuen gure ikasleen gurasoen begietara, gure pedagogia eredu ez baitzen ofiziala, eta horrek zalantzak sortzen zituen”, dio Garatek.

Azkenik, baina ez garrantzia gutxiagokoa, etengabe aldarrikatutako solaskidea lortu zuen Seaskak: Hezkuntza Ministerioa. “Elkarlan baten abiatzea izan zen lehen akordio hura”, zehaztu du Seaskako partaideak.

Seaska indargabetzea helburu

Seaskaren eta Frantziako Hezkuntza Nazionalaren arteko harremana, ordea, gaiztotu egin zen handik gutxira, Bordeleko Akademiako errektoreak euskararen irakaskuntzari buruzko lan bat argitaratu ondotik. Lan horren aurkezpenan, 1982ko urriaren 5ean, errektoreak iragarri zuen Iparraldeko sare publikoan eskola elebidunak sortuko zirela. “Baina elebidun eskola horietan euskara irakasleak Seaskako irakasleak izatea proposatu zuten” azaldu du Maialen Garatek, “eta, horren truke, Seaskako irakasleek titulazio ofiziala eskuratuko zuten”. Errektoreak proposaturikoa, beraz, joko zikina zen. “Seaska irakaslez hustu nahi zuten”, dio Garatek. Seaskaren erantzuna izan zen haien aldarrikapena ez zela irakasleek titulazio ofiziala lortzea, euskara salbatzea baizik.

Garatek zehaztu du Hezkuntza Ministerioarekin harremanak txartu egin zirela. “Baina ez frantsesek hori egin nahi zutelako beren eskoletan, baizik eta horren bitartez Seaska ez zela beharrezkoa argudiatzen zutelako”. Seaska indargabetzea bilatzen zen beraz.

Lehen eskola publiko elebiduna Saran zabaldu zen 1983ko apirilean, 24 haurrekin. Irailean, Ama Eskola eta Lehen Hezkuntza zikloak ematen hasi zen; eta urte bereko azaroaren 24an, Bordeleko Akademiako errektorea Saran izan zen, ikastetxearen inaugurazio ekitaldian. Dena den, gela elebidunak aukerazkoak ziren, borondatezkoak; eta, neurri handi batean, Iparraldeko hainbat gurasoren eskariari erantzunez zabaldu ziren. Frantziako Estatuak eskola publikoari berme osoa eman zion, baina hizkuntzari dagokionez inoiz ez du ekimenik izan bere kabuz baldintza horiek sortzen joateko.

Hezkuntza Nazionalarekin lehen bitzarmena

Seaskak beste kanpaina bat abiatu zuen 1983an bertan, *Ikastola herri eskola* lelopean. Hots, ikastolen izaera publikoa aldarrikatzen zen baita Ipar Euskal

Herrian ere. Euskarazko irakaskuntzaren legeztatpena eta ikastolak finantzatzea ziren kanpainaren beste bi aldarriak.

Eta 1983ko urriaren 14an Seaskaren eta Frantziako Hezkuntza Nazionala edo Ministerioaren arteko lehen hitzarmena sinatu zen, negoziazio luzeen ondoren. Urtebeterako izenpeturiko hitzarmen ekonomikoa izan zen, bi urtez luzatzeko aukerarekin. Haren arabera, Hezkuntza Nazionalak diruz lagunduko zituen ikastolak estreinakoz. Gainera, ebaluaziorako talde bat eratzea adostu zen —talde erdia Seaskako kideek osatzen zuten, eta beste erdia Hezkuntza Ministeriokoek—, ikastoletako emaitzako Lehen Maila zikloaren bukaeraraino aztertzeke.

Baina, hitzarmena sinatuta ere, arazoak ez ziren amaitu Iparraldeko ikastolentzat, hitzarmena bera betetzeko, Seaskak presioari eutsi behar izan ziolako. “Solaskide bat lortzeko, borrokatu egin behar genuen”, dio Maialen Garatek. “Eta konbenio bat sinatuta, konbenioak esaten zuena betetzeko ere bai”, erantsi du. Horrela, 1984ko ekainean, 1.300.000 liberako diru laguntzaren blokeoa salatu zuen Seaskak.

4.2. EIKE INDARREAN JARRI GABE, HAUTSAK HARROTURIKO PROIEKTUA

4.2.1. Testuingurua

Oztopoak oztopo, ikastolen zabalkundea geldieztina zen. 80ko hamarkada, esaterako, 50.000tik gora ikaslerekin abiatu zuten ikastolek, 70eko hamarraldian zehar, eta batik bat 1975etik aurrera, bizitako *boom*-aren ondorioz. Izan ere, 1975-76 ikasturtean, 33.851 ikasle zituzten ikastolek, Siadecok egindako azterketaren arabera. 1981-82 ikasturtean, berriz, 69.935 ikasle, ikastolen elkartean arabera. Baina ez bakarrik ikasleei zegokienez. Ikaslegoaren parean ikastoletako irakaslegoaren handitzea ere eman zen. Hala, 1975-76 ikasturtean, 1.043 irakasle zeuden Hego Euskal Herriko ikastoletan; eta 1981-82an, aldiz, 2.798 irakasle (eta Iparraldeko ikastoletan, 56 irakasle).

Eskolaurreko gelak zabaltzen hasi arren, ikastoletan poliki-poliki Oinarrizko Heziketa Orokorra (OHO) ere ematen hastea izan zen hazkunde itzel horren arrazoi nagusia. 1970eko Hezkuntza Legearen baitan OHO ezarri ondoren, OHOn aurreikusitako bideak urratuz eta osatuz joan baitziren ikastolak. Hala, 1975-76 ikasturtean, Hego Euskal Herriko ikastolek 17.504 ikasle zituzten OHOn; ziklo horretako ikasle guztien %4,1, hain zuzen. 1981-82an, ostera, 39.771 ikaslek ikasten zuten Oinarrizko Hezkuntza Orokorra Hego Euskal Herriko ikastoletan; ziklo horretako ikasle guztien %9,6k, alegia.

Dena den, ikasle kopuru altuena, oraindik ere, eskolaurrean zuten ikastolek; eta, oraindik ere, oso ikastola gutxi ziren ikasketa ertainak —BBB eta UBI— eskaintzen zituztenak.

Hazkunde horri erantzuteko, hain zuzen, oso baliagarriak izan ziren 1980. urtean sinaturiko Ikastolen Titulartasun Ofizialerako Arautegia eta Ikastolen Hitzarmena. Ikastolek zituzten une hartako premiei aterabidea emateko balio izan zuten, bai. Baina, zoritxarrez, ikastolek izugarrizko zama ekonomikoekin segitzen zuten, eta behar bezalako erantzunik jaso gabe zegokien instituzioen eta erakundeen aldetik. Adibidez, “estatuarenak ez ziren ikastetxe publiko” bihurtu arren, ikastolak ez ziren doakoak Arautegiarekin eta Hitzarmenarekin, eta OHOrako jasotako diru laguntzak ere ikastetxe pribatuen baliokideak ziren, baina ez zituzten irakaskuntzaren benetako kostuak estaltzen.

Izan ere, lege aldetik, kontraesan sakona gertatzen baitzen Euskal Herrian: ikastolak eskola pribatutzat jotzen ziren, baina estatu-ikastetxeak eskola publikoak ziren, nahiz eta, adibidez, Euskal Herrian estatuaren eskolek ez bermatu herri ororen oinarritzko eskubideetako bat: bertako hizkuntzaren transmisioa eskolaren bidez bermatzeko eskubidea, hain justu.

Ikastolen Titulartasun Ofizialerako Arautegiaren ondorioz, halaber, Euskal Eskola Publikoa kontzeptua bolo-bolo entzun eta erabiltzen hasi zen. Ideia hori 70eko azken urteetan agertu zen lehen aldiz, Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak Loiolako santutegian egindako batzar batean. Ikastolek Euskal Eskola Publikoa izan nahi zutela aldarrikatu zuten orduan, trantsizioaren testuinguru hartan Euskal Herriak botere politikoa eta, beraz, berezko eskola izateko aukera aurreikusten baitzen. Eta Espainiako Hezkuntza Ministerioarekin Arautegia negoziatu eta sinatu zenean ere behin eta berriro agertu zen ideia hori. Hots, izaera publikoa aitortu behar zitzaiola ikastolari, horren truke ekonomikoki lagundu eta onarpen legala emateko. Bestela esanda: ikastolaren proiektuak zeukan legitimitate herrikoari legitimitate juridiko-legala eta bidezko tratamendu finantzarioa ematea.

Esperantzari leihoa

Diktadura ondorengo lehen Eusko Jaurlaritza 1980an eratzeak, beraz, itxaropen handiak eragin zituen herritar askoren artean. Herri Batasunarentzat izan ezik, abertzalegoaren begietara esperantzaren leihoa zen EAJren esku zegoen Jaurlaritza berria.

Ikastolen mugimenduan ere asko espero zen Carlos Garaikoetxea buru zuen euskal gobernu hartatik. Garaikotxearekin hasita, ikastoletako guraso izandako edota ikastolekin harremana zuten asko zeuden Jaurlaritzako kideen artean: Inaxio Oliveri, Javier Retegi, Pedro Miguel Etxenike, Karmele Altzueta, Imanol Larrañaga, Xabier Agirre... Ikastolen oso ingurukoak ziren batzuk, ikastoleta-

tik pasatakoak beste batzuk; haietakoak ez izan arren, ikastolak haienak bezala hartzen zituztenak ere baziren. Garaikoetxea lehendakariak berak ikastolen doakotasuna aldarrikatu zuen 1980an, eta, horretarako, urte bereko abenduaren 28an 2.500 milioi pezetako (15,03 milioi euro) hitzarmena sinatu zuen Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioarekin.

Ataka horretan, beraz, ikastolen mugimenduko buruak edo gidariak *erlaxatu* egin ziren. Ordura arte, mugimendua aurrera ateratzea izan zen haien lehentasuna. Eta leherketa demokratikoa gertatzean, lasaitasuna hartu zuten, “uf, lortu dugu” moduko sentsazioa nagusituz. Gainera, agintari frankisten aldean, orain lagunak zeuden gobernuan. Jaurlaritzako gidaritzak hartu zutenekin konplizitate eta hurbilpen handia zegoenez, ikastolen kolektiboko buruek iniziatiba guztia euskal politiko haien esku utzi zuten, “gurea eginga dago” pentsatuz. Ez zuten estrategiarik ikastolen mugimenduaren hurrengo faserako; ikastola Jaurlaritzaren eskola berria bihurtzea baino ez.

IKASTOLEN ETA ESKOLA PUBLIKOEN ARTEKO FUSIOAK

70eko hamarkadan ikastola berri asko sortu ziren bezala, 70eko bukaeran eta 80ko lehen urteetan hainbat ikastola desagertu ziren Bizkaian eta Gipuzkoan. Herri txiki ugarian gertatu zen hau, 1979an hasita, eta administrazioak sustatuta. Ikastolak eta eskola publikoak zeuden herri haietan, baina bi ikastetxeri eusteko ikasle kopuru nahikorik ez. Eta Jaurlaritzak erabaki zuen ikastola haiek ixtea eta bertako eskola erdaldunak euskalduntzea, ikastolako gurasoak, irakasleak eta ikasleak ikastetxe publikora pasatuz. Fusioa deitu zitzaion prozesu hari.

“Gure asmoa zen, argi eta garbi, herri eskola haiek poliki-poliki ikastola izatea eta kitteda”, dio Paulo Agirrek. “Baina horrek arazoak ekartzen zituen: herri eskoletako irakasleak, adibidez. Ikastolara pasatuz gero, jada ez ziren funtzionario izango. Profesionalki, asko galtzen zuten. Eta orduan, Jaurlaritzak kontrakoa egin zuen: ikastolak herri eskoletan sartu”.

Ez zen berehalako prozesua izan, baina bai azkar egindakoa. 1979-80an hasi eta 1983ko uztailera arte, hamabostetik gora ikastola eta eskola publiko fusionatu ziren Gipuzkoan, eta hamarretik gora Bizkaian. Gipuzkoako ia Goierri osoan gertatu zen hau (Añunoren, Idiazabalen, Itsasondon, Ormaiztegin, Seguran...), edota Tolosaldeko herri txikitan (Asteasun, Legorretan, Alegin...). Bizkaian, Arratian, Aulestin, Mundakan edota Gorlizan.



Herri txiki haietan bizi zen tentsioa arintzeko eta bizikidetzá hobetzeko baliagarria izan zen prozesua, eta horren alde presionatu zuten ere tokiko udal askok. Ikastolen federazioek ere lagundu zuten prozesu hartan, Jaurlaritza berriari egindako kontzesio moduan ulertuta.

“Gobernuak errazegi jokatu zuen orduan”, dio J. Iñaki Etxezarretak. “Eta orain aztertuta, nabarmen ikusten da Jaurlaritzako orduko agintariek ez zutela planteamendu bat egingo ikastolekin, baizik eta ezarrita zegoen eskola publikoarekin. Hau da, stablishment-a ez zutela ukituko nabarmen da; euskaldundu bai, baina ukitu ez. Euskal abertzaletasuna boterera iritsi zen hezkuntza proiekturik izan gabe. Estatuaren eskola haiena egitea erabaki zuten”.•

Marko autonomikoa martxan jarrita, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza sistema eta hezkuntza politika erabaki behar zituen Eusko Jaurlaritzak. Hautu bat egin behar zuen. Batetik, ikastetxe pribatuak zeuden, erdaldunak erabat, gehienak entitate erlijiosoek kudeaturikoak, eta nolabaiteko prestigioa zutenak, hasierako irudia ona galduxea bazuten ere. Bestetik, ikastetxe publikoak zeuden, gero eta egoera kaskarragoan, irakasleak erabat erdaldunak zirela, baina gurasoek eskola horiek euskalduntzea eskatzen zutela. Eta hirugarrenik, ikastolak zeuden: euskara eta euskal kulturaren bermatzaileak, modernitatearen ikur, eredu pedagogiko argiarekin... baina zulo ekonomiko handiekin eta haien egoera erabat normalizatu gabe.

Hala, ikastolen auziari irtenbide bat bilatzea izan zen EAEko gobernu berriaren kezketako bat. Euskal Kontseilu Nagusiaren ondare modukoa zelako sinatu zuen Jaurlaritzak Ikastolen Titulartasun Ofizialerako Arautegia; baina, gobernura iristean, erantzun beharreko galdera zuten aurrez aurre gobernukideek: zer egin ikastolekin?


4.2.2. EIKE lege proiektua

Euskal Eskola Publikoaren “proiektu autonomoa” eraikitzearen alde agertu zen Eusko Jaurlaritza, 1980ko gobernu egitasmoan. Eta Euskal Eskola Publikoa sare bakarrekoa izango zela ere nabarmendu zuen.

Jaurlaritzak berak 1980ko irailaren 26an jaso zituen hezkuntza transferentziak edo eskuduntzak, dekretu bidez, eta ordura arteko eskola publikoak edo estatuaren eskolak transferitutako eskola bihurtu ziren. Eta, Pedro Miguel Etxenike Hezkuntza sailburua zela, euskal hezkuntza sistema berria antolatzeari ekin zion.



Etxenike buru zuen lehendabiziko Hezkuntza Sail hartan zegoen, besteak beste, Inaxio Oliveri. Legegintzaldiaren lehendabiziko bi urteetan planifikazio ardua izan zuen sailaren baitan. 1975az geroztik Errenteriako Orereta Ikastolako lehendakaria eta Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko partaide izan zen, eta 1979an GIEko lehendakari izendatu zuten; kargu horretan urtebetez jardun zuen, hain zuzen ere 1980an Jaurlaritzan lanean hasi zen arte. “Euskal hezkuntza sistema antolatu behar izan genuen. Eskola publikoak pasatu zizkigutelako, baina besterik ez. Antolatu behar zen nolako harremana osatuko zen eskola publikoaren eta pribatuaren artean, euskalduntze prozesua martxan jarri behar zen irakas-kuntzan, ikastolen normalizazioa eta finantzazioa erabaki behar zen...”, azaldu du Oliverik. Eta ez omen zen lan erraza, haren esanetan: “Autonomia etorri zenean, hezkuntza ikuspegitik legalki bi eskola mota genituen: publikoa eta pribatua, Espainiako legediarekin araututakoak biak. Baina hemen errealitatea ezberdina zen: hiru sare, eta sare bat —ikastola— hemen sortua, parte-hartze eredu berria asmatu zuena... Hain zuzen ere ikastolen normalizazioari buruzko eztabaidak luze jo zuen”.



Egoera hartatik abiatuta, Euskal Eskola Publikoa eskola transferituak eta ikastolak batzetik sortu behar zela iritzi zion Jaurlaritzak. Baina bateratzeak, ezinbestez, aldatzea eskatzen zuen. Eta Jaurlaritzaren aburuz, posible zen ikastola aldatzea; baina eskola publikoa ez, hura erregulatzen zuen legea (LOECE; euskaraz EZELO —Eskola Ikastetxeen Estatutuaren Lege Organikoa—) aldatzea ezinezkoa zela argudiatuta. Une hartan eta baldintza haietan, beraz, irakaskuntza publikoan ezin zela sare bakarra osatu ondorioztatu zuen Jaurlaritzak. “Ikusi zen, bat-batean, oso zaila izango zela eskola publikoaren lege bat egitea. Ez bakarrik lege aldetik zituen zailtasunengatik; baizik eta, benetan eskola publiko berri bat egin nahi bazen, oso zaila ikusten zelako bi eskola eredu haiek lotzea. Orduko hartan, olio eta ura nahastea bezala zen hori”, azpimarratu du Inaxio Oliverik.

Ataka hartan, Jaurlaritzaren politika nagusia izan zen orduko eskola transferituak euskal eskola bihurtzea; eskola transferituen gainean “gure” eskola erakitzea, bestela esanda. Eta ikastolei behin-behineko irteera bilatzea.

Edukiak

Gauzak horrela, Hezkuntza Sailak EIKE izeneko lege proiektua onartu zuen 1982ko abuztuaren 16an. Etxenike sailburuak berak asmatu eta proposaturikoa, ikastolentzako estatutu antzeko bat zen EIKE.

Bi zati zituen lege proiektuak. Batetik, ikastolak publiko egiteko erakundea edo organoa sortzea, EIKE izena bera (Euskal Ikastolen Erakundea) izango zuena; bestetik, ikastolen barne araudirako estatutua onartzea.

Hartara, publiko bihurtu ahal izateko, ikastola bakoitzak administrazioari eman behar zion bere titulartasuna; zehazki, erakunde ofizial edo autonomo bati (EIKERI, alegia). Titulartasuna eman, bai; eta ez utzi, 1980ko Arautegiarekin bezala. Ikastolen ondasunak, aldiz, ez lirateke administrazioren eskuetara pasatuko.

Eta pribatu izan nahi zuten ikastolei horretarako aukera ematen zien EIKEk.

Horiek horrela, EIKEk berak irakaskuntza publikoan bi sare sortzen zuen: ohiko eskola publikoaren sarea, eta EIKERen baitan ikastolekin eratuko litzatekeena. Jaurlaritza jakitun zen horretaz eta, horregatik, EIKE aldi baterako zela argudiatzen zuen, behin-behinekoa. Finean, Euskal Eskola Publikoaren bidean EIKE alternatiba bat zela zioen Jaurlaritzak: ikastolen berezitasunei eutsiz ikastolei lege marko bat eskaintzen zien, eta irakasleak EIKERen funtzionario bihurtuz ikastoletako irakaslegoaren lanpostuak mantentzen zituen.

Legealdi haren bigarren zatian, hain zuzen, Hezkuntza Saileko kabinete burua izan zen Inaxio Oliveri. Hau da, sailburuaren konfiantzazko pertsona edo eskuineko eskua. Oliveriren hitzetan, “EIKE aldi baterako zerbait bezala planteatu zen, Jaurlaritzaren helburua ez zelako, inondik inora, bi sare publiko egitea. Eta EIKEk sekulako irtenbidea ematen zien ikastolei; asko hurbiltzen zen ikastolen kulturara, baina ez erabat, ikastolen titulartasuna, adibidez, aldatu egiten zelako EIKERekin”.

Lege proiektu hark, beraz, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastolentzako irtenbide bat erakutsi zuen batetik; eta Euskal Eskola Publikoaren ereduari buruzko eztabaida sortu zuen bestetik.

4.2.3. Eztabaidaren nondik norakoak

EIKE lege proiektua onartu ondoren, Eusko Legebiltzarrerara igorri zuen Jaurlaritzak, haren tramitaziorako. Baina, Legebiltzarrean bozkatu bitartean,


lege proiektuak berak bazterrak harrotu zituen, eztabaida handia eragin baitzuen. Alderdi politikoaren artean, adibidez, Herri Batasunak (HB) eta Euskadiko Ezkerrak (EE) —1980ko martxoan EAEko hauteskundeetan bigarren eta laugarren talde bozkatuenak, hurrenez hurren— gogor kritikatu zuten EIKE, bereziki EEk.

Euskadiko Ezkerrak, funtsean, hiru arrazoiengatik kritikatu zuen EIKE. Batetik, bi sare sortzen zituelako. Eta hori, “diskriminazio sozial, politiko eta ideologikorako iturri” izateaz gain, “lehia” sortzen zuen eskolen artean, EEren arabera. Bestetik, eskolaren gestio demokratikoa “ukatzen” zuelako EIKEk, eskolaren autonomia kontrolatzeko bi erakunde berezi sortzen zituela

salatuz: Ikastetxeko Batzarra eta Langileen Batzordea. Eta hirugarrenik, Euskadiko Ezkerraren ustez, EIKEk “Euskal Eskola Publikoaren kontrako estrategia” zekarrelako, bi sare sortuta Euskal Eskola Publikoaren aldeko estrategia “desaktibatua” egiten zuelako. Hargatik, EErentzat, gakoa ez zen ikastolentzako lege marko bat sortzea, baizik eta Euskal Eskola Publikoaren aldeko markoa sortzea, “ikastolak barruan egonda”.

Xabier Gurrutxaga Euskadiko Ezkerrako zuzendaritza batzordeko kidea zen EIKEren garaian, alderdiaren zuzendaritzan hizkuntza eta hezkuntza gaien ardura zuelarik. Ikastola batean ere irakasle gisa aritutakoa zen Gurrutxaga. Haren esanetan, “ikastolentzako publikotasunerako berezko bidea irekiz gero, ikusten genuen inertzia geldiezin bat sortuko zela eskolak hizkuntza arazoengatik sailkatzeko. Hau da, ikastolak izango ziren eskola euskaldunak, eta beste eskola publikoak izango ziren euskaldun izan nahi ez zuten beste euskal herritarrentzako eskolak. Garai hartako eskola publikoetan maisu euskaldunak ez zirelako %5, eta %5 hartatik ere askok ez zutelako euskaraz irakasten”.

Herri Batasunak ere antzeko kritikak egin zizkion EIKERI. Irakaskuntza publikoan “sare paraleloa” sortzea ez zuen begi onez ikusten HBk, gizartean bi



komunitate sortzea eragingo zuela argudiatuta. HBren ustez, eskola euskalduna —ikastola— eta eskola erdalduna —eskola transferitua— juridikoki bereizten zituen EIKEk, “Euskal Eskola Nazionalari uko eginez” eta ikastolak “ghetto” batean itxiz. Eskolaren gestio demokratikoa ere “mugatu” egiten zuela iritziz honen alderdi honek, eta EAJk ikastolak “bereganatu” nahi zituela salatu.

“EIKEk, gainera, gainditu nahi genuen esparru juridiko-politikoa gorpuzteko modu bat zela genion guk, komunitate bakoitzak bere eskola zuen neurrian”, nabarmendu du Tasio Erkiziak, garai haietan Bilboko Karmelo Ikastolako irakasle eta HBren barruan hezkuntza arduraduna zenak. “Eta guk esaten genuen Euskal Herri osoa hori baino gehiago zela, ikastolen mugimenduarekin adierazten zen bezala. Hortaz, bi komunitateen hesiaz gain, beste hesi bat ere jartzen zuten: hesi geografikoa. Eta, ondorioz, gure ustez, Euskal Herria zatitzeko modu bat zen hura”, erantsi du Erkiziak.

PSE-PSOE ere —1980ko hauteskundeetan hirugarren talde bozkatuena izan zen— ez zegoen ados EIKEn filosofiarekin, eta eskola publikoa bi eskola saretan banatu nahi zela salatuz zuen. Eta bi sareen aurka agertu zen, diskriminazio-iturriaren argudio berdina erabilita.

Euskal Eskola Publikoaren Alde (EEPA)

HBren eta EEren itzalean, halaber, Euskal Eskola Publikoaren Alde (EEPA) izeneko plataforma edo mugimendu zibilak ikusi zuen argia. Tasio Erkizia HBko mahaikide ohiaren hitzetan, ikastolen mugimendua indartsu zegoen 80ko hamarkadan. “Abertzaleen sektore zabal batek pentsatzen zuen, ordea, eskola publikoa euskaldundu egin behar zela, eta eredu publiko horri beste zentzu bat eman behar zitzaioela. Horrela sortu zen EEPA”.

Mugimendu hartan HBk “buru-belarri” parte hartu zuela aitortu du Erkiziak, nahiz eta EEPA Euskadiko Ezkerrak sortu zuela azpimarratu. “Formalki ez, baina guraso elkarte eta irakasle sektoreetatik bultzatu genuen plataformaren sorrera, gure jendearekin”, onartu du EEko buruzagi ohi Xabier Gurrutzagak. “Helburua zen plataforma hartan biltzea ikastoletako eta orduko eskola publikoko partaideak, era horretara bi komunitateen arriskua apurtzeko eta esateko: ‘Eskola publiko bakarra egin nahi bada, bi sareetan ditugu horren aldekoak’. Asmoa hori zen; eta, noski, eztabaidan eragitea eta alternatiba bat sortzea”, Gurrutzaren esanetan.

Ikastolen mugimenduaren baitan, ordea, askok ez zuten ondo ikusi EEPA. “Gu mugimendu edo plataforma hartan ginen; baina ez ginen ikastolen kontra, horrela ulertu bazen ere, baizik eta eskola publikoan gure euskalduntasuna bermatzeko eta gure naziotasuna indartzeko”, urte luzez HBko mahaikidea izandako Tasio Erkiziaren hitzetan.

SINDIKATUEN JARRERA

EIKeri buruzko eztabaida eman zen garaietan, STEE-EILAS eta ELA sindikatuak ziren garrantzitsuenak irakaskuntzan. ELAk, adibidez, pisu handia zuen orduan ikastoletan, baina ez zen agertu ez EIKeren ez EEParen alde. Jarrera sindikala mantendu zuen, eta ez hain ideologikoa.

STEE-EILAS, berriz, eskola publikoaren aldekoa zen erabat. Sindikatu horretan, egun STEE-EILAS gisa ezagutzen den sektorea kokatzen zen, baina baita ezker abertzaleko sektorea ere —egungo LAB sindikatu—, garai hartan ez zelako existitzen oraindik LAB-Irakaskuntza. •

Ikastoletan, iritzi bateraturik ez

Ikastoletan ere eztabaida handiak sortu ziren EIKE zela eta. Lege proiektuaren aurkezpenak egin ziren ikastolaz ikastola, eta Jaurlaritzako kideez gain, talde politikoetako ordezkariak eta ikastolen federazioetako partaideek esku hartu zuten.

Antonio Campos izan zen ikastolaz ikastola ibili zen haietako bat. Orioko ikastolako batzarreko kidea eta Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko partaidea izana, Campos GIEko lehendakaria zen 1980az geroztik, Inaxio Oliverik berak Jaurlaritzara joan zenean federazioan utzi zuen lekukoa hartuta. Camposek 22 urtez bete zuen ardura hori, eta 1987tik 2002ra Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko lehendakaria ere izan zen. “Federazioen inguruan genbiltzanok ikusi genuen EIKE zerbait ona izan zitekeela ikastolentzat. Baina, edonola ere, gauzak ez genituen garbi. Eztabaida handia bizi izan genuen kontu horrekin”, dio Antonio Camposek. Eta kezka gehien eragiten zuena ere ondo gogoan du: “Herritik sorturiko *inbento* hau (ikastola) ez zen administrazioaren esku utzi nahi”. Ikastolaren titulartasuna emateko erreparoa, beraz.

Horrela aitortu du ere Paulo Agirrek. “Nire ikuspegia zen aurrera egin behar zela EIKErekin. Baina fretoa topatzen genuen ikastoletan, eta guk haiena defendatu behar genuen”.

Xabier Garagorri ere Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko partaidea zen ordu-rako. Hiru urtez Durangoko Kurutzia Ikastolako zuzendaria izana, psikologoa eta goi mailako zikloko irakaslea izan ondoren, 1980an GIEk kontratatu zuen, pedagogiaz arduratzeko. Orduz geroztik, GIEko aholkulari pedagogikoa izan da Garagorri —nagusiki ikasmaterialgintzaz eta prestakuntzaz arduratuz—, baita Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko aholkulari pedagogikoa

ere. 1982-1983 ikasturteaz geroztik EHUko irakaslea ere bada. Eta, hain zuzen, 1982-1983ko hartan pil-pilean zegoen EIKeri buruz bestelako iritzia zuen Garagorrik: “1980tik 1983ra bitartean, Jaurlaritzako Hezkuntza Sailekoekin izandako harremanen eta eztabaiden ondorioz, jabetu ginen beste era batera ikusten zituztela gauzak. Haiei entzutea ‘besteak dira gure eskolak’... Uf! Eskema guztiak hankaz gora jartzen zitzaizkigun, gu sentitzen ginelako herri honetako eskola”. Garagorriri berari ez zitzaion EIKE gustatu, “hor ere, ikastolaren ezaugarriak galduko zirela pentsatzen nuelako”.

Euskal Eskola Publikoa, bi sarekoa ala sare bakarrekoa?

EIKEren mamiaz eztabaidatu zen, beraz. Eskolaren gestioaz ere bai, nahiz eta ez horrenbeste. Baina, batik bat, Euskal Eskola Publikoaren gainean eztabaidatu zen Jaurlaritzaren lege proiektu haren ondorioz. Euskal Eskola Publikoaren ereduaz, eta eredu nola osatu. Hots, nolakoa izan behar zuen Euskal Eskola Publikoa? Bi sarekoa ala sare bakarrekoa?

Batzuek bi sare proposatzen zituzten: eskola transferituena eta ikastolena. Beste batzuek, berriz, sare bakarra nahi zuten, eskola transferituen eta ikastolen bitartez osaturikoa. Eta, besterik gabe, doakotasuna aldarrikatzen zutenak ere baziren.

Jaurlaritzak —eta EAJk, noski— bi sareen existentzia defendatzen zuen, nahiz eta bere azken helburua sare bakarra osatzea zela azpimarratu eta, hortaz, EIKEren osatuko litzatekeen ikastolen sarea behin-behinekoa zela nabarmendu. Jaurlaritzarentzat, finean, une hartan ez zegoen aukerarik sare bakarra osatzeko. Eta, gaur egun ere, horrela pentsatzen du Inaxio Oliverik. “Nik ez dut uste posible zenik sare bakarra osatzea orduan. Kontuan hartu behar da, adibidez, autonomia ezartzean, Madrilek berak ez zituela transferitu nahi eskola publikoak. Pentsa!”.

HBk eta EEk, ordea, kontrakoa pentsatzen zuten. Are gehiago, sare bakarra osatzeko oztopo nagusia Jaurlaritzaren “borondate politiko falta” zen, bi alderdien arabera. “Sare bakarra gero egingo zela esaten zuten Jaurlaritzako ordezkariak, baina diskurtsoa goxotzeko, eztitzeko erabiltzen zen hori. Benetakoa apustua bi sare egitea zelako, eta hor zegoen *maltzurkeria*”, Xabier Gurrutxagaren hitzetan.

Horren alternatiba gisa, beraz, sare eta funtzionario-gorputz bakarra defendatzen zituen EEk. Eta HB ere horren aldekoa zen. “Guk Euskal Eskola Publiko Berria defendatzen genuen”, dio Tasio Erkiziak. “*Berria* esatean, funtzionari-tza eredu berri bat izatea defendatzen genuen. *Berria* esatean, parte-hartzailea izatea nahi genuen: hau da, gurasoek beste paper bat bete behar zutela, eta horrek funtzionamendua berritzea ekartzen zuela. EEPAn ez genuen lortu *berria* kontzeptua eranstea, baina hori defendatzen genuen. Eta ez soilik berria forman edo itxuran, baizik eta errotik aldatutakoa izatea”.

HBz eta EEz gain, EEPA plataforma edo mugimendua ere sare bakarraren aldekoa zen, noski. Baina baita ikastolen mugimendua bera ere. Guztiek defendatzen zuten Euskal Eskola Publikoak sare bakarrekoa izan behar zuela, bi zuta-beetan oinarrituta: eskola transferituak eta ikastolak. Kanta berdina, bai; baina letra ezberdina. Non zegoen aldea?

Sare bakarra, nola?


Sare bakarra eratzeko denboran edo erritmoan zegoen ñabardura nagusia. Hots, nola iritsi Euskal Eskola Publikora. Izan ere, HBk, EEk eta EEPAk defendatzen eta eskatzen baitzuten sare bakarra orduan bertan osatzea, ikastolak sare publikoan integratuz.

Ikastolen mugimenduarentzat, berriz, orduko hartan ez zeuden lege baldintzak bi oinetan eraikitako sare bakarra bermatzeko. Eta hori baino garrantzitsuagoa zen ikastola kolektiboaren ustez, eskola transferituen eta ikastolen arteko batasun prozesu baten fruitu izan behar zen Euskal Eskola Publikoa, ez bata bestea anexionatzearen ondorioa: “Gaur egungo baldintza objektibo eta psikologikoetan oinarrituta, sare bakarra, nahiz eta asmo oso ederra izan, ezinezkoa da. Sare bakar hori osatzeko integrazio-plangintza bat egitea proposatzen dugu; ikastola eta eskola transferituen artean egingo den integrazio-plangintza, Euskal Eskola Publiko bakarraren diseinuaren arabera, bitarteko pausokak eta epeak markatuko dituen plangintza”. Sare bakarrean elkartzeko prozesua, beraz, ezin zen gauetik goizera egin, eta ezinbestekoa zen bi oinen edo aldean zeuden ezberdintasunak kontuan hartzea.

Xabier Garagorrik esana: “gure mezua zen: *Eskola transferituen eredia ez zaigu atsegin. Beraz, publikazio prozesu bat eman behar da, eta izan behar du bata eta bestea bateratzearen ondorio. Garai hartarako, gainera, bagenituen antzeko adibideak. Kataluniako CEPEPC eskolekin gertaturikoa, esaterako: publikatzean, urtu egin ziren erabat, beren proiektua hankaz gora jarriz. Eta zeren truke? Irakasleek haien ziurtasun laborala izatearen truke”.*

“Niretzat, ezkerreko alderdiek kontraesana zuten”, dio Antonio Camposek. “Batetik zegoen herritik sorturiko *inbentoa*, eta herriak kudeaturikoa: ikastolak. Bestetik, transferitutako eskola publikoak; gobernuak kudeaturikoak, eta goitik beherako egiturarekin. Eta gurea txarra zen, eta horra joan behar genuen. Zergatik, ordea?”. Paralelismo bat ere darabil Camposek, egoera hura irudikatzeko: “AEK eta HABE. AEK zen herritik sorturikoa, eta HABE administrazio autonomoarena. Baina horiekin ez zen esaten AEKtik HABEra pasatu behar zenik. Gure kasuan, berriz, bai”.

Xabier Garagorriren esanetan, “gu prest geunden eskola publikoa izateko, baina ez edozein motakoa”. Horregatik, eredu publikoa zer zen eztabaidatu eta definitu beharra zegoen lehenik, haren aburuz.



Hori egin zuten, hain zuzen, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastolen elkarteek, 1983ko martxoko txosten batean Euskal Eskola Publikoaren oinarriak zehaztu zituztenean: euskalduna, demokratikoa, plurala eta jatorri eta helburu berezkoak izatea. *Ikastolen normalizazioari buruzko oinarrizko gogoetak* izena zuen txosten hartan azpimarratzen zenez, “Ikastolaren publikotasunerako bokazioa, jadanik bere jatorritik bertatik dakarren etengabeko konstante bat izan da. Eta ikastolak, oro har, eta salbuespenak salbuespen, pribatutzat hartuak izan baldin badira, denok ongi aski ezagutzen ditugun zirkunstantzia politikoengatik izan da”. Horregatik, dokumentu

hartan argi aldarrikatzen zen “ikastolak, Euskal Eskola Publikoaren ezaugarriak jasotzen dituztenez gero, egoera normalizatu batean aintzat hartuak izan behar dutela eta dagokien tratamendu juridikoa eta ekonomikoa eman behar zaiela”.

Lau izan ziren lan haren egileak: Felix Ormaetxea, Julian Serrano, J. Iñaki Etxezarreta eta Xabier Garagorri bera.

4.2.4. Emaidza

Jaurlaritzako ordezkariak ikastolaz ikastola ibili ziren EIKERen nondik norakoak azalduz. Baina lege proiektua bera ikastolen parte-hartzerik gabe landu zuten, ikastolen mugimenduko ordezkarien arabera.

Dena den, eta EIKERI buruz mesfidantzak eta iritzi kontrajarriak zeudenez, ikastolen kolektiboak hainbat proposamen egin zizkion lege proiektuari, EIKE babesteko baldintza gisa. Baina Jaurlaritzak aldaketa haiek ere ez zituen onartu, oposizioak aurkeztutako zuzenketak bezala.

Gauzak horrela, EIKE 1983ko uztailaren 27an eztabaidatu eta onetsi zuten Eusko Legebiltzarrean: oposizioaren aldeko botorik gabe —HBk berak ez zuen parte hartu saioan, garai hartan uko egiten ziolako Legebiltzarrean parte hartzeari—, ikastolen erabateko babesik gabe, eta soilik Jaurlaritza osatzen zuen EAJ alderdiaren aldeko botoekin.

Baina, Legebiltzarrean onartuta ere, legea izan behar zuen hura ez zen inoiz indarrean jarri, haren kontrako helegitea aurkeztu zuelako Espainiako Gobernuak, “Konstituzioaren aurkakoa” zela iritzita. Auziak luze jo zuen, eta, azkenean, 1986ko azaroaren 6an Espainiako Auzitegi Konstituzionalak epaia kale-ratu zuen EIKEren alde. Baina, ordurako, bestelakoak ziren Jaurlaritzaren asmoak, eta ez zuen indarrean jarri proiektu hura.

“Bai” baldintzatua

Ikastolen mugimendua ez zen publikoki EIKEren kontra agertu, eta ezezkorik ere ez zion eman. Baina ezta erabateko sostengua ere: “Ez da guk nahi duguna, baina sare bakarra gaur gaurkoz ez delako posible, irtenbiderik onena dela deritzogu”. “Bai” baldintzatua eman zion, nolabait esatearren.

“Ez zen gogozko baieztoko bat izan”, Inaxio Oliveriren hitzetan. “EIKErekin, pausoa emanez gero, titulartasuna administrazioarena zen. Eta arazo nagusia hori zen: hainbeste lan egin ondoren, hori nolabait galtzea, zure eskuetatik joatea. . .”.

Hain justu, ikastolek erabateko babesia ez ematea oinarritzakoa izan zen, Oliveriren arabera: “Gobernuarentzako oso ahalegin inportantea izan zen hura. Denen kontra jo behar izan zuen gobernuak. Eta, gainera, egin zen pentsatuz sekulako aukera ematen geniola ikastolei. Beraz, ikastolek harturiko jarrerak ahuldu egin zuen proiektua bera. Segur aski, benetako babesia eman izan baliote, EIKE martxan jarriko zen, Auzitegi Konstituzionalaren onarpena ere jaso zuelako”.

Titulartasuna galtzeko aukera izan zen, bai, ikastolek EIKE erabat ez babesteko arrazoi nagusienetakoa, Inaxio Oliverik berak esan bezala. Baina beste arrazoi batzuk ere egon ziren. Adibidez, ikastolen elkarteetan, iritzi edo jarrera bateraturik ez egotea proiektuaren inguruan. Ez zen iritzi berdintasunik egon. Eta, noski, ikastolen mugimenduaren barruan ere oposizio indartsua egon zen EEPAk eta ezkerreko alderdiek sustatuta.

Gaur egun ere, ikastolen mugimenduan iritzi ezberdinak daude EIKErekin gertatutakoaz eta ikastola kolektiboak berak izandako jarreraz. “Gobernuaren jarrera ulertzen dut; berria zen eta kolpeak jasotzen zituen alde guztietatik”, dio Antonio Camposek. “Guri beldurra ematen zigun titulartasuna emateak. Gaur egun, pentsatzen dut tresna hura hartu izan bagenu ondorengo guztia diferentia izango zela. Guk nahi genuen Euskal Eskola Publiko berri hori hortik errazago lortuko genuela iruditzen zait”.

“EIKErekin ez nengoen eroso”, dio, ordea, Xabier Garagorrik. “Ez nuen uste eredu horrekin ikastolaren ezaugarri funtsezkoak, ikastolaren oinarriak mantentzen zirenik. Administrazioaren esku geldituko litzateke, HABE edo antzekoak bezala, baina herri partaidetza, bertako erabaki mailak, hurbiltasun hori galdu egingo zen ikastolan. Finean, eredu publikoari begirako hurbilpen hori ez zuen errazten, bi sare

mantentzen zirelako; eta bestetik, ez zion ondo erantzuten gure izaerari”. Paulo Agirrek, haatik, uste du garai hartan, irtenbide sakon, sendo eta ona eskaini zietela “baina ez genuen horri irtenbide bat ematen jakin, ordurako zeuden mugimendu eta arazo ideologiko guztiak hor kontzentratu zirelako”.

“EIKE porrot bat izan zen”, dio J. Iñaki Etxezarretak. “Bakoitzak bere gain hartu behar ditu erantzukizunak. Eta Jaurlaritzak bere gain behar du porrot horren erantzukizuna. Nork egin zuen hau? Bada, bere gain har dezala porrota. Eta zergatik diot hau? Ideia ona izanda ere, EIKERena ideia ona zelako, hori bezain garrantzitsua delako ideia hori nola ateratzen den aurrera. Eta Jaurlaritzak huts handia egin zuen, ikastolekin lan hori behar bezala ez egiteagatik”.

Eta ikastola kolektiboak sasoi haietan izandako jokabideaz ere kritikiko mintzo da Etxezarreta: “Ikastolek ere ardura dute, pasibotasunagatik, estrategia baten arabera jokatzeko prestatuta ez zeudelako. EIKERI baiezko baldintzatua ematea planteamendu eskasegia izan zen. Gaiak zerbait gehiago eskatzen zuen”.

Iritziak iritzi, Jaurlaritzak ez zuen ondo hartu ikastolek EIKERI emandako erantzuna. “Ez genuen espero jarrera hura, eta zapuztuta gelditu ginen”, aitortu du Inaxio Oliverik. “Hura goitik behera ez onartzean, EAJ haserretu egin zen, eta hortik aurrera harremanak ez ziren berdinak izan”, Paulo Agirrerren esanetan.

EUSKADIKO EZKERRAREN LEGE PROPOSAMENA

EIKERen lege proiektuaren ondotik, Euskadiko Ezkerrak lege proposamen bat aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarrean, Euskal Eskola Publikoaren Legea egin zedila eskatzeko. Garaikoetxea lehendakariaren bigarren legealdian izan zen, eta Hezkuntza sailburu Juan Urrutia zela, ez Pedro Miguel Etxenike.

Xabier Gurrutxagak berak aurkeztu zuen lege proposamena EEren izenean, legealdi hartan hautatu baitzuten legebiltzarkide. Eta oposizioko alderdi baten lege proposamena izan arren, tramitera onartu zen Legebiltzarrean, “Leizaolak, orduan parlamentaria eta gero Legebiltzarreko presidente izandakoak hanka sartu zuelako tramitaziorako bozketan”, Gurrutxagak argitu duenez. “Baina gure proposamena tramitera onartu arren, gobernu hura 1986ko EAJren zatiketaren ondotik puskatu zenez, tramitean ziren lege proposamen guztiak bertan behera gelditu ziren”.

EEren lege proposamen hartan, EIKERI uko egin ziezaioketen baina, halaber, sare pribatuan gelditu nahi ez zuten ikastolei sare publikoarekin bat egiteko aukera ematen zitzaien. •

4.2.5. EIBren bersorrera

EIKE lege proiektuarekin asko eztabaidatu zen ikastolen publikotasunaz. Baina baziren publikotasuna begi onez ikusten ez zuten ikastolak ere. Adibidez, Gasteizko Olabide, Donostiako Ekintza eta Bizkaiko Lauro eta Lauaxeta. Olabide, esaterako, Arabako Ikastolen Elkartetik kanpo zegoen jada, federazioaren barne antolaketarekiko eta 1981eko lan hitzarmenarekiko desadostasunak eraginda. Eta EIKERen sasoi haietan, lau ikastola horiek elkartzen hasi eta beste erakunde bat sortzeko bideari ekin zioten, gero EIB (Eusko Ikastola Batza) izena hartu zuena.

Ofizialki, 1986ko martxoaren 21ean eratu zen EIB. Eta Ignacio Marin da, hasieratik, EIBko idazkari nagusia, Donostiako Ekintzako zuzendaria izateaz gain. “Titulartasun pribatuaren aldekoak ginen gu, gure helburua lortzeko edo filosofia aurrera eramateko biderik egokiena hori zela uste genuelako”, dio Marinek. “Ikastetxe publikoetan, azkenean, menpekotasun handiagoa izaten duzu; eta pribatu gisa, aldiz, autonomia handiagoa. Guk hasieratik pentsatzen genuen hori, eta horregatik joan ginen federazioetatik eta antolatu genuen EIB. Hori izan zen arrazoi bakarra”.

Donostiako Ekintza ikastola, ordea, GIETik kanporatua izan zen, federazio honek 1986ko urtarrilaren 31n Azpeitiko Loiolan egindako 32. batzar nagusian. Ekintza ikastola bera urte hari begirako lan hitzarmenaren kontra agertzeagatik eta beste hainbat ikastolak gauza bera egin zezaten bilatu nahi izateagatik izan zen kanporatua, batzarraren aktak diotenaren arabera. Ofizialki kalera tuak izan aurretik, Ekintza ikastolako ordezkariak GIETik dimititzea eskatu zuten, baina batzarrean bildutakoek ez zuten dimisio eskaera onartu.

12 ikastola eta 10.000 ikasle

1936ko gerra aurretik sortu eta jardun zuen erakundea izan zen EIB. Horregatik, erakunde berriari ere izen bera jartzea ez zen kasualitatea izan. “Izen hori hartu genuen, nolabait jatorrizko ikastolen izena zelako. Garai haietan, pasionista bat zen Lauaxeta Ikastolako zuzendaria, Aita Fermin, eta gerra aurreko esperientzia haren berri bazuen. Horri buruzko agiri bat ekarri zigun, eta horrela erabaki genuen izen hori jartzea”, adierazi du EIBko idazkari nagusi Ignacio Marinek.

Lau ikastola hasi arren, erakundean ikastola gehiago sartu ziren gero, eta gaur egun 12 ikastola dira EIBko partaide: Olabide (Gasteiz); Ekintza eta Mariaren Bihotza (Donostia); Lauro (Loiu); Lauaxeta (Euba); Artxandape, Begoñazpi eta Karmengo (Bilbo); Txomin Agirre (Ondarroa); Bera Kruz (Markina); Mariaren Lagundia (Bergara); San Fidel (Gernika-Lumo). Denera, 10.000 ikasle eta 800 langile inguru, Ignacio Marinen arabera.

Alta, EIBko ikastola guztiek ez dute izaera juridiko berdina. Donostiako Ekintza, esaterako, fundazio bat da; Olabide, Lauro eta Lauaxeta, berriz, kooperatibak. Era berean, Olabide eta Ekintza ez beste ikastola guztiak konfesionalak dira.

Lauro, azkenik, Bizkaiko Ikastolen Elkartean federatuta dago gaur egun.

Hasieran, hain zuzen, EIBren eta Ikastolen Elkartearen arteko harremanak oso txarrak ziren. Gaur egun, berriz, oso onak direla azpimarratu du Ignacio Marinek. Adibidez, biek ala biek lan hitzarmen bera dute, eta lan hitzarmenaren negoziaketan patronala ordezkatzan dute.

4.3. BARNE GOGOETA-PROZESUA IKASTOLA MUGIMENDUAN

4.3.I. Testuingurua

EIKERen auzia mugarri bat izan zen ikastolen mugimenduan, Eusko Jaurlaritzarekiko ikuspegia aldatzea eragin zuelako: euskal gobernuaren eraketak itxaropen handiak sortu bazituen ere, harengandik jasotako erantzuna ez zen izan espero zena. EAJk, halaber, ez zuen ondo hartu ikastolen mugimenduak EIKE lege proiektuari emandako erantzuna: hots, ikastolek ez babestea erabat haientzako propio diseinaturiko irtenbidea. EAJ, indar abertzale nagusia eta Jaurlaritza kudeatzen zuena, haserre zegoen.

Premiazkoa zen, beraz, noraez une hura gainditzea. Ekimena hartu beharra zegoen, politikariek egingo zutenaren zain egon gabe; eta, inoiz baino gehiago, aurrera begirako estrategia propio bat diseinatu. “Konturatu ginen ikastolek ez zutela etorkizunik Hezkuntza Sailekoekin eskutik helduta”, adierazi du Xabier Garagorrik. “Gure eredia defendatu behar genuen; guk ez bagenuen gure eredia definitzen eta defendatzen, jai genuen. Ezin genuen egon beste batzuek gure arazoak noiz konponduko zain. Hemengo gobernuakideek harturiko bidea, estatuko beste administrazioek harturiko bide bera zen. Ez zegoen saiakera sendorik hezkuntza sistema beste era batera antolatzeke. Eta guk, ikastolok, sinesten genuen gure eredia publikoa zela eta ondo funtzionatzeko bidea zela. Eredua bezala, aberatsagoa zela. Beraz, guk gure eredia finkatu beharra genuen; iniziatiba hartu behar genuen guk geuk, ez politikoez”.

Baina, hori gutxi balitz, ikastoletako barne antolaketa ere argitu eta hobetu beharra zegoen, funtzionamendu aldetik desoreka nabariak sumatzen eta bizitzan zirelako ikastoletan.

Hortaz, gogoeta prozesu bati ekin zion ikastolen mugimenduak, helburu bikoitzarekin.

Kanpora begira, bide propio bat finkatzeko. Barrura begira, *etxea* antolatzeke.

4.3.2. Prozesua, urratsez urrats

Ikastolen normalizazioari buruzko oinarriko gogoetak izeneko agiria izan zen gogoeta prozesuaren abiapuntua; 1983ko martxoko lana, EIKERi buruzko eztabaidaren testuinguruan prestaturikoa. Bi ziren txostenaren helburuak, lanaren sarreran bertan aipatzen zenez. Batetik, “Ikastolen eskuetan gogoeta-zerrenda bat jartzea, beren buruak argitzeko eta ulertzeko balio izan diezaieten, beren identitatearen kontzientzia erki-dea har dezaten eta etorkizunerako urraspideak ere marka ditzaten”. Bestetik, “plataforma zabala eskaintzea, zuzenean interesatuak aurkitzen diren parte gehienak, nola gurasoak hala irakasleak eta alderdi politikoak, bertan elkar topa daitezten”.

Euskal Eskola Publikoaren oinarriak definitzeaz gain, ikastolen normalizazioari buruz Hegoaldeko federazioek zuten jarrera jasotzen zen lan hartan, sei ideia nagusi garatuz. Hauexek ziren sei ideiak:

- Euskal Herrian Eskola Publikotzat hartua izateko, ezinbesteko baldintza da eskola horrek euskal hizkuntza eta kultura bere egitea. Ikastolek beren sorkuntzan bertan eta beren hezkuntza helburuetan frogatzen duten bezala.
- Ikastolak publikotzat ematen dira beren funtzionamendu, gestioera eta prestatzen dituzten zerbitzuengatik.
- Euskal Eskola Publikoa erabatekotzat emango da, eskualdaturiko eskola publiko guztiek bertan parte hartzen dutenean.
- Eskola publikoaren sare bakarrak, ikastolen eta eskualdaturiko eskola publikoen arteko batasun-prozesuaren fruitu izan behar du, eta ez batek bestea anexionatzearen fruitu.
- Ikastolen normalizazioak, zuzenean interesatuak dauden parteen gehien-goaren onespena eduki behar du eta adostasunaren emaitza izan behar du.
- Elkarbartzeko prozesua egiten den bitartean, ikastolek, eskualdaturiko eskola publikoen tratua bera hartu behar dute, hau da, doakoak izan behar dute”.

Xabier Garagorri bera izan zen dokumentu hura prestatu zuenetako bat, J. Iñaki Etxezarretarekin, Julian Serranorekin eta Felix Ormaetxearekin batera. “Oso dokumentu garrantzitsutzat jotzen dut”, dio Garagorrik, “EIKERen testuinguru hartan, balio izan zuelako gure posizioa markatzeko eta esateko: ‘Kanpotik ez digute konponduko hau. Beraz, talde bezala izan behar dugu eskola eredu bat oso garbia, eta horrekin negoziatuko dugu’”.

Zuzendarien ikastaroa

Baina, normalizazioaren buruhausteaz gain, barruko antolaketari buruzko kezka bizi zen sasoi haietan ikastoletan. Ezaguturiko hazkunde itzelaren ondo-

tik, egoera lauso antzeko batetan zeuden ikastolak. “Ikastola eredia zoragarria izango da, baina gorabeherak baditu. Eta, gorabehera horien artean, gobernu organoen eta funtzionamendu organoen arteko nahaste-borrastea zegoen garai haietan. Mugak ez zeuden argi, gobernu organotakoak sartzen zirelako besteen jardunean, eta alderantziz”, ekarri du gogora Xabier Garagorrik. Gainera, zuzendaritzaren gaia ere ez zegoen garbi. ‘Nork hautatu behar du zuzendaria?’, ‘Zein da zuzendariaren lekua gurasoen eta irakasleen artean?’, ‘Zuzendari bakarra ala kolegiatua?’, ‘Horretarako hautatua, ala irakasleen artean txandaka?’, ‘Irakasleen soldata berdinarekin ala handiagoa?’... sasoi hartan, horrelako galderak errepikatzen ziren behin eta berriz. “Ikusten zen zuzendaritza behar zela, baina ez zen ikusten marko ideologiko bat. Eta guk defendatzen genuen zuzendaritza kolegiatua: denok berdin, txandakatuz...”, Garagorriren hitzetan.


Horretarako, ikastoletako zuzendarien ikastaro bat antolatu zuen Garagorrik, 100 ordukoa eta Miramonen (Donostia), Kepa Uriarte Deustuko Unibertsitateko jesuitarekin. “Uriartek oso serio hartzen zituen gauzak. Eta hutsunetak ikusi genituen gure funtzionamenduan. Uriarteren gidaritzapean, lan serioa egin genuen. Hura ez zen kontenplazioetan egoten, eta esan beharrekoak esaten zizkigun. Oso zintzoa zen, alde horretatik”.

Liburu Berdea, Liburu Marroia eta Liburu Grisa

Ikastaro emankor haren ondotik, gaiari jarraipena eman behar zitzaiola ikusi zen, eta hausnarketa sakona egin. Eta talde indartsua eratu zen zuzendaritzako kideekin eta ikastoletako zuzendariekin, eta horrela sortu zen Liburu Berdea izeneko, 1985ean. Antolaketa eta kudeaketa eredu bat definitzen zen *Ikastolaren egitura eta gestioa* izenburua zuen azal berdeko liburu hartan. “Hausnarketa prozesuaren ama izan zen hura”, Xabier Garagorriren esanetan.

Liburu Berdea potoloa zen, baina oso trinkoa, lastorik gabekoa. Prozesu hartan lan egindakoez oso ondo ulertzen zuten, noski. Baina bestelako produkturik behar zen, ikastoletan landu ahal izateko. Eta hortik etorri zen, 1986an, Liburu Berdearen laburpena, Liburu Marroia izeneko (izenburu bera zuen).

Alta, Liburu Marroiak ez zuen harrera onik jaso hasiera batean. “Eredu teknologiko bat proposatzen zela eta ikusmolde enpresariala edo kutsu kapitalista zuela atera zen hainbat ikastolatako eztabaidetan. Baina, pixkanaka, egin zuen bere bidea, biblia modukoa bihurtu arte. Izan ere, oso logika garbiz azaltzen baitzuen gobernu organoen eta funtzionamendu organoen arteko lotura: zeintzuk ziren zuzendariaren funtzioak, ikasketa buruak zer egin behar zuen, administrariaren zereginak... Organigrama oso bat aurkezten zuen; eta, gero, ikastolek egin zitzaketen nahi adina aldaketa horren barruan”, kontatu du Garagorrik.



Hain zuzen ere ikastolek Liburu Marroiari egindako zuzenketetatik abiatuz, dokumentua berriro idatzi zen, eta ikastolek batzar bidez onartu ondoren, Liburu Grisa izenekoak sortu zen —*Ikastola: izaera eta eitura* izenburupean—, 1987an.

Liburu Urdina

Prozesua biribiltzeko, azkenik, *Ikastola: izaera eta eitura* izeneko liburua kale-ratu zen, 1988an. Liburu Urdina izenekoak, bi zati zituen. Lehen partean, ikastolaren lerro nagusienak definitzen ziren: izaera, gobernu eitura, eta funtzionamenduko eituraren oinarritzko kontzepzioa, alegia. Ikastolaren gobernu organoak, esaterako, Batzar Orokorra eta Gestio-Batzordea zirela azpimarratzen zen, bakoitzaren osaketa, funtzioak eta funtzionamendua zehaztuz. Lehendabiziko zati hau funtsezko dokumentutzat jo zen ikastola kolektiboan.

Bigarren partea, berriz, lan orientatibo bat zen, funtzionamenduaren egiturarako eta organo operatiboetarako eredu bat eskainiz. Horrela, ikastolaren organo bakoitzaren osaketarako, hautaketarako, funtzioetarako edota prozedurarako irizpideak iradokitzen ziren, besteak beste.

Liburu Urdina izan zen, hain justu, ikastoletan arrakasta handiena izan zuena. Erreferentzia saihestezin bihurtu zen, eta urte luzez erabili zen. “Ikastoletan asko begiratu zaio bertako organigramari, bai eta arazoak konpontzeko prozedurari ere: lehen mailako arazoak, bigarren mailakoak...”, aitortu du Xabier Garagorri. “Azken finean, arazo bakoitza sailkatu eta arazo bakoitzaren aurrean nola jokatu iradokitzen zen Liburu Urdinean. Zehaztasun maila izugarria zuen, beraz. Gida bat, orientabide bat zen, eta ikastolen norabidean eragin handia izan zuen”.

4.3.3. Prozesuaren emaitza

Xabier Garagorri gain, J. Iñaki Etxezarretak, Mirari Bereziartuak, Ruper Ormazak eta Santos Sarasolak osatu zuten Liburu Urdineko Talde Teknikoa. Garagorri ez beste guztiak ikastoletako zuzendariak ziren sasoi haietan. Etxezarreta, Urretxu-Zumarragako ikastolan; Bereziartua, Algortako ikastolan; Ormazza, Portugaletekoan; eta Sarasola, Donostiako Santo Tomas Lizeoan. Eta barne hausnarketa prozesuaren garrantzia azpimarratu du 30 urtez Donostiako ikastolako zuzendaria izandako azken horrek: “Une inportante bat izan zen hura, ikastoletan bizi zen egoera elkarrekin aztertzen hasiz eta, emaitza gisa, eredu bat eskainiz. *Etxea ordenatzea* izan zen; hau da, ikastola baten barruan, jakitea bakoitzak zer egin behar zuen eta nola egin behar zuen”.

“Gogoeta prozesu hau, talde gisa eta antolaketari dagokionez, funtsezko erabakia izan zen”, Xabier Garagorriren hitzetan. “Gero, gauza bera egin genuen curriculumarekin. Eta bitxia da, baina, ikusten denez, antolaketari eman zaio lehentasuna ikastoletan, curriculumari baino lehen. Ikastolaren ereduak bi beso dituelako: *zer egin* eta *nola egin*. Eta gu antolaketarekin hasi ginen, *Nola egin besoarekin alegia*”.

Santos Sarasolaren arabera, gogoeta prozesuaren ekarpen nagusia gobernu organoak (Asanblada eta Junta) eta funtzionamendu organoak (zuzendaritzatik beheragoko mailak edo markoak) bereiztea izan zen. “Eta beste ekarpena izan zen gurasoak eta irakasleak Juntan biltzea; marko komun hori osatzea. Hau da, gurasoak ez ziren soilik haurrak ikastolara eramateko, eta irakasleak ere ez ziren langile hutsak. Motibaziorako akuilua izan zen prozesua”.

Finean, gogoeta prozesuaren lehen emaitza izan zen ikastola eredu zehaztu egin zela, aurreko antolaketarekin bukatuz eta eredu berria indarrean jarritz. “Prozesuaren ondorioz funtzionamendua asko hobetu zen ikastolen barruan”, dio Santos Sarasolak. “Adibidez, aurretik hasiak ziren zuzendarien arteko bilerak sakondu egin ziren gogoeta prozesuaren ondotik. Horren beste emaitza gisa har daiteke”, gehitu du.

Izan ere, 80ko urteetan asko indartu baitzen ikastoletako zuzendarien sektorea. Eta, hamarkada horretan profesional asko gehitzearekin batera, ikastolen elkarteak

Enrique Arana Cañedo - Argüelles

NOTARIO
Ara. 2-52 (Edificio Babilon)
Teléfono 23 33 67
01005 - VITORIA

26 NOV 1987

FECHA 26.11.1987
NUM. 1.388

Copia del ACTA DE CONSTITUCIÓN DE CONFEDERACIÓN DE IKASTOLAS
bajo la denominación de:
EUSKAL-HERRIKO IKASTOLEN-ELKARTEA - CONFEDERACION DE IKASTOLAS
DE EUSKAL HERRIA (E.H.H.K.C.I.E.H.N.)

PREAMBULO

Las Federaciones de Escuelas conscientes de la responsabilidad social y educativa que les incumbe, comprometidas en la transmisión, desarrollo y potenciación del Euskara y de la Cultura Vasca, en su anhelo de consecución de una Escuela Plena Vasca, han decidido la constitución de la EUSKAL-HERRIKO-IKASTOLEN-ELKARTEA (E.H.H.K.) que, por Delegación de las Federaciones Regionales, se comprometen de forma unitaria los intereses de las Ikastolas y se regirán por lo dispuesto en los siguientes Estatutos.

CAPITULO I

DENOMINACION, FINES, AMBITO, DOMICILIO SOCIAL Y DURACION

Artículo 1º -- Con la denominación de EUSKAL-HERRIKO-IKASTOLEN-ELKARTEA (E.H.H.K.), se constituye una Asociación, según lo dispuesto en la Ley 2/1988, de 12 de febrero, de Asociaciones, aprobada por el Parlamento Vasco, y en concordancia con lo establecido en el artículo 99 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, que actúa sobre el principio de reconocimiento para la autonomía y la independencia propia de las Federaciones e Ikastolas de Euzkalerria.

Dicha Asociación se regirá por los preceptos de la citada Ley de Asociaciones, por los presentes Estatutos en cuanto no estén en contradicción con la Ley, por los acuerdos válidamente adoptados por sus Estatutos, y por las disposiciones reglamentarias que apruebe el Gobierno Vasco, que éstas mismas tendrán carácter superior.

Artículo 2º -- Los fines de esta Asociación son los derivados de los principios generales de la defensa y promoción del desarrollo natural de las Ikastolas e un "estatuto jurídico-legal", que los garantice su desarrollo como centros educativos y de gestión democrática.

Sus fines principales son los siguientes:
- Coordinar los servicios pedagógicos, jurídicos, deportivos y...



edo federazioak aldatzen joan ziren, batik bat Gipuzkoakoa, eta gurasoen federazioak izatetik ikastolen federazioak izatera pasatu ziren. Edonola ere, barne gogoeta prozesuak berak lortu zuen sektore guztiak biltzea: ikastolako gurasoak, zuzendariak eta irakasleak, denak batera, ikastoletako norabide estrategikoa zehazteko.

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren sorrera

Baina gogoeta estrategikoaren uzta ez zen horretan gelditu, tokian tokiko ikastolaren barne antolaketan ez ezik, nazio mailako antolaketan ere fruitua loratu zelako: Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren (EHIK) eraketa, 1987an.

Asmoa ez zen berria, ikastolaren kolektiboak 1977ko maiatzean Gasteizen bertan egindako batzarrean konfederazio bat eratzeko aukeraz jardun zuela-

Euzkadi Foruak
Legearen Biltzarra
Autonomia Garaia

Gobierno Vasco
Departamento de Presidencia, Justicia
y Desarrollo Social

EDUKIO JARDUERAK
EUSKAL-HERRIKO IKASTOLEN-ELKARTEA
10 NOV 1988

FECHA: 10 NOV 1988

Esta es la petición formulada por Ud. en nombre y representación de la Asociación denominada "EUSKAL-HERRIKO IKASTOLEN-ELKARTEA (E.H.H.K.)" de Vitoria-Gasteiz (Álava), solicitando la inscripción en el Registro de Asociaciones, adscrito a la Viceconsejería de Justicia, del Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonomico.

RESULTANDO: Que según el artículo 2º de los Estatutos, sus fines son:
a) Coordinar los servicios pedagógicos, jurídicos, deportivos y "siempre libre" que prestan los miembros de la Asociación.
b) Representar y defender ante las Instituciones locales, provinciales, autonómicas, estatales e internacionales los intereses de sus asociados.
c) Organizar cursos, conferencias, concursos, etc., relacionadas con la enseñanza y el euskara.
d) Organizar, promover y coordinar cuantas actividades consideren necesarias sus asociados, relacionadas con los fines aludidos.

RESULTANDO: Que el ámbito territorial en el que desarrollará principalmente sus actividades será Euzkadi-Herria.

VEDOS: La Ley 2/1988, de 12 de febrero, de Asociaciones, el Decreto 77/1980, de 20 de marzo, por el que se crea el Registro General de Asociaciones y el Decreto 80/1986, de 19 de abril.

ko. Esan daiteke ikastolen mugimenduaren baitan hasieratik zegoen helburua zela hura, baina zirkunstantzia ezberdinek eragotzitakoa.

1987an, ordea, egoera bestelakoa zen. Ekimena hartu eta bide propio bat garatzeko barne kontzientziatzearekin batera, ikastolen mugimenduak erabaki zuen iritsi zela federazioen federaziora pasatzeko unea. “Gure arteko harremanari egitura juridikoa eman nahi zitzaion. Eta ez soilik bilerak egiteko, edo soilik bileren bitartez federazioen harremanak indartzeko; zerbait gehiago lotuko gintuena izango zen Konfederazioa, bata besteari zerbitzuak pasatzeko eta abar. Azken finean, antolakuntza hobetzeko eta eraginkortzeko tresna”, gogora ekarri du Antonio Camposek. “Baina beti bi arazorekin topo egiten genuen: batetik, Espainiako Estatuan, bi administrazio diferente genituela; eta bestetik, Iparraldearen kasuan, beste estatu bat”.

Gauzak horrela, kultur elkartearen formula onetsi zen Konfederazioarentzat, orduko baldintza juridikoetan aritzeko egokiena zela iritzita. Eta Gasteizen eta Iruñean erregistratu zen Konfederazioa, egon zitezkeen lurraldekako zailtasunak ekiditeko.

Ipar Euskal Herriko Seaskak, ordea, ezin zuen partaide izan juridikoki; baina, praktikan, gainerako federazioan antzera parte hartzen zuen, Antonio Camposen hitzetan: “Niretzat, proiektua izan da beti inportanteena; eta horiek ziren momentuan momentu jantzi beharreko jantziak. Guk nahi genuen bost federazioentzako jantzia, noski; baina ezin zenez, bada, laurentzat. Baina, praktikan, bitartekoak jarri genituen Seaskak gainerakoen antzera parte hartzeko”.

Ezbairik gabe, ikastolen barne antolaketan urrats berria bezain garrantzitsua izan zen Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa juridikoki eratzea. Inflexio puntu bat. Mirari Bereziartua, barne gogoeta prozesuan parte hartu zuen taldearen partaideetako bat, izendatu zuten Konfederazioko idazkari. Eta Antonio Campos, berriz, Konfederazioko lehendakari, kargu berria GIE-ren lehendakaritzarekin uztartuz. “Pauso hori emanda ere, hasiera batean Konfederazioa gehiago izan zen erakunde bat kanpora begira. Irudi aldetik, guretzako oso inportantea zelako azaltzea denok bat egiten genuela; eta Konfederazioan denok bat egiten genuen, herri baten adierazle gisa. Baina irudi elkarte bat zen gehiago, elkarte funtzionala baino. Adibidez, langile bakarra zuen Konfederazioak: Mirari Bereziartua, idazkaria. Konfederazioa zen Mirari”, Camposen esanetan.

Gogoeta prozesuaren ondorioz, geroko urratsetarako oinarriak jarri ziren: aspaldiko amets eta helburu zen Konfederazioa eratu ondoren, ikastolen mugimenduak batzar nazional bat egin zuen estreinakoz, Euskal Eskola proiektua landu eta kaleratu zen... bai eta inizatiba hartu ere, PSE-PSOE alderdiarekin harremanak eraiki eta akordioak ixteraino!

LOGOAREN SORRERA

Konfederazioa juridikoki eratzearen fruituak berehala sumatu ziren ikastolen mugimenduan nahiz euskal gizartean. Adibidez, aniztasuna eta batasuna uztartzen zituen mezuak landuz eta zabalduz. Horretarako, Joxan Artzeren olerki bat hartu zen ikur gisa: Iturri zaharretik edaten dut, ur berria edaten, beti berri den ura betiko iturri zaharretik.

Logotipo baten baitan irudia batzearena izan zen beste fruituetako bat: federazio bakoitzak bere logoa izatetik, denek logo bera partekatuzera pasatu zen ikastolen mugimendua. 1989-90ean sortu zen logoa, Iruñeko Paz Ziganda ikastolako guraso Carlos Sanzoren eskutik: iturri bat irudikatzen du Euskal Herriko maparen gainean.

Iturriak bost kolore ditu, federazio bana ordezkatuz: hori iluna (Bizkaia); urtina (Gipuzkoa); berdea (Seaska); gorria (Nafarroa); eta morea edo mahats kolorea (Araba).

Logoari, halaber, Ikastolen Elkartea izena erantsi zitzaion azpian. Batetik, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa izena oso luzea zelako. Eta bestetik, hasierako diseinuan, ikastola guztiak bi hitz konpartitzen zituztela erabaki zelako: Ikastolen Elkartea. Hau da, Iparraldekoek nahiz Hegoaldekoek, denek, lurralde horretan ikastolen elkarte bat osatzen gurela adierazi nahi zen. Eta horrela, logoari tokiko lurraldearen izena jartzen zitzaion: Ikastolen Elkartea-Nafarroa, Ikastolen Elkartea-Gipuzkoa...

Urteen poderioz, federazio batzuk lurraldearen izena kentzen joan ziren, baina beste batzuek eutsi egin zioten. Eta, denborarekin, bakartzuz joan zen logoa.

Horren guztiaren ondorioz, Ikastolen Elkartea terminoa izan da urte luze erabili dena, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa izenaren sinonimo edo baliokide gisa. 2002an, ordea, Konfederazio berria egitean, irudi korporatiboa mantendu zen, baina estatutuetan konfederazioa terminoa nagusitu zen, konfederazio izaera horri indarra emateko. Alegia, garbi utzi nahian ez zela ikastolen elkarte bat, baizik eta ikastolen elkarten elkarte.



4.4. IKASTOLA HEZKUNTZA-PROIEKTUA OSATZEN

4.4.I. Testuingurua

Ikastoletan emandako heziketaren kalitateari buruzko kezka kontuan hartu izan da beti ikastolen mugimenduan. Are gehiago, ikastolak sortu zirenean indarrean zeuden bi eskola eredu edo sareen alternatiba gisa. Baina, kezkak kezka, ikastoletako hezkuntza maila beste ikastetxeena baino altuagoa zela esan daiteke. Eta, horren erakusle, bi azterketaren emaitzak, biak garai ezberdinetan egingakoak.

1974-1976 urteetan, Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak herrialde horretako ikastoletako, eskola nazionalak eta eskola pribatuak OHOk 5. eta 7. mailako ikasleen ikasketa mailari buruzko azterketa egin zuen. Matematika, Gizarte-Zientziak, Hizkuntza eta Natur Zientziak gaiari buruzko frogak burutu zituzten ikasleek, eta ondorioa argia izan zen: Espainiako Estatuko lagin batean oinarrituz, ikastoletako ikasleen maila estatuko batez bestekoa baino altuagoa zen, frogak gaztelaniaz egin behar izan zituzten arren.

1980-81 ikasturtean, berriz, Espainiako Estatuan eta ikastoletan lorturiko Eskola Graduatu tituluen batez bestekoa alderatuta, Hegoaldeko herrialde bakoitzeko ikastolen batez bestekoa estatuko batez bestekoa baino handiagoa zen, nabarmen. Izan ere, ikasturte hartan, Estatuko batez bestekoa %62,4 bazen ere, Arabako ikastolen batez bestekoa %96,9 zen, %73,9 Gipuzkoako ikastolena, %81,3 Nafarroako ikastolena, eta %86,4 Bizkaikoa.

UCD-ren Programa Berrituak

1980an, hain justu, 10 urte egin ziren 1970eko Hezkuntza Lege Orokorra (HLO) —*Villar Palasí Legea*— onartu zenetik. Eta lege hura orduan asko kritikatu zen Espainiako Estatuan, paperean egindako proposamen aurrerakoiak ez zirela bete salatuz. Horrela, lege hura orientatiboa zela nabarmentzen zen, ez preskriptiboa; eta, beraz, derrigortasun mailarik ez zegoenez, eskola porrotari bide ematen ziola. Eta salaketa haiek bazuten arrazoirik, sasoi hartan eskola porrota %30 baino handiagoa zelako Espainian.

UCD alderdiko Adolfo Suarez zen orduan Espainiako gobernuburua. Eta noski, emandako aldaketa politiko eta sozialekin batera, hezkuntzan ere beste planteamendu bat garatu nahi zuen Suarezren gobernuak.

1981ean hezkuntza programak berritu zituen UCDk, Programa Berrituak izeneko egitasmoaren bidez. Ziklo batetik bestera pasatzeko, ikasle batek lortu beharreko gutxieneko erreferentziak zehaztea zen programa haien helburua (*Niveles básicos de referencia* deitzen ziren). Eta, laborategian egindako lan hartan,

Espainiako agintariek pentsatzen zuten ikaslegoaren %80k gainditu behar zituela gutxieneko erreferentzia haiek.

Programa Berrituak, ordea, ez ziren lege bat, dekretuak baizik. 1981eko urtarrilaren 9ko dekretu baten bidez, esaterako, Oinarrizko Hezkuntza Orokorra eta hasiera zikloko gutxieneko edukiak arautu ziren. 1982ko otsailaren 12ko dekretu baten bitartez, aldiz, erdi zikloko gutxieneko edukiak.

Alabaina, goi zikloko edukiak arautzeko astirik ez zuen izan Suarezren gobernuak, PSOE alderdiak irabazi zituelako 1982an egindako Espainiako Gortetarako hauteskundeak, eta Felipe Gonzalez izendatu zutelako Espainiako presidente. Sozialistak agintera iristean, Programa Berrituak ebaluatzeari ekin zioten, eta teorian %80k gaindituko zuela aurreikusita zeuden edukiak adibidez, Matematika arloan ikaslegoaren %20k gainditzen zituela egiaztatu zuten. Porrota, beraz. Eta hori baliatu zuten Programa Berrituak 1983an bertan behera uzteko.

Dena den, agintera iritsita, garbi zegoen sozialistek jada bazutela buruan hezkuntzaren erreforma berri bat egitea. Alta, 1990era arte ez zen eman hori, LOGSE Legearekin.


Hortaz, Programa Berrituen bizia oso laburra izan zen. Baina, laburtasun hartan, eragina izan zuten, ikastoletako ikasmaterialgintza, *Saioka*, oso baliagarria izanda ere, berritu behar izan zelako Programa Berrituen planteamenduari erantzuteko.



4.4.2. Oinarri proiektua

80ko hamarkadaren hasieran, beraz, egoera asko aldatu zen *Saioka* lehendabiziko aldiz argitaratu zenetik: aldaketa politikoak, ekonomikoak eta sozialak izan ziren, baita ikastoletan ezaguturiko hazkundeak eta aldaketak ere; 1979ko Elebitasun Dekretuarekin, ikastoletan bakarrik ematen zen euskarazko irakaskuntza EAEko eskola publiko eta pribatuetara ere zabaltzen ari zen. . .

1980an bertan, hain zuzen, Xabier Garagorri GIEn hasi zen lanean. “Ni GIEn sartzean, *Saioka* osatu gabe zegoen: OHOk 6. mailara arte zegoen, eta 7. eta 8. mailak bukatzea falta zen. Baina, era berean, Programa Berrituak etorri ziren, eta *Saioka* berritu beharra zegoen. Beraz, nire lana izan zen, batetik, *Saioka* 8. mailara arte



zabaltzea; eta, bestetik, *Saioka* berri-tzea, baina haur hezkuntza ere aintzat hartuz. Horiek izan ziren nire hasierako erronka nagusiak”.

Elkarlanerako saiakera

Bide horretan, Garagorrik proiektu bat aurkeztu zuen, eta GIE-tik saiakerak egin ziren ikasmaterialgintza berria elkarlanean edo lankidetzan egiteko. “Irakasleen Elkarteak, adibidez, indar handia zuen garai hartan. Eta Irakasleen Elkartearekin eta Erein argitaletxearekin lankidetzarako bideak irekitzen saiatu ginen”, kontatu du Garagorrik.

Eta hori berria zen, ordura arte GIEri ez zitzaiolako zilegitasunik

onartzen ikasmaterialak sortzeko. “GIEk eragile papera hartu behar zuen gehiago, gizarteko beste eragileak dinamizatzea. Eragile, beraz, baina ez sortzaile”.

Garagorri GIEn sartzean, ordea, ikasmaterialgintza sortzearen beharra eta bidea urratzen hasi zen Gipuzkoako federazioa, kontzientziatuz irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan ikasmaterialgintza elementu estrategikoa dela.

“Testuinguru hartan, gainera” erantsi du Garagorrik, “federazioa patronaltzat hartzen zen, eta Irakasleen Elkartea ikastoletako profesionalen ordezkari-tzat”. “Baina federazioaren doktrina zen federazioak zirela ikastolen ordezkari-tza. Eta ikastoletan, ordezkari-tza zen hezkuntza komunitate osoa: gurasoak, irakasleak eta langileak”.

Azkenean, GIE ez zen akordioetara iritsi, ez Irakasleen Elkartearekin ez Erein argitaletxearekin. Baina Garagorrik ikasmaterialgintza arloaren gidaritza hartu zuenean, *Oinarri* eta *Haurtxoa* proiektuak sortu ziren. Eta bi egitasmo haiekin osotasuna eman zioten ikasmaterialgintzari: batetik, *Saioka*-ren 8. mailara arteko ikuspegia-ri eutsi zioten; bestetik, haur hezkuntza ere osotasun horren barruan hartu zen.

OHOrako proiektua

OHOrako proiektua zen *Oinarri*. Hau da, derrigorrezko hezkuntza bukatu artekoa, sasoi hartan, 8. mailarekin amaitzen baitzen. Eta, proiektu gisa, *Oinarri*-k *Saioka*-ren iturri beretik edaten zuen: garapenaren pedagogia; haurren indibiduali-

zazioa eta sozializazioa bultzatzen zuen pedagogia; Euskal Herriko kulturaren uztartzen zen pedagogia; eta proiektuetan oinarritutako metodologia globalizatua.

Beraz, *Oinarri* martxan jarri eta hasierako ziklorako, OHOk I. eta 2. mailerarako alegia, materiala ekoitzi zen *Saioka 1* eta *Saioka 2* ordezkatzeko. Material osagarri gisa, halaber, irakurketa eta idazketa metodologia (Jeannot metodoa) kalera-tu zen, eta matematikarako *Baga Biga* testuliburuak, Jesus Mari Goñik eginak.

Baina PSOEek Programa Berrituak indargabetu zituenean, *Oinarri* proiektua bukatu zen. “*Oinarri* 1983-84an atera eta berehala gelditu zen. Eta *Oinarri* proiektuak sendotasuna izango zuen baldin eta erdi ziklora eta goi ziklora arte segitu izan balu. Material berri asko atera genuen, baina *Haurtxoa* izan zen heldutasun unea ekarri zuena”, Garagorriren hitzetan.

4.4.3. *Haurtxoa* proiektua

Euskara eta euskal kultura berreskuratzea eta sustatzea izan ziren, sorreratik, ikastolen helburu nagusiak. Eta 70eko hamarraldiaren erdialdetik aurrera ezaguturiko hazkundearen baitan, ikastolak nonahi zabalduz joan ziren, baita ia euskararen arrastorik ez zegoen lekuetan ere.

Baina, hazkundearekin batera, ikastoletan gero eta haur erdaldun gehiago sartu ziren. Eta horrek aldaketa kualitatibo handia ekarri zion ikastolen jatorrizko izaerari eta helburuari: Hego Euskal Herriko ikastolak euskaraz irakasteko sortu ziren, eta ikaslegoaren gehiengoak euskalduna zuten, baina orduan ama hizkuntza gaztelania zuten hurrez bete ziren. Haur erdaldun haiek haur euskaldunekin nahasten ziren gelatan kasu askotan eta, ondorioz, lehen eginkizun nagusia euskaraz irakastea bazen ere, orain euskara ere irakatsi beharra zegoen.

Aldaketa kualitatibo horri, ordea, ez zitzaion estrategia eta plangintzen aldaketa batekin erantzun, eta ikastolek ordura arteko metodologiari —murgiltze ereduari— eutsi zioten.

80ko hamarkadaren hasieran, hain zuzen, Eusko Jaurlaritzak hizkuntza ereduaren planteamendua abiatu zuen. 1982an, EAJ eta EE alderdien erabateko adostanunarekin, Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Oinarrizko Legean, esaterako, adierazten zen Euskal Autonomia Erkidegoko haurrei hezkuntzaren bidez bermatuko zitzaizela euskara eta gaztelera jakiteko aukera. Eta, lege horren garapen gisa, urtebete beranduago kaleratutako dekretu baten bitartez zehaztu ziren EAEko unibertsitatez kanpoko hezkuntza elebidunaren oinarriak: A, B eta D ereduak.

Horrela, A ereduaren arabera, irakasgai guztiak —euskara izan ezik— gaztelaniaz landuko ziren. B ereduaren, gaztelania eta euskara izango ziren beste irakasgaiak lantzeko hizkuntzak. Eta D ereduaren, irakasgai guztiak —gaztelania izan ezik— euskaraz landuko ziren.

Irakaskuntza ofiziala, beraz, A, B edo D eredueta egin zitekeen eskolaurrean eta Oinarrizko Heziketa Orokorrean, eta A eta D eredueta batxilergoan eta Lanbide Heziketan.

Metodologia berri baten premia

Hizkuntz ereduena sistema, ordea, oso ezberdin bizi izan zen ikastoletan. Batzuek tinko eutsi zioten murgiltze ereduari; beste ikastola batzuetan B ereduaren erabiltzen hasi zen, eta kritika asko jaso zituzten; izan zen, era berean, bestelako formularik aplikatu zuen ikastolarik (%80 euskaraz, %20 gazteleraz)..

“Hizkuntz ereduena sistema indarrean jartze hori ez genuen erosotasun handiz bizi”, dio Xabier Garagorrik. “Arazo nagusia zen nola bideratu eta indartu euskararen bidea transferitutako eskola publikoetan eta eskola pribatuetan. Baina, askotan, hizkuntz ereduena sistema bihurtu zen ikastolen murgiltze ereduaren akatsak zirikatze bidea. Ikastolari orduan egiten zitzaion kritika nagusia zen sorrerako eredu linguistikoa aplikatzen jarraitzen zuela, haur guztien lehen hizkuntza euskarra bailitzan. Ez zela inolako metodologia aldaketarik egin, bestela esanda”.

Beraz, egoera aldatu zen neurrian, premiazkoa zen bigarren hizkuntzaren metodologia berri bat abian jartzea ikastoletan. “Nola euskaldundu jatorriz erdalduna den haur bat? Hori, pedagogikoki, zaila eta konplexua da. Eta hizkuntz ereduena ezarpenak zartzako modukoa eragin zuen ikastolengan, krisi handia sortuz. Ispilu aurrean ikusi genuelako ez ginela hain guapoak, eta bagenuela zer ikasia. Baina krisitik indarberrituta atera ginen, estrategia berria diseinatu genuelako, eta *Haurtxoa* proiektua izan zen horren guztiaren lekuko eta fruitua”.

“Ez genuen ontzat ematen B eredu, eta gutxiago A eredu. Iruditzen zitzaigun murgiltze ereduak izan behar zuela eredu, baina murgiltze eredu horren barnean egon behar zirela erantzun espezifikoak, ikasleen egoeraren arabera erantzuteko. Murgiltze eredu ezin zela zerbait monolitikoa izan, espontaneo, ikastoletakoa guztiz espontaneo zelako”, jarraitu du Garagorrik. “Diseinaturiko estrategia berrian gure eredu izango zen, jakina, ahalik eta denbora gehien euskaraz murgiltzearen aldekoa; %80, gutxienez. Baina hizkuntzaren trataera, eta enborra berdina izan arren, lantzeko erak, garapen erak edo mailaketak ezberdinak izango ziren: askoz ere errazagoa jatorri erdalduna zuten haurrekin, gero, lehen hezkuntzara iristean, denak maila berean eta elkarrekin aritzeko. Azken finean, gizarte kohesiorako eredu zelako *Haurtxoa* proiektua”.

Hezkuntza elebidunaren auziari irtenbidea ematea ez zen izan, edonola ere, proiektu berriaren helburu bakarra. Garai hartan, ikastola kolektiboan garbi zegoen haur hezkuntzari heldu behar zitzaiola ikasmaterialgintzarekin, haur hezkuntzari begira apenas zegoelako ikasmaterialik.

Horrela sortu zen, beraz, *Haurtxoa* proiektua.

Prestakuntza fasea

1982-83 ikasturtean jarri zen martxan *Haurtxoa*, eta lan talde indartsua eratu zen proiektuari begira. Xabier Garagorri bera izan zen koordinatzailea. Euskararen arduradunak, berriz, Josu Zabaleta eta Ramon Etxezarreta; azken hau PSE-PSOeko kide ezaguna da, eta 2009an Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako sailburuorde izendatu zuten. Jesus Mari Goñik, Imanol Urbietak eta Mikel Mendizabalek ere osatu zuten lan taldea. Goñi, matematikaren arduradun gisa; Urbietak, musika eta gorputz mugimenduaren arduradun bezala; eta Mendizabalek, plastika adierazpidearen ardura hartuz.

1982-85 urteetan, berriz, proiektuaren prestakuntza fasea garatu zen, material berria landuz eta sortuz. “Batetik, arlo guztiak prestatu ziren, jatorri bakoitzeko ikasleentzat. Baina, euskarari zegokionez, planteamendu progresibo bat egin zen. Garai hartan, denboraldi estentsiboak eta intentsiboak bereizten genituen. Hizkuntzarako baziren ordu erdiko saio trinkoak, eta horiek ziren denboraldi intentsiboak deitzen genituenak. Hau da, ikuspegi gramatikala zuen programa baten bitartez irakatsiko genion gure hizkuntza haurtxoari”, adierazi du proiektuaren sortzaile eta koordinatzaile izan zen Garagorrik.

Beraz, planteamendua era batekoa zen jatorri euskalduna zuten ikasleentzat, eta beste bat jatorri erdaldunekoentzat. Beti ere buruan edukita 6 urterekin, lehen hezkuntza hastean, haurrak batu egin behar zirela. “Hizkuntz ereduaren planteamenduari, hasieratik bide paraleloak sortuko zirela iritzi genion. Eta gure planteamendua, aldiz, lehenbailehen jatorri euskalduneko eta erdalduneko haurrak uztartzea zen, gero gizartearen elkarrekin bizi behar dugunez, hasieratik elkarrekin ahalegintzeko. Hori zen planteamendua, eta horrela hasi ginen lanean”, Garagorriren arabera.

Esperimentazio fasea

1985ean hasi zen *Haurtxoa* proiektuaren esperimentazio fasea. Baina, hizkuntzarekiko planteamendua eta materiala bera ez ezik, proiektua ezartzeko metodologia ere berritzailea izan zen, proiektua ikastola bakar batzuetan ezarri zelako lehenik, eta ikastetxe parte-hartzaileen sarea edo kopurua handitzen joan zelako gero. “Oso ondo hautatutako bost ikastolekin hasi ginen, begiz jota nituelako bost haiek”, kontatu du Garagorrik. “Batetik, lekuaren arabera hautaturiko ikastolak izan ziren. Leku aldetik, banatuta egon zitezela ikastolak. Baina, bestetik, leku haietan itzala izan zezaketen eta, nire iritziz, funtzionamendurako bermea eman zezaketen ikastolak izatea bilatzen genuen. Azken finean, horrelako prozesu batean hastean, interlokuzio indartsua behar duzulako”. Honako hauek izan ziren, hain zuzen, bost ikastola pilotu haiek: Santo Tomas

Lizeoa (Donostia); Paz de Ziganda (Atrarrabia); Urretxu-Zumarraga ikastola; Txantxiku (Oñati); eta Ikasbide (Donostia).

Eta prozesua arrakastatsua izan zen, erabat, lehendabiziko urtean bost hasi, eta bigarren urtean jada 24 ikastolek eskatu zutelako proiektuan parte hartzea. Hirugarren urtean, berriz, 64 ikastola ziren parte-hartzaileak. Hurrengoan, 92; gero, 101... “Munstro ikaragarria zen, eta ez ginen iristen, urtero materiala berritu eta fotokopien bidez banatzen genuelako”.

Baina ikastoletara ez ezik eskola publiko eta pribatuetara ere zabaldu zen *Haurtxoa* proiektua. 1990-91 ikasturtean, adibidez, 110 eskola izatera iritsi ziren: 90 ikastola, 17 eskola publiko eta hiru eskola pribatu. 486 gela, gutxi gorabehera, eta 10.000 ikasle.

“Oso material aberatsa zen *Haurtxoa* proiektuarena, oso ugaria. Ugarietia ere bai, gero murriztera jo behar izan genuelako”, erantsi du Garagorrik. “Baina, alderaketa bat erabilita, azokan produktu ezberdinak aurkezten genituen, eta irakasleak, sukaldatu beharrekoaren arabera, jakin behar zuen zein produktu aukeratu. Hori zen gure filosofia: irakasleari eskaintza zabala egitea, irakasleak berak hauta zezan. Baina asko kosta zitzaigun hau aurrera eramatea. ‘Ez dugu denborarik’, esaten ziguten irakasleek. Egunerokoak hausnarketarako aukera mugatzen eta oztopatzen zuen”.

Horregatik, *Haurtxoa* proiektuan garrantzia handia eman zitzaion irakasleen prestakuntzari. “Ikasturtean zehar lantzen genuen prestakuntza, era integratuan eta planifikatuan. Esperientziak trukatzeko eta egiten ziren hobekuntzak gorde egiten genituen hurrengo urteko ikasmaterialgintzan txertatzeko. Praktikaren bidez egindako prestakuntza zen, praktikaren inguruko hausnarketaren bidez. Azken finean, gaur egun oso moderno da prestakuntza hori”, proiektuaren burua izan zenaren esanetan.

Arrakasta handia izan zuen, beraz, *Haurtxoa*-k. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan lan egiteko eraren aldetik, une garrantzitsua izan zen ikastolen mugimenduan. Gero, gainera, emaitzak ebaluatzeari ekin zioten. Beraz, oso planteamendu osoa eta sistematizatua zen. Garagorriren hitzetan: “nik esango nuke ez zela izan soilik ikasmaterial berria sortzea, baizik eta ikerketa, garapena eta berrikuntzarako lerro edo sistema bat ere sortu genuela *Haurtxoa*-rekin. Gaur egun hain modan dagoen I+G+(B) termino edo lan joera hori”.

Amaiera

1990-91tik aurrera, ordea, aro berrian sartu zen *Haurtxoa*, eta aldaketa sakona eman zitzaion proiektuaren materialari. Batetik, proiektuarekin izandako eskarmentuaren eraginez. “Hizkuntzaren aldetik bilakaera handia izan genuen: hasierako denboraldi edo ikuspegi intentsibotik ikuspegi komunikatibora egin

genuen salto, beste era bateko hizkuntz programazioak eginez. Ez hain gramatikalak, baizik eta askoz ere komunikatiboagoak. Eta beste estrategiak erabiltzen hasi ginen ipuinak lantzeko eta abar”, azpimarratu du Xabier Garagorrik.

Bestetik, Espainiako hezkuntza sistemaren erreforma gertatu zen LOGSEren (Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea), eta lege berriaren irizpideak kontuan hartu eta txertatu behar ziren *Haurtxoaren* ikasmaterialetan.

Hala, proiektuaren birformulazio antzeko bat egin eta ondo probaturiko material berri hura inprimatzea erabaki zen. Baina proiektuaren hilobia prestatzea izan zen hori. “Inprimatzeak zaharkituta gelditzea dakar, ikasmaterial baten bizitza ezin daitekeelako bost urte baino luzeagoa izan. Inprimatu eta gauza behin-betiko bat egitean, ikasmaterial horren heriotza sinatzen duzu. Beraz, sekretua da etengabe bizirik mantentzea. Gaur egun, *Eleanitz* proiektuan egiten duguna: tiradak neurrira egiten ditugu, beharren arabera, eta materiala beti berria da horrela. Eta hori orduan ikasi genuen”, nabarmendu du Garagorrik.

Horiek horrela, 1993ra arte luzatu zen *Haurtxoa* proiektua. Gero, *Urtxintxa* proiektuak hartu zuen haren lekua haur hezkuntzarako ikasmaterialgintzan.

IKASMATERIALGINTZAN, AITZINDARITZA ETA ITZALA

Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak Xabier Garagorri 1980. urtean kontratatu zuenean, ikastoletako ikasmaterialgintza beste aro batean sartu zen, GIE ikasmaterialgintzaren sortzaile eta erreferente bihurtuz. “GIE n sortzen genuen egitasmo oro ikastolentzako zen. Are gehiago, bestelako eskola sarentzako ere bai, guk oso barneratuta genuelako Konfederazioaren ikuspegi hori. Eman ta zabal zazu zen gure leloa”, azpimarratu du Garagorrik berak.

Baina, haren esanetan, ikasmateriala edukitzea bezain garrantzitsua da material hori nola erabiltzen den. “Kalitate hori irakasleekin zaintzen baduzu, zuk duzu horren bermea. Eta, gainera, nolabaiteko itzala besteen aurrean. Aitzindaritza eta itzala”.•

4.4.4. Bertsolaritza irakaskuntzan

Ikasmaterialgintza bateratzeaz gain, ikastola kolektiboak pedagogia bateratzeari ere hasiera eman zion 80ko hamarkadan, poliki-poliki eraikiz eta osatuz ikastola hezkuntza proiektua. Bertsolaritza ikastoletako irakaskuntzan txertatzea izan zen horren adibidea.

80ko hamarraldiaren hastapenetan, Eskoriatzako (Gipuzkoa) Almen Ikastolako bertso eskolako partaideek Gipuzkoako Ikastolen Elkartera jo zuten laguntza eske, bertsolaritzaren geroa indartzeko asmoz. Gainera, Patxi Goikoelea, Juan Akizu edo Xanti Iparragirre bertsozale haien ustez, bertsolaritza irakaskuntzan sartzea oso onuragarria izan zitekeen ikasleentzat.

GIEk apustuari heldu zion. Batetik, liburu bat prestatzea erabaki zuen, haurrak bertsolaritza ezagutzen joan zitezten. 1981ean kaleratu zen liburu hura, *Bertsotan, 1789-1936* izenburukoa; Juanito Dorronsorok egina zen, eta 1988an *Bertsotan II, 1936-1980* liburuarekin osatu zuten. Bestetik, Gipuzkoako federazioak, 1981eko uztailean, *Bertsolaritza Irakaskuntzan* ikastaroa antolatu zuen Zarautzen, Juanito Dorronsoro bera, Joxerra Etxebarria, Imanol Lazkano eta beste hainbat bertsolari eta bertsozale elkartzuz.

Urte hartako maiatzean, Gipuzkoako I. Eskolarteko Txapelketa egin zen Zabalegi eskolan eta Donostiako Karmelo Baldan pilotalekuan, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta. Bertsolari haiek Aldundiarengana ere jo zuten, bertso eskolatan egiten hasia zen lana plazaratzeko ideiarekin. Euskal Herriko Bertsozale Elkartea oraindik ez zen existitzen, eta bertso eskola bakar batzuk baino ez zeuden. Baina harrobia bazegoela eta hura bultzatu beharra zegoela iritzi zioten ekimena hartu zuten bertsolari eta bertsozale haiek.

1982an, berriz, Juanito Dorronsorok prestatutako *Bertsotan. Irakasleentzako gidaliburua* kaleratu zuen GIEk, ikastoletako irakasleentzako euskarri bat prestatzeko asmoz. Eta, urte hartako otsailean, *Bertsolaritza Irakaskuntzan* egitasmoari jarraipena ematea erabaki zuen Gipuzkoako Ikastolen Elkarreak: proiektu bat prestatu, Aldundiari aurkeztu, haren laguntza jaso, eta lan horretan buru-belarri jarri ziren federazioan.

Proiektu hura martxan jartzeak bi ondorio izan zituen. Batetik, Mikel Mendizabal lanean hasi zen GIEn, bertsolaritza egitasmoaren koordinatzaile gisa. Bestetik, Eskolarteko Txapelketa GIEren esku geratu zen, eta Gipuzkoako Aldundia txapelketaren babesle bilakatu zen. Gaur egun, Mendizabalek ardura berdina dauka GIEn. Haren esanetan, proiektuaren helburua zen bertsolaritzaren ezagutza irakaskuntzaren barruan ematea ikasleei, eta, era berean, bertsolaritzaren erabilera bideratzea gela barruan, erabilera horrek onura batzuk zituelako ikasleentzat. “Baina nola txertatu irakaskuntzan? Gai berezi gisa? Euskara eskolen barruan...? Hasieran ez zen erraza izan. Eta irakasle batzuk ere, bertsozaletasuna zutenen kasuan, haien kabuz hasi ziren”.

Gainera, I. Eskolartekoa soilik ikastoletako ikasleekin egin ez zen bezala, bertsolaritzaren ildo ere ez zen soilik ikastoletara zabaldu, eskola guztietara baizik.

Herrialde guztietara

Gipuzkoan, 80ko hamarraldiaren hasieran, bertsozaletasunak bizpahiru zonaldeetan zeukan indarra: Leintz haranean, Zumaia inguruan eta Hernani-Oiartzun inguruan. Estreinakoz Karmelo Baldan jokaturiko Eskolarteko Txapelketak, ordea, arrakasta handia izan zuen, eta bertsozaritza irakaskuntzan integratzearen ildoan herrialde guztietara zabaldu zen, eta txapelketa berriak sortu ziren.

Bizkaian, esaterako, 1984ko ekainean I. Eskolarteko Txapelketa egin zen, Jon Lopategi urte berean hasia zela koordinatzaile. 1985ean, berriz, Abel Enbeita hasi zen bertsozaritzaren arduradun gisa Arabako irakaskuntzan, eta Lontxo Aburuza Nafarroan. Eta Iparraldean ere lehen urratsak eman zituzten orduan, Xanti Iparragirreren eta beste batzuren eskutik; gero segida izan zen Bertsozale Elkarteak edota Karlos Aizpuruak egindako lanarekin.

80ko azken urteetan, berriz, bertsozaritzari buruzko lehen ikasmaterial pedagogiko eta programatua kaleratu zuen Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak, gaiari buruz zegoen hutsuneari erantzuteko asmoz: 1988an argitaratutako *Bertso tren* izeneko liburuxka, OHOk 3-4 mailetarako; 1989an kaleratutako *Bertso galaxia*, 5-6 mailetarako; eta 1990ean kaleratutako *Bertso ostatua* liburuxka, 7-8 mailetarako. “Taldetxo bat eratu genuen, Joxerra Gartziarekin, Antton Kazabonekin... 1986an sorturiko Bertsozale Elkartearekin ere elkarlanean hasi ginen, eta horrela sortu zen material hura”, Mendizabalen esanetan. “Bertsozaritza irakaskuntza barruan txertatzen eta bideratzen zen era horretara, hori zelako, esan bezala, helburua”, gehitu du.

“Baina, era berean, zaletasun gehiago edo aparteko sena zutenentzako bertso eskola asko sortu ziren eskolatik kanpo; eskola orduz kanpoko ekimen gisa, eta batbatekotasuna lantzeko. Beraz, beste sare bat sortu zen hor, bertso eskolena. Bertsozaritza irakaskuntzan txertatzeak aparteko eragina izan zuelako tokian tokiko bertso eskolak sortzeko”, azpimarratu du Mendizabalek. “Gero, talde-txo haiek Eskolarteko Txapelketara iristen ziren, urtez urte txapelketak eta irakasleekin mintegiak egiten jarraitzen genuelako...”.

4.4.5. Bideogintza

80ko hamarkadaren hasieran, oso modan jarri ziren ikus-entzunezkoak. Punta-puntako joera zen hura, eta bideogintzak, esaterako, ikusmin handia piztu zuen. Hortaz, nahitaez sartu beharra zegoen bideogintzaren bide horretan, eta ikastolak berehala sartu ziren. Beste behin, aitzindari.

1982-83 inguruan, Euskal Telebistak lehen urratsak eman berri zituela, eta euskal merkatuan aurki zitezkeen bideoak eskuarekin zenba zitezkeela, bideo-

gintzari buruzko proiektu bat lantzeari ekin zion Donostiako Ikastolen Elkar-
teak, Donostiako ikastolek berezko erakundea baitzuten orduan.

Eta proiektu hura izan zen, hain justu, DIE eta GIE uztartzeko bidea.

Bi ziren bideo proiektu haren helburuak. Batetik, bideo euskarriaren bitar-
tez erraz barneratzeko moduko edukiak eskaintzea ikastolako ikasleari, haren-
gan ikasteko gogoia sortuz eta pentsamendu kritikoaren garapena sustatuz. Bes-
tetik, ikastolako irakaslegoaren prestakuntzari begira bideoa euskarria izatea,
edukiak transmititzeko baino, irakasleari alde metodologikoetan sakontzeko
aukera eskaintzeko.

Rotu Astrain arduratzen zen proiektuaren alde teknikoaz; edukietan, berriz,
lan handia egin zuen Xabier Portugal irakasle eta zine kritiko pasaitarrak.

Denborarekin, beraz, bideogintza eta ikus-entzunezkoak ere ikastola hez-
kuntza proiektuaren parte eta ikur bihurtu ziren. Ekoizturiko produktuen
zerrenda luzea osatzeaz gain, arlo honetako beste eragileekin elkarlanean ere lan
ugari sortu ziren.

DONOSTIAKO IKASTOLEN ELKARTEA (DIE)

Donostiako Ikastolen Elkarte (DIE) 1983ko maiatzaren 9an sortu zen. Donostiako ikastolen artean beharrezkoa ikusi zen, behin haien maila guztiak garatuta izan ondoren, Lanbide Hezkuntzaren ikastola modukoa eratzea, Lanbide Hezkuntzaren bidea hartu nahi zuten ikasleek hezkuntza eredu berdinean jarraipena izan zezaten. Eta hori izan zen DIE sortzeko arrazoia nagusia.

Lanbide Hezkuntzaren ikastola hura sortzeko aukera Martutene auzoan suertatu zen, fraide batzuek haien seminarioa izandako eraikuntza handia salgai jarri zutenean. Berehala hartu zen eraikina erosteko erabakia, eta haren titularra izango zen eta, era berean, Donostiako ikastola guztiak ordezkatzeko zituen erakundea sortu zen horretarako: DIE.

Une hartan hiriburuan zeuden ikastola guztiak izan ziren DIEko partaide: Aitor, Amasorrain, Arantzazuko Ama, Axular, Herri Ametsa, Ibai, Ikasbide, Intxaurren, Jakintza, Jose Miguel Barandiaran, Mariaren Bihotza, Orixe, Santo Tomas Lizeoa eta Zurriola, hain zuzen.

Baina, halaber, kudeaketa administratibo orokorra betetzea izan zen DIEren beste eginkizun nagusia; hala harremanak Donostiako Udalarekin, nola Kilometroak jaiaren antolaketa... Eta ikasleek gurasoek parte-hartze aktiboa izan zuten DIEren garapenean.

Donostiako Udalak, hain zuzen, Martuteneko eraikintzaren kreditua ordaintzeko ardura nagusia hartu zuen. Baina hitza bete ez zuenez, eta kredituaren interesak tarteko, Martuteneko proiektua zama gaindiezina bihurtu zen hainbat urtez hiriburuko ikastolentzako. Azkenean, Kutxarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin negoziatu zen falta zen ordainketa, eta handik aurrera Martuteneko Lanbide Hezkuntzarako ikastetxea ikastetxe publikoa bihurtu zen.

DIEren eta GIEren arteko harremanak, halaber, ez ziren samurrak izan, DIEren existentzia bera GIErekiko lehia gisa ulertu izan zelako. Azkenean, baina, DIEk abiatutako bideogintza proiektua izan zen bi eragileak uztartzeko bidea edo bitartekoa. 1989ko abenduaren 4an itxi edo desagertu zen DIE, eta haren langile bakarra —Gotzon Mujika— GIEko langile bihurtu zen. •





5.

IKASTOLA EREDUAREN SENDOTZEA (1987-1992)

5.I. AKORDIO POLITIKOA ETA EKONOMIKOA EUSKO JAURLARITZAREKIN

5.I.I. Testuingurua

1986ko udazkenean egonezin handia zegoen ikastolen mugimenduan, hainbat gertaerak eraginda.

Esaterako, ikastolek Eusko Jaurlaritzarekin eta aurrezki kutxekin sinaturiko hitzarmen ekonomikoak bukatu egin ziren orduan, eta kontzertazioaren araudia indarrean sartu zen. Izan ere, 1980az geroztik ikastolek bi motatako diru laguntzak jasotzen zituzten Jaurlaritzaren eskutik. Batetik, irakasle eta langileen gastuak ordaintzeko laguntzak. Garraiorako edota jangeletarako laguntzak ere atal honen barruan zeuden, bai eta eskolaurrea, Oinarrizko Hezkuntza Orokorra eta batxilergorako laguntzak ere, garai hartan batxilergoa oso ikastola gutxi zuten arren.

Bestetik, inbertsioetarako diru laguntzak ere jasotzen zituzten ikastolek: eraikinetarako, lurra erosi ahal izateko... Bigarren finantzazio hau Jaurlaritzak, aurrezki kutxek eta ikastolek parte hartzen zuten hitzarmen ekonomikoaren bitartez egiten zen.

Hitzarmen haiek, ordea, ez ziren betirako, epemuga baitzuten. Eta 1986ko irailean bukatu ziren, LODE Legearen baitako kontzertazioaren araudia indarrean jarri zelako Espainiako Estatuan. Baina, halaber, orduko Jaurlaritzak erabaki zuelako ez zela zuhurra hitzarmenak berritzea, Jaurlaritza berri baten atarian egonda.



Ondorioz, ikastolen egoera aldatu zen: EIKE lege proiektuak eragindako itxaropenetik ikastetxe pribatu kontzertatuen araudi bera edukitzera; ekonomiki, ikastolen araudi ekonomiko-finantzario baino eskasagoa zen.

IKASTOLAK, IKASTETXE PRIBATU KONTZERTATUAK

1986ko udazkenean ikastolak ikastetxe pribatu kontzertatu bihurtu ziren. 1985eko uztailaren 3an Espainiako Estatuan onaturiko LODEK —Ley Orgánica Reguladora del Derecho a la Educación izenekoak; euskaraz, Hezkuntzarako Eskubidea Arautzeko Lege Organikoak— bi araudi aurreikusten zituen irakaskuntza pribaturako: pribatua batetik, pribatu-kontzertatua bestetik. Ikastetxe pribatuentzako aurreikusitako kontzertazio modulo haien bitartez, Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak araudi kontzertaturako dekretua kaleratu zuen, eta 1986ko udazkenean sinatu zituzten ikastolek kontzertazioak jasotzeko hitzarmenak.

Nafarroako ikastolek gauza bera egin zuten, Nafarroako Hezkuntza Sailak hitzarmenerako dekretua kaleratu ondoren.

Kontzertazioak ez dio eragiten ikastetxearen titulartasunari. Ikuspegi juridiko batetik, finantzazio arautegia da ezberdintasun bakarra. Ikastetxe pribatu batek ez du inolako diru laguntza ofizialik jasotzen, baina ikastetxe pribatu kontzertatu batek badu horretarako aukera, hainbat baldintza betetzen baldin baditu beti ere: administrazioarekin lankidetzatza garatzea, pedagogia proiektuaren barruan ezaugarri batzuk bermatzea eta ikastetxearen kudeaketan gurasoak eta ikastetxearen titularrak partaide izango dituen Eskola Kontseilua osatzea.

Gaur egun, ikastolak ikastetxe pribatu kontzertatuak dira, ikastetxe erlijiosoen antzera. •

PSE-PSOE, Jaurlaritzara

Baina, egoera ekonomikoaren kezka gain, ikastolek kezka handiz bizi zituzten 1986ko udazken hartan euskal politikan emandako aldaketak ere. Hasteko, EAJ alderdia hautsi egin zelako 1986an, barne tentsio luzeek eraginda; banaketa haren ondorioz Eusko Alkartasuna (EA) alderdia sortu zen. Eta EIKerekin gertatutakoarekin ondotik EAJren eta ikastolen mugimenduaren arteko harremanak asko gaiztotu ziren arren, EAJ euskal indar abertzale nagusia zen oraindik ere, eta Jaurlaritzaren kontrola zeukan.

EAJren banaketa nahikoa ez, eta zatiketaren ondoren EAEn 1986ko azaroaren 30ean egindako hauteskundeek osagai berria erantsi zuten: estreinakoz, eta EAJ aldeko boto gehien eskuratu zituen alderdia izan arren, PSE-PSOE alderdiak eserleku kopuru gehiago lortu zituen Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan: sozialistek 19 legebiltzarkide lotu zituzten, eta EAJk 17. Lurrikara itzela izan zen hura, politikoki nahiz sozialki.

Hasierako hainbat mugimenduren ondotik, azkenean, 1987ko otsailaren 27an, Jaurlaritza EAJk eta PSE-PSOEek osatu zuten koalizio gobernu gisa, Jose Antonio Ardanza (EAJ) lehendakaria zela. Gobernu egitasmo hartan, hain zuzen ere Euskal Eskola Publikoaren legea egiteko asmoa agertu zuten bi alderdiek, eta Jose Ramon Rekalde sozialista izendatu zuten Hezkuntza sailburu.

Aurrez aurre jarritako *menu* hura irenstea zaila egiten zitzaien ikastolei. Oso zaila. Lehen bakarrik sentitzen ziren, eta orain erasotuak izateko sentsazioa ere bizi zuten. Ondorioz, denbora luzez hausnarturikoa praktikara eramateko ueña iritsi zitzaion ikastolen mugimenduari. Eltzea sutan probatzeko garaia. Edo mugimenduak berak egiten eta gidatzen zuen bere bidea, edo inork ez zuen egingo.

Sukalde lan izugarria eskatzen zuen horrek. Inoiz ez bezalako saltsetan ibili beharra, inoiz ez bezalako errezetak prestatu beharra. Baina sukaldari trebeak zeuden ikastolen mugimenduaren baitan, gero frogatu zuten bezala.

5.1.2. Jaurlaritzarekin akordio politikoa 1987an

J. Iñaki Etxezarretaren esanetan, Jaurlaritza berriaren gobernu programa aztertzean, garaiko ikastola-ordezkariek ondorio batera iritsi ziren Ikastolen Elkartearen: “Bi aukera besterik ez daude: Gobernu berriarekiko aurrez aurreko gatazka planteatzea, edo akordio bat bilatzea”. Eta hasieran gatazkaren bidea hautatu zela aitortu du, “batik bat, alderdi sozialistaren lehen adierazpenen ondorioz ikastolak eskola publikoaren bidera bultzatzen zituztelako. Eta ikastolen gehiengoa, orduko hartan, sare publikoan sartzearen oso aurka zegoen, nahiz eta bakar batzuek ondo ikusten zuten”. “Baina aldi berean”, jarraitu du Etxezarretak, “oso kontziente ginen ikuspegi finantzario batetik oso posizio ahula genuela. Ikastolak larri zeuden, eta ordurako, bakan batzuk – EEPA plataforman zeudenak, bereziki— edonola publiko bilakatzeko prest agertu ziren. Hau da, ikastola batzuek nork bere irtenbidea bilatu nahi zuten, sare publikora pasatuz. Eta hori izan zitekeen, une hartan, odoluste nekoso baten hasiera”.

Horregatik, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastolen federazioetako batzorde ttipi batean eztabaidatu ostean, PSE-PSOEren atea jotzea erabaki zen azkenean. Orduan Urretxuko ikastolaren zuzendaria zen Etxezarretari bidea urratzea eskatu zioten. “1983ko martxoan gogoeta abiatu genuen, eta gero idazkietan jasotakoarekin irtenbidea bilatu behar genuen. Irtenbide hori

planteatzeko garaian, oso garbi genuen ikastolek gure titulartasun juridikoari eta gure finantzazioari eutsi behar ziotela, eta denbora irabazi behar genuela gure ideiak biribiltzeko. Aurreko urteetan egindako lana ikastolak sendotzeko eta ikastolen nortasuna eraikitzeko izan baitzen. Baina aurrean genituenak —sozialistek nahiz oposizioan zeuden beste alderdi batzuek— ikastolak publiko bilakatzea nahi zutela jakin bagenekien: epela, hotza, beroa... baina publiko bihurtzea. Beraz, denbora behar genuen barne gogoeta hori sendotzeko; eta, bereziki, ikastolen mugimendua estrategia baten baitan gorpuzteko eta sendotzeko”, zehaztu du Etxezarretak.

Estrategiaren zehaztapena

Ikastolen mugimenduak, beraz, garbi zuen analisia; ez, ordea, analisi hori aurrera nola eraman. Estrategia zehaztea falta zen.

Ataka hartan, *Autonomía y control de la escuela pública en Europa* izeneko mintegia burutu zen Donostian 1987ko udaberrian, ikastolek antolatuta. Oso arrakastatsua izan zen, eta ez bakarrik Euskal Herriko eragileak zein Europako adituak



bildu zirelako bertan. Gobernu berriarekiko tentsioak jarraitzen bazuen ere, topaketa haren ostean elkarrizketa bide bat zabaldu baitzen Jaurlearitzako Hezkuntza Sailaren eta ikastolen mugimenduen artean. Eta Ikastolen Elkarteko buruek jaso zuten mezu politikoa izan zen gobernuak, bere osotasunean, gogo onez ikusiko lukeela balizko akordio bat Jaurlearitzaren eta ikastolen artean.

Beraz, hasierako egoera ahul eta norabiderik eza hartan, lehen aldiz ikusi zen estrategia bat egon zitekeela eskola publiko berri haren diseinua egin ahal izateko eta, aldi berean, ikastolen ezegonkortasun ekonomiko-finantzarioari zego-kion akordioa egiteko. Eta, gainera, komeni zela biak uztartzea.

ESKOLA EREDU PUBLIKOARI BURUZKO MINTEGIA

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak antolatuta, Eskola publikoaren baitako autonomia eta kontrola European izeneko mintegia egin zen 1987ko apirilaren 9tik 11ra, Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Euskal Eskola Publikoari buruzko eztabaidaren testuinguruan kokaturiko ekimena izan zen hura. Izan ere, Konfederazioak garbi ikusten baitzuen eskola publiko batek —eta kasu honetan, Euskal Eskola Publikoak— autonomia indartsu bat behar zuela, orduko abagune sozioekonomikoa nahiz etorkizunari begirako erronkak kontuan hartuta. “Autonomiak eskatzen du kontrola, kontrol publikoa eta soziala. Eta mintegia antolatu genuen ikusteko bazeudela beste eredu publikoak, bestelako esperientziak; Espainian nagusituriko eredu publikoa jakobinoa zelako, zentralista”, adierazi du Xabier Garagorrik.

Euskal Herriko eragileez gain, nazioarteko maila handiko hizlariak etorri ziren, Josep Maria Domenech unibertsitate irakasle kataluniarraren laguntzarekin: Italiatik, Alemaniatik, Ingalaterratik... Oihartzun handia izan zuen, interes handia piztu zuen, eta arrakasta handia lortu. Hala, eskolaren eredu publikoaz eztabaidatzeko aukera eman zuen mintegiak, eskola publikoan gauzak beste era batera egin zitezkeela frogatuz.

Baina, une hartan ez ezik, ondoren ere eman zuen emaitzarik, beste ekimen baten ernamuina izan zelako. Jardunaldietara etorritakoen artean, alemaniar bat zegoen, Hezkuntza Administrarien Forum Europarreko lehendakaria. Eta, ondorioz, Josep Maria Domenechek, Madrileko Manolo Alvarezek eta Xabier Garagorrik hezkuntza administrarien Forum Europarra sortu zuten. Ofizialki Bartzelonan eratu zen, baina Donostiako mintegian izan zuen sorrera. Garagorri bera izan zen hezkuntza eragile horren Euskal Herriko eta estatuko lehendakaria. •

Eta, horrela, 1987ko udan, taldetxo batek ordu asko eskaini zizkion ikastolen mugimenduaren estrategia bat zehazteari eta, estrategia horrekin batera, mugimenduaren ideiak jasoko lituzkeen balizko akordio baten testua idazteari.

Dokumentu hura kudeatzeko negoziazio mahai bat eratu zen lehen aldiz ikastolen mugimenduaren barruan, eta J. Iñaki Etxezarretari berari egokitu zitzaion mahai hura gidatzea. “Gogoan dut 1987an Zarautzen egin behar zela Kilometroak, eta Hezkuntza sailburuak parte hartuko zuela iragarri zuela”.

PSOeko sailburu batek gisa horretako jaian parte hartzen zuen lehen aldia zen. Eta Kilometroaken aurreko egunetan, elkarrizketa informala izan zuten Rekalde Hezkuntza sailburuarekin, udan egindako dokumentua helarazteko.

Azkenean, Rekalde ez zen joan Kilometroakera. Baina haren kabinete buru Mikel Elorzak jaian parte hartu zuen, eta Konfederazioak prestatu eta helarazitako agiririari buruzko erantzun idatzi bat eman zuen.

“Erantzuna oso epela zen, baina negoziaketarako bide bat irekitzen zuen”, Etxezarretaren arabera. “Han bertan, Kilometroaken baloratu genuen haien erantzuna. Eta gogoan dut bildu ginenon artean ordura arte bide horrekin mesfidati agertu zirenek ez zutela sinesten sozialistak posizio horretan egotea. Gure artean ere tentsioa bazegoen: mahaian eseri eta negoziatzearen aldekoak ginok, eta bide horretan ez sartzea defendatzen zutenak”.

Baina tentsio hura ez zen ematen bakarrik ikastolen mugimenduko ardura-dunen artean. “Sozialistekin harremanetan hasi ginen, eta ikastoletan horren berri izan eta kontrako iritziak sortu ziren *etxe barruan*”, dio Antonio Camposek. “Ikastolak saldu egingo dizkiezue sozialistei”, esaten ziguten ikastola askotan. Garai haietan, askotan biltzen ginen ikastolekin: gaur Elgoibarren, bihar ez dakit non... Eta lan handia egin behar izan genuen kontrako iritzi horri buelta emateko”, erantsi du Camposek.

Eraitza

“Negoiazio haietan, gauza bat ondo egin genuen: ikastoletako diru kontuak ondo lotzea. Hau da, zenbat dirutaz ari ginen ondo jakitea”, gehitu du Camposek berak. “Ikastola batzuetan oso ondo eramaten zituzten kontuak, ikastolako batzordean akaso kontulariren bat zegoelako. Baina beste askotan... uf!”. GIEko orduko diruzain Pablo Muñoa ibili zen buru-belarri horretan, ikastolaz ikastola.

Oztopoak oztopo, negoziatioek aurrera egin zuten, eta hipotesi batean oinarrituta iritsi zen bi aldeen arteko akordioa: agian Euskal Herrian eskola publiko berria eraiki zitekeela, eskola publikoaren eta ikastolen arteko bateratze prozesu baten baitan. 1983az geroztik ikastolen kolektiboak defendatzen zuen tesia zen hori. “Baina hipotesi hori aurrera eramateko, gure taldean tramankulu juridiko bat landu genuen”, J. Iñaki Etxezarretak zehaztu duenez. “Ezagutu genuen jurisprudenzian bazeudela ikastetxe pribatu batzuk, beren ondasunaren titulartasuna gobernuari utzi edo emanaz gero, ikastetxe publikoen tratamendu bera jaso zutenak. Aurrekari horiek bazeuden: Bizkaiko Labe Garaietako eskolak, adibidez. Eta horren arabera egin genuen tramankulua. Ikaragarri lagundu zigun horretan Hezkuntza Saileko aurreko ekipoan, EIKEren garaian, ibilitako legegizon batek, eta horrela osatu genuen diseinu guztia”.



Jaurlaritzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko ikastolen federazioen arteko akordio politikoa 1987ko abenduaren 18an sinatu zen publikoki: Jose Ramon Rekalde Hezkuntza sailburua batetik, eta Jose Mari Rekarte, Sabin Ipiña eta Antonio Campos bestetik, hurrenez hurren Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastolen elkarteen izenean.

“Ibilbide orri bat zen akordioa, hainbat konpromiso tartean”, adierazi du J. Iñaki Etxezarretak. “Prozesu bat adostu genuen, eta haren arabera hiru eginkizun irekitzen genituen. Lehenik, azken helburua: eskola publiko berri bat egingo zen, sare publiko bakarrekoa. Eta sare hori ez zen izango orduan zegoen sare publikoa, ezta ikastolen sarea ere. Sare berri batez ari ginen, irakasle-gorputz berdina edo bakarra izanda bi aldeetan aldaketak eraginez eraikiko zena”.

“Bigarrenik”, jarraitu du Etxezarretak, “adostu genuen eskola publikoetatik eta ikastoletatik egingo liratekeen aldaketak edo ekarpenak lege batean biltzea, helburu horretara iristeko eta tarteko fase hori betetzeko. Prozesuaren lege bat egingo zen, beraz. Guk bateratasun terminoarekin izendatzen genuen prozesu hura, eta hitzarmenean bateratzea erabili zen”.

“Eta adosturiko hirugarren konpromisoa zera zen: eskola publiko berri hori gertatu arte, ikastolei onartzen zitzaieela eskola publikoen kostua izatea. Eta hori kalibratzeko garaian, era berean, ikastolen azterketa bat egingo zela eta kostu erreala ordainduko zela, kalkulua eginda ikastolen kostu erreala, garai hartan, eskola publiko batena baino txikiagoa zela”.

Beraz, bi aldeek adostu zuten ikastoletako langileen, funtzionamenduaren eta inbertsioetarako gastuak EAEko administrazio publikok bere gain hartzen zituela, bere osotasunean, eta gero horri estalpe juridiko bat emango ziotela.

AZKEN UNERA ARTE SINATU GABEKO AKORDIOA

Negoiazio guztiek badute ezkutuko pasadizorik. Eta 1987ko abenduan ikastolek Jaurlaritzarekin sinaturiko hitzarmenak ere badu berea. “Akordioa itxeko azken egunean, ikastola guztiak Donostian zeuden bilduta, gure zain. Eta gu, negoziatzen oraindik”, azaldu du Antonio Camposek. “J. Iñaki Etxezarreta han gelditu zen Paulo Muñoarekin finantzazioaren azken xehetasunak itxeko, eta ni lehenago itzuli nintzen, ikastolei zehatz-mehatz azaltzeko adosturikoa. Baina LAB-ikastoletako ordezkari batek hobeto lotzea nahi zuen atal bat azpimarratu zigun, irakasleen zerrendari buruzkoa uste dut, ordainean Hitzarmenak babes handia jasoko lukeelako”.

“Biharamunean, eguerdi aldera, Gasteizen geldituta geunden, hitzarmenari azken ukituak emateko eta segidan hedabide aurrean sinatzeko”, jarraitu du Camposek. “Baina, goiz-goizean, Etxezarreta eta biok EAJko ordezkariekin bildu ginen Bilbon, bezperan EAJko arduradun batekin horrela hitzartu genuelako, eta haiek ere azken orduko puntu bat sartzea eskatu ziguten. Bidez batez, irakasleen zerrendari buruzko hobekuntza sinatu beharreko akordioan txertatzea begi onez ikusi zutela esan ziguten”.

“Azkenean, berandu iritsi ginen Gasteizera. Han zeuden denak gure zain. Eta guk esan genuen, sinatu aurretik aldaketa bat egin nahi genuela hitzarmenean. Kristorena sortu zen! ‘Baina zertan zabilzate!’, esaten ziguten guztiek. Kazetariak, kanpoan, ordu erdiz zain, eta gu sinatu gabe oraindik. ‘Ondo da, ados, onartzen dugu. Goazen aurkeztera eta gero konponduko dugu’, esan ziguten Hezkuntza Sailekoek. ‘Ez, aurrena sinatu eta gero aurkeztu’, erantzun genien guk. Eta azkenean horrela izan zen”.

Egoerak eragindako akordioa

1987ko abenduaren 18ko hura ikastolen mugimenduak gobernu batekin publikoki egindako lehen akordioa izan zen. Gauza berria zen hura, bai. Are gehiago, alde batean ikastolak eta bestean PSE-PSOE egonik. Baina egoerak bultzatu zituen bi alde horiek akordio bat sinatzera.

Ikastolen mugimenduaren kasuan, behar ekonomiko eta juridikoen ondorioz iritsi zen hitzarmena. “Negoziazioak hasita zeudela, gogoan dut sozialistek esan zigutela: ‘Guk dirua emango dugu, baina zuek publikotasunarantz urratsak eginez gero’”, dio Antonio Camposek. “Horregatik hasi ginen hausnartzen eta prestatzen nolakoa behar zuen Euskal Eskola Publiko berri hark, zein baldintzekin... Eztabaida haren ondorioz gero aurkeztu genuen Euskal Eskola proiektua sortu zen”.

PSE-PSOERI dagokionez, egoera politikoak baldintzatuta sinatu zuen ikastolekin akordioa. EAJrekin osaturiko gobernu hura ahula zen, izan ere, errorer zitekeen, eta erorikoa bilatzen zuten gainerako talde politiko guztiek. Ikastolen mugimendua bezalako erreferentziazko eragile batekin lankidetzan agertzea oso ondo zetorkion, beraz, PSE-PSOERI.

Gainera, sasoi haietan, sozialistek *socialismo vasquista* izeneko ildo edo estrategia jarri zuten abian. Alderdi espainol baten irudiaren aurrean, euskal gizartearekiko hurbilpena bilatu zuen PSE-PSOEk. Ramon Jauregi zen, sasoi hartan, alderdiaren buruetako bat, eta Jaurlaritzaren lehendakariordea. “Ramon Jauregi-rekin harreman ona genuen”, Antonio Camposen esanetan. “Garai hartan, alderdia modernizatu nahi zuten, eta hemen, euskal kutsu bat eman”.

Ikastola ereduaren indartzea

Inguruabarrak edo beharrek eraginda izan bazen ere, ezin uka 1987ko amaierako hitzarmen politiko hura oso gertaera garrantzitsua izan zela ikastolentzat eta ikastolen mugimenduarentzat, ikastola ereduaren indartzea lagundu zuelako. Kanpora begira, ikastolak mugimendu indartsu gisa agertu ziren. Barrura begira, talde edo lidertza sendo bat indartu zen federazioetan; eta, ikastola batzuk haien ondasunak uztearen kontra agertu arren, batasun ideologiko handia lortu zelako, eta sektore guztiak batu egin zirelako. EIBko (Eusko Ikastola Batzako) ikastolak izan ziren akordio hartatik kanpo gelditu zirenak, ez baitzuten hitzarmena babestu.

“Negoziatu genuen testu edo akordio haren baitan, nik esango nuke ikastolek 1982-83tik egindako planteamendua islatu genuela”, dio J. Iñaki Etxezarretak. “Leial izan ginen hasitako eta egindako bidearekin. Eta, leialtasunez gain, sinesgarria zen mahai gainean jarri genuena, gero borondate politikoak

emango zuena emanda ere. Sinetsita geunden prozesu hura aurrera eramanez gero ondo beteko genuela”.

Baina, Etxezarretaren beraren esanetan, “agian ikastoloi ere eskarmentua falta zitzaigun. Guk dokumentu estrategiko bat egin genuen bai, baina taktikek asko eragiten eta baldintzatzen dute edozein prozesu. Gobernuak eta guk ados-turiko dokumentuak bide bat markatzen zuen, baina haren kudeaketa Jaurlari-tzaren esku gelditu zen; beste batzuen borondatearen baitan, alegia”.

“BATEGINIK” KANPAINA

1988ko martxoaren 11n, Ikastolen Elkarteak eta Euskararen Kultur Batzarreak (EKB) Bateginik izeneko kanpaina aurkeztu zuten Bilbon. Urte bereko maiatzaren 15era arte luzatu zen. “Europako Legebiltzarrean euskararen presentzia eta, nolabait, ofizialtasuna aldarrikatzeko jarri zen martxan kanpaina hura,” adierazi du J. Iñaki Etxezarretak. “Proposatu ziguten ea zergatik ez zen martxan jartzen mobilizazio zibil herritar bat, gero euskararen presentzia Europako instituzioetan bultzatzeko asmoz. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa sortu berria zen orduan, eta mobilizazio berezi bat egin nahi genuen ere Nafarroako eta Iparraldeko ikastolen alde, behar handiak zeudelako ikastola berriak sortzeko eta beste batzuk oso egoera ezegonkorrean zeudelako”.

Bi helburuak uztartzeko garaian, diseinu bat egiten hasi eta Ikastolen Elkarteari proposatu zioten kanpaina EKBrekin antolatzea. EKB orduko euskalgintzan lan egiten zuen talde bat zen, eta urratsa eman eta bi eragileek kanpaina erraldoia jarri zuten martxan.

Hala, Euskarak eta ikastolak mugarik ez, Euskaraz Bizi edota Euskara gure hizkuntza nazionala leloak erabiliz, Euskal Herrian barrena ekimen ugari burutu ziren kanpainaren baitan; besteak beste, Euskadi-Tottenham futbol partida San Mamesen, maiatzaren 10ean.

Kanpainak arrakasta handia lortu zuen iritzi publikoari begira. Baina barnean ez zen esperientzia ona izan, Etxezarretak dioenez. “Ez zen erraza izan hura kudeatzea. Ikastolen Elkartearen eta EKBren arteko harremana ez zen sendoa izan, tamaina hartako kanpaina batek behar zuen neurrikoa ez behintzat, eta saio hark Ikastolen Elkarteak geroko urteetan sortu ziren beste ekimenekiko hartu zuen jarrera izugarri baldintzatu zuen”. •

5.1.3. 1988ko Bateratze Legea

Ikastolek protagonismo sozial handia hartu zuten 1987an, Jaurilaritzarekin sinaturiko akordioa tarteko. Baina protagonismo hura ez zen denen gustuko; ez ikastolen kolektiboko sektore batzuentzat —horrelakoetara ohituta ez zeudelako—, ez alderdi politiko gehienen begietara. Izan ere, lehen aldiz, ikastolen mugimendua pasatu zen errukia merezi zuen talde bat izatetik, bere buruaren jabe eta akordioak zuzenean egiten zituen eragile autonomoa izatera. Hau da, 80ko hamarkada hasierako “egin dezagun ikastola hauekin zerbait” hartatik, “kontuz, nor dira hauek” pentsatzera. Ikastolen zeregina aldatu zela bistakoa zen.

“Baina, balantzaren beste aldean, horrek gure harrokeria ekarri zuen”, erantsi du J. Iñaki Etxezarretak. “1983an abiatutako barne gogoetak, gure buruaren jabe hartze horrek, gailur instituzionala hartu zuen hor. Eta gure lekua zein zen neurtu beharrean, iruditu zitzaigun geure burua guztiz ahalduna zela une batzuetan. Eta horren ondorioz une batez iparra galdu genuen. Oso berandu arte ez ginen konturatu benetan zer zen akordio bat gobernuarekin, zeinekin eta sozialistekin, egitea, eta horrek agerian uztea estrategia propio bat, ez alderdi politikoena; edo sindikatuekin akordio autonomoak egitea gure lan hitzarmenaren bidez... Hau da, ikastolen mugimendua, bat-bateko mugimendu izatetik mugimendu antolatua izatera pasatu zenean —eta orduan eman zen hori: 1986-87-88an—, politikari eta sindikatu gehientzat gustuko ez zen zerbait bilakatu zen. Eragile deseoroso bat”.

“Alderdi orenen mesfidantza piztu genuen, inori ez zion grazia handirik egin”, adierazi du Antonio Camposek. “Zergatik? Orduko gizartean, alderdi politikoek erreparoa agertzen zuten gizarteak antolatutakoaren aurrean, hain zuzen ere hura haien eginkizuna zela uste zutelako. Beraiek egindakoa, ondo; baina alderdiaren kanpotik sortuz gero, horrek beldurra eragiten zien. Moldea hautsi genuen, eta gaur egun normalago ikusten dena orduan heterodoxoa zen.”

“Egia da arazoak genituen bakoitzean, alderdietako buruzagiengana, eta bereziki EAJ-koengana, laguntza eske jotzeko ohitura landu zela 80ko hamarkadaren hasieran. Baina egia da ere ezin genuela harreman estu bat lortu. Behin baino gehiagotan saiatu ginen, eta guk hori nahi genuen. Baina haiek ez. Ez ziren gurekin fio, beldurra eta mesfidantza zuten gurekiko”.

Baina, Etxezarretaren ustez, gizarte-erakunde baten eta alderdi politikoen arteko mesfidantza baino zerbait sakonago eragin zuten bi gertaera nagusi izan ziren 1988. urteko lehen hilabete haietan. Batetik, 1988ko urtarrilaren 12an sinaturiko Ajuria Eneako Itunak ekarritako ondorioak: Eusko Jaurilaritzaren posizioa sendotzea; indarkeria politikoa babesten zuen ezker abertzalearekiko marra bat ezartzen zuen alderdi-bloke bat eratzea; eta, aurrekoaren harira, Ikastolen Elkarteak molde berriaz kudeatzen zituen ekimenak susmopean jartzea.

Eta, aldi berean, alderdi sozialistaren barruan norabide aldaketa eman zen. “Ramon Jauregik adierazi zigun sozialisten *vasquismoaren* mugimendua ez zela posible izango. Alderdiaren barruan egin zituzten barne-kontsultetan eta gizarte arloko galdeketetan jasotako emaitzek erakusten zieten ez zela bideragarria: ez hautesleei begira ez alderdi barruko militantziak zuen sentiberatasunagatik. 1988ko otsaila inguru hartan esan zigun hori, eta horrek 1987ko abenduaren 18ko akordioaren ibilbidean sekulako eragina izan zuen.”, gehitu du Etxezarretak.

Desadostasun sakona

1987ko abenduaren 18ko akordioan jasotzen zenez, Euskal Eskola Publikoaren Legea egin aurretik, bitarteko lege-proiektu bat egin behar zuen Eusko Jaurlaritzak: Bateratze Legea edo *Ley de Confluencia* izenekoa. “Oso gutxi hitz egiten da beti lege horretaz, baina oso garrantzitsua zen”, dio Antonio Camposek. Dirudienez, PSE-PSOEn aldetik ez zegoen gogo handirik hartutako konpromisoa betetzeko. “Nik uste dut behartu egin genituela lege hori egin behar izatera. Azken finean, horrek esan nahi zuelako gu bagindoazela eskola publikorantz, baina ez ordura arte zegoen eskola publiko sarerantz. Bateratze bat egon behar zuen, alde bakoitzean aldaketak eginez eta alde bakoitzaren gauza onak jaso, Euskal Eskola Publiko berria eraikitzeko”.

Prozesua babesteko legea zen hura beraz, eta tarteko lege hark bi titulu edo zati izan behar zituela adostu zen. Lehen tituluak orduko eskola publikoan eta Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko ikastoletan egin beharreko aldaketei babes juridikoa ematen zien. Bigarren tituluak —*Titulo habilitante para la financiación de las ikastolas* izenburua zuen—, EAEko administrazio publikoari aukera emango zion ikastolei finantzazio berezi bat emateko: ikastolen gastu errealak estaltzeko adinakoa behar zuen.

1988ko otsail inguru hartan, ordea, Rekalde Hezkuntza sailburuaren taldeak ikastoletako buruei jakinarazi zien Bateratze Legearen lehen titulua ez zela martxan jarriko, argudiatuz alderdi sozialistaren barruan ez zegoela behar bezalako adostasunik eskola publikoaren barruan egin beharreko aldaketak egiten hasteko. Alderdi sozialistak ez zuen, beraz, bi hilabete lehenagoko akordioa errespetatu, garaiko eskola publikoaren eredia ez ukitzeko erabaki irmoa zegoelako. Eskola publikoa ukiezina zen. Ondorioz, lehen titulua ezabatu eta Bateratze Legea soilik ikastolen finantzaziorako lege proiektu gisa aurkeztu zen.

Lege proiektu hura, gainera, oso azkar tramitatu zen Eusko Legebiltzarrean. EAJ alderdia, Jaurlaritzako beste bazkidea, prest zegoen legea termino horietan onartzeko, ikastolei babes ekonomikoa ematen zitzaielako eta, halaber, Euskal Eskola Publikoaren Legearen eztabaidari begira denbora irabazten zelako.

Ikastoletan, berriz, hasieratik oso kontziente izan ziren legea era horretan onartzea iruzurra zela. “Lege proiektuari kontra egin genion kalean eta komu-

nikabideetan, titulu bat falta zela salatuz”, azpimarratu du J. Iñaki Etxezarretak. “Eta guk legeari oposizioa agertu genion neurrian, PSOE asko poztu zen. ‘Oso ondo, legea ez da ateratzen’, pentsatu zuten. Egoera hartan, EAJ oso urduri jarri zen: legea haiena ere bazen, gobernuan zeudelako, baina oposizioaren babesik gabe, eta legearen hartzailea —ikastolak— aurka egonda onartuko zen. EIKE-rekin gertatu zen bezala, beraz. Eta tentsio handia sortu zen orduan”.

Ikastolen kolektiboak orduan erakutsitako jarreraz autokritika egin du Etxezarretak: “Esan beharrean nago gu ez ginela oso azkarrak Legebiltzarreko gaietan, kultura parlamentarioa ez genuelako. Mundu hartatik kanpo geunden, eta benetan oso ezezaguna egiten zitzaigun mundu hura. Ez genekien gaur egun lege tramitazioari buruz dakiguna, eta oso jarrera defentsiboa izan genuen. Eta 1987an EAJrekin lortutako harreman onak okertu egin ziren 1988an, EAJko EBBn hezkuntza gaien arduradun izendatu zenetik, hain zuzen ere”.

Legea onartzeko atarian, bilera

1988ko ekainaren 28an, EAJren eta ikastolen arteko bilera egin zen Gasteizen, Arabako Ikastolen Elkarteak orduan Extremadura kalean zuen egoitzan. Asteartea zen, bateratzearen lege proiektua Legebiltzarrean onartu behar zen egunaren bezpera. Bilera ez zen publikoa, baina kazetari ugari bildu zen AIEren egoitzaren kanpoan. Barruan, alde batean, EAJko ordezkariak: Luis Mari Bandres, Txomin Aurrekoetxea eta Sabin Ipiña, sasoi hartan Bizkaiko Ikastolen Elkartearen lehendakaria ere bazena. Beste aldean, J. Iñaki Etxezarreta, ikastolen negoziazio arduraduna. “Lege proiektuaren paperean jasotzen zena onar nezan eskatuz etorri ziren hirurak”, Etxezarretaren esanetan. “Gure helburua zen istilu gehiago ez sortzea, giroa, ordurako, gaiztotzen hasia baitzegoen. Beraz, lege hura onar zezatela konbentzitu nahi genuen ikastolen mugimendua”, azaldu du Luis Mari Bandresek.

Hainbat kontsulta egin ondoren, azkenean lege-proiektuaren testua bere hartan onartu zuen Ikastolen Elkarteak, baina osteko hitzarmen-negoiazioan EAJren babes handiagoa izatearen truke, Etxezarretak dioenez. Izan ere, lege proiektuaren testuari jarraiki, legeak Jaurlaritza derrigortzen zuen ikastolekin hitzarmen ekonomikoak negoziatzera, eta testuinguru horretan Ikastolen Elkarteak indarrik handiena egitea aurreikusi zuen.

Legearen onarpena

Ezusteak, baina, ez ziren desagertu. Biharamunean, 1987-88 ikasturte politikoaren azken osoko bilkuran, Bateratze Legea bozkatzekoa zen Legebiltzarrean. Baina egun hartan bertan *El Diario Vasco* egunkarian argitaratu ziren Antonio Camposen adierazpenak hautsak harrotu zituen: “Camposek positibo-

tzat jo du proiektua ikastolentzat, baina nahiago zuen EAren testu alternatiboa”. Hura irakurrita, Ikastolen Elkarteko gainerako arduradunak zur eta lur gelditu ziren. Adierazpen haiek Legebiltzarreko saioa ere baldintzatu zuten, *El Diario Vasco* berak bozketaren biharamuneko edizioan aitortu bezala.

“Nik ezin izan nuen joan egun hartan Legebiltzarrera, lanean ez zidatelako baimenik eman. Eta adierazpen haiek argitaratzean, gogoratzen naiz ondorengo egunetan *egur* asko eman zidatela komunikabideetan. Mikel Atxagak, bereziki. Horrelakoetan, gertatutakoa irentsi eta aurrera; ez dago besterik”, adierazi du Antonio Camposek.

Euskal kazetaria, idazlea eta itzultzailea izan zen Mikel Atxaga, eta hainbat euskal kazetari belaunaldiren maisutzat jotzen dute. 2009ko irailaren 10ean zendu zen, bere ibilbidean zehar hainbat sari jaso ondoren.

Azkenean, 1988ko ekainaren 29 hartan, EAJren eta PSE-PSOEn aldeko botoekin onartu zen Bateratze Legea. Legeak, beraz, gobernua osatzen zuten alderdien babesa baino ez zuen jaso. Bozketa saioan, Rekalde Hezkuntza sailburuak funtsezkotzat jo zuen legeak zabalduko aldi baterako prozesua, “sare publikoaren eta ikastolen bateratzera iristeko, elkarbizitzarako beharrezko jardun gisa”. EAJko legebiltzarkide Luis Mari Bandresek, aldiz, ukatu egin zuen ikastolei pribilegiozko tratua ematen zitzaizela. “Ikastolen egoera ekonomikoari irtenbide bat eman behar zaio”, esan zuen Bandresek osoko bilkuran.

Oposizioko taldeak, ordea, abstenitu egin ziren bozketan; argudio nagusia izan zen ikastolei abantailezko tratua ematen zitzaizela berriro. Bateratze prozesua, adibidez, “kontraesankorra” eta “urardotua” zela adierazi zuen EAko Inmaculada Bonetak.

Euskadiko Ezkerrako Xabier Gurrutxagak, berriz, ezbaian jarri zuen legeak zabalduko aldi baterako epearekin ikastolen eta Euskal Eskola Publikoaren arteko bateratzerik emango zela.

“Ez dugu bateratzean sinesten, eta ez dugu espero horrelakorik gertatzea”, adierazi zuen, bestetik, Alianza Popularreko —gaur egungo PP— Jose Manuel Barquero legebiltzarkideak. Barquerok Jaurlaritzari leporatu zion “presio talde bati eragiten uztea”, “oso kualifikatua izanda ere, oso txikia baita”.

HBk, aldiz, ez zuen bozketan parte hartu, Legebiltzarrean iraunkortasunez eta normaltasunez jarduteari uko egiten baitzion orduan. Legebiltzarraren osoko bilkura hasi aurretik, eta Antonio Camposen adierazpenek eragindako nahastea argitze aldera, Ikastolen Elkarteko negoziazio buru Etxezarretak Bateratze Legeak ikastolen mugimenduaren babes osoa zuela nabarmendu behar izan zuen Legebiltzarrean bertan egindako prentsurreko baten bitartez.

Izan ere, *El Diario Vasco*-n argitaratutako albiste hura, “gure eskarmenturik ezaren lekuko argia izan zen” J. Iñaki Etxezarretaren aburuz, “ikastolen gaia manipulatzeke joeraren adierazlea. Antonio Camposi prestatutako segada bat izan zen”.

“Azken finean, interes politiko guztien gaintetik dantzaten ikasi behar izan dugu”, erantsi du Camposek. “Akatsak izan ditugu, noski, denok bezala. Baina argi esan dezaket geure izaera independenteari eutsi diogula, inoiz ez garela alderdi politiko baten esanekoa izan. Gu, beti, gure ikastola-proiektuarekin aurrera!”.

PSE-PSOE ALDERDIAREN JOKALDIA

PSE-PSOEek zergatik egin nahi zuen hain azkar ikastolak finantzatzeko lege bat, ikastolek beraiek horrenbesteko premiarik ez bazuten? “Askotan galdetu diot nire buruari hori”, erantzun du J. Iñaki Etxezarretak. “Nik uste dut EAJk onartu zuela eskola sare publikoa ez ukitzea, sozialistek nahi zuten bezala. Baina, era berean, EAJk sozialistak presionatu zituela lege hura onar zezaten, Rekalde Hezkuntza Sailburuak ez zuelako uste gu iritsiko ginela legea onartzera, eta beraz, pentsatzen zuelako legerik ez zela egongo eta 1987ko akordioaren aurreko egoerara itzuliko ginela”.


Aldez, ikastolek Bateratze Legea onartzekotan, “sozialistek legea onartu baino beste erremediorik ez zuten. Eta aukera hori baliatu nahi zuten ikastolak mediatikoki higitzeko, egin zuten bezala: ikastolek iruzur egin geniela, soilik dirua bilatzen genuela, bateratzerik ez genuela nahi...”.

Eta azkenean, ikastolen mugimenduak Bateratze Legea termino haietan onartu zuten. “Eta sozialistei ondo atera zitzairen jokaldia”, Etxezarretaren hitzetan: “Hau da, vasquismoaren mugimendua desaktibatu egin zuten eta alderdiaren betiko arauen arabera jokatzen hasi ziren berriro”.

5.I.4. Bateratze Legearen garapenerako akordioa 1989an

1988ko ekainean onarturiko Bateratze Legea, beraz, ez zen hasiera batean sozialistek eta ikastolen ordezkariak adosturikoa. Ikastolei ekonomikoki tratamendu berezia emateko legea baino ez zen. Baina tratamendu hura arautu beharra zegoen, hainbat hitzarmenen bitartez. Eta Bateratze Legea udako oporren atarian onartu zenez Legebiltzarrean, Hezkuntza Saileko eta ikastolen mugimenduko ordezkariak 1988-89 ikasturtearekin batera ekin zioten legearen garapenerako akordioaren negoziazioari.

Baina, berriz ere, oso negoziazio luzeak izan ziren bi aldeen artean. Eta 1989ko urtarrilaren 20ko goizaldera arte ez zen akordioa lotu. J. Iñaki Etxezarretak gogoratu duenez, Mikel Badiola ikastolen aholkulari juridikoak eta biek jardun zuten horretan. “Baina oso-oso gogorra izan zen. Pentsa, hamaika aste



negoziatzen eman ostean, azken txanpan ari ginela, aste batean soilik 15 ordu lo egin genuen, eta leher eginda geunden. Neke fisikoagatik irabazi genuen. Urtarrilaren 19an bildu ginenean, Hezkuntza Sailaren ordezkariak osatzen zuten hiru lagunetatik (bi sailburu orde eta kabinete burua) kide bakarra zegoen urtarrilaren 20ko goizaldean, Azpeitian eta Donostian San Sebastian eguneko danbor hotsak entzuten zirela. Haien negoziazioburuak esan zigun: 'Bakarrik geratu naiz mahaian'. Oso-oso gogorra izan zen".

Negoiazio haietan lortu zen, gainera, ikastola guztiek ondasuna utzi behar ez izatea Jaurilaritzaren finantzazio berezia lortzeko. Gai horrek eztabaida eta gatazka handia eragin zuen ikastolen artean, ikastola batzuk horren kontra agertu zirelako hasieratik. Antonio Camposen hitzetan, "ikastola handien artean jarrera hori zegoen; ondasun handia zuten, kostata lorturikoa: Santo Tomas Lizeoa, Asti Leku... Eta ulertzekoa zen haien argudioa. Hau da, *abentura* batera sartzeraz gindoazen, eta ez genekien nora eramango gintuen".

Santos Sarasolak, ordea, oso bestelako iritzia du. "1987ko abenduko akordioa eman zuen negoziazioetan klausula bakar batez erabakitzen zen ikastolak ondarea utzi behar genuela, eta administrazioak jasoko zituela eraikuntzak eta instalazioak, baita kredituak eta zor guztiak ere. Horrekin batera, administrazioak bere gain hartzen zituen eraikuntzen mantentzea eta zabaltzea, horrela behar izanez gero. Eta ondareaz eta egituraz handiagoak eta sendoagoak izan

bai baina zorrak eta kredituak ere genituen ikastola batzuek” azaldu du Sarasolak, “klausula bakar harekin ez genuen aukerarik ikusten etorkizunean ikastola ereduaren jarraipena aukeratzeko, administrazioak irentsiko gintuela aurreikusten genuelako, eta egoera hori geuk onartua zela ikusten genuelako”.

“Ondarea uztearen kontra egoteko arrazoia nagusia, beraz, horixe izan zen”, jarraitu du Santos Sarasolak. “Ondarea utzita, arriskuan ikusten genuen ikastola ereduari eustea. Ez zitzaigun atsegin eskola publikoaren eredu funtzionala; ikastolaren hasierako helburuak ez zirela zainduko iritzi genion, eta autonomia nahi genuen kudeaketan, arlo pedagogikoan, arlo ekonomikoan eta lan arloan. Batez ere, irakasleak aukeratzeko autonomia nahi genuen, ikastolaren ereduaren funtsezko oinarria baitzen hori”.

Baina, esan bezala, Bateratze Legearen garapenerako akordioaren negoziazioan bi klausula ezarri ziren azkenean: alde batetik, ondarea uzteko aukera ematen zien ikastolei, tratamendu ekonomiko hobea jasotzearen truke; bestea, ondarea utzi behar izan gabe sinatzen zen hitzarmena, eta eraikuntza, instalazioak eta horien mantentzea eta hornitzea ikastolaren kontura geratzen ziren.

Izugarria

Negoiazioak urtarrilaren 20an itxi baziren ere, ikastola bakoitzak 1989ko maiatzean sinatu zuen Bateratze Legearen garapenerako akordioa. Hitzarmen hari jarraiki, ikastolek bi onura nagusi izan zituzten: aitortza ofiziala eta gastu errealean finantzazio publikoa. Azken horren ondorioz, inoiz ez bezalako dirutza jasotzen hasi ziren ikastolak, hitzarmenak eranskin ekonomikoa zekarrelako ikastolentzat. Hau da, kontzertazioaren bidez jasotako finantzazioaz gain, bestelako diru laguntza.

“Diru kopuru izugarriak jasotzen genituen, eta gu ez geunden ohituta horrelako diru kopuruak izatera eta kudeatzera. ‘Zer da hau?’, galdetzen genuen, harrিতuta”, azaldu du Paulo Agirrek.

“Izugarria izan zen lorturikoa, bai”, J. Iñaki Etxezarretaren esanetan. “Patrikak beteta genituen. Eta une batzuetan, iritsi ginen kobratzera eskola publikoek baino soldata zertxobait handiagoak, ikastoletako irakasleek lanordu gehiago sartzen zituztelako. Eta jakina, horren arabera, lan hitzarmenak ere oso onak ziren. Ikastolen federazioek ere lehen aitortza ofiziala jaso zuten, pedagogia-hitzarmenen bidez. Nire ustez, Ikastolen Elkartearen ibilbidean giltzarri izan ziren”.

Horri esker, ikastolek inoiz ez bezalako arnasa hartu zuten orduan. Ez soilik dirutan, baita matrikulazioan ere, hurrengo bizpahiru urteetan izugarri handitu baitzen ikastolen matrikulazioa. Ikastolen kolektiboak lidergoa zuen negoziazio politiko-ekonomikoetan, lidergoa berrikuntza pedagogikoan, eta lidergoa gizartean.

HERRI INTERESAK HELBURU

1987ko akordio politikoa, 1988ko Bateratze Legea eta 1989ko hitzarmen ekonomikoa multzo bat bezala hartu behar dira, akordio estrategikoa izan zelako 1987koa. Lehen aldiz, botere publikoaren eta gizarte erakunde baten artean ibilbide adostua egiten saiatu ziren.

Baina, aldi berean, zapuzturiko saio bat izan zen, berriz ere ikusi zelako hezkuntza gaietan interes politikoak, sarriegi, sektorearen interesen gainetik egoten zirela. Eta kasu hartan, estatuaren interesak eta horiek defendatzen zituzten alderdi politikoarenak —beraz, bi interes— sektorearen interesen gainetik zeudela.

Ikastola kolektiboak 1987ko akordioa sinatu zuenean, aldiz, herri interesak zituen helburu. Hau da, garaiari eta etorkizunari erantzungo zion eskola eredu berri bat eraiki nahi zuen ikastolen mugimenduak; ez ikastola ez orduko eskola publikoa izan gabe ere ikastolen eta orduko eskola publikoaren zenbait ezaugarri izango zituena. Baina inobilismoa nagusitu zen berriro. Eta egoera hura berritzeko interesa zuenari —ikastolen mugimenduari—, berriz, soilik bere interes ekonomikoaren arabera mugitzea leporatu zitzaion. •

5.2. HITZARMEN BERRIA IPAR EUSKAL HERRIAN ETA BATERATZEAK NAFARROAN

5.2.I. Testuingurua

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastolek Eusko Jaurlaritzarekin akordio politikoa eta ekonomikoa sinatu zuten, baina egoera arras ezberdina bizi zuten Ipar Euskal Herriko nahiz Nafarroako ikastolek. Frantziako Gobernuak eta Nafarroako Foru Diputazioak oraindik ukatzen zieten ikastolei zegokien eta zor zitzaien aitortza publikoa, eta, ondorioz, baita horren arabera finantzazioa ere. Ondorioz, tokian tokiko gobernuekin negoziatzen jarraitzera behartuta zeuden Seaska eta Nafarroako Ikastolen Elkarteak.

Ipar Euskal Herriko ikastolek, esaterako, akordio berria sinatu zuten 1985ean Frantziako Hezkuntza Nazionalarekin edo Ministerioarekin. Seaskako irakasleak Hezkuntza sarean integratzeko akordioa izan zen; irakasleak, ez ikastolak. Haren arabera, Frantziako Estatuak ordainduko zien Seaskako irakas-

leei, urteko aurrekontuetan diru partida bat erantsiz horretarako. Ikastoletako irakasleei ez ezik, Okzitaniako, Kataluniako, Britainiako eta Korsikako eskoletako irakasleei ere ordainduko zieten horrela.

1985eko abenduaren 17an onartu ziren, hain zuzen ere, Frantziako Gobernuaren 1986ko aurrekontuak. Baina bi egun geroago, hainbat diputatu eskuindarrak aurrekontu proiektu haren kontrako helegitea aurkeztu zuten, Frantziako Gobernuak iragarritako diru saila eskola pribatuentzako zela argudiatuz, iritzi baitzioten diru sail berezi hura eranstea konstituzioaren kontrakoa zela. Abenduaren 21ean bertan, Frantziako Auzitegi Konstituzionalak atzera bota zuen aurrekontu legea. Ondorioz, Seaskaren eta Hezkuntza Nazionalaren arteko akordioa bertan behera gelditu zen, indarrean sartu gabe.

5.2.2. Seaskaren eta Frantziako Hezkuntza Nazionalaren arteko hitzarmena 1989an

1986ko martxoan, diputatuen ganberarako haustekundeak egin ziren Frantziako Estatuan. Alderdi sozialistaren ordeztu, eskuindarrek lortu zuten gehien-goia. Mitterrandek Frantziako presidente jarraitu arren, Jacques Chirac izendatu zuten lehen ministro. Eta Chiracek berak Michelle Alliot-Marie hautatu zuten



Hezkuntza Nazionaleko idazkari nagusi. Alliot-Marie bera Donibane Lohizuneko zen sortzez, baina horrek ez zuen inolako aurrerapausorik ekarri Ipar Euskal Herriko ikastolen normalizaziorako.

Zailtasunak zailtasun, hezkuntza proiektua osatuz zihoan Seaska bera. Eta 1987an lehen lizeoa zabaldu zuen Kanbon (Lapurdi): Bernat Etxepare Lizeoa. Frantzian, ikasketa unibertsitarioen atariko zikloa irakasten da lizeoetan. Beraz, euskarazko lizeo batek atek zabaltzea aurrerapauso garrantzitsua zen, ez bairik gabe.

Baina 1987ko urte hura gogorra izan zen Iparraldeko ikastolen partaideentzat, krisia pairatu baitzuten. Hasteko, ikastolen eta Seaskaren egoera ekonomikoa ez zelako ona. Adibidez, Seaskako langileak ofizialki langabezian zeuden, nahiz eta lanean jarraitzen zuten.

Bestalde, elkarteko partaideen artean ere nekea sumatzen zen. Seaska ia 20 urte betetzera zihoan, eta, aurrera egin arren, gorabeheraz beteriko ibilbidea izan zen ordura arte urraturikoa. Irakasleen integrazioari begirako 1985eko akordioak, gainera, itxaropena piztu zuen askorengan.

1986-87ko testuinguru hartan, halaber, Seaskako egituren aldaketa ematen hasi zen, egitura edo marko gorena —Biltzar Nagusia— iskanbilaz beterikoa zelako eta azken denboran ikastola batzuek jada parte hartzen ez zutelako.

Beraz, 1987ko abenduaren 13an Seaskaren estatutu berriak bozkatu eta gogoeta talde bat martxan jarri zen, elkartearen kudeaketa bideratzeko eta funtzionamendu berria zehazteko. Gogoeta horren ondotik, Biltzar Nagusia desagertu egin zen, eta haren ordezkari Ikastolen Kontseilua estreinako bildu zen 1988ko urriaren 23an. Biltzar Nagusian ikastola guztiek era zuzenean parte hartzen zuten bezala, aurrerantzean, ikastoletako ordezkariak haien ikastetxearen botoa eramango zuten Ikastolen Kontseilura.

Barne krisitik akordio berrira

1988ko maiatzaren 8an François Mitterrand berriz ere Frantziako lehendakari izendatu zuten, eta, alderdi sozialista gobernura itzultzearekin batera, Seaskak eta Frantziako Estatuak harremanak berreskuratu zituzten. Bi aldeek urtebeteko negoziazioak eraman zituzten aurrera, eta, fruitu gisa, hitzarmen berria sinatu zuten 1989ko azaroaren 17an.

Hitzarmen kolektiboa izan zen hura. Hari jarraiki, Seaskako irakasle bakoitzak Hezkuntza Nazionalarekin hitzarmen bat sinatuko zuen, eta irakasle bakoitza estatuko langile gisa izango zen ordaindua. “Frantziako irakasle funtzionarioek baldintza batzuk bete behar dituzte: frantsesa izatea, pedagogia ikasketak izatea, eta haien Irakasle Eskoletatik pasatzea. Guk hirugarren baldintza hau ez genuen betetzen. Beraz, sinatutako akordioaren baitan, hiru urteren buruan 50 lanpostu sortuko zituen estatuak”, argitu du Maialen Garatek.

Frantziako hezkuntza sistemaren ezaugarrietakoa bat da irakasle gisa lan egin ahal izateko, irakasle lanpostu bat ireki edo zabaldu behar dela lehenago. Eta ondoren, azterketa edo oposizioa egin behar da. “1989ko akordioaren baitan, Pirinio Atlantikoetako Departamenduak konpromiso hau hartu zuen: hiru urtez urratsak emango zituela 50 irakasle horien lanpostuak irekitzeko, eta Seaskako irakasleak lanpostu horietara aurkeztu ahal izango ginela”. Bestela esanda, lanpostua zabaldu eta oposizioa gainditu bitartean, Seaskako irakasleak estatuko langileak izango ziren. Oposaketa gaindituta, aldiz, irakasle ofizialak.

“1990eko urtarrilaren 6an, autobusez joan ginen Pauera, banakako kontratu haiek izenpetzera. 50 irakasle ginen”, azaldu du Maialen Garatek. Lehen urtean, 1990ean bertan, lau lanpostu zabaldu zituen Frantziako Administrazioak, eta Seaskako lau irakaslek lortu zituzten tokiak, oposizioa gaindituta. Bigarren urtean, beste lau lanpostu ireki, eta gauza bera.

Dena adostu bezala zihoala zirudien; lehendabiziko zortzi horien ondotik, Seaskako 42 irakasle falta ziren sinaturiko 50 lanpostuak betetzeko. “Baina, prozesuak iraun zuen bitartean, Frantziako legedia aldatu egin zen. Eta, ondorioz, irakasle plaza atera ahal izateko, lehendabizi irakasletzan lizentziatu beharra zegoen, eta gero oposizioa gainditu”, dio Garatek. Zailtasun gehiago, beraz. “Frantziako Hezkuntza Nazionalak bere hitza jan zuen, berriz ere”.

Dena den, 1989ko hitzarmena garrantzitsua izan zen, Seaskako zortzi langilek irakasle plaza lortu ez ezik, akordio hari esker finantzazio iraunkorra lortu zelako Iparraldeko ikastolentzat. Iraunkorra, baina ez osoa. Batetik, Seaskako beste 42 irakasleei estatuko langile gisa ordaindu zieten, bi aldeek sinatu bezala. Bestetik, Seaskak diru laguntza jaso zuen elkarte gisa.

Baina 1989ko akordioak epe motzera ez ezik, epe ertainera ere eman zuen fruiturik, Seaskaren estrategia aldaketa eragin zuelako. Eta estrategia aldaketak berak beste akordio bat ahalbidetu zuen Frantziako Hezkuntza Nazionalarekin; akordio are garrantzitsuagoa oraindik.

5.2.3. Integrazioari buruzko akordioa Nafarroako Diputazioarekin

1982ko abuztuaren 10ean onartu zen Foru Hobekuntzaren Legea, Nafarroako Foru Erkidegoaren estatutua. Estatutu haren 9. Artikuluan euskararen erabilera ofizialari buruzko foru lege bat iragarri zen, baina legea ez zen 1986ra arte iritsi.

Hain zuzen ere 1986ko abenduaren 15ean onartu zen Euskararen Legea, eta Nafarroa hiru hizkuntza eremutan berezita geratu zen: eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu erdalduna. Euskarari eremu euskaldunean baino ez zitzaion ofizialtasuna aitortu. Hezkuntzari dagokionez, eremu erdaldunean ez zegoen lehen eta bigarren hezkuntzako ikasketak euskaraz egiteko aukera publi-

korik, eta eremu mistoan ikasle kopuru gutxienerako bat finkatu zen eskubide hori baliatu ahal izateko.

Egun oraindik ere indarrean dagoen Euskararen Legeak, beraz, erabat neur-tzen eta mugatzen zuen euskararen normalizazioa Nafarroan. Eta, horregatik, Euskararen Legeak kontrako jarrera handia eragin zuen Nafarroako gizartean; lege haren edukia salatu zuten ahots askok, Nafarroako Ikastolen Elkarteak barne. Besteak beste, lege proiektuan hainbat aldaketa egitea proposatu zuen NIEk.

Sasoi haietan, Jesus Bueno Asin zen NIEko lehendakaria. “Lan handia egin zuen NIEn, eta, besteak beste, harekin urrats handiak eman ziren Diputazioa-ren diru laguntzak bideratzeko”, nabarmendu du Juan Luis Larrazak.

Nafarroako Gobernuaren proposamena

Euskararen Legeak zabalduko egoera administratibo berri hartan, eta Euskal Autonomia Erkidegoan bizi zen eskola publikoaren eta ikastolaren arteko gatazka testuingurua ahaztu gabe, Nafarroako ikastola txiki asko eztabaida aro bizian murgildu ziren: eskola publikoan lerro elebiduna sortzeko eskatu zuten, eta, hala-ber, ikastola sare publikoan txertatzeko edo integratzeko aukeraz hausnartu zuten.

Baina eztabaida ez zen berria, Juan Luis Larrazaren arabera. “Ikastola txiki haietan bizi zena aurretik zetorren arazoa zen. Ez zegoen haurrik herri txiki haie-tan, eta ikastola haiek euskarazko haurtzaindegiak edo eskolaurreak ziren. Ondor-rioz, haurrak ikastolan egon ondoren, 6 urterekin, gaztelerazko eskola publikoe-tara joaten ziren. Beraz, hasierako euskarazko ahalegina alferrikakoa zen gero”.

Larrazak berak azpimarratu duenez, 1985-86 ikasturtean hasi ziren Nafar-roako Gobernuarekin harremanetan, ikastola zehatz horiei irtenbidea bilatu nahirik. Eta, gero, hiru alderdirekin negoziazio gogorrak garatu zituen Nafarro-ako Ikastolen Elkarteak: Diputazioarekin berarekin, Espainiako Hezkuntza eta Zientzien Ministerioarekin, eta tokian tokiko udalekin.

1988ko apirilean, berriz, Nafarroako Gobernuak ikastolak sare publikoan integratzeari buruzko txosten idatzia eman zion Nafarroako federazioari. Epe eta baldintza batzuk zehazten ziren txosten hartan: Nafarroako Diputazioak 29 ikastolaren integrazioa proposatzen zuen eta, asko jota, 1990eko irailaren 30 baino lehen nahi zuen. Baina Nafarroako Gobernuaren proposamen hura ez zen serioa, Juan Luis Larrazaren esanetan. “Zirriborro hartan jarritako baldintzak ez genituen onartu, eta ezin genituen onartu, ikastola handi batzuk ere, tartean Etxarriko, Lesakako eta Leitzakoak, sare publikoan sartzea proposatzen zigute-lako. Gobernuaren proposamenak, gainera, ikastola haiek denak sare publikora pasatzea aurrikusten zuen!”.

Horrenbestez, NIEk ez zuen ziurtasunik edo bermerik ikusten ikastola ere-dua eskola sare publikoan desegin ez zedin. Are gutxiago, urtebete lehenago



Hiruherrri ikastola eta Garesko, Mendigorriako eta Jaurrietako ikastolak itxi zirelako inolako onurarik gabe. 17 irakasle kale gorrian utzi zituzten eta lau ikastola haiei eskaintako integrazio elebiduna zer motatakoa zen zehaztu gabe geratu zen.

Bi baldintza

Juan Luis Larrazaren hitzetan, Nafarroako ikastola txiki haiek ez zuten etorkizunik: “Gurasoek eskatzen zuten egoerari erantzun bat ematea. 90eko hamarkadaren inguru hartan, gainera, euskararekiko kontzientziario handiagoa zegoen guraso haien artean, eta euskarazko irakaskuntzaren jarraipena aldarrikatzen hasi ziren. Gobernuak esan ziguten ikastola haiei emandako diru apurra moztu egingo zela epe batetik aurrera”. Baina NIEn, halaber, garbi zuten une hura baliatu behar zela ahalik eta integrazio onena lortzeko; bestela, ikastola haiek galdu egingo baitziren inolako fruiturik edo trukerik gabe.

Beraz, negoziazioetan bi baldintza ezarri zituen Nafarroako Ikastolen Elkarteak: ikastola haietako irakasleen lanpostuak bermatzea eta herri txiki haietan euskarazko irakaskuntza ziurtatzea.

1990eko uztailaren 4an sinatu zen, azkenik, Nafarroako Gobernuaren eta NIEren arteko akordioa. Orduko Nafarroako Gobernuko presidente Gabriel Urralburuk (PSN) eta NIEko lehendakari Txomin Izkok sinatu zuten akordio hura. Haren arabera, bederatzi ikastola txiki sare publikoan integratu ziren: Otsagarbia, Auritz, Lekunberri, Irurtzun, Jauntsarats, Agoitz, Doneztebe, Goizueta eta Aurizberri herrietako ikastolak, hain zuzen ere. Beste batzuek, berriz, handik gutxira hartu zuten erabaki berdina.

Juan Luis Larrazak nabarmendu duenez, Nafarroako Gobernuaren proposamena ez zen hasierako proposamena. “Ikastola handiak multzo hartatik kendu genituen, eta irakasleen lanpostuak gordetzeko akordiora iritsi zen gobernuarekin”.

“Ez dakit bat-egitea ote den terminorik egokiena integrazio haiek izendatzeko”, jarraitu du Larrazak. “Pausoa eman zen posible zen bezala. Ez zegoen beste soluziorik”. Eta, gaur egungo ikuspegitik, adosturiko irteera haren baliagarritasuna nabarmendu du: “Batetik, ikastola haietako langileen lanpostu gehienak gorde zirelako. Bestetik, euskarazko irakaskuntza ziurtatu zelako, Nafarroako herri txiki horietako eskola publikoetan euskara irakasten delako gaur egun. Eta hirugarrenik, eta hori ezin da ahaztu, gurasoak horren aldekoak zirelako”.

Auzi hark, ordea, ika-mikak eragin zituen orduko NIEren eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren artean, ikastolen mugimendua 1990eko urtarrian egindako I. Batzar Nazionalan erabaki estrategikoa hartu baitzen Nafarroan ikastola bat bera ez ixteko, orduan zeudenak indartzeko eta ahal zen neurrian ikastola berriak irekitzeko.

5.3. IKASTOLAK, PLAZA ERDIRA

5.3.1. Testuingurua

1987ko akordio politikoaren eta 1989ko akordio ekonomikoaren ondotik, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastolen egoera asko hobetu zen, kanpora nahiz barrura begira.

Kanpora begira, esaterako, ikastolek erreferentzialtasun handia lortu zuten. Plaza erdira atera zirela esan daiteke, plaza publikoan bertan posizio bat hartu zutelako.

Barrura begira, ikastolek sendotasun ekonomikoa lortu zuten. Baina ikastolen mugimendua ere sendotu egin zen; profesionalak gehitu ziren alde batetik, eta gogoeta prozesuarekin emandako estrategiaren diseinua egin zen bestetik.

Horrek guztiak, alde batetik ikastolen izaera kolektiboa, talde sena, sendotu egin zuen; bestetik barne dinamismoari leku edo espazio formalagoak sortu beharra ekarri zuen. Horregatik, lurralde guztietako ikastolak hartuko zituen Ikastolen Batzarra abiatu zen Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren gidaritzapean, bertako idazkari nagusi Mirari Bereziartuaren lan itzelari esker. Bereziartuaren ustez, 1990ean eta 1992an egin ziren lehen bi batzarretan onartutakoari esker, ikastolen barne kohesioa nahiz erreferentzialtasun soziala areagotu egin ziren.

5.3.2. Ikastolen I. Batzarra 1990ean

Euskal Eskola Publikoaren (EEP) auzia ez zen berria Euskal Autonomia Erkidegoan. Ikastolentzako ere ez zen gai arrotza, inondik inora, Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak berak erabili zuelako estreinakoz kontzeptu hori, 70eko hamarkadaren bukaeran egindako batzar batean, ikastolek Euskal Eskola Publikoa izan nahi zutelara aldarrikatuz.

80ko hamarkadan zehar asko teorizatu zen Euskal Eskola Publikoari buruz. Baina Eusko Jaurlaritzak eta EAeko ikastolek 1987ko abenduaren 18an sinaturiko akordioak eztabaida hura markatu zuen, akordio hartan adostu baitzen



Euskal Eskola Publiko berri bat izango zela Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, bi aldeek, hau da, eskola publikoak eta ikastolak osaturikoa, eta bi alde haien ekarpenekin eraikitakoa.

Prozesu hari begira, beraz, ikastolen mugimenduak alternatiba bat zehaztu eta mahai gainean jarri behar zuen. *Zein da etorkizuneko eskola publikoa?* galderari erantzun behar zitzaion alegia. Baina, hori baino garrantzitsuagoa zen jakitea ikastolak konforme ote ziren eskola publiko berri bat sortzearekin, ala hezkuntza sistema propio bat zen ikastolek nahi zutena, euskal eskola bat beraz. Bada, bigarrena izan zen ikastolek egindako bidea.

Eta Euskal Herriak behar zuen eskola hura zehazteko asmoz, ikastolen mugimenduaren baitan abiatutako gogoeta eta eztabaida prozesuak 1990eko hastapenetan Euskal Eskola proiektua lantzera eta I. Batzar Nazionala egitera eramane zuten.

Erronka, noski, ez zen makala. Eta lanaz beteriko hilabeteak izan ziren haien, Antonio Camposek gogoan duenez. “Ordurako pauso batzuk emanak genituen publikorantz, nahiz eta barruan sinetsita egon gu geu ginela eskola publikoa. Baina garbi genuen ere inoiz ez ginela izango administrazioaren eskola. Beraz, lotura hori emateko zailtasunak izango genituela jakitun, guk aurrea hartu behar genuen, nahi genuen eskola publikoa nolakoa izan behar zen definituz. Hortik abiatu ginen, eta, I. Batzar Nazionalaren aurretik, lan asko egin genuen. Txostenak prestatu, ikastoletara pasatu, zuzenketak jaso... egun osoko bilerak egiten genituen. Baina beti argi edukita aurrez sekulako borroka zetorkigula eta gu ondo kokatuta egon behar genuela”.

Horrela, 1989ko ekainean Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko talde teknikoak prestatutako *Euskal Eskola* izeneko txostena aurkeztu zitzaizen ikastolei. Eta txostenaren diseinuaren eztabaida sei hilabetez luzatu zen, ikastolekin zerkusua zuten talde ezberdinek aktiboki parte hartu zutelako eztabaidan.

1990eko urtarrilaren 12an eta 13an, berriz, txostenari aurkezturiko zuzenketak jaso eta eztabaidatu ziren Donostiako Mintegian, I. Batzar Nazionalaren lehen saioan. Eta martxoaren 24an Euskal Herri osoan ikastola guztiak bildu ziren berriro, Iruñeko Iruña Park hotelean, I. Batzar Nazionalaren bigarren eta azken saioan.

Denera, 144 ikastoletako 474 lagun bildu ziren egun hartan Iruñean. Parte-hartzaileek, lehenik, euskal eskolari buruzko eztabaidari amaiera eman zioten, Euskal Eskola proiektua eta Gutun Programatikoa gehiengo osoz onetsiz.

Bestetik, ekintza jakinen plana aurrera eramatea onartu zuten, hori ere gehiengo osoz. Euskal Herriko ikastolek sasoi hartan zituzten zenbait beharri erantzuteko plana zen hura; besteak beste, kanpoko itunak, Nafarroako ikastolen bideragarritasuna, Iparraldeko ikastolen sendotzea edota Eusko Jaurlaritzari buruzko aurreikuspena 1990-94 legealdirako.

EUSKAL ESKOLA PROIEKTUA

Ikastolen mugimenduak Euskal Eskola proiektua eta Gutun Programatikoa onartu zituen Iruñean, gehiengo osoz, 1990eko martxoaren 24an egindako I. Batzar Nazionalean.

Era horretara, Euskal Autonomia Erkidegoan bolo-bolo zebilen Euskal Eskola Publikoaren eztabaidari erantzun nahi izan zion ikastolen mugimenduak. Baina, Euskal Eskola Publikoa ez ezik, Euskal Herriak berak izan beharreko eskola zehaztu zuen, euskal hezkuntza sistema oso baten diseinua egin zelako Euskal Eskola proiektuan. Gutun Programatikoa, berriz, proiektu haren laburpen antzeko zerbait zen, era labur eta garbi batez azalduta.

Horregatik, proiektu estrategikoa zen Euskal Eskola; ikastolaren nortasun ikurra, baina, halaber, gainerako eskolekiko hurbilpen, eztabaida eta elkarlanerako proposamen irekia.

Proiektuan azpimarratzen zenez, Euskal Eskolak euskalduna, pluralista, demokratikoa, autonomoa eta nazionala behar zuen.

Era berean, Euskal Eskola Publiko Berriak titulartasun berriak bere gain hartu behar zituela azpimarratuta, titulartasun banatuaren formula proposatzen zuen Euskal Eskola proiektuak.

Gobernu eta funtzionamendurako erakundeez gain, lan harremanak ere zehazten zituen txosten hark. Eta, finantzaketari zegokionez, ikastetxeen finantzaketa publikoa eta propioa izatea defendatzen zen: administrazioak oinarritzko gastuak nahiz gastu osagarriak finantzatzea, eta ikastetxeak berak gastu arruntei aurre egitea beste finantzazio iturrien bidez: kuotak, enpresen ekarpenak...

Euskal Eskolaren proiektu hartan, beraz, Euskal Eskola Publikoaren aldeko aukera berretsi zuten ikastolek. Eta Euskal Eskola bat lortzea epe luzeko helburua zela aurreikusi zuten, "marko juridiko-politiko beraren baitan bizi nahi duen Herri gisa izan dezakegun autogobernu edo autonomia mailak baldintzatuta, eta agente politikoez gainera eskola estatal, pribatu eta ikastoletako agente sozialek esku hartu beharko duten gizartearen heldutze-prozesu kolektibo baten ondoren beti ere". •

Euskal hezkuntza-sistema berri baten diseinua

Ezbairik gabe, ikastolen eta ikastolen mugimenduaren historian giltzarri saihestezina izan zen I. Batzar Nazionalean onarturiko Euskal Eskola proiektua eta Gutun Programatikoa. Euskal Eskola Publikoaz gain, euskal hezkuntza sis-

tema berri eta osoa marraztu zuen Euskal Eskola proiektuak, eta Gutun haren sintesi modukoa zen. Euskal Herriko hezkuntza erakundeen historian, lehen aldiz, testu bat zegoen, Euskal Herriaren balizko hezkuntza sistemaren ezaugarriak zehazten eta jasotzen zituena. Eta, gainera, eskola kolektibo batek aldeko botoa eman zion, barne kontsentsu handiarekin: nork eta ikastolak!

Euskal Eskola proiektua Konfederazioko talde tekniko hartako partaideek landu zuten, besteak beste Xabier Garagorri, J. Iñaki Etxezarreta, Mirari Bereziartua, Santos Sarasola, Ruper Ormaza, Imanol Igeregi. . . Xabier Garagorriren esanetan, *Euskal Eskola* lanak “aurreko hariari” jarraitzen zion. “Barne gogoetak sortutako elur bola handitzen joan zen, eta antolaketa eta kudeaketa ez ezik, curriculumari ateak irekitzeko bide bat proposatu zen lan hartan, ikastola eredu osatzeko asmoz”.

“Lehendik ere bagenekien arren, lan hartan azpimarratzen genuen euskara eta euskal kultura batera landu behar genituela”, Garagorrik gogoratu duenez. “Esan nahi genuen, euskara, euskal kulturaren lur edo ekosistema horretan kokatu gabe, esperantoa izan zitekeela: lurrik eta oinarririk gabekoa. Beraz, nabarmentzen genuen garrantzitsua zela, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren bidez, ez soilik hizkuntza bat irakastea, baizik eta hizkuntza horren inguruan dauden kultur elementuetan ere txertatzea. Elementu horiek guztiak sartzen genituen lan hartan; eta Euskal Eskola Publikoa ere bai, noski”.

Elkarbanatutako titulartasuna

Elkarbanatutako titulartasunaren kontzeptua izan zen, dena den, Euskal Eskola proiektuaren ekarpen nagusia. “Hau da, Euskal Eskola Publiko Berrian, ikastetxearen titulartasunaren parte bat administrazioak zuela defendatzen zen, eta beste parte bat ikastolen nortasun juridikoa zeukan entitateak. Beraz, bertako bazkideek eta administrazioak osatuko zuten titulartasun hori. Hau da, gurasoek eta administrazioak”, argitu du J. Iñaki Etxezarretak. “Kontzeptu oso berria zen hura, eta eredu napoleondarra zuen estatu batean —napoleondarra ez soilik eskolaren ikuspuntutik, baita zuzenbide administratiboaren ikuspegitik ere—, lehen aldiz jartzen zuen mahai gainean kontzeptu bat: titulartasun sozio-publikoa, soziala eta publikoa, biak batera. Eta, noski, honek beste esanahi bat hartzen zuen: gizartea eta administrazioa ulertzeko beste modu bat, alegia”.

Alde handia zegoen, bai. “Kontuan izanda estatuak monopolizatzen zuela ikastetxeen titulartasuna, eta guk hori aintzakotzat hartzen ez genuenez, elkarbanatutako titulartasuna planteatu genuen”, Etxezarretaren hitzetan. Baina ez hori bakarrik. “Aurreko horren ondorioz, hezkuntza-politika botere publikoen esku uztea onartzen genuen. Baina eskolen jabetza eskusiboari uko egin behar ziola esaten genuen, eskola-komunitateen sarea indartzeko. Eta guk sarearen

kontzeptua proposatzen genuen. Hau da, eskolek euren artean sare bat antolatzeari, kontsorzio edo partzuergoaren formula juridikoaz. Horrez gain, estatuak planteatzen zuen irakasle-funtzionario ereduaren aurrean guk erregimen laboral publikoa proposatzen genuen”.

“Elkarbanatutako titulartasunaren kontzeptua abangoardistegia zen”, onartu du Etxezarretak. “Baina ez zen *betelan* bat, ikastolek egindako ibilbideetik sortutako gogoeta baizik: tokian tokiko ikastolek udalarekin, federazioekin administrazioarekin egindakoa... Praktikan egiten zen zerbait testuinguru juridiko batera eramatea zen. Noski, sozialistek eskola publikoaz zuten kontzeptu klasikotik oso urrun zegoen, eta arriskuz ikusten zuten hau, haiek garbi zutelako ez zutela martxan jarri nahi estatuaren kontrol hutsetik kanpo egongo litzatekeen eskola bat”.

Proiektu eta ideia berritzaileak izanda ere, prozesu hartan guztian, ikastolen mugimenduak Mikel Badiola abokatua izan zuen aholkulari. Eta Badiolak berak diseinu juridiko bat egin zuen Euskal Eskolaren bideragarritasun juridikoa azpimarratzeko. Hau da, garai hartako legedian eta markoan Euskal Eskola nola txertatzen zen azaltzeko. Eta Badiolaren diseinu hark ez zuen aurreikusten soilik Euskal Autonomia Erkidegoko ikastolak eskola publikoan sartzea; eskola publiko berri horrek Nafarroan eta Iparraldean zeuden eskolekiko zer nolako harremanak izan behar zituen aztertzen zuen.

“Lehendakaritzako zerbitzu juridikoetatik ere —Mikel Badiolaren lankideak alegia— esan ziguten urrunegi joan ginela”, jarraitu du Etxezarretak. “Baina esan beharra dago Badiolak egindako lana bikaina izan zela, eta gero askok goraiatu eta erreferente gisa hartu dutela”.

Proposamenaren kudeaketa

Ikastolen mugimenduak emandako jauzia, beraz, oso handia zen: Euskal Herriaren eskola izan nahi baina planteamendu zehatzik eduki gabe eta noraeza estrategikoa izatetik, ikastolen kolektiboa norabide ideologiko eta estrategikoko bat edukitzera eta alternatiba juridiko legal batez hornitzera pasatu zen 1990eko hastapenetan. Euskal hezkuntza sistemari buruz egindako planteamendua ikastolen oso ekarpen garrantzitsua izan zen, ordura arte alderdien nahiz sindikatuen artean inork ez zuelako hainbeste jorratu.

Ikastolen mugimenduaren planteamenduak argi bat ekarri zuen, beraz, baina argi hura kudeatzeko orduan, baita zailtasunak ere. J. Iñaki Etxezarretaren hitzetan: “Rekalde orduko Hezkuntza sailburuak gure proposamena aztertu zuen, eta ez zela balekoa iruditu zitzaion. Juridikoki sendoa izaki ere, zalantzan jarri zuen proposamenaren legalitatea: muga zegoela, eta hainbatetan ametsa zela. Beraz, gugandik espero zuten planteamendutik urrunegi zegoela”. Ikastola kolektiboko

arduradunak sumatzen hasiak ziren haiek proposaturikoa ez zitzaieela interesatzen euskal sozialistei, “eta haien estrategia gu desprestigiatzea izan zen: hau da, irudikatzen hasi ziren guk ez genuela parte hartu nahi eskola publikoaren legea egiteko prozesuan, engainatu egin genuela gobernua, edo ezinezkoak planteatzen genituela. Kanpora begira, hori izan zen haien mezua. Baina, egiazki, arrazoia zen ez zeudela ados guk proposaturikoarekin”, Etxezarretaren hitzetan.

“Baina sumatzen hasiak ginen, orduko hartan, alderdi abertzaleei ere ez zitzaieela gustatzen gure alternatiba”, gehitu du Etxezarretak. “Esango nuke gure planteamendua eremu abertzaleko alderdiei deserosoa zitzaieela. Alderdi abertzale guztiak ustez batzen zituen ideia, euskal hezkuntza-sistema propioa erakitzea, alegia, 1980ko hamarkadaren hasieran garatzen hasi bazen ere, 90eko hamarkadaren hasieran noraeza estrategikorik gabe zegoen. Tamalez, estatuaren hezkuntza-sistemaren ereduari ez zioten eredu alternatibo bat kontrajartzen”.

Etxezarretaren esanetan, Ikastolen Elkartaren proposamena erakargarria zen euskal ikuspegitik, hezkuntza-sistemaren eredu propio bat saiatzea planteatzen zuelako. “Baina ordura arteko eskemak aldatzera behartzen zuen, estatuak ezartzen zuen eskola jakobinista aldatzera, eta horrek alderdien barruan, sindikatuetan eta erakunde parlamentarioetan bide berria irekitzea. Berehala ikusi ahal izan genuen bide berri zabaltze hark zer nolako arazoak ekartzen zizkien talde abertzale guztiei, guztiak zituztelako lotura estuak estatuaren ereduan, bereziki eskolaren eta administrazioaren funtzio publikoan. Eta eredu berriari buruzko eztabaida hori egiteak estatuaren eredu zalantzan jartzea zekarrenez, aldaketa handiegia iruditu zitzaien alderdi abertzale guztiei”.

Hobekuntza eskola publikoarentzat

Hain zuzen ere, planteamendua eskola publikoaren onerako zela konbentzitu zela zeudela eta daudela azpimarratu du J. Iñaki Etxezarretak. “Gaur egun, oraindik sinesten dugu eskola publikoak etorkizuna izango duela baldin eta horrelako antolamendu aldaketa sakona egiten badu. Bitartean, porrot egingo du beti, ez dielako erantzuten, ez Euskal Herrian ez Euskal Herritik kanpo, gizarteak dituen beharrei. Gure testuinguruari behatuz gero, zer eskola publiko motak dauka arrakasta Europan? Emaitzen datuei so eginez gero, eredu jakobinista hau dutenak azken tokietan dira.”

“Elkarbanatutako titulartasunarena planteatu genuenean, urte asko aurreratu ginela uste dut”, adierazi du, bestetik, Xabier Garagorrik. “Baina sinetsita nago eskola publikoak noizbait, eta urteak aurrera doaz, gaiari heldu beharko dio, baldin eta autonomiaren auziari erantzun nahi badio”.

“Gure proposamenak hobekuntza bat ekarri zion eskola publikoari. Baina, gauzak garbi esanda, gure ereduak bi aldaketa zekartzan”, dio Etxezarretak.

“Bat, eskola publikoan ari diren funtzionarioen estatusa aldatzea edo zerbait ukitzea. Bestea, eskola bakoitzean gurasoen zeregina indartzea, eta, beraz, irakasleen lanaren gainean esku hartze handiagoa edukitzea, eta hori ez da gustagarria. Eta administrazio publikoan zeuden goi kargu, ikuskari... tramankulu hori guztia berriro antolatu beharra zegoen, eta hori ere ez da gustagarria”.

Baina proposaturiko aldaketek ikastolen baitan ere eragin zuten erresistentziarik. “Aldaketak, azken finean, denentzako izango ziren. Baina, aizu, denen artean hitzartuta genuen aldaketak egingo genituela, bai eskola publikoan bai ikastoletan. Hori zen 1987ko abenduaren 18ko akordioak zuena: bi sare horiek aldaketak egingo zituztela eskola berri bat egiteko”, gogorarazi du Etxezarretak.

Ataka hartan, beraz, ikastola kolektiboan jabetu ziren bakarrik zeudela eta eztabaida oso konplexua izango zela. “Baina erabaki genuen aurrera egitea horrekin”, gogoratu du Etxezarretak. “Ekonomikoki ondo geunden; legealdia bukatzen ari zen eta gobernu berri bat egongo zen Jaurilaritzan; sumatzen genuen Euskadiko Ezkerraren partetik jarrera berriro aztertzen ari zirela... Eta gobernuan genituen kontaktu batzuek eraman gintuzten pentsatzera eskenatoki berri bat zabal zitekeela: Rekalderen garaia bukatu zela, eta, noski, testuinguru berri hori ez zela hain beligerante izango”.

5.3.3. Ikastolen II. Batzarra 1992an

1990eko batzar nazionala erreferentzi ideologiko garrantzitsua izan zen Euskal Herri osoko ikastolentzat. Ikastola zer zen eta zer izan behar zuen ulertzeko mugarrria izan zen, ikastola nortasunari eutsi egin behar zitzaiola adostuz eta onartuz.

Erreferentzia politikoari zegokionez, I. Batzar Nazionala *urrutiago* gelditzen zen Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako ikastolentzat, ikusirik berezko hezkuntza sistemaren aukera, une haietan, soilik Euskal Autonomia Erkidegoan zabal zitekeela. Nahiz eta *Euskal Eskola* proiektua Euskal Herri osoari begirako lana izan.

Ikastolen mugimendua bera oso kontziente zen landuriko estrategia hori, orduko baldintza politiko-juridikoetan, ezin zela Nafarroan eta Iparraldean gauzatu. Lehen batzar nazionalan bertan nabarmendu ziren gabezia haiek, eta horren aurrean zerbait egin beharra premiazkoa zela.

Norabide estrategikoa zehaztu beharra zegoen beraz, eta bi urteren buruan ikastolen kolektiboak II. Batzar Nazionala egin zuen, lehendabizikoaren jarraipena alegia. Izan ere, I. Batzar Nazionalan planifikatutako ekintza egitasmo osoarekin batera, bost ideia dinamizatzeko proposamena onartu baitzuten parte-hartzaileek, adostasun osoz, 1992ko otsailaren 15ean Iruñeko Iruña Park hotolean egindako bilkuran:



“— Euskaldun eta kalitatezko Hezkuntza Proiektuaren alde eginiko lana egiten jarraitu, ikastolen elkarten Pedagogia Saila garatuz, ikastoletako pedagogi arduradunekin gaurdaino egin eta erabaki diren pedagogia txostenak erabiliz.

— Euskal Eskola Publikoa, ‘Eskola Publiko berriaren’ ideia indartu, benetako lege posibilitatea frogatuz, Euskal Eskola Publikoaren lege proiektua aurkeztuz.

— Eskolarako lan marko propio bat negoziatzea, ikastolen lan hitzarmeneko mekanismoak erabiliz.

— Ikastolen arteko elkartasuneko finantzabide sistema prestatzea, Elkartasun Kutxa diruz hornituz, ikastola bakoitzeko baremoa prestatuz.

— Ikastolen Talde Nazionalaren sorrera gertatzea, berezko filosofia batean europar integrazioa prestatuz, Ekonomia Intereseko Europar Elkartearen txostena prestatuz edota beste batzuk aurkeztuz”.

Bistan da, ikastolen mugimendua mugimendu eraikitzailea zen oraindik. Eta Euskal Eskola Publikoaren lege proiektua aurkeztearekin batera, Elkartasun Kutxa sortzea eta Konfederazio nazionalerantz pausoak ematea izan ziren II. Batzar Nazionalen harturiko erabaki nagusiak. “Konfederazioa bazegoen jada, baina Seaska, legalki, ez zen horren partaide. Eta hori konpontzea genuen beti

buruan. Konfederazioa bost federazioek osatzen zuten arren, legalki ere horrela izatea nahi genuen”, azpimarratu du Antonio Camposek.

Bigarren nazio batzarrean, halaber, euskal curriculumaren ideia edo proiektua egin beharra planteatu zen estreinakoz. LOGSE hezkuntza lege berria jada onartuta zegoen Espainiako Estatuan, eta aldaketa kualitatiboa zen hezkuntza alorrean. Horren aurrean, beraz, ikastolen mugimenduak zenbait prozesu zabaltea planteatu zuen: ikasmaterialgintzari zegokionez, informazioari zegokionez. . . Baina, bereziki, ikerketa lerro bat ireki behar zela onetsi zuen ikastolen kolektiboak: euskal identitatearen gaiari erantzuna emateko hezkuntza planteamendu bat egitea, eta, beraz, curriculum propio bat lantzea.

ELKARTASUN KUTXA

“Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastolen finantzazio publikoa handitzeak bi ondorio nabarmen izan zituen ikastolen mugimenduan: batetik, gurasoek EAEko ikastoletan ordaintzen zituzten kuotak jaitsi edota desagertu ziren, eta, bestetik, Nafarroako eta Iparraldeko ikastolekiko elkartasun ekonomikoa areagotu zen” zehaztu digu Etxezarretak. 1992ko otsailaren 15ean Iruñean egindako II. Batzar Nazionalen ikastolen mugimenduak Elkartasun Kutxa sortzea onartu zuen; hau da, ikastolek beraiek egindako diru ekarpenekin kutxa modukoa osatzea eta, horren bitartez, premia berezian zeuden ikastolei diruz laguntzea.

Beste hamaika gairekin egin zuten bezala, Mirari Bereziartua eta J. Iñaki Etxezarreta aritu ziren Elkartasun Kutxa diseinatzen eta ikastolaz ikastola iritziak jasotzen. Lan hori lurralde ikastolen federazioetako zuzendari Joseba Aginagalde, Pedro Agirre eta Paulo Agirrerekin batera egin zuten, GIE eta BIEko lehendakariak babestuta, eta Paulo Muñoa diruzainaren gidaritzan teknikoaz. Eta 1993an ekimena martxan jarri zen. “Konfederazioaren baitan zeuden ikastoletako kudeatzaileak eta federazioen hainbat guraso ordezkari arduratu ziren Elkartasun Kutxaz. Ez zeuden liberatuta; ordu batzuk eskaintzen zizkieten lan honi, ikastoletan lan egiten zuten bitartean”, dio Antonio Camposek.

“Elkartasun Kutxaren lehendabiziko urteetan, ikastola bakoitzak, urtero, 3.500 pezeta jarri behar zituen ikasle bakoitzeko. Beraz, ikastola batek 900 ikasle zituela? Bada, 900 ikasle x 3.500 pezeta”. “Eta sortzean, batik bat, Nafarroako ikastolak eta Gasteizko Armentia ikastola laguntzeko sortu zen Elkartasun Kutxa”, adierazi du Jose Luis Sukiak. Garai hartan Ordiziako ikastolako kudeatzailea zen, eta 1995az geroztik Partaideren zuzendaria.

Armentia ikastolak hain zuzen ere 1993an zabaldu zituen ateak, Gasteizen. Nafarroako Ikastolen Elkarteko zuzendaria Begoña Errazti zen 1991ko udazkenaz geroztik. “Elkartasun Kutxaren sorrera itxaropen handiarekin ikusi genuen Nafarroan”, gogoratu du Erraztik berak. “Horren atzean ideia bat zegoen: nazio bat, herri bat, eta proiektu nazional bat. Eta, ildo horretan, elkartasuna ezinbestekoa zen, kontuan harturik zer egoeratan zeuden ikastolak Nafarroan edota Iparraldean”. Erraztik lau urte egin zituen NIEko zuzendari gisa; gero EAKo talde parlamentarioaren burua izan zen zortzi urtez Nafarroako Legebiltzarrean, eta zortzi urtez EAKo lehendakaria.

Ikastolek oso ondo ikusi zuten Elkartasun Kutxaren sorrera, Jose Luis Sukiaren arabera: “Jendeak oso garbi zuen”. “Oro har, ikastola guztiak ados zeuden, baina hainbat ikastolatan ere errezeloz ikusi zuten hura”, Begoña Erraztiren esanetan. “Nik beti azaldu nien dirua eman baietz, baina ikastolak aurrera egiteko. Hau da, ez zen dirua ematea, emateagatik. Ez zela eskupekoa, baizik eta aurrera egiten jarraitzeko eta ikastolen mugimendua indartzeko laguntza. Azken finean, maileguak ziren, baina interesik gabekoak. Eta esaten genuen: ‘Hau ahula da gaur egun; eta emango diogu, etorkizunean indartsua izateko’”.

Erraztiren arabera, Elkartasun Kutxak balio izan zuen Nafarroako eremu eralduneko ikastolak edota Berako ikastola laguntzeko, “Miguel Sanzen gobernuak azken ikastola hau ito nahi zuelako, eremu euskaldunean kokatuta egonda ere”.

Elkartasun Kutxa, beraz, mugari historikoa izan zen, ikastolen mugimenduak beti izan duen elkartasuna, kooperazioa eta lankidetzeta hori tresna bilakatu zelako. •

Ekarpen bikoitza Euskal Eskola Publikoaren eztabaidari

Ikastolen mugimenduaren bi batzar nazional haiek urrats kualitatiboak izan ziren, azalaz nahiz mamiz. Batetik, formari dagokionez, jautzia izan zen Euskal Herri osoko ikastolak era horretara biltzea, denak batera toki berean, hainbat gairen inguruan eztabaidatzeko eta erabakitzeko, ez baitzen ohikoa eskola sare bat biltzea edo elkartzea; are gutxiago, erabaki kolektiboak hartzeko.

Eta bestetik, edukiei dagokienez, euskal hezkuntzaren etorkizunaz giltzarri zen Euskal Eskola Publikoaren eztabaidan ikastolek, bi Batzar nazional haien bitartez, ekarpen bikoitza egin zuten: eztabidari ikuspegi osoa, integrala, erantsi zioten, Euskal Eskola euskal hezkuntza-sistema berria eta propioa planteat-

tuz, eta horren barruan Euskal Eskola Publikoaren eredu berria eta propioa arautzen zuen lege proiektua zehaztuz. Ikastolek, alegia, Euskal Eskola Publiko berri hori euskal hezkuntza sistema berri baten baitako ideia eta proiektu aldarrikatu zuten.

Urteek ematen duten perspektibatik esan daiteke ikastolek ez zutela egingarritasuna ondo kalkulatu. Ikastolak ohituta zeuden ideiak proiektu bihurtzen eta hauek ekintza bidez gauzatzeko, beren ibilbide historikoan ikus daitekeenez. Oraingo honetan, ordea, planteatzen zutena beste interes eta borondate batzuekin bat egitea eskatzen zuen, ez ikastolen indarrekin soilik kontatzea.

5.4. LOGSE ETA IKAS MATERIAL BERRIAK

5.4.1. Testuingurua

Espainiako Gobernuan zegoen PSOE alderdiak estatuko hezkuntza sistema eraberritu zuen 1990. urtean, LOGSE legearekin (*Ley de Ordenación General del Sistema Educativo español* edo Espainiako Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea).

Lege hark mamitze luzea izan zuen, 1982an gobernura iritsi zenetik hezkuntzaren erreforma egitea zelako Espainiako alderdi sozialistaren nahia. Hortaz, 1990eko urriaren 3an onarturiko legearekin, hainbat urtez hezkuntza alorrean egondako egoera lausotuari irtenbidea eman nahi zioten sozialistek.

Eta LOGSEk, noski, berrikuntza ugari eragin zituen.

5.4.2. LOGSEren berrikuntzak

Espainiako hezkuntza lege berriak, hasteko, hezkuntza sistemaren barne antolaketa bera ekarri zuen. Eskolaurrea izeneko zikloa, esaterako, arautu egin zuen: haur hezkuntza izendatu zuen eta 3-6 urte bitartean finkatu zuen. Formulazio berriak bazuen garrantzia, era horretara hastapeneko ziklo hori hezkuntza sistemaren barnean kokatzen zelako. Ordura arte, eskolaurrea eskola aurretik egiten zen zerbait zen, hezkuntza aldetik garrantziarik gabea. Ikastoletan, ordea, eskolaurrea betidanik izan zen haur hezkuntza; horregatik, begi onez ikusi zuten 1990eko legeak eragindako izendapen berria.

LOGSEk, beraz, haur hezkuntza zikloa arautu zuen, baina ziklo hori derrigoritu gabe. Espainiako Estatuan derrigorrezko eskolaratzea 6 urtetik aurrera zen, lehen bezala.

Lehen hezkuntzari dagokionez, bina urteko hiru ziklo finkatu ziren lege berriarekin: 1-2 mailak (6-8 urte), 3-4 mailak (8-10 urte) eta 5-6 mailak

(10-12 urte). Gisa horretara, lehen banatuta zeuden 5. eta 6. mailak elkartu egiten zituen lege berriak.

LOGSEk, halaber, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) izeneko ziklo berria ezarri zuen, eta derrigorrezko eskolaldia 14 urtetik 16 urtera luza-tu zuen horrela. Legearen ekarpen nagusia izan zen, ezbairik gabe.

Baina curriculumean ere aldaketa sakonak eragin zituen LOGSEk, asko egi-turutzen zuelako. Adibidez, zehaztaper mailak.

Lehen zehaztaper mailan, esaterako, zehaztu zen Espainiako Estatuak dekretu bidez ezarritako gutxienekoak, eta, gero, autonomia erkidego bakoitzak erabaki eta garatu beharrekoa.

Bigarren zehaztaper mailan, bestetik, legean esaten zen eskola bakoitzaren eginkizuna zela bere hezkuntza proiektua eta curriculuma garatzea, administra-zioak finkaturiko gutxiengo haietan oinarrituz.

Eta hirugarren zehaztaper mailan, gutxiengo haiek eta eskola bakoitzaren curriculum propioa kontuan hartuta, zehaztu zen irakasle bakoitzak bere unita-te didaktikoak eta irakaskuntza-ikaskuntza proposamenak egin behar zituela.

Hori guztia kontuan hartuta, esan daiteke proposamen aberasgarria zela LOGSE legea; baina baita erronka handia ere, benetan zaila zelako neurri haiek betetzea.

5.4.3. LOGSEren ondorioak ikastoletan


Logikoa den bezala, hezkuntza lege berriak eragina izan zuen ikastoletan. Baina, alde horretatik, LOGSE ezin da alderatu 1970eko Hezkuntza Legeare-kin, *Villar Palasí Legearekin*, 1970eko legea benetan eraldaketa garrantzitsua zela-ko ikastolentzat.

LOGSErekin, berriz, ikastolek egokitzaper lana egin behar izan zuten. Hezkuntza lege berria zurrunbilo handia zen, baina, era berean, oso garai posi-tibo eta emankorra izan zen. Ikastola kolektiboarentzat, legea aitzakia izan zen ikastolen hezkuntza proiektua biziberritzeko eta indarberritzeko. Bultzada modukoa, bestela esanda.

Eta LOGSEk, funtsean, bi eragin praktiko izan zuen ikastola kolektiboan: ikasmaterialgintza berria eta batxilergoaren zabalpena.

Ikasmaterialgintza berria

Hezkuntza lege berria indarrean jarriko zela gauza jakina zen, LOGSEk mamitze prozesu luzea izan zuelako. Eta ikastolen mugimenduan ere jakitun ziren lege berriarekin ordura arteko ikasmaterialgintza moldatu eta berritu beharko zela.



Horregatik, legea onartzeko testuinguru hartan, 1989ko ekainaren 27an lankidetzat hitzarmena sinatu zuten GIEk eta Elkar argitaletxeak. Xabier Garagorrirentzat, LOGSEren ondorioztat izan zen hura. “Lege berriarekin, ikasmaterialari zegokionez erronka ikaragarria genuela ikusi genuen. Ordura arte, gure materiala zabaltzen zuten Elkarrekoek. Guk sorkuntzarako gaitasun handia genuen, baina haiek gehiago menderatzen zituzten alde teknikoak, federazioan gai horietaz arduratzen zen Angel Erzibengoa zendu zelako jada... Eta bide horretan ezin zen jarraitu, indarrak sakabanatu egiten zirelako. Gainera, argitaletxe handiek begiak jarriak zituzten Euskal Herrian, legeak ekarriko zituen moldaketekin merkatu zabala ikusten zutelako hemen”.

Indarrak metatzeko premia zegoen, beraz. Eta bi aldeek sinaturiko akordioaren arabera, egutegi-urte bakoitzaren hasieran, bi erakundeetako pedagogia arduradunak elkartu egingo ziren, argitaratu beharreko materialen plangintza zehatza prestatzeko. Eta plangintza edo prozesu hura lau zatiz osatuta zegoen: teknikoa (materialen egokitasuna eta onarpena, besteak beste); mekanikoa (materialen diseinua eta maketazioa, muntaia, inprimaketa...); merkaturatzea (banaketa, merkaturatzea eta informazioa); eta egiaztapena (eraketa, jarraipena eta ebaluaketa). Hitzarmenari jarraiki, adibidez, zati mekanikoaren eta merkaturatzearen kostuak Elkar argitaletxearen esku gelditzen ziren.

GIE, sasoi haietan, ikasmaterialgintzan aitzindaria zen, eta horregatik sinatu zuten Elkarrekin hitzarmena. Baina ikastolen mugimendu osoari begirako akordioa zen hura.

GIEk eta Elkar argitaletxeak adosturiko lankidetzak hamar urteko iraupena zuen, eta 1999ko urtarrilaren Iean hitzarmena beste hamar urterako berritu zen.

Ikasmaterialgintza berria egiteko prozesu hartan, lehenik eta behin haur hezkuntzarako *Haurtxoa* proiektua moldatu zen irizpide berrien arabera. Liburu haien edizio berria 1993an kaleratu ziren: *Haurtxoa 1*, *Haurtxoa 2* eta *Haurtxoa 3*. Baina, bestetik, oso une egokia izan zen *Axelko-Otsoko-Beleko* proiektua planteamendu berdinekin egiteko. Lehen hezkuntzarako proiektua zen hori. Eta *Axelko* ikasmateriala, lehen hezkuntzako lehen ziklorako (6-8 urte) 1993an kaleratu zen; 1994an, berriz, *Otsoko*, bigarren ziklorako (8-10); eta 1995ean *Beleko*, hirugarren ziklorako (10-12).

DBHrako *Ostadar* proiektuaren sorkuntza ere orduan hasi zen, eta geroago kaleratu zen. Eta Ikastolen Elkarteko buruek LOGSEren lanketan parte hartu zuten adituekin ere harremanak finkatu zituzten, ikastola bakoitzak bere hezkuntza proiektua eta curriculuma aurkeztu behar ziolako administrazioari.

Ekoizpen izugarriko urteak izan ziren haiek Ikastolen Elkartean, material piloa kaleratu baitzen. Eta material hauek hainbat urtez egon ziren indarrean, ikasmaterial berriak iritsi arte. *Urtxintxa* proiektua, adibidez, *Haurtxoa* berria izan zen.


“Ikasmaterialgintza diru iturri garrantzitsua da, ezbairik gabe”, dio Xabier Garagorrik. “Baina hori baino gehiago, guretzat batik bat ikastolaren hezkuntza kalitatea eta irakaslearen prestakuntza hobetzeko bitartekari estrategiko inportantea da”, nabarmendu du.

“K 21” PROIEKTUA

XX. mendeko 90eko hamarkadan, Batxilergoa ez zen soilik beste ikasketa batzuetara igarotzeko urratsa edo bidea. Ezarritako Batxilergo berriaren ezaugarri nagusia aniztasuna zen, ikasle bakoitzari ibilbide desberdina egiteko aukera ematen ziolako eta, era horretara, hezkuntza-ibilbide desberdin horien ondorioz, ikasle bakoitzak curriculum berezia eduki zezakeelako.

Bi oinarri finkatu ziren Batxilergoaren curriculumaren egituraketarako. Alde batetik, aurrez zehaztutako derrigorrezko irakasgai-multzoa zegoen. Bestetik, ikasleak aukera zezakeen irakasgai-multzoa.

Planteamendu berria interesgarria zen hezkuntzaren ikuspegitik, baina konplexua argitalpen ikuspuntutik. Izan ere, curriculum desberdinak osatzeko aukerak esan nahi baitzuen irakasgai ugari buruzko materiala argitaratu behar zela; eta, gainera, ikasleak banatuta egonda euskarazko ekoizpenaren merkatua txikia zen.



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ezarpena eta legez kanpoko batxilergoak

Derrigorrezko hezkuntza edo eskolaldia 16 urtera arte luzatu zuen LOGSEk. Erabakiak eragin sozial handia izan zuen, 1970eko Hezkuntza Lege Orokorraren neurri garrantzitsuenetako bat aldatzen zuelako: derrigorrezko irakaskuntza 14 urtera artekoa izatea. Baina, eragin sozialaz gain, luzapenak esan nahi zuen ikastetxe bakoitzak beste bi urte gehiago jasoko zituela diru laguntzak. Eta 1989an, LOGSE ateratzear zela, lege berriak sortuko zuen testuingurua aurreikusi eta aukera hura baliatu eta eskaintza batxilergoraino luzatzea erabaki zuten ikastolek. Ordura arte, oso ikastola gutxi ziren batxilergoko ikasketak eskaintzen zituztenak.

J. Iñaki Etxezarretak azaldu du nola. “Batxilergoko gelak irekitzeko proposamena egin genien ikastolei, sozialisten gobernuaren testuinguru hartan, Jaur-laritzak ikastolak oinarrizko irakaskuntzara mugatuta uzteko tentazioa izan zezakeelako, eta gure garapena kontrolatzeko modu bat izan zitekeelako. Beldur ginen, beraz, sozialisten esku zegoen Hezkuntza Sailak ikastolek garai haietan bizi zuten garapena moztu nahiko ote zuen”.

Beraz, batxilergoko gelak zabaldu behar zituzten ikastola guztiak, kosta ahala kosta. Apustu estrategikoa zen hura. “*BUPak* bagenituen, agian ez ziguten utziko ikastolaren eskaintza 18 urtera arte luzatzen, baina 16 urtera arte bai. Beraz, *BUPak* zabalduz gero, aurreikusten genuen ikastola batzuek, etorkizunean, DBH ez ezik batxilergoa ere lortuko zutela; eta beste batzuek, batxilergoa akaso ez, baina DBH bai. Horregatik jarri zen martxan estrategia hori”.

Beraz, gela horiek ez zituzten ikastolen kasuan, batxilergo gelak LOGSE bera indarrean jarri aurretik zabalitzen hasi ziren, LOGSEren aplikazioak automatikoki zekarrelako DBHren ezarpena. “Eta horregatik, dokumentazioa aurkezteko unean, batxilergo haiek legezatu nahi genituen. Eta administrazioak hain justu horregatik ez zizkigun batxilergo haiek legezatzaten. Jakin bazekiela, legezatzuz gero DBH edukiko genuela, eta, beraz, eskola mapa baldintzatu-ko genuela. Eta, legezatzaten ez bazizkiguten baldintza horiek negoziatu behar-ko genituela gero”, azaldu du Etxezarretak.

Era horretara zabaldu eta orokortu zen batxilergoa ikastoletan. Baina prozesu gogorra izan zen, ikastolen sorreratan bizi izandakoaren antzekoa: legez kanpo eta administrazioaren milaka oztopori aurre eginez. Eta 1994ra arte luzatu zen auzia, Jaurilaritzak legez kanpoko batxilergo guztiak legeztatzea erabaki zuen arte.

5.5. ELEBITASUNETIK ELEANIZTASUNERA

5.5.1. Testuingurua

Euskal nortasunarekin batera, euskara da ikastolaren ikurra. Baina 70eko hamarkadan zehar ezagaturiko hazkunde handiaren ondorioz, Hego Euskal Herriko zonalde erdaldunetan ikastola berriak zabaldu ziren, eta eremu euskaldunetan euskaraz ez zekiten ikasle kopurua asko handitu zen. Ondorioz, aldaketa handia pairatu zuten ikastolek sasoi haietan: ikastolaren hasierako helburua edo eginkizuna haurrei euskaraz irakastea zen, baina gero, euskaraz ez ezik, euskara ere irakatsi behar zitzaaien ama hizkuntza gaztelera zuten ikasle haiei.

Eginkizun berria ez zen erraza, eta ikastolaren eguneroko jardunean asko sumatu zen: ikasle erdaldun gehiago ikasle euskaldunekin nahastu ahala, gelako giroa erdaldundu egiten zen franko, eta ikasle euskaldunen euskara kalitateak behera egiten zuen. Halaber, haur erdaldunei euskara hutsezko irakaskuntza ematearen inguruko kezkak sortu ziren.

Hain zuzen ere 80ko hamarkadaren hastapenetan irakaskuntza elebiduna abiatu zen Euskal Autonomia Erkidegoan, Jaurilaritzak hizkuntz ereduen planteamendua indarrean jarri zuenean. Baina ikastolek ez zuten jarraitu hizkuntz eredu ofizialen formula. Aitzitik, *Haurtxoa* proiektua garatu zuten, jatorriz erdalduna zenarentzako euskaraz murgiltzea ez zela kaltegarria frogatuz. Are gehiago, kaltegarria baino, onuragarria zela gelditu zen agerian.

Haurtxoa programa, beraz, oso arrakastatsua izan zen. Baina euskararekiko kezkak hor jarraitzen zuen ikastoletan eta ikastolen mugimenduan. Zer egin, adibidez, euskararen erabilera handitzeko ikasleen artean? Eta nola lortu, esaterako, atzerriko hizkuntzak irakastea euskara kaltetu gabe?

5.5.2. “Euskaraz Bizi” proiektua

Ikastolen sorreratik bertatik euskara eta euskaraz ikastearen bideragarritasuna kezketariko bat izan zen bezala, urteak pasatu ahala, ikasitako euskararen erabilera indartzeko bideak izan ziren hurrengo buruhaustea, oso erdaldunak ziren herrietan bereziki.

Testuinguru horretan, Jose Luis Gorostidi zenak *Euskaraz Bizi* proiektua martxan jarri zuen Lizarrako ikastolan, 1985 inguruan. Gorostidi ikastola hartako zuzendaria zen orduan, eta ia ikasle guztiek gaztelera zuten ama hizkuntza. Beraz, *Euskaraz Bizi* egitasmoaren bidez, Gorostidiren helburua zen murgiltzetik hasi eta 6-7 urterako ikasle guztiek euskara erabiltzea eguneroko bizitzan, ikastola barruan nahiz ikastolaz kanpo. Euskararen erabilera sustatzea eta indartzea, bestela esanda.

Eta Gorostidik lortu zuen helburua, bai, ikastolan ez ezik, Lizarrako ikasle haiek euskaraz jarduten zutelako kalean bertan, erabileraren erabileraz euskara haien arteko komunikazio tresna bihurtu arte.

Langile nekazina zen Gorostidi, eta ikastolarekiko oso kontzepzio zabala zuen. Horregatik, bere ideia berritzaileak ez ziren euskararen planteamendueta-
ra mugatu. Adibidez, 4 urteko ikasgeletan ere ingelesaren irakaskuntza sartu zuen —gainerako ikastoletan askoz beranduago irakasten zen—, eta xakea curriculumean txertatu zuen.

Euskaraz Bizi egitasmoaren arrakasta ikusita, Lizarrakoan ez ezik, beste hiru ikastoletan ezarri zen proiektua, Gorostidiren gidaritzapean: Tolosako Laskorain ikastolan, Gasteizko Toki-Eder ikastolan eta Iruñeko Paz de Zigandan (Lizarratik ikastola horretara lanera joan zen Gorostidi).

Urteak aurrera egin ahala, gero eta ikastola gehiagotan abiatu zuten *Euskaraz Bizi* proiektua, eta euskararen normalkuntzan sakontzeko proiektua bihurtu zen. Hots, ikasleen bizitzako arlo eta funtzio guztietan euskararen ezagutza eta erabilera normalizatzea bilatzen zen, ulertuta ikastola ez dela soilik euskara ikasteko gune bat, ikaslea euskaraz bizitzera bultzatuko duen mikroespazio eraginkorra baizik.

Jose Luis Gorostidi 1996an zendu ostean, *Euskaraz Bizi* egitasmoaren kudeaketaz BIE arduratu zen hainbat urtez. Aldi horretan, Ikastolen Elkartean beste proiektu batzuetan egiten ari zen gogoetaren ondorioz, *Euskaraz Bizi* egitasmoaren eguneratzearen beharra mahaigaineratu zen, planteamendu teorikoari dagokionez, egitasmoaren jarduera nagusiei dagokienez eta behar zituen baliabideei dagokienez.

Hizkuntz Proiektuaren parte

Ekintzak dira *Euskaraz Bizi* egitasmoaren muina, eta lehendabiziko urteetan haur hezkuntza eta lehen hezkuntza izan ziren proiektuaren eragin-gune nagusiak.

Haur hezkuntzan, esaterako, betidanik eraginkorrak izandako bitartekoak erabiltzen ziren: murgiltze sistema, kankak, jolasak, ipuinak... Baina, alde handiz, Argitxo izeneko iratxoa bihurtu zen euskararen erabilera sustatzeko tresna nagusia.

Lehen hezkuntzan, berriz, euskararen aldeko kanpainak, udalekuak edota kirola bezalako bitartekoak erabiltzen zituzten egitasmoaren partaideek.

2000. urteaz geroztik, ordea, hezkuntza planteamendu orokorrako baten baitan txertatzen hasi zen *Euskaraz Bizi*. Ikastolen Hizkuntz Proiektua zen testuinguru berri hori, eta aldi berria gidatzeko Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak AEKn eskarmentu handian zuen profesional bat, Erramun Osa, kontratatu zuen 2001ean. Talde zabala antolatu zen, tartean euskal lurralde guztietako teknikariak eta irakasleak, eta berritze teorikoa azkartu zen; halaber, finantzazio-iturriak handitu ziren eta egitura profesionala egonkortu zen. Egindako lanen lekuko dira 2002, 2003 eta 2004ko Jardunaldi Pedagogikoak, Eusko Jaurlaritzaren Ulibarriren baitan egindakoa edo materialen ekoizpena.

Euskaraz Biziren helburua, hastapenetan, batik bat gelaz kanpoko erabilera zen, eta garai berrian euskararen motibazioaren eta gaitasunaren arteko oreka zaintzen hasi ziren ikastolak, ikasleak gela barruan lortzen zuelako euskaraz jarduteko gaitasuna.

Horregatik, ikastolan dauden erabilera eremuak kontuan hartzen hasi zen *Euskaraz Bizi* egitasmoan: hots, gela barruko jardunak (irakaskuntza-ikaskuntza prozesua, ahozkoaren erabilera...) eta gelaz kanpokoak (jolas garaia, jantokia, jaiegun eta ospakizunak...). Eta hirugarren eremu bat ere bai, eremu instituzionala deitu zutena: ikastola bakoitzak sendiekin eta erakundeekin dituen harremanak, eta eskola orduz kanpoko ikastolaren eskaintzak hain zuzen ere.

ARGITXO, EUSKARAREN LAGUNA

Argitxo izeneko iratxoa da, ezbairik gabe, *Euskaraz Bizi* proiektuaren ikurra. Euskararen laguna da Argitxo, menditik etorritakoa, eta ikastolan lagun euskaldunak egin nahi dituen, proiektuaren sortzaile Jose Luis Gorostidik pertsonaiari ezarritako ezaugarrien arabera. Horrela, ikastolako lagunekin batera, euskara bizirik nahi du Argitxok, ikastolan nahiz gainerako toki guztietan.

Urte hauetan guztietan, milaka dira Argitxoren konpainiarekin hezi eta hazi diren ikasle belaunaldiak, pertsonaiak egundoko garapena izan baitu ikastolen kolektiboan: muralak, itsasgarriak, puzzleak, DVDak, panpina...

Euskaraz Bizi ikastoletan jaino eta gorpuzturiko egitasmoa izanda ere, hain da handia Argitxok lorturiko zabalpena, gizartean ere euskararen aldeko irudi bihurtu dela. •



5.5.3. “Eleanitz” proiektua

90eko hamarkadaren hasieran, ikastolen mugimenduak beste jauzi bat eman zuen elebitasunetik eleaniztasunera pasatu zenean. Ikastoletan euskara hizkuntz nagusia izaki, gaztelera edo frantsesa ondo ezagutu eta erabiltzeko gaitasuna lortzea ez ezik atzerriko hizkuntzen ezagutza eta erabilera gehitzea izan zen hurrengo erronka. Baina planteamendu berriak ez zuen ordura artekoa mozten edo eteten, elebitasunak hor irauten zuelako eleaniztasunarekin. Eleaniztasunak, beraz, elebitasuna osatzen eta aberasten zuen.

1991n erabaki zen eleaniztasun goiztiarra izeneko egitasmoa martxan jar-tzea. Eta sorreratik 2004ra, proiektu berriaren ardura Xabier Garagorrik izan zuen. Haren esanetan, hiru izan ziren ikastoletan berrikuntza hau egiteko arrazoiak. Batetik, Europako Elkartearen esparru ekonomikoaren, politikoaren eta sozio-kulturalaren integrazioa, eta horrek europar gizabanakoengan zuen eragina. “Europako Batasunean sartu ondoren, *somos europeos* esaten zen Espainian. Beraz, ikusten genuen Europa zela harremanetarako esparrua. Eta hezkuntza-ren zeregina, izatekotan, etorkizuna prestatzea denez, garbi ikusten genuen euskaldunon lurraldean euskara izan behar zela nagusi eta ardatz, baina euskaldun gizabanako horiek Europako beste hizkuntzetan aritzeko gai ere izan behar zirela. Etorkizunean, ikastoletako ume horiek mugarik gabeko Europa batean biziko zirelako. Eta, gainera, ordurako ere entzuten hasia zen mundu globalaren kontzeptua edo ideia”.

Bigarrenik, eta aurreko egoerarekiko aurrerapausoa izanik ere, mugak ikusten zizkioten elebitasunaren planteamendu ofizialari, “ezinezkoa baita”, Garagorriren hitzetan, “nazioarteko estatusa duten gaztelania edo frantsesa hizkuntzak, euskararekin elkarren ondoan egoera orekatuan bizitzea. Euskarak, iraungo badu, bere hizkuntza eremuan hizkuntza nagusi izatera iritsi behar du. Baina, era berean, euskaldunok euskaraz ez ezik beste hizkuntzak erabiltzeko gauza izan behar dugu; bestela, euskara bera ere arriskuan bailegoko. Eta bi elementu horiek uztartzeko era bakarra eleaniztasunaren esku-tik dator”.

Hirugarrenez, abantailez hitz egin du Xabier Garagorrik. “Eleaniztun izateak dituen abantaila profesional eta sozialez aparte, gizabanakoaren gara-penari begirako beste abantaila batzuk ere baditu: pentsaera sortzaileagoa eta adimenaren malgutasun handiagoa lortzen da, komunikatzeko eta harremanetarako gaitasun handiagoa, eta hizkuntza gehiago ikasteko erraztasuna”.

Alta, aurretik garaturiko *Haurtxoa* proiektuak ere pisu handia izan zuen eleaniztasunaren planteamendurantz salto egiteko orduan, Garagorrik aitortu duenez. “Garai hartan, oso konplexua zen eleaniztasunaren kontu hau. Eta gaur egun, oraindik ere, oso konplexua da jatorrizko erdaldun bati euskara irakastea.



Baina, hain zuzen ere *Haurtxoa* proiektuarekin ikusi genuen, emaitzetan oinarrituta, ez dela kaltegarria erdaldunarentzat, baizik eta mesede ekartzen diola alde guztietatik. Hori izan zen *Haurtxoaren* ekarpena: gu seguru sentitzen ginela generaman bidean, ebaluatu egiten genuelako”.

Berritzailea

Gizon eta emakume eleanitzak sortzea eta hezitzea zen, beraz, *Eleanitz* proiektuaren helburua, euskara ardatza edo enborra zela beti. Eta horixe bihurtu zen, hain zuzen, proiektuaren logoa: zuhaitz baten antzekoa, enborra euskara dela; eta enborraren inguruko adarrak, aldiz, beste hizkuntzak.

1991-1992 ikasturtean jarri zen martxan *Eleanitz* egitasmoa, *Haurtxoarekin* erabilitako prozedura berari jarraiki. Hots, “ikastola bakar batzuekin hasi, eta haiek kontatzen zutena pizgarri izan zedila beste ikastolentzat”, Garagorriren esanetan. Eta, horrela, zortzi ikastolatan abiatu zen egitasmoa: Santo Tomas

Lizeoan (Donostia); Paz de Zigandan (Atarrabia); Urretxu-Zumarraga ikastolan; Txantxikun (Oñati); Ikasbiden (Donostia, gero publiko bihurtu zen); Jakintzan (Ordizia); Zangozako ikastolan; eta Jakintzan (Donostia, ondoren publiko bihurtu zen). Lehendabiziko bostak, hain justu, *Haurtxoa* proiektuko bost ikastola pilotuak izandakoak ziren.

Haurtxoa eta *Eleanitz* proiektuen arteko alde nabarmena denbora zen. *Haurtxoa* euskara ikasteko egun osoko metodoa zen, murgiltze ereduaren bidez. Eta *Eleanitz*, egunerokoa izanda ere, ordu erdiko saioetan oinarritzen zen.

Lehenengo hiru urteetan bi aukera eskaintzen ziren, euskara beti hizkuntza nagusia zela. Lehen aukeran —*Eleanitz-English* izenekoan—, ingelesa 4-16 urte bitarte ematen zen; gaztelania, 8-9tik 15-16ra arte; eta frantsesa, 12tik 16ra. Bigarren ereduari, aldaketa bakarra zen frantsesa 4 urtetik 16ra eskaintzen zela. Baina bigarren aukera hau inork ez zuen hautatu, ezta Hondarribia eta Irungoek ere. “Zergatik? Guraso guztiek ingelesa nahi zutelako”, Xabier Garagorriren hitzetan. “Guk, aldiz, antolatzaile gisa, ikusten genuen oso interesgarria zela frantsesa eskaintzea. Batetik, herri bezala. Bestetik, Europan, orduan ere, Euroeskualdeaz hitz egiten zelako. Era berean, Frantziatik ere oso eskaintza onak jaso genituen trukaketarako. Eta, gainera, hizkuntza gisa, errazagoa zen frantsesa ingelera baino. Baina ezer ez”.


Eleanitz, beraz, oso proiektu berritzailea zen, Hego Euskal Herriko ikastoletan ordura arte garatutako ereduaren arabera gaztelera hirugarren mailatik aurrera irakasten zelako, eta, DBHko garaiak zirenez, atzerriko lehen hizkuntza (ingelesa edo frantsesa) 12 urtetik aurrera.

“Lehen urtean bi ikastola galdu genituen, administrazioaren eskuetara pasatu zirelako”, dio Garagorrik. “Guk ez genizkien ateak itxi, eta haiek ere ez zuten halakorik erabaki: baina urtero irakasle berri bat, urtero zuzendari berria, bakoitza bere lehentasunekin. . . horrela ezin zen proiektua garatu. Jabetu ginen antolaketa giltzarria zela, baldintzak oso-oso garrantzitsuak direla. *Haurtxoak* agerian utzi zigun hori, baina beste proiektu honek askoz gehiago. Hau da, kudeaketa-antolaketa eredutik hasita ikastola sendoak edukitzea ezinbestekoa dela era honetako proiektuak garatzeko eta aurrera eramateko. Sendotasuna, bai, baina malgutasuna ere bai, ikastola bakoitzak, gero, berezko arazoak dituelako. Zorrotz, baina malgu. Proiektu honek hori erakutsi zuen”.

Ildo horretan, *Eleanitz-English* proiektuan sartzea borondatezkoa zen baina, parte hartu ahal izateko, konpromiso batzuk bete behar zituen ikastola bakoitzak. Eta federazioen eta ikastolen artean hitzarmen bat sinatzen zen, egitasmoan sartu aurretik baldintzak ongi ezagutzeko eta bete beharreko konpromisoak bermatzeko. Hala nola ingelesa 4 urterekin irakasten hasi eta 16 urtera arte jarraitzeko konpromisoa, ziklo ezberdinetarako aurreikusitako saio eta ordu kopuruak betetzea edota prestakuntza saioetan irakasleek parte hartzea.

JOSE LUIS GOROSTIDI, AITAPONTEKO

Proiektu aitzindaria izan zen Eleanitz, baina 1991-92an martxan jarri zenean hainbat ikastolatan antzeko egitasmoak garatuta zituzten jada, Jose Luis Gorostidi zenaren ekimenari esker. "Euskararekiko zaletasun handia zuen Jose Luisek, oso zorrotza zen horretan", dio Xabier Garagorrik. "Baina, ordurako, garbi zuen bere ikastoletako haurrak beste hizkuntzatan ere iaioak izan behar zirela. Gu hasi ginenerako berak abiatuta zituen hainbat esperientzia, Lizarrako ikastolan hasieran, eta Paz de Zigandan gero. Gogoan dut beti esaten niola hori beste ikastoletara zabaldu behar zela, orokortu egin behar zela. Beraz, bera izan zen nire inspirazioetako bat, nire aitaponteko modukoa".•



Ikasmaterialgintza

Eleanitz-English proiektua martxan jartzea, ordea, ez zen erraza izan. Hasteko, giza baliabide edo azpiegitura faltagatik, ingelesa zekiten irakasle asko ez zegoelako orduan.

Bestetik, aitzindaria izaki, proiektua garatzeko materialik ez zegoelako. *Haurtxoa* eredu edo oinarri gisa erabili arren, baldintzak eta denbora bezalako aldagaiak ezberdinak ziren, eta bestelako materialak behar ziren.

Eta ikasmaterialaren hutsunea hainbat erataria estaltzea lortu zen. Erromako Unibertsitateko Traute Taeschner irakaslearen bitartez, Kataluniako Josep Maria Artigalekin harremanetan jarri zen Xabier Garagorri. “Eta hark egindako materialak hartu genituen aintzat, Artigal hasita zegoelako haur hezkuntzan antzeko lanak egiten”. Ikastolek horrela eskuratu zituzten *Ready for a Story* izeneko ikasmaterialak, 4-6 urteko ikasleentzat.

1992tik 1995era, berriz, *The Adventures of Hocus and Lotus* ikasmaterialak sortu ziren 6-8 urteko ikasleentzat, Europako Elkarteko Lingua programaren baitan, eta Erromako, Birminghameko eta Euskal Herriko Unibertsitateekin eta Amsterdameko Institutuarekin batera. Ikastolen Elkartearen baitan, gainera, *Eleanitz* proiektuaren inguruan talde bat eratzen ari zen.

Socrates-Lingua bigarren edo hirugarren hizkuntza ikasteko egitasmoa zen. Eta 1996tik aurrera, Ikastolen Elkarteko Itziar Elorzak, Diana Lindsayk eta Xabier Garagorrik programaren zuzendaritza hartzearekin batera, *Story Projects* (8-10 urteko ikasleentzat), *The Explorers* (10-12 urtekoentzat) eta *Subject Projects* (12-14 urtekoentzat) izeneko programak sortu ziren.

“Urte oparoak izan ziren haiek, ekoizpen handikoak”, gogoratu du Garagorri. “8 urtetik gorako materiala guk sortu genuen, talde eta unibertsitate ezberdinekin lankidetzan. Guk euskaldunok ingelesez sorturiko materialak neerlandera, italiara eta Irlandako gaelikoa irakasteko erabili ziren. Talde horien artean zegoen Cervantes Institutuak ere guk ingelesez sorturiko materialak erabili zituen gaztelania atzerrian irakasteko. Gure artean talde indartsua zegoen, Itziar Elorza gidari zela, eta ikasmaterialgintzaren enborrak zabalpen eta dimentsio handia hartu zuen. Prozesu horren jarraipena izan zen geroztik sorturiko *Social Sciences* materiala (gizarte zientziak ingelesez, 14-16 urtekoentzat)”.

Ebaluaketa eta prestakuntza

Ikasmaterialgintzaren falta ez zen izan, aldiz, *Eleanitz* proiektuaren hastapenetan aurre egin beharreko zailtasun bakarra, Xabier Garagorrik azaldu duenez. “Garai haietan, zaila zen horrelako planteamendu bat egitea. Gogoan dut euskal sena eta itzal handiko pertsonekin egon eta, hau planteatzean, iheska ibil-

tzen zirela. Inork ez zuen posizio bat hartzen, merezi zuen edo ez esateko. Beraz, abentura gisa abiatu genuen. Baina, noski, abentura kontrolatua, azken finean, ebaluatu egiten genuelako. Oso planteamendu zorrotza, gainera, ebaluaziorri zegokionez”.

Eta ebaluaketaren bitartez ere erantzun zieten ikastoletan bertan sorturiko kezkei. “Kezka eta mesfidantza handiak zeudelako ikastoletan”, Garagorrik berak aitortu duenez. ““Zertan ari zarete?”, galdetzen ziguten askotan. Edota, ‘konturatzen al zarete euskara arriskuan jartzen duzuela eta euskara dela ikastolen ikurra?’. Eta kezka horiek argitzeko era bakarra ikasleen emaitzak ebaluatzea zen”. Eta horixe egin zuten, 1991-92an proiektuan 4 urterekin hasitako ikasleak urtez urte ebaluatuz, 2002-03 ikasturtean derrigorrezko irakaskuntza bukatu zuten arte.

Ikasle haien emaitzetan oinarrituz, ondorio garbiak atera zituen proiektuaren lan taldeak. Esaterako, ingelesari zegokionez, DBH bukatzean, ikasleen %69,7k 7. maila gainditzen zuen Trinity Collegeko ESOL frogan, mintzameneko frogan. Edota, euskarari zegokionez, emaitza globaletan ez zegoela alde nabarmenik eleaniztasun planteamendua jarraitu zuten talde esperimentalaren eta kontrol taldearen artean.

“Gainera, ingelesarekin erabilitako metodologia eta esperientzia oso baliagarria izan zitzaigun euskararen irakaskuntzarako eta euskararen metodologiaren hobekuntzarako”. Eta hori azaltzeko, adibide bat erabili du Garagorrik berak. “I4-I6 urteetan, gizarte zientziak ingelesez irakasten genituen. Ikastolen Elkarteak euskaraz sortutako materiala ingelesera itzuli eta egokitu genuen eta ingelesez irakasten genuen. Curriculum berdina, beraz. Zergatik? Ikusten genuelako iritsi behar genuela egoera natural bat, non arlo bat ingelesez irakatsiko zen. Baina, noski, gauza bat zen gizarte zientziak irakastea, eta bestea hirugarren hizkuntza batean gizarte zientziak irakastea eta aldi berean horren bidez ingelesa irakastea. Horretarako, estrategia bereziak behar dituzu”.

Beraz, prozedura horiek xehetu egin zituzten. “Gizarte zientzietako irakasleen artean, noski, kezka handiak zeuden. ‘Baina haur horiek zer ikasiko dute gizarte zientzietan?’, galdetzen ziguten. Eta gu, setatsu beti: ebaluatu. Eta gure hipotesia zen oinarritzko erantzunetan ez zela alde handirik egongo. Bai, ordea, erantzun konplexuagoetan, kontzeptu zailagoetako gaietan; emaitza hobekak izango zirela, kasu honetan, euskaraz ikasten zutenen artean”. Baina, frogak egin... eta sorpresa! “Ingelesez ikasi zutenek emaitza hobekak lortzen zituzten, alde nabarmenarekin”, dio Garagorrik. “Zergatik? Askotariko arrazoiak zeuden, baina hainbat faktoreren artean, bat argi genuen: metodologiaren ondorioz. Hau da, ingelesez irakasteko, era bateko metodologia prestatu genuen, eta euskaraz irakasteko beste bat erabiltzen zen. Beraz, euskaraz

hobeto ikasteko, ingelesez erabilitako metodologia horren hobekuntzak ezarzteza zen egokiena”.

Baina, ebaluaketarekin eta ikasmaterialgintzarekin batera, prestakuntza izan zen *Eleanitz-English* proiektuaren hirugarren zutoina. “Talde gidari indartsu genuen, eta irakasleak asko mimatu ziren”, Garagorriren hitzetan. “Pentsa, proiektuak irakasleen prestakuntzarako eredu bat sortu zuen, *Haurtxoa* egitasmoan egiten zena baino askoz ere aberatsagoa. Jauzi kualitatibo handia eman zen”.

Proiektu izarra

Hamar urtean (1991-2001), 58 ikastolek parte hartu zuten *Eleanitz-English* proiektuan: 79 gela, eta 15.000 ikasle gutxi gorabehera. *Haurtxoa* egitasmoan ez bezala, denak ikastolak ziren. Xabier Garagorrik berak eman du horren zergatia: “Ikastolak aitzindaritzaz hartzen badu, gainerako guztiak datoz atzetik. Eta hemen ere berdina gertatu zen. Proiektua beste ikastetxetara zabaltzeko eskaintza jaso genuen Jaurlaritzako Hezkuntza Sailetik, eta esan genien baietz, baina eskola publikoaren baldintza berdinetan. Eta, noski, hor bukatu zen dena”.

Horregatik, ikastoletan baino ez da garatzen *Eleanitz* proiektua. Gaur egun, Hego Euskal Herriko ikastola guztietan, bakar batean ezik. Beste ikastetxeekin alderatuta, ikastola kolektiboak duen altxorra bihurtu da, eta, era berean, ikastolen proiektu izarra. “Ikastolen bandera-ontzia bihurtu da *Eleanitz* proiektua”, dio Antonio Camposek.

“Proiektua hastean, nire ustea zen ikasleak 16 urtera iristean bukatuko zela. Hau da, hartu genuen konpromisoa beteta, bukatu eta beste arlo bati ekingo zitzaioela”, aitortu du Garagorrik. “Baina ez. *Eleanitz* proiektua bihurtu da beste berrikuntzetarako erreferentzia. Eta, gainera, erreferentzia sendoa da, berrikuntzak egiteko eredu bezala: ikasmaterialgintzarako, prestakuntzarako eta ebaluaziorako”.

Izan ere, *Eleanitz* proiektua ikerketa, garapen eta berrikuntza prozesuetzat definitzen du Garagorrik. “*Haurtxoa* izan zen I+G+(B) delakoaren aitzindaria ikastoletan, eta *Eleanitz* izan da horren hobekuntza. *Haurtxoa* egitasmoan frogatu genuen jatorriz erdalduna den batentzako ez dela kaltegarria murgiltze ereduaren aritzea. Eta *Eleanitz* proiektuarekin frogatu dugu hizkuntza goiztiarrarekin hastea, 4 urterekin hastea, ez dela inolaz ere kaltegarria: ez adimenarentzat, ez euskararentzat, ez hizkuntzarekiko jarrerarentzat; gainera, euskara ez da galtzaile, eta mesede egiten zaio”.

Horregatik, inoiz bukatzen ez den proiektu horietako bat da *Eleanitz*. Materialak neurrira egiten dira; eskatutakoaren araberrako tiradak egin eta



banatu. Eta hurrengo urtean, beharrezko berrikuntzak eginda, gauza bera. Ingelesari dagokionez, prozesu indartsua da, 4 urtetik 16ra bitartekoa.

Hori guztia gutxi balitz, 2007an abiatu zen frantsesari dagokion *Eleanitz* proiektua. Eta alemana ere irakasten da ikastola batzuetan. Ikastolen taldeak, beraz, aitzindaritza erakutsi zuen beste behin, gaur egun bolo-bolo entzuten den eleaniztasuna praktikara aspaldian eraman baitzuen.



NAZIOARTEAK SARITUTAKO EGITASMOA

Euskal Herrian ez ezik, nazioartean ere sari garrantzitsuak eskuratu ditu Eleanitz proiektuak. 1998ko azaroan, esaterako, proiektuaren History Projects ingeleseko materialak Sello europeo de educación saria jaso zuen Madrilen, Europako Batzordeak emana, eta sasoi hartan batzordeko partaideak ziren Edith Cressonen eta Esperanza Aguirreren eskutik.

2006ko azaroaren 15ean, berriz, ESU President's Award 2006 saria jaso zuten ikastolek Londresko Buckinghameko jauregian. GIEko orduko lehendakari Joxerra Zubizarretarekin batera, Diana Lindsay eta Itziar Elorza sartu ziren jauregira; eta Elorzak berak jaso zuen saria Edinburgoko dukearen eskutik, Eleanitz proiektuaren arduraduna baitzen.

Ingelesaren irakaskuntza saritzeko helburuz sortua, lehen aldia zen Londresko English Speaking Union Fundazioaren saria Britainia Handikoa ez zen erakunde bati ematen ziotela. Zehazki, Space Search CD-ROMarengatik izan zen saritua ikastolen kolektiboa: ingelesa lantzeko CD-ROMa zen, eta gelako ohiko ikasmaterialen osagarri gisa prestatuta zegoen.

Xabier Garagorriren esanetan, "sari horiek balio izan dute agerian uzteko ikastoletan egiten dugun lana homologarria dela; egiten dugun lanak kalitatea duela eta kalitate hori aitortzen eta bermatzen dela.

Euskaldunok konplexuak izan ohi ditugulako, eta horrelakoak baloratzen ditugu baldin eta kanpoan ere baloratuz gero. Beraz, autokontzeptu positibo hori edukitzeko ere asko balio izan digu proiektu honek".•







6.

KRISITIK IKASTOLA EREDUAREN HEDAPENERA (1993-2009)

6.I. 1993KO KRISIA EAEKO IKASTOLETAN

6.I.I. Testuingurua

90eko hamarkadaren hasieran, ikastolen mugimenduak ondo eginak zituen etxeko lanak. Ondo baino hobeto. 1987ko abenduaren 18ko akordioan adostutakoari jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoan Euskal Eskola Publiko berri bat emango lukeen bidea egiteko prestatu ziren ikastolak: Euskal Eskola proiektua eta horren bideragarritasun juridikorako lana eginez, barne mailan kohesioa lortuz, alderdi politikoekin jardunez...

Alabaina, Jaurlearitzako Hezkuntza Sailak, eta EAJ-PSOE gobernuak oro har, ez zituen zegozkion konpromisoak bete. Bateratze Legea izan behar zuena, ikastolen finantzaziorako lege gisa onartu zen 1988an, orduko eskola sare publikoan nahiz ikastoletan egin beharreko aldatetegi babes juridikoa ematen zien titulua edo zatia ezabatuz. 1989an Hezkuntza Sailak ateratako Euskal Eskola Publikoaren Legearen zirriborroak, berriz, ez zuen inolako oihartzunik izan, eta EAJ alderdiak berak ez zion garrantziarik eman.

1990eko urte hartan lau urte betetzen ziren 1986an sozialistek irabazitako hauteskundeetatik, eta gauza jakina zen hauteskundeak egingo zirela EAEn. Eta jeltzaleen aurreikuspenen arabera, hauteskundeon ondotik haien posizioa indartu egingo zen eta beste gobernu bat eratuko zen.

Egoera hartan, Jose Ramon Rekalde Hezkuntza sailburuak (PSE-PSOE) jakin bazekien Euskal Eskola Publikoaren Legea ez zela onartuko amaitzear zegoen legealdia bukatu baino lehen. Ez zegoen horretarako denborarik, EAJk



ez zuen horrelakorik nahi, eta PSE-PSOEek berak ere ez zuen 1987ko akordioa betetzeko asmorik, 1988ko hastapenetatik agerian utzi zuen bezala.

1990. urte hartan PSOE-PSE eta EAJren arteko gobernuaren barne-etena nabari egin zen. EAeko euskal hezkuntzan sakoneko eragina izan zezakeen eztabaida alboratu zuen Hezkuntza Sailak, alderdi sozialistak alegia, eta ikastolen irudia kaltetzeari ekin zion, horrek boto kopurua handituko ziolakoan. Euskal sozialistek jada ez zuten ikastolen ondoan agertu beharrik, eta, are gutxiago zuten ikastolekin sinaturiko hitzarmen batekin hauteskundeetara aurkezteko asmorik. Hauteskunderen atari hartan, PSE-PSOEek jakin bazekielako ez zuela lortuko gobernu berriaren osaketa baldintzatzea, 1986an bezala, eta EAJren posizioa indartu egingo zela.

Eta ikastolak sozialki eta mediatikoki higitzeko mezuak zabaltzarekin batera, 1990ean Rekaldek bertan behera utzi zuen ikastolen kolektiboarekin urtebete lehenago sinaturiko finantzazio akordioa. Izan ere, 1989ko hitzarmena berriro beharra zegoen, bi parteen adostu bezala. Baina uste orokorra zenez gobernu berriak heldu beharko ziola Euskal Eskola Publikoaren Legearen auziari, ikastolekiko finantzazio hitzarmena bertan behera utzi eta gai hori ere hurrengo gobernuaren ardurapean utzi zuen Rekaldek.

Hauteskundeak, azkenik, 1990eko urriaren 28an egin ziren Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. EAJk boto eta legebiltzar gehien lortu zituen, baina gehiengo osora heldu gabe. Gobernu berria osatzeko negoziazio prozesu luze bati ekin zion orduan.

6.1.2. EAJ-EA-EE gobernuak, Inaxio Oliveri Hezkuntza sailburu

Hauteskundeak egin ondoren, 1990eko udazken-neguan, Jaurilaritza berria osatzeko negoziazioak hasi ziren. EAJren eta PSE-PSOEren arteko harremanak oso txarrak ziren une hartan; jeltzaleen eta Euskadiko Ezkerraren (EE) artean, aldiz, hurbilpen handia eman zen, eta EAJren eta Eusko Alkartasunaren (EA) arteko hasierako tentsioa ere nabarmen baretu zen.

Gobernuak eratzeari begira EAJk, EAK eta EEk egin zituzten negoziazio haietan, hain zuzen ere Hezkuntza Saila izan zen eztabaidagai nagusienetakoa: Saila nork hartu baino, Sailari zein norabide eman.

Abagune hartan, ikastolek Euskadiko Ezkerrarekin bilera ofizial bat egin zuten. Bilera hartan, ikastolekiko zegoen planteamendua jakinarazi zieten ikastolei beraiei, aurretik adosturiko Euskal Eskola Publikoaren Lege hura ez zela egingo adieraziz. Hezkuntzaren zerbitzu publikoaren lege bat izan zen hizpide. Harremanen testuinguru hartan, proposatutako kooperazio mailari onargarria iritzi zioten ikastolek; bai, bederen, negoziazio zabat bati ekiteko adina.

Euskal hezkuntzaren akordioa

Legealdi berria 1991ko otsailan abiatu zen, EAJ-EA-EE hirukoak osaturiko gobernua eratuta. Hiruko batek osaturiko estreinako Jaurlaritza zen hura; Jose Antonio Ardanzak (EAJ) lehendakari gisa errepikatu zuen, baina Inaxio Oliveri (EA) zen Hezkuntza sailburua.

Oliveriren beraren hitzek bat egiten dute arestian aipatutakoarekin. Alegia, Euskal Eskola Publikoaren Legea egitea baino, euskal hezkuntzaren akordio modukoa egitea zela helburua: “90eko hamarkadaren hasieran, jaiotze tasa izugarri jaitsi zen Euskal Autonomia Erkidegoan, eta *ikaslearen ehiza* latza ematen zen ikastetxeen artean. Testuinguru hartan, beraz, akordio bat lortu nahi genuen alderdi politikoeekin nahiz hezkuntza mailako eragileekin. Eta akordio hartan, Euskal Eskola Publikoaren Legeaz gain, hezkuntza sistema osoa arautzeko adostasuna lortzea zen gure helburua”.

Gobernu programan ere euskal hezkuntzari buruzko akordioa egiteko asmoa edo nahia agertzen zen, eta akordio hartan bi eskola sare planteatzen ziren: sare publikoa eta sare pribatua. Bi sareentzat ia baldintza berdineko finantzazioa izan arren, ikastetxe pribatuei baldintza batzuk proposatzen zizkieten. Azken finean, eskola mapa bat egin behar zen, eta mapa horretan sartzen zirenek onura batzuk izango zituzten, baina, era berean, baita baldintza batzuk bete beharra ere.

EAJk eta EEk ere ez zuten aurreikusi Euskal Eskola Publikorako Legerik legealdi berrirako. Aurreko legegintzaldian Euskal Funtzio Publikorako Legea onartu ondotik, garbi ikusi zen estatuko funtzionarioen araudia denentzako berdina eta aldaezina zela, Gizarte Segurantzaren Kutxaren antzera. Ondorioz, EAJk eta EEk esaten zuten funtzionarioen araudi horrekin ezinezkoa zela eskolaren autonomia. Eta noski, eskola publikoa funtzionaritzan oinarrituriko eskola bat izanik, ikastolek planteaturiko eskola aldaketa hura oso-oso zaila zela argudiatzen zuten. Halaber, gerta zitekeen berriz ere ikastolei lan araudi ezberdin bat ematea —eta ez funtzionarioena—, eta sare publikoaren barruan bi araudi egotea; eta beraz, berriro iskanbila sortzea.

Negoiazio gogorrak

Jose Ramon Rekalderen ondoren, Inaxio Oliveri Hezkuntza sailburu izendatzeak ikastolen mugimenduan itxaropenerako izpiak eragin bazituen ere, beldurrak ez zituen erabat uxatu. Oliveri lehen Jaurlaritzan egona zen teknikari gisa, Gipuzkoako federaziotik Jaurlaritzara joanda, eta federazioekin negoziatzea ez omen zuen begi onez ikusten. “Ikastola guztiak ezagutzen zituenez, ikastolekin zuzenean negoziatu nahi zuen Oliverik, federazioek beste indar bat zutela jakin bazekielako”, dio Antonio Camposek. “Gainera, federazioan egona

zela ezaguna zenez, eta inork ez pentsatzeko ikastolen alde jarduten zuela, kontrakoa erakutsi nahi zuen hark, sare publikoa defendatuz beti”.

Oliveri, noski, ez dago ados Camposen hitzekin. “Ikastolekin, garai haietan, bi arazo zeuden”, dio Hezkuntza sailburu ohiak. “Bata zen batxilergorako baimena, baimenik gabe martxan jarritakoak. Eta guk geuk lauzpabost onartu genituen! Eta beste arazoa zen Rekalderekin itxitako finantzazio berezia”.

1989an sinaturiko hitzarmenari jarraiki, administrazioak finantzazio berezia ematen zien ikastolei, hauen gastu errealak estaliz. Eta hitzarmena berritu beharra zegoen, Rekaldek bertan behera utzi baitzuen 1990ean. Gainera, urtez urte ikastolek jaso beharreko finantzazio berezi hori negoziatu egin behar zen, 1989ko akordioan ez zirelako zehaztu urte bakoitzeko kopuruak. Ikastolen mugimenduko ordezkarien esanetan, urte bakoitzean jaso beharreko kopuruak nahita ez ziren finkatu, kostoak urte batetik bestera alda zitezkeelako, eta ikastolek hazkunde izugarria zutelako orduan.

Baina, finantzazio hitzarmena berritzeko eta ekonomikoki zehazteko orduan, ikastolen mugimenduaren eta Oliverik gidaturiko Hezkuntza Sailaren arteko negoziazioak ez ziren samurrak izan. Prozesuak luze jo zuen, eta desadostasunez beterikoa izan zen, bi aldeek aitortu bezala.

1991ko irailean, azkenean, bi aldeek akordioa itxi zuten eta, horren ondorioz, finantzazio eredu berezi horrek indarrean jarraitu zuen ikastolentzat. Baina EAJ-EA-EE hirukoa hautsi ostean 1991n Fernando Buesa sozialista Hezkuntza sailburu izendatu zutenean, are zailago eta iskanbilatsuago bihurtu zen finantzazio eredu.

Izan ere, Oliveriren Hezkuntza Sailarekin akordioa lortu zen egun berean hautsi baitzen EAJk, EAk eta EEk osaturiko hirukoa. EAJk eta EEk gobernutik kanporatu zuten EA, honek independentziaren aldeko mozioak aurkeztu zituelako udaletan. Oliveriren esanetan, ordea, hiruko hura hausteko benetako arrazoiak urte bereko maiatzeko udal hauteskundeen ondotik EAJk eta PSE-PSOEek lorturiko akordio globala izan zen, udaletan eta aldundietan bien arteko gobernuak eratzeke helburua zuelako.

Hirukoaren apurketak Euskadiko Ezkerraren apurketa ere ekarri zuen. Añamendi korrontea osatzen zutenek elkartasuna adierazi zioten EAri, EE utzi zuten, eta Euskal Ezkerra (EuE) alderdia sortu zuten gero. Xabier Gurrutxaga, Kepa Aulestia edo Martin Auzmendik egin zuten hautu hura. *Renovación democrática* korrontekoek, aldiz, Ardanza lehendakiaren jokaera babestu zuten, eta gero EAJ-PSE gobernuaren hirugarren hanka bihurtu zen EE. Mario Onaindia, Juan Mari Bandres edo Xabier Markiegi zeuden bigarren korronte horretan. Hain zuzen ere korronte hori nagusitu zen alderdiaren ildoaren baitako eztabaidan.

Ibilbide motza egin zuen, beraz, EAJ-EA-EE hirukoak: 1991ko otsailetik irailera hain justu. Eta finantzazio hitzarmenaren berritzeak ez zuen aurrera-

pausorik ekarri ikastolentzat. Inaxio Oliveriren arabera, ez zuten izan denborarik nahi zutena aurrera eramateko. Ikastolen Elkarteko orduko arduradunentzat, ordea, agerian geratu zen EAren hezkuntza proiekturik eza, ez baitzuen ezta Gernikako Autonomia Estatutuak hezkuntza arloan eskaintzen zituen bideak garatzeko estrategia ere. 1990-91 urteetan Euskadiko Ezkerrak mahai gainean jarri zuen hezkuntzaren zerbitzu publikoaren arabera legea eta finantzazioa oso aurrerakoitzat jo zuen Ikastolen Elkarteak, eta hura akordio batera eramateko prest zegoen, baina EAren ardurapeko Hezkuntza Sailak ez zuen aurrera egin.

Gobernu hura hautsi ondoren, beraz, legealdi berria hasi zen beste hiruko batez osaturiko Jaurlaritzarekin: EAJ-EE-PSE.

6.1.3. EAJ-EE-PSE gobernua, Fernando Buesa Hezkuntza sailburu

EAJ-EA-EE hirukoa hautsi eta 10 egunera, 1991ko irailaren 26an, EAJ eta PSE-PSOE alderdien arteko gobernu akordio berria lortu eta aurreko gobernuaren programa lurperatu zuten. EEko sektore ofizialak ez zuen akordio haren negoziazioetan parte hartu, baina konpromisoak izenpetu zituen.

Urriaren 4an Jaurlaritza berria eratu zen: EAJ-EE-PSE. Hezkuntza Saila, berriz ere, giltzarri izan zen Jaurlaritza eratzekeo negoziazioetan, eta, azkenean, PSEren eskuetan gelditu zen. Fernando Buesa Hezkuntza sailburu izendatu zuten.

Ikastola auzia

Euskal hezkuntza-sistema propioa eta, horren barruan, euskal eskola publiko berriaren proiektuei buruzko eztabaida bere mugarrietara heldua zegoen 1991. urteko hondarrean. Zirt edo zart egin behar zuen Eusko Jaurlaritzak.

Eztabaida orokorraren azpian, ordea, ezkutuan beste kezka bat ere egon zitekeen: eskola-sare bakoitzak orduan zuen matrikulazio-kuota eta, bereziki, ondorengo hamarkadan izango zuena. Ikastolak 1987an ez ziren faktore horren eraginaz jabetu, baina dirudienez 1988an Jaurlaritzak berak egin zuen ikerketa prospektibo baten arabera, euskal ikastetxeetan 2000. urteko ikasle-matrikulatuen eszenatokiak ikastolen nagusitze nabaria marrazten zuten, ikastetxe erlijiosoen jaistarekin eta eskola publikoaren matrikulazioa %15a galtzarekin batera. Eusko Jaurlaritzaren kudeatzaile ziren bi alderdiek ziotenez, horri irtenbidea eman behar zitzaion, ikastolen auziak sekulako ondorioak izan zitzakeelako, politikoak ez ezik ekonomikoak.

Eskola-eredu berriari buruzko bidea alboan utzita, orduko eskola publikoa indartzea Eusko Jaurlaritzaren lehentasun bihurtu zen, batetik, eta eskola publi-

koaren matrikulazio-tasari eutsiko zion bidea jorratzea bestetik. Ikastolek eragindako desoreka nola edo hala ekidin behar zen, eta hori lortzen zen ikastolak sare publikora pasatuz.

Buesari emandako enkargua

Horrek guztiak garrantzia berezia hartu zuen 1991ko bukaera hartan. PSE-PSOEek hitzartuta zeukan EAJrekin Euskal Eskola Publikoaren Legea legealdi berrian egin beharra zegoela, eta, gainera, eskola publikoaren orduko eredua ardatz hartuta egin behar zela.

Ikastoletako garaiko buruzagien esanetan, Buesa Hezkuntza sailburu izendatu zutenean, mandatu zehatz batekin izendatu zuten: Euskal Eskola Publikoaren Legea egitea, lege horren bitartez ahalik eta ikastola kopuru handiena eskola publikoen sarean sartzera, eta ikastetxe publikoez eta pribatuez osaturiko hezkuntza-sistema klasikora itzultzea.

Urte hartako Gabonak baino lehen, J. Iñaki Etxezarreta eta Antonio Campos Buesa Hezkuntza Sailburuarekin eta haren taldearekin bildu ziren. Haien esanetan, Buesa Sailburuak *enkargu* hitza errepikatu zuen bileran, etengabe, eta emandako enkargua betetzea zela haren lana. Ikastolei akordiorako eskaini zien aukera bakarra ikastola guztiak eskola publikoen sarean sartzeko hautura mugaritu zen.

J. Iñaki Etxezarretak dioenez, “ikastolen auziarekin bukatzeko enkargua Buesa Sailburuari alderdi sozialistaren buruzagitzak eman zion, Rekalderen garaian zintzilik gelditu zitzaien operazioa errematatu behar zutelako”. Eta sozialistek erabaki hura hartzeko orduan, hiru arrazoi edo zergati nabarmendu ditu. “Ikastolen izaeraren hiru ezaugarrik sozialistak aztoratzen zituen: Euskaldun izaera, ikastetxearen titularitate soziala eta ikastolen arteko berrikuntza-sarea. Alegia, euskal hezkuntza-erakunde autonomoa izan nahi genuela ez zitzaion buruan sartzen Buesa Sailburuari, ezta garaiko alderdi abertzaleei ere, egia esan behar bada”

PSE-PSOEren helburua hori zenik ukatu egin du, ordea, Isabel Zelaak. 1987ko martxotik 1991ko otsailera arte Jose Ramon Rekalde Hezkuntza sailburuaren kabinetea zuzendu ondoren, Zela Hezkuntza sailburuordea izan zen Fernando Buesarekin, 1991ko urritik 1995eko urtarrilera. Urte luzez PSE-EEko legebiltzarkide gisa jardun eta gero, Zela EAeko Hezkuntza sailburua da 2009ko maiatzaz geroztik, eta J. Iñaki Etxezarretaren oso bestelako iritzia du: “Bateratze Legeak irekitako bidea amaierara eramane nahi zen. Hasitako bidea bukatzeko nahi bat genuen. Ikastolen behin-behinekotasun luze horri erabateko irtenbidea emateko gogo bat, eta ikastolek Euskal Eskola Publikoaren partaide izateko borondatea gauzatu ahal izateko markoa eskaintzeko asmo bat”.

Fernando Buesarekin bilera egin eta egun gutxitara, Ikastolen Elkarteak bilera egiteko eskaera egin zion EAJko zuzendaritzari, “Buesa Sailburuarekin izandako bilkuran jasotakoa zuzena zen edo ez jakiteko”, Etxezarretak berak azaldu duenez. “EBBk izendaturiko hiru lagunekin egon ginen. Eta haiek transmititu ziguten horren berri ez zutela eta ez zela hainbesterako izango. Eta egoera diktomiko hartan hilabete asko pasatu genituen: Buesa Sailburuak aurreratu ziguna betetzen hasi zen, eta EAJk, bitartean, ez zuen sinesten gertatzen zitzaiguna”.

Hiru fronte

Hezkuntza Sailak 1992ko urtarriletik ekin zion bere egitasmoa betetzeari. Alde batetik, Euskal Eskola Publikoaren Legearen zirriborroa egin zuen, eskola-eredu estatalean oinarrituta: eskola publikoaren titularra Gobernua zen eta honek kudeatuko zuen; langileak funtzionarioak ziren; eta eskolen artean ez zen egongo sarerik edo loturarik. Beste batetik, ikastolen ahultze ekonomikoa ekarriko zuen bidea urratu zuen Hezkuntza Sailak. Ikastolek 1991n Oliveri Sailburuarekin itxitako akordioa ez zela loteslea zioen Buesak, eta argudio hori erabili zuen ikastolei ez ordaintzeko, edota berandu eta partzialki ordaintzeko. “Buesak esaten zigun Euskal Eskola Publikoaren Legea egin arte zentimo bat bera ere ez genuela jasoko” gogoratzen dute Ikastolen Elkartekoeak. Bistanenez, publiko edo pribatua hautua erabakitzeke uea iristean, ikastolak ekonomikoki ahituta egotea helburu garbia zuen Hezkuntza Sailak.



Baina, bi arlo horiez gain, hirugarren borroka fronte bat ere egon zen ikastolen eta orduko Hezkuntza Sailburuaren artean: ikastolek zabaldu berri zituzten batxilergo-gelak. Eusko Jaurlaritzak ez zituen baimentzen eta Ikastolen Elkarteak ezinbestekoak zituen, horien baitan 16 urtera arteko eskolaldia bermatu baitzitekeen ikastoletan. Ikasleen ikasketak legeztatzeko elkartasun-sistema asmatu eta martxan jarri zuten ikastolek. Eta Hezkuntza Sailak sistema hori zigortzeko neurri administratiboak abiatu zituen.

TXARTEL GORRIA BUESARI

Fernando Buesa Hezkuntza sailburuak ikastolen kontra zeukan jarrera salatzeko, haren kontrako kanpaina gogorra antolatu zuen ikastolen mugimenduak 1992an. PSE-PSOEn ez ezik, EAJn ere haserrea eragin zuen kanpaina hark.

Buesa, Euskadin off side zaude lelopean, milaka itsasgarri eta txartel gorri banatu ziren Euskal Herrian. Txartel edo postal haietan, Buesa Hezkuntza Saitetik kentzea eskatzen zioten Ardanza lehendakariari; eta edonork babestu zezakeen eskaera hura, txartelean bere sinadura jarriz gero.

“Milaka kutxa bete genituen txartel gorri haiekin, eta Ajuria Eneara eramane genituen, manifestazio izugarria eginez”, gogorarazi du Antonio Camposek. “Ajuria Eneako kanpoaldean ginela, Ardanzak deitu zidan, esanez ni bakarrik pasatzeko barrura. Sartu eta esan zidan egoera hori ez zela jasangarria; eskola publikoaren legea onartuko zela eta kontuan hartu behar genuela ikastola batzuk sare publikora pasatu beharko zirela, egoerari soluzio bat bilatu behar zitzaioela... Buesaren kontrako kanpaina bertan behera uztea eskatu zidan. Nik baietz erantzun nion, baina ikastolei zegokigun dirua emanez gero. Ardanzak hitza eman zidan hori bideratuko zuela, eta halaxe egin zuen handik denbora batera, Jose Luis Larrea Ogasun sailburua jarri zuelako zeregin horretan”.

Buesak, bere aldetik, Ikastolen Elkarteari leporatu zion “haurrak borroka politikorako erabiltzea”.

Eskola Itunerako akordio politikoa

Ikastolen mugimenduak II. Batzar Nazionala egin eta lau hilabetera, 1992ko ekainaren 16an, Eskola Ituna izenekoa sinatu zuten EAJk eta PSE-PSOEk. Itun hark, besteak beste, Euskal Eskola Publikoaren Legearen eta Irakasle Gorputz Ez-Unibertsitarioaren Legearen aurreproiektuak jasotzen zituen. Biak ala biak, Fernando Buesak berak diseinaturikoak.

“Ezberdinen arteko itunak eta hitzarmenak dira baliotsuenak eta iraunkorrenak hezkuntza munduan”, adierazi du Isabel Zelaak. “Argi dago gure hezkuntza ereduak eta EAJrena ez direla berdinak. Adibidez, ez dugu berdin baloratzen eskola publikoak hezkuntza munduan jokatu beharreko zeregina. Baina, hala ere, jakin izan genuen akordio zabala adosten eta jator jokatzeko adostutakoaren aurrean. Eta ez EAJrekin bakarrik, EErekin ere bai”.

Ikastolek ere inflexio-puntutzat jo zuten Eskola Itun hura. Haien ordezkariak uste dute Euskal Autonomia Erkidegoko eskolari begirako “estatu hitzarmena” izan zela, eta akordio hartan bat egiten zutela EAJren eta PSE-PSOEren interesek. “Sozialistek estatuaren papera betetzen zuten. Eta EAJk, Euskal Administrazioaren kudeatzaile lana hartu zuen: eskola publikoaren galbidearen erantzukizuna bere gain hartu eta horri irtenbide bat eman nahi izan zion”. EAJren eskemaren baitan normalizazioa lortu behar zen. Eta normalizatzeko horrek zekarren, batetik, eskola publikoa euskalduntzen jarraitzea, baina gehiago ukitu gabe; bestetik, ahalik eta ikastola gehien sare publikora pasatzea, batik batik haien bideragarritasuna ziurtatzeko gai ez ziren ikastolen kasuan. Horrela sare publikoa umez betetzeko eta ikastolen ospea sare publikora pasatzeko, ikastetxe publikoek zilegitasuna izan zezaten.

Beraz, ikastolen isolamendua behar-beharrezkoa zitzaizela, eta Jaurlaritzaren helburuak aurrera eramateko, EAJk eta PSE-PSOEek itunpeko ikastetxeen laguntza bilatu zuten. Eskola Itun haren bitartez, diru laguntzak bermatzen zituzten ikastetxe kontzertatu gisa. Eta ikastolek orduko hartan diru gehiago jasotzen zuten, eman beharreko laguntzak ikastolek zituzten kopuruetara hurbilduko zirela proposatu zuten bi alderdiek. Itunpeko ikastetxeen finantzazioa handituko zela, bestela esanda. Gainera, EAEko itunpeko ikastetxeek onartu zuten jada estatu osoan indarrean zegoen *pago delegado* izenekoak. Onarpen harekin, ikastetxeen autonomiaren gako garrantzitsu bat hautsi egin zen.

Gauzak horrela, Eusko Jaurlaritzak itunpeko ikastetxeen babesak lortu eta gero, ikastolak bakarrik gelditu ziren; eskola publikoetan aldaketak nahi ez zituztenak nagusi izanez, eta ikastetxe pribatuak epe laburreko beren interesak zainduta, ikastolek defendatu zuten Euskal Eskola hezkuntza-sistema propiorako betarik ez zegoen. J. Iñaki Etxezarretaren hitzak gogorak bezain argiak dira: “Hogeita hamar urteko ikastola-mugimendu gaztea, betiko publiko-pribatu dialektikan sartu, hirugarren espazioa desegin eta ikastetxe publikoen ikasle matrikulazio-tasa bermatu nahi zuten”.

“Zer egin genuen gaizki?” beren buruei galdetu izan diete Ikastolen Elkarreko ordezkariak urte haietako gertaerak egungo ikuspegitik begiratuta. Ura pasa ostean, alferrik da ur-presa egitea, baina esan daiteke egingarritasunak behar zuen osagai-proporzioa ez zuela ikastolen planteamenduak, bereziki hirugarren batzuen interesak jokoan sartzen zituen heinean. Ikastola mugimen-

duaren planteamendua, bere ibilbide historikoarekiko koherentzian oinarritu zen, baina alderdi politikoetan eta eskola-sektorean eragin zitzakeen inpaktua aurreikusi gabe. Ikuspegi hori falta izan zitzaion ikastolen planteamenduari. Ideia berriak bai, gogoia eta ekimena ere bai, baina ur handi haiek eskatzen zuten aliantzarik ez.

ERASOAREN ERDIAN, ARMENTIA IKASTOLAREN SORRERA

1993ko urtea ez ezik, 1993ren atarikoak ere oso une zailak izan ziren ikastola kolektiboarentzat. Ikastola proiektua bera desagertaraztea bilatzen zuten testuingurua baitzen hura. Baina, hain justu ikastolen kontrako eraso gogorraren erdi-erdian abiatu zen Gasteizko Armentia ikastola, 1992-93 ikasturtean, 17 ikaslerekin. “Egoera oso tristea zen orduan Gasteizen”, gogorarazi du Joseba Aginagalde 1989az geroztik Arabako Ikastolen Elkarteak (AIE) zuzendariak. “Olabide federaziotik kanpo zegoen aspalditik; Umandi eta Abetxuko, publiko egitearen aldekoak ziren; eta Toki-Eder publikoa zen, baina ez zuen ikastolen proiektuarekin bat egin nahi. Beraz, Gasteizen umezurtz gelditzeko bidean geundela aurreikusi eta Armentia ikastola sortzea erabaki zen”.

Ez ziren gutxi izan, ordea, apustuak gainditu behar izan zituen zailtasunak. Arabako Ikastolen Elkarte bera izan zen, hasiera batean, ikastola berriaren tituladuna, eta gelak inongo aitorten legal eta ekonomikorik gabe zabaldu behar izan zituzten. Ikastolak ateak ireki zituenean, esaterako, gurasoek Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren gutuna jaso zuten etxeetan, azpimarratuz haien haurren ikasketek ez zutela balio akademikorik izango. Eta Hezkuntza Sailak mezu bereko iragarkiak jarri zituen prentsan.

Presio haien ondorioz, une batean, AIE itxi eta bertako langileak langabezira joan ziren, 1994an Arabako Ikastolen Federakundea (AIF) sortu zen arte. Baina, zailtasunak zailtasun, Armentia ikastolak aurrera egin zuen, bertako gurasoen, langileen eta laguntzaileen ekarpen nekaezinaren bitartez eta ikastolen mugimenduan sorturiko Elkartasun Kutxari esker.

“Harro egoteko elementua da Elkartasun Kutxa”, dio Joseba Aginagaldek. “Ero batzuei soilik burura ziezaiekeen horrelakorik. Eta ikastoloi bururatu zitzaigun, martxan jarri genuen eta, gainera, frogatu dugu balio izan duela”.

Gaur egun, 800 ikasle ditu Armentia ikastolak. •

6.1.4. Eztabaida ikastoletan eta gizartean. Zer zegoen jokoan?

Euskal Eskola sortzeko borondate politiko eza eta eskola publiko berria egiteko traba politikoak ikastolen kezka izanik ere, erabat ulergaitza zitzaien ikastolei Ikastola proiektua desegiteko Eusko Jaurlaritzak zuen estrategia. Zenbait unetan, kezka amorru bihurtu zen, eta oso gertaera larriak eragiteko kinkan egon zen. 1992ko udazkenean, esaterako, Biasterin, eskualdeko herritar batzuek Fernando Buesaren autoa astindu zuten.

Nahi eta ezin. Halaxe bizi zen testuinguru gogor hura ikastoletan. Orduko giroan patxadarako eta sosegurako tarterik ez zegoela zirudien. Hogeita hamar urteko lanaren emaitza galtzeko arriskua zegoela sentitzen zuten ikastolek. Gobernu frankistarekin bizitako problemak igaro ostean, ikastolek ez zuten ulertzen Eusko Jaurlaritzaren jokabide haren zergatia, Hezkuntza Sailarekin egindako akordio idatziak ez betetzea ulergaitza egiten zitzaien.

Baina, hori guztia nahikoa ez, eta ezin zuten sinetsi Eusko Jaurlaritzak ikastolak mapatik ezabatu nahi zituztela 1993ko testuinguru hartan, eta hartara neurri politikoak eta administratiboak hartuak zituela. Erraldoiak ttipia menperatzeko desproporzioa, nabariegia zen. Ikastolena, orduko orainaldian lekurik ez zuen iraganeko auzia zen, antza denez.

Fernando Buesak berak, adibidez, Euskal Eskola Publikoaren Legea eta Irakasle Gorputz Ez-Unibertsitarioaren Legea EAEko hezkuntza sistemaren antolaketarako giltzarriak zirela esan zuen 1993ko otsailean, bi legeak Legebiltzarrean bozkatu baino sei egun lehenago. “Euskal gizartean gehiegi luzatzen ari den eztabaida amaitzen dute bi lege horiek”, adierazi zuen Buesak otsailaren 14an, Alberto Surio kazetariak *El Diario Vasco* egunkarian egindako elkarrizketan. Euskal Eskola Publikoaren Legearen kasuan, zehazki, “iraganeko kontuak kitzatzea” zela iritzi zion orduko Hezkuntza Sailburuak. Buesarentzat, halaber, “kontsentsuaren” arabera jokatu zuten, legeak lantzeko prozesuan Ikastolen Elkarteak “bere burua baztertu” zuela azpimarratzen zuen bitartean. Ikastolen ordezkariak, berriz, Buesak lege zirriborro bat bera ere ez ziela pasatu gogoratzen dute, eta gehitzen dute sailburuak bidea bere kasa eta haiekiko ez ikusiarena eginez burutu zuela.

Giroa, beraz, bero-bero zegoen. Eta Euskal Eskola Publikoaren Legea Eusko Legebiltzarrean bozkatzeko tramiteek aurrera egin ahala, eztabaidak gora egin zuten, alderdi politikoetan, sindikatuetan nahiz ikastoletan. Baina, zer zegoen jokoan?

EAEko ikastolen esku Ikastola ereduaren geroa

Ikastolen kolektiboko partaideentzako ez zegoen zalantzarik. “Ikastola eredu eta ikastolak gizarteari egindako ekarpena bera zegoen jokoan. Beraz, osoki dena zegoen jokoan”, dio Manu Aurrekoetxeak. 1982tik 1990era Portugalete-

ko ikastolako irakaslea izan zen Aurrekoetxea, eta 1990ean lanean hasi zen Bizkaiko Ikastolen Elkartearen (BIE); 1992az geroztik BIEko zuzendaria da. 2006-2007 ikasturtetik, berriz, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko Prestakuntza arduraduna da Manu Aurrekoetxea.

“Ikastola bera zegoen jokoan, azkenean, publikazio prozesu hartan sartuz gero, irentsi egingo gintuen gurpil handi batean sartuko ginatkeelako”, azpimarratu du Jose Luis Sukiak.

J. Iñaki Etxezarreta harago joan da. “Finean, gizarte eredu bat zegoen jokoan. Ikastolen hezkuntza eredu horren bitartez, eskola ulertzeko modu bat zegoen ezbaian, eta beraz, gizarte: lan kooperatiboa, elkartasuna, dena administrazioaren eskutan ez uztearena... Administrazioarekin kooperatu, bai, baina lan egiten uztea ere bai. Ikastoletan izan ezik, kontzepzio hori ez zegoen eskola-munduan; eta gaur egun, oraindik ere, oso gutxi dute”.

Alderdi politikoetako garaiko ordezkariak, aldiz, bestelako iritzirik dute 1993an jokoan zegoenari buruz.

Alderdi politikoak

“Legea bazetorrela konturatzean, guk elkarrizketa-prozesu bat zabaldu genuen alderdiekin. Eta EAJn bi sentiberatasun zeuden”, azaldu du J. Iñaki Etxezarretak.

Halakorik ukatu du, ordea, Luis Mari Bandresen. Bera izan zen EAJko zuzendaritzako (EBBn) hezkuntza arduraduna 80ko hamarkadaren erdialdetik 90eko hamarkadaren erdialdera arte. “Hezkuntzako gorabehera guztiak nik eramaten nituen EBBn, eta beste alderdikideak ez ziren sartzen kontu horietan. Egoeraren berri ematen nuen bileratan, eta besteek ez zioten ezer”.

Bandres Jaurilaritzako Kultura eta Turismo sailburua izan zen 1985etik 1987ra, Eusko Legebiltzarreko parlamentaria 1987tik 1995era, eta Gipuzkoako foru diputatua 1995etik 2003ra (Gizarte Ekintzako foru diputatua 1995etik 1999ra, Kultura foru diputatua 1999-2003 artean).

Luis Mari Bandresen esanetan, “Euskal Eskola Publikoaren Legea onartze-ko atarian, EAJren diskurtso ofiziala zen hiru hezkuntza sare zeudela hemen, eta bazela garaia egoera normalizatzeko, egoera politikoa bera normalizatzeko. Guk askatasuna defendatzen genuen, oso egoera ezberdina bizi zelako Amezketan edo Eibarren, esaterako. Bi sareen defendatzaileak ginen, eta bakoitzak ikusi behar zuen non kokatu bere burua. Hori defendatzen genuen guk”.

Ildo horretan, EAJko zuzendaritzako kide ohiaren hitzetan, “publikatzeak ez zuen esan nahi derrigorrez ikastolak urtzea, zenbat eta ikastola gehiago publikatu orduan eta aukera gehiago zegoelako ikastola izaerari eusteko. Horregatik guk defendatzen genuen ahalik eta ikastola gehien publiko bilakatzea”.

EAJ izan zen Euskal Eskola Publikoaren Legea defendatu zuen alderdi abertzale nagusia. EEren sektore ofiziala, handik lasterrera, PSErekin bat egingo zuelako. Gainerako alderdiek osoko zuzenketak aurkeztu zizkioten Euskal Eskola Publikoaren Legearen aurreproiektuari.

EAKo Inaxio Oliverik, adibidez, EAJ eta PSEren ardura azpimarratu du, gobernu egitasmoa bi alderdi horiena zela argudiatuta. Eta bere alderdiaren jarraera, legearen aurkako jarrera alegia, zergati ideologiko sendoetan oinarritu du Oliverik, eta legeari lotutako eskolen autonomiaren gaian gaurkotasun handia topatu dio: “Autonomiaren arazoa da eskola publikoaren arazo nagusia, baita gaur egun ere. Eskola publikoa administrazioaren eskolatzat hartzen da, eta oso leku gutxitan ikusten da zure eskola gisa. Zure eskola bezala ulertzeko, zu zeu izan behar zarela erabaki garrantzitsuak hartzen dituen. Eta lege hark autonomiarako proposamena egiten zuen, bai, baina erabaki ahalmena ez zuen ahalbidetzen”.

Bestalde, 1993an Euskal Ezkerrako (EuE) legebiltzarkidea zen Xabier Gurrutxagak dio haiek aurkezturiko osoko zuzenketan ikastolen publikotasuna aldarrikatzen zela. “Baina ez titulartasunari dagokionez, baizik eta zerbitzuen edukiari dagokionez. Hau da, ikastolak publikoak zirela, baina eskaintzen zuten zerbitzu publikoaren ondorioz”. “Hezkuntza oinarritzko eskubidea izaki” dio Gurrutxagak, “eskubide hori bermatzen zutenei diru publikoa ematea defendatzen genuen, araudiari begira batzuk publikoak eta besteak pribatuak izan arren. Beraz, diru publikoa jaso ahal izateko, eskola batek bete beharrekoa zehazten genuen. Eskola publikoa izan nahi zuela? Bada, ikastetxearekin horretarako baldintzak adostea proposatzen genuen”.

Tasio Erkizia ere legebiltzarkidea zen 1993an, Herri Batasuna alderdikoa. Urte luzez HBko Mahai Nazionaleko kidea izan zen, eta alderdi horren barruan hezkuntza arduraduna 1982tik 1993ra. Halaber, 1971. urteaz geroztik, Bilboko Karmelo ikastolako irakaslea izan da Tasio Erkizia. Haren ustez ere, Euskal Eskola Publikoaren Legea EAJren eta PSOEn akordio politiko baten ondorioa zen. “Eta legearen azken helburua zen ikastolen mugimendua kamus-tea eta apurtzea, bi alderdien helburu politikoentzako oztopoa zelako. Hau da, Euskal Herria espainolizatzeko oztopo, beraiek jakin bazekitelako hezkuntza proiektu sendo batek eragin zuzena duela nazio kontzientzia suspertzeko eta indartzeko”. Erkiziak erantsi duenez, PSOEk ez zuen inoiz gustuko izan ikastolen herritartasun hori, “beste kultura politiko bat duelako. Eta EAJrentzako ere eragile deserosoa ziren ikastolak, nahiz eta EAJko oinarrietako kide asko ikastolekin bat egin. EAJ bera erosoago sentitzen zen ikastola txikiak publikatuz eta handiak pribatizatuz, ikastolen mugimenduan kontrolatzen zutena haien esku geldi zitekeelako era horretara”.

Horregatik, legearen kontra agertu eta ikastolen batasunari eustea auzi politikotzat jo zuen ezker abertzaleak. “Beti defendatu dugu Euskal Eskola Publi-

ko Berria eraikitzeko —gero Euskal Eskola Nazionala deitu genuen, eta guretzako sinonimo dira— bi zutabeak eskola publikoa eta ikastolen mugimendua zirela”, adierazi du Erkiziak. “Beraz, ikastolen mugimenduak bere horretan segitzeak, bere dinamikarekin eta berezitasunekin, berebiziko garrantzia zuen. Bagenekien goxokia zela ikastolei legearekin eskaintzen zietena, faktore askorekin jokutzen zutelako: dirua, langileentzako irtenbide eroak. . . Baina estrategikoki, garbi genuen apustuari eutsi behar zitzaiola ezinbestean”.

Askok, ordea, kontradikziotzat jo zuten HBren jarrera, pasatu zelako 1983an Euskal Eskola Publikoaren alde egotetik 1993an Euskal Eskola Publikoaren Legearen kontra egotera. Tasio Erkiziarentzako, ordea, logikoa izan zen bere alderdiaren ildo. “Guk planteatzen genuen Euskal Eskola Publiko Berri hori 1993ko legeak ez zuen jasotzen. Lege horrek ez zituen jasotzen guk proposatutako urratsak. Hau da, langileei beste egoera juridiko bat ematea, eta ez lege zaharkitu baten kopian oinarritzea, hori zelako Euskal Funtzio Publikorako Legea; nazioari begira eragina izatea, eta ez Euskal Autonomia Erkidegoan bakarrik; eta herritartasuna ere ez genuen inondik inora jasota ikusten 1993ko lege hartan. Beraz, gure ustez, lege harekin eskola publikoari ez zitzaion haize eta dimentsio berririk ematen”.

HBko legebiltzarkide ohiaren hitzetan, haiek ez zuten inoiz planteatu ikastolak eta eskola publikoa aurrez aurre jartzea. “Euskal Eskola Nazionalaren bidean biak ziren ezinbesteko, eta, beraz, biak indartu beharrekoak. Beti esaten genuen publikoa zela ikastola, ez soilik betetzen zuen zerbitzu publikoagatik, baita bere izaera eta helburuengatik ere”. Horregatik, HBko militante horren aburuz, “sakonean, dikotomia ez zen pribatua-publikoa, baizik eta euskal eskolaren eta eskola espainolaren eta frantsesaren artekoa”.

Sindikatuak

Tasio Erkiziaren antzera mintzo da Antton Izagirre. 70eko hamarkadaren erdialdetik ikastolako irakaslea izandakoa —Tolosako Laskorain ikastolan, nagusiki— eta 90eko hamarkadan LAB-Irakaskuntzako sortzailea eta partaidea. “Lege hura, lehenik eta behin, Euskal Autonomia Erkidegora mugatzen zen. Halabeharrez, baina mugatzen zen. Bestetik, martxan zegoen eskola publikoaren menpeko lege bat egin zen. Eta guk beti esaten genuen Euskal Eskola Publiko Berri bat eraiki behar zela ikastolen eta eskola publikoaren arteko bateratze gisa, bi sareen baloreak eta ezaugarriak jasoz”.

Izagirrek azpimarratu duenez, Euskal Eskola Publikorako lege bat egin arren, zirriborroan bertan, asmoa beste bat zen. “Lege baten bidez, ikastolak sare publikoan integratzea nahi zuten, epe jakin batean eta baldintza zehatzetan. Lege horrek ez zuen lehengo eskola publikoa hobetzen, eta, are gutxiago

hartzen zituen aintzat ikastolen izaera eta ezaugarriak. Beraz, garbi genuen nola-baiteko tranpa izan zitekeela: hainbat ikastolaren karga ekonomikoa arintzen zen, bai, baina ikastolen mugimenduaren desagerpena ekar zezakeen. Eta hori guztia Euskal Herriari ekarpen handirik egin gabe. Hau da, lehendik zegoen eredu itxuraldatu eta eredu hori indartzen zuen, besterik gabe”.

Baina Euskal Eskola Publikoaren Legearen aurka egon arren, LABen eta Ikastolen Elkartearen arteko sintonia ez zen erabatekoa, Antton Izagirrek gogorarazi duenez. “EAJk nahi zuen ikastola handienak, aberatsenak, indartsuenak, ondasunak zituztenak, horiek ikastola pribatu izatea; eta beste guztiak, diru publikoz hornitu behar zirenez, sare publikoan integratzea. Eta Ikastolen Elkartearikiko beldur hori bagenuen: elkartearen jarrera ez ote zen izango EAJk defendatzen zuen berdina. Izan ere, gure susmoa baitzen elkartea EAJk erabilia zela”.

LAB zen, ELAekin batera, ikastoletan ordezkari zuten sindikatu bakarra. Sasoi haietan, LABek %40 inguruko ordezkari zuten, eta ELAk %60 ingurukoa.

Baina, ordezkari zuten ez ezik, bazegoen alderik bi sindikatu abertzaleen artean. “Publikoki, egia da LABen giro *ikastolazaleago* sumatzen zela. Gu, aldiz, adeigabe edo lotsagabeagoak ginen”, adierazi du Jesus Mari Larramendik. 1979tik 1983ra Ondarroako Zubizar ikastolan irakaslea izan zen Larramendi, 1983an bertan ELA sindikatuan liberatu zen arte. Harrez geroztik, sindikatu honetan dihardu lanean: 1983tik 1988ra, ikastola arloaren arduraduna izan zen ELAn; 1988tik 2002ra, berriz, Irakaskuntza Federazioaren arduraduna izan zuen sindikatuaren baitan.

80ko hamarkadan, ELA sindikatuak ikastolen publikazioaren kontrako jarrera edo diskurtsoa zeukan. Baina Euskal Eskola Publikoaren Legea onartzean zela, argi adierazi zuen publikoki sindikatuaren lehentasun nagusia ikastole-tako langileen defentsa zela. Eta hain zuzen ere publikazioaren hautuak langileentzako baldintzarik onenak bermatzen zituen. Jesus Mari Larramendiren esanetan, “ikastolen erabaki esparruan ez genuen erabaki ahalmenik, baina, hala ere, gure posizio politikoa finkatu genuen”. “Ikastolek sare publikoarekin bat egitera jo behar zutela defendatu genuen, nahiz eta zenbait ikastola, eta ez soilik EIB elkartea historikoki osatzen zutenak, jada prozesu horretatik kanpo gelditzen ziren. Konfederazio barruan ere hainbat ikastolak argi zuten hori. Gure ustez, Konfederazioko buruen helburua zen, bateratzea ahaztuta edo atzeratuta, hirugarren sare bat bihurtzea, baina sare horretan ez zituzten ikastola guztiak nahi. Aukeraketa modukoa egin nahi zuten. Lurralde lurralde eta ikastolaz ikastola, Konfederazioak interes zehatzak zituen”.

“Baina lehen esparru horretan solaskide ez ginenez, eta horrela ere hartzen ez gintuztenez, bigarren esparruari begira jarri ginen: lan esparruan, gure esparru naturalean alegia”, erantsi du Larramendik. “Administrazioarekin elkarri-

keta zabaldu genuen, administrazioak ikastoletako irakasleen lanpostuak gordeko zirela iragarri arren, hori zehaztu eta lotu behar zelako”, gogoratu du ELAko kideak. “Lan arloa lotzen saiatu ginen. Baita ondo egin ere, legea onartzerako argituta eta erabakita zegoelako ikastolekin batera sare publikora pasatzen zirenen lanpostuak gorde egingo zirela. Eta funtzionario izateko aukera ere izango zutela, lehiaketa mugatu baten bitartez, ez oposizio bidez”.

UGT eta CCOO sindikatuak ere legearen alde agertu ziren.

Euskal Eskola Publikoaren Legearen onarpena

Eskola publikoari buruzko lege aurreproiektua salatzeko eta gaiari buruzko benetako eztabaida eskatzeko, halaber, Denon Artean plataforma eratu zen euskal gizartean; ikastolen federazioek, STEE-EILAS eta LAB sindikatuek eta guraso elkarteek osatzen zuten, besteak beste. Eta Denon Arteanek berak deituta, 20.000 laguneko manifestazioa egin zen Bilboko kaleetan 1993ko otsailaren 13an. Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntzarekin loturiko inoizko manifestaziorik handiena izan zen hura, Jaurlaritzatik proposatutako Euskal Eskola Publikoaren Legeak gizartean eragindako aurkakotasunaren adierazle.

Protesta hura egin eta sei egunera bozkatu zen legea Eusko Legebiltzarrean, otsailaren 19an alegia, eta aurreikusitako gidoia bete zen: soilik gobernua osatzen zuten EAJ, EE eta PSE alderdien aldeko botoekin onartu zen Euskal Eskola Publikoaren Legea, oposizioa kontra agertu zelako. HBko Tasio Erkiziak egun hartan adierazitakoa, adibiderako: “ikastolei ezarritako txantaia ekonomikoak ez du lortuko haien publikazioa”.

EAren izenean, antzera mintzatu zen Inaxio Oliveri, eta legea “gobernuaren inposiziotzat” jo zuen, “gubernuko alderdiek ez baitute inor konbentzitu”.

EuEko Xabier Gurrutxagak “kontsentsu soziopolitikorako aukera historikoa” galtzen zela nabarmendu zuen osoko bilkuran, eta administrazioak “hezkuntza komunitatearengan konfiantzarik” ez zuela salatu zuen.

PPko Leopoldo Barredak, halaber, “porrota” hitzarekin definitu zuen gobernuak aurkeztutako eskola ituna.

Horiek horrela, Buesa Hezkuntza sailburua bere mintzaldia euskaraz hastea izan zen pleno hartako berrikuntzarik bakarra. Baina, itxuretatik harago, edukietan tinko jarraitzen zuen Buesak. “Ez dago alternatibarik gobernuaren eskola ereduari”, azpimarratu zuen bilkuran.

“Euskal Eskola Publikoaren Legea oso oinarri eta abiapuntu ona izan zen gure herriko hezkuntza eredu finkatzeko eta, harengandik abiatuta, garapen egoki bat egin ahal izateko”, Isabel Zelaak nabarmendu duenez. “Oraindik orain berrirakurri ahal izan dut Fernando Buesak Legebiltzarrean aurrean egin

zuen legearen aurkezpen hitzaldia, eta konturatu naiz zein moderno eta aurre-
rakoia zen garai haietarako, eta den, oraindik ere, gure egunetarako”.

Kalean, bitartean, legearen kontrako geldialdiak eta protestak egin ziren egun hartan, Ikasle Abertzaleak sindikatuak deituta. Legebiltzarreko atarira ere iritsi ziren protestak, eta ehunka lagunen manifestazioa eta elkarretaratzeak egin ziren.

6.1.5. Ikastolen hautua

Euskal Eskola Publikoaren Legea onartuta, legearen ezarpena zen hurrengo koxka. Baina ikastolek labana lepoan zuten jada: hiru hileko epea zuten, maiatzaren 25era arte, sare publikora pasatu edo ikastola bezala jarraitu erabakitzeko.

Aurrez aurre jarritako ataka estuari zein irtenbidea eman erabakitzeko, ikastolen mugimenduak bi batzar ezohiko burutu zituen Gasteizko Armentia ikastolan. Apirilaren 24an izan zen lehen batzarra, eta, denera, Euskal Herri osoko ikastoletako 346 ordezkari bildu ziren han. Bildutakoek, lehenik, ikastolei botatako erronka aztertu zuten. Ikastolek aurretik zehaztuta zuten nolakoa izan behar zuen Euskal Eskola Publikoa. Onartutako lege berriak, baina, Euskal Eskola Publikotik izena baino ez zuen, testuan estatuko legea hartu eta erantsi egin zutelako. Erabat urrun zegoen ikastolen asmoetatik eta egindako lan guztietatik. Erronka, beraz, argia zen: herri sustraiak zituen eredu komunitarioari eutsi edo eredu hori desegin.

Armentian bildutakoek, gero, Ardanza lehendakariarekin izandako harremanak aztertu zituzten. Harreman haien bitartez, ikastolen kolektiboko ordezkariak jabetu ziren lehendakariak oso garbi omen zuela ikastola batzuk sare publikora igaroko zirela, baina sare pribatuan gelditzen zirenei irtenbide bat bilatu behar zitzaizela.

Hirugarrenik, egoerari buruzko azterketa egin eta adostasuna iritsi zuten ikastoletako ordezkariak. Garbi gelditu zen ez zirela pasatuko sare publikora. Baina, era berean, irtenbide bat bilatu behar zen. Izan ere, Rekalderekin sinaturiko finantzazio hitzarmenaren arabera, ikastolek jasotzen zuten finantzazio berezia —gainfinantzazioa deitzen zioten beste eragileek, ikastolen mugimenduari kritika eginez— itzuli beharrekoa zen. Baina itzuli beharrekoa ikastolak itozteko adinekoa zen.

Horiek horrela, ikastolen negoziatziorako hiru puntuko proposamena adostu zen Armentiaiko lehen batzar berezian: Jaurlaritzarekin akordio soziala lortzea, erabaki kolektiboa hartzea eta aukeraketa nagusiaren aldeko apustua egitea.

Lortu beharreko helburua ez zen, ez, batere makala: ikastolak salbatzea, hain zuzen ere. Eta ikastoletako negoziazio buruen aburuz, estrategia ere oso garbia zen: helburua erdietsi behar zen, deabruarekin berarekin akordiorik egitea beharrezkoa bazen ere. Ez zegoen besterik.

Maiatzaren 4ko akordioa

Oso garbi zegoen publikazioak zer zekarkien ikastolei. Alabaina, ez zegoen garbi sare publikotik kanpo geldituko zirenen egoera. Buesak esana zuen egoera horretan gelditutako ikastolei ikastetxe erlijiosoen tratamendu berdina emango zitzailela; hots, ikastetxe pribatu kontzertatuen araudia. Horren ondorioz, ordea, ikastolen maila izugarri jaitsiko zen, eta izugarritzko birmoldaketa eskatuko zuen gainera.

Legea bera onartu aurretik, EAJk jakinarazi zuen akordioa itxiko zuela PSE eta EEREkin, sare publikotik kanpo geldituko zirenen egoera ekonomikoa eza-gutzeko. Baina bi alderdien arteko akordio hura muturreraino luzatu zen: maiatzaren 4ra arte, hain justu. Ia-ia ikastolek hartu beharreko erabakiaren bezperara arte, beraz.

J. Iñaki Etxezarretak azaldu ditu ordukoak. “Garbi ikusi genuenean EAJk babestu egin zuela Euskal Eskola Publikoaren Lege hura, alderdi barruan genituen kontaktuak baliatuta alde biko batzorde bana sortu zen herrialde bakoitzean, ikastoletako federazioetako ordezkariak eta EAJko ordezkariak osatuta. Publikazioaren aurrean zer egin aztertu zuten batzorde haietan. Eta gauzak aurrera joan ahala, aztertu zen zein ikastolak izan zezaketen bideragarritasuna balizko finantzazio akordio baten inguruan eta zeinek ez”.

Denbora batez luzatu ziren harreman haiek, bertan behera gelditu ziren arte.

Maiatzaren 4an, beraz, akordio zehatzen zerrenda onartu zuen Eskola Itunerako Jarraipen Batzordeak, teoriarik sare pribatuen geldituko zirenen egoera argituz.

Maiatzaren 4ko akordio hari jarraiki, prozesu bat irekitzen zen, bost bat urtekoa, eta denbora horretan ikastetxe erlijiosoak eta ikastolek —hots, itunpeko ikastetxe guztiek— baldintza berdinak izango zituzten. Beraz, ikastetxe kontzertatu guztietan homogenizazio bat emango zen, eta 1998rako marrazturiko agertokian ez zen alderik egongo ikastetxe pribatu baten eta ikastola baten artean. Ikastolak diruz laguntzeko 1980ko Ikastolen Titulartasun Ofizialerako Arautegiarekin irekitako bidea —ikastetxe pribatuekiko zegoen ezberdintasuna— ezabatu egiten zen beraz.

Ikastolen mugimenduko buruzagientzat, hori zen EAJk, EEK eta PSOEK lortutako akordioaren azken helburua: ikastolen hirugarren sarea desagertzea. Hortik aurrera, ikastetxe publikoak egongo ziren, administrazioa titularra izaki, eta ikastetxe kontzertatuak, finantzazio mota bakarrarekin.

Horregatik, 1993ko ondoretako bat da ikastolen erregistro historikoa desagertzea. 1980an hasi eta 1993ra arte, ikastolen errolda bat egon zen, ikastolen erregistro bat, eta 1993an ikastolen nortasuna, ikastolen izaera berezia ere desagertu egin zen. Ikastolen kolektiboko orduko arduradunentzat, hori zen legearen eta legearen ondoren egindako akordioaren helburu politikoa.



“Eztabaida ideologikoetatik kanpo, ordea, bada besterik” ohartarazi du J. Iñaki Etxezarretak. “Maiatzaren 4ko akordioaren helburuetako bat ikastolen hazkundeari muga jartzea zen, eta bada gaur egun ere. *Ikastola gehiago ez eta daudenak hazi gabe* leloa, alegia. PSE, EE eta EAJ alderdietako solaskideek behin eta berriro mahairatu zigutenez, sare publikoko ikastetxe eta ikasle kopuruak nagusi izan behar zuten hezkuntza-sisteman, eta European normala den hori ikastolek hankaz gora jartzen genuen. Orduko gobernuaren itun hark ikastolak gutxitu eta itunpeko ikastetxeen kopurua mugatzea zuen xede, sare publikoaren mesedetan”.

Horiek horrela, maiatzaren 15ean, erabakia hartzeko 10 egun baino falta ez zirenean, ikastolen mugimenduak bigarren batzar berezia egin zuen Gasteizko Armentia ikastolan. Euskal Herri osoko ikastoletako 342 ordezkari bildu ziren. Batzar hartan, bildutakoek gehiengoz onetsi zuten ikastolak sare pribatuan sartzea, ikastolaren beraren ezaugarriak gorde ahal izateko. Batzarrean bertan onarturiko Armentia Agiriaren hirugarren puntuan jasotzen zen erabaki hura, hain zuzen.

Ikastoletako langileei erreparatuta badago beste gertakari eragingarri bat. Maiatzaren 18an LAB sindikatuak (une hartan sektoreko sindikatu nagusia zen) eta ikastoletako ordezkariak “langileen egonkortasunerako akordioa” deitu zena sinatu zuten. ELA sindikatuak negoziazioan parte hartu zuen, baina akordiotik at geratu zen. Aipatu akordioaren ondorioz, ikastoletako langile dozentek finkoen artean eszedenteak sortuz gero taldeko beste zentroen artean birkokatuko ziren. Geroztik, Ikastola taldeak sektoreko irakasleen egonkortasunari eutsi ahal izan dio.

Erabaki kolektiboa, beraz, hartua zegoen. Baina ikastola bakoitzak zeukan azken erabakia.

ARMENTIAKO AGIRIA

1993ko maiatzaren 15ean, ikastolen mugimenduak bigarren batzar berezia egin zuen Gasteizko Armentia ikastolan, eta Armentia Agiria onartu zuen. Euskal Eskola Publikoaren Legearen aurrean ikastolek harturiko erabakia islatzen zen 11 puntuko idatzi hartan:

1. Iruñeko I. eta II. Batzar Nazionaletako erabakiak baieztatzea.
2. Korporazio lokalen aukera baieztatzea.
3. Egoera horretan, sare pribatuan sartzea, nortasun ezaugarriak gordetzeko.
4. Sare publikoan sartzea erabakitzen duten ikastolen negoziazioa babestea, beraien erabakia errespetatuz.
5. Lanean jarraitzea Euskal Eskola Propioaren diseinua gauzatzeko apustua egiten dutenekin.
6. Ikastolen Talde Solidarioaren sorrera bereziki baieztatzea.
7. Ikasleko eta hileko 500 pezetako kuota ipintzea eta hori kudeatuko duen taldea izendatzea.
8. Ikastola eta bere ingurua lotzea Naziotasuna lortzeko beharrezkoa den partaidetza landuz.
9. Irakasleen eta gurasoen arteko lotura sendotzea, pertsonalaren egonkortasuna eta prestakuntzari lehenetsua emanez.
10. Guraso, laguntzaile, langile, erakunde, alderdi eta sindikatuen kolaborazioa baloratu eta eskertzea.
11. Herriko ondasunik handiena giza taldea denez, horretan oinarritzea gure Eskola.

Agiria taldeka eztabaidatu ondoren, idatziaren 7. puntuari eranskin gehigarria jartzea erabaki zuen osoko bilkurak. Batzar hartan, hain zuzen, 104 ikastolek parte hartu zuten, baina soilik 94k eman zuten botoa, Nafarroako eta Iparraldekoek ez baitzuten bozkatu.

Beraz, gehiengo osoz onartu zen Armentia Agiria: 66 ikastolak aldeko botoa eman zuten (%72,2); bik, kontrako botoa (%1,6); 19k zuriz bozkatu zuten (%18); eta zazpi abstenitu egin ziren (%8,2).•

Publifikatutako ikastolen arrazoiak

Ikastolen Elkarteko orduko arduradunek azpimarratu dutenez, jakin bazekiten ikastola batzuek publifikatzearen aldeko hautua egingo zutela, Armentian ikastola gisa jarraitzeko erabaki kolektiboa hartu arren. Are gehiago, urrats hori emango zutenak oso ezagunak ei ziren alde zurretik; eta horretarako arrazoiak, J. Iñaki Etxezarretaren aburuz behintzat, oro har hiru multzotan koka daitezke. Baziren, batetik, arrazoi ideologikoengatik publifikatzearen aldekoak. “Multzo horretan, gehienek uste zuten ikastolak publikoak izan behar zirela. Historikoki jarrera hori izan zuten ikastolak ziren, EIKeren garaietan EEPAn nabarmendu zirenak: Donostiako Intxaurren, Hernaniko Langile, Bilboko Karmelo, Basauriko Ariz, Gasteizko Umandi... Neurri handi batean, ezker abertzalearekin eta EILAS sindikatuarekin lerrokaturikoak”.

Bestetik, haien funtzio historikoa beteta zegoela uste zuten ikastolak zeuden, sare publikoan sartzeko urratsa oso aurreratuta zutela iritzi ziotenak. “Nekearen ondorioz iritsitako multzoa zen hau. Ikastola historikoak ziren, eta oso garbi zuten behingoz gobernuaren eskolak izan nahi zutela. Abertzaletasun historikotik zetozen, EAJrekin harreman handia zuten, eta garai hartan eskola publikoak planteatzen zuten; azken batean, Jaurlearien eskola, ez estatuarena. Orixe eta Urumea izan ziren multzo horren paradigma, biak ala biak Gipuzkoan”.

Eta hirugarren multzoa, handiena, arazo ekonomikoak zituzten ikastolek osatzen zuten. Eskaturiko mailegu handiak finantzatzeko gaitasunik ez zuten ikastolak sartzeko ziren hemen; edota lokal propiorik ez zutenak; edota beharrezko orube berriak eskuratzeko modurik ez zutenak... Azken finean, itotze ekonomikoa areagotu ondoren, administrazioak eskaintako goxokiaren aurrean publiko egin zirenak. Ikastolen mugimenduko partaideen esanetan, horrela publifikatu zen, adibidez, Irungo Txingudi ikastola —nahiz eta faktore gehiago izan—, “ikastolako batzar nagusi bat bera ere egin gabe”.

Gauzak horrela, Ikastolen Elkarteak aurreikusten zuen ikastola guztietatik, lautik hiruk jarraituko zutela ikastola gisa, eta laurden bat izango zirela, gehienez ere, publiko bilakatutakoak. Hori zen Ikastolen Elkarteko ordezkariak EAJrekin osaturiko batzordeetan aurreikusten ari zen egoera.

Ikastola bakoitzean bizi zen egoera, beraz, oso garrantzitsua izan zen azken erabakia hartzeko orduan. Baina, horren jakitun izanda ere, Ikastolen Elkarteak aurreikusitako baino ikastola gehiago egin ziren publiko. Egon zen, adibidez, Armentian publifikazioaren kontra agertu eta gero, ikastolako batzar nagusian, publifikatzearen aldeko erabakia hartu zuen ikastolarik.

J. Iñaki Etxezarretak bi arrazoiri eragotzi dio kopuruen arteko desoreka hori. Batetik, ikastolek kanpotik bizitako presioa, bigarren batzarretik erabakia hartu behar zen arte presio mediatiko izugarria egon zelako: telebistan, irrati publiko

eta pribatuetan... “Vocento taldeak, esaterako, publikatzearen aldeko apustua egin zuen, bai eta kazetari erreferentzial askok ere. Eta euskalgintzako erreferentziazko jende askok ere jarrera ekidistante bat izan zuen, ez bustitzeko. Baina erdiko eremu hartan gelditu nahian, gobernu baten indarra eta boterea alderatzen zituzten federazioaren arma txikiarekin. Biak parean jartzen zituzten”.

Bestetik, lan baldintzen afera izan zen publikatutako ikastola guztien argudio komuna. Eta, arlo honetan, ikastolen kolektiboak ELA sindikatuari egotzi dio ardura. Jesus Mari Larramendik, ordea, ukatu egin du ELAk hainbesteko pisua izan zuenik ikastolen azken erabakian. Larramendi bera ikastolaz ikastola ibili zen orduan, beste alderdi eta sindikatuetako ordezkarien antzera, eta ELAren diskurtsoa zein zen gogorarazi du: “Lehenik, ikastolaren egoeraren azterketa egitea defendatzen genuen. Eta azterketa hori egin ondoren, bi aukeren artean hautatzeko aukerarik bazegoen, lan eztabaida ideologikoari ekin eta erabakia hartzea zen gure jarrera”. Aldiz, “aukeratzeko tarterik ez bazegoen, eta beraz, ikastola sare pribatuan segitzea ezinezkoa zela ikusiz gero, eztabaidan ez sartzea proposatzen genuen. Kasu hartan, idiarena egiteko esaten genien langileei. Alegia, erabakia hartuta zegoela, eta haserretzeak ez zuela merezi”, erantsi du ELAko kideak.

INOIZ EZ BEZALAKO EZTABAIDA SOZIALA

Ikastolaz ikastola, inozko batzar jendetsuenak eta parte-hartzaileenak egin ziren 1993ko hartan. Batzarrak egiteko aretoak txiki gelditu ziren orduan.

Baina eztabaida ez zen mugatu ikastoletara eta eragile politiko eta sindikaletara. Ikastola gisa jarraitu edo publikatu hil edo biziko eztabaida bihurtu zen euskal gizartean, eta arlo guztietan eragina izan zuen: komunikabideetan, txikiteoan, familian, koadrilan...

Ikastolentzako krisirik gogorrena izan zen hura, ikastolek inoiz ez dutelako horrelako erabakia hartu behar izan. Baina, larritasun hartan, babes handia jaso zuten ikastola barruko pertsona arrunten partetik. Hainbatek haien alderdien norabideen kontra egin zuten orduan.

“Jendeak sentitu egiten zuen ikastola, eta ikastolaren etorkizuna ere bai”, adierazi du Antonio Camposek. “Jendeak zerbait berea bezala sentitzen zuen ikastola, bertan seme-alabarik ez eduki arren. Inoiz jaietako ikastolaren tabernan lagundu zuelako akaso, edo ikastolaren aldeko tonbolan parte hartu zuelako... Azken finean, ikastola eskola baino gehiago zen, eta gauza asko adierazten zituen. Herritik sortutakoa zen eta, zalantzarik gabe, herrian txertatuta jarraitzen zuen, 1993an ikusi zen bezala”.

Emaitzak eta herrialdeak

Erabakia hartzeko epea bukatu eta biharamunean bertan, maiatzaren 26an, Ikastolen Elkartek jakinarazi zuen zein izan zen ikastola bakoitzaren hautua. Datu haien arabera, 56.083 ikasle hartzen zituzten 114 ikastoletatik 35.991 ikasle zituzten 63k erabaki zuten ikastola gisa jarraitzea (ikasleen %64 eta ikastolen %56, beraz); 14.020 ikasle zituzten 42 ikastola, berriz, sare publikora pasatzearen alde agertu ziren (ikasleen %25 eta ikastolen %42); eta gainerako 6.072 ikasle hartzen zituzten bederatzi ikastolak (ikasleen %11 eta ikastolen %8) argitu beharreko egoeran zeuden. Publikatzearen aldeko hautua nagusitu zen azken horietan, baina legez beharrezkoak ziren bi herenak lortu gabe.

Herrialdez herrialde, Gipuzkoako 22.629 ikasle zituzten 30 ikastola agertu ziren ikastola ereduari eustearen alde (ikasleen %63 eta ikastolen %56), eta 8.851 ikasle zituzten 20k sare publikora pasatzea erabaki zuten (ikasleen %25 eta ikastolen %35). Bizkaian, 11.534 ikasle zituzten 25 ikastola publikatzearen kontra agertu ziren (ikasleen %67 eta ikastolen %57), eta 3.888 ikasle zituzten 15 ikastola alde (ikasleen %23 eta ikastolen %34). Eta Araban, azkenik, 1.828 ikasle zituzten zortzi ikastolak onetsi zuten ikastola bezala jarraitzea (ikasleen %59 eta ikastolen %53), eta 1.281 ikasle zituzten zazpik publikatzea (ikasleen %41 eta ikastolen %47).

Bizkaian eta Gipuzkoan gertatu zen bi herenen kopurua. Baina, proportzioan, Araban izan zen publikazio daturik altuena: Gasteizko Armentia ikastolak izan ezik, Araia eta Errioxa eskualdeetako ikastolek baino ez zioten eutsi ikastolaren proiektuari. Joseba Aginagalde arrazoitu du 1993an baliabide gutxiko ikastola txiki asko zeudela herrialdean. “Publiko bihurtzearen alde agertu zirenek ez zuten baliabide ekonomikorik”. “Gainera, Araban beste fenomeno bat gertatu zen”, erantsi du Aginagalek: “Orduan, Aldundiak Euskara Zerbitzua izenekoa sortu zuen, eta zenbait ikastola Euskara Zerbitzu horren menpe sortu edo haren baitan geratu ziren: Toki-Eder, Barrutia... Ikastola publikoak ziren haiek, eta Lurralde Historikoen Legea Jaurlaritzaren esku geratu zenean, ikastola haiek ere Jaurlaritzaren menpe geratu ziren. Beraz, Gipuzkoan eta Bizkaian ez bezala, Araban lehia aurretik sortu zen, eta horrek jada ikastola izaera eta erdua urtzea eragin zuen”.

Nafarroako eta Iparraldeko ikastolek kezka jarraitu zuten gertaturiko guztia. “Guri ez zigun eragiten, baina kezka eta errespetuz begiratzen genion, ikuspegi kolektibo batetik. Gu ere kolektibo horren parte ginelako, eta, noski, prozesu haren ondorioz kolektiboan sorturiko eztabaidak, zauriak... ikusten genituen. Guretzat, gainera, ezinbestekoa zen ikastolen mugimendu global horri eustea”, azpimarratu du Begoña Erraztik.

Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, berriz, bestelako datuak eman zituen maiatzaren 26an bertan, eta ikastolen %56k publiko bilakatzea erabaki zuela nabar-

mendu zuen. “Ez dugu gehiago hitz egingo ikastolei buruz, ikastetxe publikoez edo pribatuez baizik”, adierazi zuen Fernando Buesak (65).

Gaur egun ere, PSE-EEK defendatzen du orduko ikastolen erdiak baino apur bat gehiagok erabaki zuela sare publikorako urratsa egitea. “72 ikastolek hartu zuten erabaki hori; 991 ikasgela eta 1.400 bat irakasle”, adierazi du Isabel Zelaak.

Giro nahasi honetan, eredu bakoitzak lortutatako atxikimenduak ulertzeko eta neurtzeko zailtasunak nabariak dira. Publikazioaren aldekoen aurreikuspenen arabera, publikazioaren hautuak erabateko arrakasta lortuko zuen. “Hasiera batean, normaltasun guztiarekin, ikastola gehienak publiko izango zirela pentsatzen genuen”, onartu du, adibidez, Luis Mari Bandresak. “Nik neuk uste nuen gehien-gehienak publikatu egingo zirela. Baina HBkoak dena nahastuz sartu zirenean, jendeari zalantzak sortu zitzaizkion”.

Emaitzak, baina, bestelakoak izan ziren. Publikatu gabeko kopurua oso esanguratsua izan zen. Behar bada, ikastola ereduaren aldekoentzako emaitzak apalak izan ziren une hartan, baina denborak ematen duen ikuspegiarekin, egungo ikastola ereduaren arrakastaren oinak jarriak ziren jada.

Ikastola ereduari eutsi behar zitzaiola oso garbi zuten askok eta askok, batik bat ikastolak gidatzen zituztenek. Gero, ordea, gaia ikastola batzordeetara eramatean eta eztabaidatzean era guztietako argudioei aurre egin behar izan zieten: zilegitasun ofiziala, doakotasuna, lanpostu ziurra, lan baldintza onak, kudeaketa beharrik ez eta, beraz, administrazio amatxoren eskuetan dena uztea...

Zenbakiez harago, dena den, bestelako irakurketa egin du Isabel Zelaak. “Sare publikoan bildutako ikastolen ekarpenaren garrantzia ez zegoen zenbakietan bakarrik. Haratago zihonan, hainbat urtetako euskarazko irakaskuntzaren esperientzia, kudeaketari eta partaidetzari buruzko eredu ezberdinak eta beste lan molde batzuk ekarri zituztelako Euskal Eskola Publikora, pluralago eta aberatsago bihurtuz”.

“Beste hainbat ikastolak, ordea, itunpeko ikastetxe gisa jarraitzeko erabakia hartu zuten”, jarraitu du Zelaak. “Guk une hartan bultzatu genuen aukera izan ez bazen ere, begirune osoz hartu genuen erabakia, oraindik ere hartzen dugun bezala. Eta jakina: ontzat eta aintzat hartzen dugu ere urte hauetan guztietan euskal hezkuntzari egin dioten ekarpena”.

Haren esanetan, eztabaida oso istilutsua eta gogorra izan zen zenbait kasutan, eta ikastola bakoitzean behar ziren gehiengoak lortzea oso korapilatsua izan zen. “Gauza hauez guztiez haratago, uste dut ikastola bakoitzak gehiengoz eta askatasunez erabaki ahal izan zuela etorkizunean izango zuen izaera”.

Baina ikastola guztiak sare publikora zergatik ez ziren pasatu galdetuta, bi arrazoi nagusi argudiatu ditu Isabel Zelaak. “Lehenik, ikastolen mugimenduan eta bere zuzendaritza organoetan nahiko sustraituta zegoen aurreiritzi politikoaren ondorioz, Autonomia Estatututik sortutako erakundeak zalantzan jartzen

zituena eta marko juridiko-politikoa bere helburu politikoak lortzeko oztopoztat hartzen zuena”. Zelaaren arabera, “pentsaera hori zutenei ezinezkoa egiten zitzairen onartzea marko horretatik eta erakunde horietatik sortutako lege batek ikastolen auzi historikoari konponbide egoki bat eman diezaiokeenik. Nire iritziz, arrazoi honek asko baldintzatu zuen zenbait ikastolaren erabakia”.

“Eta bigarrenik, beharbada Euskal Eskola Publikoaren partaide izateko borondatea ez zelako uste bezain sendoa”, jarraitu du Zelaak. “Teorian, bai. Baina une hori hurbiltzean ahuldadeak azaltzen hasi ziren ustezko sendotasun horretan, baldintzak pilatzen hasiz beste baldintzen gainean. Alde honetatik, uste dut EIBn elkartu ziren ikastolen jarrera zintzoa eta argia izan zela hasieratik”.

Bi herenen auzia

Maiatzaren 25a pasata, behin betiko erabakia argitu beharra zegoen Gipuzkoako eta Bizkaiko bederatzi ikastolen kasuan, sare publikoaren aldeko hautua hartu arren, ikastolako batzarrean ez zelako errespetatu kooperatibaren estatuak zioena; hots, erabaki bat hartzeko, gutxienez, bi herenen babesia izatea. Ondorengo ikastoletan gertatu zen hori: Azkoitian, Azpeitian, Beasainen, Zumaian, Donostian (Ibai ikastola), Deustun, Leioan, Elorrión eta Zaratamon.

Bi herenen auziarena ez ezik, Euskal Eskola Publikoaren Legeak ikastolen mugimenduan eragindakoa zaurien paradigma izan ziren Azpeitia, Beasain, Leioa eta Elorrio. Bertako ikastola bakoitza bitan banatu baitzen, eta bi herenen auzia epaitegietara eraman zuten. Leioan eta Elorrión, adibidez, betiko eraikina edo egoitza ikastolaren aldekoen esku gelditu zen, Beasainen eta Azpeitian ez bezala. Azken bi herri hauen kasuan, ikastola berriak sortu behar izan ziren, zerotik hasita, eta auziak benetako gatazka soziala eragin zuten.

“Gure kasuan, arrazoi ekonomikoak izan zuten pisurik handiena publikatzearen aldeko erabakia hartzean. Baina arrazoi ideologikoa ere egon zen”, adierazi du Juanito Amenabarrek. 1993an Urolako Izarraizpe irakaskuntza kooperatibako zuzendari orokorra eta Azpeitiko Karmelo Etxegarai ikastolako zuzendaria zen bera. “Izarraizpek beti aldarrikatu zuen Euskal Eskola Publikoa, agintariei aitormen hori exijituz, baina jakitun ere ezin zela Euskal Eskola Publikoaren aldeko apustu hori egin soilik ikastolen hezkuntza proiektuarekin. Eskola publikoa ere euskaldundu beharra atera zen gure eztabaidetan”.

Azpeitiko, Azkoitiko eta Zestoako ikastolek osatzen zuten Izarraizpe kooperatiba. Javier Iturralde *Xaka*, hain justu, Azpeitiko Karmelo Etxegarai ikastolako gurasoa zen 1993an. Eta Iturralde publikazioaren alde agertu zen ikastolako eztabaidetan. Haren esanetan, “ikastoletan emandako ibilbidean, ordura arte, hori bultzatzen zelako”. “Urteak eman genituen horren alde lanean, eta, bat-batean, eguna etortzean, gobernuan ez dakit nor zegoelako, batzuei ez dakit

zein atal gustatzen ez zitzaielako, dena aldatu zen, argudio sendorik eman gabe”, erantsi du Iturraldeak.

Eta ikastolaren helburuak lortzeko 1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legearen baliagarritasunaz galdetuta, garbi mintzo da Karmelo Etxegaraiko guraso ohia: “Gauza bat zen legea, eta bestea egunerokotasuna. Eta guk defendatzen genuen egunerokotasunak, pertsonen jarrerak eta gaitasunek jarriko zituztela ikastolak zegokien lekuan. Ordura arte horrela izan baitzen, eta geroztik ere horrela izango zela defendatzen genuen. Jendeak lan egiten bazuen horren alde, bada, nahi genuena aterako zela aurrera”.

Kontrako iritzi nabarmena du, aldiz, 1993an Azpeitiko ikastola bereko guraso eta lehendakari Elias Mendinuetak. “Ikastolen mugimenduari *zartakoa* ematea zen lege haren helburua, mugimendu indartsua zelako, eta espainola ez izateko erreferentziatzko toki bat. Euskaldunak estatuan integratzea, hori zen, finean, legearen helburua”. “Nik neuk ez diot Euskal Eskola Publikoaren Legea deitzen”, erantsi du Mendinuetak. “*Euskal*, behintzat, ez. Eta adjektiboa jartzekotan, *Espainiako* jarri behar da. Eta sekula ez nuke erabiliko *publifikatutako ikastolak* terminoa. Ikastetxe publikoak, besterik ez; administrazioaren eskolak”.

Medinuetak, gaur egun, 1993ko prozesuaren ondorioz sorturiko Azpeitiko Ikasberri ikastolako lehendakaria da. Eta nabarmendu duenez, “gaia auzitara joan zen, halabeharrez, irtenbiderik gabe gelditzen ginelako. Nik, ordea, garbi nuen hori ez zela bidea. Abokatuentzat bai, eta ni neu abokatua naiz lanbidez; baina ikastolen mugimenduarentzat ez, ezinezkoa dugulako barruan *ostiaka* jardun etengabe. Horrek ekartzen duelako, azken finean, zertan nabilen ahaztea eta etsitzea”.

Herri bakoitzeko auzibideak bere bideari jarraitu zion. Eta luze jo zuen, euskal administrazioak auzian eskuhartu eta 1996an akordioa lortu zen arte. Izan ere, administrazioarentzako *patata beroa* bihurtu zen auzi hura. Akordioaren arabera, diru laguntzak jaso ziren ikastolen egoitza berrietarako. Eta ikastetxe berri haien kontzertazioa ere lortu zen, Beasain, Elorrio eta Leioako ikastoletan oso ikasle gutxi zirelako, eta ituna sinatzeko ratioak ez zirelako betetzen.

6.I.6. 1994ra arte luzaturiko sufrikarioa

Euskal Eskola Publikoaren Legea onartu eta urtebetera, inork uste ez bezalako garaipena zen ikastolak bizirik jarraitzea. “PSE-EEk, ordea, eta EAJko sektore batek, amorruez ikusten zuen hori” nabarmendu dute ikastola kolektiboko orduko buruzagiek. “Eta Buesak berak urtebetez luzatu zuen sufrikarioa, ikastolei zor zieten dirua ordaindu gabe”. Izan ere, 1993ko maiatzaren 4ko akordioari jarraiki, ikastola gisa jarraitzea erabakitzen zutenak 1998ra arte finantzatzea hitzartu baitzuten PSE-EEk eta EAJk. Eta ikastola askok, hain justu, akordio hura kontuan hartuta hartu zuten azken erabakia.

Buesak gidaturiko Hezkuntza Sailak, aldiz, uko egin zion hitzartutakoa betetzeari 1994ko hasieran, aurrekontuak murriztu egin zirela eta dirurik ez zegoela esanez. Baina aitzakia baino ez zen. Ikastolak ekonomikoki itotzen jarraituz, Buesaren itxaropena baitzen publikatu ez ziren ikastolen %60 inguru hartatik erdia-edo sare publikora pasatzea azkenean.

Haatik, hura lortzen ez zuen neurrian, alderdi sozialistak gidatzen zuen Hezkuntza Sailaren amorruren amorrua ikastolen legez kanpoko batxilergoetara begira jarri zen. Hezkuntza ikuskari guztiak jarri zituen ikastolen amarru klandestino horren atzetik. Baina ez zuen lortu ez bata ez bestea. 1993koa baino giro txar handiagoa sortzea izan zen lortu zuen gauza bakarra.

Araba Euskaraz Lapuebla de Labarcan

Giroa lehertzeaz zegoen 1994ren hasieran, hainbat arrazoi tarteko. Ikastola askotan langileak bi eta hiru hilabeteko soldatak jaso gabe zeuden Gobernuak diru laguntzak ordaintzen ez zituelako; Jaurlaritzan osatzen zuten alderdi politikoetako zenbait ordezkari ikastola gehiagoren publikazioa derrigortu nahi zuten; eta Hezkuntza Sailak baimenik gabe zeuden Batxilergoko gelak itxi nahi zituen. EAJ barruan, bestalde, jeltzale askok EBBko buruzagien jokabidea salatu eta norabide aldaketa eskatu zuten. Oso ezagun eta eragin handiko jeltzaleak ziren haiek, eta 1994. urte hartan Legebiltzarreko hauteskundeak egitekoak zirenez, boto ugariren galera ez zen txantxetako gaia.



Arabako ikastolen aldeko Araba Euskaraz 1994ko festa ekainaren 19an ospatu zen Lapuebla de Labarcan. Herriko ikastola Ardanza lehendakariak inauguratu behar omen zuen, baina, bezperan, Buesak telegrama bat bidali zien ikastolako gurasoei, ikastetxe hura legez kanpoko zela azpimarratuz. Gauzak horrela, festaren baitako ekitaldian, Lapueblako alkateak nahiz ikastolako presidenteak publikoki eskatu zioten Ardanzari, mikrofonotik eta han bildutako guztien aurrean, ikastolek bizi zuten egoera konpon zezala, hori egin ezean, giroak okerrera egingo zuela ohartaraziz. Ardanzak prestatuta zeraman diskurtsoa, eta baiezkorekin erantzun zion egindako eskaerari. “Akordioak betearaziko ditugu, eta akordioaren bidetik ez bada, erabaki politiko pertsonalaren ondorioz izango da”, esan zuen Ardanzak Lapueblan. Oihartzun mediatiko handia izan zuten haren adierazpenek. Xabier Arzalluz EAJko EBBko presidentek berak bertatik bertara jarraitu zuen guztia, han baitzegoen.

Lapuebla de Labarcan, beraz, norabide aldaketa agertu zuen EAJk.

Uztailaren 19ko Jaurlearitzako Gobernu Kontseilua

Hezkuntza Sailaren eta sozialisten jarrera ez zen aldatu, ordea. Hori ikusita, uztailaren 5era bitarteko epea eman zuen EAJk. Egun hartan egindako bilkuran, elkarrizketa prozesua hastea erabaki zuten bi alderdiek; baina saioak porrot egin zuen, Jaurlearitza bera egoera larrian jarritz.

Hura ikusita, azken erabakia Ardanza lehendakariaren esku uztea onetsi zuen EAJk. Baina lehendakariak, erabaki pertsonala hartzeari uko eginez, elkarrizketaren bideari eman zion azken aukera. Horrela, barne ikuskaritza edo auditorioa bat egitea agindu zion Jose Luis Larrea Ogasun sailburuari, ikastolen mugimenduak nahiz Buesak ziotenaren inguruan informe bana eskatuz. Ardanzak, zehazki, uztailaren 19ra arteko epea jarri zien bere gobernuko bi sailburuei, ikastolei zor zitzaien dirutza egiazta zezaten eta, bereziki, sare publikotik kanpo gelditu ziren ikastolen inguruan sorturiko auzia konpon zezaten.

Lehendakariaren aginduari jarraiki, Jose Luis Larreak Ikastolen Elkarteko arduradunengana jo zuen, ahalik eta eperik laburrenean informe bat egin zezatela eskatuz. Gau hartan bertan, Ikastolen Elkarteko hiru lagun, Karmele Arregi, Jose Luis Sukia eta J. Iñaki Etxezarreta lanean egon ziren buru-belarri; eta biharamunean, 09:00etan, txostena entregatu zuten Ogasun Sailean, eskatu zizkieten datu guztiak agertuz.

Ogasun Saileko teknikariak han bertan jarri ziren informe guztia aztertzen, datuz datu, arratsaldera arte. Dena egiaztatu zuten, baina ez zuten akats bat bera ere aurkitu. “Eskerrik asko. Ez dakizue honek zenbat balio duen, ez genuelako sinesten zuek zeniotena”, esan zieten Ikastolen Elkarteko ordezkari-

riei. “Guk egin dugu, eta orain Buesarena”, erantzun zuten haiek. “Bada, Buesak ez du txostenik egin, uko egin diolako txosten hori egiteari”.

Hezkuntza eta Ogasun sailen artean ez zen adostasunik lortu, jakina, baina Ardanzak epe gisa jarritako egunean konpondu zen auzia, uztailearen 19ko Jaurlearitzako Gobernu Kontseiluak erabaki baitzuen ikastolei zor zitzaien diru guztia ordaintzea eta batxilergo guztiak legeztatzea.

Ikastolentzako izugarritzako garaipena izan zen hura, etapa bat itxi baitzuen. 1993ko krisiaren ordularia, beraz, 1994ko uztailearen 19an gelditu beharra dago.

Jaurlearitzako Gobernu Kontseilu hura legealdiko azkena izan zen. 1994ko udazkenean Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egin ziren, gobernu berri bat eratu zen (EAJ-EA), eta ikastolen kolektiboa trantsizio fase luze batean murgildu zen. 1994ko uztailean lorturiko garaipena handia izanda ere, kolektiboaren baitan zatiketa handia gertatu zen 1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legearekin, eta ezinbestekoa zen mugimendua bera berrantolatzea.

6.1.7. Eragileek jokaturiko papera

Ikastolen kolektiboa inoizko ataka zailenean jarri zuten 1993an. Eta sare publikora pasatzea edo ikastola bezala segitzea erabakitzeke orduan, faktore eta interes asko nahastu ziren, ikusi bezala.

Horregatik, ezinbestekoa da sasoi hartan eragile nagusiek —Ikastolen Elkarteak, alderdi politikoeak eta sindikatuek— jokaturiko paperaz hausnartzea, eragileei beraiei hitza emanda.

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa edo Ikastolen Elkarteak

“Ez genuen baloratu benetan zetorrena, eta zein zaila zen erabaki hori hartzea. Hau da: ‘hemen sartu edo, bestela, badakizu gaizki pasatuko duzula’”, dio Jose Luis Sukiak. “Horrelako erabakia hartzea oso zaila da ikastolak bezalako kolektibo handi batean. Nazio batzarretan batasun handia ikusten zen. ‘Eztabaidatu beharrik ere ez dago!’, defendatzen zuen batek baino gehiagok. Baina gero, herrietara joatean, herri eta ikastola bakoitza mundu bat zen”.

Sukiak erantsi du aurreikuspenak beste batzuk zirela “eta ez ginen gai izan hori detektatzeko. Hor egon zen akatsa. Eta akatsa izan zen, halaber, eztabaida behar bezala ez lantzea; bestela, ez ziren emaitza horiek aterako”.

Antzera mintzo da Manu Aurrekoetxea. “Erabaki kolektiboak ez ziren behar bezala landu, ez zen argi ipini zer zen bakoitzarentzat erabaki kolektiboa. Erabaki kolektiboak hartu genituen Armentian, baina erabaki horien ehunekoak eta gerora emandakoak zeharo ezberdinak ziren. Alde handia egon zen. Beraz, horrek esan nahi du erabaki kolektibo haiek hartu zutenak ez zire-

la jabetzen haien ikastolen errealitateaz, edota erabaki kolektiboak oso arinki hartu zituztela. 1993ko prozesuak erakutsi zuen jendearekin gehiago hitz egin behar dela; bi aldiz hitz egitea ez dela nahikoa”.

“Nik uste gurasook, oro har, prest geundela erronkari eusteko”, adierazi du Elias Mendinuetak. “Armentian egindako batzarrek hori frogatu zuten. Beraz, non aldatu zen egoera? Gasteiztik Azpeitira, adibidez, 60 kilometro ere ez daude, eta ez dut uste Deskargako mendatean ezer erori zenik. Nonbait gertatu zen zerbait. Eta niretzat, klabeak definituta zeuden herri bakoitzean. Egia da EAJren baitan bi ikuspegi zeudela; historikoki alderdiaren barruan dauden bi joera horiek, finean. Baina, oro har, EAJk publikazioaren aldeko apustua egin zuen herri gehienetan; bere oinarri soziala mobilizatu zuen. ELAk irakasleagoa mobilizatu zuen, eta hor pintza bat egin zuten. Horrek sortu zituen gurasoen arteko ika-mikak, eta ordura arte inongo arazorik eman ez zen tokitan arazoak sortu zituen”.

“Faktore ekonomikoek eragina izan zuten, bai. Baina giltzarria izan zen Iruñeko eta Armentiaiko batzarretan definitu zen hura ez zegoela barneratuta ikastolen mugimenduan. Orain ere zorpetuta gaudelako, eta hemen gaude!”, gehitu du Mendinuetak. “Adibidez, publiko-pribatu dikotomia gertatu zen, eta ikastolen mugimenduko buruek ez zuten jakin horren gainera jarri eta esaten: ‘Ez, eztabaida ez da publikoaren eta pribatuaren artekoa’. Horrek ermaten gintuelako gure arteko borroka batera. Eta ez zen gure arteko borroka, besteekin zen, eta hor denok batera egin behar genuen. Gardentasun hori falta zen, esateko: ‘Etsaia dator, eta gure etxetik bota nahi gaitu. Eta, gainera, gure artean haserretzea nahi du’. Baina, dena esanda, nik neuk ere ez nuen gardentasun hori eduki; zaila zelako, eta aurreko teorizazio hori ez zelako garatu. Teorikoki, horri buruz gainera hausnartu zen ikastolen mugimenduaren batzar nazionaletan, herri honen etorkizuneko eskola zein izan behar zen definituz. Eta hori zen benetako eztabaida, geroztik ikusi den bezala”.

PSE eta EE

Ikastola kolektiboko ordezkarien hitzetan, “sozialisten jarrera guztiz koherentea izan zen beren planteamendu ideologiko eta estrategikoarekin, baina guztiz kontrajarria gizarte kohesioarekin eta orekarekin, Buesak ordezkaturiko mugimendua guztiz zatikatzailea eta erasotzailea izan zelako, eta indarkeria zuria erabili zuelako”.

Alabaina, oso bestelako iritzia du Isabel Zelaak. “Oro har, oso positiboak izan ziren garai haiek. Aurre egin genien euskal hezkuntzak eta ikastolen mugimenduak zituzten erronka nagusiei. Zintzo, jator eta ausart jokatu genuen, ezberdinen arteko adostasuna bilatuz eta lortuz”.

Gaur egungo EAEko Hezkuntza sailburuaren esanetan, “prozesu hartatik hobeto antolatuta atera zen euskal hezkuntza sistema, oso konplexua baitzen: hiru hezkuntza sare eta hiru hizkuntza eredu. Gainera, behin-behineko egoerak gehiegi luzatzea edo betiketzea ez da izaten onuragarria. Akaso ausartegiak izan ginen, baina guk aterabide praktikoa bat eskaini genion egoerari: aurretik egin gabe zegoena eta ondoren ere hobetu ez dena”.

Guztietan argigarriena Euskadiko Ezkerra alderdiko parlamentari zen Xabier Markiegik, Legea onetsi zen egunean, 1993ko otsailaren 19ko osoko bilkuran, adierazitakoak izan ziren: “Euskadiko Ezkerrak gaur azkenean, azkenean, Legebiltzarra sortu zenetik hamahiru urte igaro direlarik, lehenengo aldiz hitz egin dezake pozik hezkuntza alorrari buruz. (...) Zergatik? Azkenean legez zehaztuta geldituko delako Autonomi Elkarte honetako euskaldunok bi sare bakarrak osatutako hezkuntza sistema izango dugula (pribatua eta publikoa). Ez da hirugarren sarerik izango, azkenean! Amaitu da zehaztasunik eza, inoiz aukerarik ez egiteko eta diru publikoarekin ordaindu eta ikastetxe pribatuen eskubide guztiekin iharduteak adierazten duen abantaila uztartuz baliatzeko aitzaki gisa. Euskadiko Ezkerra pozten da azkenean, guri legegile gisa dagokigun neurrian, gaur benetan publiko izan nahi duten ikastolen biltze aurrerabidea amaituko dugulako”.

EAJ

Eusko Legebiltzarreko osoko bilkuren agirietan ikus daitekeenez, 1993ko otsailaren 19an, Luis Mari Bandres parlamentari eta EAJren EBBko Hezkuntza arduradunari egokitu zitzaion EAJren izenean Legearen aldeko defentsa egitea. Ondoko hauek dira esandakoak ikastolek proposatzen zuten eskola publiko berriari buruz: “(...) Hori zen garai hartan. Orain berriz, ba hor, ez dakit zer eta badakit zer, berria eta berririk ez, baino azkenik hirugarren sare baten atzetik. Ba ez jauna. Beno, gauzak diren bezala dira eta aurrera joan behar dugu”. EAJren joku bikoitza salatzen zutenei, Legearen aldekoa batzuetan eta ez horren aldekoa beste batzuetan, ondoko hitz hauek zuzendu zizkien osoko bilkura hartan: “Euzko Alderdi Jeltzalearen iritzia EBBren iritzia da. Eta EBBren iritzia, zein den gure iritzia, behin baino gehiagotan nere ahoz eta nere idatziz hortikan dago jarrita. Eta hori da. Eta guk ez dugu pentsatzen inolaz ere —eta baten batek entzun nahi badu, entzun dezan—, ez dugu pentsatzen beste momentu batean, beste oreka politiko batean egongo bagina aldatuko genituzkeela. Guk hitza mantendu egiten dugu”.

“EAJk Administrazio publikoaren ikuspuntutik jokatu zuen, argi eta garbi”, Paulo Agirrerren hitzetan. “Gogoan dut legea onartu zen egunean Legebiltzarrean geundela, eta Luis Mari Bandresrek lege hura defendatu zuela berea balitz

bezala. Eta oraindik gogoan dut hitzaldia amaitzean Joseba Egibarrek zer nolako besarkada eman zion. EAJk apustu fuertea egin zuen, bai”.

Luis Mari Bandresek berak, ordea, oso bestelako hitzak ditu. “Nik ez dut gogoan defentsa borrokatua egin genuenik legearen alde. Legearen alde baino, askatasunaren alde agertu ginen gu: ‘Legea hor dago. Eta orain, zuek erabaki, zuen esku dago’”. Bandresek erantsi duenez, “guk bidea jarri genuen, ez besterik. Hemengo egoera ezberdina zenez, hemengo egoera normalizatu nahi genuelako: sare publikoa edo pribatua”.

EAJk 1993ko prozesuan izandako jarrera aztertuta, norabide zehatz bati begira jokatu zuela dio J. Iñaki Etxezarretak. “Ahalik eta ikastola gehien publikatzea, eta eskola publikoaren eredu hori sendotzea eta iraunaraztea. Gobernuko bazkideak, PSOEk, hori eskatzen ziolako egin zuen, baina gobernuko kudeatzaile gisa ere eredu hori interesatzen zitzaiolako”.

Antzeko oroitzapenak dira Antonio Camposenak: “Alderdi batek botoen arabera jokatzeko du, eta botoak alde guztietan zeuden: eskola publikoan, ikastoletan... Eta oreka hori bilatu nahi zuen EAJk. Guri indar pixka bat kentzea ez zuen gaizki ikusten, baina garbi zuen ere ikastolak lagundu behar zituela, alderdi barrutik ere askok eskatu ziotelako hori. Eta lagundu zigun, bai, bukeran ikusi zen bezala”.

Ezker abertzalea (HB+LAB)

Ikastolen Elkarteko garaiko buruzagiek gogoratu dute HBk oposizioaren planteamendua zuela 1993an. “Hori zen bere interes taktikoa. Baina, era berean, bere interesak bereziki eskola publikoan eta ikastoletan egonik, ez zuen inoiz legearen kontrako posizio indartsua hartu. Azken unean, ikastola gisa mantentzearen aldeko planteamendua egin zuen; baina gero, herriz herri, ez zituen posizio berdinarik defenditu”.

Eta, erantsi dutenez, LAB sindikatuari gauza bera gertatu zitzaion. “Publikoki ikastolen aldeko jarrera hartu zuen, baina gero, oso kasu paradigmatikotan, ez zuen kontraktasun horren lidergoa hartu, horretarako aukera zuenean”.

“Legearen kontra egoteko orduan ez zegoen inolako zalantzarik” adierazi du Antton Izagirrek. “Zalantzak sortzen ziren une eta ikastola jakin bakoitzean erabakia hartzeko orduan. Sare publikotik kanpo geldituta ere, ez zelako ziurtatzen ikastola hori desagertuko ez zenik. Ikastola askotan karga ekonomiko handiak zeuden, eta karga horiek, askotan, gurasoen izen-abizenak zituzten. Eta hori, sarritan, ezin da gainditu soilik ideologikoki, oztopo pertsonalak direlako eta zirelako. Ondorioz, ez genuen ikusten egoera tenkatzea, ikastola bakoitzean erabakia ezartzeraino”.

Horregatik, Izagirrek onartu du LABek, praktikan, oso jarrera malgua eta ezberdina izan zuela ikastoletako batzarretan. “Toki batzuetan, desagertu edo

sare publikora pasatzeko atakan, bigarrena hautatu zuten, baina sare publikotik lan egiteko konpromisoa hartuz eskola publiko berri baten alde". "Kanpotik, beraz, jarrera anbiguotzat har zitekeen gurea, baina kanpoko eragile ekonomiko horiek bultzatuta. Jarrera adostu eta bakarra zen legearen kontrakoa; baina jarre-ra hori ezberdin gauzatu zen batetik bestera", argitu du Izagirrek.

Auzi hartan, kontraesanak eta iritzi banaketa alderdi guztietan egon zirela azpimarratu du Tasio Erkiziak: "Gure kasuan, arrazoi askogatik uler daiteke hori. Lehenik eta behin, ezker abertzaleak lan handiena egin zuelako eskola publikoaren berrikuntzaren alde. Bestetik, ideologikoki ez delako erraza bereiztea eskola publikoa eta eskola publiko berria; guretzat garbi zeuden aldeak, baina agian ez zitzaigun ulertu edo ez genuen asmatu hori transmititzen".

Erkiziak gehitu duenez, HBko zuzendaritzak oso garbi planteatu zuen lege haren kontrako jarrera. "Baina, gero, bestelako faktoreak egon ziren gertatu zena gertatzeko: dirua, langileei eskainitako erraztasunak, ikastolei egindako promesak... Ondoren, promesa horiek ez ziren bete. Santutxuko Karmelon, adibidez, eraikin berria zin egin ziguten; eta 16 urte beranduago, leku berean jarraitzen dugu, etxabeetan".

"Jakitun ginen eskola publikoetan eta ikastoletan lan egin behar genuela, eta, horregatik, ez genuen frakaso bezala hartu ikastola batzuk publikatzea, aurreikus-ten genuen fase berrian bi oinarriek kontraesanak eta ekarpenak zituztelako", jarraitu du Erkiziak. "Ez genuelako planteatu ikastolak izatea Euskal Eskola Publi-ko Berriaren oinarri bakarra. Oraindik ere pentsatzen dugu ikastolen mugimendua defendatu behar dela, indar guztiz, baina lan egin behar dugula ere eskola publiko-etan, barrutik, haiek euskalduntzeko eta nazio dimentsio batean kokatzeko".

Ido horretan, Tasio Erkiziak gogorarazi du herri askotan HBri esker jarrai-tu zutela ikastolek.

"Une haietan, ikaragarri lagundu zigun. HBk oso garbi zuen ikastola ere-duari eutsi egin behar zitzaiola", berretsi du Antonio Camposek.

Eta hori horrela izan zela onartu du J. Iñaki Etxezarretak ere: "HBk eta EAK apustu sendoak egin zituzten lekuetan, ikastolek eutsi egin zioten haien izaera-ri. Toki horietan erabakigarriak izan ziren bi alderdi hauek". Eta gehitzen du: "Hainbat jeltzale esanguratsuk ere izan zituzten aldeko jarrerak eta jokabideak guztiz erabakigarriak. Esaterako Arabar Errioxan bertan, eta Gipuzkoako eta Bizkaiko ikastola jakin batzuetan".

EA

HBren antzera, oposizio sistematikoaren jarrera agertu zuen EAK. Horrela definitu du J. Iñaki Etxezarretak alderdi honen jarrera: "Bere posizio mediati-koa eta publikoa izan zen ikastolak ez publikatzearen aldekoa, eta lan handia

egin zuen norabide horretan. Baina, era berean, bikoizketa modukoa bizi izan zuen. Hau da, oposizioaren jarrerari eutsita, EAJrena jarrera estatalista gisa salatzea interesatzen zitzaion, baina ez zuen, modu berean, posizio tinko eta indartsurik ikastolen planteamenduen inguruan. Horrek ekartzen zuelako federazioek aurretik egindako bidea aitortzea eta onartzea, eta ezin ahaztu Inaxio Oliveirekin gorabeherak izan zirela 1991n, Hezkuntza sailburua zenean”.

Bestelako iritzia du, ordea, Inaxio Oliverik berak. “Ez dut uste EAK baka-rik utzi zituenik ikastolak. Gure proposamenetan eta zuzenketetan, besteak beste, haien posizioak islatu genituen”. “Legearen kontrako gure jarrera oso nabarmena izan zen, ikastoletan, komunikabideetan nahiz Eusko Legebiltzarrean. Nik neuk kristoren borrokak izan nituen Buesarekin, eta zuzenketa bat bera ere ezin izan genuen sartu!”, gehitu du Oliverik.

ELA

Ikastolen Elkarteko orduko arduradunen iritziz, legearen aldekoen artean lerrokatu zen ELA, “zalantzarik gabe”, nahiz eta onartu sindikatuak legearen lan arloan jarri zituela bere indarrak, irakasleen interesak lehenetsiz gurasoen interesen gainetik.

Alta, Jesus Mari Larramendik ez du uste ELAren jarrera horren erabakiorra izan zenik. “Azken finean, guri zegokiguna egin genuen. Ikastolen kolektiboaren erabaki prozesuetan gu ez ginen parte; iritzia eman bai, baina ez solaskide. Lan kontuetan, berriz, buru-belarri aritu ginen, baita lan txukuna egin ere. Eta alderdi hori izan zen ondoren gatazka gutxien sortu zuena”.

Horregatik Larramendik uste dut eztabaidarako erabili zituztela, norbaitengana kritikak bideratzeko. “Baina azken erabakia ez genuen guk hartu, ikastole-tako Artezkaritza Kontseiluek eta kooperatibistek baizik. Eta gure afiliazioan, adibidez, gorabeherak izan genituen”.

6.1.8. 1993ko eskarmentua

1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legearen inguruko eztabaidak oso tamaina handia izan zuen. Baina, halaber, oso prozesu mingarria izan zen, eta ez soilik ikastolen mugimenduarentzat. Legea onartu zenetik 15 urte baino gehiago pasatu diren arren, leku eta eremu askotan oso bizirik gordetzen dira prozesu haren ingurumarian gertaturikoak.

Beharrezkoa da, beraz, prozesu hartan ikasitakoaz hausnartzea. Egoera zailenetatik ere ekarpenik jaso daitekeelako.

Adibidez, Juanito Amenabarrek azpimarratutakoa. “Guk apustu egin genuen, sare publikoan ere, ikastolen nortasuna gal ez zedin. Eta esan beharra

dago hemen gauzatu egin dela proiektua. Urola bailara berezia delako, eta, horretarako, zergatik ukatu, beste bailara batzuk baino errazagoa delako. Arlo metodologikoan, pedagogikoan eta ekonomikoan nahiko autonomoak gara. Lan baldintzetan, ordea, ez da gauzatu. Zaharkitutako eta denboraz kanpo dagoen sistema bat da. Hori nozitu dugu eta nozitzen dugu”.

Publifikatzearen hautua defendatu zuen Javier Iturralde *Xaka*-rentzat, “euskaldunak, finean, ez gara asko, eta gainera, gaizki moldatzen gara. Beraz, atera beharreko lezioa da ez garela inoiz iritsi behar horrelakoetara. Beste era batera konpondu behar ditugula gauzak: hausnartuz, eztabaidatuz, jendeari entzuten ikasiz...”.

“Egin behar ez zenaren paradigma izan zen gertatu zena”, erantsi du Juanito Amenabarrek. “Sokatiran ibili beharrean, biok alde batera tiratzen hasiko bagina, eta akaso ez batek esaten duen norabidean, baizik eta norabide bateratu eta berdintsu batean, beharbada ez ginen joango nik nahi dudan tokitik aurrera, baina askoz ere hurbilago joango ginatke, eta aurrerago joango ginatke. Ez, ordea, bakoitza bere aldetik tiraka, Azpeitian ibili garen bezala”.

“Helmuga berdinei buruz hitz egiteak ez du esan nahi berdinez ari garela, baldin eta horra iristeko bide ezberdinak hartu baditugu. Helburua bezain inportantea delako bidea”, azpimarratu du Xabier Gurrutxagak. “Bide batzuk agian eramango gaituzte helburu horretara, eta denok pozik. Baina bide ezberdinak hartzen baditugu, segur aski leku ezberdinetara iritsiko gara. Eta nik uste dut hori gertatu zaigula”.

Gurrutxagak nabarmendu du 1993ko eztabaida hura “gertatu zen moduan gertatu” zela, ikastolen eta eskola publikoen arteko bateratze prozesuak eragindakoak baldintzatuta. “Bateratze prozesua agortuta gelditu zenez, eskola publikoari buruzko eztabaida hartan oso parte-hartze txikia izan zuten ikastolek. Zero ez esatearren, erabakiak jada hartuta zeudelako. Hau da, ‘Eskola publikoa defendatuko dugu, eta nahi duena etor dadila’ abiapuntu eta helmuga bilakatzen zen. Hori zen, inplizituki, mahai gainean jarri zena; eta, azken finean, sekulako zuzenketa zelako Jose Ramon Rekalde Hezkuntza sailburuaren estrategiarekiko”.

Horregatik, ondorio argia atera du Gurrutxagak berak. “Aukera historiko bat galdu zen gauzak ondo egiteko. Emaitzek esaten dute dugun eskola publikoak asko hobetu duela, eta pozgarria da hori. Ikastolek, halaber, badute beren aitortza, beren zilegitasuna, beren izaera juridikoa ikastetxe kontzertatu gisa... Baina ikastolekin eta ikastetxe publikoekin egin beharreko eredu propio, publiko eta bakar hori ikusteke dago oraindik. Eta egia da eskolen arteko iskanbilak asko baretu direla; baina, adibidez, haien arteko lehia ez da desagertu”.

“Nik uste dut ikastoletan gauza asko nahastu zirela orduan: sentimendua, jabeagoa galtzea, interes kolektiboak, interes indibidualak...”, adierazi du, bestetik, Jesus Mari Larramendik. “Batik bat sentimenduan oinarrituriko eztabaida izan zen. ‘Gurea dena’, ‘guk egindakoa’... bezalakoak entzuten ziren etenga-

be. Eta sentimendu asko zegoenez, herri askotan haustura sozialak gertatu ziren, eta familia arteko hausturak ere gertatu ziren”.

Adostasuna eta euskal eskola

Isabel Zelaak bestelako ondorioa nabarmendu du: “Abagune egokiak izan arren, 16 urte luze hauetan inork lege hura aldatu ez duenez, inork gaia berriz ere ukitzeko asmorik azaldu ez duenez, ez ikastolek ezta Hezkuntza sailburuek ere aldatzeko inolako inizatibarik hartu ez dutenez, lege hark sorturiko egoeran eroso sentitzen direnaren seinaleztat jotzen dut nik”.

Hala, “lortutako akordioa eta adostasun hura, neketsua izan arren, guztiz positibotzat jo nuen orduan, eta jotzen dut oraindik ere”, azpimarratu du 2009az geroztiko Hezkuntza sailburuak. “Hori da garai haietako irakaspenik baliotsuena: hezkuntza eta hizkuntza gaietan adostasun zabalak duen garrantzia. Horrela egiten du aurrera hezkuntzak, horrela sendotzen da gure hezkuntza sistema bera ere. Alderdiak eta sailburuak pasatzen direlako. Batzuetan gobernuan egongo dira, eta oposizioan hurrengoan. Baina adostasunaren gainean egindako akordioek —sakoneko akordioek— arrasto iraunkorra uzten dute gure herriaren hezkuntzan, gure haur eta gazteen prestakuntzan. Eta hori bai dela garrantzitsua”.

Ez da hori, baina, Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu gisa legealdi gehien egindako Inaxio Oliverik legearen arrakasta neurtzeko erabilitako irizpidea. Haren esanetan, hiru ikuspuntutik baloratu behar da 1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legearekin gertaturikoa. “Lehenik eta behin, 1992ko Eskola Itunak eta horren ondorio zen legearen beraren helburuak kontuan hartuta, garbi dago helburuak ez zirela bete. Legalki, ikastolak ez du bere nortasuna galdu”.

“Hezkuntzaren antolamenduaren aldetik, ordea, zegoen gatazka indartsu bat bukatu zen”, azpimarratu du Oliverik. “Hau da, ikastolekin zer egin, sare publikoaren eta pribatuaren arteko harremana, zer nolako eskola publikoa egin behar zen. . . Hori izan zen Jaurlaritza eratu eta lehen 15 urteetako eztabaidarik garrantzitsuenak. Ondo edo gaizki, hori arautu beharra zegoen, eta arautu egin zen. Baina hobeto egin zitekeela? Jakina baietz!”.

“Eta hezkuntza sistemaren autonomia aldetik, autonomia politikoaren aldetik alegia, nik uste gehiago jorratu eta bultzatu behar zela marko propio bat izateko aukera”, erantsi du Inaxio Oliverik.

Hiru dira, halaber, Tasio Erkiziak 1993ko prozesu hartaz ateratako irakaspenak. “Lehenik, ez dugula itsutu behar, eta ez garelako sartu behar Espainiako eta Frantziako sistemak aurkezturiko kontraesanetan. Hau da, gure eztabaida izan behar dela nola pasatzen garen Espainiako eta Frantziako sistemetatik euskal unibertsoari erantzuneko dion hezkuntza sistema propio batera”.

“Bigarrenik, oraingo eskola publikoa eta ikastolak ez direla orokortu behar. Biek ala biek dituzte ekarpenak, eta biek ala biek dute berrikuntza sakonaren beharra, hainbat ildotan sakondu beharra”.

“Eta hirugarrenik eskola publikoak nahiz ikastolen mugimenduak susper-tzeko beharrezana dutela”, Erkiziaren arabera. “Batean zein bestean burokrazia gehiegi dago, eta herriaren partaidetza eskasegia”.

Luis Mari Bandresek, berriz, Isabel Zelaarekin bat egiten du, eta lege-esparru honetan aldaketarik eza gogoratzen du ere bai. “Dagoen bezala jarraitzen du gaiak, gustatu edo ez, gaur egun egoera ez dagoelako normalizatuta, praktikan hiru sare daudelako”. Alta, gertatutakoa ez du porrotatzat hartzen Bandresek, “1993ko legea baliagarria izan zelako jende askorentzat, baita ikastola askorentzako ere”.

Bandresen kontrako iritzia du, aldiz, Antton Izagirrek. “Ikastolak sare publikoan ez integratzeko erabakia zuzena izan zen, eta denborak eta esperientziak hori frogatu dute. 16 urteren ondotik, ikastolak iritsi dira bere buruari Europako lege batek ahalbidetzen duen egitura bat ematera, lurralde guztietako ikastolak sare horretako partaide direnez. Beraz, ikastolen ikuspegi nazionala gorde egin dute. Era berean, gaur egun dauden ikastolak indartsu daude, matrikulazio altuak dituztelako eta sinesgarritasuna dutelako, gizartean oso txertatuta baitaude”.

Gaur egun, halaber, publiko-pribatu dikotomia hori zentzugabetzat jotzen du Izagirrek, eta “Euskal Eskola” kontzeptua lehenesten du: “Euskal Herrian txertaturiko eta oinarrituriko eskola, eta Euskal Herriarentzako lanean ari den eskola”.

Ildo berean mintzatu da Elias Mendinueta. “Nik gauza bat ikasi nuen: estatuak jarraitu egiten duela asimilazio prozesuarekin. Eta disidentzia sumatzen duen edozein tokitan edozer egiteko prest dagoela. Une hartan, modu hori hartu zuen. Biharko egunean, eta ikusita gauzak nola dauden, ikastoletan A erdua ematera behartuko gaituzte akaso. Horregatik, guk jakin behar dugu zer garen. Nik atera nuen ikasgaia hori izan zelako: gure norabidea, gure zergatia ondo definitzea”.

Ildo horretan, “beti izan garena berreskuratu behar dugu”, azpimarratu du Mendinuetak. “Hau da, herri mugimendu bat gara, herri honek estaturik ez duenez, herritik sortzen den eskola horrek etorkizuneko ume euskaldunak hezi ahal izateko. Eta etorkizunean ere antzeko zerbaiti eutsi egin behar diogu, independentzia horri eutsi behar zaio. Baita beste arrazoi batengatik ere: gurasoak garelako gure seme-alaben arduradunak, eta ez administrazioa”.

Titulartasuna eta talde lana

Manu Aurrekoetxearen hitzetan, 1993an ikastola ereduaren elementu bermatzaileak identifikatzea lortu zuten. Eta horien artean, elementu nagusi bat nabarmendu du: titulartasuna. “Titularrak oso argi eduki behar du bera zer den eta bere funtzioa zein den. Ikastolak ez zirelako bakarrik sortu, helburu batekin bai-

zik: gure hizkuntzaren normalkuntzaren alde sortu ziren, bizi zuen zapalkuntzaren eta baztertzearen aurrean. Egoeraren erreakzio gisa, beraz. Baina eboluzionatuz, ikastolek sortu dute, era berean, hezkuntza ulertzeko beste era bat, kudeatzeko beste era bat, gizarteari proposamenak egiteko era bat. Eta 1993ko krisiarekin argi ikusi genuen titularra izan behar zela horren bermatzailea. Zergatik? Titularra delako proiektuaren bermatzailea, eta hori errealitate bat da. Eskubideak eta obligazioak batera ipini behar ditugu, eta biak integratzean hor sortzen da titulartasuna. Nik oso argi ikasi nuen hori: bakoitza bere eremuan, bere lekuan”.

Aurrekoetxeak gehitu du ikasleei dagokienez gaindituta daudela garai hartako datuak. “Are gehiago, ikastolen kolektibotik gizartearenganako eragina handiagoa da une honetan. Beraz, oso ondo gainditu dugu orduko krisia. Denbora behar izan genuen, bai; baina amaiera ona izan zuen krisi hark”.

Ondorengo urteen garrantzia azpimarratu du, hain justu, Jose Luis Sukiak. 1993ko prozesu hartatik ez zuela ezer positiborik atera dio Sukiak, bai ordea ondorengo urteetako prozesutik. “Azken finean, horrek erakutsi zuen talde lanaren eta talde ikuspegiaren garrantzia ikastolen mugimenduan. Gelditu ginen egoeran, elkar laguntza hori, talde izaera eta kontzientzia garatzea, zuzendarien arteko komunikazioari eustea... Geroari begirako oinarria jarri zuen horrek guztiak. Indartsu egitzeko aukera eman zigun 1993aren ondorengoak”.

6.2. IKASTOLA, ESKOLA GISA ONARTUA IPAR EUSKAL HERRIAN

6.2.1. Testuingurua

Ipar Euskal Herriko ikastolek, Nafarroako ikastolen antzera, arretaz eta kezkaz jarraitu zuten Euskal Eskola Publikoaren Legearen baitan Euskal Autonomia Erkidegoan gertaturiko guztia. Baina Seaskak eta Iparraldeko ikastolek berezko arazoak zituzten sasoi haietan.

Ezbairik gabe, Frantziako Hezkuntza Nazionalarekin edo Ministerioarekin 1989an izenpeturiko hitzarmena oso garrantzitsua izan zen: Seaskako 50 irakasle estatuko langile gisa ordaintzeko konpromisoa hartu zuen Hezkuntza Nazionalak. Baina ministerioak hitza jan zuen beste behin, eta, azkenean, akordioak Iparraldeko Ikastolen Elkarteko zortzi langileri baino ez zien eragin.

Horregatik, hitzarturikoa beste irakasleen kasuan ez zela errespetatuko jakitun, 1992an Seaskako Ikastolen Kontseiluak aldarrikapen kanpaina azkar bat garatzea erabaki zuen, Iparraldeko hautetsien babesa eta laguntza lortzeko Frantziako Gobernuaren aurrean. Oso erabaki garrantzitsua izan zen hura, praktikan Seaskaren estrategia aldatzen zuelako. Ordura arte, Seaskako eta Iparraldeko ikastoletako partaideek diru eske jotzen zuten auzapez eta hautetsiengana.

Orduko hartan hautetsien babesa lortzea zen helburua, Seaskaren eta ikastolen aldarrikapenak Frantziako agintarien aurrean plazaratzeko.

Negoziaketa orain izan zen, hain justu, Seaskak 1992an abiatutako kanpainaren leloa. Seaskako orduko lehendakari Jean Louis Maitia buru-belarri aritu zen harturiko erabakia gauzatzeko.

Ereindakoak fruituak eman zituen. Eta harreman ugari egin eta gero, Hezkuntza Nazionalak hiru urteko negoziazio prozesua zabaltzea proposatu zion Iparraldeko Ikastolen Elkarteari, Seaskaren integrazioaz eztabaidatzeko eta integrazioa bera erabakitzeko. Integrazioa, izan ere, bi eratakoa izan zitekeela: sare publikoan edo sare pribatuan.

Seaskak Hezkuntza Nazionalaren eskaintza onartu eta bi aldeek lan egutegi moduko bat adostu zuten. Integrazioaz gain, beste hainbat afera zeuden gaitegi



hartan, hala nola irakasleen prestakuntzaren diseinua, nola egin Seaskako irakasle-ek irakasletza lizentziatura lor zezaten, nola egin lanpostuetarako oposizioak...

6.2.2. Hitzarmen berriaren mamia

1993ko lehen sei hilabeteetan ordea, ezer gutxi aurreratu zen negoziazioetan, hauteskundeak egin baitziren berriro Frantziako Estatuan, eta haien ondotik bizikidetasun gobernuia eratu baitzen: François Mitterrand sozialista zen presidentea, baina Édouard Balladur eskuindarra lehen ministroa. Bizikidetasun gobernu hartan, Paueko Kontseiluko lehendakari François Bayrou izendatu zuten Hezkuntza ministro. Eta Bayrou bera bihurtu zen gobernuaren solaskide berria Seaskaren aurrean.

1993ko ekainaren 26an, hain zuzen Paueko Kontseiluaren aurrean Seaskarekin garraio akordioa aurkeztu zuen Bayrouk. Paueko Kontseiluak, ordea, ez zuen onartu.

Baina Bayrouk ez zuen ongi hartu berak aurkezturiko egitasmo edo akordio hura atzera botatzea. Politiko gisa, protagonismoa oso gustuko baitzuen François Bayrouk.

Hartara, bi egun beranduago, ekainaren 28an, Hezkuntza ministroak Parisera gonbidatu zituen Seaskako ordezkariak, eta garbi mintzatu zitzairen: elkarre kontratua izango zutela jakinarazi zien Seaskako partaideei. “Horrek esan nahi zuen ikastola eskola gisa aitortzen zutela; sare pribatua, baina ikastolaren aitortza”, argitu du Maialen Garatek.

Ondorengo hilabeteetan, beraz, gaitegi haren gainean lanean jarraitu zuten Seaskako eta Hezkuntza Ministerioko ordezkariak. Seaskako Ikastolen Kontseiluak, halaber, baiezkoa eman zion Bayrouk egindako proposamenari.

Elkarte kontratuaren hitzarmena, azkenik, 1994ko uztailan sinatu zuten Seaskak eta Frantziako Hezkuntza Nazionalak. Zalantzarik gabe, aurrerapauso handia izan zen hura, ikastolek, azkenean, ezagupen ofiziala lortu zutelako Frantziako hezkuntza sistemaren barruan. Sare pribatuaren baitan eta 25 urteren bueltan, baina ikastola eskola zela aitortzen eta onartzen zuen Frantziako Estatuak.

Filipe Aramendiren esanetan, 1994ko hitzarmena Seaskaren legeztapenaren eta normalizazioaren lehen urratsa izan zen. “Eskola gisa ezagutuak izan ginen ikastolak, gure berezitasunarekin. Baina ezagutza ez zen osoa izan, ez zuelako aitortzen gure murgiltze eredia”.

Urte hartako akordioaren ondorioz, Frantziako Hezkuntza Nazionalak Seaskan biltzen ziren ikastoletako hezkuntza maila ororentzako diru laguntzak eman-go zituen. Eta ordura arte Seaskak zituen langileak ere onartu zituen, eta aurrerantzean langile haiei ordainduko zien. Horretarako, baina, irakasle tituluak eskuratzeari ezinbesteko baldintza zen. Seaskako irakasle batzuek uko egin zioten horri

eta, ondorioz, ez ziren osoki pagatuak izan Hezkuntza Nazionalaren aldetik. Haatik, 1994ko hitzarmenak ez zuen esan nahi hortik aurrera sorturiko lanpostuak Frantziako Estatuak ordainduko zuela. Garatek berak gogorarazi du urtero-urtero negoziatzen dela Hezkuntza Nazionalarekin zenbat irakasle lanpostu sortuko diren hezkuntza sisteman. “Dagokion ikasturtea ekin aurretik hasten dira horri buruzko negoziazioak; apirilean, zehazki. Eta Hezkuntza Nazionalak kudeatu behar ditu eskola publikoen zein pribatuen beharrak”.

6.3. BASAMORTUTIK PLAZA ERDIRA BERRIRO

6.3.1. Testuingurua

1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legearen ondotik, Euskal Autonomia Erkidegoan publikatutako ikastola askok ikastolen elkarte edo federazioetako partaideak izaten jarraitzea erabaki zuten. Titulartasuna euskal administrazioaren eskuetan uztea onetsi zuten, bai; baina prozesu hura ez zen berehala bukatuko. Eta gehienek beldurra zuten: ez zekiten administrazioak agindutakoa beteko zuten. Aldiz, federazioekiko konfiantza zuten, eta bazekiten federazioek zuten eta leial defendatuko zutela haien erabakia. Paradoxa, baina horrela izan zen.

Sare bitan zeuden beraz, eta federazioan bat egiten zuten egoera ezberdinak bizi zituzten ikastolek. Eta horrek, noski, eragina zuen federazioen funtzionamenduan: pedagogia zen ikastola batzuen zein besteen lan eremu komuna; baina oso esparru ekonomikoa, laboral eta finantzario ezberdina zuten. Sare publikora pasatutako ikastolen kasuan, bideratuta zuten esparru hori. Ikastola ereduari eutsi ziotenentzat, berriz, beltza kolorekoa zen: zalantza eta ziurgabetasunez beterikoa.

Izan ere, urte haietan nabarmen jaitsi baitzen jaiotze tasa. Eta, hori gutxi balitz, asko kaskartu zen ikastola gisa jarraitzea erabaki zutenen egoera ekonomikoa.

1993 urtearen ondoren, beraz, egoera erabat ezberdina zen ikastolen mugimenduarentzat. Baina garai berrietara egokitu beharra zegoen, nahitaez, aurrera egin ahal izateko.

Sare publikora pasatu ziren ikastolen kasuan, eraldatzeari ekin behar zioten, ikastolen kolektiboarentzat jada ez baitziren ikastolak, ikastetxe publikoak baizik. Eta ikastolatik ikastetxe publikora pasatze horretan, haien nortasuna bilatu behar zuten espazio berrian. Jatorriz ikastolak zirenez, ez zirelako gainerako ikastetxe publikoak bezala sentitzen. Baina, esan bezala, dagoeneko ez ziren ikastolak.

Testuinguru horretan, eta ikastolen federazioek bultzatuta eta lagunduta, publikatu arren federazioetako bazkide ziren ikastolek erankunde berria sor-

tzeari ekin zioten, berezko beharrei erantzuteko eta eraiki nahi zen Euskal Eskola Publiko Berri hura sare publikotik barrutik urratzen saiatzeko.

Eta sare publikora pasatutakoek erakunde berria sortu behar zela ikusi zuten bezala, ez publikatzea erabaki zuten ikastolen artean ere erakundearen moldaketa egin behar zela ikusi zuten. Kanpotik eragindakoa eta inposaturikoa izan arren, 1993ko prozesuak min handia eragin zuelako ikastola kolektiboan. Eta krisi eta zatiketa haren ondotik, basamortuan egin beharreko ibilbide luzea ahalik eta eraginkorren egin behar zen.

Eta ikastolen erakunde berria sortzea izan zen lehendabiziko saioa.

6.3.2. Euskal Herriko Partaidetza Sozialeko Ikastolen Elkarte

Ikastolen beste erakunde edo organizazio bat sortzeko ideia ez zen berria, 1992ko II. Batzar Nazionalean onartu baitzen federazioen erakunde berri baterantz urratsak ematea. Ikastolen Elkartearen baitan azterketa egina zegoen Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa bera elkarte kulturala izateari utzi eta Ekonomia Intereseko Europako Elkarte bihurtzeko. Estatutuak ere prestatu ziren, baina 1993ko prozesuaren ondorioz alde batera gelditu zen urrats hura.

Armentiako batzarretan, ordea, proposamen hori berriro atera, eta Armentiako Agirian onartu zen. Eta behin zatiketa emanda, erakunde berri hura sortzeari ekin zitzaion, ikastolen mugimendua berpizteko eta indartzeko.

Baina erakundea sortzeko prozesuaren lidergoa ez zen federazioen esku egon. “Aurreko prozesua gidatu genuenok, federazioetakoak, nahiko erreta bukatu genuen, eta giroa ere oraindik oso gogorra zen: sekulako tentsioa, ikastola batzuk auzibidean. . . . Testuinguru hartan, segur aski gu ez ginen pertsonarik egokienak —ezta federazioak erakunderik egokienak— prozesu berri bat urratzeko, baina bai errazteko”, adierazi du J. Iñaki Etxezarretak. Beraz, hainbat ikastolari bide hori kudeatzea proposatu zion federazioak.

Jose Luis Sukia izan zen erakunde berria sortzeko prozesuaren ardura izan zuenetako bat. “Gipuzkoako federazioak elkartu eta hura martxan jartzea eskatu zigun”, berretsi du garai haietan Ordiziako ikastolako kudeatzailea zenak. “Kudeatzaile seikote bat biltzen hasi ginen, eta bakoitza arlo batez arduratzen: bat Elkartasun Kutxaz, bestea egonkortasunaz. . . . astero biltzen ginen, ostiraletan, ogitarteko bat janez. Horregatik deitzen genion *Bokadillo Taldea!* Eta gero, bakoitzak bere azpitaldetxoia eratzen zuen, zegozkion lanak aurrera eramanez ahal izateko. Horrela jarri zen martxan ideia”.

Sukiarekin batera, Iñaki Zubeldiak, Jon Zurutuzak, Inaxio Arregik, Imanol Igerregik eta Alberto Mendiak osatzen zuten kudeatzaile seikote hura.

Sukiaren esanetan, “1993ko erabakia gauzak joan ziren bezala joanda hartu zen. Eta erabakia hartu ondoren, umezurtz gelditu ginen: arlo finantzarioa, administrazioarekin harremanak, kontzertazioaren gaia. . . ez genuen erakunderik gauza horiek guztiak kudeatzeko. Ordura arte, federazio bakoitzak bere kabuz egiten zuelako, bere ikastolekin edo bazkideekin. Eta hau dena talde batean biltzea zen gure nahia, talde izaera ematea”.

Erakundearen moldaketaz gain, Sukiak nabarmendu du prozesu berriarekin filosofia aldaketa ere gertatu zela, “ikastolek 1993ra arte nagusi ziren lurraldeak ordezkatu zituztelako”. Ikastola bihurtzen zen ardatz, beraz; horixe zen ideia zentrala. “Euskal Herri mailako kooperatiba bat sortu nahi genuen, ikastola bakoitza ardatz hartuta”.

Hura ikastolek 2009. urtean gauzaturiko erakundetze eredia zen. “Garai hartan, ordea, arazo edo oztopo potolo bat izan genuen desio hura praktikara eramateko: legedia. Kooperatiba izatekotan, Espainiako legediaren pean edota Frantziako legediaren pean izan behar zen. Ez zegoen Europa mailako legedirik, gaur dagoen bezala”, azpimarratu du Jose Luis Sukiak.

1994an Arantzazun egindako batzar batean, erakunde berria sortzea erabaki zen: Euskal Herriko Partaidetza Sozialeko Ikastolen Elkarte. Izan ere, 1993ko prozesuaren ondoren sare publikora bildu ez zirenek *partaidetza sozialeko ikastola* izena eman edo jarri baitzioten haien buruari.

Euskal Herri osoko ikastolak bildu zituen Arantzazuko batzar hartan proposaturiko erakunde bigarren mailako kooperatiba zen. Hau da, ikastola guztiak kooperatiba hartan bazkideetuta zeuden, baina EAetik kanpoko ikastolak ezin ziren izan bazkide zuzenak, bazkide laguntzaileak baizik. Eredu haren baitan, halaber, lurraldeko federazioen desagertzea proposatzen zen.

Alabaina, erakundetze berrirako formulak edo proposamenak hautsak harrotu zituen.

Desadostasunak eta kritikak

Federazioetan ez zuten begi onez ikusi Euskal Herriko Partaidetza Sozialeko Ikastolen Elkarte. Nafarroako eta Iparraldeko ikastolen elkarteetan, adibidez, oso gogor kritikatu zen haren sorrera, eta erakunde berrian parte hartzeari uko egin eta berezko bideari egiteko aukera proposatu zuten Konfederazioaren erakundeetan.

“Gertatutakoaren ondoren, nahasmen handia zegoen ikastolen mugimenduan: nola egin aurrera, nola eutsi batasunari. . . eta, testuinguru hartan, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastolak asko itxi ziren. Haien arazo eta aferen irtenbideetan zentratu ziren eta Nafarroako eta Iparraldeko elkarteekiko harremanak ahuldu egin ziren”, dio Begoña Erraztik. “Urteekin begiratuta,

segur aski prozesu logikoa izan zen itxiera hori. Baina Iparraldeko eta Nafarroako federazioak adi-adi geunden, begira, eta, egoera horretan, kanpoan sentitu ginen”, erantsi du.

Prozesu hartan ardurak izan zutenek kritika onartu dute; boto kopuru berdina bermatu arren, Nafarroakoak eta Iparraldekoak bazkide laguntzailerik gisa gelditzen baitziren. Hala ere, bestelako sakoneko giltzarririk ere antzeman daiteke ikastolen kolektiboan emandako eztabaida hartan. Hauda, erakunde berri hura sortzeko prozesuarekin kritikoak izan zirenenan nolabaiteko beldurra azaltzen zela: federazioak desagertuta, Euskal Autonomia Erkidegotik dena arindu eta bertokoen interesak nagusituko ez ote zirenaren beldurra, alegia. Banaketa administratiboari zor zitzaion beldurra, bestela esanda.

Sakonean ikastolen mugimenduaren baitan ohiko eztabaida zegoen: lurraldea ala ikastola? Zeri eman lehentasuna? Akaso iraganarekin hausteko asmoa antzeman zitekeen erakunde berria sortzeko saio hartan. Baina, hori baino, aipaturiko saioa gidatu zutenek lurraldearen ikuspegia gainditu eta ikastola bakoitzaren protagonismoa indartu nahi zuten. Talde ikuspegiari ematen zioten lehentasuna, ikuspegi hori eraginkorragoa zela iritzita.

Iritziak iritzi, Euskal Herriko Partaidetza Sozialeko Ikastolen Elkarteak sortzeko saioak ez zuen aurrera egin. Faktore asko batu ziren erakunde berri hura aurrera ez ateratzeko. Eta faktore haietan, ikuspegi orokorrak ez ezik, forma akatsek ere garrantzia izan zutela ondoriozta daiteke.

6.3.3. Partaide eta Ikasbatuaz elkarteak

Erakunde berri haren sorrera bideratu zuten ikastoletako ordezkariak eta federazioetako arduradunek hainbat bilera egin zuten sorturiko egoera konpontzeko, eta beste formula bat adostu zuten: aurrerantzean, federazioak soilik arlo pedagogikoaz arduratuko ziren, eta enpresa arloa bi erakundeen esku geratuko zen: partaidetza sozialeko ikastolen kasuan Partaideren ardurapean; sare publikoaren pasatutako ikastolak Ikasbatuaz esku.

Partaide elkarteak 1995eko martxoan sortu zen, guztira 49 ikastola bazkide zituela: Bizkaiko 20, Gipuzkoako 23 eta Arabako sei. Partaide ere bigarren mailako kooperatiba zen, Euskal Herriko Partaidetza Sozialeko Ikastolen Elkartearen antzera. Baina Euskal Autonomia Erkidegoko erakundea zen Partaide, eta Euskal Herriko Partaidetza Sozialeko Ikastolen Elkarteak nazio izaera zeukan.

Ikasbatuaz elkarteak ere 1995ean legeztatu zen, kultur elkarte gisa, eta sare publikoan integraturiko 21 ikastola ohi bazkide zituela: Gipuzkoako 12, Bizkaiko zortzi eta Arabako bat. Sare publikoaren baitan talde gisa aritzea eta Euskal Eskola Publiko Berriaren alde lan egitea ziren Ikasbatuaz helburuak.



2000ko urtarrilaren 22an, berriz, Sortzenek (Nafarroako eskola publikoen taldea) eta Ikasbatuazek bat egin zuten, eta elkarte juridikoa osatzen dute ordutik. Lau dira, funtsean, Sortzen-Ikasbatuaz elkartearen helburu nagusiak: Euskal Eskola Publiko Berrirako ezinbestekotzat jotzen dituzten eta oraindik lortzeke dauden ezaugarriak bermatzeko behar diren bideak urratzea; euskal hizkuntza eta kultura sustatzea; euskaraz ikasketak egiteko aukera Euskal Herri osoan berma dadin exijitzea; eta Euskal Eskola Publikoan dauden zerbitzu guztiak euskalduntzea.

Partaideren lehentasunak

Jose Luis Sukiak berak hartu zuen Partaideren ardura, Partaideko zuzendari izendatu zutenean. Eta, haren esanetan, elkarte sortu eta lehendabiziko urteetan ikastolen biziraupena izan zen Partaideren lehentasun nagusia. “Biziraupena diodanean ez dut debalde esaten, egoera oso gogorra zelako. 1993ko prozesuaren ondoren gure finantzazio bideak asko murriztu ziren. Jaurlaritzatik askoz ere diru gutxiago jasotzen genuen, eta, azken finean, birmoldaketa gogor bati aurre egin behar izan genion. Eta beste aldetik, 1992tik aurrera beherakada izu-

garria izan zuen jaiotze tasak. Beraz, matrikulazio txikiagoak zituzten ikastolek. Kasu batzuetan, jendea kaleratu behar izan genuen”.

“Gure estrategia bakarra zen: hurrengo eguna. Garai haietan ez genuen besterik buruan”, jarraitu du Sukiak. “Eta kritikak jaso genituen horregatik. ‘Zuek kudeatzailer hutsak zarete’ eta antzekoak esaten ziguten. Nik, ordea, beti esan dut gauza bera: ‘Egunerokoa dago lehenik; hori ziurtatu beharra dago. Eta gero denbora egongo da pentsatzeko’”.

Urte gogorak izan ziren, bai. Baina, gaur egun, egindako lana harrotasunez gogoratzen du Jose Luis Sukiak. “Oso gaizki pasatu genuen, baina harro diot: gu izan ginen *centros en crisis* izenekoetan sartu ez ginen talde bakarra”. Krisian zeuden ikastetxeak ziren haiek, eta Jaurlaritzak diru bat ematen zien, besteak beste ikastetxea bera ixteko eta langileak kanporatzeko edo beste lekuetan kokatzeko. “Guk uko egin genion horri. ‘Ez dugu bat bera ere itxiko!’, esan genuen. Eta horretarako, elkartasun bide batzuk jarri genituen martxan. Adibidez, irakasleen arteko trukaketa. Ikastola batean soberan zeuden irakasleak beste ikastola batera bidaltzen genituen. Edo langilerik kaleratu behar izan zen toki batzuetan, kaleratuen kalte-ordainak langile guztien artean ordaintzea. Hori, adibidez, Legazpin gertatu zen. Edota eszedentziak ematea...”.

Elkartasun Kutxari begirako irizpide berriak

Partaide sortuta, Partaide bera hasi zen Elkartasun Kutxaz arduratzen eta haren funtzionamendua arautzen. “Tresna horren kudeaketa fintzea izan zen gure helburua”, Jose Luis Sukiak dioenez. Horretarako, Partaideren estatutuetan idatzita zegoen Elkartasun Kutxaren urteko antolaketa eta diru banaketa Partaideren batzar orokorrak onetsi behar zuela. Eta horrek lan serioago eta sendoago egitea eskatzen zuen. Horrela, dirua emandako ikastolei auditorioa bat egitea eskatzen hasi zitzairen; eta auditorioa hori ez bazetorren bat dirua eskatzeko orduan esandakoarekin, dirua itzuli beharra zegoen.

Bilakaera horretan, ikastolek Elkartasun Kutxari begira ordaindu beharreko kuota jaitsi egin zen, 3.500 pezetatik 2.500 pezetara (15 euro). “1998 izan zen inbertsioetarako dirua lortu genuen lehen urtea; horri esker diru premiak asetzea lortu genuen. Horregatik jaitsi genuen kuota. Baina ideiarekin jarraitzea erabaki genuen, gauzak egiteko aukera ematen zigulako”, Sukiaren hitzetan.

Testuinguru hartan, ikastolen kolektiboak beste erabaki bat hartu zuen Elkartasun Kutxari begira: aurrerantzean Elkartasun Kutxa ez zen erabiliko arazoak zituen ikastolaren ohiko funtzionamendua ziurtatzeko, inbertsioetarako edota estrategikotzat jotzen ziren proiektuak finantzatzeko baizik. Gainera, erabaki zen diru laguntza hori ezin zela izan iraunkorra. Eta diru laguntzari epe-muga jartzen bazioten, bideragarritasun plana egin beharra zegoen. Ideia berri



hauek guztiak, batez ere inbertsioetarako jasotako diru laguntzen ondoren jarri ziren indarrean.

Urte hauetan guztietan, ordura arte ezinezkoak ziren proiektuak Elkartasun Kutxari esker atera dira aurrera. Horra hor, esaterako, Gasteizko Armentia ikastolaren kasua. Edota Bilboko Abusuko ikastolarena: 1993an haur hezkuntza baino ez zuen ematen, eta gaur egun DBH ere eskaintzen du. Durangoko Ibaizabal Batxilergoa 1997an sortu zen euskarazko batxilergoa eskualdean eskaintzeko, eta gaur egun hiru lerroko batxilergoa dauka. Edota Azpeitiko Ikasberri ikastola...

Gaur egungo Elkartasun Kutxaren kuota berdina da: 15 euro. Eta prozedurari dagokionez, urtero deialdi bat egiten da, diru eskaerarik egin nahi duenak egin dezan, horretarako irizpide eta aurkeztu beharreko dokumentazioa zehaztuz. Gero, Elkartasun Kutxaz arduratzeko Partaideren baitan eraturako taldeak eskaerak aztertzen ditu, eta Partaideren batzar orokorrari proposatzen dizkio onartu beharreko eskaerak.

Trantsiziozko formulazioa

Euskal Herriko Partaidetza Sozialeko Ikastolen Elkartearen sorrera ahalbidetzeko eragozpenak ikusirik, federazioa soilik arlo pedagogikoaz arduratzea adostu zen, pedagogiari zegozkion zerbitzuak eta gaiak publikatutako nahiz partaidetza sozialeko ikastolei, eta, jakina, baita Nafarroako eta Iparraldeko ikastolei ere eskainiz. Partaidek, berriz, EAEko ikastolen arlo ekonomiko-laboral-finantzarioaren ardura izango zuen, eta Ikasbatuaz sare publikora pasatutako ikastolen elkartea izango zen.

Erakundetze hura, ordea, trantsiziozko formula bat zen. Begi bistakoa zen publikaturiko ikastola haiek titulartasuna eta ikastola izateari utziko ziotela, irakasleak funtzionario edo kontratatu publiko bihurtuko zirela, haien ondusunak transferituko zituztela eta federazioak abandonatuko zituztela. Era berean, behin hori gertatuta, aurreikusten zen ere federazioan gelditzen ziren ikastolak —benetako ikastolak— egoera ezegonkor hartatik posizioa sendotzen joango zirela, eta, beraz, lehengoko ikastolen mugimenduak bere ibilbide historikoa berreskuratu eta etorkizuneko beste ibilbide bat urratuko zuela.

Operazio konplexua zen hura, bai, baina ikastolen kulturarekin bat zetorren oso. Izan ere, zatiketa ez baitzen izan barruan eragindako zatiketa, kanpotik eragindakoa baizik. Eta zatiketa horren aurrean egon zitekeen erreakziorik logikoena, gauzak gaizki egin izana elkarri leporatzea, ez zelako izan.

Horregatik, kostu handia izan arren, ikastolek berriro agerian utzi zuten gizarte mugimendu gisa oso mugimendu heldua zirela, oso mugimendu autonomoa, eta, batez ere, oso mugimendu demokratikoa.

Jose Luis Sukiarentzako ere trantsiziozko erakundetzea zen adosturiko formula hura, baina beste ikuspegi batetik. “Trantsiziozkoa zen, nazio erakunde baten aldarrikapenak bizirik irauten zuelako. Hau da, bizirik irauten zuen ikastolak bazkide eta bete beharreko funtzio guztiak izango zituen erakundearen aldeko aldarrikapenak. Eta sare kontzertatuko ikastolen erakunde erreferentziala eta nazionala izango zen hura, ikastolen mugimenduaren erakundea”.

Partaide-ren esperientziak saihestezinezko ekarpena egin dio ikastola taldeari zein tokian tokiko ikastolari:

- Egonkortasun arloari dagokionez, 0-3 etaparako finantzazioa, hezkuntza-kooperatiben inbertsioetarako deialdiak, programa-kontratuak. . .
- Prestakuntzaren finantzazioa.
- Eskola-mapari dagokion planifikazioa eta kontzertazioa, ikastola berriak, lanbide hezkuntza. . .
- Lan-harremanen arloko jarraipena, lan hitzarmenen negoziazioa eta kudeaketa.

- Komunikazio-estrategia eta aholkularitza profesionalizatua.
- Kalitate arloko ekarpena, Kalitate Egitasmo Integratua (KEI).
- Ikastoletako zuzendarien eta administrarien jardueran laguntza eta pres-takuntzarako ekimena.

Baina erakunde honen esperientzia laburtu beharko bagenu, bi ezaugarri azpima-ratu beharko lirateke: publikazioaren ondorengo epean Araba, Bizkaia eta Gipuzko-ako ikastolen sostengu ekonomiko-administratiboan egindako ekarpena eta bere ibil-bide osoan ikastolekiko harreman zuzenean oinarritutako jardunbidea garatu izana.

6.3.4. Ikastolen III. Batzarra: Pedagogi Plan Nazionala

1992ko II. Batzar Nazionalan, euskarazko kalitatezko hezkuntzaren proiektuaren alde eginiko lanarekin jarraitzea onetsi zuen ikastolen kolektibo-ak, ikastolen pedagogia saila garatuz, batzarrean erabakitakoaren arabera. Baina, talde nazionala sortzeko erabakiarekin gertatu bezala, 1993ko krisiak bigarren planoan utzi zuen erabaki hau, eta baita horretarako egindako urratsak ere.

Haatik, 1994-1995 urteetan adostu eta onetsitako erakundetzeari jarraiki, ikastolen elkarteek edo federazioek gogo handiz heldu zioten pedagogia arloa jorratzeari. Ikastolen mugimendua berrantolatu eta indartzeko orduan, inoiz baino beharrezkoagoa zen ikastola eredia osatzen joatea.

Pedagogia lanaren inguruan egindako hausnarketen ondotik, Pedagogia Plan Nazionalaren eztabaidarako oinarritzko dokumentua zabaldu zen ikasto-len kolektiboko partaide guztien artean. Federazio guztietako partaideek osa-turiko talde tekniko batek urtebetean zehaztutako zirriborroa zen hura; eta, zerbitzuen ikuspuntutik, ideia eta estrategia komunak garatzea defendatzen zen idatzi hartan, ondorengo lau urteetan ikastolek edukiko lituzketen lerro nagusiak proposatuz.

Pedagogia Plan Nazionalak, beraz, asmo zahar bati oinarri berriak jartzen zizkion.

Pedagogia Plan Nazionalaren aurkezpen ofiziala 1996ko otsailaren 3an egin zen Donostiako Santo Tomas Lizeoan. Aurkezpenean Ikastolen Elkarteak iragarri zuen Planak “euskarazko hezkuntza demokratikoa, anitza, oparua eta modernoa ahalbidetuko” zuela, “ikastolen mesedetan ez ezik, baita ikastola ez diren baina euskal eskola izan nahi duten gainerako ikastetxeen mesedetan ere”.

Ikastoletan eztabaidatu eta proposamen berriak eskaini ondoren, maiatza-ren 4an beste topaketa bat egin zen Atarrabiako Paz de Ziganda ikastolan. Eta, zuzenketak jasota, Ikastolen III. Batzarrean onartu zen, Zamudion, urte bereko urriaren 19an. Proiektuaren aldekoa izan zen batzarreko botoen %96; %2k, berriz, kontrako botoa eman zuen, eta beste %2k, boto zuria.



Ikastolaren izaera eta helburu komunak

Funtsean, ikastolen hezkuntza proiektua lantzea eta sendotzea zen Pedagogia Plan Nazionalaren helburua. Planak hiru atal zituen. Batetik, *Hezkuntza eginkizun komunak* izenekoa. Hots, ikastolek elkarrekin gauzatu nahi zituzten zeregin kolektiboak, ikastola bakoitzaren konpromisoen bitartez. Bigarrenik, *Ikastolen Hezkuntza Proiektua* deiturikoa. Alegia, ikastolek partekatzen zituzten izaera eta helburuak. Eta hirugarren eta azken atalean, 1996-2000 epe bitartera garatu eta lortu beharrekoa zehazten zen: ikastolen hezkuntza proiektua finkatzea eta ikastolen plana egitea, hain zuzen.

Ikastolen Hezkuntza Proiektua atalari zegokionez, sei puntutan laburtzen zen ikastolak zer ziren eta ikastolek zer nahi zuten:

“**I. Izaera:** ikastolen funtsezko nortasunaren adierazgarri, ikastolaren izaeraren ezaugarri komunak dira:

- I.1. Eskola entitatea da ikastola, euskal gizarteak hezkuntzan ipintzen dituen ideien eta itxaropenen adierazpenetako bat.
- I.2. Entitate euskalduna da ikastola.
- I.3. Erakunde pluralista da ikastola.
- I.4. Inolako diskriminaziorik gabe, gizakiei aukera berdinak eskainiko dizkien eskola konpentsatzailea izango da ikastola.
- I.5. Hautabide demokratikoa egina du ikastolak. Gurasoek, langileek, pertsonal laguntzaileak, ikasleek, administrazioako ordezkariak, denek parte hartu behar dute haren gestioan eta aktiboki lagundu berorren funtzionamenduan.
- I.6. Ikastolaren oinarritzko ardatzetako bat autonomia da; hau da, kompetentzia zabalak eta erabakiak hartzeko ahalmena du.
- I.7. Herri bati dagokion neurrian eta hari atxikirik jarraitu nahi duen heinean, euskal eskola da ikastola, Euskal Herriko eskola nazionala eratzeke bokazioarekin.

2. Helburuak: ikastolen xede instituzionalen adierazgarri, ikastolaren helburu komunak dira:

- 2.1. Ikastolak bere ikasleak giza balorez eta gaitasunez hornitu nahi ditu.
- 2.2. Ikastolak bere ikasleak formazio euskaldunaz hezi nahi ditu.
- 2.3. Ikastolak bere ikasleak aniztasunean hezi nahi ditu.
- 2.4. Ikastolak bere ikasleengan jokabide demokratikoa landu nahi du.
- 2.5. Ikastolak bere hezkuntza proiektua garatzeko autonomiaz jardun nahi du.
- 2.6. Ikastolak Euskal Eskola lortu nahi du: Euskal Herriko eskola nazionala.

3. Curriculum propioa: izaera eta hezkuntza helburuen gauzatzearen adierazgarri, ikastolaren euskal curriculum propioaz ikerketa egitea proposatzen zen, helburu argiarekin: zein dira derrigorrezko irakaskuntza bukatzean, Euskal Herriko 16 urteko gazte batek gutxienez ezagutu, egiten jakin eta bereganatu behar dituen baloreak eta jarrerak?

4. Antolaketa: ikastolen gestio estiloaren adierazgarri, ikastolaren antolaketa egituraren ardatz nagusiak jasotzen ziren Pedagogi Plan Nazionalean. Hala, batetik, nabarmentzen zen ikastolaren titularrak hautatu duen irudi juridikoaren arabera bere estatutuek ezarritako organoak edukiko dituztela; eta bestetik, ikastola bakoitzak bere beharretara egokituko duela funtziona-

menu egitura eredu. Halaber, Konfederazioak antolaketa nazionala gauzatzeari azpimarratzen zen.

5. Baliabideak: ikastolen bitarteko berezien adierazgarri, ikastolaren baliabide komunak zerrendatzen ziren: baliabide pertsonalak, baliabide ekonomikoak (finantzazio publikoa, finantzazio propioa eta finantzazio solidarioa) eta baliabide funtzionalak.

6. Ebaluazioa: ikastolen etengabeko hobekuntzaren adierazgarri, ikastolaren ebaluazioaz ikerketa egitea proposatzen zen, helburu garbiarekin baita ere: zein dira euskarazko kalitatezko hezkuntza proiektua gauzatzen saiatzen den ikastola batek gutxienez bere baitan bildu behar dituen baitezpadako ezaugarriak?”.

Euskal Curriculuma eta ebaluazio sistema propioa

Ezbairik gabe, bi izan ziren onarturiko Pedagogia Plan Nazionalaren proposamen nagusiak: Euskal Curriculuma proposamena osatzea eta ebaluazio sistema propioaren planteamendua egitea. Biak ala biak, ondorengo lau urteetan egin beharrekoak ziren, eta hauen kudeaketa ikastolen elkarteetan edo federazioen esku geratzen zen.

Hain zuzen ere Euskal Curriculuma buruzko ikerketak hartu zuen disziplina berezia plan nazional hartan. Baina hori bezain garrantzitsuak ziren garai hartan formulatzen ziren eta estreinakoz dokumentu batean jasotzen ziren pedagogia zerbitzuetan egin beharreko lan guztiak. Alegia, Pedagogia Plan Nazionalan bazegoen aurreko hamarkadan egindakoaren sintesia, eta, sintesi horren arabera, norabide jartze bat.

Horrela berretsi du Xabier Garagorrik. Pedagogia Plan Nazionala 1983an hasitako bidearen eta 1990ean onarturiko Euskal Eskola proiektuaren jarraipen gisa ulertzen du berak, “barne gogoeta prozesuan Deustuko Kepa Uriarterekin hasitako *musika* hura eta gero 1990ean onarturiko norabidearen arlo guztiak jasotzen zirelako Pedagogia Plan Nazionalan. Baina, lehen aldiz, hemen jada curriculum propioaren ildoak ageri zen”.

1996ko urriaren 19ko III. Batzarrean proposatu eta onartu zen curriculumari buruzko ikerketa hark, beraz, gogoeta estrategiko bat zeukan atzean: ikastolek, sortu zirenetik ordura arte, berezko curriculumak eraiki zituzten, inon jaso gabea. Hau da, frankismoan euskararen eta euskaraz aritzen ziren ikastolak zeuden, baina ez horiek bakarrik. Euskal kulturaren lekualdatzea ere egin zen, curriculum ofizialean ageri ez ziren zenbait elementu erantsiz eta curriculum ofizialean ageri ziren elementu batzuk baztertu.

Eta Euskal Curriculuma ikastolen mugimenduak harturiko erabakia ez zen oharkabean pasatu, ez. Sekulako kolpea izan zen hura guztia, eta ez soi-

lik ikastolen mugimenduentzat. Kanpoan, ikastolen kolektiboko ordezkariak haren berri gainerako eragileei eman zietenean, hiru jarrera nagusitu ziren. Batzuek ilusioz hartu zuten. Beste batzuek, mesfidantzaz —“hauek, berriro, proposamen ausartegiekin”, pentsatzen zuten—. Eta kritikatu zuten ere bai. Baina, oro har, proposamena gogo onez hartu zen klase politikoan nahiz sindikalean. “Beste gauza bat zen pentsatzea guk hori egin behar ote genuen edo ez”, ikastolen mugimenduko orduko arduradunen esanetan.

Mugarria

Zamudion egindako III. Batzarrean, sare publikora joandako ikastola ohiek ere baiezkoa eman zioten Pedagogia Plan Nazionalari, planak berak euskal eskola egin nahi zutenentzako lan tresna izatea nahi zutelako.

Horregatik, 1996ko batzar hura inflexio puntu edo mugarri bat izan zen ikastolen kolektiboaren historian, Pedagogia Plan Nazionala ikastolen mugimenduaren kohesiorako tresna bihurtu zelako. Batzarrari esker kohesioa sendotu zen, eta ikastolen atal pedagogikoaren inguruan batasuna lortu zen.

Baina mugarria izan zen baita kanpora begira ere, III. Batzarrak ikastolen presentzia areagotu zuelako gizartearen eta instituzioen aurrean. “Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak ikastolak desagertarazi zituen errejestro ofizialetatik kendu zituenean, eta 1996ko batzarrak balio izan zuen esateko: ‘Hemen gaude berriro’. Eta bere garaian Euskal Eskola proiektuarekin gertatu bezala, III. Batzarretik atera ginen esanez, besteak beste, ikerketa lan batzuk egitera gindoazela, eta horien artean adierazgarriena herri honek behar duen Euskal Curriculumak ikertzeraz gindoazela. Beraz, mahai gainean halako kolpe indartsua ematea izan zen, bai”, J. Iñaki Etxezarretak azpimarratu duenez.

Hiru urte baino ez ziren pasatu 1993an inposaturiko zatiketarik. Baina desertua utzi eta plaza erdian ziren berriro ikastolak. “Euskal Eskola Publikoaren Legearen inguruko zurrunbiloak 1993 eta 1994 urteak hartu bazituen ere, Ikastolen Elkartek pedagogia alorreko lan ugari eta sakonak egiten jarraitu zuen” zehazten du J. Iñaki Etxezarretak. “Urte gogor horietan zehar Xabier Garagorri, Iñaki Lekuona, Itziar Elorza, Josune Gereka, Jose Luis Marañon, Nerea Arregi, Mikel Mendizabal eta aipatzeke utziko ditudan hamaika profesionalak Eleaniztasun egitasmoa, Ikas material berrien ekoizpena, Prestakuntza plana, Lehen Jardunaldi Pedagogikoak, IKT baliabideak, Bertsolaritza irakaskuntzan... kudeatzen jarraitu zuten”. Ikastolen Konfederazioak, bestalde, Mirari Bereziartuaren laguntzaz, federazio guztietako pedagogia arloko profesionalak bildu eta egitasmoen arteko foro komunak erraztu zituen. Lan isil eta kolektibo horrek mamitu zuen Ikastolen III Batzarra.

IKASTOLA ALDIZKARIA

Ikastolen kolektiboaren egungo erreferentzialtasuna ulertu ahal izateko, ezinbestekoa da Ikastola aldizkaria aipatzea. Izan ere, erreferentzialtasun horretarako tresna edo bitartekoa izan baita aldizkaria, baina baita erreferentzialtasun horren paradigma edo adibidea ere.

1991ko otsailaz geroztik ikastolen mugimenduaren hilabetekaria da Ikastola aldizkaria. Ikastolen eta haren erakunde ezberdinen berri ematen du, eta urtean zehar 10 zenbaki argitaratzen dira (hil guztietan uztailean eta abuztuan izan ezik). Ikastola bakoitzeko sendi guztien etxeetara, erakundeetara eta komunikabideetara banatzen dira eta, batez beste, 32.000-35.000 aleko tirada du zenbaki bakoitzeko.

Hasieratik gaurdaino, Zuriñe Mendizabalena izan da ikastolen hilabetekariaren erantzukizuna edo ardurua nagusia, azken hamarkadan Txema Garzia Urbina diseinu egilearen gertuko lankidetzarekin. Eta, argitalpen guztien antzera, Ikastola aldizkariak kolore eta diseinu aldaketak izan ditu bere ibilbidean zehar. Adibidez, 2002ko irailean —112. zenbakian— aldizkariak egun duen diseinu erakargarria hartu zuen, orri guztiak kolorezkoak direlarik.

Era guztietako pertsonaia eta aurpegi ezagunak agertu dira Ikastola aldizkarian, eta, esan bezala, ikastola eredua bera lantzeko, sendotzeko eta kohesionatzeko tresna bihurtu da. •



6.4. EGITURAKETA NAZIONALA

6.4.1. Testuingurua

1990eko hamarkadaren bukaeran, ikastola mugimenduan egituraketa kolektibo bakar eta sendo baten aldeko gogoaz hazi egin zen, bereziki Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastola-multzoan. Berotasun hori, ordea, epelagoa zen Seaskaren eta Nafarroakoako ikastolen federazioaren kasuetan.


“Ikastolen historiari erreparatuz gero, ikastola mugimenduaren egituraketa-ri buruzko eztabaidaren muinean lurraldeen kontzepzioak sekulako indarra izan duela bistakoa da, lurralde bakoitzeko federazioaren rola oso kontuan hartzeko aldagaia izan baita”, dio Etxezarretak. Datuetara etorrituz gero, GIEk (Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak), federaziorik handiena, 376.000 euroko aurrekontua zeukan 1989an, eta ia 3 milioi euroko diru-saila kudeatzen zuen 2003an, hezkuntza eremuan punta-puntako egitasmoak zituela.

Gainerako federazio eta Partaiderekiko proportziorik eza itzela zen. GIEk, bestalde, Euskal Herriko ikastola guztiei bere hezkuntza-zerbitzuak eskaintzen zizkien. BIE (Bizkaiko Ikastolen Elkarteak), berriz, tamaina txikiagoz bazen ere, antzeko ibilbidea egiten ari zen zerbitzuen hedadurari dagokionez. Eta, Etxezarretak dioenez, GIEri zegokion, federazio handiena izan da, egituraketa berriren aldeko ekimena abian jartzea, “eskuzabaltasunez jokatzeko eta mesfidantzak balizko akordio batera bideratzea. Bereziki BIE eta GIEren arteko adostasuna behar-beharrezkoa zen”

Gutziz arrakastatsu gertatu zen, aldi berean, ikastetxe publikoak bihurtu ziren ikastola ohien elkartzeko, ikastolen federazioak uzteko prozesua, alegia. Era lasaian eta traumarik gabe egin baitzen.

2000ko urriaren 18an, gainera, Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak eta Sortzen-Ikasbatuaz erakundeak hitzarmena sinatu zuten Euskal Eskolaren alde elkarlanean aritzeko konpromisoa agertuz. Hitzarmen horren arabera, adibidez, Ikastolen Elkarteak onetsitako Pedagogia Plan Nazionaleko lanen eta zerbitzuetan (prestakuntza, ebaluazioa, eleaniztasuna, bertsolaritza, Euskaraz Bizi, Ikaspilota eta Aisialdia proiektuetan) parte hartzeko aukera aitortzen zitzaizkien Sortzen-Ikasbatuazeko bazkideei. Euskal Curriculumaren jorratze bidean, halaber, bi eragileak elkarrekin aritu ziren.

Garbi dago ez zela erraza izan, eta ahalegin itzela eskatu zuela, baina 1993ko zatiketaren ondorengo prozesuak ondorio bikainak izan zituen ikastolen mugimenduarentzat, ez baitzen bigarren zatiketarik gertatu. Kostu bakarra, EAEko ikastolentzako izan zen, hainbat urtez bizefalia gertatu baitzen zerbitzu kolektiboetan: alde batetik Partaide, arlo ekonomiko-laboral-finantzarioaren ardurarekin; bestetik, arlo pedagogikoaz arduratzen ziren federazioak.



6.4.2. EAEko federazioen eta Partaideren arteko uztarketa juridikoaren eztabaida

“Partaideren sorreran akats bat egin genuen: lidergo mota ezberdinak elikatzeari; ekonomia eta pedagogia gaur arte bereiztea. Uste dut ez zela ona izan ikastolen kolektiboarentzat, lehia ekarri zuelako, lidergoaren eta ekimenaren inguruko lehia”, adierazi du Manu Aurrekoetxeak.

“Egia da sorreran beharra zegoela, biziraupen egoeran ginela. Baina lehia hori ibiliz gertatu zen, praktikan. Gaur egun gauza bera egin beharko bagenu, beste era batera egingo genuke, ziur. Nik uste dut ez genuela oso ondo asmatu behar horiek zeintzuk ziren igertzen; ez genuela behar horiek ondo definitu eta antolakuntza egoki bat egin, guztiaren ordezkapena eramateko. Denborak ematen duen perspektibarekin diot hau, noski. Orain erraza delako hau dena esatea”, erantsi du Aurrekoetxeak.

Partaideren sorrera zilegia eta guztion oniritziarekin harturiko erabakia izan zen baina, erabakiaren ondorioz, federazioei eutsi ez ezik beste egitura bat sortu behar zen. “Hor zegoen koska. Agian denok oso ahul geunden oraindik, eta nahi genuen zerbait berria sortzea, kultura berria etortzea, eta onartu genuen, ea zer gertatzen zen. Eta fruitu onak eman ditu, e! Baina talde batean ezin dira lidergo eta estrategia ezberdinak egon. Kohabitazioak edo bizikidetasunak ez du funtzionatu gure barruan”, nabarmendu du Manu Aurrekoetxeak.

EAEko ikastoletan, adibidez, begi onez ikusi zen Partaideren sorrera. “Baina horrela sortzeak, erakunde ezberdin gisa, Partaideren sorrera bera kutsatu zuen”, berretsi du Santos Sarasolak. “Eta egia da erakunde bakoitzak bere bidea egin zuela, eta Partaidek egonkortasun eta bultzada ekonomiko handia ekarri zela ikastolei. Baina, sortu zeneko arrasto edo marka horrek iraun egin zuen”.

Horrela, 1998-99an, eta ikastoletan bizi zen burubiko edo bi bururen egoerari erantzuteko asmoz, EAEko federazioen eta Partaideren arteko uztarketa juridikoaren eta horren araberako plan estrategikoaren eztabaida prozesua izan zen. Izan ere, federazioek protagonismoa zutelako ikastolen eta administrazioaren aurrean, baina baita Partaidek berak ere.

Burubiko egoera bat zegoen, bai, eta egoera horrek kontraesanak sortzen zituen, eta une batzuetan baita eztabaida gogorrak ere. Ikastolak bietan ziren bazkide, baina bazirudien erakunde bakoitza bere bidetik zihoala. Beraz, egoerak ez zuen logika handirik, eta horri erantzuteko eztabaida prozesua zabaldu zen.

Partaide, federazioen buru

Eztabaida prozesu haren baitan, negoziazioak izan eta formula bat adostu zen: Partaidek buruzagitza hartu eta arlo pedagogikoaren kudeaketaz arduratzeari; eta federazioak jarraitu eta Partaideren enpresa laguntzaile bihurtzea.

Proposamen edo formula berri hura 1995ean adostutakoarekiko ziaboga modukoa izan zen. 1995ean bi arlotan jardutea erabaki zuten EAEko ikastolek, eta horretarako Partaide sortu zen, baina proposamen berria erakunde bakarra sortzea zen. “Ziaboga bat zen, bai. 1994an Euskal Herri mailako erakunde bakarra proposatu genuen, eta 1995ean, bi erakunde, Euskal Autonomia Erkidegoan aritzeko. Eta 2000ko inguru hartan, EAE mailako erakunde bakarra”, esan du Jose Luis Sukiak. “Ikastolek erakunde bakarra eskatzen ziguten, baina ez Partaidek ez federazioek ez genuen desagertu nahi. Hortik atera zen adosturiko formula hura: *bolding* moduko bat zen, eta Partaidek federazio bakoitzaren %50 baino gehiago zeukan”.

“Formula berria ziaboga bat zen, bai, baina 1995eko egoera bat zen, eta 1998koa beste bat”, nabarmendu du J. Iñaki Etxezarretak. “Behin ikastola ohiek ikastetxe publiko gisa beren bidea egingo zutela ikusi ostean, ikastola batzuek eta federazioetako buru askok egituraketa bakarraren aldeko urrats azkarra eskatu zuten, ahal zen agudoen egiteko gogoia zegoen. Eta presak jokaldi txarra eragin zuen berriro”.

Adosturiko formula hura ez zen aurrera atera, espero bezala. 2001eko martxoaren 3In, EAEko federazioek eta Partaidek Donostiako Miramonen egindako batzarrean, bildutakoek babestu zuten proposamen nagusiarri Santo Tomas Lizeoak aurkeztutako osoko zuzenketa. Osoko zuzenketa hark, funtsean, soilik Partaidek jarraitzea defendatzen zuen. Batzarreko mahaiak proposatzen zuen, ordea, federazio bakoitzaren %50 bereganatzea.

Batzarrera eramandako formula hura hainbat ikastolek hitzartu zuten, eta osoko zuzenketa babestu zuten. Jarrera aldaketa horren zergatiak galdetuta, argi mintzo da Jose Luis Sukia: “Ikastolek osoko zuzenketa hartan esaten zena nahi zutelako benetan. Onartzen zuten guk egindako akordioa, gaitzerdi, baina jendeak erakunde bakarra nahi zuen. Errealitatea hori da, eta betidanik izan da horrela”.

Santos Sarasolak dioenez, berak bazekien aurkeztu zuen osoko zuzenketak babesa jasoko zuela, zuzendarien artean harremanak eta bilerak izaten zituztelako, “baina ez nuen uste onartuko zenik. Ustekabea izan zen niretzat. Nik espero nuen %25-30ko babesa jasotzea, baina hori baino askoz gehiago jaso zuen. Azken finean, ia testimonialki aurkeztu bainuen zuzenketa, mugimendu barruko egoera eta antolaketa errazte aldera, eta, batik bat, federazioen *staff*-ak arindu edo gutxitzearren”. Sarasolaren ustea baita ikastolen mugimenduaren baitan beti egon dela “azpiera erakunde gehiegi, azpikargu gehiegi, azpikontseilu gehiegi, eta ikastolak, azkenean, ez ginen hainbeste”.

Federazioak, Partaideren buru

Miramongo batzarrean gertatutakoak eragin zuen, batetik, erakunde bakarraren auziari heltzea eta izaera nazionaleko erakunde horren aldeko pausoak ematea.

Helburu hori bidearen iparrean zegoen beti, baina egunerokoak —EAEko federazioen eta Partaideren arteko eztabaidak berak, adibidez— moteldu egiten zuen.

Eta, bestetik, EAEko federazioen eta Partaideren uztarketa juridikoaren eztabaidari begira, formula berri bat adostea.

Horrela, 2002ko maiatzaren 10ean Zornotzan egindako batzarrean, *Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastolen eredu eratzaile-juridikoa antolatzeko oinarrizko proposamena* ize-nekoa onartu zen: ordura arte, ikastolak norbere lurraldeko federazioko eta Partaideko bazkide izan baziren ere, aurrerantzean haien herrialdeko federazioko bazkide izango ziren. Eta hiru herrialdeetako elkarteak edo federazioak, berriz, Partaideko kide izango ziren. Horretarako, Partaidek bere estatutuak aldatuko zituen eta hirugarren mailako kooperatiba bihurtuko zen. Galtzerdiari buelta eman eta Miramonen aurkezturiko planteamendua erabat aldatu zuten beraz: Partaide federazioen buru izatetik, federazioak Partaideren buru izatera pasatu ziren.

Lurraldetasunak irabazi zuen berriro. Federazioen kontzepzioa gailendu zen, ikusmolde hau oso uztartuta egon delako beti ikastolen mugimenduan, 1969an GIE eta Seaska sortu zirenetik eta gero, 70eko hamarkadan, beste hiru federazioak sortu zirenetik.

“Nik esango nuke 2002an emandako Partaideren estatutu aldaketa hura, formula berri hura, nekearen ondorioa izan zela”, esan du Jose Luis Sukiak. “Negoziazioak oso gogorrak izan ziren, oso eztabaida prozesu luzea izan zen hura, hiruzpalau urtekoa, eta bukatu beharra zegoen”.

Gauzak horrela, Sukiak uste du federazioen eta Partaideren uztarketari buruzko eztabaidak ez zuela merezi izan. “Praktikotasun ikuspegitik begiratu-ta, formula berriak ez zuen funtzionamendurako aldaketa handirik ekarri. Aldaketa bakarra izan zen Partaideren eta federazioen arteko koordinazioa handitu eta hobetu egin zela. Baina, tira, argitzeko balio izan zuen, eta denok nahi genuen puntura iristen joateko”.

“Ikastolen mugimenduak oso dinamikoa ematen du, baina erabakiak hartzeko orduan, oso motel jokutzen da askotan. Azken finean, ikastola asko ados jarri behar dira, eta ikastola bakoitza mundu bat da”, gaineratu du Sukiak.

6.4.3. Konfederazio nazionalaren sorrera

EAEko federazioen eta Partaideren arteko uztarketa juridikoaren eztabaidak moteldu egin zuen Konfederazioa benetako antolaketa nazionala bihurtzeko asmoa edo erabakia, 1992ko II. Batzar Nazionalan onarturikoa eta 1996ko III. Batzarrean berretsitakoa.

Asmoa moteldu, baina ez desagertu, 2002ko apirilaren 20an Altsasun egindako Biltzar Nagusian, 1987an sortutako Konfederazioa erakunde nazionala izatera pasatu baitzen Ekonomia-Intereseko Europar Elkarte bihurtzerakoan.



Ezbairik gabe, urrats kualitatibo handia izan zen hura, eta ordura arteko Konfederazioa goitik behera irauli zuen. Konfederazioa lan apal batzuk bidertzeko bilgune izana zen, eta Espainiako legediaren baitako elkarte bat zenez, Seaskak formalki ezin zuen bazkide izan, praktikan Konfederazioan parte hartzen zuen arren. Izaera juridiko berriarekin, ordea, Seaskak beste federazioen maila bera zuen Konfederazioan. Bost federazioak ziren Konfederazioaren titularrak edo jabeak, bostek indar eta eskubide berdinak zituztela.

Konfederazio berriaren lehendakaria eta zuzendaria izendatu ziren. Pedro Aranburu, lehendakari kargurako, 1987az geroztik ardura hori zuen Antonio Camposen orde; J. Iñaki Etxezarreta, zuzendari ardura kudeatzeko. Estatutu berrien arabera, bateraezinak ziren Konfederazioko eta federazioetako karguak. Ondorioz, Aranburuk BIEko lehendakaria izateari utzi zion, eta honen lekua Jon Sanchezek hartu zuen: Etxezarretak GIEko zuzendaria kargua utzi zuen, eta Iñaki Lekuonak bete zuen haren tokia 2003an. Halaber, Konfederazioko lehendakari kargua lau urterako izatea zehaztu zen estatutuetan.

Konfederazioa eraikitzeko ikuspegiak

Konfederazioari izaera berria emateko bidea, ordea, ez zen erraza izan, eta, beste behin, ikastolen kolektiboan desadostasunak sortu ziren. Konfederazio

berriaren sorrera eta, batez ere, erakundearen izaera baloratzeko orduan, bi ikuspuntu izan ziren.


Alde batetik, erakunde funtzionala, bakarra, arina eta eraginkorra sortu beharrean, “berriro ere formako erakunde bat sortzeko arriskua” ikusi zutenen ikuspuntua zegoen, “Konfederazioaren bazkideak federazioak zirelako, eta ez ikastolak”. Haien aburuz, Konfederazio berrian ezarritako lurraldeen arteko ezinbesteko eta erabateko adostasunak funtzionamendua motelduko zuen. Horregatik, beharrezkotzat jotzen zuten ikastoletan oinarritutako erakundea, “banan-banan eta elkarrekin sorturikoa”.

Bestetik, lurraldeak eta federazioak lehenesten zituztenen ikuspuntua zegoen. Antolamendu eredu horren arabera, bost federazioek botere berdina izanda, hainbat federaziok, batik bat txikiak, federazio handiekin aritzeko izan zitzaizkiren izuak uxatu egiten zituzten. Gainera, botere berdina edukitzeaz gain, erabakiak ez ziren gehiengoz hartzen, aho batez baizik. “Eta horrek ekar zezakeen kudeaketarako zailtasuna ez zen aski mugimenduak irabazten zuen sendotasuna ahultzeko, inor ez zelako sentitzen besteek harturiko erabakien menpe”, nabarmendu dute ikuspegi hori defendatzen zutenek. “Hain zuzen ere Konfederazioak egindako kudeaketa horri esker, federazioen eta ikastolen atxikimendu altua lortu zen, emaitzak oso onak izan zirelako”, erantsi dute.

Partaideren kasuan, juridikoki ez zegokion Konfederazioko bazkide izatea, 2002an onarturiko formulari jarraiki federazioak zirelako Partaideren buru. Alta, Partaideko zuzendaria Konfederazioko zuzendaritzaren kide izatea erabaki zen; eta, era berean, Konfederazioko zuzendariak Partaideko zuzendaritzan parte hartzea.

NIEko eta Seaskako ordezkarien artean, ordea, mesfidantza eragin zuen Partaideko zuzendaria Konfederazioko zuzendaritzako kide izateak. “Hasieran ez zuten nahi horrelakorik, Partaide gaizki sortu zelako Iparraldeko eta Nafarroako ikastolei begira, eta betidanik eduki dutelako kontrako iritzi edo ikuspegi hori Partaiderekiko; arrasto historiko hori egon da”, aitortu du Jose Luis Sukiak.

Baina, hastapenetan, Konfederazioaren ereduaz eta izan beharreko eskumenaz ere egon zen desadostasunik. Bost federazioek Konfederazio berria sortzeko pauso bateratu garrantzitsua eman zuten. Eta GIEk berriro oso sendo jokatu zuen, beste federazioei proposatu baitziren pedagogia arloko zerbitzu, baliabide eta eginkizun guztiak Konfederazioaren esku uztea. Denek ez zuten berdin erantzun, baina GIEk urrats garrantzitsua eman eta, J. Iñaki Etchezarretaz gain, oinarritzko lau atal eta haien arduradunak Konfederazioaren eskuetan utzi zituen: Euskal Curriculumaren ikerketa (Xabier Garagorri zen arduraduna), prestakuntza (Meltxor Artetxeren ardurapean), hizkuntza gaiak (Erramun Osa zen arduraduna) eta IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologiak, Josune Gerekaren ardurapean). Hau da, erakunde berri bati indarra eta etorkizuna eman ziezaiokeen multzoa.



Gertatutakoaz bestelako iritzia du, aldiz, BIEko zuzendari Manu Aurrekoetxeak. “Konfederazio berriaren sorreraren inguruan, BIEren aldetik ez zegoen arazorik edo errezelarik. Baina horren egiteko erarekin, horren aginte organikoaren gauzatzearekin oso kritiko ginen. Konfederazio edo erakunde berria sortzeko erabakia hartuta zegoen, bai; eta erabaki kolektiboa izan zen, noski. Ez, ordea, zeintzuk izango ziren haren funtzioak. Eta Konfederazioa indartu nahi bazen, guk argi genuen erueda ez zela federazio bat hara eramatea edo pasatzea. Bidea ez zela hori”.

Aurrekoetxeak gehitu duenez, “guk ulertzen genuen planteamendu konfederalan, existitzen ziren federazioak bakoitza bere funtzioekin, baina garbi genuen funtzio horiek ezin zirela izan beste lurraldeetan errepikatutakoak. Hau da, eta adibide moduan, GIEren zerbitzu bat ezin zuen BIEk bikoiztu, edo aldearantziz. Filosofia hori zen, eta horren alde egin zuen BIEk 2002an. BIE ez zen izan garai hartan oztopoak sortu zituen. Aurrera egiteko bide bakarra sistema konfederala bermatzea zela genion. Sistema konfederala, non federazioek izango zituzten haien funtzioak, eta Konfederazioak bereak”.

Ikastolen I. Plan Integrala

Desadostasunak desadostasun, Konfederazio berriak aurrera egin zuen. 2004ko urtarrilaren 10eko Biltzar Nagusian, Konfederazioaren lehendakari Pedro Aranburuk horrela zehaztu zuen: “Asko ikasi dugu azken urteotako eztabaidan zehar. Besteak beste, ikastolen mugimenduaren barruan ‘eredu konfederala’ zenbateraino errotua dugun egiaztatu ahal izan da, hots, ikastolen aniztasun jakinean federazioek jokatzen duten lurraldeko bateragile papera eta federazioen bidez Ikastolen Konfederazioa bezalako proiektu ausartetan berdinkidetasuna nola landu nahi den. Pertsonak gara, ordea, ikastolen izenean ari gare-nok; pertsona bereziak eta anitzak, askotariko ikuspegiak adierazi eta sostengatzen ditugun pertsonak; ikastolen mugimenduaren ardura eta erantzukizuna geureak egin ditugun pertsonak; eta denon gogoak bideratzen saiatu behar ditugun pertsonak. Honen ondorioz, 2001ean Konfederazioaren plan estrategikoa (Plan Integrala), 2002an Konfederazioaren soineko juridikoa (Europar Elkar-tea-AEIE) eta 2003an Konfederazioaren kudeaketa eredu (2003-2007 Akordioa) adostu ditugu. Zirkulua itxi dugu eta orain hori guztia abian jarri behar da. Ez da erraza izan, ez horixe. Bizkor eta aise egin ustez, luze eta astuna suertez. Baina, ororen gainetik, adostasunez. Eta kostatakoak balio berezia duenez, orain landu behar dugu ekinez”.

2003ko udaberrian, beraz, Konfederazioaren eskumenak zehaztu ziren eta Ikastolen I. Plan Integrala indarrean jarri zen. Atzean gelditu zen Ikastolen IV. Batzarra, 2001eko azaroaren 10ean, Donostiako Pedagogia fakultatean burutu zena. Eta, orduan, 1996an onarturiko Pedagogia Plan Nazionala arrakastatsua izan zela onetsi zuten ikastolek. “Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren aitzindaritzza, ikastolen ordezkaritzza eginkizunei zegokionez, IV. Batzarraren kontu-emate saioan mamitu zen” adierazi digu EHIKko idazkari tekniko Arantza Munduatek. 1990ean Mirari Bereziartuaren laguntzaile gisa lanean hasi zen Ikastolen Elkartean, eta 1997an haren idazkaritzza teknikoaren ardura hartu zuen. Gaurdaino EHIKren lan guztien azpiegitura organikoa eta funtzionala da bere ardura.



Lurralde lurralde egindako beste prozesu luze baten emaitza izan zen I. Plan Integrala. Eta 1996ko plan pedagogikoarekin egin zen bezala, plan berriak hezkuntzaren arlo guztiak hartzen zituen kontuan, finantzarioak, lan arlokoak, ekonomikoak eta erakundetzeari zegozkionak barne. Plan honek, beraz, ikastolen mugimenduko sei erakundeak hartzen zituen bere baitan: bost federazioen eginkizunak eta Partaideren eginkizunak. Horregatik, ikastola ereduari zegozkion elementu guztiak bere gain hartzen zituen neurrian, Plan Integrala deitu eta ikastola kolektiboaren lehen plan komuna bihurtu zen.

Planak bost urteko iraupena zuen, eta sei atal: ikastola eredia ikertzea eta garatzea; hezkuntza zerbitzuak eskaintzea edo egitea; ikastolen egonkortasun komuna kudeatzea; ikastolen erakunde kolektiboa dinamizatzea eta sendotzea; ikastola ereduaren barne zein kanpo komunikazioa garatzea; eta Konfederazioa enpresa gisa antolatu eta kudeatzea.

Sei ardatzen arteko lotura ikastola eredia bera zen. 90eko hamarkadaren bukaeratik eta 2000. urtearen hasieratik, ikastola markari eusten dion kontzeptu ideologikoa da ikastola eredia. Eredu kontzeptuak, normalean, eskola ulertzeko modu batekin lotuta egon dira. Eta pedagogiaren historia unibertsalean, batik bat mendebaldekoan, bi eredu tradizional egon dira. Batetik, eredu publikoa. Hau da, botere publikoak titulartasuna duen eskola mota, bi adar dituena: bertsio anglosaxoia eta napoleondarra. Bestetik, eredu pribatua, entitate erlijio-soek kudeatu ohi dutena.

Ikastolak, ordea, bere ibilbideari eta bilakaerari buruz hausnarketa egin duenez, eta hausnarketa horretan literatura zientifikoan erreferentziak bilatu ditueenez, berea aurkitu du, bi eredu horien aldean ezberdina. Eta ezberdina, ez soilik titulartasunaren kontzepzioari dagokionez; ez bakarrik eskola antolamenduari dagokionez; ez bakarrik gauzak bizitzeko eragatik; ezberdina baita curriculumean eta ondorengo zereginetan ere.

Beraz, ikastola eredia aldarrikatzen denean, berezko eredia aldarrikatzen da, hirugarren gune batean dagoen eredu eta lan moldea.

Ikastola eredu hori definitzeko orduan, garbi mintzo da J. Iñaki Etxezarreta: “Gure ustetan, ikastolak deitzen eta berezko nortasun juridikoa duten hezkuntza entitate horiek banaka eta elkarrekin konpartitzen duten hezkuntza proiektua, eta beste eskola mota eta eredutik ezberdin dituzten ezaugarrien multzoa da ikastola eredia. Eta hezkuntza proiektua esaten dugunean ez dugu bakarrik esaten alde curricularra, pedagogikoa; eskolaren kontzepzioa bera ere



hartzen dugu aintzat. Eta beste eskola ereduetatik desberdinak diren ezaugarriei dagokienez, desberdinak dira ez bakarrik diseinuan, baizik eta ikastolek modu ezberdinez gauzatzen dituztelako”.

Hala, I. Plan Integral hartan, ikastola ereduaren ezaugarriak jasotzen edo zerrendatzen ziren.

IKASTOLA EREDUAREN EZAUGARRIAK

2003. urtean IV. Batzar Nazionalaren bigarren saioan onarturiko Ikastolen I. Plan Integralean jasotzen denez, honako hauek dira ikastola ereduaren ezaugarriak:

- Euskalduntasuna, heziketa osoaren ardatz gisa.
- Izaera herritarra duen titulartasun soziala.
- Eraldatzailea, hezkuntza sisteman eta gizartean.
- Hezkuntza komunitatearen esku-hartze aktiboa.
- Gestio autonomoa ikastola bakoitzean.
- Ikastolen arteko lankidetzeta, Ikastolen Elkartearen baitan gauzatua.
- Elkartasun Kutxa.
- Lan esparru espezifikoa.
- I+G, oinarrizko prozesu gisa.
- Prestakuntza Plana.
- Ikasmaterialgintza propioa.
- Ekonomia sozialekoa.
- Euskal Herriari atxikia.
- Autoebaluzioa.
- Kalitatea. •

I+G, oinarrizko prozesua

Plan Integralaren ardatza ikastola eredu izaki, logikoa zen ikastola eredu horren ikerketa eta garapena (I+G) bihurtzea ikastolen kolektiboaren oinarrizko prozesua. I+G horren eginkizuna zen ikastola eredu hori definitzea, garatzea eta ikertzen jarraitzea eta, era berean, eredu horren arabera egiten

dirén ikastoletako jarduera guztiak zaintzea. Hau da, ikastolen jardueratan koherentzia bermatzea.

Etorkizunari begira, halaber, eredu hori ezin da izan gauza estatiko bat, kon-tserbadorea, baizik eta dinamikoa, beti berritzeko eta aberasteko prestasuna duena. Horregatik ikastola eredu horrek osatzeke dituen hainbat osagai osatzen jarraitzea da I+G. I+G horretan ez baita soilik elementu curricularrez hitz egi-ten, antolakuntzaz ere arduratzen da.

Pausoz pauso eta urratsez urrats, beraz, Konfederazioak sendotasuna iraba-zi eta erakutsi zuen, hastapenean harekiko zeuden beldurrak eta aurreiritziak uxatuz. Hasierako asmo hura gorpuztuz joan zen, federazioen funtzionamen-dua ere aldatu zen, eta Konfederazioak erreferentzialtasun handia lortu zuen. Arazoak ez ziren guztiz desagertu; baina ikastolaren irudia dagoeneko ez zego-en horren sakabanatuta.

Eta Konfederazioaren bost urteko ibilbidearen ondotik, beste urrats kuali-tatibo bat emateko garaia iritsi zen: Konfederazioaren Europa mailako egitura hartatik ikastolak zuzenean bazkide izango zituen erakunde edo elkartera pasa-tzea, Partaide, federazioak eta federazioetan gelditzen ziren pedagogia arloko egitura deseginez eta horiek guztiak beste antolakuntza nazional batean jarritz.

Egituraketa berriaren inguruko eztabaida prozesua 2009an bukatu zen, Euskal Herriko Ikastolak izeneko Europako kooperatiba sortuz. Baina, eztabai-dak irauan bitartean, ikastolen kolektiboari begirako gertaera garrantzitsuak izan ziren Nafarroan nahiz Ipar Euskal Herrian.

6.4.4. Nafarroako ikastola guztien legeztapena

Ikastolen mugimenduak maila nazionalean urrats handiak landu eta presta-tzearekin batera, 2006-2007 urteetan Nafarroako ikastola guztiak legeztatu zituzten.

Nafarroan egoera alegalean zeuden ikastolena aspaldiko auzia zen. 1986ko Euskararen Legeak ezarritako eremu banaketaren ondorioz, eremu erdalduneko lau ikastola, Arangoiti (Irunberri), Ibaialde (Lodosa-Sartaguda), Argia (Tutera) eta Erentzun (Biana), egoera horretan zeuden.

Baina, lau horiez gain, bosgarren ikastola bat ere alegala zen Nafarroako Gobernuarentzat: Berako Labiaga ikastolaren Derrigorrezko Bigarren Hezkun-tza (DBH). Eremu euskaldunean egonik eta, beraz, legezkoa izanik ere, Nafa-rrako Gobernuak etengabe ukatu zion DBHren kontzertazioa, eta gobernu-aren jarrera bera auzibidera eraman zuen ikastolak.

Bost ikastola haiek, beraz, ofizialki ez ziren existitzen Nafarroako Gober-nuarentzat. Ondorioz, ez zituzten jasotzen zegozkien diru laguntzak. Nahiz eta, praktikan, eskaintzen zuten zerbitzua aitortzen eta onartzen zuen gobernuak.



Eta horren erakusle, urtez urte Nafarroako Hizkuntza Politikarako zuzendutako diru-sailetatik jasotzen zuten diru laguntza.

Alegaltasun egoera hartan jarraitzeak, noski, arazo franko sortzen zizkien ikastola haiei, finantzazioari zegokionez zein eguneroko jardunari zegokionez: eskolaratze libretak lortzeko orduan, esaterako, irakasleentzako formazio eskaintza ofizialak ezin ziren baliatu...

Baina bost ikastolek tinko jarraitzen zuten lanean, oztopoen, presioen eta mehatxuen gainetik. Berako Labiaga, adibidez, ikastolaren eraikin berria inauguratu eta DBHko lau gela eskaintzen hasi zen 1996ko martxoan. Ezina ekinez egina, beste behin.

Mende berriaren hastapenarekin, halaber, UPN alderdiaren esku zegoen Nafarroako Gobernuak euskararen eta euskal kulturaren kontrako neurriak nabarmen areagotu zituen, besteak beste testuliburuetan ikurrinaren eta Euskal Herriko maparen desagertzea bilatuz.

Nafarroako gizartean, ordea, gero eta handiagoa zen Euskararen Foru Legearen kontrako jarrera eta euskararen ofizialtasun osoaren aldeko aldarria. Oinarririk izeneko plataformak, esaterako, horren alde bildutako 48.246 sinadura aurkeztu zituen 2000. urtean, nahiz eta hasierako helburua 25.000 lortzea zen.

Eta bost ikastola haiek legeztatzeke eskaerari ere eutsi egin zioten, Nafarroako Ikastolen Elkartearen helburu garrantzitsuenetakoa baitzen.

Akordioa

2003ko foru hauteskundeen ondotik, UPN eta CDN alderdiek 2003-2007 legealdirako gobernu ituna sinatu zuten. Eta gobernu hitzarmen hartan zehazten zenez, 2005eko abuztua bukatu baino lehen herrialdeko bost ikastolak legeztatu behar ziren.

2005eko maiatzaren 24an hain zuzen ere, bost ikastolak legeztatzeke proposamena landu zuen NIEk. Talde politiko guztiei aurkeztu ondoren, urte bereko ekainean, Nafarroako Ikastolen Elkartek Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordera eraman zuen. Proposamen hartan, NIE prest agertu zen bost ikastolak kontzertazioaren araudipean gelditzeko abuztuaren 31tik aurrera. Baina, halaber, hurrengo bost urterako diru sail berezia eskatu zuen, bi argudiotan oinarrituta. Batetik, eremu erdaldunean D eredia debekatuta dagoenez, ikastolek zerbitzu publiko bat eskaintzen dutela, herritar orok bere seme-alabentzako nahi duen hezkuntza eredia aukeratzeko eskubidea gauzatuz. Bestetik, beharrezko baldintzak bete ahal izateko, ikastola haiek inbertsio handiak egin zituztela, inongo diru laguntza publikorik jaso gabe.

2005eko abuztuaren 29an, bi alderdiek ezarritako epea bukatu baino bi egun lehenago, UPNk eta CDNk onartu zuten Hezkuntza Sailak ikastola bakoitzaren egoera aztertzea, banan-banan, eskaturiko baldintzak betetzen zituzten edo ez egiaztatzeke.

Negoiazio luze eta gogorren ondotik, 2006ko ekainaren 30ean itxi zen, azkenik, Nafarroako Hezkuntza Sailaren, NIEren eta bost ikastolen arteko akordioa. Hitzarmenaren arabera, bost ikastolek kontzertuak jasoko zituzten, bai eta 2010era arteko diru laguntza edo finantzazio berezia ere, herri haietan euskaraz ikasteko beste eskaintzarik ez zegoela onartuta eta ikastola haien berezitasuna aitortuta.

Hala, finantzazio berezi hura arautzeko legea 2007ko martxoaren 15ean onartu zen Nafarroako Legebiltzarrean. Eta legean bertan jasotzen zenez, "kontzertazioa jasota ere, administrazioaren laguntzarik gabe ez legoke ziurtatuta ikastola hauen bideragarritasun ekonomikoa".

Nafarroan lehen ikastola sortu eta 40 urtera etorri zen, beraz, herrialdeko ikastola guztien legeztatpena. Ezbairik gabe, albiste gozoa Nafarroako nahiz Euskal Herriko ikastola guztientzat. Baina, Berako Labiaga ikastolaren kasuan, gazia izan zen lortutako irtenbidea, DBHko bigarren zikloaren itxiera agindu zelako. Ondorioz, bertako ikasleak beste ikastetxeetara bidaltzeko erabakia hartu zuten ikastolako gurasoek.

Akordioa lortu zen unean, 2006ko ekainaren 30ean, Nafarroako bost ikastola haiek haur eta lehen hezkuntza eskaintzen zuten, eta Tuterako Argia eta Berako Labiaga ikastolek DBH osoa.

6.4.5. Seaskaren murgiltze ereduaren aitortza

Nafarroako ikastolentzako ez ezik, Ipar Euskal Herriko ikastolentzako ere aurrerapausoak ekarri zituen XXI. mendeko lehendabiziko urteek.

1998-1999 ikasturtean, Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako 19 ikastolek, bi kolegiok eta lizeo batek osatzen zuten Seaska. Denera, 1.700 ikasle eta 140 langile biltzen zituen Ipar Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak.

Ikastola proiektuak, beraz, gorantz jarraitzen zuen Iparraldean. Sasoi haietan, esaterako, %4 igo zen ikasleen kopurua, eta 1998-99 ikasturtean bertan abiatu zen Ziburuko Piarres Lartzabal kolegioa, Iparraldeko kostaldeko II-I5 urte bitarteko gazteek bigarren maila euskaraz ikasteko aukera izan zezaten. 75 ikaslerekin eta bi urterako alokaturiko egoitzan jarri zen martxan Ziburuko kolegioa. Beste behin ere, baldintzak ez ziren egokienak, baina urrats handia zen, Seaskako bigarren lizeoa zelako, ordura arte Kanboko Xalbador kolegioa baino ez zegoelako.

Frantziako Hezkuntza Nazionalarekin 1994an izenpeturiko akordioa, halaber, aurrerapauso handia izan zen, ikastola eskola gisa ezagutua edo aitortua izan zelako, ikastetxe pribatuen izaera berdina emanez. Baina hitzarmen hark ez zituen konpondu Seaskaren eta Iparraldeko ikastolen arazo guztiak, inolaz ere.

Adibidez, sare publikoari dagokionez, Frantziako Estatuan eskola sare publikoa herriko etxeen edo udalen ardurapean gelditzen da haur hezkuntzako ikastetxeen eraikuntza eta mantenua. Sare pribatuko ikastetxeen kasuan, 1959ko lege batek —*Loi Forfait de Fonctionnement* delakoak— udalak behartzen ditu eskola pribatuei dirua ematera, baina ikastetxe horien kudeaketa eta funtzionamendurako, ez eraikuntzarako. Legearen arabera, gainera, eskola publikoei emandako diru kopuru berdina izan behar da ikastetxe pribatuei zuzendurikoa.

Seaskak Iparraldean eskaintzen zuen euskarazko irakaskuntza eredia zerbitzu publikoa zela aldarrikatzen jarraitzen zuen, etengabe galdeginez ikastolak beste guztien ildo beretik hartuak izan zitezten.

Ipar Euskal Herriko udalen artean, ordea, alde handia egon da beti ikastolen proiektuarekiko, herriko etxearen arabera eta tokian tokiko errealitatearen arabera. Eta Hendaiaiko edota Biarritzeko herriko etxeek bertako ikastolen eraikuntza lanak beren gain hartu bazituzten ere —ikastolek zerbitzu publikoa eskaintzen zutela argudiatuz—, beste herriko etxe askok ez zuten aipaturiko 1959ko legea betetzen, eta ikastolen funtzionamendurako diru laguntzak ere ukatzen zituzten. Adibidez, Nafarroa Behereko udal askotan horixe gertatzen zen... eta gertatzen da.



Beste herriko etxe batzuetan, ikastolei dagokien diru laguntza ordaintzen dute gaur egun, baina denbora luzez horrelakorik ematea ukatu zuten. Urruñako Herriko Etxea da horren adibide bat.

Beraz, eta salbuespenak salbuespen, ikastolen eraikuntza Seaskaren eta gurasoen esku izan zen leku gehienetan, eta ikastolen mugimenduak eraturiko Elkartasun Kutxa oso tresna baliagarria izan zen horretarako.

Publifikazio eskaintza

1999an, Frantziako Hezkuntza Nazionalak ikastolak sare publikoan integratzeko eskaintza luzatu zuen, Frantziako Estatuan jarduten duten beste nazionalitateko hainbat eskolari eskaintza bera eginda. Eskaintzaren funtsa zen publikotasuna ematea, eskola horietan frantsesa gehiago irakastearen truke.

Beraz, berriro, planteamendu ez integratzaileetan oinarritutako ikastolen integratzaileetako beste eskaintza bat. 1993an Euskal Autonomia Erkidegoan gertatu zen bezala, proposamen baztertzaiela eta inposatzailela zen hura, ikastolaren izaera eta ikastolak berak ekarritako aniztasuna kontuan hartu gabe. Izan ere, Ipar Euskal Herrian ikastolak sortu zirelako, Hegoaldeko ikastolen antzera, euskara iraunarazteko eta bultzatzeko. Eta, zoritxarrez, eta hainbat azterketa soziolinguistiko aintzat hartuta, euskararen ezagutzak eta

erabilerak maldan behera jarraitzen zuen —eta dute— Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan.

Hezkuntza Nazionalaren eskaintzak, dena den, eztabaida sakona eragin zuen Seaskaren baitan, eta bi aldeen arteko negoziazioak hainbat hilabetez luzatu ziren. 2000ko uztailean, azkenean, eta Seaskako lehendakaria Mixel Etcheverry zela, erakundeak uko egin zion Hezkuntza Ministerioaren eskaintzari.

Garapenaren aroa

2000. urtetik aurrera, edonola ere, Seaskaren garapen aroa hasi zen. 2000. urtean bertan, esaterako, Seaskak Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza jaso zuen estreinakoz. Hastapenean, diru horrekin zer egin eztabaidatu zen elkartearen baitan: ikastola guztien artean banatu edo gorde, erronka handiagoei erantzun ahal izateko. Azkenean, bigarren aukera onetsi zen, eta ikastola berriak sortzeko kutxa modukoa osatu zen Jaurlaritzak emandako diruarekin.

Seaskaren baitan, gainera, Egoitza Taldea izenekoa eratu zen, ikastola edo eraikin berrien kudeaketaz arduratzeko. Horrela sortu ziren, adibidez, Ziburuko Piarres Lartzabal kolegioko eraikin berria eta Donaixtiko Manex Erdozaintzi-Etxart kolegioa, biak ala biak 2001ean zabalduzakoak. Bizpahiru urte beranduago, Lartzabalera pasatu zen Manex Erdozaintzi-Etxart kolegioa.

Harrez geroztik, eta 2009ra arte bederen, Jaurlaritzak urtez urte eman dio diru laguntza Seaskari, ikastola berrien eraikuntza finantzatzeko. Diru partida hau zuzenean jasotzen zuen Seaskak. Izan ere, Jaurlaritzak berak beste diru laguntza bat ematen diolako Euskararen Erakunde Publikoari, eta lankidetzara fondo honetatik ere diru kopuru bat jaso ohi du Seaskak.

“Eusko Jaurlaritzak 2000. urteaz geroztik emandako diru laguntza bizi-ki garrantzitsua izan da. Iparraldean ikastola berriak eraiki baditugu, neurri handi batez Jaurlaritzak emandako diruari esker izan dela esan daiteke. Gure eraikuntzetarako beste zatia, berriz, Herri Urrats da”, adierazi du Filipe Aramendik.

Euskal Herriko Ikastolen Konfederaziotik jasotako diruarekin, halaber, proiektu komunak abiatu zituen Seaskak: Euskaraz Bizi eta Xiba 2002-2003 ikasturtetik aurrera, Bertsolaritza 2005etik aurrera.

Garapen Batzordea ere martxan jarri zen Iparraldeko Ikastolen Elkartearen baitan, besteak beste ikastolaren aldeko kanpainak eta publizitatea egiteko Bidasoaren beste aldeko hiru euskal herrialdeetan. Gizarteko sektore berriak ikastolara erakartzea zen helburua, eta, partaide berriekin batera, Seaskaren eta ikastolen aitortza eta onospena handitzea. Eta hori da, hain zuzen, Seaskaren gaur egungo helburu nagusia: garapena, zabalpena, Ipar Euskal Herria ikastolaz betetzea.

Antolaketa berria

Garapenak, noski, lana eta zerbitzuak biderkatzea eragin zuen Seaskan. Eta Integrazio Batzordea —ahalmen urriko haurren integrazioarako komisioa— eta Herri Urrats ere elkarte autonomo bihurtu ziren. Horregatik, 2006an gogoeta bati ekin zitzaion Seaskaren baitan, funtzionamendua hobetzeko helburuarekin.

Gogoeta eta berregituraketa prozesuaren emaitza gisa, Seaskaren barruan antolaketa eredu berria jarri zen martxan 2007-2008 ikasturtea hastearekin batera, berrikuntza nagusia zuzendaritza bikoitza zela. Zuzendari pedagogikoa batetik, zuzendari administratiboa edo gerentea bestetik, azken hau Seaskaren kudeaketaz eta kanpo harremanez arduratzeko.

Garapenerako profesional bat kontratatzea izan zen beste berrikuntzetako bat. Eta lehendik zegoen Pedagogia Taldearen lekukoa, halaber, Hezkuntza Taldeak hartu zuen. Talde zabalagoa zen, eta hainbat diziplinetako adituk osaturikoa: pedagogoez gain, psikologoak eta psikopedagogoak bilzen dira bertan.

Berrantolaketa prozesuan, ordea, ez ziren gutxi izan desadostasunak eta une zailak. Filipe Aramendiren iritziz, prozesu haren helburua ez baitzen ongi ulertu. “Batzuk leporatzen ziguten Seaska enpresa bihurtu nahi izatea, eta ez zen hori. Adibidez, ordura arteko zuzendaritza orokorrak lan karga handia zuen, eta ez zen posible horrela jarraitzea. Hortik etorri zen bi buruko zuzendaritza sortzea”.

Jean Mitxel Etxegarayren eta Pantxika Ibarboururen zuzendaritzapean abiatu zen antolaketa eredu berria; lehena zuzendari pedagogiko gisa, bigarrena zuzendari administratibo bezala. Baina handik gutxira, 2008ko lehen hila-beteetan, Hur Gorostiagak hartu zuen Ibarboururen lekua zuzendaritza administratiboan, eta Paxkal Indo Seaskako lehendakari izendatu zuten.

2009ko akordia Frantziako Hezkuntza Nazionalarekin

2004-05ean, Euskararen Erakunde Publikoa (EEP) sortu zen, eta Frantziako Estatu bera, Akitania Eskualdea eta Pirinio Atlantikoetako Departamendua bildu ziren bertan, Euskal Kulturaren Aldeko Herri Elkargoarekin eta Ipar Euskal Herriko Hautetsien Biltzarrearekin batera. Ipar Euskal Herrian euskararen aldeko hizkuntza politika publiko eta kontzertatua garatzea da erakunde bakar eta ofizial horren helburua, euskararen lotura duten zenbait ekintza gauzatzeko beharrezkoak diren finantzazioa ematearekin batera.

Baina, hasieratik, Seaskan eta Iparraldeko euskalgintzan errezeloz hartu zuten EEPren sorrera. Are gehiago erakundeek Max Brisson izendatu zutenean

EEPren lehendakari, UMP alderdi eskuindarrekoa baita Brisson, euskararen aldeko politikari gisa nabarmendu gabea.

Frantziako Hezkuntza Nazionalak eta Seaskak, bitartean, negoziazioari ekin zioten, irakasle postu gehiago lortzearren. Frantziako Estatuan, Hezkuntza ministerioak berak kudeatzen baititu eskola publikoen nahiz pribatuen beharrak.

Negoiazio haiek, ordea, ez ziren errazak izan, eta kaleko giroak gora egin zuen: manifestazio jendetsua Baionan 2004ko abenduan, elkarretaratzeak eta okupazioak 2005ean eta 2006an zehar... Negoiazioak gorabehera handiak izan zituen, eta ez aurrera ez atzera geratu ziren. Horregatik, une hartan Seaskak Euskararen Erakunde Publikoa galdegin zuen kanpaina baten bitartez. Hezkuntza Nazionalaren aurrean, EEPk bitartekaritza lana egitea nahi zuen Seaskak: egoera konpontzen lagun zezala eta, bide batez, benetan euskararen aldeko erakundea zela frogatu zezala EEPk berak.

Ataka hartan, beraz, EEPko buruak jabetu ziren Seaska laguntzeak zilegitasun soziala eman diezaiokeela erakunde publikoari. Eta bitartekaritza lanari heletzea erabaki zuten.

Euskararen Erakunde Publikoaren bitartekaritza medio, Seaskaren eta Hezkuntza ministerioaren arteko negoziazioak 2007an hasi ziren. Bi aldeak hitzeko edo ahozko akordio batera iritsi ziren 2008ko uda baino lehen, eta Seaskak akordioa publiko egin zuen. Baina, uda ondoren, Hezkuntzak ez zuen bete hitzarmen hura, argudiatuz ahozko hitzarmenak ez zuela ezer frogatzen.

Ondorioz, 2008-09 ikasturteari mobilizazioekin ekin zion Seaskak: elkarretaratzeak, agerraldiak... Protesta haien bitartez, Hezkuntza Nazionalari konpromiso argia eskatzen zion Seaskak, eta, era berean, EEPren sostengua galdegin zuen berriro. Eta Max Brisson jabetu zen, ezer ez egitekotan, Seaskak mobilizazioekin aurrera jarraitu eta haren protesten jomuga EEP bera bihurtuko zela, eta ez Hezkuntza Nazionala edota Paueko Akademia.

Azkenean, negoziazioak martxan jarri ziren berriz ere. Eta ordura arte Pauen egindako bilerak Parisera igaro ziren, Hezkuntza Ministerioaren egoitzara. Seaskako lehendakaria eta bi zuzendariak joaten ziren bileretara, bai eta EEPko lehendakari Max Brisson ere.

Eta 2009ko maiatzaren 6an, Seaskarekin hitzarmena lortu zuela jakinarazi zuen Frantziako Hezkuntza Nazionalak, agiri baten bitartez.

Hiru urterako itxitako akordio hartan, lehen mailarako II irakasle gehiago ematea eta ordaintzea onartu zioten Seaskari: bost lanpostu berri 2009-2010 ikasturtean, eta hiruna postu berri 2010-2011 eta 2011-2012 ikasturteetan.

II lanpostu berri haiekin ez ziren asetzen Seaskaren eta ikastolen behar guztiak. Baina akordioan bertan onartu zen erakunde publikoek —EEPk, batik bat— diru laguntza gehiago emango ziotela Seaskari; eta diru horrekin bere sakelatik ordaindutako irakasleak ordaintzeko aukera du Iparraldeko Ikastolen Elkarteak.

Akordio hartan, halaber, bigarren mailako irakasleak kontratatzeko irizpideak finkatzea zen Seaskaren beste helburuetakoa. Ziklo horretan dituen irakasle guztiak Frantziako Estatuak ordaindu arren (1994ko hitzarmenari jarraiki), bigarren mailako irakasleentzako ordu gehiago lortzea baita Seaskaren xedea, bere hezkuntza proiektua baldintza onetan aurrera eramanez ahal izateko. Hezkuntza Nazionalak, ordea, ez zuen hori garatu nahi izan 2009an itxitako akordioan, bigarren mailan irakaskuntza elebiduna biziki ahula baita Iparraldeko eskola publikoan.

Baina, kopuruez eta zenbakiez haratago, 2009ko akordioaren lorpen handiena izan zen Hezkuntza Nazionalak Seaskaren murgiltze eredu aitortu zuela. Filipe Aramendik azpimarratu bezala, lehen aldian izan zen Frantziako Estatuak, ofizialki eta paperean, Ikastolen murgiltze eredu aitortzen duela; lehen aldian Seaskaren murgiltze eredu agertzen zela estatuak sinaturiko dokumentu batean. Ordura arte, murgiltze eredu ez zen ofizialki ezagutua. Eta horrek beti arazoak sortu ditu Seaskarentzat. Adibidez, urtero, irakasle postuak negoziatu beharra Hezkuntza Ministerioarekin. Murgiltze eredu ez zenez onartua, honek sorturiko beharrak ere ez zituelako aintzat hartzen Frantziako Estatuak.

1994ko hitzarmenarekin Frantziako Estatuak ikastola eskola gisa onartu bazuen, 2009ko akordioarekin ikastola ikastola gisa onartzea lortu zen Seaskak. Akordioak, bestela esanda, erabilitako murgiltze sistema legezatu zuen.

Eta Iparraldeko lehen ikastolaren eta Seaskaren 40. urtemuga bete zen urte berean iritsi zen aitortza.





7.

IKASTOLEN HEZKUNTZA PROIEKTUA

Hezkuntza proiektua hezkuntza eragile ororen bizkarrezurra da. Bere izaeraren adierazpena edo ardatza. Hala, ikastola bakoitzak bere Hezkuntza Proiektua du, eta haren helburua da tokian tokiko ikastola horrek eskola gisa dituen berezitasunei erantzutea.

Baina ikastola guztiek badute, kolektiboki, hezkuntza proiektu komuna: Ikastola Hezkuntza Proiektua.

Eta ondorengoak dira, hain justu, Ikastola Hezkuntza Proiektuaren ardatzak:

7.1. IKASTOLEN EUSKAL CURRICULUMA

Curriculum vitae izeneko bizitzaren ibilbidearen edo lasterketaren laburpena jasotzen duen agiria denez, curriculum hitzak, hezkuntza arloan, ikasleek ikasketak burutzeko —kasu honetan, Oinarrizko Hezkuntzaren heziketa burutzeko, egin behar duten ibilbidea edo programa esan nahi du—.

Euskal Herrian, ordea, ez da egon —eta ez dago— curriculum bakar bat. Zatiketa politiko-administratiboaren ondorioz, hiru curriculum ofizial ezberdin daude indarrean. Nafarroan batetik, eta Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan bestetik, curriculum autonomiko bana daude (Nafarroako Curriculum ofiziala eta EAeko Oinarrizko Curriculum Diseinua, hurrenez hurren). Bi curriculum hauetan, edukien %55 Espainiako Estatuak finkatzen du, eta gainerako %45 erkidego bakoitzaren esku geratzen da. Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan Frantziako Estatuak zehazten du curriculum osoa, baina curriculum hitza baino, hezkuntza programa kontzeptua erabili ohi da.

Gauzak horrela, 1996ko ikastolen III. Batzar Nazionalean onarturiko Pedagogia Plan Nazionalean, Euskal Curriculumuma sortzeko ikerketa martxan jartzea onartu zuen ikastolen mugimenduak. 1992tik zetorren apustua zen hura, ikas-

tolen kolektiboan, lehen aldiz, II. Batzar Nazionalen sortu zelako Euskal Curriculum bat osatzeko proiektua. Baina 1993ko EAEko Euskal Eskola Publikoaren inguruko prozesuak talde nazionalaren aldeko erabakia martxan jartzea oztopatu zuen bezala, Euskal Curriculumaren aldeko lan ildo hau abian jartzea eragotzi zuen.

1996an, beraz, erronka horri erantzuteko ardura eta konpromisoa hartu zuen ikastolen mugimenduak, eta honako galderari erantzutea zen helburua: “Zeintzuk dira derrigorrezko hezkuntza bukatzean 16 urteko gazte batek gutxienez ezagutu behar dituen gertaera eta kontzeptuak, egiten jakin behar dituen prozedurak eta lortu behar dituen trebetasunak eta bereganatu behar dituen balioak eta jarrerak?”.

Xabier Garagorrik hartu zuen Euskal Curriculumaren ardura. Haren esanetan, galdera hori “herri izan nahi duen herri orok” egiten dio bere buruari. “Hau da, ‘zer da talde gisa, kolektibo gisa, herri gisa, belaunaldi batetik bestera transmititu behar duguna?’ Horri erantzuteko premia zegoen. Are gehiago kontuan hartuz bi estatutan eta hiru administraziotan banatuta gaudela, eta erantzun hori ez zigutela emango ez Frantziak ez Espainiak. Beno, ematen ziguten, baina emandako erantzunak ez digu balio herri bezala ditugun beharrei erantzuteko. Eta administrazio autonomikoek emandako erantzunek ere ez ziguten balio. Azken finean” erantsi du Garagorrik, “curriculum ofizial horien bidez asimilazioa gertatzen delako, eta gu herri bat gara eta gure ezaugarri kulturalak ditugu. Herri izateko, elementu oinarrizkoa da hizkuntza, bai, baina hizkuntza bere ekosistema kulturalaren barruan kokatuz gero; eta ulertuz gero Euskal Curriculum a norberaren eta unibertsalaren arteko uztarduraren emaitza izan behar dela”.

“Azken ideia horri garrantzia izugarria eman genion” dio arduradunak, “Euskal Curriculum a ez zedin ulertu abarkekin eta euskal txapelarekin apainduriko zer bait, baizik eta etorkizuneko gizartean kokaturiko euskal curriculum bat, bertakoa eta unibertsala ondo uztartuz”.

Euskal Curriculumaren aldeko lana, beraz, sakontasun handiko apustua zen, eta prozesuak hainbat etapa izan zituen. Proiektua bera idaztea izan zen lehen urratsa, diagnostikoa egin eta proiektuaren oinarri teoriko-pedagogikoak zerrendatzea. 1998an egin zen lan hori, eta ikastoletan eztabaida proposatu zen, ekarpenak jasotzeko helburuarekin.

Hezkuntza sistemak: oinarrizko curriculum diseinuak ikerketa egitea izan zen ondorengo urratsa, curriculum ezberdinak aztertuz eta ikertuz. Eta 2000. urtean egindako ikerketa lan honen bitartez, ikastolen kolektiboko partaideak jabetu ziren ikastolen esparruan derrigorrezkoak ziren Espainiako eta Frantziako curriculum ofizialek, espero zitekeen bezala, ez zutela Euskal Curriculum berezkoa jasotzen, eta Espainiako curriculumaren garapena egiten zuten EAEko eta Nafarroako curriculum ofizialek ere hutsune nabarmenak zituztela. Eta, bestetik,



mami aldetik, nahiko antzekoak zirela curriculum ofizial horiek, portzentaje handi batean: %80, hain zuzen ere.

Ondorioz, Euskal Curriculumua egitea are beharrezkagoa zela ondorioztatu zuten. Falta zen %20 hori, berezko gaiak zirenak, bete beharra zegoelako; bestetik, falta zen %80 oso era ezberdinean ikusten zelako. Eta hori sakoneko gaia zen. Garagorrik azaldu du. “Europa ez da berdina Erromatik ikusita edo Donostiatik ikusita. Errealitate berdina da, baina ikusteko erak ezberdinak. Eta curriculumean, gakoa ez da hainbeste edukiak berdinak diren edo ez, baizik eta ardatza nork jartzen duen. *Pilotaren kixkia* deitzen diot nik. Hau da, pilotaren *kixkiak* ematen dio pilota horri ezaugarria. Pilota izango da eskuzkoa, palazkoa edo zesta puntakoa, *kixkiak* dituen ezaugarrien arabera. Baina nork jartzen dio *kixkia* pilotari? Eta nork jartzen dio ardatza curriculumari?”.

Euskal Curriculumua: kultur ibilbideko obra. Adituen ekarpena

Euskal Curriculumua unibertsalaren eta partikularren arteko uztarketaren emaitza izan behar zela ulertuta, beraz, ikastolek bizitza osorako curriculum bat egitea lehenetsi zuten aurrenik; eta, ondoren, derrigorrezko hezkuntzarako curriculumua osatzea erabaki zuten.

Alabaina, hori bezain zaila zen, edo zailagoa, nola eta norekin egin lan hura, kontuan hartuz gaia ikastolatik haratago zihoala. Euskal Herriaren arazo bat zelako, eta, beraz, borondateak elkartzen saiatu beharra zegoen.

Bide horretan, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak edo Ikastolen Elkarteak Eusko Ikaskuntzarengana jo zuen behin eta berriro, prozesuan parte har zezan. Izan ere, Konfederazioko arduradunen ustez, Eusko Ikaskuntzak

bazuelako ibilbide oparoa arlo honetan: ikastolak sortzearen alde 1918an harturiko erabakia, euskal irakaskuntzaren inguruan egindako lan handia, Eusko Ikaskuntzan bertan bildutako adituak, erakundeak nolabaiteko presentzia izatea Euskal Herri osoan... Haren lidergoan, prozesuak prestigio handia hartuko zuela iritzi zioten Ikastolen Konfederazioko buruek.

Baina, Eusko Ikaskuntzak ez zion Konfederazioari erantzun baikorrik eman. Ondorioz, Ikastolen Konfederazioak hilabete franko eman zituen Eusko Ikaskuntzaren zain, baina inoiz ez zen iritsi haren erantzun ofizialik.

Nola egin bide hartan, beraz, denbora asko galdu zen. Baina bidea urratzen segi eta, *Euskal Curriculum: kultur ibilbidea. Adituen ekarpena* lana emango zuen ikerketan murgilduta zeudenean, bidaide berriak aurkitu zituen Ikastolen Elkarte-ko partaideek. Batetik, EAEko Hezkuntza Sailaren babesa eta laguntza ekonomikoa jaso zuen proiektuak, Anjeles Iztueta (EA) Hezkuntza sailburua zela. Bestetik, Udalbiltza erakundearen partetik prozesuan parte hartzeko interesa eta eskaera jaso zuen Ikastolen Konfederazioak; eta bien arteko dinamikari Sortzen-Ikasbatuaz elkarte gehitu zitzaion. Horrela, 2003ko urtarrilean Euskal Curriculum eraikitzeko egitasmoa adostu zuten Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak, Udalbiltzak eta Sortzen-Ikasbatuazek.

Ikerketa gorpuztuz zihoan, eta 2004ko uztailean 2an *Euskal Curriculum: kultur ibilbidea. Adituen ekarpena* liburua aurkeztu zuen Ikastolen Elkarteak Donostiako Miramar Jauregian, lana finantzatu zuen EAEko Hezkuntza Saileko ordezkariak lagunduta. 700 orrialdeko liburuan, denera, 63 adituen iritziak jaso ziren, 10 gai multzotan antolatuta.

Lanaren zuzendaria izan zen Xabier Garagorriren hitzetan, “kultur ibilbideko obran, galdera honi erantzun genion lehen aldiz: “Zein da Euskal Herrian bizi den pertsona kultu batek Euskal Herriaz eta munduaz ezagutu eta bere egin behar dituen baloreak eta jarrerak?”.

Kultur ibilbideko obraren azalean, euskal lauburuan jasotzen den kiribil bikoitz modukoa ageri zen, eta hura bihurtu zen Euskal Curriculumaren logo edo irudia. “Kiribil horretan jasotzen da Euskal Curriculumaren ideia” dio Garagorrik. “Hau da, partikularraren eta unibertsalaren arteko zabaldu-bildu filosofia. Bizia bera hori omen da: zabaldu-bildu joan-etorriko mugimendua; unibertsoaren garapena, urtaroak, eguna eta gaua, bihotzaren taupadak eta arnasketa bera dira, adibidez, bi fenomeno horien adierazpena. Biziak bi mugimendu horien arteko oreka behar du osasuntsua izateko, eta euskal kultura ere osasuntsua izango da, bizia bezala, baldin eta bi mugimendu hauen arteko oreka badago: zabaldu euskal kultura, baina mundukoa jaso eta zureganatuz”. Hots, logoari itsatsita ageri den *Herriatik mundura, mundutik herrira* kontzeptua.

Horregatik, euskaraz ez ezik, ingelesez, frantsesez eta gaztelaniaz ere argitaratu zen kultur ibilbideko obra edo liburua.

Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumuma

Bizitza osoaren erreferentzia ematea helburu zuen *Euskal Curriculumuma: kultur ibilbidea. Adituen ekarpena* lana osatuta, *Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumuma* egitea zen hurrengo urratsa.

Eta zuzendaritza osatu batek hartu zuen fase berriaren ardura: Xabier Garagorrik (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren izenean), Pedro Mari Legarretak (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren izenean), Aitor Bilbaok (Kristau Eskolaren —EAEko Kristau Ikastetxeen Federazioaren— izenean) eta Lore Erriondok (Sortzen-Ikasbatuazzen izenean) osatu zuten taldea.

Oso martxa onean jarraitu zuen lanak, inoiz pentsatu gabeko arrakastarekin, hezkuntzarekin loturiko 22 eragilek prozesuan parte hartzea lortu baitzen. Baina eskola publikoko sektore batek —1988an ikastolekin bateratze prozesua garatzeari uko egin zion sektore berdinak— ez zuen parte hartu nahi izan prozesuan. Are gehiago, jarrera eszeptikoa zuen prozesuarekiko, egindakoa baliorik gabekoa izango zela irizita.

Egoera, ordea, erabat irauli zen 2005eko martxoaren 18an: *Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumumaren* dokumentu markoa Bilboko Euskalduna Jauregian aurkeztu zenean, Anjeles Iztueta Hezkuntza Sailburuak lan hura EAEko curriculum ofiziala bihurtuko zuela adierazi baitzuen. Iztuetak berak eta Abel Ariznabarreta sailburuordeak jakin bazekitelako EAEko Hezkuntza Sailak curriculum dekretu bat prestatu beharko zuela, PPK egindako *Ley Orgánica de Calidad de la Enseñanza* (LOCE) legearen eta PSOE sasoi hartan prestatzen ari zen *Ley Orgánica de Educación* (LOE) legearen ondorioz.

Iztuetak Euskalduna Jauregian egindako adierazpenek, beraz, alarma guztiak piztu zituzten. Gizarte eragileek borondatez eta gogoz ikastetxeetan lan hura garatzeko konpromisotik harago zegoen proiektua, administrazio publikoak derrigorrezko curriculum ofizialaren kategoria eman baitzion. Eta beraz, prozesu horretan parte hartu ez zuten eragileak konturatu ziren *tren* hura galdu egin zutela.

“Beste operazio bat hasi zen orduan”, gogoratu du J. Iñaki Etxezarretak. “Sare publikoko sektore hura Iztueta presionatzen hasi zen; PSOEk eta CCOOk, adibidez, salatu zuten nola izan zitekeen lan hura ofiziala haiek parte hartu ez zutenean; prozesuaren lidergoa Hezkuntza Sailak hartzea eskatzen hasi ziren...”.

“Dena den, eskolaldiko curriculumaren lana inoiz ez genuen agintzeko bezala pentsatu, gure helburua zen indarrean jarri borondatez eta atxikimenduren bidez”, azpimarratu du Xabier Garagorrik. “Gu ez garelako inor derrigorrezko ezer jartzeko; horretarako administrazioa dago”.

2005eko apirilean EAEko Legebiltzarrerako hauteskundeak egin ziren. Juan Jose Ibarretxek (EAJ) lehendakari gisa jarraitu zuen, eta Hezkuntza Sailak EAren eskuetan segitu zuen, baina Anjeles Iztueta partez Tontxu Campos



izendatu zuten Hezkuntza sailburu. Eta Camposek Euskal Curriculumaren ikerketa geldiarazi zuen, eskola publikoko sektorearen partaidetza lortze aldera. Baina sektore horrek ez zuen lan hura konpartitu nahi. Are gehiago, sektoreak berak curriculumaren ikerketa alternatibo bat lantzeari ekin zion, Hezkuntza Sailak finantzaturikoa.

Bitartean, ikastolen mugimenduak sustaturiko eta irakaskuntzako sektore gehingoaren proiektua bihurtutakoak bere bidea egiten jarraitu zuen: *Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumaren* proposamen teknikoa bukatu, eta 2006ko urtarriletik aurrera eztabaidagai jarri zen, hezkuntza erkidegoaren nahiz herri-tarren ekarpenekin aberasteko asmoz. Euskal Herriko 22 hezkuntza erakundek babestutako curriculum proposamena inkesten eta informeen bidez ebaluatua izan zen, proposamena nola baloratzen zen jakiteko, hobekuntza ekarpenak jasotzeko eta, bide batez, proposamena ezagutarazteko. Euskal Herri osoko eskoletako partaideek (titularrak, gurusoak, zuzendaritzak, irakasleak eta bigarren hezkuntzako ikasleak), eta eskolaz kanpoko hezkuntza erakunde, aditu eta gizarte eragileek parte hartu zuten. Guztira, 120.000 ikasle jasotzen zituzten 120 eskolek parte hartu zuten. Ebaluazioan jasotako datuen analisisia eta txostenaren ardura Euskal Herriko Unibertsitateko ikerlari talde batek hartu zuen.

Zehaztasunetan sartu gabe, *Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum*a-k jasotako balorazioa oso ona izan zen eskola guztietan (Kristau Eskolak eta Sortzen-Ikasbatuaz), eta bereziki ikastoletan. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak berariaz prestatu zuen Ikastolen V. Batzarra, 2006ko urtarrilaren 21ean, Donostian, egin zuena. Eta, urte bereko urtarriletik ekainera balorazio prozesu hura garatu ondoren, egindako ebaluazio eta hobekuntza proposamenak 2007ko otsailaren 12an Bilbon aurkeztu ziren, Hezkuntza Ordezkaritzan.

*Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum*a proposamenean, ikasleak bereganatu beharreko gaitasunak definitu ziren, zuzenean irakasgai bakoitzean zer irakatsi behar den zehaztu beharrean. Denera, landu beharreko bost hezkuntza gaitasun orokor zehaztu ziren: ikasten eta pentsatzen ikastea; komunikatzen ikastea; elkarrekin bizitzen ikastea; norbera izaten ikastea; eta egiten eta ekiten ikastea.

Era berean, 10 ikas arlo proposatu ziren *Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum* lanean, jakintza arlo bakoitzaren edukiak bost kompetentziatara bideratuz: Hizkuntzak eta Literatura; Matematikak; Teknologia; Musika eta Dantza; Plastikak eta Ikus adierazpena; Soin Heziketa; Gizarte Zientziak; Mundu ikuskerak eta Erljioak; Natur eta Osasun zientziak; eta Tutoretza eta Orientazioa.

Proposamena, azkenik, hezkuntza zerbitzu eta administrazioen eskura jarri zen.

HEZKUNTZA KONPETENTZIEN PLANTEAMENDUA

Konpetentziak hezkuntzaren ardatz bihurtzea izan da azken urteetan hezkuntzan emandako fenomenorik garrantzitsuenetakoa.

70eko hamarkadatik zetorren uhina izan arren, Europako Batasunak gaiari serio heldu eta Lisboako Itunaren markoaren baitan lan esparruetako bat bihurtu zen. Izan ere, Europako agintarien kezka baitzen bizitzarako prestakuntzan badirela oinarriko konpetentzia edo gaitasun batzuk, mugikortasun handiko gizarte eta mundu globalizatuan giltzarriak eta ezinbestekoak.

2006an, adibidez, Europako Legebiltzarrak eta Kontseiluak zortzi oinarriko konpetentzia proposatu zituzten bizitza osorako hezkuntza iraunkorra bultzatzeko asmoz: ama hizkuntzan komunikatzea; hizkuntza arrotzetan komunikatzea; matematika-konpetentzia eta Zientzia eta Teknologia arloko oinarriko konpetentziak; konpetentzia digitala; ikasten ikastea; gizarte-konpetentziak eta gizabide-konpetentziak; ekimen-zentzua eta enpresa-espirtua; eta kultura-kontzientzia eta kultura-adierazpena.

Hezkuntzaren bitartez, oinarrizko kompetentzia horiek transmititzea zen —eta da— helburua. Eta Frantziako nahiz Espainiako estatuetan Loi d'Orientation (LO) eta Ley Orgánica de Educación (LOE) legeek ezarritako araudiak (2005ean eta 2006an, hurrenez hurren), oinarrian bat datoz nagusiki Europako Batasunaren gomendioarekin.

Baina ikastolen mugimendua, beste behin, aitzindaria izan da, ikastolak kompetentzien eskema hori lantzen hasiak zirelako Euskal Curriculumaren inguruan, Europak bere aholkuak eman aurretik eta Frantziako LO eta Espainiako LOE legeak onartu aurretik.

Hala, Europako Batasunak iradokitako zortzi gaitasunetan identifika daitezke Euskal Curriculumean zehaztutako bost kompetentzietatik lau: ikasten eta pentsatzen ikastea; komunikatzen ikastea; elkarrekin bizitzen ikastea; eta egiten eta ekiten ikastea. Norbera izaten ikastea izan zen Euskal Curriculumean txertaturiko bosgarren kompetentzia.

Xabier Garagorriren esanetan, “bizitzarako oinarrizkoak diren kompetentzien barruan, badira arlo guztiekin eta bizitzaren egoera guztiekin uztartzen direnak. Eta Euskal Curriculumean jasotako bost kompetentziak dira, hain zuzen, oinarrizko kompetentzia orokorrak, ezin direlako identifikatu arlo batekin, arlo guztiekin uztartu beharrekoak baitira”.

Kompetentzien planteamenduak orain arteko ikuspegi akademikoa osatu du, planteamendu horrek eragin handia duelako ikasleengan, irakasleengan, gurasoengan, ikastetxearen antolaketan... Ikastolen kolektiboa bera prozesu horretan murgilduta dago buru-belarri. “Baina ez gara hutsetik abiatzen”, azpimarratu du Xabier Garagorrik. “Praktikan, egin ditugu gauzak dagoeneko. Batetik, Euskal Curriculumaren prozesu guztia hor dago. Proposamen horretan kompetentzien planteamendua dago, eta planteamendu horri egindako balorazioak oso onak izan dira. Bestetik, zuzendariari eta irakasleei eta irakasleei begirako prestakuntza saioak egin ditugu. Eta ikastoletako irakasle asko kontziente dira beren eguneroko jardunaren bidez pentsatzen eta ikasten irakatsi behar dutela, elkarrekin bizitzen irakatsi... Oinarrizko kompetentzia orokorrak gaur egungo ikasmaterialgintzan ere sartuta daude. Beraz, eskema hau guztia martxan dago ikastoletan”.

2007an hain zuzen ere, 2006an LOE legea (*Ley Orgánica de Educación*; euskaraz, Hezkuntza Lege Organikoa) Espainiako Estatuan onartu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoan curriculum ofiziala osatzeko eta indarrean jartzeko unea iritsi zen.

Tontxu Campos Hezkuntza sailburuak bi proiektu zituen aurrez aurre, biak ala biak Hezkuntza Sailak finantzaturikoak: Hezkuntza Sailak, Ikastolen Konfederazioak, Kristau Eskolak eta Sortzen-Ikasbatuazek zuzendurikoa, eta eskola publikoko beste sektoreak egindakoa. Bata edo bestea aukeratu beharra zuen Hezkuntza sailburuak, baina erabakia ez zen erraza: CamPOSEK ezin zuen desbideratu hainbat urtez aurrera eramandako lana, eta ezin zuen, era berean, eskola publikoko sektorearen aurrean beste taldeak egindako lanari ofizialtasuna eman.

Horiek horrela, bien arteko batura modukoa egitea izan zen Tontxu Camposen erabakia.

Eusko Jaurlaritzak 2007ko urriaren 16an onarturiko curriculum berriak hartu zituen eskola publikoko sektoreak landutako curriculum proiektuaren zati bat, *Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumaren* beste zati bat, eta LOEren zati ugari (azken honi dagokionez, legalki horrela izan behar delako).

Xabier Garagorrik berak EAEko curriculumaren dekretu hartan parte hartu zuen, egile eta aholkulari gisa. Eta EAEko 2007ko curriculumaren “bihotza” Euskal Curriculumama izan zela azpimarratu du Garagorrik: “Euskal Curriculumaren hezkuntzaren xedeak eta bost oinarrizko konpetentziak bere hartan hartu zituen EAEko curriculum ofizialak. Hori sekulakoa da! Eta jakintza arloei dagokienez, hizkuntza, matematika, teknologia eta natur zientziak arloei buruzkoak txertatu ziren, hainbat aldaketarekin”.

“Haatik, Jaurlaritzaren curriculum dekretua norabide onean egindako urratsa eta ekarpena izan zen arren, garbi dugu hori ez dela Euskal Curriculumama, Euskal Herriak behar duena, hori Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumama delako”, nabarmendu du Garagorrik.

Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum Espezifikoa: oinarrizkoa eta komuna

1996an hasitako Euskal Curriculumaren fase programatikokoaren hurrengo urratsa zen, beraz, Euskal Curriculum osoaren zati bat definitzea: alegia, Euskal Curriculum espezifikoa edo berariazkoa. Hau da, beste kulturengandik bereizten gaituena.

2008ko maiatzean, *Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum Espezifikoa: oinarrizkoa eta komuna* proposamena onetsi zuten Ikastolen Konfederazioak, Kristau Eskolak eta Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak. Hots, Euskal Herrikoak, propioak edo bereganatutako edukien artean, bizitzeko garrantzi handikoak irizten diren

eduki eta konpetentziei buruzko proposamena, Euskal Herriko gazte guztiek partekatzeo hautaturako edukiak alegia.

Zazpi dira *Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum Espezifikoa*: oinarrizko eta komuna lanean hautaturiko ikas arloak; Euskal Curriculum osorako hautaturiko berdinak ziren, baina hainbat aldetarekin, ikas arlo horien artean badirelako berariazko euskal kulturarekin harreman gehiago edo gutxiago dutenak: Euskara eta Literatura; Teknologia; Musika eta Dantza; Plastika eta Ikus adierazpena; Gorputz Hezkuntza; Gizarte Zientziak; eta Natur eta Osasun Zientziak.

Beraz, *Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum Espezifikoa*: oinarrizkoa eta komuna da Euskal Herriko ikastetxe guztiek elkarrekin partekatu duten curriculuma. Eta proposamen hori onetsiz gero beraz indarrean jarri eta ebaluatzeo konpromisoa hartzen zen.

Derrigorrezko Eskolaldirako Ikastolen Oinarrizko Curriculum Komuna

Baina, beste ikastetxeekin partekaturiko elementu horiez gain, ikastolen kolektiboak baditu bere ezaugarri komunak, bere izaera propioa, besteekiko bereizgarri.

Horregatik, 2008ko maiatzean *Derrigorrezko Eskolaldirako Ikastolen Oinarrizko Curriculum Komuna* izenekoaren oinarrizko lana aurkeztu zuen ikastolen kolektiboak. *Euskal Curriculum Espezifikoa* nahiz *Ikastolen Oinarrizko Curriculum Komuna* lanean ageri diren ikas arloak, beraz, berdinak dira (zazpi). Baina, adibidez, ikastolen oinarrizko curriculumeko lehen ikas arloa ez da Euskara eta Literatura (*Euskal Curriculum Espezifikoa* ageri dena), baizik eta Hizkuntzak eta Literatura. Zergatik? Euskal Herriko beste eskolekin alderatuta, ikastolek nortasun propioa dutelako hizkuntzen inguruan; eleaniztasunean ardaturiko nortasuna, hain zuzen.

Hala, 2008ko maiatzetik urrira, *Derrigorrezko Eskolaldirako Ikastolen Oinarrizko Curriculum Komuna* proposamenari buruzko balorazio prozesua burutu zuten ikastolek. Eta urte bereko abenduan proposamenari zegokion hobekuntza txostena aurkeztu ondoren, ikastolen kolektiboaren oinarrizko curriculum komunen printzipioak onartu ziren 2009ko urtarrilaren 24an, ikastolen VI. Batzarren bigarren saioan.

Egun hartan, beraz, 1996an ikastolen III. Batzarrean harturiko konpromisoa bete zuten ikastolek, kolektibo gisa onartuz eta erabakiz *Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum Espezifikoa* praktikan jartzea eta ebaluatzea.

Ezbairik gabe, erabaki kualitatiboa bezain garrantzitsua hartu zuten orduan ikastolek, 1996an hasitako prozesu programatikoa bukatuz eta Euskal Curriculumaren garapenaren prozesuari hasiera emanez. Ikastolen Elkarteak berak orduan azpimarratu zenez, “euskara irakaskuntzan sartzea izan zen ikastolek XX. mendean egindako ekarpen nagusia, eta Euskal Curriculum da etorkizuneko emaria”.


7.2. IKASTOLEN HIZKUNTZ PROIEKTUA

1999 In, curriculumean eleaniztasuna lantzeko egitasmoari ekin zioten ikastolek: euskara ardatz zuen eleaniztasuna. *Euskaraz Bizi* egitasmoaren bidez, bestalde, euskarari begira jarraitu zuten lanean.

Ikastolak, horrela, aitzindariak izan ziren hizkuntzak osoki lantzeko bideak jorratzen. Baina bidean zailtasunak sortu ziren. 90eko hamarkadaren bukaeran, bi egitasmoak —*Eleanitz* eta *Euskaraz Bizi*— biak batera lantzen ziren ikastoletan, eta mezu kontrajarriak ematen zituzten. *Eleanitzen* bidez hizkuntzen irakaskuntza ikuspegi komunikatibo batetik lantzen zen (hizkuntzak erabiliz ikasten direla dioen printzipioari jarraiki eta, beraz, ezagutza-erabilera dikotomia hautsiz), baina *Euskaraz Bizi* egitasmoak ezagutza-erabilera eskemaren baitan jarraitzen zuen lanean.

Disfuntzio horri aurre egitea, eta ikastolen kolektiboan hizkuntzen inguruko ikuspegi bateratua ematea beharrezkoa zenez, *Ikastolen Hizkuntz Proiektua definitzen* izeneko lehen zirriborroa edo oinarritzko markoa aurkeztu zen 2002an, urte bereko ikastolen Jardunaldi Pedagogikoetan. Dokumentu hura bi urteko hausnarketaren emaitza izan zen, eta ideia nagusi zen hizkuntz proiektua ez dela dokumentu teoriko bat, baizik eta lan tresna bat ikastola bakoitzak bere hizkuntz egoeraren hobekuntza eta berrikuntza prozesua martxan jar dezan.

Oinarritzko marko horretatik abiatuz, eta hizkuntzen irakaskuntza eta erabilera esparruak uztartzeko proiektua landu asmoz, ikastola pilotuen lehen taldea 2003an jarri zen martxan, tartean 13 ikastola zeudela. Dokumentu hartan finkaturiko ildoak praktikara eramatea zen helburua, eta horretarako Hizpro mintegia sortu zen. Hilean behin, bertan elkartzen ziren ikastola pilotuetan



gaiaren ardura zutenak eta Ikastola Elkarteko teknikariak, eta mintegiaren bitartez lan praktikoa guztia bideratzen zituzten: kezkak eta oztopoak azaldu, bidea finkatu, tresnak sortu eta ikastoletan indarrean jarri. Finean, ikastola bakoitzak bere bidea egin behar baitzuen, bere behar eta errealitatearen arabera.

Aurrera egin ahala, ikastola pilotuen kopurua ere handitzen hasi zen, eta, denera, 36 ikastola pilotuk parte hartu zuten Hizkuntz Proiektuan.

Helburuak

2009ko otsailean *Ikastolen Hizkuntz Proiektua* liburua aurkeztu zen Donostia-ko Miramar Jauregian. Argitalpenean bederatzi urteko esperientzia bildu zuten.

Itziar Elorza *Eleanitz* proiektuaren zuzendaria da 2003tik, GIEko Hizkuntz Egitasmoen arduraduna 2005-2006 ikasturteak, eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko Hizkuntz Proiektuaren arduraduna 2007az geroztik. Haren esanetan, “ikastola giroko jardura guztietan hizkuntzak lantzeko eta erabiltzeko modua kudeatzen duen marko integrala da ikastolen Hizkuntz Proiektua”.

Marko integral horrek, batetik, hizkuntzen irakaskuntzari eta hizkuntzen erabilerari dagozkien alderdi guztiak koherentziaz uztartzeko bideak ematen ditu. “Azken finean, bide praktikoa ematen du”, Elorzaren hitzetan. “Ikastolaren diagnostika egiteko tresnak eskaintzen dira, eta ondoren, ondorioak atera eta lehentasunak finka daitezke. Lehentasun horien arabera, lau urteko plan estrategikoa egitea proposatzen zaio ikastolari, eta behin plan horren ildo nagusiak finkatuta eta horiek sozializatuta daudela, urtez urteroko planei ekiten diegu. Horretarako, gida moduko bat egin da, ikastoletan zer nolako ekintzak egin daitezkeen proposatuz”. Gida hori, noski, *Ikastolen Hizkuntz Proiektua* liburuan dago jasota.

Baina, marko integrala izateaz gain, Hizkuntz Proiektua proiektu estrategikoa da: ikastolako eremu guztietan eragiten du eta komunitate osoaren ardura eta parte-hartzea eskatzen du. “Eta proiektu estrategikoa da, batik bat, ikastolaren muin-muina ukitzen duelako. Ikastolaren zereginen eta baloreen erdi-erdian baitago hizkuntza”.

Ez da harritzekoa, beraz, Hizkuntz Proiektua ikastola ereduaren muinetako bat izatea. “Hizkuntz Proiektuaren helburua da, batetik, euskara ardatz duen eleaniztasuna ikasleengan garatzea. Ikasleak, ikastolatik irtetean, izan daitezkeen hizkuntzetan iaioak. Hau da, bizitzako egoera ezberdinetan, topatuko dituzten egoera ezberdin horietan, bakoitzari dagokion hizkuntza eraginkorki erabiltzeko gai izan daitezela”, azpimarratu du Itziar Elorzak.

Baina Hizkuntz Proiektua haratago doa, eta euskararen biziberritzeari begira beste bi helburu ditu, biak ala biak ikastola erakundeari begira. Batetik, ikastolako bizitza euskaraz garatzeko helburua. Bestetik, gizartea euskalduntzeko ikastolek duten konpromisoa. Eta horrek eskatzen du komunitatean beste par-

taidetza bat edukitzea, inguruan euskararekin ari diren beste eragileekin harremanak sortzea eta elkarlana garatzea... Hizkuntz Proiektuarenak ez ezik, bi helburu horiek *Euskaraz Bizi* egitasmoarenak ere badira.

Bi proiektuak edo esparruak, beraz, uztartuta daude Hizkuntz Proiektuan: *Eleanitz* eta *Euskaraz Bizi*. *Eleanitz*, hasieratik, hizkuntz guztien marko gisa planteatu zen. “Esan dezagun *Eleanitz* dela hizkuntzen trataera bateratu hori, hizkuntzen irakaskuntza prozesua bideratzen duen markoa”. *Euskaraz Bizi*, ordea, ikastolen kanpoko esparrua eta esparru instituzionala hizkuntz politikaren esparrura bideratzen duen egitasmoa litzateke.

Halaber, Elorzak azpimarratu du Hizpro dela hori guztia ikastoletan bideratzen laguntzeko tresna. “Prestakuntza eta garapen mintegi bat, finean, baina aurrerantzean beste era batera funtzionatuko dugu. *Euskaraz Bizi* eta Hizpro mintegiak desagertuko dira, eta mintegi bakarra egongo da: Hizkuntz Proiektuaren mintegia. Eta hor saiatuko gara ikuspegi osoari heltzen”.

Aurrera begira, hain zuzen, Hegoaldeko ikastola guztiak Hizkuntz Proiektuan integratzea da helburua. Iparraldeko ikastoletan, ordea, ez dago indarrean egitasmo hau, Seaskan elebitasunetik jarraitzen baitute lan egiten.

7.3. IKASTOLEN IKT PROIEKTUA


Informazio eta Komunikazio Teknologiek (IKT) gero eta indar handiagoa dute gaur egungo gizartean. Indarra baino, gure eguneroko bizitzaren ardatz bihurtu direla esan daiteke.

Ikastoletan gauza bera gertatu da. Baina ikastolak aitzindariak izan dira baita IKTen erabilpenean ere, 80ko hamarkadaren amaieran jarri zirelako mar txan IKTak, ikasmaterialgintzarako lagungarri izan zitezkeen materialak eta aplikazioak garatuz.

“Geroago jabetu ginen Informazio eta Komunikazio Teknologien garapena ikastoletan hori baino gehiago zela”, adierazi du Josune Gerekak. 1988an ikastolen mugimenduan informatika arloan lanean hasi eta, gaur egun, Ikastolen Konfederazioko IKT taldeko zuzendaria da bera. “Garapen horretan, ikastola batean bi esparru nagusi daude. Batetik, gestio, antolaketa eta kudeaketari dago-kiona. Bestetik, esparru edo eremu curricularra”.

Bi esparru horiek aintzat hartuta, eta IKTak ikastola guztietan ondo txertatu eta garatzeko, 2002tik aurrera IKT Plana garatu izan da ikastoletan. Planaren garapena IO ikastola piloturekin hasi zen, baina gaur egun ia ikastola guztietan garatzen da.

Bi dira ikastolen IKT Planaren helburu orokorrak. Alde batetik, ikasleek derrigorrezko irakaskuntza bukatzen dutenean, garatu beharreko gaitasunen



artean oinarrizko IKT konpetentziak barneratuak izatea, eta IKTen erabilpenaren bitartez beste ikasgaien ikaskuntza hobetzea. Bestetik, IKTak txertatuz ikastolen antolaketa eta kudeaketarako eredu egokiak proposatzea. Ondorioz, bost dira IKT Planaren aplikazio ardatzak: azpiegitura, prestakuntza, giza baliabideak, baliabideak eta dinamizazioa.

Planari jarraiki, ikastolak beharrezko tresnez eta euskarriez hornitu dira. Garai batean informatika lantzeko gela bereziak zeuden ikastetxeetan, eta ikasleak gela berezi haietara eramaten zituzten; gaur egun ikasleek gelan ordenagailu bana edukitzen dute.

Ildo beretik, bi figura berri sortu dira ikastoletan: IKT

Dinamizatzailea eta IKT Mantenerako Teknikaria. IKT ardua-taldeak ere eratzen ari dira ikastoletan, eta ziklo bakoitzeko arduradunek osatzen dituzte. Baina IKT Planaren bitartez ikastoletako profesional ororen prestakuntza iraunkorra eta eraginkorra ere lantzen da. Tresnak edukitzea ezinbestekoa delako, bai; baina soilik tresnekin ezin delako ezer egin.

Dena den, softwaregintza da IKT proiektuaren zereginik behinena, eta Ikastolen Elkartea Euskal Herriko softwaregintzako sortzailerik garrantzitsua bihurtu da. Makina bat dira sorturiko produktuak eta euskarriak, eta jasotako sariak ere, Euskal Herrian nahiz nazioartean, makina bat izan dira.

Softwaregintza kurrikularrari dagokionez, denetarik ekoiztu du Ikastolen Elkartea, IKTen eta ikasmaterialgintzaren arteko elkarlan iraunkorrean. “Elkarlanean aritzen gara, baina elkarlanean aritu behar dugu gehiago”, esan du Josune Gerekak. “Une honetan, lehendik egina dagoen materialean oinarritzen gara, eta material horren aplikazio ezberdinak garatzen ditugu. Baina, halaber, hezkuntza gaitasunean oinarrituriko eta Euskal Curriculumean oinarrituriko ikasmaterial berria prestatzen eta diseinatzen ari gara, IKTak horretan txertatuta egon daitezen hasieratik”.

Ikastolen gestio akademiko eta administratiborako softwareari dagokionez, bi aplikazio nagusi garatu ditu Ikastolen Elkartek. Batetik, Ikasdat aplikazioa, ikastoletan egiten diren ikasleen datu baseak, ikasleen notak, erreziboak eta kobrantzak egiteko. Bestetik, Ikasweb, ikastola bakoitzaren webgunea eta intraneta garatzeko tresna. Gerekak nabarmendu duenez, biak lotuta daude, ikastolaren kudeaketarako hainbat atal webgunearen bitartez egin daitezkeelako. “Adibidez, jangelako zerbitzua eta kudeaketa Internet bidez egiten da jada hainbat ikastolatan: menua kontsultatu, jangelan izena eman...”.

Baina, ezbairik gabe, IKASYS bihurtu da ikastola kolektiboaren proiektu izarra IKT eta ikasmaterialgintzaren alorrean. Norberak ordenagailu bidez ikas-teko sistema hau 2007-2008 ikasturtean jarri zen martxan, hiru ikastola pilotutan: Oiartzungo Hautzaro ikastolan, Donostiako Santo Tomas Lizeoa ikastolan eta Orioko herri ikastolan. Haren bidez, ikasleek Lehen Mailako Hezkuntzako (LMH) ariketa sistematikoak egiten ditu gelan, ordenagailu banarekin, autonomoki eta indibidualki hainbat prozeduratan trebatuz eta hainbat eduki memorizatuz.

Euskal Herriko Unibertsitateak LMHn 2008-2009 ikasturtean buruturiko azterketa baten arabera, IKASYS proiektuarekin lan egindako ikasleen artean ikasketaren emaitzak hobekiak dira proiektua erabili gabe lan egin dutenen artean baino. Zehazki, proiektua erabili gabekoekin alderatuta, IKASYSekin lan egin duten ikasleen emaitzak gora egiten du maila eta ikasgai guztietan.

Aurrera begira, ikastola gehienetan jarriko da martxan IKASYS, eta hainbat kasutan Lehen Mailako Hezkuntza guztia hartuko du bere baitan. Halaber, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara (DBH) zabalduko da.

Proiektuak, halaber, beste hezkuntza sareetan nahiz Euskal Herritik kanpo jakin-mina piztu du.

7.4. IKASTOLEN PRESTAKUNTZA PROIEKTUA

Prestakuntza iraunkorra ikastolen mugimenduaren ikurretako bat izan da, hastapenetik. Era askotara ulertu eta landuriko prestakuntza da gainera: kanpoko esperientziak ezagutu, materialen inguruko prestakuntza burutu... Ikastola proiektuaren arrakastaren faktoreetako bat prestakuntza izan dela esan daiteke, argi eta garbi.

Noski, prestakuntza aldatzen joan da ikastoletan. Eta gaur egun, egitura argia du: gurasoei begirako prestakuntza; zuzendarien inguruko eskaintza; curriculumaren inguruko eskaintza; ikasmaterialen inguruko prestakuntza; hizkuntzen ingurukoa; IKTen ingurukoa; orientazioari buruzkoa; Xiba eta herri kirolen ingurukoa; prestakuntza solteak; eta ikasleen prestakuntza (batik



Ikastola mugimendua. Dabilen herria

296



bat, begirale izateari begirakoa). Guztira, prestakuntzari loturiko 60 ekimen baino gehiago urtero.

Metodologia eta garapena, ordea, ezberdina da. Adibidez, proiektu bati loturiko prestakuntza izatekotan, *Eleanitz-English* esaterako, proiektu horretan ari diren ikastola guztiek jasotzen dute prestakuntza, proiektua eta prestakuntza elkar lotuta doazelako.

Aldiz, beste prestakuntza eredu bat izan daiteke ikastolan bertan egiten direnak: elkarbizitzaren inguruko gatazkak konpontzeko, etorkinen gaiari buruzkoak...

Dena den, prestakuntza saio gehienek mintegi sistemaren bidez funtzionatzen dute. Hau da, saioak maiztasun batez egiten dira, interesadunek izena eman ondoren.

1995ean, prestakuntzari buruzko plan egituratua antolatzeko eta kudeatzeko ardura eman zitzaion Jose Luis Marañoni. Ondoren, Meltxor Artetxek hartu zuen horren jarraipena. Eta 2002-2003az geroztik prestakuntza Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren esku egon da, aurretik GIEren esku baitzegoen. 2006-2007an hain zuzen ere Manu Aurrekoetxeak hartu zuen prestakuntzaren ardura Konfederazioan. Aurrekoetxearen arabera, eta erabiltzen dituzten datuetan oinarrituta, bide onetik doaz. "Baina salto bat eman behar dugu: Prestakuntza



Planen inguruko hausnarketa egin behar dugu ikastoletan. Prestakuntza planteamendua ez delako ‘ni hemen eta hemen apuntatuko naiz’. Hori egin behar da, noski. Baina, aurretik, ikastola gisa, eta etapa bakoitzean, prestakuntzan dauden beharrei buruz hausnartu behar da: ‘Nolako irakasle mota dut, nolako irakasle mota behar dut, zein prestakuntza behar dut, eta zein soslaiarekin’”.

Era berean, prestakuntzak duen eragina neurtzea da erronka, Aurrekoetxearen esanetan. “Hau da, zeintzuk dira prestatzen ari den irakaslearen konpromisoak ikastolaren barruan? IKTen adibidea oso argigarria da alde horretatik. Orain 10 urte, denok genekien analfabetoak ginela eremu digitalean. Eta horri buruzko prestakuntza masiboa izan da. Beraz, hori aitortzeko erreparorik edo lotsarik ez genuen bezala, gauza berdina egin behar dugu beste alorretan ere bai. Ezagutzak konpartitu behar dira, eta ezagutzen ez dena ere bai. Beraz, talde gisa lan egin, eta ez indibidualki, beharrak identifikatu eta ardurak banatzeko”.

Edonola ere, azpimarratu beharra dago curriculumaren gaiak leku garrantzitsua hartu duela ikastolen kolektiboaren prestakuntza egitasmoetan. “Talde gisa, erronka nagusiena hori da. Buru-belarri sartuta gaude horretan, eta planteamendua fase ezberdinetan ari gara lantzen”, Manu Aurrekoetxearen arabera.

Azken urteetan, hain justu, hezkuntza konpetentziei eta curriculumari garrantzia berezia eman diete ikastolen Jardunaldi Pedagogikoetan. Prestakuntzaren baitan kokatu beharreko jardunaldi hauek 17. aldia bete zuten 2009an. Martxoko lehen hamabostaldian izan ohi dira, hiru egunez, kanpoko adituen parte-hartzearekin eta hausnarketa sustatzeko helburuarekin.

7.5. IKASTOLEN IKAS MATERIALGINTZAN, JOKOGINTZA PROIEKTUA

Liburuan zehar ondoriozta daitekeen moduan, ikasmaterialgintza da Ikastola Hezkuntza Proiektuaren zutabe edo zutoin nagusienetakoa. Eta ikasmaterialgintzaren barnean, ezbaierik gabe, *Jokogintza* azpimarratu behar da.

Jokogintza egitasmoa 1991-1992an jarri zen martxan ikastolen mugimenduan, BIEren eskutik, euskarazko jokoaren eskaintza urriari erantzuteko asmoz. Hastapenetan, euskal usadioekin eta pertsonaiekin loturiko edukiak landu ziren; baina gero, 1998tik aurrera, hezkuntzako hainbat arlo eta adini begirako jokoak ekoizteari ekin zioten.

Izan ere, baliabide pedagogiko garrantzitsua baita jokoak, hezkuntzaren eremu formalerako nahiz eremu ez formalerako. Esparru ez formalean, esaterako, euskaraz jolasteko eta euskaraz bizitzeko aukera ematen dute euskarazko jokoek, eta euskararen normalkuntzarako tresna baliagarriak dira.



Eremu formalean, berriz, jokoa oso tresna garrantzitsua da Euskal Curriculumean finkaturiko oinarriko gaitasun orokorrak landu ahal izateko.

Proiektua, hasieratik, Nerea Arregiren ardurapean egon da, eta jokoan diseinua eta merkaturatzea uztartu eta bide berriak zabaldu ditu etengabe. Adibidez, Ikastolen Elkarteak ekoizturiko jokoak dendetan eros daitezke gaur egun, eta Euskal Herri osoko ikastoletako gurasoek zein profesionalek etxean jasotzeko aukera daukate.

Urte hauetan guztietan 60 joko eta jolas baino gehiago diseinatu ditu Ikastolen Elkarteak, eta 170tik gora produktu argitaratu. Jokogintzan Euskal Herriko ekoizlerik handiena eta garrantzitsuena da.

7.6. IKASTOLEN BERTSOLARITZA IRAKASKUNTZAN PROIEKTUA

1980. hamarkadaren hasieran abiatutako Bertsolaritza Irakaskuntzan proiektuak izan zuen garapen biziaren ostean (liburu honen 4.4.4. atalean deskribaturik dagoena), 1990. hamarkadaren erdialdetik aurrera aberaste didaktikoa izan zuen, gaia lantzeko euskarri berriak zirela medio, *Bertsoz* proiektuarekin. “Beste formato bat erabili genuen orduan: bertso saio bat grabatu eta gelan

ikusteko aukera ematea zen helburua, lehen hezkuntzako 3. mailatik hasi eta I4 urtera arteko zikloraino iristeko”. Horrela sortu ziren, beti ere *Bertsoz* egitasmoren baitan, *Bertsoz play* (3-4 mailetarako), *Bertsoz blai* (5-6 mailetarako) eta *Bertsoz bai* (DBHko I-2 mailetarako). “Grabaketa bat prestatu genuen maila bakoitzeko. 30 bertsolari hautatu eta 15 saio grabatu genituen, binakako saio gisa, ofizioarena eginez. Saio haiek ikastoletako aretoetan grabatu genituen, eta gero banatu: aurrena bideoan, gero DVDn. Saioan landuriko gaiak maila bakoitzari egokitutakoak ziren, eta euskarri bakoitzarekin liburuxka bat ere banatzen genuen, saio bakoitzari lotutako ariketekin”.

Saio haietako batzuk ere *Txanela* proiektuari gehitu zizkieten hasieran; lehen hezkuntzako I-6 mailetako ikasmaterialgintzari, alegia. Eta horrela, bertsolaritza gelan egunero landutako gaiarekin natural txertatu zen. “Adibidez, gaia herriko parkea ezagutzera bada, horrekin lotura duten bertso sorta bat eta ariketa batzuk ekartzen ditu ikasmaterialak”, dio Mendizabalek.

Bertsozale Elkarteko kideak, halaber, bertsolaritza lantzen hasi ziren gelaz gela, tokian tokiko udalek diruz lagundutako proiektuari jarraiki.

Gaur egun, beraz, oso ohikoa da bertsolaritza lantzea ikastoletan, baina aniztasun handia dago. Ikastoletako bertsolaritza koordinatzaileek, adibidez, ezberdin lan egiten dute. Bizkaian, Araban eta Iparraldean, hurrenez hurren Juanjo Respaldiza, Julen Zulaika eta Arantxa Oxandabaratz ibiltzen dira gelaz gela astero zirkuitu bat osatuz. Mikel Mendizabal gipuzkoarrak, berriz, ikasmaterialgintzaren koordinazioa du.

Aipatzekoak dira, halaber, Gipuzkoa ez beste herrialdeetan garatzen diren jarduerak: bertso eskolako barnetegiak antolatzen dituzte, BBK sariketak Bizkaian... Bereziki garrantzitsua da azken urteetan bertsolaritzak Ipar Euskal Herriko ikastoletan lorturiko indarra eta zabalpena. Izan ere, 2005az geroztik, bertsolaritza proiektua Iparraldeko lehen mailako ikastola guztietan lantzen baita, haurrei bertsozale izateko kodeak eskainiz.

“Azken hamarkadan, bertsolaritzako ardurarik nagusienak Bertsozale Elkartearen eskutara igorri dira, eta hainbat arlo eta ekimen, Eskolarteko Txapelketak batez ere, Ikastolen Elkartearekin lankidetzan garatu dira”, nabarmendu du Mikel Mendizabalek.

Logikoa zen bertsolaritzak ikastoletan tokia izatea eta bertan lantzea, euskal kultura eta nortasuna sustatzea izan delako, euskararekin batera, ikastola proiektuaren betiko helburua. Eta, 25 urte baino gehiagoko ibilbidea eginda, bertsolaritza hezkuntza proiektuan txertatzeko helburua ondo bete dela azpimarratu du Mikel Mendizabalek. “Helburu nagusia zen bertsolaritzak dituen baliabideak irakaskuntzan txertatzea eta baliatzea. Eta hori lortu da, nabarmen. Gaur egun, 5. eta 6. mailako ia ikasle guztiek badute gutxieneko ezagutza bat bertsolaritzari buruz eta bertsolaritzaren teknikei buruz, bertsolarien biografiak



ezagutzen dituzte... Guk planteatu dugun moduan, gutxienez lehen hezkuntzako 3. mailatik hasten dira, DBHko 1-2 mailetaraino. 8-9 urtetik 14 urtera bitarteko zikloa da, beraz. Bidea aurkitu da, eta jendea jabetu da bertsolaritza oso inportantea dela ikasleentzat”.

Bertsolaritzak, hain zuzen, gauza askotan lagundu die gazteei, Mendizabalen hitzetan. “Eta hori frogatuta dago. Hasteko, hitz egiteko, ahozkotasunerako trebezia ematen du. Gaur egun hain modan dagoen komunikatzeko gaitasuna lantzeko oso tresna polita eta eraginkorra da, beraz”.

Baina, horrez gain, ikasle bakoitzaren baliabide pertsonalak lantzeko ere baliagarria omen da bertsolaritza. “Memoria, irudimena, elkarrizketarako gaitasuna, gai bati *zukua* ateratzeko ahalmena, inprobisatzeko gaitasuna... Bizitzan, ia egunero inprobisatzeko uneak ditugulako. Ikaslearen autoestimua indartzeko ere balio du, autokonfiantzarako... Eta jakina, baita hiztegia erabiltzeko eta aberasteko ere”.

Bertsolaritzaren eta ikastolaren arteko harremana, era berean, “joan-etorriko ekarpenentzat” definitu du Mendizabalek: “Hasieran, bertsolaritzak gizarte osoari eta ikastolen mugimenduari ekarpen garrantzitsua egin zion, bertsoen bidez ezagutarazi baitzuen gizartearen aldi bakoitza: orain 50 urte jendeak ongi pasatzeko zituen ohiturak, duela 100 urteko grebak eta kezak...”.

“Era berean, irakaskuntza ekarpen handia egiten ari zaio bertsolaritzari. Bertsolaritzaren transmisioa irakaskuntzan dagoela esan daiteke, inolako konplexurik gabe, azken 20 urteetan, bertsolaritzara etorritako belaunaldi berri horiek irakaskuntzatik etorri direlako. Eta etortzen dena, hortik etorriko da”, nabarmendu du. “Duela 40-50 urte, bertsolaritzak beste era batera funtzionatzaren zuen: baserriz baseri ibiltzen ziren, bertsolarien ehizan. Lehen, bila joan beharra; eta gaur egun, ate joka datoz. Bertsolaritzaren transmisioa bermatzen du irakaskuntzak”.

ESKOLARTEKO BERTSOLARI TXAPELKETAK

Eskolarteko Bertsolari Txapelketa sorreratik bertatik —1981ean— zabalik egon zen ikasle guztientzat, ez soilik ikastoletakoentzat. Eta herrialde guztietako ikasleek parte hartzen zuten, hastapeneko txapelketak Gipuzkoan egin arren.

Hasierako formato hartan, bi multzo zeuden. 14 urte artekoak batetik, 15-18 urte bitartekoak bestetik. Baina, denborarekin, 14 urte artekoak taldeka aurkeztu ahal izatea erabaki zen. “Batetik, elkarren babesa sentitzen zutelako era horretara. Eta bestetik, talde lana bultzatzen zelako: hasierako agur modukoa prestatu behar zuten, haien arteko jokoak... Eredu berri honekin 90eko hamarkadatik aurrera hasi ginen”, Mikel Mendizabalen hitzetan.

Era berean, bat-bateko bertsoak eta bertsopaperak lantzen zituzten parte-hartzaileek. Azken hau asteroko kanporaketen bitartez antolatzen zen, parte-hartze handiarekin, eta honen sari banaketa Eskolarteko Txapelketan egiten zen.

1989an, berriz, Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketarako jauzi eman zen. “Txapelketak herrialde guztietan egiten ziren, bertsolariak herrialde guztietan genituen... Eta urte hartan Karmelo Baldan egin genuen, tradizioa zelako. Hortik aurrera, herrialde bakoitzeko txapelketa egiten zen lehenik, eta Euskal Herria mailakoa ondoren”. Horrela, 1990ean Gernikan jokatu zen Euskal Herriko Eskolartekoa; 1991n eta 1992an, Bilbon; 1993an, Gasteizen; 1994an, Urruñan...

1998an, ordea, ibiltari izateari utzi eta bost urtez Mungian jokatu zen Euskal Herriko Eskolartekoa. Eta 2005az geroztik Altsasu da txapelketaren plaza edo oholtza. Laurehun lagun baino gehiago bildu ohi da Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketan, giro bikainean.



Herrialdeko nahiz Euskal Herriko txapelketan, halaber, bi multzoen diseinuari eutsi diote: 14 urte artekoak eta 15-18 urte bitartekoak. Euskal Herrikoan, beraz, lurralde bakoitzeko lau bertsolari onenak biltzen dira: txikien arteko eta handien arteko bi onenak, alegia. Baina lurraldekako eskolartekoan bertsopaperak eta bat-batekoak lantzen dira, eta Euskal Herrikoan soilik bat-batekoan aritzen dira parte-hartzaileak. •

7.7. IKASTOLEN EBALUAZIO PROIEKTUA

Ikastolen III. Batzarrak, 1996ko urriaren 19an, Pedagogi Plan Nazionala onetsi zuen eta, bertan, beste lan batzuen artean, 1996-2000 epean “Ebaluazioa (tresnak eta prozedurak) ikertzeko plana gauzatu” agindu zion Euskal Herriko Ikastolen Elkarteari, ondoko xehetasunon arabera:

Epeak/Faseak:

1996-1998

- Diseinu teorikoaren lehen zirriborroa egin, III. Batzar Nazionalan erabakitakoaren arabera.
- “Kalitate osoa” filosofiaz aritzen diren erakundeetatik datuak jaso.
- Diseinu teorikoaren kontrastea egin, adituekin eta jasotako datuekin.

1998-1999

- Ebaluazioaren proposamena osatu, IV. Batzar Nazionalari aurkezteko.

Proiektu honen erantzukina BIEri (Bizkaiko Ikastolen Elkarteari) esleitu zitzaion. Langintza honetan Nerea Arregi aritu zen, hau bera baitzen ikastoletan BIEk egiten zuen ikasleen ebaluazioaren arduraduna. Gerora, Partaidek eta BIEk batera jardun zuten Ikastolen III. Batzarraren enkargua betetzeko ahaleginean. Partaidek Juanjo Gomez ipini zuen lan horretan.

1996-97 ikasturtean bertan abian jarri ziren lehen lanak. Ikastola mugimendua gai honetaz egindako literatuta eta, oro har, literatura zientifikoan zegoena bildu ostean, Ebaluazioa marko teorikoa eraikitzeari ekin zitzaion ondoko osagaion arabera: testuingurua, definizioa, helburuak, dimentsioak, funtzioak, metodoak, ebaluazio motak eta ereduak. Bi ikasturte eman zuen lan taldeak marko teorikoa osatzen. Bestalde, EFQM inguruan ikastolak hasiak

ziren Euskalit fundazioaren bidez prestakuntza jasotzen. Eta BIEk jarraitu zuen ikasleen ebaluazioaren zerbitzua garatzen.

1998an, Ebaluazioa aztergai zuten V. Jardunaldi pedagogikoak NIEk (Nafarroako Ikastolen Elkarteak) antolatu zituen, Iruñean, Ikastolen Elkarteak Ebaluazioaz jarduteko izendatuta zuen lan taldea Jardunaldi Pedagogiko haien edukian burubelarri aritu zelarik. Egindako ahaleginaren ondorioz, lan taldeak txosten mardul baten emaitza osatu zuen eta ikastolen ebaluazio-sistemak izan beharko lituzkeen oinarriak honelaxe laburtu zituen:

1. Ikastola Taldearen behar orokorrak zein ikastola bakoitzarenak jaso.
2. Barne ebaluazioaren egile nagusiak hezkuntza komunitateko kideak izan.
3. Hezkuntza komunitateko kideei behar den prestakuntza eskaini.
4. Ebaluazioan hobekuntza eta garapen profesionala kontu ematearekin lotu.
5. Ikastola bere osotasunean ebaluatzeko jarrera izan.
6. Hezkuntza aukeren berdintasuna sustatu.
7. Ebaluazio taldea, ikastolaren egitura eraginkor bilakatu.
8. Elkarrizketa, ezinbestekoa ebaluatzaileen eta ebaluatuen artean”.

Hasierako emaitza haien ostean, Proposamen praktikoa deiturikoa egin zuen lan taldeak, eta gerora (bi ikasturte beranduago) Ebaluazio gunearen zirriborroa osatu zuen..

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak bere egitura juridikoa eta eginkizun historikoa berritu zituenean, eta Ikastolen I. Plan Integralaren garapenaren ardura esleitu zitzaionean, lurralde-federazioek Ebaluazioaren gaia egiteko konfederatuetatik aparte utzi zuten esplizituki. Horren ondorioz, BIE eta Partaideen esku gelditu zen Ebaluazioaren ikerkuntzaren jarraipena.

Bizkaiko Ikastolen Elkarteak sakondu eta zabaldu zuen ikasleen ebaluazioaren zerbitzua urte haietatik gaurdaino ibilbidean, Nerea Arregiren ordezkari Maria Galdeano ipiniz. Eta Partaidek, Juanjo Gomezen eskutik, bide praktikoa hartu zuen ikastetxeen ebaluazioaren atalean. Honek ekarri zuen KEI izeneko eredu eraikitze ahaleginean aritzea Manuel Alvarez adituarekin eta Deustuko Unibertsitateko Aurelio Villarekin. Behin eredu hori borobildu eta gero, ikastolen ezaugarrien arabera, KEIren homologazio eta akreditazioa izan ziren helburu, baina bidean bi oztupo nagusi izan zituen: batetik, akreditazio ofiziala eskuratzeko zailtasun handiak, eta bestetik EFQM eredu baliatu zuten ikastola ugariren ibilbidearekiko lotura ahula.

Ebaluazioaren arazoa, 2009an aztergai du berriro Ikastolen Elkarteak eta Ikastolen VI. Batzarrak martxan jarri duen erakunde berriak eta honek kudeatu behar duen II. Plan Integralak eginkizun dute 1996tik bukatu gabe dagoen ikerketa bukatu eta ikastolen ebaluazio sistema antolatzea.

7.8. IKASTOLEN BESTE PROIEKTUAK

7.8.I. Xiba

199In *Ikaspilota* proiektua abiatu zuten Gipuzkoako hainbat ikastola eta herri eskolatan, Joxean Unsainen ardurapean eta Euskadiko Euskal Pilota Federazioaren eta GIERen arteko hitzarmenaren ondorioz. Bertsolaritzarekin urte batzuk lehenago gertatu zen bezala, irakaskuntzan euskal pilota zabaltzea zen helburua, horren bitartez euskal kultura bera ikasleen eta gazteen artean indartzearren.

Hasierak ez ziren errazak izan. Baina, ekinaren ekinez, bost urteren buruan ikastolen Hezkuntza Proiektuan txertatu zen *Ikaspilota*, pilotak egiten hasi eta pilota eta pilota tresnen historia irakasteko. “Baina, azken finean, pilota aitzakia bat zen bestelako euskal jolas, joko eta kirol baztertuak azalarazteko”, adierazi du Joxean Unsainek. “Une haietan, oraindik, herri kirolak itxiak eta baserri girokoak zirela uste zelako”.

1997-2000 urteetan, halaber, herrialde guztietara zabaldu zen proiektua. Eta hazkundearekin batera, 2001ean egitasmoaren tamaina aldatu zen, eta *Ikaspilota* Euskal Soin Jarduera deitzen hasi zen.

2002an erabateko hedapen nazionala hartu zuen egitasmoak, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren gidaritzapean. Proiektua egituratu eta



instituzionalizatu egin zuen Konfederazioak, programa eta egutegi propioa emanaz, giza baliabideak jarritz. . . Aisiarako jauzia eman zuen orduan proiektuak, Xiba izena hartuta.

Hain zuzen ere 2004an bihurtu zen Xiba, Unsainen esanetan. “Eta proiektua aisian ezagutarazteko bitartekoa edo deitura baino ez zen Xiba, esparru kurrikularretik aisiarako jauzi horretan, gure proiektu nazionalak ezin zuelako termino berdina eduki”. 2005-2006 ikasturtetik aurrera, proiektuaren ardura Mikel Egibarren esku gelditu zen.

Gaur egun, ikastoletan izaera kurrikular hori eustez gain, herri mailako mugimendu sozial guztiei zerbitzuak ematen dizkie Xibak. Eta emaitza hor dago. Garai batean inork jokutzen ez bazuen ere, herri kirolek dimentsio izugarria hartu dute gaur egun: *boom* bat bizi dute. Eta hori, zalantzarik gabe, egitasmo honi eta ikastolen mugimenduari zor zaio.

7.8.2. Aisia

Aisiaren esparrua edo eskolaz kanpoko jardueren alorra ikastolen kolektiboaren Hezkuntza Proiektuaren zutoinetako bat izan da hasieratik. Euskarazko udalekuak, esaterako, ikastolekin batera sortu ziren, 60ko hamarkadan.

Baina, gaur egun oraindik ere, aisia Ikastola Hezkuntza Proiektu komunen oinarrietako bat da. Azken finean, aisian landutako hezkuntzak ikaslearen



garapenaren eraikuntzari bultzada eman eta Euskal Curriculumean txertaturiko bost oinarrizko hezkuntza konpetentzia orokorrak garatzen laguntzen duelako.

Aisiari begirako eskaintza aberatsa bezain osoa du Ikastolen Elkarteak gaur egun. Eskaintza horrek, funtsean, lau oin ditu: udalekuak, *Enjoy english* proiektua, atzerriko egonaldiak eta Aisiola.

Udalekuei dagokienez, urrun gelditzen dira ikastolen mugimenduak 60ko hamarkadan Barrian martxan jarritako estreinako udaleku haiek. Baina, zalan-tzarik gabe, hazia izan ziren gaur egungo udalekuen eskaintza zabala erein ahal izateko. Euskal udaleku irekiak eta itxiak, gazte egonaldiak, ingeles udalekuak nahiz sormena lantzeko udalekuak antolatzen ditu Ikastolen Elkarteak.

Enjoy english zerbitzua, berriz, 1996an jarri zen martxan, ikasleak, ingelesez lantzeaz gain, euskara eta euskal kultura zabal ditzan eta kultura ezberdinak eza-gutu ditzan. Jatorrizko ingeles hiztunak dira begiraleak, eta ikaslearen familiare-kin bizi dira egonaldiak iraun bitartean.

Atzerriko egonaldietan, ordea, kontrako prozesua gertatzen da: ikaslea beste herrialdeetako sendiekin bizi da, eta atzerriko hizkuntza lantzen du ingurune natural horretan.


Aisiola, azkenik, ikastolen begirale eskola da. BIEk 1999-2000 ikasturtean martxan jarri zuen. Ikastaroa amaitzean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak emandako haur eta gazteen aisialdirako begirale nahiz zuzendari titulu ofizialak jasotzen ditu ikasleak.

7.9. IKASTOLAK, ORAINATIK GEROA ERAKITZEN

Ikastola mugimenduak, bere ibilbide luzean bezain emankorrean, unean uneko beharrei erantzuten jakin izan du beti, askotan garaipen handiak lortuz, eta besteetan zailtasun latzak pairatuz. Hastapeneko Ikastola Batzordea, ondorengo federazioak, Konfederazioa, Partaide... unean uneko zirkunstantziek bultzaturiko irtenbideak izan ziren, hain justu. Baina egituratze molde ezberdinek ez zuten lortu ikastoletan betidanik egon zen nahi gero eta handiagoa errealitate bihurtzea: nazio mailako erakunde batean elkarrekin jarduteko desioa.

XXI. mendearen hasierarekin, gainera, ikastolen kolektiboan belaunaldi txandatze bete-betea gertatu zen, gero eta handiagoa baitzen ikastoletako zuzendari nahiz irakasle berrien kopurua. Ondorioz, ikastolaren esperientzia eta jakinduria historikoaren transmisioa ere antolatu beharra zegoen.

Hain zuzen ere bost urtean (2003tik 2008ra) Ekonomia Intereseko Europako Elkarte gisa Konfederazioak egindako lanak mugimenduaren sendotzea ekarri zuen, eta baldintza egokiak sortu zituen etorkizunaren leihoa zabaltzeko.



EHIKren zuzendari J. Iñaki Etxezarretak zehaztu duenez, Ikastolen I Plan Integrala 2003-2008 oso garrantzitsua izan zen ikastolen egituraketari dagokionez, “plan estrategiko horren gainean EHIKren kudeaketak hiru gauza frogatu baitzituen: lehenik, lurralde guztietako ikastolek behar dituzten hezkuntza-zerbitzuak denon artean eraikitzen eta berritzen badakigula; bigarren, ikastola ereduaren I+G+B egitasmoa geure etorkizunerako giltzarria dela edonolako proiektua garatzean; eta azkenik, lurralde bakoitzaren sentiberatasunak eta kolektibo osoaren bateragarriak direla”. Ikastolen mugimenduaren hazkundea, 2003tik 2009ra bitarteko aldira, I. Plan Integrala kudeatzeko ekitaldian alegia, ikaragarria izan da, eta ez bakarrik EHIKren kasuan, gainerako ikastola-erakundeen datuetan ikus daitekeenez: 2003an 7 milioi euroko aurrekontua zeukan, eta 2009an, berriz, 18 milioi euroko aurrekontua.

Beraz, beharrak ez ezik, oinarri sendoak ere egon bazeuden ikastolen kolektiboaren hurrengo zikloari ekiteko. Iragina ahaztu gabe, geroa prestatzeko unea

iritsi zen; lidergo elkarbanatuaren ondorioak gaingitu eta zuzendaritza bakarra praktikara eramateko sasoia. Eta Euskal Herri osorako bakarra baina, aldi berean, ikastolen partaidetza zuzena ahalbidetuko lukeen egitura sortzeko ordua.

Ikastolak. Orain eta gero prozesuaren hasiera

2005-2006 eta 2006-2007 ikasturteetan lehen urratsak egin ondotik, 2007-2008 ikasturte hasierarekin batera iritsi zen ikastoletara ziklo berriari begira ikastolen mugimenduan garatu nahi zen gogoetarako oinarrizko proposamena, “Ikastolak. Orain eta gero” izeneko txostena.

Plenarioa izeneko batzarrak landu zuen txosten hura. Biltzar hori aurrera begirako estrategia-egitasmoa diseinatzeko sortu zen, eta ikastolen erakundeetako eta hainbat ikastolatako buruek osatzen zuten, gurasoen ordezkariak batekin batera.

Eta eztabaidarako oinarrizko txostenak hiru atal zituen. Batetik, Ikastola 2020 izeneko, etorkizunean landu beharreko ikastola ereduari buruzkoa. Bestetik, II. Plan Integrala (2008-2014) deiturikoa, bost urteko epean egin beharreko ekintzak proposatuz Ikastola 2020 lortzen joan ahal izateko. Eta hirugarrenik, Ikastolen egitura kolektiboa izeneko atala, ikastolek adosturiko helburuak eta ekintzak kudeatzeko erakunde berri bat martxan jartzea proposatzen zuena. Erakunde berri horrek Europako kooperatiba izaera izango zuen, zuzendaritza bakarrarekin, eta gogoeta prozesuak iraun bitartean Elkargoa izenarekin bataiatu zuten. Hala, ikastolena Euskal Herrian sortuko zen lehenengo kooperatiba europarra izango zen. Euskal Herri osoko ikastola guztiak erakunde bakar batean zuzenean bazkide-tuta bilduko zituen egitura berriak, hots, ikastola bakoitzak harreman zuzena izango zuen erakunde berriarekin. Horren ondorioz, ikastola bakoitzak bazkide izanez zerbitzuak jasoko zituen, bere lurralde-ko kapenagatik edo gaitasun ekonomikoagatik inolako bazterketarik jasan gabe.

Plenarioaren partaidetako bat Koldo Tellitu izan zen. Leioako Betiko ikastolako lehendakaria zen, eta 2002tik 2006ra Partaideko lehendakaria. 2006ko azaroan Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko lehendakaria izendatu zuten, karguan lau urte bete zituen Pedro Aranbururen ordezkari. Tellituren esanetan, erakunde berriak bereziki gaur egungo antolaketa kolektiboa erraztu ez ezik eraginkorrago bihurtu behar zuen. “Ikastolengandik gertuko egitura lortu nahi dugu, erabakiak hartzeko orduan ikastolen partaidetza zuzena ahalbidetuko duena. Egitura ulerterraza, kanpokoentzat zein etxe-koentzat; leihatila bakarra ikastolen zerbitzuetarako, hau da, ikastoletako zerbitzuak bideratzeko bide bakarra. Hitz gutxitan esateko, erakunde errazago bat egin nahi dugu; bai barne prozesuei dagokienez, bai kanpora begirako harremani dagokienez. Euskal Herriko ikastolen ordezkariak eta kudeaketarako egiturarik gorena izatea erakunde eta eragile sozialen aurrean”.

“Ikastolak. Orain eta gero” txostenaren bidez, beraz, historian lehen aldiz ikastolen osagai guztiak batera jarri zituzten dokumentu bakar batean. Eta gogoeta prozesuaren izaera bera adierazten zuen horrek. Izan ere, “Ikastolak. Orain eta gero” prozesuarekin ikastola ereduaren bi besoak uztartzen zirelako: antolaketaren besoa eta hezkuntzaren besoa edo beso kurrikularra. Estreinakoz, txapel beraren azpian biak jartzen ziren, bati edo besteari garrantzia gehiago eman gabe, ikastolen mugimenduaren historian beste gogoeta prozesuekin gertatu zen ez bezala.

Bateratze honek hainbat emaitza eman behar zituen: zerbitzu bakoitzeko ardurak zehaztuta egotea, giza baliabideak zuzen erabiltzea, baliabide ekonomikoak optimizatzea eta zerbitzuen planifikazioa ikastola guztientzat egitea (langileak talde bakar bat bezala funtzionatuz). Halaber, zerbitzuen eskaintzari dagokionez eraginkortasun handiagoa lortzea.

Biltze-lana

Oinarrizko txostena edo ponentzia ikastoletara iristearekin batera, lehendabiziko ekarpenak egiteko faseari hasiera eman zitzaion. 2008ko otsailera arte luzatu zen fase hori eta, tarte horretan, Koldo Tellituk eta J. Iñaki Etxezarretak —sasoi hartan EHIKko lehendakaria eta zuzendaria, hurrenez hurren— 30 aurkezpen baino gehiago egin zituzten han-hemenkako ikastoletan. Aurkezpen haietan 1.000tik gora lagunek parte hartu zuten. “Jende asko elkar-tzeaz gain, aurkezpenetan bildutakoek interes handia erakutsi zuten, parte-hartze handia egon zelako. Ekarpenez piloa ere jaso ziren, batik bat egituratze kolektiboari buruzkoak; atal honek bereganatu zuen jendearen arreta”, gogoratu du Koldo Tellituk.

Zuzenketak jasotzeko lehen fasearen ondoren, 2008ko apiril-ekaina bitartean, “Ikastolak. Orain eta gero” testu ofizial berria prestatu zen, ikastolek egindako zuzenketak kontuan hartuta adostasuna landu ostean.

Eta hilabete batzuk beranduago, irailaren 27an, ikastolen VI. Batzar Nazionalaren lehendabiziko saioa burutu zen Hendaian. “Aurrean genuen erronkaren garrantziaz jabetzeko saioa izan zen hura”, Tellituren hitzetan. “Gainera, lehen aldia zen Iparraldean egiten genuela ikastolen ikasturtea zabaltzeko ekitaldia; eta hori ere garrantzitsua zen”.

Hendaiako batzarraren ondotik, eta 2008ko azaroa bitarte, ekarpenak egiteko fase berria zabaldu zen, eta Tellitu-Etxezarreta bikoteak bigarren erronda egin zuten ikastoletan. Ikastolen mugimenduaren historian teorizazio asko egin arren, inoiz ez bezalako biltze-lana egin zen “Ikastolak. Orain eta gero” prozesuan, ikastoletako kezkak bilduz eta kezka haietan oinarrituz. Hasierako hiru aztergaiok, ordea, bazuten laugarren osagaia, hamar urte lehenago hasi eta ikas-



tolen mugimendua baino harago joan zen ikerketa-lana; hau da, euskal curriculuma. Ikastola-ereduaren hezkuntza-prozesua eguneratzeko asmoz abiatu eta, beste eskola eta ikastetxe batzuekin batera, Euskal Herrian egin zen heziketa-ikerketa zabalena bilakatu zena.

Eta 2008a bukatu baino lehen, Plenarioak txosten berria landu eta ikastoletara banatu zuen. Eta 2009ko urtarrilerako eta ekainerako VI. Batzarraren bigarren eta hirugarren saioak finkatu ziren Donostian eta Zamudion hurrenez hurren, prozesuaren segida eta amaiera gisa.

2009ko urtarrilaren 24an, Donostiako Miramon Parke Teknologikoan, Ikastolen VI. Batzarraren bigarren saioa burutu zen. Lau izan ziren erabaki-gaiak: Ikastola 2020, Ikastolen oinarritzko curriculum komuna, Antolaketa Kolektiboa 2009-2014 eta Ikastolen II. Plan Integrala (plan estrategikoa 2009-2014). Laurek %90 alde-

kotasuna gainditu zuten, banan-banan eta batera. Inoiz ez zuen Ikastolen Batzar batek horren gidoi sendoa bete.

Koldo Tellituk, Ikastolen VI. Batzarraren bigarren saio hartan esan zuenez, “urtarrileko erabaki mardulak epe desberdinetan gauzatu beharreko aldaketak ekarriko dizkigu. Eragina, laster, egiturara, antolaketa eredura iritsiko da. Ikastolen mugimenduak beti izan du gogoan Euskal Herri osoko ikastolen arteko jardun komuna sendotuko duen eredu. Eta ahalegin horretan urratsak emanaz joan izan da urte desberdinetan”.

Urtarrileko batzarrak ikastolak, mugimenduaren historian lehen aldiz, egitura bakarrean bazkide-tuko zituen eredu abian jarri zuen. Aldi hartan bertan, 2008an eginiko berreskuratze lanari esker, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak “Ikastola” izeneko kanta, 1970. hamarkadan Saioka ikas materialen bidez ikastola askotan erabili izandakoa, eguneratu egin zuen Pirritx eta Porrotx paila-zoen eta hauen lankideen laguntza baliatuz. Ikastolak batuko zituen egitura juridiko bakarrarekin batera, Ikastolen VI. Batzarrean “Ikastola” kanta aurkeztu zen.

Urtarrileko saioa eta ekainekoa prozesu luze baten katebegiak izan ziren: urtarrilekoan oinarriari lotutako erabakiak hartu ziren, eragin juridiko zuzenik gabekoak, eta ekainekoan, ordea, eragin juridiko zuzenekoak. Urtarrilekorik gabe ez zen ekainekoa posible izango. Bigarrena lehenaren ondorio izan zen.

Bigarren saioa urtarrilean burutu eta gero, 2009ko ekainean izango zen Ikastolen VI. Batzarraren hirugarren saioaren txostena prestatzeko Plenarioa deituriko batzordearen barruan lau talde sortu ziren: Sozietatea aztergai izango zuena, Gestio-gintza jorratuko zuena, Enpresa-eredua proposatuko zuena eta Hezkuntza-zerbitzuak diseinatuko zituen. Talde horiek ondoko txostenak





prestatu zituzten: Elkarre berriaren eginkizuna, Kudeaketa-moldea, Hezkuntza-zerbitzuak eta lehenasunezko hezkuntza-zerbitzuak, Elkarre berriaren enpresadiseinua, Elkarre berriaren II. Plan Integralaren zehaztapena, Elkarre berriaren estatutuak eta Elkarre berriaren sortze-ekintza.

2009ko ekainaren 13an, Ikastolen VI. Batzarren hirugarren saioa Zamudion burutu zen. Batzarrean, lau bozketa nagusi egin ziren, aipatutako gaien inguruan. Lehenengo hiru proposamenak gehiago zabalarekin (%98tik gorakoa) onartu ziren. Laugarrenak 78 ikastoletako ordezkarien babesia lortu zuen. Araba, Gipuzkoa eta Iparraldeko ikastolek aho batez onartu zuten, eta Bizkai-ko 21 ikastoletatik bik izan ezik gainerakoek alde bozkatu zuten. Nafarroako 15 ikastoletatik 12k kontrako botoa eman zuten (lurrealdeko botoen %82a). Nolanahi ere, batzarrean ordezkaturata zeuden 93 ikastoletatik 78k aldeko botoa eman zioten erakunde berriaren estatutuen osotasunari.

Nafarroako ikastolen aldeketasunik ezak, hala ere, badu garrantzirik eta eraginik erakunde berriaren jardunean. Jarrera horrek bere baitan zeramalako lurralde horretako ikastolak kooperatiba berrian sartzeko prozesua behin-behinekoz izoztea.

Batzarreko desadostasunek hautsak harrotu bazituzten ere, sortze-ekintzak bere ibilbidea egin zuen, ikastolen gehiengoaren babesia atzetik zeukala. Zamu-

dion Artezkaritza Kontseilu berria eratu egin zen, aldez aurretik adostua zegoen prozedurari jarraiki, karguetarako izendapenak eginez; Koldo Tellitu (lehendakaria), Arantza Manterola (lehendakariordea), Xabier Arrieta (idazkaria) eta Paxkal Indo (diruzaina).

Ekainaren 13ko saioan Ikastolen VI. Batzarrak hartutako erabakien ondoriozko erabaki kateak bere lehen emaitzak eman zituen egiturari dagokionez eta Imanol Igeregi zuzendari, Abel Ariznabarreta hezkuntza saileko arduradun eta Jose Luis Sukia ekonomia saileko arduradun izendatu ziren.

2003an Europako Batzordeak emandako kooperatibei buruzko araudia indarrean sartu zenetik Europa osoan sortu den bigarren kooperatiba europarra dugu erakunde berria. Euskal Herriko Ikastolak izen ofiziala badu ere, ohiko jardunerako Ikastolen Elkarte deituko zaio.

Prozesuak emandakoak nahiz ondorengo urteetan gertaturikoak, ordea, beste ikerketa batean jorratzea eskatzen du, dagokion sakontasunarekin eta denboran beharrezkoa den distantziarekin. Aurrera baino, atzera begiratzea baitzen irakurleak esku artean duen ikerketa honen helburua.

Geroa iritsi da, beraz, ikastoletara nahiz ikastolen mugimendura.





8. IKASTOLA EREDUA, 50 URTEKO GIZARTE-BERRIKUNTZA BATEN ADIBIDE

XX. mendeko 50eko hamarkadaren bukaeran sortuta, egun ezagutzen dugun ikastola mugimenduak 50 urte bete ditu jada. Marce Masa soziologoak egin berri duen ikerketan dioenez, “ikastola mugimendua Young Foundationek egin zituen gizarte-berrikuntzaren definizioetako bati guztiz egokitzen zaio”. Ikastolen gaurdainoko ibilbidea, bistan denez, gizarte zibilaren (hirugarren eremuaren) sail jakin batzuek sortu zuten. Aldi berean, garai bateko gizartearen eraso-testuinguruari aurre egiteko balioak, zioak eta egitasmoak gizarte-ekintzan lekutzen dira funtsean. Horren harira, ikastolek egindako berrikuntzarik nagusietako bat hezkuntza alorrean publiko/pribatua dikotomiaren erdian bere tokia bilatzea izan zen. Eta, finean, ikastolen berrikuntza-ibilbidean behatu daitezke gizarte-berrikuntza prozesu orotan identifikatzen diren oinarritzko hiru etapak: asmatze-garaia, gauzatze-aldia eta hedapen-sasoia.

Ikastolak gizartearen erantzuna dira, sortzez eta ekitez; eskola eta hezkuntza ikusteko, gauzatzeko eta garatzeko molde berria. Ikastolak adibide dira gizarte-berrikuntzan, adibide paradigmaticoa, Marce Masak dioenez, honako bost arrazoi hauengatik:

- Gizartean eta herritar jendearen artean sortu direlako,
- Hezkuntzan, eskola-bizitzan eta gizartean ordura arte ez zegoen esanahi berri asmatua erantzen diotelako euskarari,
- Egitura politikoak eta sozialak betetzen ez zituen gizarte-eskaera baten erantzun herritarra direlako,
- Hezkuntza-jardueran, gizarte-ekintzaren zioak, egitasmoak eta balioak planteatzen eta gauzatzen dituztelako,
- Eta, bereziki, guztiz berritzailea den heinean, publiko eta pribatuaren arteko bereizketaren aurrean hirugarren formula osatzen dutelako.



IKASTOLAK, HASIERATIK BERTATIK EREDU BERRIA

Ikastolak, Estatuaren eskola-eredutik eta Elizaren eskola-eredutik at kokatzen diren une beretik beste lojika batean mugitzen dira; publikoa/pribatua eskemantik kanpoko praktika da, herritar izaera duten jarduna, alegia. Horregatik, mugimendu dira, ikastola mugimendua deitura hartu izan dute, herritar eremu batean sortuak direlako, eta esparru horretan, publikoen eta pribatuen aldamenean, gizartearen eguneroko bizitzan leku propioa dutelako.

Kokapen berriazko horrek, ordea, ez du soilik ikastolen berrikuntza-izara argudiatzen. Ikastolek hasieratik bertatik publikoa/pribatua dikotomia hori auzitan jarri izana da haien grina berritzailearen funtsa, eredu berri bat eraikitzeko bidean: garaian garaiko gizarte-gogoak hezkuntza-prozesura ekartzea; gutxi batzuen edo inoren eskola-jabetzaren ordean unean uneko jabetza soziala bermatzea; elkarlanaren ideia eta praktika ikasle, guraso eta irakasleen artera ekartzea eta kudeatzea; ingurune hurbileko gizartearekin batera elkar eragitea; ikastolen arteko sarea eratzea; ezagutza berriak eraikitzea eta ezagutza horien euskarri diren hornigaiak, produktuak eta zerbitzuak ekoiztea eta eskaintzea (I+G, ikas materialak, prestakuntza, ebaluazioa...); ordezkari publikoa eta era guztietako gizarte-eragileen aurrean ikastolen nortasun propioa kudeatzea; euskal hezkuntza-sistema propioa aldarrikatzea...

Horiek guztiak dira ikastolen sortzezko gogo-arrastoak eta ikastola mugimenduaren ibilbide historikoaren ekintzak, ikastolen gogo kolektiboan egonda ikastolen batzarretan behin eta berriro aurkitzen direnak, eta ikastolen berrikuntza-ekarpen osatzen dute. Alfonso Uncetak bere tesian “hezkuntzaren hirugarren espazioaren aldarrikapena” deitu izan duena. Hori bera baita ikastola mugimenduak ekarri duen desafia, gizarte-berrikuntza.

Aurretik diseinurik gabe jardutea, ezerezetik abiatu alegia; ingurune hurbileko gizarte-sarearekin batera eta baliabide eskasekin, autogestioaz; eta zerbait berria egiteko gogoak ematen duen indarrarekin aritzea izan zen ikastola mugimenduaren hastapeneko urratsen ezaugarri nagusia. Ez zegoen orduan haren pareko hezkuntza-erakunderik, eta orduko eskola eredu publikoa/pribatuarekiko alternatiba zen ikastola. Eredu berria hezkuntzan, eredu berritzailea.

IKASTOLA MUGIMENDUA, BERRIKUNTZAREN ETA AUZOLANAREN EREDU

Hezkuntzaren historian behin baino gehiagotan gertatu ohi denez, Montessori, Decroly edo Freinet pedagogoen erakutsi izan dute berrikuntzak beha-

rrak eraginda asmatu eta garatu egiten direla. Ikastola mugimenduaren kasua ere antzekoa dela esan daiteke. Hezkuntza arloan berezko nortasuna lantzeko aurrekari sendoak ez zeuden Euskal Herrian ikastola asmatu zen. Heziketa euskaldunak XX. mendearen bigarren erdialdean zerotik abiatu behar izan zuten, eta hezkuntzaren ekosistemak behar zituen osagai guztiak irudikatu, asmatu, esperimentatu, ekoitzi, zuzendu, hobetu egin zituen. Euskal hezkuntzaren lehen urratsak berrikuntza-hautu sakona burutu behar izan zuten, euskaldunok beste hamaika jardueratan egin izan dugunez: antzeko prozesuetan beste batzuek egiten dutena behatu eta ikasi, geure egoera eta testuinguruan ezartzeko modu propioa aurkituz eta berrituz. Hori bera izan baitzen ikastola mugimenduaren jarduera.

Katalunian egiten zutena behatu eta ikasi egin zuten ikastolek. Euskal Herrian gainerako ikastetxeek zer egiten zuten ondo eta zer gaizki ezagutu zuten ikastolek. Elbira Zipitriak eta bere ingurukoek eraikitakoa baliatu zuten ikastolek. Baina, hala ere, dena egiteko zegoen, guztia: euskara bera nola landu; kultura, zientzia eta gizarte gaiak hautatu eta nola irakatsi; irakasleak eta gurasoak prestatu; ikas materialak ekoitzi, itzuli, sortu egin behar ziren. Baina ez hori bakarrik, ikastola bakoitza giza-erakunde bat zen, eta erabakiak nola hartu, nor zertaz arduratu, kontuak eman, dirua bildu, gelak atondu, lur sailak bilatu, eraikinak egin eta finantzatzeko diru iturrietara jotzea... hori ere egin behar zen. Gaur egun topikoa dirudien arren, ikastolena da berrikuntza kolektiboa egin duen eskola-talde ezagun bakarra, auzolanean bere proiektua gauzatu baitu.

IKASTOLA EREDUA, ZILEGITASUN HERRITARRA, BOTERE PUBLIKOZ KANPOKOA

Hirugarren espazioari zegokion hezkuntza eta eskola-eredua ekarri zuten ikastolek, baina horrek etengabeko tentsioa eragin dio boterearekiko, nolanahiko itxura duen gobernu ororekiko. Ikastola proiektuak izan du eta badu zilegitasunik, bai, baina gizarte zibiletik datorrekin zilegitasun herritarra, laguntza eta babesa, ez dator bat botere politikoek emandako zilegitasun ofizialarekin.

Kontraesan horrek, noski, are zailago bihurtu izan du ikastola eredu garatzeko, sendotzeko eta egonkortzeko jarduna. Zaila egin du, noski, baina ezinezkoa ez dela agerikoa izan da hainbat unetan, ezagutza herritarrarekin batera aitortza instituzionala gertatu baita ikastolen ibilbide historikoan. Guztiz esanguratsua izan zen, esaterako, Euskal Autonomia Erkidegoan

1979-80an eman zen aitortza, Madrilgo eta Gasteizko gobernuek adostutako Ikastolen Titulartasun Ofizialerako Arautegiaren bidez. Hura, esan daiteke, ikastola ereduaren lehen ezagutza ofiziala izan zen, EAEko lurralde-eremuan ikastolak hirugarren espazioko eskola saretzat hartu baitzituen. Hamahiru urteren ostean, baina, Euskal Eskola Publikoaren Legea 1993an Eusko Legebiltzarrean onetsi zenean, publiko/pribatua dikotomiari ikastolek publikotasunaren kontzeptuaren berrikuntza planteatu zuten arren, botere publikoak bueltarik gabeko formula klasikoa hobetsi zuen: eredu publikoa, eta eredu pribatua. Ez zegoen beste ezertarako tarterik.

Sokaren beste muturrean, berriz, Ipar Euskal Herriko ikastolen kasua dugu, Frantziako Gobernuak 1993ra arte ez baitzuen ikastola eskolatzat eza-gutu. Nafarroako ikastolek, bestalde, saiakera ugari egin izan dituzte onarpen ofiziala lortze aldera. Kasurik latzenak 2006. urtera arte konpondu gabe egon izan dira, Gobernuak Nafarroako hegoaldean diren ikastolen legezkotasuna erabaki arte, alegia.


Horren parean, aldiz, ikastolen aldeko jaiek (Kilometroak, Ibilaldia, Nafarroa Oinez, Herri Urrats eta Araba euskaraz) urtero atxikimendu herri-tar zabala jasotzen dute, euskal gizartearen sektore esanguratsu batek tokian tokiko ikastolari eta, oro har, ikastola mugimenduari, adierazten dion babesaren adierazle.

IKASTOLEN ELKARTEAREN AZKEN URTEOTAKO LEHENTASUNAK

Azken urteotako ibilbidean bi ildo nagusi nabarmendu dira Ikastolen Elkartearen jardunean:

1. Hirugarren espazioko hezkuntza-erakunde gisa gizarte-profilean sakontzea, publiko/pribatu zurrumbilotik urrundu eta hezkuntza-zerbitzu publikoaren aldarria eginez. Beste iritziak errespetatuz, hezkuntza zerbitzu publikoaz ari dela, ikastola-mugimenduak gizarte-ekimeneko askotariko titular-tasunaren aldeko hautua egin du, Euskal Herrian hauxe izan baita gizartearen sektore zabal baten aukera. Titulartasun eredu desberdinen osagarritasuna da, beraz, ikastolen taldeak aurreikusten duen Hezkuntza Sistemaren ezaugarri nagusienetarikoa.

2. Hezkuntza-zerbitzuak antolatu eta etengabe indartzea: Ikastola ereduaren I+G+B prozesuetan, zerbitzuetan (egonkortasuna, ikas materialak, prestakuntza eta ebaluazioa) eta barruko antolaketan, euskal hezkuntzaren




garapena ikastoletara ez ezik, baita euskal eskola izan nahi zuten ikastetxe mota oratarara ere zabalduz. Ikastola ereduaren gorpuzketa etengabekoa izan da, eta honek ere eman izan dio ikastola mugimenduari gainerako eskola-sareekiko izaera propioa, hezkuntza-hornigaiak eta ezagutza Ikastolen Elkarteak berak sortu, praktikan jarri eta berriro egin baititu, ikastolak elkarrekin arituz, elkarri lagunduz eta nahi duten ikastetxe guztiei eskainiz.

Bi ildo hauek, era batera edo bestera, izan dira, badira eta, seguru asko, izango dira gerora ikastola mugimenduaren ardatz, haren misioan eta ikuspegian erabat txertatutik azaltzen baitira.

IKASTOLEN HEZKUNTZA-EZAGUTZAREN NORANAHIKO ZABALTZEA

Ikastola mugimenduak euskal lurraldeetan zehar izan duen eragina bistakoa bada ere, gaur egun dituen 100 ikastolatik gorako kopuruari begiratze hutsak ez du haren eragina behar den bezala erakusten. Publiko/pribatuaren inguru-



ko auzitik bereziki 1980tik 1993ko bitarte luze hartakoa etorri izan zaion “galtzea”, eta ikastola kopuruari dagokionez azken hamabost urteotan bizi izan duen hazkundera batuko bagenitu, ikastola mugimenduak eskola-mapan zenbat eragin duen agerian genuke. Gaur egun, ez Euskal Herriko mendebaldean, ez ekialdean, ez iparraldean, ezta hegoaldean ere, ezin da ukatu ikastola mugimenduaren eragina sekulakoa izan dela euskal lurraldeetan dagoen eskola-maparen ezaugarriei dagokienez.

Baina zenbaki eta kopuruek ematen duten argazki kuantitatiboa baino haruntzago bada besterik ere: Ikastolen Elkarteak eraiki dituen hezkuntza-berrikuntzen atzean egon den eta dagoen ezagutzaren transferentzia, hain zuzen. Hedapen hau, ordea, ez da Ikastolen Elkartearen barrura soilik egin, bestelako euskal ikastetxeetara eta euskal lurraldeetatik kanpoko beste eskola batzuetara ere heldu baita. Ikastolen Elkartearen bidez ikastolek eraikiak dituzten berrikuntzak hezkuntza-eragile askoren erreferentzia dira. Arrazoi horrengatik, bere berrikuntzen hedapen motagatik, Ikastola ereduaren gizarte-berrikuntzaren adibide paradigmaticoa da.

Ikastola ereduaren eta honen kudeatzaile den Ikastolen Elkartearen, biak ala biak, aurrera doaz. Hiru saiotan zehar (2008ko iraila, 2009ko urtarrila eta 2009ko uztaila) burutu zen Ikastolen VI. Batzarrak epe luzeko estrategia onetsi zuen, Ikastola 2020 deiturikoa. Hezkuntza-proiektuaren osagai guztiak hartzen ditu, bai curriculum eremuak, baita antolaketari dagozkionak ere, eta XXI. mendeko bigarren hamarkadan zehar ikastola mugimenduaren ibilbide-karta izan nahi du. Estrategi horren kudeaketa, Euskal Herrian zein lurralde administratiboetan (Frantzia, Nafarroako Foru Erkidegoa eta Euskal Autonomi Erkidegoa), oraindano bezala aldagai politikoen baitan egongo da, noski. Euskal Herrian unean uneko lotura politiko eta instituzional korapilatsu eta desberdinen arabera, alegia.







9.

BIBLIOGRAFIA

9.1. LIBURUAK

- ABASOLO, Resu; LOPEZ DE MUNIAIN, Juana; URBE, Arantxa: *Ilunetik argira. Elbira Zipitria*, Xangorin, Donostia, 2004.
- AGIRRE, Gorane: *BIE 25 urte*, Bizkaiko Ikastolen Elkarte, Bilbo, 2003.
- AMEZUA, Iñaki: *Mila esker andereño. Hastapeneko ikastoletan andereño ibilitakoekin solasean*, Ostoa, Lasarte-Oria, 2005.
- ARREDONDO, Joseba: *Asti Leku Ikastola. 1963-2003*. Asti Leku Ikastola Kooperatiba Elkarte, Portugalete, 2003.
- BEREZIARTUA, Mirari; ETXEZARRETA, Iñaki; GARAGORRI, Xabier; ORMAZA, Ruperto; SARASOLA, Santos: *Ikastola. Izaera eta egitura*, EHIK, Donostia, 1988.
- BORTAYROU, Jakes; ETCHEVERRY-AINCHART, Peio; GARAT, Maialen; LERALU, Claudine; LICHAU, Isabelle: *Le mouvement culturel basque. Filières bilingues*, Seaska, AEK, Elkar, Baiona, 2005.
- CASSAN, Patrick: *Francia y la cuestión vasca*, Txalaparta, Tafalla, 1998.
- CASTOREO, Patrick: *Langue basque et enseignement, en France, de 1789 à 1993*, Université de Pau et des Pays de l'Adour, Pau, 1993.
- EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN ELKARTEA: *Euskal Eskolaren diseinua. Eranskina. Estudio jurídico*, EHIK, Donostia, 1989.
- EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA: *Euskal Eskola*, EHIK, Bilbo, 1991.
- : *Euskal Curriculum: Kultur Ibilbidea. Herritik mundura eta mundutik berrira. Adituen ekarpena*, EHIK, Zornotza, 2004.
- : *Curriculum vasco: Itinerario Cultural. Desde lo particular a lo universal y desde lo universal a lo particular. Propuesta de los expertos*, EHIK, Zornotza, 2004.



- : *Curriculum Basque: Itinéraire Culturel. Du singulier à l'universel et de l'universel au singulier. Propositions des experts*, EHIK, Zornotza, 2004.
- : *Basque Curriculum: Cultural Itinerary. From the universal to the local and from the local to the universal. The experts' proposal*, EHIK, Zornotza, 2004.
- : *IKT Curriculum. Leben Hezkuntzarako proposamena*, EHIK, Zamudio, 2009.
- : *Derrigorrezko eskolaldirako ikastolen oinarritzko curriculum komuna, Ikastolen VI. Batzarra*, EHIK, Zamudio, 2009.
- : *Ikastolen Hizkuntz Proiektua*. EHIK, Zamudio, 2009.
- : *El Proyecto lingüístico de las ikastolas*, EHIK, Zamudio, 2009.
- EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA: *XXI mende basierako bizkuntza politikaren oinarriak: Euskara, XXI. mendeko bizkuntza bizia, egunerokoa eta noranabikoa: oinarritzko txostena*, Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Vitoria/Gasteiz, 2008.
- : *XXI mende basierako bizkuntza politikaren oinarriak: ekarpenak*, Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Vitoria/Gasteiz, 2008.
- EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA; EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA; KRISTAU ESKOLA; SORTZEN-IKASBATUAZ: *Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculum. Oinarritzko txostena. Curriculum vasco para el período de la escolaridad obligatoria. Documento marco. Curriculum basque pour la période de la scolarité obligatoire. Document cadre*, EHIK, Zamudio, 2005.
- FERNANDEZ, Idoia: *Oroimenaren hitza. Ikastolen historia 1960-1975*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 1994.
- GARAGORRI, Xabier: *Haurtxoa proiektua. Haur hezkuntzako bigarren zikloko berrikuntza proiektu baten ebaluazioa*, doktorego-tesia, EHU, Donostia, 1995.
- : *Euskal Curriculum berezia: hezkuntzaren berrikuntzan kokatutako oinarritzko diseinu curricularretik eratorritako Leben Hezkuntzako testuliburuaren azterketa*, ikerketa-proiektua, EHU, Donostia, 1996.
- GIPUZKOAKO IKASTOLEN ELKARTEA: *Gipuzkoako Ikastolen Elkarte: 25 urte*, GIE, Donostia, 1994.
- INTXAUSTI, Joseba: *Euskal eskolaren iraganaz. Historia baten bila: EHIHren proiektua (1990)*, Eusko Jaurlaritza, Vitoria/Gasteiz, 1991.
- IZENGABEA: *Ikastolak. Todo sobre las ikastolas*, 70. hamarkadan Euskal Herrian banaturiko liburuxka.
- LEKUONA, Iñaki: *Hezkuntza Proiektua: lanketa prozesua ikastolen esparruan*, doktorego-tesia, EHU, Donostia, 1999.
- LOPEZ-GOÑI, Irene: *Nafarroa Garaiko Ikastolen Historia*, doktorego-tesia, Euskara Kultur Elkargoa, Iruñea, 2002.

- : *Historia de las ikastolas de Navarra*, Euskara Kultur Elkargoa, Iruñea, 2007.
- SIADeco: *Hizkuntz borroka Euskal Herrian*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1979.
- UNCETA, A.: *La producción del sistema educativo en el País Vasco: la lógica público-privado*, doktorego-tesia, EHU, Leioa, 2003.
- ZENBAITEN ARTEAN: *Mikrofonora beldu nabirik. 25. urteurrena. Bizkaiko Eskolarteko Bertsolari Txapelketak 1984-2008*, Bizkaiko Ikastolen Elkarte, Bilbo, 2009.
- : *Prakamotxetan. Eskolarteko Bertsolari Txapelketak Gipuzkoan (1981-2005)*, GIE, Donostia, 2005.
- : *Atera da! Armentia ikastolak 15 urte*, Armentia Ikastola, Gasteiz, 2008.
- : *Euskal Batzar Orokorra. Congreso Mundial Vasco. 25 aniversario*, Eusko Jaur-laritz, Vitoria-Gasteiz, 1986.

9.2. ALDIZKARIAK, ARTIKULUAK ETA TXOSTENAK

- AMONDARAIN, Antton; ZALDIBIA, Emeterio: “Euskaraz Bizi: euskaren normalkuntzarako lan proposamena eta Laskorain ikastolan burutu-tako esperientzia”, *IX. Jardunaldi Pedagogikoak* (2002), 93-141.
- ASURMENDI, Mikel; ZUBIRIA, Pello: “Mixel Labéguerieren aroa. Iparraldeko gizartea 60-70 urteetan”, *Larrun*, Argia, 1.743 (1999).
- AUZMENDI, Nekane: “Lehen euskal udalekuak”, *Hik Hasi*, 75 (2003).
- ELEIZALDE, M.: “Ikastolak: Jainkoakin ala Jainko gabe?”, *Zeruko Argia*, 374 (1970).
- ELUSTONDO, Miel Anjel: “Izaskun Arrue, Arabako lehen andereñoa: Aurreneko manamendua: Euskal Herrian, euskara”, *Argia*, 1970 (2004).
- : “Saioka, urrats bat baino askoz gehiago euskarazko ikasmaterialetan” mahai-ingurua, *Ikastola*, 152 (2006).
- ETXEZARRETA, J. Iñaki: “Ikastola eredua”, *Auñamendi Eusko Entziklopedia digitala*, 2009.
- : “El modelo Ikastola”, *Auñamendi Eusko Entziklopedia digitala*, 2009.
- : “Les ikastoles, un nosaltres col·lectiu (I i II)”, *L'esclatxa*, 6-7 (2004-2005).
- : “Publiko-Pribatua eta Herritar bezkuntza”, *STEE-EILAS*, ale berezia (2000), 19-24.
- ETXEZARRETA, J. Iñaki; GARAGORRI, Xabier; ORMAETXEA, Felix; SERRANO, Julian: *Ikastolen normalizazioari buruzko oinarritzko gogoetak*, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastolen elkarteak, 1983.
- ETXEZARRETA, J. Iñaki; GARAGORRI, Xabier; OSORO, Iñaki: “Elebitasuna ikastoletan: egoera eta irtenbideak”, *Jakin*, 32 (1984), 37-70.

- ETXEZARRETA, J. Iñaki; GARMENDIA, María Carmen: “Las ikastolas ante su reconocimiento oficial”, *Auñamendi Eusko Entziklopedia digitala*, 2009.
- EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN ELKARTEA: *Ikastoletako ratioak. Egoeraren ikerketa eta etorkizunerako proposamena*, EHIK, 1991.
- : *Ikastolen 1987-1990 legealdia*, EHIK, 1991.
- : *Ikastolen 1990 eta 1991 ekitaldia*, EHIK, 1992.
- EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA: “Pedagogi Plan Nazionala. Txosten onetsia. Ikastolen III. Batzarra”, *Ikastola*, 62 (1997).
- : *Informe sobre las ikastolas*, EHIK, 1987.
- : “Bost urteko argazkia. Ikastolen IV. Batzarra”, *Ikastola*, 105 (2001).
- : *Ikastolen Plan Integrala (2002-2007)*, EHIK, 2002.
- : “Gaurko erronka: Curriculum. Ikastolen V. Batzarra”, *Ikastola*, 147 (2006).
- : *Ikastola. Imajina ezazu... nor garen*, EHIK, 2007.
- : “Ikastolen Plan Integrala. Konfederazioaren azken bost urteotako uzta 2003-04/2007-08”, *Ikastola*, 167 (2008), 3-15.
- : *Ikastolak. Orain eta gero*, Ikastolek baloratzeko eta hobetzeko proposamena, EHIK, 2008.
- : *Ikastolak, orain eta gero*, Ikastolen VI. Batzarra, 2009.
- : *Las ikastolas, presente y futuro*, VI. Congreso de ikastolas, 2009.
- FERNANDEZ, Idoia: “Urrutiko euskal eskola: Euskadi-Venezuela ikastola (1965-1986)”, *Hik Hasi*, 9 (1996).
- FERNANDEZ, Idoia; LOPEZ-GOÑI, Irene: “Euskal eskolaren bidean: ikastolen historia”, *Hezkuntzari buruzko teoriak eta erakunde garaikideak*, NUP, Iruñea, 2003.
- GARAGORRI, Xabier: “Ikastola hezkuntz eredu gisa”, *Eusko Ikaskuntzaren XI. Kongresua*, Eusko Ikaskuntza, 1992.
- : “Hizkuntza ereduak ikastolen ikuspegitik”, *Bat*, 60 (2006), 73-80.
- : “Derrigorrezko eskoladirako euskal curriculum eta testuliburuak”, *Jakin*, 153 (2006), 41-60.
- : “La autonomía desde el movimiento de las ikastolas”, *Autonomía institucional de los centros educativos: presupuestos, organización y estrategias (1994)*, 147-160.
- GARATE, Katixa; IRAZUSTABARRENA, Nagore: “1970-1979: euskal kultura ilusiotik zatiketara”, *Larrun*, Argia, 1.873 (2002).
- GONZALEZ, Aurelio; DORRONSORO, Jone: “Euskararen bilakaera Legazpin mendeetan zehar”, *Haztegi Ikastola 25. urteurrena 1967-68 1992-93*, Haztegi Ikastola, Legazpia, 1993.
- IPARRAGIRRE, Pilar; IRAZUSTABARRENA, Nagore: “60ko euskal kultura”, *Larrun*, Argia, 1.827 (2001).

- IZENGABEA: *Ikastolak Araban*, urte bereko maiatzean Euskal Herri osoko ikastolek Gasteizen egindako ezohiko batzarrari begira idatzitako txostena, 1977.
- : *Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Ifarraldeko ikastolen agiria*, Gasteiz, 1977.
- MARTIJA, Amagoia: “Historiako zertzeladak: Libe Goñi, Seaskako lehen irakaslea”, *Hik Hasi*, 66 (2002).
- MARTIN, Irida: “Hasieran norberak bere inguruan bilatu behar zituen sosak”, *Argia*, 1.824 (2001).
- MASA, Marce: “Ikastolas as social innovation phenomenon: a case study”, *Meanings and processes of social innovation*, University of Nevada, Reno, 2010.
- MATEOS, Txoli: “Ikastola edo eskola publikoa: euskal nazionalismoaren hautua (dokto-rego-tesia)”, 1999ko Euskal Gizartearen Egoera Sariaren akzesitaren irabazlea, *Soziologiazko Euskal Koadernoak*, 5 (2000).
- LARRESORO: “Euskalkietatik euskerara”, *Zeruko Argia*, 375 (1970).
- ZALOÑA: “Ikastolak eta irakasleak”, *Zeruko Argia*, 365 (1970).
- ZENBAITEN ARTEAN: “Gure ikastola”, *Jakin*, 6 (1972).
- : “Araba”, *Jakin*, 17-18 (1981).
- : “Ikastolatik eskola publikora”, *Jakin*, 28 (1983).
- : “Elehirutasun goiztiarra ikastoletan. Hamar urteko prozesuaren ebaluazioa (1991-2001)”, *Plurilinguismo y Educación en el País Vasco*, XX Cursos de Verano y XIII Cursos Europeos de la UPV/EHU, 2001.

9.3. DVDAK

- Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa: *Ikastolak eta euskal curriculuma*, EHIK, Zamudio, 2006.
- : *Euskal Curriculuma: Kultur Ibilbidea. Herritik mundura eta mundutik herrira. Adituen ekarpena. Curriculum vasco: Itinerario Cultural. Desde lo particular a lo universal y desde lo universal a lo particular. Propuesta de los expertos. Curriculum Basque: Itinéraire Culturel. Du singulier à l'universel et de l'universel au singulier. Propositions des experts. Basque Curriculum: Cultural Itinerary. From the universal to the local and from the local to the universal. The experts' proposal*, EHIK, Zornotza, 2004.
- GIPUZKOAKO IKASTOLEN ELKARTEA: *Gipuzkoako Ikastolen Elkarte* 2005/07/21, GIE, Donostia, 2005.
- ZENBAITEN ARTEAN: *Atera da! Armentia Ikastolak 15 urte*, Armentia Ikastola, Gasteiz, 2008.

